

## Amerikako Demokrazia I Alexis Tocqueville

### Hitzaurrea

Gaurko nazioek ezingo lukete beren baitan baldintza-berdintasuna eragotzi, baina beraien esku dago berdintasunak morrontzara ala askatasunera eraman ditzan, jakituriara ala barbarotasunera, oparotasunera ala miseriara"<sup>1</sup>.

Hitzaurre honetan ikusi ahal izango dugunez, Alexis de Tocquevilleren pentsamendua hertsiki loturik dago haren bizitzari, bai berari bai familiari gertatutakoari, eta hori dela eta, komenigarri izango da gogora ekartzea, laburki bada ere, garai hartako gertakizun eta datarik nagusienak:

1789: Frantziako Iraultza.

1793: Luis XVI.a gillotinatu zuten.

1794: Malesherbes eta haren sendikoak gillotinatu zituzten. Tocquevilleren gurasoak hamar hilabeteko kartzelaldiaren ondoren aske utzi zituzten, Robespierreraren erorialdiari esker.

1804: Napoleon I.aren koroatzea.

1805: Alexis de Tocqueville uztailaren 29an jaio zen, Parisen. jaio.

1814-15: Napoleonen lehen eta bigarren kanporatzea. Borboien itzulera.

1830: Uztaileko iraultza, Karlos X.aren erorialdia, Luis Felipe burges errege.

1831-32: Tocqueville eta Beaumont laguna Amerikan.

1836: *De la Démocratie en Amérique*, lehen liburua, argitara.

1840: Bigarren liburua argitara.

1848: Otsaileko iraultza, Luis Feliperen erorialdia; Tocqueville Batzar Nazionalako Konstituzio batzordekide izendatu zuten.

1849: Ekainetik urrira Tocqueville kanpo-arazoetako ministro izan zen.

1851: Napoleonen estatu-kolpea. Tocquevilleren ibilbide politikoaren amaiera.

1859: Tocquevilleren heriotza, Cannesen, apirilaren 4an<sup>2</sup>.

1. Badirudi mende eta milurteko honen amaieran osoki murgildurik gaudela aldaketaren zurrunbiloan. Badirudi, baita ere, gure zibilizazioak, gure garaiak, gizakiari ezinbestekoa zaion aldakortasuna eta aldaketa bera bihurtu dituela gizartearen eta kulturaren ardatz eta gune.

Honelako garaietan klasikoetara itzultzea inoiz baino beharrezkoago gertatzen da. Bai, merezi du Klasikoak berriro hartzea; baina ez, atzera itzultzea litekeen gauza balitz bezala, baizik eta aldaketaren zurrunbiloak sortzen duen iluntasun eta egonezinaren aurrean argi izpiren bat aurkitzeko eta heldulekuren bat izateko esperantzan.

Gaurkoan, "Pentsamenduaren Klasikoak" bildumaren eskutik datorkigun pentsalaria Alexis de Tocqueville da, bai eta hain ezaguna den, edo gutxienez hain entzuna den, *De la Démocratie en Amérique* haren lana ere euskaraz. Eta arestian aipatu dudan gure egunotako aldaketa-sentipenaren eta klasikoetara itzultzearen loturaz beste, oraingoan euskaraz eskaintzen zaigunak badu gaurko denborekin lotura berezi bat. (?)

Alexis de Tocqueville garai nahasi batean jaiotakoa da. Bera jaio baino urte batzuk lehenago gertatu zen 1789ko Iraultza eta erregeri burua moztea; bizitzan zehar bi iraultza eta aldaketa politiko ugari ezagutu zituen, eta horrekin guztiarekin batera gizartean bideratu eta burututako aldaketa sozial ugari: ez Frantziarentzat bakarrik

baizik eta Europa osorako sakonak izan ziren aldaketak. Eta aldaketa horiei eman beharreko erantzunak, aldaketa horien aurrean hartu beharreko jarrerak izango dira Tocquevilleren pentsamenduaren gai nagusiak.

Gaurko denborei dagokienez, hainbat pentsalarik modernitatearen krisia aipatzen dute; eta modernitatea bultzatu eta eragin duten faktoreak aztertu dituzte, baina baita bilakaerak berak eragin dituen ondorio txarrak ere, eta deskribatu eta gaitzetsi dituzte, besteak beste, balioak galtzea, komunitate-zentzu falta, orientazio-gabezia, gizabanakoek euren identitatea osatzeko dituzten zailtasunak, e. a.

Adibidez: "Gizarte modernoak eragindako zentzu-munduen anizteak (?) ekarri du oso zail izatea nolabaiteko ziurtasuna lortzea, eta ez bakarrik maila erlijioso eta moralean baizik eta baita gizabanakoaren identitateari berari dagokionez ere"<sup>3</sup>.

Tocquevilleri gagozkiolarik, azpimarragarria iruditzen zait gaurko egoeraren aurrean antzeman daitekeen zalantzazko jarrera, elementu positiboan ondoan ondorio negatiboak ikustea, atzera bidea ezinezkoa dela onartzea, eta une berean garai batekoak bailiran ikusitako zenbait egoera galdu izanaren arrangura: azpimarragarria eta esanguratsua Tocquevilleren beraren jarrera eta egoera deskribatzen direla dirudielako.

Jar dezagun beste adibide bat: "Bergerrek eta Bellek gizarte aurreratuak kritikatzin dituzte, eta horretarako aurrez aurre jarri eta konparatzen dituzte gizarte aurreratu horien balioak, esperientzia eta pentsamendua, batetik, eta aldaketa ekonomiko eta teknologikoek hutsal bihurtu duten mundu premodernoan *ustez* nagusi zirenak, bestetik.

. Plantea daitekeen arazoa, ez bakarrik Bergerri eta Belli, baizik eta soziologo klasiko guztiei, honako hau da: bi garaiak konparatu eta ateratzen dute gizarte modernoetan ematen den desintegrazioa eta aniztasuna: baina, gizarte premodernoan kontatzen diguten bezain integratua zen? Bergerren eta Bellen lanek --klasikoek bezalaxe-- ez al dute oinarrian ikuspegi idealizatuegi industriaurreko mundua ikuspegi gehiegi idealizatu bat, eta horrekin batera murgilduta gauzkan aldaketa bizkorren beldur den historiaren ikuspegi bat? (Era guztietara esan beharra dago hala izanda ere Berger eta Bellek burutzen duten gizarte gaitzen diagnostikoa zuzena dela)<sup>4</sup>.

Aipamen horretan Berger eta Bell izenak kendu, eta Tocqueville jarriko bagenu, zentzu guztia gordeko luke, eta baliozko izaten jarraituko luke aipamenak. Hitzaurre honetan zehar ikusi ahal izango dugunez, Tocquevillerekin gauza bera gertatzen da. Demokraziaren aitzindari eta babesle gisa da Tocqueville ezaguna. Baina bere bizitza eta bere lanak zehaztasunez aztertzen badira, bere garaiko aldaketen, iraultzen, bilakaeren aurreko bere jarrera alde bakarrekoa ez dela argi ikusten da, konplexua eta matizatua baizik, alde on eta ezinbestekoak ikusteko gai dena, eta baita arriskuak ere garbi ikusten dituen.

*De la Démocratie en Amérique*, Tocquevilleren hain sona handiko lana euskarara itzulita egokiera ezin hobean datorkigu, gure nahasmenduen artean argi egiteko lagungarri gerta baitakiguke.

Tocquevilleren pentsamendua, beraz, bere garaiko gertakizunekin, bere familiaren esperientziekin eta bere bizitzakoekin hain hertsiki loturik dagoenez gero, jo dezagun bere jatorria, labur bada ere, aztertzea, zeren oinordeko den jakin ahal izateko, eta zer bizi izan zuen ezagutzeko.

## **2. Alexis de Tocquevilleren jatorria eta giroa**

Hitzaurrean hasieran aipatu denez, gure autorea 1805. urteko uztailaren 29an jaio zen. Bere jatorria Normandiako familia noble batekoa da. Jatorriz bere familia izena Clérel da, Tocqueville izena eta jabegoa 1661ean bereganatu zutelarik. Nobleziako jatorri hori nekazari giroko noblezia txiki girokoa da, Pariseko gortetik urrun, eta erregeren botere zentralaren aurkako oposizioan ohitutakoa.

Ezagutzen da bere aurreko batek 1574an Rouengo batzarrean esandakoa "Noiz arte hitz zuriek balio behar dute, erregeri esaten diotenak ez dagoela legeetara lotuta, ezta bere gantzu egunean eman zuen zinari, ezta bere menpekoekin dituen hitzarmenen betetzeari?".

Tocquevilleren jatorriaz ari garelarik azpimarratzekoa da sinesmenak haren familian izandako garrantzia. Bera amonak seme bakarra izan zuen Hervé (Alexisen aita), eta haren heziketa Lesueur apaizaren esku jarri zuen. Apaiz horren gurasoen etxean aurkituko du Alexisen aitak iraultza garaian babes. Eta ondoren berriro Tocqueville familiara itzuliko da Lesueur apaiza Hervéren hiru semeen heziketaren ardura bere gain hartzeko.

Hiru anaiatzat aita bat bezalakoa izan zen. "Bebé" deitzen zioten. Bera izan zen gainera Alexis, familia tradizioan ohikoa zen militar lanbidera bultzatu beharrean, ikasketetarako prestatzeko aholkua eman zuena.

Lesueur apaizak gorpuzten du Tocqueville familian sinesmenak izandako jarraipen indarra, ilustrazioak eta iraultzak eragindako hausturarik gabe, eta horregatik ondorengo berreskuratze erromantikorik gabe.

Era guztietara, Alexis de Tocquevilleren jatorrizko giroan bereziki azpimarratu eta aztertu behar den pertsonaia Malesherbes izeneko gizon bat da. Ezkontza bidez sartzen da Alexisen aita, andrearen amaren bitartez, Malesherbes familian. Alexisen aita umezurtz izanik, eta Malesherbesek alabak besterik ez izanik, bera suertatzen da gizonezko oinordekoa, eta horrela *noblesse d'épée* jatorrizkoak direnak *noblesse de robe* delakoan itsasten dira.

Bi bidetatik datorkio garrantzia Alexisen berraitonari bere bilobarentzat: Malesherbesek gorpuzten duen izaera eta pentsaera tradizioagatik batetik, eta bere bizitzako gertakizunengatik bestetik. Eta bi sustrai berdinetik sortzen dira.

Malesherbes familia parlamentario tradiziokoa da, parlamentarioak Frantziako epai-ganbara subiranotako, parlamentuetako juristak ziren. Ezagunena Montesquieu, eta Malesherbesek harengandik hurbil ikusten du bere burua. Epai-ganbara horietako parlamentario edo juristek zuten helburu nagusia zera zen, beraien eskubideekin eskubide subiranoa koroaren botere absolutuaren eta bere zerbitzarien borondatekeriaren aurka defendatzea.

Epai-ganbara horiek dira, irauten duten bitarteko botere bakarrak, nagusitu den monarkia noblezia, probintziak, hiriak eta ofizio elkarteak mendean hartu ondoren, hau da: erregeren eta mendekoen artean ez da, epai-ganbara horietaz beste, inolako bitarteko aginterik gelditzen. Epai-ganbara horiek ziren erregeri gogor aurre egiten zioten bakarrak "Tradiziotik jasotako Parlamentuen (epai-ganbaren) eskubide eta askatasunen inguruko borroka hori da, subiranoaren mugarik gabeko boterearen aurkako nazioaren borroka alegia, Malesherbes familiak belaunaldietan zehar ausardiaz eta makurtu gabe borrokatzen duena, Iraultzaren izuan antzinako askatasunaren eta bere, Malesherbes familiaren, desagertzeraino"<sup>6</sup>.

Malesherbesek, beraz, bere familiaren tradizioari jarraiki erregeren botere mugagabearen aurka egingo du, antzinako eskubide eta askatasunak defendatuz, bitarteko botereek (*pouvoirs intermédiaires*) eskaintzen dituzten garantiak defendatuz, horien erreforma proposatuz beharrezkoa iruditzen zaionean, beti ere askatasunaren alde, eta ez bere posizio sozialaren defentsan.

Askatasunarekiko atxikimendu horrek eramango du tronutik kendutako errege defendatzera, zeinen mugagabeko boterea kritikatu zuen lehenago, eta zeini iragarririk zion sarritan tronua galduko zuela beharrezkoak ziren erreformak burutu ezean. Orain, ordea, mugagabeko boterea iraultzak sortutako Batzar Nazional "absolutuan" dago, eta

berri ere askatasuna defendatu beharrean aurkitzen da, tronurik gabeko errege eta bere sendia defendatuz.

Arrazoi horrengatik kartzelaratuko dute, beste zortzi senitartekoekin batera. Lau hilabeteren buruan moztuko diote burua. Alexisen gurasoak sei hilabete beranduago utziko dituzte aske, Robespierrenen jauziaren ondorioz.

Askatasuna defendatzeagatik berdintasunaren zurrumbiloan bizia galdu zuen etxeko patriarkaren irudiak eta adibideak, gurasoen ahotik zuzenean jasotakoak, eragin izugarria dute Alexis de Tocquevilleren jarreraren eta pentsamenduan.

Azken aipamen bat Malesherbesen eraginari dagokionez: bere askatasunaren aldeko ahaleginetan, erregeren mugagabeko boterearen aurkako ahaleginetan ez da gelditzen mugagabea den boterea mugatuko duten bitarteko botereen defentsan. Urrats bat aurrerago emanez, eta hiritarren partaidetza aktiboa suspertzeko asmoz, tokian tokiko administrazioa eta deszentralizazioa bideratzea guztiz beharrezko iruditzen zaio, absolutismoaren zentralizazioa eta baterakeriaren aurka.

Malesherbes beraren eta berak gorpuzten duten tradizioaren eragina ezagutzea ezinbestekoa da Alexis de Tocqueville ulertu ahal izateko. Hainbatek aitaren eragina ere aipatzen dute, Baina semearen askatasunaren aldeko jarrera aitaren kontrako jarrera bezala ulertuz.

Jadanik aipatu dugun Otto Vosslerrek bere Tocquevilleri buruzko lan bikainean bestela dela uste du. Bi gutun aipatzen ditu horretarako: 1830eko uztailera iraultza hasieran aitak semea idazten dio, lasai eta arretaz jokatzeko aholkatuz, bere lanbidea arriskutan jarri gabe, eta semeak aitari idazten dio, lasai eta arretaz joka dezala, arriskutan ibili gabe. "Bakoitzak bestearen aholkua jarraitzen du. Antza denez, elkar ezagutzen dute, eta elkar ulertzen, eta ez dirudi belaunaldi arazorik dutenik"<sup>7</sup>.

Alexisen aitak bere lanbide politiko guztia errestituzio garaiko Karlos X.aren zerbitzuan burutu zuen. Errege horren jauziaren ondoren bizitza publikoari uko egiten dio eta ez da Luis-Felipe errege burgesaren zerbitzutan jartzen.

Semearengan izandako eragina puntu bakar batera mugatuko dut. 1829. urtean idazkitxo bat argitaratzen du Hervé de Tocquevillek: *La Charte Provinciale*. Idazkitxo horren helburua zera da: urte hartan Pariseko diputatuen ganbaran hiri eta departamenduetan berezko administrazio bat sortzeko, hiritarren boz-emate orokorra sartuz, proposamen bat eztabaidatzen da. Alexisen aitak proposamenaren alde hartzen du parte bere idazkitxoan, Pariseko Batzar Nazionalerako bozketa eskubide zabaldua eskatzen zuten liberalen aurka, baina baita proposamena demokraziari amore ematea zela uste zuten erregezaleen, eta errege beraren, aurka.

Alexisen aitaren jarrera horretan zailtasun handirik gabe agerian ikus daiteke Malesherbesen *pouvoirs intermédiaires* zirenaren defentsaren distira garbia. Eta Alexisek berak amerikar demokraziari buruzko lanean agerian jartzen duen tokian tokiko arduralaritzaren goraipamena tradizio berdinean kokatzea ezinbesteko gertatzen da.

Otto Vosslerrek honela laburtzen du Hervé de Tocquevilleren pentsamendua. Harentzat "... eguzki-erregeren garaietatik jarraipenezko askatasun arrasto bakar bat doa (bere) egunetarraino, izuak (terroreak) eta Napoleonen botereak bakarrik hausten duena, hau da berdintasunak, zeinek 1830.ean berri askatasuna mehatxatzen eta ahuldu egiten duen"<sup>7</sup>.

Alexis de Tocquevillek Lesueur apaizaren gidaritzapean etxean burutzen ditu lehen ikasketak, hizkuntzetara zuzenduak. Aitaren lanbidea zela eta (prefektu departamendu ezberdinetara), Metzen egiten du *Lycée* garaia. Gero Parisen prestaketa juridikoa, horrela famili tradizioari jarraituz, bai prestaketari, bai lanbideari dagokienez.

Bere ikasketa denboran aipamen berezia merezi du Guizotek berarengan izandako eragina. Guizotentzat, bere garaiko historiografian ohikoa zenez, hau da, historia joera

orokorrak aurkitzeko asmoz aztertzea, historia aurrerabide garbi bat da, eta aurrerabide horren muina burgesiaren garaipen eta nagusitze bidea da, historian agintzen duten derrigorrezko legeen arabera.

Guizoten historia ulermen horrek Tocquevillengan eraginik badu ez da zerbait berria ikasten duelako, esperientziaz eta tradizioz dakien zerbait argi eta garbi formulaturik ikusten duelako baizik. Alexis de Tocquevillek badaki bilakaera historikoan burgesiaren nagusitzea eta horrekin demokraziaren eta berdintasunaren garaipena ezinbestekoak direla. Baina Guizotek burgesiaren garaipena bera den burges baten ikuspuntutik baloratzen du, eta baita berdintasunaren nagusitzea. Tocquevillek aldiz ezinbestekoa onartzen dakien, baina sufritzen duen, aristokrata baten ikuspuntutik.

Tocquevillek, bera, bere familiaren tradizioetik jasoko ditu bai askatasunaren defentsarako atxikimendua, baita berdintasunaren ezinbestekotasunaren eta arriskuaren konbentzimendua.

### 3. Demokrazia Amerikan. Amerikako Demokrazia

Labur bada ere, aipatu ditugu Tocquevillek *De la Démocratie en Amérique* idazterakoan izandako eraginik nagusienak. Erakutsi dugu bere eta beren familiaren esperientziak zuzenean duela zerikusia Tocquevilleren pentsamenduzko jarrerekin. Bere bi esaldi ekar daitezke gogora pentsamenduzko jarrera hori argitzeko. Behin baino gehiagotan aipatzen du, batetik, berdintasunaren indarraren aurrean *terreur religieuse*, erlijiozko izua sentitzen duela. Bestetik berriz, aitortzen du grina bat bestetik ez duela, giza askatasunaren maitasuna.

Askatasunaren defentsa da bere helburua. Badaki, edo sinesten du, ordea, berdintasunaren gorakada eta nagusitzea geldiezinakoa dela. Horregatik esango du buruz demokrata dela, senez berriz aristokrata. Bien arteko harremana izango da bere bizitzako galdera. Zenbateraino berdintasunak, hau da, demokraziak ezabatzen du askatasuna, nola gorde era ziurra daiteke askatasuna berdintasun indarren garaipen bidea onartuz?

Honela dio bere lanaren amaiera aldera: "Argitan jarri nahi izan ditut berdintasunak giza independentziarentzat dakartzan arriskuak, uste sendoa baitut arrisku horiek direla handienak, baita etorkizunak ekar litzakeenen artean gutxien espero litezkeenak ere. Baina ez dut uste gaindiezinak direnik"<sup>9</sup>.

Esan gabe doa Tocquevillerentzat demokrazia eta berdintasunaren gailentzea gauza bat eta bera direla.

Beharrezkoa da, beraz, bere hain ezaguna den lan horretara interes zuzenarekin hurbiltzea. Eta interes hori zuzena izango da bere bidaiaren arrazoiaren antzeko baldin bada.

"Horretarakoxe iruditzen zaio aukera eta beharra etorriak direla uztailera (1830) iraultzarekin. Bada berrogei urte Frantziak bere iraultza lortzeko erresistentziaren ahaleginak porrot egin du. Bere garaian iraultzak errepublika ekarri zuen, eta errepublikak morrontza: aurrea terrorearen mugagabeko boterearen menpean, gero Napoleonenean. Iraultza berriak, legimititatea ondoratzen duenak eta herriaren burujabetasuna oihukatzen duenak, berriro errepublika ekarriko duela gauza jakina zaie bi lagunei (Tocqueville eta Beaumont), baina ez beraiei bakarrik. Bilakaera horrek berriro eta ezinbestean morrontza ekarriko du, edo badago hori txuliatzeko itxaropenik, aukerarik, eta zein izan daiteke aukera hori? Mehatxuz datorren gaitzari aurre egin nahi dionak galdera honi ezin diezaioke inon munduan erantzunik hobeto bilatu amerikar batasunean baino, jadanik errepublika bat dena, aurki Frantzia izango den bezala, eta hala eta guztiz ere askatasuna gorde duena. Han ezagut daiteke, beraz, etorkizuna, edo Frantziarena litekeen etorkizun bat, ezinbestean errepublika izatera

doana, han ezagut daitezke arriskuak eta baita hala eta guztiz ere askatasuna salbatzeko aukerak, bitartekoak eta esperantzak.

Horiek dira, beraz, Amerikara joateko Tocquevilleren erabakirako elkarturik jotzen duten arrazoiak<sup>10</sup>.

1831-1832. urteen bitartean Tocqueville eta haren laguna Beaumont bederatzi hilabetez amerikar batasunean izango dira. Azaleko arrazoiak bertako kartzela-sistema aztertzea izango da. Baina funtsezko arestian aipatutakoa da. Amerikar batasuneko eraketa politikoa, funtzionamendua, gizartearen izaera eta abar aztertzerakoan bere familia esperientziak eta Frantziako bilakaera izango ditu gogoan.

Kritiko bat baino gehiago izan da Tocquevilleren lan nagusia nahiko zorrotz salatu duena, esanez ez duela orduko amerikar batasunaren egoera zuzen eta egoki berrispilatzen, hainbat gauza alde batera uzten dituela, eta beste hainbaten interpretazioa ez dela zuzena.

Kritika horrek badu arrazoirik, neurri batean. Baina Tocquevilleren oinarritzko asmoa ez du ulertzen, ez baitzuen amerikar demokraziaren azterketa bat burutu nahi izan, ezta amerikar demokraziaren iturri historikoak. Bere lanaren izenburua ez da "Amerikar Demokrazia", "Amerikako demokrazia" baizik.

Bere galderak ditu gidari eta Frantziako bilakaerak eta egoerak sortarazten dizkion kezkak. Bere esperientziak eta bere familiaren tradizioak erakusten diote askatasunaren eta berdintasunaren artean kontraesan bat dagoela. Eta kontraesan hori amerikar batasunean nola bideratu duten galdetzen du, oharkabe amerikarrentzat biak jatorrizko direla eta biak elkarrekin normaltasun osoz bizi dituztela.

Garrantzizkoa da, beraz, "Amerikako demokrazia" behar bezala ulertu ahal izateko, esan nahi duenaren muinaz jabetzeko, aipatu berri dena oso kontutan izatea: amerikar batasunaz hainbat da Frantziari buruzkoa lan hori, eta argibide horretan bakarrik uler daiteke. "Ez du historialari lez idazten, ezta soziologo moduan, arduraz beteriko hezitzaile eta igarle politiko bezala baizik, eta horrela nahi luke, bera eta bere lana, epaitua izatea"<sup>11</sup>.

Amerikar batasuneko gizartea lehendabizikoz topatzerakoan bere barruan sortuko diren sentimenduak berdintasunari dion izua sendetsiko dute. Amerikar gizartean ez du ezer bikainik aurkituko, ez onerako eta ez txarrerako. Amerikarrek ez dute edukaziorik, arte ederretan ez daukate zer erakutsirik; gusturik gabekoak, formaziorik gabekoak direla iruditzen zaio. Eta hori guztia berdintasunaren ondorio da.

Hala eta guztiz ere badu Tocquevillek apaltasunik aitortzeko, edozein gizarte mailatan aurki daitekeela norengandik ikasi.

Zer da berdintasuna Tocquevillerentzat, eta nola oinarritzen du bere nagusitze indar historikoa? Berdintasunak zer ukatzen duen aipatuz deskriba daiteke ondoenik berdintasuna zer den. Lehenik: gizarte feudaleko diferentziak eta berezitasunak ukatzea, nobleziaren eta hirugarren estatuaren, burgesiaren arteko hurbiltze-prozesua.

Bigarrenez: berdintasuna ekonomi mailan, jabegoari eta diru-sarrerari dagokienez; gizarte-mailan, posizioari eta errespetuari dagokienez, politika arloan, aginteari dagokienez, kultura mailan formazioari dagokienez.

Hirugarrenz: desberdintasunak batz besteko aritmetiko orokorra esan nahi du, indarririk gabeko erdibidekotasun unibertsala.

Berdintasun hori ez da bere iritzian une historiko batean kasualitatez agertzen den zerbait, gizaldietan zehar ezinbestean, Jainkoak hala nahita, bideratzen eta nagusitzen joan den indar historiko bat baizik. Harrigarria ere gerta daiteke hain askatasun zale den norbaitengan historiaren baitako horrelako determinismo bat onar dezakeela ikustea. Eta Tocquevillek berdintasunaren nagusitze bide historikoa deskribatzen du. Ez du, ordea, jakituria historiko horretatik erakartzen

berdintasunaren derrigortasuna. Alderantziz: bere familiaren eta bere bizi esperientziaren baitan moldatutako berdintasunaren aurreko erlijiozko izua historiara proiektatzen du. (Honela dio Alain Tourain-ek: "Aurrerabidearen ideia orokorraren aurkezpena amaitzeko, beharrezkoa da historiaren filosofia aurrerazale honi errebeldia eskaintzen dion norbaiten irudia aipatzea. Ez dut Tocqueville baino interesgarriagorik ezagutzen. Lehen begirada batean badirudielako berarentzat ere historiak zentzu bat duela: ezinbesteko behar bat da, naturala, aristokraziatik demokraziara daramana, ezberdintasunetik eta klaseen eta taldeen arteko hesietatik balditzen berdintasunera, eta hori ez da horrenbeste diferentziarik eza, mugikortasunari hesiak kentzea baizik"<sup>12</sup>.

Tocquevillek badaki atzera biderik ez dagoela, badaki berdintasunaren garaipen bideari ezin zaiola langarik jarri. Ez da hori behin ere bere aholkua izango. Atzera biderik ez dagoenez gero, bere ardura askatasunari ezinbestekoa iruditzen zaion berdintasunaren abiada historikoan nahikoak liratekeen garantiak ziurtatzea izango da. Beraren iritzian arazoa ez da aristokraziak ala demokraziak irabaziko duen, baizik eta demokrazia nagusitzen denean nahiz eta poesia eta handitasuna galdu, ordena eta morala bere izango dituen gizarte bat egongo den ala ez da arazoa, demokraziarekin hutsaldutako eta morrontzarako prest dagoen gizarte bat sortuko den ala independentzia gordetzen jakingo duena.

Zein dira, beraz, Tocquevillek amerikar demokrazian aurkitzen dituen ezaugarriak, bere helbururako egokiak direnak, hau da, demokraziak dakarren berdintasuna nagusi izan arren gizarte libre, aske bat ziurtatzen dutenak? Nola liteke aske izan berdintasunean, nola askatasuna *demokrazian*?

Azter dezagun, beraz, eta modu oso laburrean, zein diren amerikar batasunean aurkitu dituen eta bere kezkak lasaitzeko gaitasuna izan dezaketen askatasunaren garantiak.

Tokian tokiko autogobernua da lehendabizi aipatu beharrezkoa. Horren barruan epaimahai erakundea ere aipatu beharra dago. Erlijioaren funtzioak amerikar gizartearen Tocquevilleren arreta berezia merezi izan zuten. Erlijioaren funtzioarekin batera doa hiritarren duintasun morala. Prentsa-askatasuna, tolerantzia eta koalizio-askatasuna, hau da, elkarteak sortu eta elkarteetan partaide izateko askatasuna. Eta azkenik amerikar konstituzioan aurkitzen diren neurriak, sistema errepresentatiboa, bi ganbaren sistema, zeharkako hautaketa eta arrakastatsua den federazio-sistema.

Lehendabizi tokian tokiko autogobernua aipa da. Ez da batere harritzekoa Tocquevillek elementu hori hain sutsu azpimarratzea berdintasunean askatasuna bermatzeko garrantzizko neurri bezala, Malesherbesen *pouvoir intermédiares* zirelakoan defentsaren tradizioan egonik, eta "Charte Provinciale" txostenaren idazlearen seme izanik.

"Ingalaterra Berriko *township*-etan ezagutzen denak honako konbentzimendura darama: askatasun eskubidea eta ordena posible direla nahiz eta herri subiranotasuna egon, berdintasuna, demokrazia eta errepublika. Ez bakarrik nahiz eta horiek egon, baizik eta beraingatik. Deszentralizazioa eta tokian tokiko autogobernua ikusten ditu berak ustez elkartu ezinezkoak elkartzeko salbaziozko aukera bezala"<sup>13</sup>.

"Eta Tocquevilleren beraren hitzetan jartzeko: "Ingalaterra Berriko biztanlea bere udalerriari atxikitzen zaio, indartsu eta independentea baita; interesatu egiten da, zuzentzen parte hartzen du eta; maitatu egiten du, ezin delako bere zoriaz kexatu; bere gutizia eta etorkizuna jartzen ditu bertan; udal-bizitzako gorabehera guztietan nahasten da; bere irispidean dagoen esparru murriz horretan, gizartea gobernatzen saiatzen da; forma batzuetara ohitzen da, horiek gabe askatasunak iraultzaka jokatzen duelarik, eta berorien izpiritua barneratzen du, gustu hartzen dio ordenari, botere-harmonia ulertzen du eta ideia argi eta praktikoak lortzen ditu bere betebeharren izaeraz, baita bere eskubideen hedaduraz ere"<sup>14</sup>.

Tocquevillek pentsatzen du amerikar batasunak erakusten duela gobernurik gabe bizi daitekeela. Tokian tokiko autogobernuak hiritar bakoitzaren partaidetza ahalbideratzen du, hiri-batzarretan. Demokraziaren eskola horretan ikasten du bakoitzak komun dena norberaren arazo bezala ikusten.

Epaimahai erakundean berriz, probetxu polito handia ikusten du eskubidearekiko errespetuan hezten laguntzen duelako, eskubidearen eta eskubidearen garrantziaz jabetzen joateko laguntzen duelako, eztabaida publikoak ahalbideratzen dituelako, eta horren guztiaren bitartez despotismoa ezinezko egiten delako.

Erlijioaren garrantziari dagokionez argudio zuzena da: askatasun-jarduera berdintasunean, demokrazian ahalezko da balore moraletan bermatutako hiritarrak dauden heinean, eta horretarako erlijio ezinbestekoa da. Honela dio A. Touraineek "(...) izan ere, Tocqueville berdintasunaren garaipenaz konbentzitutako post-iraultzaile bat baldin bada ere, ez dabil neurri txikiagoan masa (talde) gizarteari eta horren ondorio arriskutsuenari, boterearen pilaketari, aurre egiteko gai den indar baten bila. Eta indar hori ohituretan aurkitzen du, eraketa ekonomiko eta gizartezkoari ezartzen zaion ulermen erlijioso eta moral batean beraz..."<sup>15</sup>.

Prensa-askatasunari begira norbanakoaren eskubideen eta askatasunaren defentsarako garrantzizkoa iruditzen zaio, aristokrazia-garaiko garantiak ezabatuak izan direnean norbanakoari prentsaren bitartez gizarte guztiari bere arazoak aurkeztea gelditzen zaio. Horretarako da garrantzizkoa prentsa-askatasuna, norbanakoari berdintasunaren ondorioz gertatzen den isolamendua bere eskubidea eta askatasunaren defentsarako bitarteko bezala.

Elkarteak sortzeko eta berorietan partaide izateko askatasunak garrantzi izugarria du Tocquevilleren ustetan askatasunaren babesteko. Amerikar batasunean, edozein arazo azaltzen denean berehala arazo horri erantzun bat emateko eta konponbidean jartzeko elkarte bat sortzen dela ikusten du Tocquevillek. Elkarte bizitza bizi horretan arazo publikoak norberaren arazo bihurtzeko gaitasun ikusten du, eztabaida eta partaidetza publikoa pizteko eta bultzatzeko, eta horrela agintea eta boterea mugatzeko.

Eta azkenik sistema federala, boterea zatitzea eta mugatzea, botere eta aginte-gune asko sortzea, tokian tokiko erakundeetatik sortzen doazen zirkulu zabalagoak, eta guztien arteko lotura eta elkarren mende egotea: historian ezinbestekoa bilakatuko den berdintasunak ekarriko duen edo ekar lezakeen boterearen pilaketa eta despotismoari aurre egiteko eta askatasuna bermatzeko mekanismo egokiak, beharrezkoak, aproposak. Tocquevillek aurkitu du bilatzen zuena. Berdintasunak sortzen dion izua baretzeko askatasunaren garantiak bizi-bizian ikusten ditu amerikar batasunean. Egia da amerikar gizartearen izaerari dagokionez eta baita amerikar gizartek bere buruari politika mailan emandako erakundeen deskribapenean garrantzizko hainbat elementu baztertzen dituela. Baina *De la Démocratie en Amérique* liburuan oinarritzkoa Frantziak sortzen dizkion kezka eta ardura da. Eta arazo honi erantzun ahal izateko baliozko zaiona jasotzen du, gainerako guztia alde batera utziz. Bere arazoa berdintasuna ezinbestekotzat onartu arren askatasunari garantiak nola eman da, eta honi erantzuten dio lan guztiak.

4. Hitzaurre honi amaiera emateko zilegi bekit gai orokor batzuen inguruan komentarioren bat edo beste egitea, Tocquevillek bere arazoari erantzuteko amerikar batasunean aurkitzen dituen elementuak ez ditu ulertzen bere izaera konkretuan, bere bilakatzen historikoan, baizik eta maila orokor eta abstraktu batean jarritz.

Bere asmoa zer zen ikusita, bere galderak nolakoak ziren ikusita eta zer erantzun bilatzen zuen gogoan izanda, erraz uler daiteke Tocquevillek horrela jotzea. Amerikar batasunean aurkitzen ditu askatasuna bermatzeko garantiak eskema logiko baten ondorio baliran ulertzen ditu, bakoitzak bere kokapen historikoa duela bazterrean utzirik. Bere helburuaren arrazoiz gertatzen da hori.



Bestela Alexis de Tocquevillek duen askatasunaren ulermena guztiz esperientziazkoa da, bizitzari dariona, bilakaera historiko baten emaitza bezala jasotakoa, eta ez abstraktua, teorikoa. Bere jatorrian Malesherbes aipatu dugu. Hark ez zuen askatasunari buruzko tratatu teorikorik idatzi, bere tradizio historikotik ezagutzen zuen askatasuna edozein botere absoluturen kontra.

Modu berdinean zaio ezaguna askatasuna Tocquevilleri. Bizitako zerbait da, ez teorian azaldu beharrekoa. Eta bizitako ondasun preziatu hori berdintasunaren erasoen kontra ziurtatzea da bere grina nagusia, eta frantsesei ziurta daitekeela erakustea, amerikar batasunean berdintasunaren eragina guztizkoa izanik, askatasuna bermaturik duten bezala.

Bere Pariseko ikasketa garaian Rousseau irakurri zuen, berarengan eragin handirik izan ez zuela dirudien arren<sup>16</sup>. Era guztietara berdintasunari dion "erlijiozko izua" Rousseuren "borondate orokorrak" izan dezakeen ondorio batekin loturik dago. "Borondate orokor" hori herriaren subiranotasunaren adierazle den bezala izan baitaiteke despotismoaren iturri. Hara zer dion A. Tourainek: "Etenaren eta subjektibitatearen gaiak (Hegelengan) ez darama nagusien eta morroien arteko borroken gaira, baina bitartean osotasunarekiko deia edota *Rousseuren borondate orokorraren oinordeko den botere absolutu batean sorreran...*"<sup>17</sup>.

Tocquevillek onartzen du aristokraziaren eta burgesiaren arteko ezberdintasunak ezabatuz joango direla. Historiaren erremediorik gabeko joera dela hori uste du. Ez du eskatzen horien aurka ezer egiteko. Bai ordea, askatasuna gordetzen saiatzeko. Eta horretarako boterea zatitzea, banatzea bide egokia irudituko zaio. Frantses *éparpiller le pouvoir* esaten du, gaztelaniaz *espacir el poder* esan daiteke, eta euskaraz *boterea barreiatu* esan genezake<sup>18</sup>.

Rousseuren kezka guztiz alderantzizkoa izango da: gizartearen baitan ematen den ezberdintasuna gainditzeko da beharrezkoa borondate orokorra eta hemendik sortzen den estatua bere botere guztiz. Oso planteamendu ezberdinak dira, bienak, elkarrekiko aurkakotasunean dauden kezketatik sortzen baitira: berdintasunaren ezinbestekotasunean askatasuna gordetzeko arduratik Tocquevilleren kasuan, gizartearen baitako ezberdintasunak gainditzeko beharrezkoa denetik Rousseuren kasuan.

Azkenik, Tocquevillek amerikar batasunean aurkitutako askatasuna bermatzeko elementuetan nagusienetakoa, eta bereziki azpimarratzekoa, gobernuaren eta boterearen ulermen berezia da, hau da: gobernu eta boterea on dira ahul diren neurrian. Eta ahuldadeak agintearen banaketa esan nahi du, aginte gune bakar baten ukazioa. Eta horren oinarria udalerri indartsuak dira Tocquevilleren iritzian. Horiek, boterea zatitzeaz eta mugatzeaz gain hiritarren arazo publikoetan esku-hartzea suspertzen dute.

Esku-hartze horren faltan hiritarrak administratu huts bihurtzen dira. Honela dio Tocquevillek berak: "Nolanahi ere, udalerriari indarra eta independentzia kentzen badizkiozue, administratuak, bakarrik aurkituko dituzue bertan, baina hiritarrik batere ez"<sup>19</sup>.

Amerikar batasunean Estatuaren eraketa, udalerrietan oinarrituz, federazio modura dago gauzatuta. Horrela federazioaren irizpidea askatasunarentzat ezinbesteko bihurtzen da. Tocquevillek hemeretzigarren mendeko lehen zatian idatzi zuen bere demokraziari buruzko lana. Hara zer dion federalismoari buruz, mende bat baino beranduagoko egoerara aplikatuz, beste autore batek: "Hainbat zehazki mugatutako botere nazioarteko organismo batera eskualdatzea ahalezko egiten duen nazioarteko gobernu modua federazioa da, gainera barne arazo guztian herrialde bakoitzak bere erantzukizuna gordez... Federalismoa, gainera, ez da demokrazia nazioarteko arazoetara aplikatzea

baizik, gizakiak asmatu duen elkarrekin bakezko harremanak izateko bitarteko bakarra. Baina botere zehazki mugatuko demokrazia bat da<sup>20</sup>.

Askatasuna maite duen guztientzat ezinbestekoa da orain euskaraz datorkigun A. de Tocquevilleren lan hau irakurtzea. Balioko ahal du gure artean ere askatasuna, benetako askatasuna osozko pretentsioak dituen mezuekin ez datorrela inola ere bat ulertu eta ikasteko!

Joseba ARREGI

*Oharrak*

<sup>1</sup> Alexis de Tocqueville, *De la Democracia en América*, Editorial Orbis, Barcelona, 1985, 283. orrialdean.

<sup>2</sup> Otto Vossler, *Alexis de Tocqueville*, Vittorio Klostermann, Frankfurt am Main, 1973, 279. orrialdean.

<sup>3</sup> P. Berger, *Pirámides de sacrificio. Ética política y cambio social*. Sal Terrae, Santander, 1979, 202. orrialdean.

<sup>4</sup> Enrique Bonete Perales, *La faz oculta de la modernidad*, Editorial Tecnos, Madrid, 1995, 71. orrialdean.

<sup>5</sup> Otto Vossler, *aipatu lanean*, 13. orrialdean.

<sup>6</sup> Otto Vossler, *aipatu lanean*, 18. orrialdean.

<sup>7</sup> Otto Vossler, *aipatu lanean*, 31. orrialdean.

<sup>8</sup> Otto Vossler, *aipatu lanean*, 45. orrialdean.

<sup>9</sup> A. de Tocqueville, *aipatu lanean*, 279-180. orrialdeetan.

<sup>10</sup> Otto Vossler, *aipatu lanean*, 62. orrialdean.

- <sup>11</sup> Otto Vossler, *aipatu lanean*, 83. orrialdean.
- <sup>12</sup> Alain Touraine, *Critique de la Modernité*, Fayard, Paris, 1992, 88-89. orrialdeetan.
- <sup>13</sup> Otto Vossler, *aipatu lanean* 195. orrialdean.
- <sup>14</sup> A. de Tocqueville, *aipatu lanean*, 52-53. orrialdeetan.
- <sup>15</sup> Alain Touraine, *aipatu lanean*, 90. orrialdeetan.
- <sup>16</sup> Otto Vossler, *aipatu lanean*, 51. orrialdean.
- <sup>17</sup> Alain Touraine, *aipatu lanean* 87. orrialdean. Azpimarratzea neurea.
- <sup>18</sup> A. de Tocqueville, *aipatu lanean*, 51. orrialdean.
- <sup>19</sup> A. de Tocqueville, *aipatu lanean*, 51. orrialdean.
- <sup>20</sup> Friedrich A. Hayek, *Camino de Servidumbre*, Alianza Editorial, Madrid, 1978, 276-277. orrialdeetan.

## SARRERA

Estatu Batuetan egin nuen egonaldian arreta erakarri zidaten gauza berrien artean, ezerk ez ninduen baldintza-berdintasunak baino bizikiago harritu. Erraz aurkitu nuen lehen egitate honek gizartearen garapenean duen eragin harrigarria; halako norabide bat ematen dio izpiritu publikoari, halako kutsu bat legeei, arau berriak gobernarietara eta aztura bereziak gobernarietara.

Laster ohartu nintzen egitate horrek berorrek ohitura politiko eta legeak baino askoz harantzago hedatzen duela bere eragina, eta ez duela gizarte zibilean gobernuan baino aginte gutxiago: iritziak moldatzen ditu, sentimenduak sortarazten, usadioak iradoki eta berak ekoitzi gabeko guztia aldatzen.

Honela, bada, gizarte amerikarra aztertu ahala, gero eta gehiago iruditzen zitzaidan baldintza-berdintasuna zela egitate partikular bakoitza eragiten zuen egitate nagusia, eta etengabe aurkitzen nuen aurrean, puntu zentral honetara jotzen zutelarik nire behaketa guztiek.

Orduan gure hemisferiorantz zuzendu nuen pentsamena, eta Mundu Berriak erakusten zidanaren antzeko zerbait nabaritzen nuela iruditu zitzaidan. Baldintza-berdintasuna, Estatu Batuetan bezala azken mugetaraino iritsi gabe ere, gero eta hurbilago zegoela ikusi nuen; eta gizarte amerikarretan nagusi zen demokrazia bera Europan ere botererantz bizkor zihoala iruditu zitzaidan.

Une hartan bururatu zitzaidan irakurtzera zoazten liburu hau egitea.

Iraultza demokratiko handi bat ari da gure artean gauzatzen; guztiek ikusten dute, baina ez dute guztiek era berean juzgatzen. Batzuek gauza berritzaile hartzen dute, eta, akzidentaltzat daukatelarik, oraindik geldiaraztea espero dute; beste batzuek, ordea, geldiezinezko irizten diote, historian ezagutzen den egitaterik jarraituen, antzinakoen eta iraunkorrena iruditzen baitaie.

Une batez, duela zazpiehun urteko Frantziara itzuliko naiz: lurraren jabe den eta biztanleak gobernatzen dituen famili kopuru txiki baten artean banaturik aurkitzen dut; agintzeko eskubidea belaunaldiz belaunaldi eskualdatzen da ondareekin; gizakiek era bakarra dute batzuek besteen gain eragiteko, indarra; botereak ez du sorburu bakar bat baino, lurraren jabetza.

Baina halako batean kleroaren botere politikoa sortzen da eta bizkor hedatzen. Kleroak guztiei zabaltzen dizkie bere ateak, behartsu eta aberatsei, plebeio eta jauntxoiei; berdintasuna Elizaren bidez hasten da gobernuaren baitan sartzen, eta betiko

esklabutzan jopu izango zatekeena nobleen erdian apaiz bihurtzen da, eta erregeen gainetik kokatuko da sarritan.

Denborarekin gizartea zibilizatuago eta egonkorrago bihurtzean, gizakien arteko harreman ezberdinak korapilatu eta ugaritu egiten dira. Biziki sumatzen da lege zibilen premia. Legelariak sortzen dira orduan; auzitegieta esparru ilunetatik eta artxibategietako bazter hautseztatuetatik irteten dira, eta printzearen gortean ezarriko dira, katazuri-larruz eta burdinaz estalitako baroi feudalen ondoan.

Erregeek porrot egiten dute ekimen handietan, nobleak gerra pribatuetan akitzen dira, plebeioak merkataritzan aberasten. Estatu-arazoetan diruaren eragina hasten da sumatzen. Negozioa botereari irekitzen zaion iturri berri bat da, eta mesprezatzen eta lausengatzen den botere politiko bilakatzen dira finantzariak.

Poliki-poliki, jakintzargiak hedatzen dira; literatura eta arteekiko zaletasuna pizten da; orduan arrakasta-elementu bilakatzen da izpiritu; zientzia, gobernatzeko baliabide bat da; adimena, indar sozial bat; eskolatuak arazo publikoetara iristen dira.

Hala ere, boterera iristeko bide berriak aurkitu ahala, jaiotzaren balioa gainbehera doa. XI. mendean balio paregabea zuen nobleziak; XIII.enean erosi egiten da; lehen nobleztatzea 1270ean gertatzen da, eta azkenean aristokraziaren beraren bidez sartzen da berdintasuna gobernuan.

Igaro diren azken zazpiehun urteotan, errege-agintearen kontra borrokatzeko edo lehiakideei agintea kentzeko, nobleek herriari botere politikoa eman izan diote batzuetan.

Are gehiagotan, estatuko behe-klaseek gobernuan parte har zezaten saiatu izan dira erregeak, aristokrazia beheratzeko.

Frantzian, erregeak agertu izan dira berdintzailerik aktiboen eta iraunkorrenak bezala. Gutziatsu eta indartsuak izan direnean, herria nobleen mailara altxatzeko lan egin dute; eta moderatu eta ahulak izan direnean, herria beraien gain jar dadin utzi dute. Batzuek beren talentu bidez lagundu diote demokraziari, besteek beren akatsez. Louis XI.a eta Louis XIV.a tronutik beherako dena berdintzeaz arduratu ziren, eta azkenean Louis XV.a bera hautsetaraino jaitsi zen bere gortearrekin.

Hiritarrak errentamendu feudalaz bestelako bideetatik lurraren jabe izaten hasi orduko, eta aberastasun higigarria, jadanik aintzatetsia, bere aldetik indar egiten eta boterea ematen hasi orduko, ez zen arteetan batere aurkikuntzarik egin, ezta merkataritzan eta industrian batere hobekuntzarik sartu ere, gizakien arteko berdintasunerako beste horrenbeste elementu berri sortzen ez zuenik. Une hartatik aurrera, aurkitzen diren prozedura guztiak, sortzen diren behar guztiak, asetzea eskatzen duten desira guztiak, aurrerapausoak dira berdintze unibertsalerantz. Luxu-zaletasuna, gerrarako irrika, modaren nagusitasuna, giza bihotzaren grinarik axalekoeen nahiz sakonenak, badirudi elkar harturik dabiltzala aberatsak pobretzeko eta behartsuak aberasteko.

Adimen-lana indar eta aberastasunaren iturri bilakatu zenetik, zientziaren garapen bakoitza, ezagupen berri bakoitza, ideia berri bakoitza, herriaren irispidetan jarritako ahalmen-hazitzat hartu behar izan zen. Poesia, hitz-etorria, oroimena, izpiritu-dohainak, irudimenarenugarra, pentsamenaren sakontasuna, zeruak ausaz banatzen dituen dohain horiek guztiak, demokraziaren probetxurako izan ziren, eta honen etsaien menpe egon zirenean ere, halaz guztiz demokraziaren kausarako izan ziren, gizakiaren berezko handitasuna agertaraziz; demokraziaren konkistak zibilizazioaren eta jakintzargienekin batera hedatu ziren, eta literatura, guztientzat irekitako armategia izan zen, ahul eta behartsuek bertara jotzen zutelarik egunero arma bila.

Gure historiako orrialdeak aztertzen direnean, azken zazpiehun urteotan ez da, nolabait esateko, gertakari handirik aurkitzen berdintasunaren onurarako izan ez denik.

Gurutzadek eta ingelesekiko gerrek triskantza handiak eragiten dituzte nobleen artean eta hauen lurak zatitzen; udalerrien eraketak askatasun demokratikoa sarrarazten du monarkia feudalaren baitan; suzko armen aurkikuntzak bilaua eta noblea berdintzen ditu gudu-zelaian; inprimategiak aukera berdina eskaintzen die beraien adimenari; postak behartsuaren etxolako sarrerara nahiz jauregiak atera darama jakintzargia; gizaki guztiak zerurako bidea aurkitzeko egoera berean daudela esaten du protestantismoak. Amerikaren aurkikuntzak hamaika bide berri zabaltzen dio aberastasunari, eta ondasunak eta boterea ematen dizkie abenturari ilunei.

XI. mendetik aurrera Frantzia gertatzen dena berrogeita hamar urteka aztertzen baduzue, garbi ohartuko zarete denboraldi horietako bakoitzaren buruan iraultza bikoitza zertu dela gizartearen egoera: noblea jaitsi egingo zen gizarte-mailan, plebeioa igo; batak behera egiten du, besteak gora. Mende erdi bakoitzak hurbildu egiten ditu, eta laster ukituko dute elkar.

Eta hau ez da Frantziako bereizgarria bakarrik. Noranahi begiratzen dugula ere, kristaudi osoan zertzen ari den iraultza bera nabaritzen dugu.

Alde guztietan, herrien bizitzako hainbat gora-behera demokraziaren probetxurako bihurtu dela ikusi da; gizaki guztiek lagundu diote beren ahaleginaz: berorren arrakastari lagundu nahi ziotenek eta zerbitzatzeko batere asmorik ez zutenek; horren alde borroka egin dutenek eta bai berorren etsai agertu direnek ere; nahas-mahasian denei bultza egin zaie bide beretik, eta denek lan egin dute elkarrekin, batzuek gogoz kontra, besteek oharkabea, lanabesitsuak bezala Jainkoaren eskuetan.

Beraz, baldintza-berdintasunaren garapen mailakatua probidentziazko egitate bat da eta honelako ezaugarri nagusiak ditu: unibertsal da, iraunkorra, giza ahalmenari ihes egiten dio egunero; gertakari guztiak, gizaki guztiak bezalaxe, berdintasun horren garapenaren zerbitzura daude.

Zentzuzkoa ote da pentsatzea hain aspalditik datorren gizarte-mugimendua belaunaldi baten ahaleginak eten ahal izango duela? Pentsa ote daiteke, feudalismoa suntsitu eta erregeak menperatu ondoren, demokraziak atzera egingo duela burges eta aberatsen aurrean? Gelditu egingo ote da orain, bera hain indartsu eta kontrarioak hain ahul direnean?

Norantz goaz, beraz? Ezin inork esan; dagoeneko konparazio-terminoak falta zaizkigu eta: gaur egun kristauen artean berdinagoak dira baldintzak beste edozein garaitan eta munduko beste edozein herrialdetan sekula izan direnak baino; honela, jadanik egina dagoenaren handitasunak oraindik egiteko dagoena aurrikustea eragozten du.

Irakurriko den liburu hau, nolabaiteko erlijio-ikararen zirrara pean idatzia izan da, hainbeste mendetan zehar oztopo guztien gainetik joan den eta gaur egun ere berak eragindako hondakinen erditik aurrera doan iraultza geldiezina ikusteak autorearen barnean eragindako zirrara pean, alegia.

Ez da beharrezkoa Jainkoak berak hitz egitea, guk haren borondatearen seinale ziurrak aurkitu ahal izateko; aski da naturaren ohiko martxa eta gertakarien joera iraunkorra zein den aztertzea; nik badakit, Egileak bere ahotsa ozendu gabe ere, haren hatzak marrazturiko ildotik ibiltzen direla astroak espazioan.

Behaketa luze eta hausnarketa zintzoak, gure garaiko gizakia, berdintasunaren garapen mailakatu eta progresiboa aldi berean bere historiaren iragana eta etorkizuna dela aitortzera eramango balu, aurkikuntza honek soilik ere emango lioke garapen horri Jaun subiranoaren borondatearen jite sakratua. Demokrazia geldiarazi nahi izateak Jainkoaren beraren aurka borroka egitea dela emango luke orduan, eta nazioek ez lukete Probidentziak ezartzen dien gizarte-egoerara moldatu baino egin beharko.

Kristau-herriek gaur egun ikuskizun beldurgarria eskaintzen dutela iruditzen zait; aurrean daramatzan mugimendua indartsuegia da geldiarazi ahal izateko, eta ez da

oraindik gidaezina izateko bezain bizkorra. Beren esku dute beren zoria, baina laster ihes egingo die.

Demokrazia hezitzea, ahal bada beraren sineskizunak berpiztea, ohiturak araztea, mugimenduak arautzea, demokraziaren esperientzi ezaren ordeztu poliki-poliki arazo publikoen zientzia sartzea eta haren instintu itsuen ordeztu benetako interesak ezagutaraztea; beraren gobernua garai eta lekuetara moldatzea, eta zirkunstantzia eta gizakien arabera aldatzea: hau da gaur egun gizartea gidatzen dutenei ezarritako lehen eginbeharra.

Zientzia politiko berria behar da zeharo berria den mundurako.

Baina ez dugu honetaz ia batere gogoetarik egiten: ibai laster baten erdian kokaturik, oraindik ertzetan begiztatzen diren hondakinen batzuetan finkatzen ditugu begiak setati, korronteak eramane eta amildegirantz bultzatzen gaituen bitartean.

Ez dago Europar herririk, non azaldu berri dudan gizarte-iraultza handi horrek gurean baino bizkorrago egin duen aurrera; baina betiere itsumustuan ibili da.

Estatu-buruek sekula ez dute pentsatu aurrez ezer prestatzerik iraultza horretarako; buru horien kontra edo horiek ohartu gabe zertu da iraultza. Nazioko klaserik ahaltsuen, argien eta moralenak ez dira saiatu berorretaz jabetzen, gidatu ahal izateko. Hortaz, bere sen basatiaren menpe utzi izan da demokrazia; gurasoen zainketarik gabe, gure hirietako kaleetan beren kasa eta gizarteko bizioak eta zorigaitzak bakarrik ezagutuz hazten diren haur horiek bezala hazi da. Bazirudien izatea ere ez zitzaiola aitortu nahi, ustegabeen botereaz jabetu zenean. Orduan guztiak makurtu zitzaizkion morronkeriaz desirarik txikienera; indarraren irudi bezala gurtu zuten; gero bere gehiegikeriengatik ahuldu zenean, hezi eta zuzendu beharrean, suntsitzeko proiektu zentzugabea asmatu zuten legegileek, eta gobernatzen irakatsi nahi ez ziotenez, gobernutik botatzea besterik ez zuten pentsatu.

Onorioz, iraultza demokratikoa gizarteko alde materialean bakarrik zertu da, baina lege, azturetan eta ohituretan ez zen gauzatu iraultza hau onuragarri bihurtzeko beharrezko aldaketa. Honela, badugu demokrazia, baina ez beronen akatsak gutxitu eta berez dituen abantailak areagotzeko behar dena; eta ekartzen dituen gaitzak ikusten baditugu ere, ez dugu ezagutzen zenbateraino on egin diezagukeen.

Errege-aginteak, aristokrazian oinarriturik, Europako herriak bake-bakean gobernatzen zituenean, gizarteak, bere zorigaitzen erdian, hainbat motatako zoriona gozatzen zuen, gaur egun nekez imajina eta prezia genezakeen zerbait.

Menpeko batzuen ahalmenak hesi gaindiz gaitzak eraikitzen zituen printzearen tiraniaren aurrean; eta erregeek, bestalde, jendaurrean ia jainkozko izaeraz hornituak sentitzen zirelarik, sortarazten zuten begirunetik bertatik beren botereaz ez abusatzeko borondatea ateratzen zuten.

Herriagandik oso urruti egon arren, nobleek, hala ere, artzainak bere artaldeaganako izaten duen onginahizko ardura lasai hori izaten zuten herriarenganako; eta, behartsua beren berdintzat hartu gabe ere, honen destinoaz arduratzen ziren, Probidentziak beraien esku utzitako gordailua bailitza.

Herriak, bere gizarte-egoeraz bestelakorik sumatu ere egin gabe, bere buruzagien pareko izan zitekeela inola ere imajinatu gabe, haien on-egintzak hartzen zituen, beraien eskubiderik zalantza jarri gabe. Maite izaten zituen bihozbera eta zuzenak zirenean, eta nekerik gabe eta beheratuta sentitu gabe makurtzen zen haien gogorkerietara, Jainkoaren eskuak bidalitako gaitz ekidinezinak balira bezala. Bestalde, usadioak eta ohiturek mugak jarriak zizkioten tiraniari, baita nolabaiteko zuzenbide bat ezarria ere indarraren erdi-erdian.

Nobleari ez zitzaion inola ere bururatzen berak legezkotzat zeuzkan pribilegioak kendu nahi zitzaizkionik; jopuak bere gutxiagotasuna naturako ordena aldaezinaren

ondoriotzat hartzen zuenez, ulergarria gertatzen da hain zori ezberdineko bi klase horien artean elkarrenganako halako onginahi bat sortzea. Orduan, ikusten zen gizartean ezberdintasun eta zorigaitzik, baina arimak ez zeuden galbideratuta.

Ez da boterearen erabilera edo obeditzeko aztura gizakiak degradatzen dituen, baizik eta bidegabetzat daukaten ahalmenaren erabilera, eta usurpatua eta zapaltzailea iruditzen zaien boterearekiko obedientzia.

Batetik, ondasunak, indarra, aisia zegoen, eta berauekin luxu-nahia, gustu-finezia, izpirituaren plazerrak, arteak lantzea; bestetik, lana, zabarkeria eta ezjakintasuna.

Baina jendetza ezjakin eta zabar honen baitan grina biziak aurkitzen ziren, eskuzabaltasunezko sentimenduak, sineskizun sakonak eta bertute basatiak.

Honela antolaturiko gizarte-gorputzak egonkortasuna, ahalmena eta, batez ere, aintza ukan zitzakeen.

Baina, horra hor, mailak nahastu egiten dira; gizakien artean eraikitako hesiak eraitsi egiten dira; aginterriak zatitu egiten dira, boterea banatu, jakintzargiak zabaldu, adimenak berdindu; gizarte-egoera demokratiko bihurtzen da, eta demokraziaren nagusitasuna bare-bare ezartzen da erakunde eta ohituretan.

Orduan, imajinatzen dudan gizartean guztiek maitatuko zuten legea, beren egintzatzat hartuz, eta nekerik gabe makurtuko ziren berarengana; han gobernuaren aginpidea - beharrezkotzat eta ez jainkozkotzat hartua- errespetatua izango zenez, estatu-buruaganako maitasuna ez zen batere grinatsua izango, sentimendu arrazoitu eta lasaia baizik. Bakoitzak bere eskubideak izanik, eta eskubide horiek mantenduko zituen ziurtasuna izanik, klase guztien artean konfiantza sendoa ezarriko zen, eta halako jasankortasun bat elkarrenganako, harrokeriatik bezain urrundua apalakeriatik.

Bere benetako interesen jakitun, herriak, gizarteko ondasunez baliatzeko, kargak ere hartu beharra dagoela ulertuko zuen. Hiritarren elkarketa askeak nobleen ahalmen indibiduala ordeztuko zuen orduan, eta Estatua tiraniatik eta nahikeriatik babestuta egongo zen.

Ulertzen dut honela eratutako estatu demokratiko batean gizartea ez dela mugitu gabe egongo; baina bertan gizarte-gorputzaren mugimenduak arautuak eta progresiboak izan litezke; aristokraziaren baitan baino distira txikiagoa agertzen bada, miseria gutxiago ere aurkituko da; atseginak mugatuagoak izango dira eta ongizatea orokorragoa; jakintzak ez hain handiak eta ezjakintasuna urriagoa; sentimenduak ez hain biziak eta azturak eztiagoak; bizio gehiago, baina krimen gutxiago nabarituko da.

Sineskizunetan berotasun etaugarrik ezean, kulturak eta esperientziak batzuetan sakrifizio handiak lortuko dituzte hiritarrengandik; gizaki bakoitzak, besteak bezain ahul izanik, bere antzekoen beharrian beretsua sentituko du; eta besteen laguntza berea emanez bakarrik lor dezakeela jakinda, bere interes partikularra interes orokorarekin bat egiten dela ohartuko da erraz.

Nazioa, oro har, ez da hain distiratsua eta aintzatsua izango, ezta agian hain indartsua ere; baina hiritar gehienen zoria oparotsuagoa izango da, eta herria baketsu azalduko da, ez hobetzeko itxaropenik ez duelako, ongi dagoela badakielako baizik.

Horrelako egoera batean dena on eta baliagarri ez balitz ere, gizarteak behintzat bereganatua izango luke hor baliagarri eta on den guztia, eta jendeak, aristokraziak eman litzakeen gizarte-abantailak betiko baztertuz, demokraziari hartuko lizkioke honek eskaini ahal dizkion ondasun guztiak.

Baina guk, geure arbasoen gizarte-egoera bertan behera uztean, beraien erakunde, ideia eta ohiturak nahas-mahasian geure atzera botatzean, zer jarri dugu hauen orde?

Errege-agintearen ospea desagertu egin da, eta legeen handitasunak ez du hori ordeztu; gaur egun, herriak gutxietsi egiten du agintea, baina beronen beldur da, eta beldurrak, garai batean begiruneak eta maitasunak baino gehiago ateratzen dio.



Tiraniaren aurka nor bere aldetik borroka zitezkeen banako erakundeak suntsitu egin ditugula ohartzen naiz; baina ikusten dut gobernuak berak bakarrik bereganatzen dituela familia, korporazio edo gizakiei kendutako prerrogatiba guztiak: hiritar gutxi batzuen indarraren -batzuetan zapaltzaile, baina sarritan kontserbadorearen- ondoren, guztion ahulezia etorri da.

Aberastasunen zatiketak gutxitu egin du behartsua eta aberatsa banatzen zituen tartea; baina hurbiltzean, elkar gorrotatzeko arrazoi berriak aurkitu dituztela dirudi, eta, batak besteari izuz eta inbidiaz beterik begiratzuz, elkar botatzen dute agintaritzatik; batarentzat nahiz bestearentzat, eskubideen ideiarik ez dago, eta indarra iruditzen zaie biei orainaren arrazoi bakarra eta geroaren berme bakarra.

Behartsuak bere gurasoen aurritzi gehienak gorde ditu, haien sineskizunik gabe; haien ezjakintasuna, bertuterik gabe; bere ekintzen arautzat interesaren doktrina hartu du, honen zientzia ezagutu gabe, eta behartsuaren berekoikeria jakintzargirik gabea da, antzina bere sakrifizioa bezalaxe.

Gizartea lasai dago, ez bere indarraz eta ongizateaz jabetzen delako, bere burua ahul eta gaixotzat daukalako baizik; ahaleginen bat egiten badu, hilko den beldur da; guztiak ohartzen dira gaitzaz, baina inork ez du onena bilatzeko behar hainbat ausardia eta indar; badira desirak, atsekabeak, nahigabeak eta pozak, baina ez dute sortzen ez ikusteko moduko ezer, ez ezer iraunkorrik, inpotentziara baino ez doazen agure zaharren grinena antzera.

Hortaz, antzinako egoerak izan zitzakeen gauza onak baztertu ditugu, egungo egoerak eskain lezakeen onurarik geureganatu gabe; gizarte aristokratiko bat suntsitu dugu eta, antzinako eraikinaren hondakin artean poz-pozik kokatuta, badirudi hortxe gelditu nahi dugula betiko.

Hori bezain tamalgarria da adimen-munduan gertatzen ari dena.

Frantziako demokraziak, bere ibilbidean oztopatua edo laguntzarik gabe bere grina desordenatuen menpe utzia, aurrean aurkituriko guztia irauli du, suntsitzen ez zuenari azpia janez. Ez da ikusi gizarteaz poliki-poliki jabetzen, bertan bake-bakean bere nagusitasuna ezartzeko; etengabe aurrera egin du desordenen eta borrokako asalduraren erdian. Borrokaren berotasunaz adoretuta, kontrarioen iritzi eta gehiegikeriengatik bere iritziaren berezko mugak gaindituz, bakoitzak bere lehia horien helburua bera galtzen du bistatik eta bere ezkutuko instintuei ez dagokien hizkera erabiltzen du.

Hortik sortzen da nahasketa arraro bat, zeinen lekuko izatera beharturik gauden.

Alferrik bilatzen dut neure oroitzapenetan, ez dut ezer aurkitzen gure aurrean gertatzen dena baino mingarriago eta errukarriagorik; badirudi iritziak gustuekin eta ekintzak sineskizunekin elkartzen dituen berezko lokarria eten egin dela gaur egun; gizakien sentimendu eta ideien artean beti egon izan den kidetasunak suntsitua dirudi, eta analogia moralaren lege guztiak aboliturik daudela esan liteke.

Oraindik bada gure artean kristau sugartsurik bere arima erlijiozalea beste bizitzako egiez elikatu nahi duenik; hauek, zalantzarik gabe, animatu egingo dira giza askatasunaren alde, handitasun moral guztiaren iturri izanik hau. Kristautasunari, Jainkoaren aurrean gizaki guztiak berdindu dituenari, ez dio nazkarik emango hiritar guztiak legearen aurrean berdinak direla ikusteak. Baina momentuz, gertakari bitxi batzuen eraginez, demokraziak iraultzen dituen botereen erdian murgilduta aurkitzen da erlijioa, eta sarritan gertatzen zaio maite duen berdintasuna ukatzea, eta askatasuna arerio bezala madarikatzea, nahiz eta, eskutik eramango balu, ahaleginak santifikatu ahal izango lituzkeen.

Pertsona erlijiozale horien ondoan, zerura baino lurrera begirago dauden beste batzuk aurkitzen ditut; askatasunaren aldeko dira -ez bakarrik bertuterik bikainen jatorria hor ikusten dutelako, baizik eta, batez ere, onik handienen iturritzat daukatelako-, eta

berorren nagusitasuna ziurtatzeko eta berorren onurak gizakiei gozarazteko gogo zintzoa dute. Nik uste dut hauek laster dei egingo diotela erlijioari laguntza eske, jakin behar baitute ezin dela askatasunaren erregetza ezarri ohiturena gabe, ezta ohiturak oinarritu ere sineskizunik gabe; baina kontrarioen lerroetan begiztatu dute erlijioa eta hori aski da beraientzat: batzuek erasotu egiten dute eta besteak ez dira defendatzera ausartzen.

Iragan mendeek jende doilor eta zitala ikusi dute esklabutza goraipatzen, izpiritu independente eta bihotz oneko beste batzuk giza askatasuna salbatzeko itxaropenik gabe borrokatzen ziren bitartean. Baina gaur egun sarri aurkitzen dira berez noble eta ausartak diren pertsonak, beren iritzia eta gustuak kontrajarriak dituztenak, berek sekula ezagutu ez duten menpekotza eta apalkeria goraipatzen. Aitzitik, badira beste batzuk askatasunaz mintzo direnak, beronetan dauden santutasun eta handitasuna sentitu ahal izango balituzte bezala, eta berek beti gutxietsi dituzten eskubideak gizadiarentzat zaratatsu eskatzen dituztenak.

Ikusten ditut pertsona bertutetsu eta baketsuak, beren ohitura garbi, aztura lasai, oparotasun ekonomiko eta jakintzargiei esker inguruko jendearen buru berez bihurtzen direnak. Aberriaganako maitasun zintzoz beteak, prest daude aberriagatik sakrifizio handiak egiteko. Hala ere, zibilizazioaren etsai dira sarritan; beronen gehiegikeriak eta on-egintzak nahasten dituzte, eta beraien barnean gaizkiaren eta berrikuntzaren ideiak estu-estu loturik daude.

Horiengandik hurbil ikusten ditudan beste batzuek, aurrerapenaren izenean eta gizakia materializatzen ahaleginduz, erabilgarritasuna aurkitu nahi dute bidezkoaz arduratu gabe, zientzia sineskizunetatik urruti, eta ongizatea bertutetik bereizita. Hauek zibilizazio modernoaren txapeldunak omen dira, eta berorren buru jartzen dira lotsagabeki, beraiei lagatzen zaien leku bat usurpatuz, horretarako duintasunik ez dutelarik.

Non gaude, beraz?

Erliziozaleek askatasunari erasotzen diote, eta askatasunaren adiskideek erlijioei; izpiritu bikain eta onberek esklabutza goستن dute, eta bihotz kaskar eta morrontzazaleek independentzia goraipatzen; hiritar zintzo eta ilustratuak aurrerapen guztien etsai diren bitartean, abertzaletasunik eta moralik gabekoak zibilizazioaren eta kulturaren apostolu bihurtzen dira!

Mende guztiak izan ote dira gurearen antzeko? Gizakiak beti izan ote du aurrean, gaur egun bezala, inolako kateamendurik gabeko mundua, non bertuteak ez duen jeinurik, eta jeinuak ohorerik ez; non ordenaganako maitasuna tiranoenganako zaletasunaz nahasten den, eta askatasunaren gurtzapen santua giza legeen mesprezuaz; non ezerk ez dirudien jadanik debekatua, baimendua, ohoragarri edo lotsagarria, egiazko edo faltsua?

Egileak gizakia egin zuenean, inguratzen gaituzten miseria intelektualen erdian etengabe kolokan uzteko egin zuela pentsatu behar ote dut? Ezin dut sinetsi. Jainkoak etorkizun egonkor eta lasaiagoa prestatzen die Europako gizartei; ez dakizkit beraren asmoak, baina ez diot utziko horietan sinesteari ezin ditudalako beroriek ulertu, eta nahiago nuke neure jakintzargiak jarri zalantzan beraren zuzentasuna baino.

Bada munduan herrialde bat, non aipatzen dudan gizarte-iraultza handia iritsia den gutxi gora-behera bere berezko mugetara; era sinple eta errazean gauzatu da bertan, edo hobeto legoke esatea gure artean zertzen den iraultza demokratikoaren emaitzak ikusten dituela herrialde horrek, baina iraultza bera ukan gabe.

XVII. mendearen hasieran Amerikan finkatzera joan ziren migrariak, nolabait ere, askatu egin zuten demokraziaren printzipioa Europako gizarte zaharretan etsai zituen guztiengandik, eta printzipio hori bakar-bakarrik landatu zuten Mundu Berriko

itsasertzetan. Han askatasunean hazi eta, ohiturekin batera ibiliz, bake-bakean garatu ahal izan zen legeetan.

Zalantzarik ez dut lehentxeago edo geroxeago gu ere, amerikarrak bezalaxe, ia erabateko baldintza-berdintasunera iritsiko garela. Honekin ez dut esan nahi gu ere egunen batean, gizarte-egoera antzekotik, amerikarrek atera dituzten ondorio politikoak ateratzera beharturik egongo garenik. Ez dut inola ere sinesten demokraziak har lezakeen gobernu-era bakarra aurkitu dutenik beraiek; baina nahikoa da bi herrialdeetan lege eta ohituren kausa eragilea berbera izatea, bakoitzean zer eman duen jakiteko interes ikaragarria izan dezagun.

Bidezkoa litzatekeen arren, ez dut aztertu Amerika jakinmina asetzeko bakarrik; guretzako irakaspen probetxugarriak aurkitu nahi izan ditut. Hutsegite bitxia egingo luke panegiriko bat egin nahi izan dudala pentsatuko balu norbaitek; liburu hau irakurtzen duena ongi komentzituko da ez dudala inola ere asmo hori izan; gobernu-era jakin bat orokorrean goratzea ere ez da izan nire helburua, legeetan erabateko ontasunik ia inoiz ez dela egoten pentsatzen dutenetakoa bainaiz; ia geldiezin iruditzen zaidan gizarte-iraultza gizadiarentzat mesedegarri ala kaltegarri zen epaitzerik ere ez dut nahi izan; iraultza hau ia burutua edo burutzear dagoen egitate bat bezala onartu dut, eta, beren baitan zertzen ikusi duten herrien artean, iraultzak garapenik osoena eta baketsuena izan dueneko hura aukeratu dut, berorren berezko ondorioak garbi bereizteko eta, ahal bada, gizakientzat probetxugarri bihurtzeko bideak hautemateko. Amerikan Amerika bera baino gehiago ikusi dudala aitortu behar dut; han demokraziaren beraren, eta honen joera, izaera, aurriritzi eta grinen irudia bilatu dut; ezagutu egin nahi izan dut, berorregandik zer espero edo zeren beldur izan behar dugun jakiteko besterik ez bada ere.

Obra honen lehen zatian, beraz, demokraziak, Amerikan bere joeretara utzia eta ia hesirik gabe bere grinen arabera lagata, legeei berez ematen zien norabidea, gobernuari ezartzen zion martxa eta, oro har, arazo publikoekiko lortzen zuen boterea erakusten saiatu naiz. Berak sortutako gauza on eta txarrak zeintzuk ziren jakin nahi izan dut. Demokrazia gidatzeko amerikarrek zer-nolako neurriak hartu dituzten ikertu dut, eta zeintzuk baztertu dituzten, eta gizartea gobernatzeko aukera ematen dieten kausak bereizten jardun dut.

Nire asmoa, bigarren zati batean, Amerikan baldintza-berdintasunak eta demokraziaren gobernuak gizarte zibil, aztura, ideia eta ohituretan duten eragina azaltzea zen; baina hasia naiz asmo hori betetzeko irrika gutxiago sentitzen. Neure buruari ezarritako zeregina amaitzerako, ia alferrikako bilakatuko da nire lana. Izan ere, besteren batek azaldu behar dizkie laster irakurleei izaera amerikarraren ezaugarri nagusiak eta, estalki mehe batez deskribapenen lehortasuna ezkutatzuz, nik ezin eman niezaiokeen xarmaz hornituko du egia<sup>1</sup>.

Ez dakit lortu dudana Amerikan ikusi dudana ezagutaraztea, baina ziur nago horretarako asmo zintzoa izan dudala eta sekula ez diodala, jakinaren gainean, egitateak ideietara moldatu beharrari amore eman, ideiak egitateetara makurtu ordez.

Punturen bat dokumentu idatzien bidez ezar zitekeenean, jatorrizko testuetara jotzeaz arduratu naiz eta obrarik benetakoen eta estimatuenetara<sup>2</sup>. Informazio-etorbideak oharretan azaldu ditut, eta edonork egiaztatu ahal izango ditu. Iritzi, usadio politiko edo ohitura-oharpenen kasuetan, pertsonarik ilustratuenak kontsultatzen saiatu naiz. Gauza bat garrantzizkoa edo zalantzazkoa bazen, ez nintzen lekuko bakarrarekin konformatzen, baizik eta lekukotasun guztiak kontuan izanda hartzen nuen erabakia.

Hemen beharrezkoa da irakurleak nire hitza sinestea. Aurreratzen dudanaren alde, sarri aipa nitzakeen irakurleari ezagunak zaizkion, edo behintzat ezagunak izatea mereziko luketen, izen ospetsuak; baina ez dut horrelakorik egin. Ostalariaren sutondoan

atzeritarrak maiz izaten du egia garrantzizkoen berri, hark adiskideari ezkutatu egingo lizkiokenak agian; kanpotarraren ezinbesteko isiltasunagatik husten dio barrua; ez da atzeritarrak ahoa zabalduko duen beldur, pasokoa baita. Horrelako aitorten guztiak hartu orduko idazten nituen, baina ez dira inoiz nire paper-zorrotik irtengo; nahiago dut neure kontaketen arrakastak nozitzea, hartutako abegikortasunaren truke atsekabe eta eragozpenak besterik itzultzen ez dituzten bidaiarien zerrendan neure izena sartzea baino.

Badakit, neure ardura gora-behera, oso erraza izango dela liburu hau kritikatzeko, norbaitek kritikatzeko asmorik izaten badu inoiz.

Zehatz-mehatz begiratu nahi dutenek, iruditzen zait aurkituko dutela obra osoan funtsezko pentsamendu bat, zati guztiak lotzen dituena, nolabait esateko. Baina aztertu behar izan ditudan arazoen aniztasuna handia da, eta norbaitek egitate isolatu bat aipatzen dudana egitate-multzoaren kontra jarri nahi badu, edo ideia bakar bat ideia-multzotik aparte, erraz lortuko du hori. Beraz, nik neure lanean izan dudana jarrera berarekin irakur nazaten nahi nuke, eta liburu hau uzten duen inpresio orokorraren arabera epai dezaten, nik neuk ere ez baititut erabakiak arrazoi jakin baten arabera hartu, guztiak kontuan izanda baizik.

Ez da ahaztu behar ere ulertaraztea lortu nahi duen autoreak bere ideietako bakoitza ondorio teoriko guztiekin garatu behar duela, faltsuaren eta eginezinaren mugetaraino sarritan; zeren eta, batzuetan beharrezkoa izaten bada logikaren arauak ekintzetan baztertzeko, ez baita gauza bera gertatzen argudioetan, eta gizakiari bere ekintzetan normalean kontsekuentea izatea bezain zaila zaio ia bere hitzetan inkontsekuentea izatea.

Amaitzeko, nik neuk adierazi nahi nuke irakurle askorentzat obraren akats nagusia izango dena. Liburu hau ez da espreski inoren zerbitzura jartzen; idazterakoan, ez dut inolako alderdiren alde edo kontra jardun nahi izan; ez naiz ahalegindu gauzak alderdiek ez bezala ikusten, urrutirago baizik; eta hauek biharkoaz arduratzen diren bitartean, nik etorkizunaz gogoeta egin nahi izan dut.

## LEHEN ZATIA

### I

*Ipar Amerikaren kanpo-itxura*

*Ipar Amerika bi eskualde zabaletan banatua, bata polorantz doana, bestea ekuadorerantz.- Mississipi harana.- Planetak jasandako astinaldien aztarnak.- Kolonia ingelesak ezarri zireneko Atlantiar ozeanoaren itsasertza.- Aurkitu zituzten garaian Hego Amerikak eta Ipar Amerikak zuten itxura ezberdina.- Ipar Amerikako basoak.- Belardiak.- Bertako tribu ibiltariak.- Beraien itxura, ohiturak, hizkuntzak.- Herri ezezagun baten aztarnak.*

Ipar Amerikak, bere kanpo-itxurari dagokionez, lehen begiratuan erraz bereiz daitezkeen ezaugarri orokorrak ditu.

Halako ordena metodiko bat egon zen han lehorra eta urak, mendiak eta haranak, banatzerakoan. Antolamendu xume eta handiosoa agertzen da gauzen nahas-mahasiaren eta parajeen ezberdintasun itzelaren erdian.

Bi eskualde zabal eta ia berdinetan banatzen da.

Batak, iparraldetik, arktiar poloa du mugatzat; ekialdean eta mendebaldean bi ozeano handiak. Hegoalderantz luzatzen da, eta triangelu bat eratzen, honen aldeak, irregularki marraztuak, Kanadako laku handiak baino beheago elkartzen direlarik.

Lehenengoa amaitzen den lekuan hasten da bigarrena, eta kontinentearen gainerako guztia hartzen du.

Bata polorantz arinki makurtua dago, bestea ekuadorerantz.

Lehen eskualdeko lurak hain malda arinean jaisten direnez iparralderantz, meseta bat eratzen dutela esan daiteke. Lautada ikaragarri honen baitan ez da mendi garairik ez haran sakonik aurkitzen.

Urak itsumustuan bezala doaz sigi-saga; ibaiak elkarren artean nahasten dira, elkartu eta banatu egiten dira, berriro batu eta milaka paduratan galtzen, etengabe desbideratzen dira beraiek sortutako labirinto hezearen erdian eta kontaezin beste itzulinguru eman ondoren bakarrik iristen dira poloko itsasoetara. Lehen eskualde honen mugako laku handiak ez daude muino edo haitz artean sartuta, Mundu Zaharreko gehienak bezala; ertzak lauak dituzte, uretatik oin batzuk bakarrik gorago. Haietako bakoitza, ertz-ertzeraino betetako kopatzar bat bezalakoa da: planetaren egituraren aldaketarik txikiak haien urak polorantz edo tropikoetako itsasorantz bidaliko lituzke.

Bigarren eskualdea malkartsuagoa da, eta hobeki prestatua gizakiaren egoitza iraunkor bilakatzeko. Bi mendi-katea luzek banatzen dute luzera osoan: bata, Alleghany izenekoak, Atlantiar ozeanoaren ertzari jarraitzen dio; bestea Hegoaldeko itsasoarekiko paraleloan doa.

Bi mendi-kateen artean itxitako espazioak 228.843 lekua karratu ditu<sup>3</sup>. Haren azalera, beraz, Frantziarena baino sei aldiz handiagoa da gutxi gora-behera<sup>4</sup>.

Hala ere, lurralde zabal honek haran bat bakarria osatzen du, Alleghanyetako tontor biribildutik beheratu eta, inolako oztoporik gabe, berriro Mendi Harritsuen gailurretaraino gora egiten duena.

Haranaren hondoan egundoko ibaia aurkitzen da. Harantz doaz mendietatik behera jaisten diren alde guztietako urak.

Antzina frantsesek San Louis ibaia deitu zuten, urrutiko aberriaren oroitzapenez; eta indioek, beren hizkuntza arranditsuan, Uren Aita edo Mississippi izena eman diote.

Mississippiren sorburua, gorago aipatu ditudan bi eskualde handi horien mugetan, biak banatzen dituen mesetaren gainaldean, dago.

Beraren ondoan beste ibai bat<sup>5</sup> sortzen da, poloko itsasoetan husten dena. Mississippik berak ere hartu beharreko bideaz zati batean duda-mudatan dabilela ematen du: hainbat aldiz atzera egiten du bere bidean, eta laku eta aintziratan bere ur-lasterra mantsotu ondoren bakarrik hartzen du erabakia eta astiro-astiro hegoaldera bideratzen.

Naturak ireki dion ubide buztintsuan bare-bare, nahiz ekaitzek ur-handitua, Mississippik mila lekua baino gehiago ureztatzen ditu bere ibilbidean<sup>6</sup>.

Itsasoratu baino seiehun lekua<sup>7</sup> gorago, ibaiak 15 oineko sakonera du batezbeste, eta 300 tonako untziak igotzen dira berrehun lekua inguruko zati batean gora.

Berrogeita hamazazpi ibai handi nabigagarrik ematen diote beren ura. Mississippiren adarren artean daude 1.300 lekoako ibai bat<sup>8</sup>, 900eko bat<sup>9</sup>, 600eko bat<sup>10</sup>, 500eko bat<sup>11</sup> eta 200eko lau<sup>12</sup>, alde guztietatik etorri eta beraren baitan galtzen diren kontaezin beste errekatxo aipatu gabe.

Mississippik ureztatzen duen haranak beretzat bakarrik izan dela eratua ematen du; han bere nahierara banatzen ditu ongia eta gaizkia, eta bertako jainkoa bezala da. Ibaiaren inguruetan, emankortasun agortezina erakusten du naturak; ibaiertzetatik urrundu ahala, landare-indarra ahitu egiten da, lurra elkortu, dena moteldu edo hil. Planetako astinaldiek inon ez dute Mississippi haranean baino arrasto nabariagorik utzi. Lurraldearen itxura osoa da urak egindako lanaren lekuko. Beronen egintza dira hango elkortasuna nahiz joritasuna. Hasierako ozeanoko uhinek landarezko lur-geruza itzelak metatu zituzten haranaren hondoan, hura berdintzeko denbora izan dutelarik. Eskuineko ibaiertzean egundoko lautadak daude, laborariak erroiloa pasatutako soroaren gainazala bezain leunak. Mendietara hurbildu ahala, orde, lurra gero eta ezberdin eta elkorragoa da; hango lurzorua, nolabait esateko, mila tokitan zulatua dago, eta hasierako harkaitzak agertzen dira han-hemenka, denborak giharrea

eta haragia jan dizkion eskeletoaren hezurak bailiran. Lurgaina granito-hareaz eta irregularki zizelkaturiko harriz estalia dago; oztopo hauen artetik neke handiz azaltzen dituzte ernamuinak landare batzuek; eraikin handi baten hondakinez estalitako soro emankorra dela esan liteke. Izan ere, harri horiek eta harea hori aztertuz, erraza da ohartzea erabateko analogia dagoela berorien osagaien eta Mendi Harritsuetako gailur idor eta hautsiak osatzen dituzten artean. Lurra haranaren hondora bota ondoren, azkenean harkaitzetako batzuk ere urak berekin eraman zituen dudarik gabe; inguruetakoa aldapetan behera biribilkarazi zituen, eta, elkarren aurka apurtu ondoren, mendi-barrenean barreiatu zituen gailurretatik kendutako hondakinak (A).

Mississippi harana da, arrazoi guztiengatik, gizakiaren bizileku izateko Jainkoak inoiz prestatu duen egoitzarik zoragarriena, eta hala ere oraindik basa eremu itzela baizik ez dela esan daiteke.

Alleghanyen eki-isuraldean, mendi hauen barrenaren eta Atlantiar ozeanoaren artean, harkaitz eta hareazko zerrenda luzea dago, itsasoak erretiratzerakoan ahaztua dirudiena. Lurralde honek 48 lekoako zabalera du batezbeste<sup>13</sup>, baina 390 lekoako luzera<sup>14</sup>. Lurzorua, kontinente amerikarraren alde honetan, neke handikoa da laborariaren lanerako. Landaretza urria eta uniforme da.

Abegi txarreko kostalde honetara bideratu ziren giza lanaren lehenengo ahaleginak. Lurzerrenda idor honetan sortu eta hazi ziren kolonia ingelesak, egunen batean Amerikako Estatu Batuak izatera iritsiko zirenak. Gaur egun ere han bertan aurkitzen da boterearen muina, eta beraren atzean biltzen dira ia ezkutuan herri handiaren benetako elementuak, herri honi dagokiolarik zalantzarik gabe kontinentearen etorkizuna.

Europarrek, Antilletako itsasertzera iritsi zirenean, eta Hego Amerikako kostaldera geroago, olerkariak ospaturiko alegiazko lurraldeetan zeudela uste izan zuten. Tropikoko su-argiaren distira botatzen zuen itsasoak; ur haien gardentasun paregabeak lehen aldiz uzten zion nabigatzaileari itsas leize sakonak ikusten<sup>15</sup>. Han-hemenka uharte usaintsuak zeuden, ozeanoko urazal barearen gainean lorez betetako saskitxoak bailiran. Leku xarmangarri haietan ikus zitekeen guztiak gizakiaren beharretarako prestatua zirudien, edo beronen atseginerako pentsatua. Arbolarik gehienak fruitu elikagarri abailduak zeuden, eta gizakiarentzat onura gutxienekoak begien pozgarri ziren beren koloreen distira eta ñabardurengatik. Limonondo usaintsu, basa pikondo, orri biribileko mitre, arkazia eta heriotzorriek -guztiak liana loretsuz elkarlotuta- eratzen zuten oihanean, Europakoentzat ezezagun ziren hegazti ugariak hego gorrimin eta urdinak distirarazten zituzten, eta beren txorrotxioen kontzertua mugimenduz eta bizitasunez beteriko naturaren harmoniarekin nahasten zuten (B).

Estalki distiratsu honen azpian heriotza zegoen ezkutuan; baina ez zen artean nabaritzen, eta gainera klima haietako giroan bazen nik ez dakit zer-nolako eragin ahulgarri bat, gizakia orainarekin lotzen zuena, etorkizunarekiko axolagabe bihurtuz.

Ipar Amerikak beste itxura bat zuen: han astun, serio eta handia zen dena; esan zitekeen adimenaren esparru bihurtzeko egina izan zela, bestea zentzumenen egoitza izateko bezala.

Ozeano uher eta lainotsuak biltzen zizkion ertzak; granitozko harkaitzak edo hondartzak zeuzkan gerrikotzat; bazterrak estaltzen zizkieten basoek hostaila itzaltso eta malenkoniatsua hedatzen zuten; pinua, alertzea, artea, basa olibondoa eta ereinotza bakarrik ikusten zen han.

Lehen esparru honetan zehar igaro ondoren, oihan nagusiaren itzalpera sartzen zen; han aurkitzen ziren nahastuta bi hemisferioetan hazten diren zuhaitzik handienak. Platano, katalpa, azukre-astigar eta Virginiako makalaren adarrak haritz, pago eta ezkiarekin zeuden elkarlotuta.

Gizakiaren menpeko oihanetan bezala, hemen gelditu gabe jotzen zuen herioak; baina inor ez zen arduratzen hark eragindako hondakinak erretiratzeaz. Beraz, batzuk besteen gain metatzen ziren: ez zegoen denborarik behar bezain bizkor hauts bihurtzeko eta leku berriak prestatzeko. Baina, hondakin hauen erdian ere, ugalkuntza-lanak etengabe jarraitzen zuen. Landare igokariak eta mota guztietako belarrak irteten ziren aurrera oztopoen artetik; eroritako zuhaitzetan zebiltzan narraska, hauen hondar artean agertzen ziren, artean estaltzen zituen azal ihartua altzarazi eta apurtzen zuten, beren ernamuin gazteei bidea irekiz. Honela, heriotzak biziari laguntzen zion nolabait ere. Bata eta bestea agertzen ziren han, beren egintzak elkar-nahastu nahi izan balituzte bezala.

Iluntasun beltza zeukaten oihan haiek azpian; milaka errekastok, artean giza lanak ukitu gabeko ibilguak zituztenak, etengabeko hezetasuna sortzen zuten han. Nekez ikusten zen loreren bat, basa fruituren batzuk, hegaztiren batzuk.

Denborak eraitsitako zuhaitz baten erorketak, ibai baten urjauziak, bufaloen marrumak eta haizearen ziztu-hotsak bakarrik hausten zuten han naturaren isiltasuna.

Ibai handiaren ekialdera, basoak desagertu egiten ziren neurri batean; berauen orde, belardi mugagabeak hedatzen ziren. Naturak, bere aniztasun amaigabea, zuhaitzen hazia ukatu ote zien landa emankor hauei, ala antzina estaltzen zituen oihana gizakiaren eskuz suntsitua ote zegoen? Ez tradizioek ez zientzi ikerketek argitu ahal izan dute hau.

Hala ere, eremu itzel hauek ez ziren erabat giza presentziarik gabeak; mendeak ziren herri batzuk harat-honat zebiltzala oihaneko itzalpean edo belardietako larreetan. San Lorentzoren bokaletik Mississippiren deltaraino, Atlantiar ozeanotik Hegoaldeko itsasoraino, basati haiek antzeko ezaugarriak zituzten beren artean, jatorri amankomunaren adierazgarri. Baina, bestela, arraza ezagun guztiekiko ezberdinak ziren<sup>16</sup>: ez ziren zuriak europarrak bezala, ezta horiak ere asiar gehienak bezala, ezta beltzak ere afrikarrak bezala; gorriska zuten larruazala, ilea luze eta distiratsua, ezpainak meheak eta masailalboak oso irtenak. Amerikako basa herriek mintzatzen zituzten hizkuntzek hitzak zituzten beren artean ezberdinak, baina gramatika-erregela berberak zituzten guztiek. Erregela hauek, zenbait puntutan, nahiko urrun zeuden ordura arte gizakien hizkuntz eraketa gidatu zutela ematen zutenetatik.

Amerikarren hizkuntzak konbinazio berrien emaitza ematen zuen; gaur egungo indioek, dirudienez, ez daukaten bezalako adimen-indarra suposatzen zuen hura asmatu zutenengan (C).

Herri haien gizarte-egoera ere zenbait aldetatik ezberdina zen Mundu Zaharrean ikusten zenarekiko: beren eremuetan askatasunez ugaltu zirela esan zitekeen, beraiena baino arraza zibilizatuagoekin harremanik gabe. Ez zegoen, beraz, haien artean ongiaren eta gaizkiaren dudazko nozio inkoherente horietakorik, ezta berriro basati bihurtu diren nazio zibilizatueta normalean ezjakintasun eta ohitura-zakarkeriarekin nahasten den ustelkeria larririk ere. Indioak bere buruari bakarrik zor zion dena: haren bertuteak, bizioak eta aurriritziak bere egintza ziren; bere naturaren independentzia basatian hazia zen.

Jende xehearen zabarkeria, herrialde zibilizatueta, ez da bakarrik ezjakin eta behartsu izatetik sortzen, baita, horrelakoak izanik, egunero pertsona ilustratu eta aberatsekin harremanetan daudelako ere.

Beren zoritxar eta ahultasuna, beren antzekoen arteko batzuen zorion eta boterearekin egunero kontrastatua, ikusteak, haien bihotzean sumina eta beldurra pizten ditu aldi berean; beren gutxiagotasun eta menpekotasunaren sentipenak amorrarazi eta apaldu egiten ditu. Arimaren barne-egoera hau beraien ohituretan agertzen da, baita hizkeran ere; lotsagabeak eta arruntak dira aldi berean.

Hau egia dela erraz frogatzen da behaketaz. Jendea beste inon baino zabarragoa da herrialde aristokratikoetan, eta hiri oparoetan gehiago landa-herrietan baino.

Gizaki oso ahaltso eta aberatsak dauden leku hauetan, ahulak eta behartsuak beren arrunkeriaz abailduta sentitzen dira; berdintasunera iristeko inolako biderik ikusten ez dutenez, zeharo etsitzen dute beren buruaz eta giza duintasuna baino beherago erortzen dira.

Baldintza-kontrastearen ondorio amorragarri hau ez da aurkitzen basa bizitzan: indioak, denak ezjakin eta behartsu direlarik, aldi berean denak berdin eta aske dira.

Europarrak iritsi zirenean, Ipar Amerikako indigenak artean ez zuen aberastasunen preziorik ezagutzen eta ez zitzaion axola gizaki zibilizatuak horien bidez lortzen duen ongizatea. Hala ere, ez zen harengan inolako zabarkeriarik nabari; aitzitik, bazuen bere portaeran berezko zuhertasun bat eta halako gizalege aristokratiko bat.

Gozo eta abegikor bakean, errukigabea gerran, giza basakeriari ezagun zaizkion mugak ere gaindituz, india gosez hiltzeko prest egoten zen arratsean etxolako atera hurbiltzen zitzaion atzeritarrari laguntzearen, eta bere eskuez zatitzen zituen preso hartutakoaren gorputzatalak, oraindik taupaka ari zirenean. Antzinako errepublikarik ospetsuenek sekula ez zuten ausardia irmoagorik, arima harroagorik eta independentziaren zaletasun setatiagorik miretsi izan, Mundu Berriko oihan basatiek ezkututzen zutena baino<sup>17</sup>. Europarrek zirrara txikia eragin zuten Ipar Amerikako itsasertzera iristean; haien agerpenak ez zuen ez inbidiarik, ez beldurrik sortu. Zer konkista egin zezaketen halako gizakien gain? Indioak bazekien beharrianik gabe bizitzen, kexatu gabe sufritzen eta abestuz hiltzen<sup>18</sup>. Giza familia handiko beste kide guztiek bezalaxe, basati haiek mundu hobeago batean sinesten zuten gainera eta, izen ezberdinak emanez, Jainkoa, unibertsoaren egilea, gurtzen zuten. Egia intelektual handiei buruz zituzten nozioak xume eta filosofikoak ziren orokorrean (D).

Gu hemen nolako izaera zuen esaten ari garen herriak primitiboa eman arren, ezingo litzateke zalantzan jarri beste herri zibilizatuago bat, hura baino aurreratuagoa gauza guztietan, izan zela lehenago eskualde berberetan.

Tradizio ilun batek, baina Atlantikoaren ertzetako tribu indiar gehienetan zabalduak, erakusten digunez, herri horien berorien egoitza garai batean Mississippiren mendebaldean egon zen. Ohioen ibaiertzetan eta erdiko haran osoan zehar egunero topatzen dira oraindik giza eskuak eraikitako tontorrak. Monumentu hauek erdiraino zulatzen badira, ia beti aurkitzen omen dira giza hezurak, lanabes bitxiak, armak, metalez egindako mota guztietako tresnak edo egungo arrazek ezagutzen ez dituzten erabilerak gogorarazten dizkigutenak.

Gaur egungo indioek ezin dute herri ezezagun horren historiari buruzko batere berririk eman. Duela hirurehun urte, Amerikaren aurkikuntzakoan, bizi zirenek ere ez zuten ezertxo esan, hipotesiren bat egin ahal izateko. Tradizioek, antzinako munduaren monumentu galkor eta etengabe birsortzen diren horiek, ez dute inolako argitasunik ematen. Han, ordea, gure antzeko milaka bizi izan zen; ez dago horren zalantzarik. Noiz iritsi ote ziren, eta zer jatorri, helburu edo historia izan ote zuten? Noiz eta nola suntsitu ote ziren? Inork ezin du esan.

Gauza bitxia! Herri batzuk hain erabat desagertu direnez lur gainetik, beraien izenaren oroitzapena ere ezabatu egin da; haien hizkuntzak galdu egin dira, haien ospea oihartzunik gabeko soinua bezala desagertu; baina ez dakit bakar bat egongo den hilobi bat gutxienez utzi ez duenik bere igaroaldiaren oroigarri. Hau, gizakiaren egintza guztietatik, bere ezereza eta miseriak hobekien gogorarazten dituen da oraindik ere.

Deskribatu berri dugun herrialde zabalean bertako tribu asko bizi izan bazen ere, aurkikuntza garaian eremu hutsa baino ez zela esan daiteke zuzentasunez. Indioak zeuden bertan, baina ez ziren beraren jabe. Gizakia nekazaritzaren bidez jabetzen da lurzoruz, eta Ipar Amerikako lehen biztanleak ehizak ematen zienaz bizi ziren. Beraien aurriritzi errukigabeek, grina menperagaitzek, bizioek eta, are gehiago, agian beraien bertute basatiek ezinbesteko



suntsipenera zeramatzaten. Herri haien hondamendia europarrak hango itsasertzetara iritsi ziren egunean hasi zen; etengabea izan da geroztik; gure egunotan burutu da. Badirudi Proidentziak, Mundu Berriko aberastasunen erdian kokatzean, gozamen laburra baino ez ziela eman; aberastasun haiek, nolabait ere, *itxaroten* baino ez zeuden han. Kosta haiek, merkataritza eta industriarako hain ongi prestatuak, ibai sakon haiek, Mississippiko haran agortezin hura, kontinente hura osorik, artean hutsik zegoen nazio handi baten sehaska bezala agertzen ziren.

Gizaki zibilizatuek hantxe saiatu behar zuten gizartea oinarri berrien gain eraikitzen, eta, ordura arte ezezagun edo aplikaezintzat jotako teoriak lehen aldiz aplikatuz, ikuskizun bat eskaintzera zihoazen munduari, zein iraganeko historiak hartarako prestatu gabe baitzeukan.

## II

### *Abiapuntua eta beraren garrantzia angloamerikarren etorkizunerako*

Herrien abiapuntua ezagutzearen onura beraien gizarte-egoera eta legeak ulertzeko.- Amerika da herrialde bakarra, non herri handi baten abiapuntua argi eta garbi hauteman ahal izan den.- Zertan ziren antzeko, Amerika ingelesean bizitzera joan ziren guztiak.- Zertan ziren ezberdin.- Mundu Berriko itsasertzean ezartzera joan ziren europar guztiei aplika dakiekeen oharpena.- Virginiako kolonizazioa.- Id. Ingalaterra Berrikoa.- Ingalaterra Berriko lehen biztanleen jatorrizko izaera.- Berauen iritsiera.- Lehen legeak.- Gizarte-kontratua.- Moisesen legeriatik hartutako kode penala.- Erlijiotasun sutua.- Izpiritu errepublikarra.- Erlijio-izpirituaren eta askatasun-izpirituaren arteko batasun estua.

Gizon bat jaio da; lehen urteak iluntasunean ematen ditu haurtzaroko atsegin edo nekeen artean. Hazi egiten da; gizontasuna hasten da; munduko ateak zabaltzen dira bera hartzeko; bere antzekoekin hasten da harremanetan. Orduan aztergai bihurtzen da lehen aldiz, eta bere heltzaroko bizio eta bertuteen hastapenak ikusi uste dira berarengan.

Hori, oker ez banabil, ez da batere egia.

Jo atzera; aztertu haurra amaren besoetan dagoenera arte; ikus beraren adimenaren ispiluan, oraindik ilun, kanpoko mundua lehen aldiz isladatzen; behatu beraren begietatik sartzen diren lehen etsenpluak; entzun pentsamenaren ahalmen lokartuek beraren baitan iratzartzen dituzten lehen hitzak; izan, azkenik, berak zertu beharreko lehen borroken lekuko; eta orduan bakarrik ulertuko duzue nondik datozkion bere bizitza menperatuko duten aurriritziak, azturak eta grinak. Gizakia, nolabait esateko, oso-osorik dago bere sehaskako zapien artean.

Antzeko zerbait gertatzen da nazioen artean. Herriei beti erasaten die beren jatorriak. Beraien jaiotzan izan ziren eta garatzen lagundu zieten zirkunstantziek bizitzaren gainerako guztian izaten dute eragina.

Gizarteen osagaietaraino jo eta beraien historiako lehen monumentuak aztertu ahal izango bagenu, ez dut zalantzarik bertan aurkituko genukeela aurriritzien, azturen, grina nagusien, izaera nazionala deitzen den hori osatzen duen guztiaren lehen kausa. Bertan aurkituko genuke gaur egun ohitura nagusien aurkakoak ematen duten usadioen azalpena; onarturiko printzipioen kontra daudela diruditen legeena; gizartean han-hemenka aurkitzen diren iritzi inkoherenteena, oraindik ere batzuetan eraikin zahar baten gangetatik zintzilika ikusten diren eta jadanik ezeri eusten ez dioten kate zati hautsi horien antzera. Honela esplikatuko litzateke zenbait herriren patua: indar ezezagun bat bezala, beraiek ere ezagutzen ez duten helmugarantz garraiatzen dituen. Baina orain arte egitateek ez dute honelako azterketarik izan; analisi-izpiritua, zahartu ahala bakarrik iritsi zitzairen nazioei, eta azkenean beren sehaskara begiratzea bururatu zitzaientean, ordurako denborak estalia zeukan halako laino batez, eta ezjakintasunak eta harrokeriak kondairaz inguratua, egia atzean ezkutatuz.

Amerika da herrialde bakarra, non behatu ahal izan diren gizarte baten bilakaera natural eta bareak, eta non zehaztu ahal izan den estatuen geroako ibilbidean abiapuntuak izandako eragina.

Europako jende-multzoak Mundu Berriko itsasertzetan jaitsi ziren garaian, ongi finkatuak zituzten beren izaera nazionalaren ezaugarriak; bakoitzak bere fisionomia berezia zuen; eta gizakia bere burua aztertzeraz eramaten duen zibilizazio-maila horretara iritsiak zirenez ordurako, beren iritzi, ohitura eta lekeen egiazko deskribapena utzi ziguten. XV. mendeko jendea ia gure mendekoa bezain ongi ezagutzen dugu. Honela, Amerikak egunargitan erakusten digu lehen aroetako ezjakintasunak edo basakeriak bistatik kendu ziguna.

Gaur egungo gizakia -gizarte amerikarrak sortu ziren garaitik aski hurbil beraien osagaiak zehatz ezagutu ahal izateko, eta behar bezain urruti hastapen haiek eman dutena jadanik epaitu ahal izateko-, badirudi bere aurrekoak baino urrutirago ikusi beharrean dagoela gizakiari gertatutakoetan. Gure arbasoei falta zitzairen zuzen bat jarri digu Probidentziak eskura, eta iraganeko iluntasunak ezkututzen zizkien lehen kausak bereizteko aukera eman digu, nazioen destinoan.

Amerikako historia arretaz ikertu ondoren, hango egoera politiko eta soziala kontuz aztertzen denean, sakon komentziturik gelditzen zara egia honetaz: ez dagoela iritzirik, ez azturarik, ez legerik, ezta gertakaririk ere esango nuke, abiapuntuak erraz esplikatzen ez duenik. Liburu hau irakurtzen dutenek kapitulu honetan aurkituko dute, beraz, ondorengoaren hastapena eta ia obra osoaren giltza.

Gaur egun Batasun amerikarra den lurraldera bolada ezberdinetan iritsi ziren migrariak gauza askotan ziren beren artean ezberdinak; ez zuten helburu berbera, eta printzipio ezberdinetan oinarrituriko gobernuak zuten.

Jende hark, halere, ezaugarri komunak zituen, eta antzerako egoeran aurkitzen ziren denak.

Hizkuntzaren lokarria da agian gizakiak elkar ditzakeen sendoena eta iraunkorrena. Migrari guztiek hizkuntza bera hitz egiten zuten; herri bereko seme-alabak ziren guztiak. Hainbat mendez partiduen borrokak asaldaturiko herrialde batean jaioak, bertan alderdiek, txandaka lekeen babespean jarri beharrean aurkitu zirelarik, beren heziketa politikoa eskola latz horretan hartua zuten, eta beraien artean Europako herririk gehienetan baino zuzenbidearen nozio gehiago, benetako askatasunaren printzipio gehiago, zegoen hedaturik. Lehen migrazioen garaian, udal-gobernuak, erakunde askeen ernamun emankorra, jadanik sakon ezarria zegoen aztura ingelesetan, eta honekin batera herri-subiranotasunaren dogma Tudortarren monarkian bertan ere sartua zegoen.

Kristaudia astindu zuten erlijio-gatazken erdian zeuden orduan. Ingalaterra suhartsu samar abiatua zen lasterketa berri honetan. Jendearen izaera, beti serio eta gogoetatsua izana, zorrotz eta argudiozale bilakatua zen. Irakaspena asko gehitua zen adimen-borroka haietan; izpirituak hartua zuen kultura sakonagoa. Erlijioari buruz hitz egin bitartean, ohiturak ere garbiago bihurtuak ziren. Nazioen ezaugarri orokor hauek guztiak, etorkizun berriaren bila ozeanoaz bestaldeko ertzetara joandako seme-alaben fisionomian aurkitzen ziren gutxi gora-behera.

Bada, bestalde, oharpen bat, zeinetara geroago itzultzeko aukera izango dugun, ez dena ingelesei bakarrik aplikatzekoa, baita frantsesei, espainolei eta Mundu Berriko itsasertzetan ezartzeraz elkarren segidan joandako europar guztiei ere. Kolonia europar berri guztiek zuten demokrazia osoaren, garapena ez bazen ere, bai behintzat ernamuina. Bi kausak eragiten zuten emaitza hori: oro har, esan daiteke, ama aberritik irtetean migrariak ez zutela batzuek besteei inolako gehiagotasun-ideiarik. Nekez dira erbesteratzen zoriontsu eta ahaltsuak, eta pobrezia eta zoritxarra dira gizakien artean ezagutzen diren berdintasunaren bermatzaile onenak. Baina gertatu zen zenbaitetan

jauntxo handiak ere joan zirela Amerikara liskar politiko edo erlijiosoen ondoren. Han legeak eman ziren hierarki mailak ezartzeko, baina laster ikusi zen lurzoru amerikarrak erabat errefusatzeko zuela lur-aristokrazia. Lur lankaitz hura goldatzeko jabearen beraren ahalegin etengabe eta arduratsuak behar zirela ikusi zen. Zorua prestatu ondoren, konturatu ziren emaitzak ez zirela behar hainbat handiak ugazaba eta maizterra aldi berean aberasteko. Beraz, jabeak bakarrik lantzen zituen lursail txikitzen zatitu zen terrenoa. Nolanahi ere, lurrari heltzen dio aristokraziak, zoruari atxikitzen zaio eta bertan oinarritzen; ez dira pribilegioak bakarrik aristokrazia ezartzen dutenak, ezta jaiotza ere, herentziaz eskualdatzen den lurjabetza baizik. Nazio batek ikaragarritzko aberastasunak eta lazeria handiak izan ditzake; baina aberastasun horiek ez badira lurrari buruzkoak, izango dira behartsuak eta aberatsak nazio horretan, baina, egia esateko, aristokraziarik ez.

Sortu zirenean, beraz, kolonia ingeles guztiek zuten beren artean famili giro handia. Hasieratik denek ematen zuten askatasunaren garapena bultzatzera bideratuak, ez beren ama aberriko askatasun aristokratikoa, askatasun burges eta demokratikoa baizik, zeinen eredu osorik ez zen artean munduko historian agertzen.

Giro orokor horren erdian, ordea, oso ñabardura biziak hautematen ziren, adierazi beharrekoak direnak.

Familia anglosaxoniarrak handiaren baitan bi ernamun nagusi bereiz daitezke, gaur arte guztiz bat egin gabe hazi izan direnak, bata hegoaldean, bestea iparraldean.

Virginiak hartu zuen lehen kolonia ingelesa. Migrariak 1607an iritsi ziren hara. Garai hartan, herrien aberastasuna urte eta zilar-meategiek ematen zutela pentsatzen segitzen zuen artean Europak; zoritxarreko ideia honek, horretara emandako nazio europarrak gehiago pobretu zituen eta Amerikan jende gehiago suntsitu zuen, gerrak eta lege txar guztiek batera baino. Beraz, urte-bilatzaileak -baliabiderik eta heziketarik gabeak- bidali ziren Virginiara<sup>19</sup>, eta haien izaera urduri eta asalatuak koloniaren haurtzaroa<sup>20</sup> nahastu zuen eta hango aurrerapenak koloka jarri. Ondoren industriariak eta nekazariak iritsi ziren, moral eta lasaitasun handiagoko jendea, baina Ingalaterrako behe-klaseen maila ia ezertan gaintzen ez zuena<sup>21</sup>. Batere goiburua bikainik, batere helburu inmaterialik, ez zen izan establezimendu berrien sorreran. Kolonia sortu orduko sartu zen esklabutza bertan<sup>22</sup>; egitate nagusi honek egundoko eragina izango zuen hegoaldearen izaeran, legeetan eta etorkizun osoan.

Esklabutza, geroago azalduko dugun bezala, lana desohoratzen du; aisia sartzen du gizartearen, eta honekin batera ezjakintasuna eta harrokeria, pobrezia eta luxua. Adimenaren indarrak ahultzen ditu eta giza jarduera moteltzen. Esklabutzaaren eraginak, izaera ingelesarekin batera, hegoaldeko ohiturak eta gizarte-egoera azaltzen ditu.

Azpi ingeles beraren gainean oso bestelako ñabardurak ezarri ziren iparraldean. Zilegi bekit hemen xehetasun batzuk ematea.

Iparaldeko kolonia ingelesen, Ingalaterra Berriko estatuak izenez ezagunagoak direnetan<sup>23</sup>, uztartu ziren gaur egun Estatu Batuetako gizarte-teoriaren oinarrian dauden bizpahiru ideia nagusiak.

Ingalaterra Berriko printzipioak inguruko estatueta hedatu ziren lehenik; ondoren, poliki-poliki, urrutikoenetara iritsi ziren eta azkeneko konfederazio osoan sartu ziren, zilegi bazait honela esatea. Printzipio horien eragina beren mugez gaintzen esparru amerikar osora iristen da orain. Ingalaterra Berriko zibilizazioa goiuneetako su horiek bezalakoa izan da, berotasuna inguruan zabaldu ondoren, beren argitasuna zerumugako azken bazterretaraino iristarazten dutenetakoa.

Ingalaterra Berriaren eraketak ikuskizun berria eskaini zuen; han dena izan zen berezi eta orijinala.

Ia kolonia guztietako lehen biztanleak izan ziren hezigabeak eta baliabiderik gabeak, miseriak eta portaera txarrak jaioterritik kanpora bultzatutakoak, edo espekulatzaile diruzaleak eta industri enpresariak. Badira koloniak antzeko jatorriak ere izan ez zutenak: Santo Domingo itsaslapurrek sortu zuten eta gaur egun Ingalaterrako auzitegiak arduratzen dira Australia jendeztatzeaz.

Ingalaterra Berriko itsasertzetan finkatzera joan ziren migrariak ama aberriko klaserik edukitsuenetakoak ziren guztiak. Amerikako lurretan elkartu zirenean, hasiera-hasieratik, gizarte-fenomeno berezia gertatu zen, han ez baitzegoen ez jauntxo handirik, ez herri xeherik, ezta, nolabait esateko, behartsu eta aberatsik ere. Proportzioan, jende haren artean jakintzargi gehiago zegoen banatuta gaur egun Europako edozein nazioren baitan baino. Guztiak, bakar bat ere salbuetsi gabe agian, nahiko heziketa aurreratuaren jabe ziren, eta haietako batzuk ezagunak ziren European beren talentu eta jakintzagatik. Beste koloniak familiarik gabeko abenturariak sortu zituzten; Ingalaterra Berriko migrariak ordena- eta moralitate-elementu miresgarriak eraman zituzten berekin; beren emazte eta seme-alabekin joaten ziren eremu hutsetara. Baina gainerako guztiengandik bereizten zituen eginkizunaren helburua bera zen, batez ere. Ez zituen premiak beren herrialdetik irtetera behartu; bertan gizarte-posizio desiragarria uzten zuten, eta bizibide ziurrak; ez ziren Mundu Berrira beren egoera hobetu edo aberastasunak gehitzeagatik joaten; aberriko gozotasunak baztertzen bazituzten, adimen-mailako beharragatik bakarrik zen; erbesteatzearen ezinbesteko ezbeharretara arriskatzean, *ideia baten* arrakasta lortu nahi zuten.

Migrariak -edo, beren buruak ongi deitzen zituzten bezala, *erromesak* (pilgrims)-printzipioen laztasunagatik puritano izena zuen Ingalaterrako sekta horretakoak ziren. Puritanismoa ez zen bakarrik erlijio-doktrina; zenbait puntutan teoria demokratiko eta errepublikarrik absolutuenekin ere bat eginda zegoen. Hortik sortu zitzaizkion areriorik arriskutsuenak ere. Ama aberriko gobernuak pertsegituta, bizi zireneko gizartearen eguneroko martxak beren printzipioen zorrotasunean zaurituta, lurralde basati eta munduak abandonatua nahi zuten puritanoek beren gogara bizi eta Jainkoari askatasunez otoitz egiteko.

Guk geuk erantsi genezakeenak baino hobeto ezagutaraziko dute aipu batzuek abenturari jainkozale haien izpiritua.

Nathaniel Morton-ek, Ingalaterra Berriko lehen urteen historialariak, honela ekiten dio gaiari<sup>24</sup>: "Beti sinetsi izan dut -dio berak- eginkizun sakratua zela guretzat oroitzapenari idatziz iraunaraztea, gure arbasoek Jainkoaren ontasunaren agerbide ugari eta gogoangarriak hartu baitzituzten kolonia hau ezartzerakoan. Guk ikusi duguna eta gurasoek kontatu zigutena geure seme-alabei jakinarazi behar diegu, etorkizuneko belaunaldiek Jauna goresten ikas dezaten, haren zerbitzari Abrahamen leinua eta haren hautatu Jakoben seme-alabak beti oroit daitezen Jainkoaren mirarizko egintzez (Salmoa 105, 5-6). Beharrezkoa da jakin dezaten Jainkoak nola eraman zuen bere mahastia eremura; nola landatu zuen eta nola urrunarazi paganoak handik; nola prestatu zion lekua, sustraiak sakon lurperatuz eta ondoren zabaltzen eta lurra estaltzen utziz (Salmoa 80, 15.13); eta ez hori bakarrik, baita nola gidatu zuen bere herria tabernakulu santurantz eta bere ondareko mendi gainean ezarri (Ir 15, 13). Egitate hauek ezagutu egin behar dira, Jainkoak zor zaion ohorea izan dezan, eta haren aintzaren izpi batzuk beraren bitarteko izan ziren santuen izen beneragarrien gain jaus daitezen".

Ezinezkoa da hasiera hau irakurtzea, norberak nahi ala ez, zirrara erlijioso itzela sentitu gabe; badirudi bertan antzinako giroa arnasten dela eta halako lurrin bibliko bat.

Idazleak duen uste sendoak beraren mintzaira goraltzen du. Dagoeneko ez dugu ikusten, ezta hark ere, itsasoz harantz aberastasun bila doan abenturari-talde txiki bat; herri handi baten hazia da, Jainkoak aurrez aukeraturiko lurraldean bere eskuz ereingo duena.

Autoreak jarraitu eta honela marrazten du lehen migrarien irteera<sup>25</sup>:

"Honela -dio- irten ziren beraientzat atsedeen-leku izan zen hiri honetatik (Delft-Haleft); hala ere, lasai zeuden; bazekiten erromes eta arrotz zirela hemen behean. Ez zituzten beren buruak lurreko gauzei atxikitzen, begiak zerurantz jasotzen baizik, beren aberri maiterantz, non Jainkoak prestatua zien hiri santua. Iritsi ziren azkenik itsasuntzia zain zuten portura. Beraiekin joan ezin zen adiskide askok gutxienez haraino jarraitu nahi izan zien. Lorik gabe igaro zen gaua; adiskidetasun-agerpenetan, jainkozko hitzaldietan, benetako samurtasun kristauz beteriko adierazpenetan igaro zen. Biharamunean untzira sartu ziren; haraino ere joan nahi izan zuten adiskideek; hasperen sakonak entzun ziren orduan, malkoak ikusi ziren begi guztietatik isurtzen, besarkada luzeak eta otoitz sutuak entzun ziren, arrotzak berak ere hunkitu zituztenak. Irteteko seinalea eman zenean, belaunikatu egin ziren, eta artzainak, malkoz beteta zerurantz begira, Jaunaren errukiari gomendatu zizkion. Azkenik agurtu ziren elkarren artean eta adio esan, haietako askorentzat azkena izango zen adioa".

Migrariak, gutxi gora-behera, ehun eta berrogeita hamarren bat izango ziren, gizon, emakume eta haur. Helburua Hudson-en ertzetan kolonia bat sortzea zen; baina itsaso zabalean noraezean ibili ondoren luzaroan, Ingalaterra Berriko kostalde idorretara joan behar izan zuten, gaur egun Plymouth hiria dagoen lekura. Oraindik ikusgai dago erromesak jaitsi zireneko harkaitza<sup>26</sup>.

"Baina urrutirago joan aurretik -dio aipatu dudan historialariak- kontuan har dezagun une batez herri gaixo honen egungo egoera, eta mires dezagun salbatu duen Jainkoaren ontasuna<sup>27</sup>.

"Igaroa zuten ozeano zabala, bidaiaren helmugara iristen ari ziren, baina ez zuten abegi egingo zien adiskiderik ikusten, ezta babestuko zituen bizilekurik ere; negu minean zeuden; eta gure klima ezagutzen dutenek ongi dakite zein latzak diren neguak eta zein hurakan bortitzek astintzen dituzten orduan gure kostaldeak. Urtaro honetan, leku ezagunak zeharkatzea ere zaila izaten da, are gehiago itsasertz berrietan ezartzea. Beraien inguruan eremu beldurgarri eta soila besterik ez zen ageri, piztia eta gizaki basatiz betea, zeinen basakeri maila eta kopurua ezezagunak baitzitzaizkien. Lurra izoztua zegoen; zorua basoz eta sasitaz estalia. Itxura basatia zuen guztiak. Beren atzean, mundu zibilizatutik banantzen zituen ozeano itzela besterik ez zuten ikusten. Bake eta itxaropen pixka bat aurkitzeko, begiak zerurantz baino ezin zituzten jaso".

Ez da uste izan behar puritanoen jainkozaletasuna espekulatiboa bakarrik zenik, ezta giza gauzen ibileraz arduratzen ez zenik ere. Puritanismoa, gorago esan dudan bezala, teoria politikoa zen ia erlijio-doktrina beste. Nathaniel Mortonek deskribatu berri duen abegi txarreko itsasertz hartan lehorreratu orduko, migrarien lehen ardura gizarte-eraketa da, beraz. Honako hau dioen akta onartzen dute berehala<sup>28</sup>:

"Guk, geure izenak ondoren ezarri ditugunok, Jainkoaren aintzarako, kristau-fedearen garapenerako eta geure aberriaren ohorerako itsasbater urrun hauetan lehen kolonia ezartzeari ekin diogunok, elkarren arteko adostasun solemnez eta Jainkoaren aurrean, gizarte politikozko gorputz bihurtzea hitzartzen dugu honen bidez, geure buruak gobernatzeko eta geure asmoak betetzearren lan egiteko helburuaz; eta kontratu honen indarrez, legeak, aktak eta ordenantzak aldarrikatzea hitzartzen dugu eta, beharren arabera, magistratuak eratzea, berauei menpekotza eta obedientzia agintzen dizkiegularik".

Hau 1620an gertatu zen. Ordudanik, migrazioa ez zen jadanik gelditu. Charles I.aren erregetza osoan inperio britainiarra astindu zuten grina erlijioso eta politikoez sektaritalde berriak bidali zituzten urtero Amerikako kostaldeetara. Ingalaterran, puritanismoaren bilguneak erdi-mailako klaseetan jarraitzen zuen; erdi-mailako

klaseetatik irteten ziren migrari gehienak. Ingalaterra Berriko biztanleria bizkor ari zen hazten eta, ama aberrian maila-hierarkiak jendea despotikoki sailkatzen zuen bitartean, kolonian gero eta nabariagoa zen bere parte guztietan homogeneousa zen gizartearen ikuskizun berria. Demokraziak, antzinatea amestera ere ausartu ez zena, gizarte feudal zaharraren erditik ihes egiten zuen, handi-handi eta ongi armatua.

Arazo-iturriak eta iraultza berrien elementuak beregandik urruntzeaz pozik, gobernu ingelesak atsekaberik gabe ikusten zuen migrazio ugari hau. Ahal zuen guztiaz lagundu ere egiten zuen, eta beraren legeen gogortasunaren kontra babes bila Amerikako lurraldera zihoazenen destinoaz gutxi arduratzen zela ematen zuen. Ingalaterra Berria irudimenaren ametsetara utzitako eskualdetzat zeukala esan zitekeen, berrizaleen saiakuntza askeetara laga beharreko eskualdetzat, alegia.

Kolonia ingelesek, eta hau izan zuten oparotasunaren kausa nagusienetako bat, beste herrialde batzuen koloniek baino barne-askatasun eta independentzia politiko handiagoa izan zituzten beti; baina askatasunaren printzipio hau ez zen beste inon Ingalaterra Berriko estatuetan baino osoago aplikatu.

Garai hartan orokorki onartua zegoen Mundu Berriko lurraldeak lehenengo aurkitzen zituen nazio europarrarenak zirela.

Honela, Ipar Amerikako ia itsasertz guztia bihurtu zen ingelesen jabetza XVI. mendearen bukaera aldera. Aginterri berri hauek jendeztatzeko gobernu britainiarrak erabilitako baliabideak izaera ezberdinetakoak izan ziren: kasu batzuetan, erregeak, berak aukeratutako gobernariaren menpe jartzen zuen Mundu Berriko zati bat, eta honek bere izenean eta bere agindu zuzenen arabera administratzeko ardura izaten zuen<sup>29</sup>; hau Europaren gainerakoan onarturiko sistema koloniala da. Beste batzuetan, pertsona edo konpainiaren bati ematen zion herrialdeko zati jakin batzuen jabetza<sup>30</sup>. Botere politiko eta zibil guztiak zeuden, beraz, pertsona baten edo batzuen eskuetan bilduta, eta hauek, koroaren begiradapean eta kontrolpean, lurrak saldu eta biztanleak gobernatzen zituzten. Hirugarren sistema, azkenik, migrari-talde bati, ama aberriaren zaindaritzapean, gizarte politikoa eratzeke eskubidea ematea zen, baita beren buruak gobernatzekoa ere legeen aurkakoak ez ziren gauza guztietan.

Kolonizazio-era hau, askatasunaren oso aldekoa, Ingalaterra Berrian bakarrik egikaritu zen<sup>31</sup>.

1628an<sup>32</sup>, honelako karta bat eman zien Charles I.ak Massachusetts-eko kolonia sortzera joandako migrariei.

Baina, oro har, Ingalaterra Berriko koloniei kartak ez zitzaizkien eman beraien existentzia atzeraezin bilakatu eta askoz geroago baizik. Plymouth, Providence, New Haven, Connecticut-eko estatua eta Rhode Island-ekoa<sup>33</sup> ama aberriak esku hartu gabe, eta nolabait ere jakin gabe, eratu ziren. Biztanle berriek, metropoliaren nagusitasunari uko egin gabe, ez zuten beronen baitatik atera botereen iturria, baizik eta beren buruak eratu zituzten, eta, hogeita hamar edo berrogei urte geroago, Charles II.aren garaian, legeztatu zitzaizen izatea errege-karta baten bidez.

Honela, Ingalaterra Berriko lehen monumentu historiko eta legegintzakoak aztertuz, zaila da sarritan migrari haiek arbasoen herrialdearekin duten lokarria aurkitzea. Subiranotasun-egintzak zertzen agertzen dira une oro; beren magistratuak izendatu, bakea eta gerra egin, polizi araudiak ezarri eta beren buruontzako legeak ematen dituzte, Jainkoaren menpe bakarrik baleude bezala<sup>34</sup>.

Ezer ez da aldi berean bereziago eta argigarriagorik garai hartako legeria baino; bertan aurkitzen da, batez ere, Estatu Batuek egungo munduari aurkeztzen dioten gizarte-enigma handiaren gakoa.

Monumentu hauen artean, adierazgarrienetakotzat, Connecticuteko estatu txikiak 1650ean bere buruari emandako lege-kodea<sup>35</sup> azpimarratuko dugu bereziki.

Connecticuteko legegileak<sup>36</sup> lege penalei buruz arduratzen dira lehenik; eta hauek egiteko, testu sakratuetara jotzeko ideia bitxia izan zuten:

"Jauna ez den beste jainkorik gurtzen duenak -diote hasieran- heriotza-zigorra izango du".

Ondoren, antzeko hamar-hamabi xedapen, hitzez hitz *Deuteronomioa*, *Irteera* eta *Lebitarrak* liburuetatik hartuak.

Biraoak, aztikeriak, adulterioak<sup>37</sup>, bortxaketak heriotza-zigorra izango dute; seme-alabek gurasoei egindako irainak ere zigor berbera du. Honela, herri landugabe eta erdi zibilizatu baten legeria, jakintzaz argituriko izpiritu eta ohitura gozoko gizarte baten baitara eskualdatu zen; horregatik, sekula ez zen heriotza-zigorra legeetan hain zabaldua eta gero hain errudun gutxiri aplikatua ikusi.

Legegileak, lege penalen gorputz horretan, gizartean ordena morala eta ohitura onak mantentzeaz arduratu ziren batez ere; honela kontzientziaren esparruan sartzen dira etengabe, eta ia ez dago bekaturik magistratuaren zentsurapean jartzen ez dutenik. Ohartu ahal izan da irakurlea lege hauek zein zorrotz zigortzen zituzten adulterioa eta bortxaketa. Ezkongabeen arteko harreman hutsa ere gogor zigortzen da. Errudunei hiru zigor hauetakoren bat ezartzeko eskubidea uzten zaio epaileari: isuna, zartailua edo ezkontza<sup>38</sup>; eta, New Haveneko auzitegi zaharretako erregistroetan dagoena sinestekotan, honelako auziak ez ziren urriak izaten; bada, 1660ko maiatzaren 1eko dataz, neska gazte baten aurkako epaiketa, isun eta zentzarazpenaz, zuhurtzia gutxiko hitzen batzuk esan eta musu bat ematen utzi izanaren akusaziopean<sup>39</sup>. 1650eko Kodeak prebentziozko neurri ugari du. Nagikeria eta hordikeria zorrotz zigortzen ditu<sup>40</sup>. Ostalariek ezin diote kontsumitzaile bakoitzari ardo-kantitate jakin bat baino gehiago eman; isunak edo zartailuak zigortzen du gezur hutsa, kaltegarri gertatzen denean<sup>41</sup>. Beste puntu batzuetan, legegileak, berak European eskatzen zituen erlijio-askatasuneko printzipio handiak zeharo ahaztuz, isunaren mehatxuapean, elizkizunetara joatera behartzen du<sup>42</sup>, eta zigor latzak eta sarritan heriotza ezartzeraino iristen da<sup>43</sup>, berea ez bezalako formularen batez Jainkoa gurtu nahi duten kristauen kontra<sup>44</sup>. Batzuetan, azkenik, arauketarako duen irrikak berarentzat batere duinak ez diren ardurak hartzeraino eramaten du. Honela, tabakoa erretzea debekatzen duen lege bat dago kode berean<sup>45</sup>. Gainera, ez da ahaztu behar lege bitxi edo tiraniko hauek ez zirela goitik behera ezarriak; interesatuek berek askatasunez bozkatzeko zituzten, eta ohiturak legeak baino ere zorrotzago eta puritanoagoak ziren. 1649an Bostonen elkarte ospetsu bat eratu zen, ile luzearen luxu mundutiarra eragozteko helburutzat zeukana<sup>46</sup> (E).

Honelako desbiderapenak zalantzarik gabe lotsagarriak dira giza izpirituarentzat; gure izaeraren askatasuna adierazten dute, egiari eta zuzentasunari tinko atxikitzeke gai ez izanik, bi gehiegikerien artean aukeratzera mugatzen baita sarritan.

Sektakeria estuaz eta pertsekuzioak asaldarazitako eta artean bihotzondoan bor-bor zeuden erlijio-grina guztiez biziki kutsaturiko legeria penal honen ondoan, lege politikoen gorputz bat dago kokatua, eta nolabait ere beraiekin kateatua, duela berrehun urte eratua izan arren, gure garaiko askatasun-izpiritua baino askoz aurrerago dagoela ematen duena oraindik ere.

Konstituzio modernoek oinarrian dituzten printzipio orokorrak -XVII. mendeko europar gehienek ozta-ozta ulertzen zituzten eta orduan Britainia Handian ezosoki nagusitzen ari ziren printzipio horiek-, denak onartu eta ezarri zituzten Ingalaterra Berriko legeek: hango arazo publikoetan eztabaidarik gabe eta egitez ezarri ziren herriaren eskuhartzea,

zergak askatasunez bozkatzea, botere-agenteen erantzukizuna, gizabanakoaren askatasuna eta epaimahai bidezko judizioa.

Printzipio sortzaile hauek, oraindik Europako nazioak ematen ausartu ez diren aplikazio eta garapenak hartzen dituzte han.

Connecticuten, hautesleria hiritar guztiek osatu zuten hasieratik, eta hau inolako eragozpenik gabe<sup>47</sup>. Sortzen ari zen herri hartan bazen orduan ia erabateko berdintasuna aberastasunari zegokionean eta are gehiago adimenari zegokionean<sup>48</sup>.

Connecticuten, garai hartan, botere exekutiboaren agente guztiak hautatu egiten ziren, baita estatuko gobernaria ere<sup>49</sup>.

Hamasei urtez gorako hiritarrak beharturik zeuden soldadutza egitera; milizia nazionala osatzen zuten, bere ofizialak izendatzen zituen eta herrialdea defendatzera joateko une oroz prest egon behar zuena<sup>50</sup>.

Connecticuteko legeetan, Ingalaterra Berriko guztietan bezalaxe, udal-independentzia ikusten da sortzen eta garatzen, gaur egun ere askatasun amerikarraren printzipio eta bizia bezala dena.

Europako nazio gehienetan, izate politikoa gizarteko goi-mailetan hasi zen eta poliki-poliki, eta betiere ezosoki, gizarte-gorputzaren beste zatietara iritsiz joan zen.

Amerikan, aitzitik, udalerria konderria baino lehen antolatu zela esan daiteke, konderria estatua baino lehen, estatua Batasuna baino lehen.

Ingalaterra Berrian udalerria zeharo eta behin-betiko eratua dago 1650etik aurrera. Udal-indibidualitatearen inguruan elkartzen eta atxikitzen dira hertsiki interesak, grinak, eginbeharrak eta eskubideak. Udalerrriaren barruan benetako bizitza politikoa, aktiboa, guztiz demokratikoa eta errepublikarra ikusten da nagusitzen. Koloniek metropoliaren nagusitasuna aitortzen dute oraindik; monarkia da estatuko legea, baina dagoeneko errepublika bizi-bizirik dago udalerrian.

Udalerrriak mota guztietako magistratuak izendatzen ditu; bere zergak erabakitzen ditu, berak banatzen eta biltzen ditu<sup>51</sup>. Ingalaterra Berriko udalerrian ez da onartzen ordezkapen-legea. Plaza publikoan eta hiritarren batzar nagusiaren baitan aztertzen dira, Atenasen bezala, guztien interesari dagozkion arazoak.

Errepublika amerikarren lehen garai honetan aldarrikatu ziren legeak arretaz aztertzen direnean, harrigarriak gertatzen dira legegilearen gobernatzeko argitasuna eta teoria aurreratuak.

Nabaria da, legegile hark, gizarteak bere kideekiko dituen eginbeharrez ideia jasoago eta osoagoa duela garaiko legegile europarrek baino, eta beste leku batzuetan artean ez zeuzkan betebeharrak ezartzen dizkiola. Hasieratik, Ingalaterra Berriko estatuetan ziurtatua dago behartsuen zoria<sup>52</sup>; neurri zorrotzak hartzen dira bideen mantenurako, funtzionariak izendatzen dira hauek zaintzeko<sup>53</sup>; udalerrietan erregistro publikoak daude eztabaida orokorren emaitzak eta hiritarren heriotzak, ezkontzak eta jaiotzak inskribatzeko<sup>54</sup>; erregistro hauetaz arduratzeko eskribauak izendatzen dira<sup>55</sup>; ofizialei ematen zaie oinordetza ordeinugabeak administratzeko ardura; beste batzuei, heredaturiko lursailen mugak zaintzekoa, eta udalerrian baretasun publikoari eustea da beste zenbaiten zeregin nagusia<sup>56</sup>.

Legea mila xehetasunetan sartzen da gizarte-premia asko aurrikusi eta asetzeko, hauei buruz gaur egun oraindik ere sentipen nahasia baino ez dagoenean Frantzian.

Baina hezkuntza publikoari buruzko aginduetan ikusten da argi eta garbi, hasieratik, zibilizazio amerikarraren izaera berezia.

"Kontuan izanik -dio legeak- Satanek, gizadiaren etsaiak, gizakien ezjakintasunean aurkitzen dituela bere armarik ahaltsuenak eta garrantzitsua dela gure gurasoek



ekarritako jakintzargiak ez gelditzea haien hilobian sartuta; kontuan izanik haurren hezkuntza dela Estatuaren lehen interesetako bat, Jaunaren laguntza<sup>57</sup>...". Ondoren, udalerrri guztietan eskolak sortzen dituzten xedapenak datoz, eta biztanleak, isun handien mehatxupean, zergak ordaintzera behartzen dituzte beroriei eusteko. Era berean, goi-mailako eskolak sortzen dira barrutirik jendetsuenetan. Udal-magistratuek arduratu behar dute gurasoek haurrak eskolara bidal ditzaten; honi uko egiten diotenen kontra isunak jartzeko eskubidea dute; eta hala ere onartzen ez badute, gizarteak, familiaren lekua hartuz, haurraz jabetu eta gurasoei naturak emandako eskubideak kentzen dizkie, hain gaizki erabili dituztelako<sup>58</sup>. Irakurlea ohartuko zen zalantzarik gabe ordenantza hauen atarikoaz: Amerikan erlijioa da jakintzargietara eramaten duena; jainko-legeak betetzea da gizakia askatasunera eramaten duena.

Honela, 1650eko gizarte amerikarrari begiratu bizkor bat eman ondoren, garai berean Europan, eta batez ere kontinentean, dagoen egoera aztertzen bada, harridura sakona sortzen da. Europako kontinentean, XVII. mendearen hasieran, erregetza absolutua zen alde guztietan nagusi, Erdi Aroko askatasun oligarkiko eta feudalaren hondakinen gainean. Europa distiratsu eta literario honen baitan, agian sekula ez zen hain ezezaguna izan eskubideen ideia; sekula ez zuten herriek gutxiago bizi izan bizitza politikoa; sekula ez zituzten benetako askatasunaren nozioek gutxiago kezkatu gogoak; eta orduantxe, hain zuzen, Europako nazioetan ezezagunak edo gutxietsiak ziren printzipio hauek berauek Mundu Berriko eremuetan aldarrikatzen zituzten eta herri handi baten etorkizuneko ikur bihurtzen ziren. Itxuraz hain apala zen gizarte hartan bakarrik, zeinaz arduratzeko ez baitzegokeen prest inongo estatu-gizonik, gauzatzen ziren giza izpirituaren teoriarik ausartienak; bere izaeraren berezitasunera utzia, gizakiaren irudimenak aurrekin gabeko legeria asmatu zuen han. Artean ez jeneralik, ez filosofoik, ez idazle handirik eman ez zuen demokrazia ilun haren baitan, gizon batek herri aske baten aurrean altxatu eta askatasunaren defizio eder hau eman ahal izan zuen, guztien txalo hartan<sup>59</sup>:

"Ez ditzagun geure buruak engaina geure independentziaz ulertu behar dugunaz. Bada, hain zuzen, halako askatasun usteldu bat, abereek nahiz gizakiek erabiltzen dutena, eta gogoak ematen duena egitea da hori. Askatasun hau autoritate guztiaren etsai da; egonezinik jasaten ditu arau guztiak; garena baino gutxiago bihurtzen gara honekin; egiaren eta bakearen etsai da; eta beronen kontra altxatu beharra iruditzen zaio Jainkoari! Baina bada askatasun zibil eta moral bat, bere indarra batasunean aurkitzen duena, eta hau babestea da boterearen beraren eginkizuna: on eta bidezko den guztia beldurrik gabe egiteko askatasuna da. Askatasun santu hau okasio guztietan defendatu behar dugu eta, behar izanez gero, geure bizia arriskatu beronengatik".

Dagoeneko nahikoa esan dut zibilizazio angloamerikarraren izaera behar beste argitzeko. Hau (eta abiapuntua etengabe izan behar dugu gogoan) zeharo ezberdin diren bi elementuen emaitza da, beste leku batzuetan sarri elkarren etsai izan arren, Amerikan nolabait ere biak bat egitera eta paregabeki konbinatzera iritsi diren bi elementuren emaitza. *Erljio-izpirituaz* eta *askatasun-izpirituaz* ari naiz.

Ingalaterra Berriaren sortzaileak sektario sutsuak eta aldi berean berritzaile asaldatauak ziren. Erljio-sineskizun batzuen lokarrik estuenetan harrapatuak, aurriritzi politiko orotatik aske zeuden.

Hortik sortu ziren bi joera ezberdin, baina ez aurkako, eta edonon aurkitzen da hauen arrastoa, ohituretan nahiz legeetan.

Gizon batzuek erljio-iritzi bati beren adiskide, familia eta aberria sakrifikatzen dizkiote; hain prezio altuan erosi nahi duten adimen-ondasun horren atzetik burubelari dabilzala pentsa daiteke. Baina aberastasun materialak eta atsegin moralak grina beretsuz bilatzen dituztela ikusten da: zerua beste munduan, eta ongizatea eta askatasuna hemengo honetan.

Haien eskuetan printzipio politiko, lege eta giza erakundeek gauza moldagarriak dirudite, nahierara erabili eta konbina daitezkeenak.

Jaio zireneko gizartea preso zeukaten hesiak eraitsi egiten dira beraien aurrean; iritzi zaharrak, aspaldiko mendeotan mundua gidatzen zutenak, desagertu egiten dira; ia mugarik gabeko lasterketa eta ertzik gabeko landa zabala agertzen dira: beronetara oldartzen da giza izpiritua, eta norabide guztietan ibiltzen da; baina, mundu politikoaren mugetara iristean, berez gelditzen da; dardaran, bertan behera uzten du bere ahalmenik beldurgarrienak erabiltzeko aukera; baztertu egiten du zalantza; uko egiten dio berritu beharrari; santutegiko oihala-estalkia ere ez du jaso nahi; begirunez makurtzen da eztabaidarik gabe onartzen dituen egien aurrean.

Honela, moralaren munduan, dena sailkatua dago, koordinatua, aurrikusia, aurrez erabakia. Politikaren munduan, dena asaldura da, zalantza, ziurtasunik eza; batean, obediencia pasiboa, nahiz eta borondatezkoa izan; bestean, independentzia, esperientziaren gutxiespena eta autoritate ororekiko susmo txarra.

Elkar kaltetu ordez, bi joera hauek, itxuraz hain aurkakoak, bat eginda dabilta eta elkarri laguntzen diotela dirudi.

Askatasun zibilean, giza ahalmenen egikaritzea bikaina ikusten du erlijioak; politikaren munduan, Egileak adimenaren ahaleginetara lagatako alorra. Aske eta ahaltsu bere esparruan, dagokion postuaz pozik, erlijioak badaki are hobeto ezarria dagoela bere agintea, bere indarrez bakarrik baita nagusi eta inolako laguntzarik gabe menperatzen baititu bihotzak.

Erlijioan, askatasunak bere borroka eta garaipenetako laguna ikusten du, haurtzaroko sehaska, bere eskubideen jainkozko sorburua. Erlijioa ohituren babesletzat hartzen du; ohiturak legeen bermetzat eta bere iraupenaren bahituratzat (F).

### **Angloamerikarren lege eta ekanduek agertzen dituzten zenbait berezitasunen zergatia**

Instituzio aristokratiko batzuen aztarnak demokraziarik osoenaren barruan.- Zergatik?.- Arretaz bereizi behar da zer den jatorri puritanokoa eta zer jatorri ingelesekoa.

Irakurleak ez du ondorio orokorreki eta absolutuegirik atera behar aurreko horretatik. Lehen migrarien gizarte-izantza, erlijio eta ohiturek, zalantzarik gabe, eragin ikaragarria izan dute beraien aberri berriaren destinoan. Hala ere, ez zen haien esku egon abiapuntua beraian bakarrik izango zukeen gizarte bat eratzea; inor ezin da iraganetik zeharo deslotu; haiei zera gertatu zitzaion: bere-bereak zituzten ideia eta usadioekin, beren heziketa edo beren herrialdeko tradizio nazionaletatik zetozkien beste usadio eta ideia batzuk nahastu zituztela, beren borondatez edo oharkabean.

Gaur egungo angloamerikarrak ezagutu eta epaitu nahi direnean, arretaz bereizi beharra dago zer den jatorri puritanokoa eta zer jatorri ingelesekoa.

Estatu Batuetan sarri aurkitzen dira inguruko guztiarekin kontrastatzen duten lege eta ekanduak. Lege hauek, Amerikako legerian nagusi den izpirituaren aurkako izpirituz idatziak ematen dute; ohitura hauek gizarte-egoera orokorraren aurkakoak dirudite. Kolonia ingelesak mende ilunbetsu batean sortu balituzte, edo jatorria aspaldiko antzinatean galdua balute, argitu ezina litzateke arazoa.

Adibide bakarra aipatuko dut neure pentsaera ulertarazteko.

Amerikarren legeria zibil eta kriminalak bi ekintza-bide bakarrik ezagutzen ditu: *presondegia* edo *fidantza*. Prozedurako lehen ekintzaemandatuaren kauzioa lortzea izaten da edo, uko egiten badio, preso sarraraztea; ondoren eztabaidatzen da demandatzeko arrazoien baliotasuna edo karguen astuntasuna.

Garbi dago honelako legeria behartsuaren aurkako dela eta aberatsari bakarrik laguntzen diola.

Behartsuak ez du kauzioa beti aurkitzen, ezta arazo zibiletan ere, eta justiziaren zain presondegira joan beharra izaten badu, beharturiko geldialdi horrek berehala uzten du lazerian.

Aberatsak, ordea, beti lortzen du presondegiari ihes egitea arazo zibiletan; are gehiago, delitua egin badu, erraz ihes egiten dio jasan beharko lukeen zigorrari, kauzioa aurkeztu ondoren, desagertu egiten baita. Esan daiteke, beraz, aberatsarentzat legeak ezartzen dituen zigor guztiak isunetara mugatzen direla<sup>60</sup>. Ba ote horrelako legeria baino aristokratikoagorik?

Hala ere, Amerikan behartsuak dira legea egiten dutenak, eta normalean berentzat gordetzen dituzte gizarteko abantailarik handienak.

Ingalaterran aurkitu behar da fenomeno honen azalpena, aipatzen ari naizen legeak ingelesak baitira<sup>61</sup>. Amerikarrek ez dituzte aldatu, nahiz eta beraien legeria osoaren eta ideia guztien kontra-kontrakoak izan.

Bere usadioez gain, legeria zibila da herri batek gutxien aldatzen duena. Lege zibilak legelariak bakarrik ezagutzen dituzte, hau da, onak edo txarrak izan, dauden bezala mantentzeko zuzeneko interesa dutenek, menperatzen dituztelako alegia. Nazioaren gehiengoak ia ez ditu ezagutzen; kasu partikularretan izan ezik ez ditu jardunean ikusten, nekez ulertzen du horien joera eta hausnarketarik gabe makurtzen da berorietara.

Adibide bat aipatu dut, baina beste asko aipatu ahal izango nituzkeen.

Gizarte amerikarrak ageri duen koadroa geruza demokratiko batez estalia dago, zilegi bazait honela adieraztea, eta horren azpian aristokraziaren antzinako koloreak agertzen dira noizbehinka.

### III

#### *Angloamerikarren gizarte-egoera*

Gizarte-egoera normalean egitateren baten ondorio izaten da, baina batzuetan legeena, eta gehienetan bi kausa hauena batera; baina behin badenez gero, nazioen portaera arautzen duten lege, ekandu eta ideia gehienek lehenengo kausatzat har daiteke gizarte-egoera bera. Berak sortzen ez duena, aldatu egiten du.

Herri baten legeria eta ohiturak ezagutzeko, beraren gizarte-egoera aztertzetik hasi behar da, beraz.

Angloamerikarren gizarte-egoeraren puntu nabarmenena funtsean demokratikoa izatea da

Ingalaterra Berriko lehen migrariak.- Beren artean berdinak.- Hegoaldean sartutako lege aristokratikoak.- Iraultzaren garaia.- Oinordetzako legeen aldaketa.- Aldaketa honek sorturiko ondorioak.- Berdintasuna azken mugetaraino eramana mendebaldeko estatu berrietan.- Adimenen arteko berdintasuna.

Hainbat oharpen garrantzizko egin ahal izango litzateke angloamerikarren gizarte-egoeraz, baina bat beste guztien gainetik dago.

Amerikarren gizarte-egoera demokratikoa da batez ere. Koloniak sortu zirenetik izan du izaera hau; are gehiago du gaur egun.

Esan dut aurreko kapituluan berdintasun handia zegoela Ingalaterra Berriko itsasertzean finkatzera joandakoen artean. Aristokraziaren hazia bera sekula ez zen Batasunaren alde horretan erein. Adimenaren eragina bakarrik ezarri ahal izan zen bertan. Herria izen jakin batzuk gurtzera ohitu zen, jakintzaren eta bertuteen ezaugarri gisa. Hiritar batzuen ahotsak halako botere bat lortu zuen herriaren gain, agian arrazoiz aristokratikoa dei zitekeena, gurasoengandik seme-alabengana beti igaro ahal izan balitz.

Hau Hudson ibaiaren ekialdera gertatzen zen; hego-mendebaldera, eta Floridetaraino jaitsiz, bestelakoa zen egoera.

Hudsonen hego-mendebaldera kokaturiko estatu gehienetara, ondasun handien jabeak joan ziren Ingalaterratik. Printzipio aristokratikoak, eta hauekin batera oinordetzari buruzko lege ingelesak, eraman zituzten. Jakinarazi ditut Amerikan inoiz aristokrazia indartsua ezarri ahal izatea eragozten zuten arrazoiak. Arrazoi hauek, Hudsonen hego-mendebaldean ere baziren arren, ibaiak ekialdera baino indar gutxiago zuten han. Hegoaldean, gizon bakar batek, esklabuen laguntzaz, lursail handia landu zezakeen. Kontinentearen alde honetan lur-jabe aberatsak zeuden, beraz; baina hauen eragina ez zen bereziki aristokratikoa, Europan ulertzen den bezala, ez baitzuten inolako pribilegiarik, eta esklabuen bidezko lur-langintzak ez zien maizterrik ematen, ezta, beraz, eskumenik ere. Halaz guztiz, lur-jabe handiek, Hudsonen hegoaldera, goi-mailako klasea osatzen zuten, bere ideia eta gustuak zituena, eta normalean ekintza politikoa bere baitan biltzen zuena. Nolabaiteko aristokrazia zen, herri-multzoarekiko ez oso ezberdina, beronen grina eta interesak erraz bereganatzen zituena, ez maitasunik eta ez gorrotorik sortarazi gabe; azken finean, ahula eta bizitasun txikikoa. Klase hau izan zen, hegoaldean, altxamenduaren buru jarri zena: Amerikako iraultzak bere gizonik handienak zor dizkio.

Garai hartan, gizarte osoa astindu zen: herriak, zeinen izenean egiten baitzen gerra, ahaltsu bihurtua, bere kabuz jarduteko gogoia izan zuen; sen demokratikoa esnatu zen; metropoliaren uztarria apurtzean, gustu hartu zitzaion independentzi mota orori. Eragin indibidualak, poliki-poliki, gutxituz joan ziren; ohitura eta legeak helburu bererantz abiatu ziren bat eginda.

Baina berdintasunari azken urratsa emanarazi ziona oinordetzari buruzko legea izan zen. Harritu egiten nau antzinako eta egungo publizistek giza arazoen garapenean eragin handiagorik ez egotzi izana oinordetza-legeei<sup>62</sup>. Egia da lege hauek maila zibilekoak direla; baina erakunde politiko guztien buruan jarrita egon beharko lukete, eragin itzela baitute herrien gizarte-egoeran, eta honen adierazpen baino ez dira lege politikoak. Gainera, legeek era ziur eta uniforme dute gizartean eragiteko; nolabait ere, jaio baino lehen jabetzen dira belaunaldiez. Horiei esker, ia jainkozkua den ahalmenaz hornitzen da gizakia bere antzekoen etorkizunarekiko. Legegileak behin arautzen du hiritarren oinordetza, eta atsedean hartzen du hainbat mendez. Bere egintza abiarazi ondoren, ken dezake eskua; makinak bere indarrez jarduten du, eta bere kabuz bezala bideratzen da aurrez ezarritako helmugarantz. Tankera zehatz batez eratua, bururen baten inguruan biltzen, kontzentratzen, multzokatzen du jabetza, eta laster boterea; lur-aristokrazia sortarazten du nolabait ere. Beste printzipio batzuen gidaritzapean, eta beste bide batetik eramana, are bizkorragoa da berorren ekintza; zatitu, banatu, barreiatu egiten ditu ondasunak eta boterea; orduan, gertatzen da batzuetan izutu egiten duela martxa horren bizkortasunak; abiada hori geldiarazteko itxaropenik gabe, eragozpen eta oztopoak jarri nahi izaten zaizkio aurrean; aurkako ahaleginen bidez orekatu nahi izaten da horren ekintza; alferrikako ardurak! Suntsitu edo lehertarazi egiten du aurrean aurkitzen duen guztia, altxatu eta erori ibiltzen da etengabe, azkenean hauts mugikor eta ukiezina bakarrik gelditzen den arte ikusteko moduan, eta bertan demokrazia ezarria.

Oinordetza-legeak aitaren ondasunak seme-alaba guztien artean berdin banatzen uzten badu, eta are gehiago agintzen badu, bi motakoak izaten dira ondorioak; garrantzizkoa da arretaz bereiztea, helburu bererantz jotzen duten arren.

Oinordetza-legearen indarrez, jabe bakoitzaren heriotzak iraultza sortzen du jabetzan; ondasunak ez dira nagusiz bakarrik aldatzen, baita, nolabait esateko, izaeraz ere; zati txikiagotan banatzen dira etengabe.

Hori da legearen ondorio zuzena eta, nolabait ere, materiala. Legeriak banaketa-berdintasuna ezartzen duen herrialdeetan, ondasunek, lurrari buruzkoek batez ere, murrizteko joera iraunkorra izan behar, beraz. Hala ere, legeari bere kabuz utziko

balitzaio, legeria horren ondorioak luzarora bakarrik nabarituko lirateke; zeren eta, familian ez badaude bi seme-alaba baino gehiago (eta Frantzia bezalako herrialde jendetsu bateko familietan batezbeste hiru omen daude), seme-alaba hauek aitaren eta amaren ondasunak banatzean, ez dira hauetako bakoitza banaka baino behartsuago izango.

Baina banaketa berdinarenean legeak ez du ondasunen zorian bakarrik eragiten; jabeen ariman ere badu eraginik, eta hauen grinei hots egiten die lagun diezaioten. Horren zeharkako ondorioak dira aberastasun handiak, eta lur-jabetza handiak batez ere, bizkor suntsitzen dituztenak.

Oinordetza-legea primitza-legean oinarritzen den herrietan, lur-jabetzak gehienetan belaunaldiz belaunaldi eskualdatzen dira zatitu gabe. Ondorioz, famili izpiritua lurrean gauzatzen da nolabait ere. Familiak lurra errepresentatzen du, lurrak familia; honen izena, jatorria, aintza, boterea eta bertuteak betikotzen ditu lurrak. Iraganaren lekuko galezina da, eta geroko izatearen berme preziatua.

Oinordetza-legeak banaketa berdina ezartzen duenean, suntsitu egiten du famili izpirituaren eta lurrari iraunaraztearen artean zegoen lotura estua; lurrak ez du jadanik familia errepresentatzen, belaunaldi bat edo biren buruan zatitzea eragotzi ezin denez, garbi baitago etengabe murriztu eta azkenean zeharo desagertuko dela. Lur-jabe handi baten seme-alabek, gutxi badira edo patua alde badute, izan dezakete beren sortzailea baino behartsuago ez izateko itxaropenik, baina ez ondasun berberak izatekoa; seme-alaben aberastasuna gurasoarena ez bezalako elementuz osatuko da halaberharrez.

Nolanahi ere, lur-jabeei sentimendu, oroitzapen, harrotasun edo lurrari iraunarazteko gogoia bezalako interes handi bat kentzen diezun momentutik, ziur egon lehentxeago edo geroxeago lurra saldu egingo dutela horiek, diru-interes handia baitute salmentan, kapital higigarriek besteek baino korritu gehiago ematen dutelako eta momentuko grinak asetzeko askoz egokiagoak direlako.

Behin zatitu ondoren, lur-jabetza handiak ez dira inoiz berrosatzen, proportzioan jabe txikiak etekin handiagoa ateratzen baitio bere landari<sup>63</sup> jabe handiak bereari baino; honek baino askoz garestiago saltzen du, beraz. Honela, aberatsa jabetza zabalak saltzera bultzatu duten kalkulu ekonomikoek are arrazoi handiagoz eragotziko diote jabetza txikiak erostea, handiak berrosatzeko.

Famili izpiritua deitzen dena gizabanakoaren berekoikeriaren ilusioan oinarritzen da sarri. Betikotzea eta nolabait ere hilezkortzea lortu nahi izaten da berbilobengan. Famili izpiritua amaitzen den puntuan, bakoitzaren berekoikeria agertzen da bere benetako joerekin. Familia gauza lauso, zehazgabe, ziurgabe bezala agertzen zaionez izpirituari, bakoitza bere orainaren erosotasunaz arduratzen da; ondorengo belaunaldiaren ezarpenean pentsatzen da, baina gehiagorik ez.

Ez da, beraz, familiari iraunaraztea pentsatzen, edo bestela lur-jabetza ez bezalako beste bide batzuetatik betikotu nahi izaten da.

Honela, oinordetza-legeak, jabetzak ukigabe gordetzea zaildu ezezik, horretan saiatzeko gogoia ere kentzen die familiei, eta, nolabait ere, berarekin batera beren hondamendian laguntzera bultzatzen ditu.

Banaketa berdinarenean legeak bi bidetatik jokutzen du: gauzaren gain jardutean, gizakiarengan dihardu; gizakiarengan jardutean, gauzara iristen da.

Bi era horietan lortzen du lur-jabetzari sakon erasotzea eta familiak nahiz aberastasunak bizkor desagertaraztea<sup>64</sup>.

Dudarik gabe, ez dagokigu guri, XIX. mendeko frantsesoi, oinordetza-legeak sortarazten dituen aldaketa politiko eta sozialen eguneroko lekuko garenoi, berorren boterea zalantzan jartzea. Eguneroko ikusten dugu behin eta berriro gure lurretan etengabe pasatzen, bere igarobidean gure egoitzetako hormak eraitsiz eta gure landetako

harresiak suntsituz. Baina oinordetza-legeak dagoeneko asko egin badu gure artean, zeregin asko gelditzen zaio oraindik. Gure oroitzapenek, gure iritzi eta azturek oztopo ahaltzuak jartzen dizkiote.

Estatu Batuetan, gutxi gora-behera burutua du bere suntsipen-lana. Han azter daitezke berorren ondorioak nagusienak.

Ondasun-transmisioari buruzko legeria ingelesa ia estatu guztietan abolitu zen iraultzaren garaian.

Ordezko buruzko legea, ondasunen zirkulazio askean eragozpenik txikiena izateko moduan aldatu zuten (G).

Igaro zen lehen belaunaldia; lurrak zatitzen hasi ziren. Denbora igaro ahala, mugimendua gero eta bizkorragoa zen. Gaur egun, hirurogei urte bakarrik igaro direnean, dagoeneko ezagutezina da gizartearen itxura; lur-jabe handien familia ia guztiak multzo orokorraren baitan irentsita daude. New Yorkeko estatuan, horietako asko zeuden lekuan, ozta-ozta irauten dute bik, irensteko prest dagokien zurrunbiloaren erdian. Hiritar aberats hauen seme-alabak merkatari, abokatu, mediku dira gaur egun. Ilunberik beltzenean jausi dira gehienak. Gizarte-mailen herentziazko bereizketen azken aztarnak suntsiturik daude; oinordetza-legeak alde guztietan pasatu du bere nibela.

Kontua ez da Estatu Batuetan, alde guztietan bezalaxe, ez dagoela aberatsik; ez dut ezagutzen herrialderik diru-zaletasunak giza bihotzean leku gehiago hartzen duenik, ezta ondasunekiko berdintasun iraunkorraren teoria bizikiago gutxien denik ere. Baina aberastasunak ikaragarri bizkor zirkulatzen du han, eta, esperientziak erakusten duenez, nekez ikusten dira bi belaunaldi aberastasun horren onurak gozatzen.

Koadro honek, oso koloreztatua imajinatu arren, ez du ideia osoa ematen mendebaldeko eta hego-mendebaldeko estatu berrietan gertatzen denaz.

Joan zen mendearen bukaeran, abenturari ausartak hasi ziren Mississippiko haranetan sartzen. Amerikaren aurkikuntza berri bat bezala izan zen. Laster jo zuten harantz migrari gehienek; bat-batean gizarte ezezagunak sortu ziren eremuan. Estatu berriak, urte gutxi batzuk lehenago izenik ere ez zutenak, sortu ziren Batasun amerikarraren baitan. Mendebaldean ikus daiteke demokrazia bere azken mugetaraino eramana. Estatu hauetan, nolabait ere aberastasunak bat-batean sortaraziak, biztanleak iritsi berri-berriak dira lur horietara. Ia ez dute elkar ezagutzen, eta bakoitzak ez daki bere auzoko hurbilenaren historia. Kontinente amerikarraren alde honetan, jendea ez dago izen handien eta aberastasun handien eraginpean, ezta jakintzargiak eta bertuteak sortzen duten berezko aristokraziaren menpe ere. Han inork ez dauka, beren aurrean ongia egiten bizitza osoa igarotakoaren oroitzapenari jendeak eman ohi dion botere errespetagarri hori. Mendebaldeko estatu berriek jada badute biztanlerik; baina han ez da gizarterik oraindik.

Amerikan, ordea, berdinak ez dira aberastasunak bakarrik; berdintasuna adimenetara ere iristen da neurri batean.

Ez dut uste munduan beste herrialderik dagoenik, biztanleen proportzioan, Amerikan bezain ezjakin gutxi eta jakitsu gutxiago duenik.

Lehen mailako hezkuntza guztien esku dago han; goi-mailako hezkuntza ia inorenean ere ez.

Erraz ulertzen da hau, eta gorago aurreratu dugunaren ezinbesteko ondorioa da, nolabait esateko.

Ia amerikar guztiak bizi dira eroso; beraz, erraz berengana ditzakete giza ezagupenen lehen osagaiak.

Amerikan aberats gutxi dago; beraz, ia amerikar guztiek dute lanbideren baten beharra. Nolanahi ere, lanbide orok ikaskuntza eskatzen du. Beraz, adimena orokorki lantzen bizitzako lehen urteak bakarrik eman ditzakete amerikarrek. Hamabost urterekin,

lanbideari ekiten diote; honela, haien heziketa gurea hasten den garaian amaitzen da gehienetan. Aurrerago jarraitzen badu, gai berezi eta irabaziak ematen dituztenetara bakarrik zuzentzen da; lanbide bat hartzen den bezalaxe ikasten da zientzia bat; eta honetan momentuko erabilgarritasuna aitortua duten aplikazioak bakarrik ikasten dira.

Amerikan, aberatsik gehienak behartsu izan ziren hasieran; lanik egin beharrik ez duten ia guztiek, gaztaroan, lanean jardun zuten; horregatik gertatzen da, ikasteko zaletasuna egon zitekeenean, ez zegoela horretarako astirik; eta ikasteko astia lortu denean, jadanik ez dagoela horretarako gogorik.

Amerikan ez dago klaserik adimen-atseginetarako joera oparotasun eta aisiarekin batera herentziaz transmititzen duenik, adimen-lanak ohoragarritzat edukiz.

Beraz, lan hauetara dedikatzeko borondatea falta da, baita horretarako ahalmena ere. Amerikan, giza ezagupenetan, halako erdi-maila bat lortu da. Izpiritu guztiak hurbildu dira han: batzuk goratuz, beste batzuk beheratuz.

Jendetza ikaragarria aurkitzen da, beraz, denek gutxi gora-behera nozio beretsuak dituztelarik erlijio, historia, zientzia, ekonomia politiko, legeria edo gobernuaz.

Adimen-ezberdintasuna Jainkoagandik dator zuzenean, eta gizakiak ezin du berorren agerpena beti eragotzi.

Baina, esan berri dugunaren arabera, gertatzen da adimenek -nahiz eta desberdinak izan, Egileak nahi izan duen bezala- baliabide berdinak aurkitzen dituztela eskura. Honela, gaur egun, Amerikan elementu aristokratikoa, beti ahula jaio zenetik, suntsiturik ez baldin badago ere, ahulduta behintzat badago, eta zaila da arazoan martxan inolako eraginik berorri egozte.

Aitzitik, elementu demokratikoa nagusi ezezik, nolabait esateko, elementu bakar ere bihurtu dute denborak, gertakariak eta legeak. Han ez da nabari inolako famili edo korporazio-eraginik; sarritan ezin da aurkitu ezta eragin indibidual iraunkor samarrik ere.

Beraz, Amerikak fenomenorik arraroena du bere gizarte-egoeran. Han gizakiak beren aberastasun eta adimenetan berdina goak -edo, beste era batera esanda, beren indarrean berdina goak- dira, munduko beste edozein herrialdetan diren edo historia oroitzen den neurrian beste edozein mendetan izan diren baino.

Angloamerikarren gizarte-egoeraren ondorio politikoak

Horrelako gizarte-egoeraren ondorio politikoak erraz deduzi daitezke.

Ulertezina da, azkenean, berdintasuna politika-arloan ez sartzea alde guztietan bezalaxe. Ezin da imajinatu gizakiak beren artean betikoz ezberdin izan daitezkeenik puntu bakar batean, eta berdina beste puntuetan; beraz, denboraldi baten barruan, guztietan berdina izatera iritsiko dira.

Nolanahi ere, bi era bakarrik ezagutzen ditut politika-arloan berdintasuna nagusi izan dadin: hiritar guztiei eman behar zaizkie eskubideak, edo bestela inori ere ez.

Angloamerikarren gizarte-egoera berera iritsi diren herrientzat oso zaila da guztien subiranotasunaren eta bakar baten botere absolutuaren artean erdibide bat imajinatzea.

Ezin da ezkatatu azaldu berri dudan gizarte-egoerak bere bi ondorioetako edozeinetara jo dezakeela ia erraztasun berberaz.

Bada, hain zuzen, berdintasunerako grina indartsu eta bidezkoa, gizaki guztiak ahaltsu eta preziatu izan nahi izatera bultzatzen dituen. Grina honek txikiak handien mailara jasotzeko joera du; baina, halaber, bada giza bihotzetan berdintasunaren gustu gaizto bat, ahulak indartsuak beren mailara erakarri nahi izatera bultzatzen dituen, eta pertsonak desberdintasuna askatasunean baino berdintasuna morrontzan nahiago izatera murrizten dituen. Kontua ez da gizarte-egoera demokratikoa duten herriek berez gutxietsi egiten dutela askatasuna; aitzitik, badute berez eta senez horren zaletasuna. Baina askatasuna ez da horien nahiaren helburu nagusi eta etengabea; betiko maitasunez

maite izaten dutena berdintasuna da; bultzada bizkor eta bat-bateko ahaleginez oldartzen dira askatasunerantz eta, ez badute helburua lortzen, etsi egiten dute; baina ezerk ez lituzke aseko berdintasunik gabe, eta hau galtzea baino lehenago onartuko lukete hiltzea.

Bestalde, hiritarrei, guztiak gutxi gora-behera berdinak direnean, zaila gertatzen zaie boterearen erasoan aurka beren independentzia defenditzea. Banaka abantailaz borrokatzeko beraietako inor nahikoa indartsu ez denez, guztien indarrak elkartzeak bakarrik ziurta dezake askatasuna. Baina ez da beti horrelako elkartasunik aurkitzen.

Herriek, beraz, bi ondorio politiko handi atera ditzakete gizarte-egoera beretik: ondorio hauek ikaragarri ezberdinak dira beren artean, baina egitate beretik sortzen dira biak.

Angloamerikarrek, azaldu berri dutan alternatiba beldurgarri horren aurrean lehenengo jarriak, botere absolutuari ihes egiteko adina zorte on izan zuten. Zirkunstantziek, jatorriak, jakintzargiak eta, batez ere, ohiturek herri-subiranotasuna oinarritzeko eta mantentzeko aukera eman diete.

#### IV

##### *Herri-subiranotasunaren printzipioa Amerikan*

Gizarte amerikar osoa menperatzen du.- Amerikarrek jadanik beren iraultza aurretik printzipio honetaz egiten zuten aplikazioa.- Iraultzak eman dion garapena.- Zentsuaren murriztapen mailakatu eta geldieztina.

Estatu Batuetako lege politikoez hitz egin nahi denean, herri-subiranotasunaren dogmatik hasi behar da beti.

Herri-subiranotasunaren printzipioa, gehixeago edo gutxixeago ia giza erakunde guztien hondoan aurkitzen dena beti, normalean ezkutuan bezala egoten da hor. Obeditu egiten zaio ezagutzarik eman gabe, eta inoiz gertatuz gero une batez argitara irtetea, berehala murgilarazten da santutegiko ilunbeetan.

Nazio-borondatea da garai guztietako azpikariek eta aro guztietako despotek gehiegikeriaz erabili duten hitzetako bat. Batzuek, zenbait botere-agentek erositako botoetan ikusi dute berorren adierazpena; beste batzuek, gutxiengo interesatu edo beldurtiaren botoetan; eta badira herrien isiltasunean zeharo formulatua aurkitu dutenak, eta obedientziaren *egitatetik* beraien agintzeko *eskubidea* sortzen zela pentsatu dutenak ere.

Amerikan, herri-subiranotasunaren printzipioa ez da zerbait ezkutuko edo antzua, beste zenbait naziotan bezala; onartua dago ohituretan, aldarrikatua legeetan; askatasunez hedatu eta eragozpenik gabe iristen da azken ondorioetaraino.

Herrialderen bat baldin badago munduan, non herri-subiranotasunaren dogma bere balio zuzenean preziaztea, gizarteko arazoetara aplikaturik aztertzea eta bere alde on eta arriskuak epaitzea espero daitekeen, Amerika da herrialde hori, zalantzarik gabe.

Esan dut lehen herri-subiranotasunaren printzipioa izan zela hasieratik Amerikako kolonia ingeles gehienek printzipio sortzailea.

Askok falta izan zitzaion, ordea, gizartearen gobernua menperatzeko, gaur egun egiten duen bezala.

Bi oztopok, bata kanpoko eta bestea barrukoa, eusten zioten atzera bere aurrerabidean.

Ezin zen legeetan argi eta garbi jarri, artean koloniak metropoliari obeditu beharrean zeudelako; beraz, probintzi batzarretan, eta batez ere udalerrietan, ezkutatzera beharturik zegoen. Hauetan hedatzen zen isilean.

Orduko gizarte amerikarra ez zegoen artean prestatua printzipio hori bere ondorio guztiekin onartzeko. Aurreko kapituluan ikusarazi dutan bezala, Ingalaterra Berrian jakintzargiak eta Hudsonen hegoaldean aberastasunak luzaroan zertu zuten halako eragin aristokratiko bat, gizarte-botereen egikaritzea esku gutxi batzuetan biltzera jotzen zuena. Artean asko falta zen funtzionari publiko guztiak hautatuak eta hiritar guztiak



hautesle izan zitezen. Hautesle-eskubideak bere mugapenak zituen alde guztietan, eta beharrezkoa zen zentsu bat izatea. Zentsu hau oso ahula zen iparraldean, garrantzizkoagoa hegoaldean.

Iraultza lehertu zen Amerikan. Herri-subiranotasunaren dogma udalerritik irten eta gobernuaz jabetu zen; klase guztiak konprometitu ziren kausa honetan; beronen izenean izaten ziren borrokak eta garaipenak; legeen lege bilakatu zen.

Ia aurrekoa bezain aldaketa bizkorra gertatu zen gizartearen barruan. Oinordetza-legeak burutu zuen eragin lokalen suntsipena.

Legeen eta iraultzaren ondorio hau guztien aurrean agertzen hasi zenerako, garaipena era itzulezinean demokraziaren aldera makurtua zen jadanik. Izan ere, bere esku artean zeukan boterea. Berorren kontra borrokatzea ere ez zegoen onartuta. Goi-klaseak protestarik eta borrokarik gabe makurtu ziren jadanik saihestezina zen gaitz horretara. Erortzen diren botereei normalean gertatzen zaiena gertatu zitzaien: bakoitzaren berekoikeria jabetu zen beraien kideez; jadanik herriaren eskuetatik indarra kentzerik ez zegoenez, eta jende xehearenganako gorrotoa hura probokatzen ibiliz atsegina lortzeko adinakoa ez zenez, kosta ahala kosta berorren onginahia lortzea bakarrik pentsatu zen. Legerik demokratikoenak, berauengatik interesetan kalte handiena jasandakoek bozkatu zituzten setati. Honela, goi-klaseek ez zuten beren aurka herriaren amorrua suspertu, baizik eta haiek berek aurreratu zuten ordena berriaren arrakasta. Honela, gauza bitxia!, bultzada demokratikoa are geldiezinagoa izan zen aristokrazia sustraituagoa zegoen lekuetan.

Marylandeko estatua, jauntxo handiek sortua, lehena izan zen boto unibertsala<sup>65</sup> aldarrikatzen eta formarik demokratikoenak sartu zituen bere gobernu osoan.

Herri bat hauteskunde-zentsua ukitzen hasten denean, lehentxeago edo geroxeago zeharo desagertaraztea lortuko duela aurriku daiteke. Hau da gizarteak arautzen dituen erregelarik aldagaitzenetako bat. Hautesle-eskubideen mugak atzera egiten duen neurrian, are gehiago atzerarazteko beharra sentitzen da, zeren eta, kontzesio berri bakoitzaren ondoren, demokraziaren indarrak areagotu eta eskakizunak gehitu egiten baitira bere ahalmen berriarekin. Zentsutik kanpo gelditzen direnen irrika barruan dagoen kopuru handiaren proportzioan ernegatzen da. Salbuespena arau bihurtzen da azkenean; etengabe egiten dira kontzesioak, eta sufragio unibertsalera iristean bakarrik amaitzen dira.

Gaur egun, imajina daitezkeen garapen praktiko guztiak izan ditu herri-subiranotasunak Estatu Batuetan. Beste alde batzuetan inguruan arretaz jarri dizkieten fikzio guztietatik aske dago han; kasuak behar duenaren arabera, segidan forma guztiak hartzen dituela ikusten da. Batzuetan herriak gorputz gisan egiten ditu legeak Atenasen bezala, beste batzuetan boto unibertsalak sortutako diputatuek ordezkatzeko dute eta beraren izenean jarduten, baina hurbil-hurbiletik zainduta.

Badira herrialdeak non botereak, nolabait ere gizarte-gorputzaz kanpokoa izan arren, beronen gain eragiten duen, bide jakin batetik joatera behartuz.

Beste batzuetan, berriz, indarra zatiturik dago, aldi berean gizartearen barruan eta kanpoan kokatua. Estatu Batuetan ez da antzerako ezer ikusten; gizarteak bere kabuz eta bere gain jarduten du han. Ez dago botererik beraren baitan izan ezik; ezin da inor aurkitu berorren bila beste norabait joan behar dela pentsatzen eta batez ere adierazten ausartuko denik. Legegileak aukeratuz esku hartzen du herriak legeen osaketan, eta botere exekutiboaren agenteak aukeratuz lege horien aplikazioan; herriak berak gobernatzen duela esan daiteke, bai ahul eta murrizta delako administrazioari utzitako zatia, baita honi bere herri-jatorriak asko erasaten diolako ere eta bere sorburu duen botereari obeditzen diolako ere. Herriak agintzen du Amerikako politika-arloan,

Jainkoak unibertsoan bezala. Bera da gauza guztien kausa eta helburua; harengandik sortzen da dena eta hark bereganatzen dena (H).

V

*Batasuneko Gobernuaz hitz egin aurretik*

*Estatu partikularretan gertatzen den aztertu beharra*

Kapitulu honetan, herri-subiranotasunean oinarrituriko gobernu-modua Amerikan zein den aztertzeke asmoa dugu; zein diren berorren ekintza-bideak, arazoak, abantailak eta arriskuak.

Hona hemen lehen eragozpena: konstituzio konplexua dute Estatu Batuek; han bi gizarte ezberdin daude elkarloturik eta, honela esan badezaket, bata bestearekin artekatua; han bi gobernu daude zeharo bereziak eta ia independenteak: bata, ohikoa eta mugagabea, gizartearen eguneroko beharrei erantzuten diena; bestea, apartekoa eta mugatua, halako interes orokor batzuei bakarrik aplikatzen zaiena. Hitz batez esateko, hogeita lau nazio txiki subirano dira, multzo honek Batasunaren gorputz handia osatzen duelarik.

Estatua aztertu aurretik Batasuna aztertzea oztupoz beteriko bidetik abiatzea da. Gobernu federalaren forma, azkena azaldu zen Estatu Batuetan; errepublikaren aldaketa baino ez zen izan, aurrez, eta harekiko loturarik gabe, gizarte osoan barreiatuak zeuden printzipio politikoaren laburbilduma. Bestalde, esan dudan bezala, gobernu federala aparteko zerbait da; estatuen gobernuak da ohiko erregela. Xehetasunak eman aurretik honelako koadro baten ikuspegi orokorra ezagutarazi nahiko balu idazleak, iluntasun eta errepikapenetan jausiko litzateke ezinbestean.

Gaur egun gizarte amerikarra arautzen duten printzipio politiko nagusiak *estatuan* sortu eta garatu ziren, zalantzarik gabe. Hortaz, estatua ezagutu behar da gainerako guztiaren giltza edukitzeko.

Gaur egun Batasun amerikarra osatzen duten estatuek, erakundearen kanpo-itxurari dagokionez, guztiek ageri dute ikuskizun berbera. Bizitza politiko edo administratiboa hiru ekintza-gunetan bildurik dago han, giza gorputza mugiarazten duten nerbio-guneekin konpara daitezkeelarik.

Lehen mailan *udalerria* dago, gorago *konderria*, azkenik *estatua*.

Amerikako udal-sistema

Autoreak zergatik hasten duen erakunde politikoaren azterketa udalerritik.- Herri guztietan aurkitzen da udalerria.- Udal-askatasuna ezarri eta mantentzeko zailtasuna.- Berorren garrantzia.- Autoreak zergatik aukeratu duen Ingalaterra Berriko udal-antolamendua bere aztergai nagusitzat.

Ez da txiripa hutsa lehenik udalerraren azterketa egitea.

Udalerria naturan hain egoki zerturiko elkarteak denez, gizakiak biltzen diren alde guztietan udalerria sortzen da berez.

Beraz, herri guztietan dago udal-elkartea, edozelakoak izanik ere berorien usadio eta legeak; gizakia da erresumak egin eta errepublikak sortzen dituenak; udalerrak, zuzenean Jainkoaren eskuetatik irteten dela dirudi. Baina udalerria gizakia munduan den momentutikoa baldin bada, udal-askatasuna gauza bakan eta hauskorra da. Herri batek beti eraiki ditzake batzar politiko handiak, normalean izaten baitu bere baitan jendekopuru bat, zeinen arazoetan neurri bateraino jakintzargiak ordeztu duen praktika. Udalerria elementu landugabeek eratzen dute, sarritan legegilearen ekintza errefusatzen dutenak. Udalerraren independentzia lortzeko zailtasuna, nazioak ilustratuago bihurtu ahala gutxitu ordez, areagotu egiten da berorien jakintzargiaz. Gizarte oso zibilizatuak nekez jasaten ditu udal-askatasuneko saiakuntzak; asalatu egiten da desbiderapen ugarien aurrean, eta arrakastarekiko etsipena sortzen zaio esperientziaren azken emaitza lortu baino lehen.

Askatasun guztien artean, udalerriena, hainbeste zailtasunez ezartzen dena, da boterearen inbasioetarako arriskurik handiena duena ere. Beren kasa utzita, udal-erakundeek ia ez lukete asmatuko gobernu saiatu eta indartsu baten aurka borrokatzen; beren buruak arrakastaz defenditzeko, beharrezkoa da beren garapen osora iritsiak izatea eta ideia eta aztura nazionalekin nahastuta egotea. Honela, udal-askatasuna ohituretan sartzen ez den bitartean, erraza da suntsitzea, eta ezin da ohituretan sartu aurrez legeetan luzaroan iraun gabe.

Beraz, udal-askatasunak ihes egiten dio, nolabait esateko, gizakiaren ahaleginari. Horregatik, gutxitan izaten da sortze-lanaren emaitza; nolabait ere bere baitatik jaiotzen da. Ia isilpean gizarte erdi barbaro baten baitan garatzen da. Legeen eta ohituren ekintza etengabeak, inguruabarrek eta, batez ere, denborak lortzen dute finkatzea. Europako kontinenteko nazio guztien artean, ezagutzen duenik bakar bat ere ez dagoela esan daiteke.

Hala ere, udalerrian datza herri askeen indarra. Udal-erakundeak askatasunarentzat, lehen mailako eskolak zientziarentzat bezala dira: herriak eskuratzeko moduan jartzen dute askatasuna; beraren erabilera baketsua gustarazten diote eta berataz baliatzera ohitzen dute. Udal-erakunderik gabe, nazio batek eman diezaioke bere buruari gobernu askerik, baina ez du askatasunaren izpiriturik izango. Grina iragankorrek, une bateko interesek, zirkunstantzien zoriak independentziaren kanpo-formak eman diezazkiokete; baina gizarte-gorputzaren barruan zokoraturiko despotismoa azaleratu egiten da lehentxeago edo geroxeago.

Estatu Batuetan udalerriaren eta konderriaren antolamendu politikoa zein printzipio orokorretan oinarritzen den irakurleari ongi ulertarazteko, mesedegarri izango zela pentsatu dut estatuko partikular bat eredutzat hartzea, bertan gertatzen dena zehatz-mehatz aztertzea eta ondoren herrialdearen gainerakoari begiratu bizkor bat ematea.

Ingalaterra Berriko estatuetako bat aukeratu dut.

Udalerria eta konderria ez daude era berean antolatuta Batasuneko alde guztietan; baina erraza da ohartzea gutxi gora-behera printzipio beretsuek gidatu dutela Batasun osoan bataren zein bestearen eraketa.

Nolanahi ere, iruditu zait printzipio horiek Ingalaterra Berrian izan dutela garapenik handiena eta beste inon baino ondorio urrunagoetara iritsi direla han. Nolabait esateko, nabarmenago ageri dira han eta errazago beha ditzake atzerritarrak.

Ingalaterra Berriko udal-erakundeek multzo betea eta erregularra osatzen dute; antzinakoak dira; indartsuak dira legeei esker, are indartsuagoak ohiturengatik; eragin harrigarria dute gizarte osoan.

Arrazoi guztiongatik merezi dute gure arreta berenganatzea.

Udalerriaren mugapea

Ingalaterra Berriko udalerria (*Township*) Frantziako kantonamendu eta udalerriaren erdibidean dago. Oro har, bi mila biztanletik hiru milara bitartean izaten ditu<sup>66</sup>; ez da, beraz, biztanle guztiek gutxi gora-behera interes beretsuak ez izateko bezain handia, eta, bestalde, administrazio egokirako elementuak bere baitan dituela beti ziur egoteko bezain jendeztatua dago.

Udal-botereak Ingalaterra berrian

Herria, botere guztien sorburua udalerrian nahiz beste edonon.- Han bere kabuz aztertzen ditu arazo nagusiak.- Udalbatzarik ez dago.- Udal-aginterik gehiena selectmen delakoen esku.- Nola jokatzaren duten selectmen horiek.- Udalerriko biztanleen batzar nagusia (*Town Meeting*).- Udal-funtzionari guztien zerrenda.- Funtzio derrigorrezkoak eta ordainduak.

Udalerrian, beste edonon bezalaxe, herria da gizarte-botereen sorburua, baina inon ez du bere ahalmena bitarteko gutxiagorekin egikaritzen. Amerikan, herria ugazaba da, zeinen nahia egin behar izan den ahalgarri denaren azken mugetaraino.

Ingalaterra Berrian gehiengoak ordezkarien bidez jarduten du estatuko arazo orokorrak tratatu behar direnean. Horrela izan behar zuen derrigorrez; baina udalerrian, non legeaintza- eta gobernu-ekintza gobernatuengandik hurbilago dagoen, ordezkapen-legea ez da onartzen. Ez dago udalbatzarik; hautesleak, bere magistratuak izendatu ondoren, berak gidatzen ditu estatuko legeen betetze hutsa ez den guztietan<sup>67</sup>.

Gauzen eraketa hau gure ideia eta azturen hain aurkakoa denez, adibide batzuk eman behar ditut ongi ulertu ahal izateko.

Aurrerago ikusiko dugun bezala, funtzio publikoak ikaragarri ugariak dira eta oso zatiturik daude udalerrian; hala ere, botere administratibo gehienak, urtero aukeratzen diren eta *selectmen* deritzen gutxi batzuen eskuetan bildurik daude<sup>68</sup>.

Estatuko lege orokorrek halako betebeharrak batzuk ezarri dizkiete *selectmen* horiei. Lege hauek betetzeko ez dute administratuen baimenik behar, eta ezin dituzte bete gabe utzi beren erantzukizun pertsonala konprometitu gabe. Adibidez, beren udalerrietan hauteskunde-zerrendak eratzeke arduratu ematen die estatuko legeak; ez badute egiten, delituaren errudun bihurtzen dira. Baina udal-botereak gidatzen dituen gauza guztietan, *selectmen*ak dira herri-nahiak betearazten dituztenak, gure artean alkateak udalbatzaren erabakiak betearazten dituen bezala. Gehienetan haiek berek hartzen dute erantzukizun pribatua eta, praktikan, ez dute gehiengoak aurrez ezarritako printzipioen ondorioari jarraitzea besterik egiten. Baina ezarritako ordenan edozelako aldatetarik sartu nahi badute, eginkizun berri bati ekin nahi badiote, beren boterearen sorburura jo behar izaten dute. Demagun eskola bat jarri nahi dela; egun jakin baterako, aurrez adierazitako toki batera, hautesle guztiak deitzen dituzte *selectmen*ek; han, sumatzen den premia azaltzen dute, eta berau asetzeke baliabideak, gastatu beharreko dirutza eta aukeratzea komeni den lekua jakinarazten dituzte. Batzarrak, puntu hauei guztiei buruz kontsultatua, printzipioa onartzen du, lekua finkatzen, zerga bozkatzeko eta bere nahia betearazteke *selectmen*en esku uzten du.

*Selectmen*ek bakarrik dute udal-batzarra (*town meeting*) deitzeke eskubidea, baina eragin dakieke horretara. Hamar jabetri proiektu berri bat bururatzen bazaie eta udalerriak onetsi dezan aurkeztu nahi badute, biztanleei deialdi orokorra egitea eska dezakete; *selectmen*ak beharturik daude horretara, eta batzar-buru izateke eskubidea baino ez zaie gelditzen<sup>69</sup>.

Ohitura politiko hauek, gizarte-usadio hauek gugandik oso urruti daude, zalantzarik gabe. Une honetan nik ez ditut epaitu nahi, ezta sortarazten eta biziarazten dituzten kausa ezkutatuak ezagutarazi nahi ere; azaltzera mugatzen naiz.

Urtero apirillean edo maiatzean aukeratzen dituzte *selectmen*ak. Aldi berean udal-batzarrak beste udal-magistratu asko aukeratzen du<sup>70</sup>, zenbait administrazio-xehetasun garrantzizkoen arduratuak. Batzuek, aholkulari izenez, zergak ezarri behar dituzte; beste batzuek, biltzaile izenez, zerga horiek bildu behar dituzte. Ofizial batek, *constable* deritzanak, poliziarena egin behar du, leku publikoak zaindu eta legeen betearazte materialaz arduratu. Beste batek, udal-eskribau delakoak, deliberazio guztiak erregistratzen ditu, eta erregistro zibileko aktak zertzen ditu. Kutxazainak udal-fondoak gordetzen ditu. Funtzionari hauei, gehi iezaiezue behartsuen begiralea, honen eginkizuna, oso betegaitza, behartsuei buruzko legeria betearazte delarik; eskola-komisariak, hezkuntza publikoa zuzentzen dutenak; bide-ikuskatzaileak, bide handi eta txikien xehetasun guztiez arduratzen direnak; eta horrela udal-administrazioeko agente nagusien zerrenda izango duzue. Baina funtzio-banaketa ez da hor amaitzen, udal-

ofizialen artean<sup>71</sup> aurkitzen baitira parroki komisariak, kultu-gastuak arautu behar dituztenak; hainbat motatako ikuskatzaileak: batzuk, sute-kasuetan, hiritarren ahaleginak zuzentzeko ardura dutenak; beste batzuk, uztak zaindu behar dituztenak; beste zenbait, hesiak direla eta, sor daitezkeen arazoak behin-behinean ebatziko dituztenak; eta beste hainbat, basoen neurketa begiratu edo pisu eta neurriak ikuskatzeaz arduratuko direnak.

Guztira, hemeretzi funtzio nagusi aurkitzen dira udalerrian. Biztanle oro beharturik dago, isunaren zigorpean, funtzio ezberdin hauek onartzera; baina hauen arteko gehienak ordaindu egiten dira, hiritar behartsuek ere horietara beren denbora eman ahal izateko, kalterik jasan gabe. Gainerantzean, sistema amerikarrak ez die soldata finkorik ematen funtzionarioei. Oro har, ekintza ofizial bakoitzak du bere prezioa, eta egin dutenaren arabera bakarrik ordaintzen zaie.

Udal-izatea

Norbera da berari bakarrik dagokionaren epailerik onena.- Herri-subiranotasunaren printzipioaren korolaria.- Doktrina hauetaz udalerri amerikarrek egiten duten aplikazioa.- Ingalaterra Berriko udalerria, berari bakarrik dagokion guztian subirano, gainerako guztian menpeko.- Udalerriaren betebeharrak estatuarekiko.- Frantzia gobernuak uzten dizkio bere agenteak udalerriari.- Amerikan, udalerriak uzten dizkio bereak gobernuari.

Esan dut lehen herri-subiranotasunaren printzipioa angloamerikarren sistema politiko guztiaren gainean dagoela. Liburu honetako orrialde bakoitzak doktrina honen aplikazio berri batzuk ezagutaraziko ditu.

Herri-subiranotasunaren dogma nagusi den nazioen artean, gizabanako bakoitzari subiranotasun-zati berdina dagokio, eta berdin esku hartzen du estatuaren gobernuan.

Gizabanako bakoitza beste edozein bezain ilustratu, bertutetsu eta indartsutzat jotzen da, beraz.

Zergatik, orduan, obeditzen dio gizarteari, eta zeintzuk dira obedientzia horren berezko mugak?

Gizarteari obeditzen dio, ez gidatzen dutenak baino gutxiago delako edo bere burua gobernatzeko beste edozeinek baino gaitasun gutxiago duelako; gizarteari obeditzen dio bere antzekoekin elkartzea onuragarri iruditzen zaiolako eta elkartasun hori, arautuko duen botererik gabe, ezinezkoa dela badakielako.

Hiritarren arteko betebeharrei dagokien guztian, menpeko bihurtu da, beraz. Berari bakarrik dagokion guztian, nagusi izaten jarraitzen du; aske da eta Jainkoari bakarrik zor dio bere ekintzen kontu. Hortik dator esaera hau, gizabanakoa dela bere interes partikularren epaile onena eta bakarra, eta gizarteak ez duela horren ekintzak zuzentzeko eskubiderik berorrek egindako zerbaitengatik kaltetua sentitzen ez bada, edo laguntza eskatu behar dionean ez bada.

Doktrina hau unibertsalki onartua dago Estatu Batuetan. Beste leku batean aztertuko dut zer-nolako eragin orokorra duen bizitzako ekintza arruntetan ere, baina une honetan udalerriari buruz ari naiz.

Udalerria, osorik hartuta eta gobernu zentralari buruz, beste edozein bezalako banako bat da, aipatu berri dudana teoria aplikatzen zaiolarik.

Estatu Batuetan, beraz, udal-askatasuna herri-subiranotasunaren dogmatik beretik sortzen da; errepublika amerikar guztiek onartu dute gehixeago edo gutxixeago independentzia hau; baina Ingalaterra Berriko herrien artean, inguruabarrak bereziki mesedegarriak izan dira horren garapenerako.

Batasunaren alde honetan, bizitza politikoa udalerrien barnetik bertatik jaio zen; ia esan liteke jatorriz nazio independente bat zela horietako bakoitza. Gero, Ingalaterrako erregeek beren subiranotasun-partea eskatu zutenean, botere zentralaz jabetzera mugatu

ziren. Aurkitu zuten egoeran utzi zuten udalerria; orain Ingalaterra Berriko udalerriak menpeko dira, baina hasieran batere ez ziren edo oso gutxi. Hortaz, beren botereak ez dituzte hartuak; aitzitik, estatuaren alde beren independentziaren parte bati haiek berek jaregin diotela dirudi; bereizketa hau garrantzizkoa da, eta gogoan izan behar du irakurleak.

Oro har, interesen bat, nik *soziala* esango nukeena -hau da, beste batzuekin zatibanatua-, tartean dagoenean bakarrik jartzen dira udalerriak estatuaren menpe.

Haiei berei bakarrik dagokien guztian, udalerriek gorputz independenteak izaten jarraitzen dute; eta Ingalaterra Berriko biztanleen artean ez dago inor, nire ustez, udal-interes hutsen zuzendaritzan esku sartzeko eskubidea estatuko gobernuari aitortzen dionik.

Beraz, Ingalaterra Berriko udalerriak salerosketan, auzitegietan akusatzen eta beren burua defenditzen, aurrekontua kargatzen edo arintzen ikusten dira, inolako administrazio-aginteri bururatu ere egin gabe aurka jartzerik<sup>72</sup>.

Gizarte-betebeharrei dagokienez, udalak beharturik daude betetzera. Honela, estatuak dirua behar badu, udalerria ez da aske bere laguntza ematea ala ukatzea erabakitzeko<sup>73</sup>. Estatuak errepide bat egin nahi badu, udalerriak ezin dio bere lurraldea itxi. Polizi arautegi bat egiten badu, udalak betearazi egin behar du. Herrialde osoan hezkuntzaren plangintza uniforme antolatu nahi badu, udalerria beharturik dago legeak eskaturiko eskolak sortzera<sup>74</sup>. Kasu ezberdin guztietan udalerriak nola eta nork behartzen dituen obeditzera, Estatu Batuetako administrazioaz hitz egiterakoan ikusiko dugu. Betebeharra daukatela besterik ez dut esan nahi hemen. Betebehar hori zorrotza da, baina estatuko gobernuak, hori ezartzean, printzipio bat dekretatzea baino ez du egiten; hori betearazteko, oro har udalerriak berreskuratu egiten ditu bere indibidualitate-eskubide guztiak. Honela, egia da legislatiboak bozkatzeko duela zerga, baina udalerriak banatzen eta biltzen du; eskola egin beharra ezarri egiten da, baina udalak eraikitzen, ordaintzen eta zuzentzen du.

Frantzian, estatuko biltzaileak kobratzen ditu udal-zergak; Amerikan, udalerriko biltzaileak kobratzen du estatu-zerga.

Honela, gure artean, gobernu zentralak bere agenteak uzten dizkio udalerriri; Amerikan, udalerriak uzten dizkio bere funtzionariak gobernuari. Honek bakarrik garbi erakusten du zein ezberdinak diren bi gizarteak.

Udal-izpiritua Ingalaterra berrian

Ingalaterra Berriko udalerriak zergatik bereganatzen duen bertan bizi direnen atxikimendua.- Udal-izpiritua sortzeko European dagoen zailtasuna.- Amerikan izpiritua hau sortzen laguntzen duten udal-eskubide eta betebeharrak.- Aberriak Amerikan fisionomia gehiago du beste edonon baino.- Zertan azaltzen den udal-izpiritua Ingalaterra Berrian.- Zelako ondorio zoriontsuak sortzen dituen.

Amerikan, udal-erakundeak ezezik, hauei eusten eta bizia ematen dien udal-izpiritua ere badago.

Ingalaterra Berriko udalerriak bi abantaila ditu, dauden leku guztietan gizakien arreta biziki pizten dutenak, hots, independentzia eta boterea. Egia esateko, irten ezinezko esparru baten barruan jarduten du, baina bere mugimenduak aske ditu hor barruan. Independentzia honek bakarrik ere benetako garrantzia emango lioke, biztanleriak eta hedadurak emango ez baliote ere.

Komentzitu beharra dago gizakien atxikimendua indarra dagoen lekuan bakarrik kokatzen dela, oro har. Herrialde konkistatu batean abertzaletasunak ez du luzaroan irausten. Ingalaterra Berriko biztanlea bere udalerriri atxikitzen zaio, ez hainbeste bertan jaioa delako, udalerririk horretan korporazio aske eta indartsua ikusten duelako baizik, eta bera horko partaide izanik, gidatzen saiatzea merezi duela iruditzen zaiolako.

Europar sarri gertatzen da gobernuak berak ere kexatzea udal-izpiriturik ez dagoelako, mundu guztia bat baitator udal-izpiritua elementu nagusi bat dela ordena eta lasaitasun publikorako; baina ez dakite nola sortu. Udalerria indartsu eta independente bihurtzean, beldur dira ez ote duten gizarte-boterea banatu eta estatua anarki bidean jarriko. Nolanahi ere, udalerriari indarra eta independentzia kentzen badizkiozue, administratuak bakarrik aurkituko dituzue bertan, baina hiritarrik batere ez.

Ohartu, bestalde, gauza garrantzitsu batez: Ingalaterra Berriko udalerria atxikimendu bizien bilgune izateko moduan dago eratu, eta aldi berean ez du bere ondoan ezer giza bihotzaren grina gutziatsiak indartsu erakartzeko gai denik.

Konderriko funtzionarioak ez dituzte hautatzen eta mugatua dute aginpidea. Estatuak berak ere bigarren mailako garrantzia du; izate ilun eta lasaia du. Jende gutxi dago, estatua administratzeko eskubidea lortzearen, beren interesguneetatik urrundu eta bizimodua nahastea onartzen duenik.

Gobernu federalak boterea eta aintza ematen dizkie bera gidatzen dutenei; baina oso gutxi izaten dira beraren destinoan eragin lezaketen pertsonak. Lehendakaritza goi-mailako magistratura da, nekez iristen delarik inor bertara adinean sartu arte; eta goi-mailako beste funtzio federaletara iristea, nolabait ere txiripaz gertatzen da, eta beste arloren batean aurrez ospetsu bihurtu eta gero. Hauentzat gutizia ezin da izan beren ahaleginen helburu iraunkorra. Udalerrian, bizitzako harreman arruntan erdian, biltzen dira estima-nahia, benetako interesen beharra, eta botere eta ospearene zaletasuna; grina hauek, gizartea hain sarri asaldutzen dutenak, izaeraz aldatzen dira etxezulotik hain hurbil eta nolabait esateko familiaren baitan egikaritzen direnean.

Ikus zer-nolako trebetasunez arduratu diren udalerri amerikarrean boterea *barreiatzeaz*, zilegi bazait honela esatea, gauza publikoaz ahalik eta jenderik gehien ardura dadin. Noizean behin, gobernu-ekintzak zertzeratik deituriko hautesleez aparte, zenbat funtzio ezberdin dagoen, zenbat magistratu diferente, eta guztiak, beren eskurantzaren esparruan, korporazio ahaltsu baten ordezkari dira, beronen izenean jarduten dutelarik! Zenbatek ez ote du horrela udal-agintea bere probetxurako ustiatzen, bere buruagatik bakarrik arduratuz!

Sistema amerikarrak, udal-agintea herritar askoren artean banatzen duen aldi berean, ez du udal-eginbeharrak ugaltzeko beldurrik. Estatu Batuetan uste da, eta arrazoiz gainera, abertzaletasuna kultu moduko zerbait dela, gizakiak praktiken bidez zertzen duena.

Honela, nolabait ere une oroz sentiarazten da udal-bizitza; egunero azaltzen da eginbehar bat betetzean edo eskubide bat egikaritzean. Izate politiko honek etengabeko mugimendua ezartzen dio gizarteari, baina aldi berean baketsua, asaldarazi gabe astintzen duena.

Menditarrek beren herrialdea maitatzeko izaten duten arrazoi beretsuagatik atxikitzen zaizkio amerikarrak hiriarri. Hauen artean aberriak ezaugarri garbi eta bereziak ditu; beste inon baino fisonomia gehiago du.

Ingalaterra Berriko udalerriek izate zoriontsua dute, oro har. Gobernua beren gogokoa dute eta berek hautatua ere bai. Amerikan dagoen bake sakonaren eta oparotasun materialaren baitan, udal-bizitzako ekaitzak ez dira oso ugariak izaten. Udal-interesen zuzendaritza erraza da. Gainera, aspaldidanik burutua da herriaren heziketa politikoa, edota, hobeto esateko, zeharo hezia iritsi zen orain dagoen lurraldera. Ingalaterra Berrian, klase-banaketa ez dago oroitzapenean ere; udalerrian ez dago beraz udal-zati bat beste zatia zapaltzeko gogoarekin, eta bidegabekeriak, gizabanako isolaturen batek bakarrik jasaten dituenak, atsegintasun orokorrean desagertzen dira. Gobernuak baditu bere akatsak, eta erraza da horiek seinalatzea, baina ez dira hain nabarmenak, gobernua gobernatuengandik sortzen baita benetan, eta aski du hobetoxeago edo okerxeago bere martxari jarraitzea, aitalasunezko halako harrotasun batek babes dezan. Gainerantz, ezan,

ez dute zerekin konparatu. Antzina Ingalaterrak agindu zuen kolonia-multzo horretan, baina herriak zuzendu ditu beti udal-arazoak. Hortaz, herriaren subiranotasuna udalerrian ez da bakarrik antzinako egoera, baita hasiera-hasieratikoa ere.

Ingalaterra Berriko biztanlea bere udalerriari atxikitzen zaio, hau indartsu eta independentea baita; interesatu egiten da, zuzentzen parte hartzen du eta; maitatu egiten du, ezin delako bere zoriaz kexatu; bere gutizia eta etorkizuna jartzen ditu bertan; udal-bizitzako gora-behera guztietan nahasten da; bere irispidean dagoen esparru murriz horretan, gizartea gobernatzen saiatzen da; forma batzuetara ohitzen da, hauek gabe askatasunak iraultzaka jokatzen duelarik, eta berorien izpiritua barneratzen du, gustu hartzen dio ordenari, botere-harmonia ulertzen du eta ideia argi eta praktikoak lortzen ditu bere betebeharren izaeraz, baita bere eskubideen hedaduraz ere.

Ingalaterra Berriko konderria

Ingalaterra Berriko konderria, Frantziako barrutiaren antzekoa.- Interes administratibo hutsez sortua.- Ez du ordezkapenik.- Hautatu gabeko funtzionarioek administratzen dute. Konderri amerikarrak antz handia du Frantziako barrutiarekin. Azken honi bezalaxe, mugape arbitrarioa ezarri zaio; berak osatzen duen gorputzean zati ezberdinek ez dute beren artean loturarik behar eta ez dagokio berorri ez atxikimendurik, ez oroitzapenik, ez bizi-komunitaterik. Interes administratibo hutsez sortzen da.

Udalerriak hedadura murriztegia zuen justiziaren administrazioa bertan sartu ahal izateko. Konderria da, beraz, lehen gune judiziala. Konderri bakoitzak justizi auzitegi bat du<sup>75</sup>, sheriffa auzitegien epaiak betearazteko, eta presondegia kriminalak edukitzeko.

Badira behar batzuk gutxi gora-behera era beretsuan sentitzen direnak konderriko udalerri guztietan; gauza naturala zen aginte zentral bat arduratzea horiek betetzeaz. Massachusettsen aginte hori zenbait magistraturen esku dago, estatuko gobernariak, bere Kontseiluaren<sup>76</sup> iritzia jarraituz<sup>77</sup>, izendatzen dituenak.

Konderriko administratzaileek botere mugatu eta salbuespenezkoa dute, aurrez ezarritako kasu gutxi batzuei bakarrik aplikatzen zaiena. Estatua eta udalerria aski dira gauzen ohiko martxarako. Administratzaile hauek konderriko aurrekontua prestatu baino ez dute egiten; legislatiboak bozkutzen du<sup>78</sup>. Ez dago batzarrik zuzenean edo zeharka konderria ordezkatzeko duenik.

Egia esateko, konderriak ez du, beraz, izate politikorik.

Konstituzio amerikar gehienetan, joera bikoitza ikusten da, legegileak botere exekutiboa banatzera eta legegintza-ahalmena kontzentratzera eramaten dituenak. Ingalaterra Berriko udalerriak badu berez izate-printzipio bat, kentzen ez zaiona; baina bizitza hau fiktizioki sortu beharko litzateke konderrian, eta honen onura ez da oraindik sentitu. Udalerri guztiek elkartuta ordezkartza bat bakarra dute: estatua, botere nazional guztien muina; udal- eta nazio-ekintzaz gain, banakako indarrak bakarrik daudela esan daiteke.

Ingalaterra Berriko administrazioa

Amerikan administrazioa ez da nabari.- Horren zergatia.- Askatasuna gizarte-botereari eskubideren batzuk kenduz finkatzen dutela uste dute europarrek; amerikarrek, berorren egikaritza zatituz.- Administraziozat har daitekeen ia guztia udalerrian bildua, eta udal-funtzionarioen artean zatitua.- Ez da administrazio-hierarkiaren arrastorik ikusten, ez udalerrian, ezta honen gainetik ere.- Zergatik den horrela.- Nola gertatzen den, hala ere, estatua era uniformean administratua izatea.- Nor arduratzen den udalerri eta konderriko administrazioei legea obediartzeaz.- Botere judizialaren sarrera administrazioan.- Hautapen-printzipioaren ondorioak funtzionari guztiengana hedatuta.- Bake-epailea Ingalaterra Berrian.- Nork izendatzen duen.- Konderria administratzen du.- Udalerrien administrazioa ziurtatzen du.- Sesio-auzitegia.- Nola diharduen.- Nork jotzen duen



berarengana.- Ikuskapen eta erreklamazio-eskubidea sakabanaturik, funtzio administratibo guztiak bezala.- Salatzailerei isunen banaketak eragiten die aurrera.

Estatu Batuetan dabilen europarrarentzat harrigarrien gertatzen dena, gure artean gobernu edo administrazioa deritzona ez egotea da. Amerikan lege idatziak daude; egunero betearazten direla ikusten da; dena mugitzen da inguruan, baina ez da motorea inon aurkitzen. Gizarte-makina zuzentzen duen eskua ezkutuan gelditzen da beti.

Hala ere, herri guztiek, beren gogoetak adierazteko, giza hizkuntzen osagai diren forma gramatikalez baliatu behar izaten duten bezalaxe, era berean gizarte guztiek, irauteko, aginte-maila batera makurtu behar izaten dute, hau gabe anarkian jausten baitira. Aginte hau era ezberdinetan banatua egon daiteke; baina betiere beharrezkoa da nonbait egotea.

Bi bide daude agintearen indarra gutxitzeko nazio batean.

Lehena, boterea bere printzipioan bertan ahultzea da, gizarteari zenbait kasutan bere burua defenditzeko eskubidea edo ahalmena kenduz. Agintea era honetan ahultzeari Europan oro har askatasuna ezartzea esaten zaio.

Bada bigarren bide bat agintearen eragina gutxitzeko: hau ez datza gizarteari bere eskubideetako batzuk kentzean edo berorren ahaleginak geldiaraztean, indarren erabilera hainbat eskuren artean banatzean baizik, eta funtzionariak ugaltzean, bakoitzari, egin behar duena egin ahal izateko botere guztia emanaz. Badira herriak, non gizarte-botereen banaketa honek oraindik anarkiara eraman dezakeen; baina berez ez da batere anarkikoa. Egia esateko, agintea horrela banatzean, berorren eragina ez da hain jarkiezin eta arriskutsua gertatzen, baina ez da suntsitzen.

Estatu Batuetan, askatasunaren zaletasun heldu eta hausnartuak eragin zuen iraultza, eta ez independentziaren sen lauso eta zehazgabeak. Ez zen desordenazko grinetan oinarritu; baizik eta, aitzitik, ordena eta legezketasunarekiko maitasunaren bidetik ibili zen.

Estatu Batuetan ez da nahi izan gizakiak, herrialde aske batean, edozer gauza egiteko eskubidea izaterik; aitzitik, beste leku batzuetan baino gizarte-betebehar ugariagoak ezarri zaizkio; han ez zaie bururatu gizartearen botereari bere printzipioan erasotzerik eta eskubideak zalantzan jartzerik; botere hori bere egikaritzan banatzera mugatu dira. Honela, aginpidea handia eta funtzionaria txikia izatera iritsi nahi izan da, gizarteak ongi araututa jarrai dezan, aske iraunez.

Munduan ez da herrialderik legea Amerikan bezain hizkuntza absolutuan mintzatzen denik, ezta lege hori aplikatzeko eskubidea hainbeste eskutan zatitua duenik ere.

Estatu Batuetan botere administratiboak ez du bere osaketan ezer zentral edo hierarkikorik; horregatik ez da inon nabaritzen. Boterea egon badago, baina ez da jakiten non aurkitu berorren ordezkaria.

Gorago ikusi dugu Ingalaterra Berriko udalerriak ez zeudela tutoretzapean. Hortaz, haiek berak arduratzen dira beren interes partikularrez.

Gehienetan, udal-magistratuek izaten dute estatuko lege orokorrak betearazteko ardura, edota berek betetzekoa<sup>79</sup>.

Lege orokorrean gain, estatuak polizi arautegi orokorrak egiten ditu batzuetan; baina normalean udalerriak eta udal-ofizialak izaten dira, bake-epaileekin batera eta tokian tokiko premien arabera, gizarte-bizitzako xehetasunak arautu eta herritarren osasun publiko, ordena zuzen eta moralitasunari buruzko aginduak aldarrikatzen dituztenak<sup>80</sup>.

Azkenik, udal-magistratuak dira, beren kabuz eta kanpotiko bultzadaren beharrik gabe, gizarteetan sarri sortzen diren ustegabeko behar horiez arduratzen direnak<sup>81</sup>.

Esan berri dugunaren ondorioz, Massachusettsen botere administratiboa udalerrian bildua dago ia erabat<sup>82</sup>, baina esku askoren artean banatua.

Frantziako udalerrian, egia esateko, ez dago funtzionari administratibo bakarra baino, alkatea.

Ikusi dugunez, gutxienez hemeretzi aurki daitezke Ingalaterra Berriko udalerrian.

Hemeretzi funtzionari hauek ez daude normalean batzuk besteen menpe. Magistratu hauetako bakoitzaren inguruan legeak ekintza-esparru bat marraztu du arretaz. Esparru honetan, ahalguztidunak dira beren postuari dagozkion betebeharrak zertzeko eta ez daude inolako udal-aginteren menpe.

Udalerria baino gorago begiratzen bada, ia ez da sumatzen hierarkia administratiboaren arrastorik. Batzuetan gertatzen da konderriko funtzionarioek eraberritu egiten dutela udalerriek edo udal-magistratuek harturiko erabakia<sup>83</sup>, baina oro har esan daiteke konderriko administratzaileek ez dutela udalerriko administratzaileen jokabidea zuzentzeko eskubiderik<sup>84</sup>. Ez diete agindurik ematen, konderriko gauzei dagokienean izan ezik.

Aurrez ezarritako kasu gutxi batzuetan, udalerriko eta konderriko magistratuak beharturik daude beren eragiketen emaitza gobernu zentralaren funtzionarioei jakinaraztera<sup>85</sup>. Baina gobernu zentralak ez du ordezkariarik polizi arautegi orokorrak edo legeak betearazteko ordenantzak egiteko ardura duenik, ezta konderriko eta udalerriko administratzaileekin maiz komunikatzeaz, edo berauen portaera ikuskatu, ekintzak zuzendu eta hutsegiteak zigortzeko ardura duenik ere.

Ez dago, beraz, inon erdigune bat, non bil daitezkeen botere administratiboaren izpiak.

Nola lortzen da, orduan, gizartea plan uniforme samar baten inguruan gidatzea? Nola obediarazi konderriei eta hauetako administratzaileei, udalerriei eta hauetako funtzionarioei?

Ingalaterra Berriko estatuetan, botere legegilea gure artean baino gauza gehiagotara hedatzen da. Nolabait ere, administrazioaren beraren baitan sartzen da legegilea; xehetasun ñimiñoenetara iristen da legea; printzipioak eta, aldi berean, aplikatzeko bideak agintzen ditu; honela, bigarren mailako gorputzak eta hauen administratzaileak zorrotz zehazturiko betebeharrak estu askoren baitan ixten ditu.

Horren ondorioz, bigarren mailako gorputz guztiak eta funtzionari guztiak legera moldatzen badira, gizarteak era beretsuan jokatzen du bere zati guztietan; baina betiere falta da jakitea bigarren mailako gorputzak eta funtzionarioak nola behartu litezkeen legera moldatzera.

Orokorki, funtzionarioak legeak esandakoa egitera behartzeko, gizarteak bere esku bi bide bakarrik dituela esan daiteke:

Beraietako bati gainerako funtzionari guztiak zuzentzeko eta desobedientzi kasuan bere iritzira kargutik kentzeko ahalmena eman diezaioke.

Edo auzitegiei lege-hausleei zigor judizialak ezartzeko ardura eman diezaieke.

Ez da beti bide hauetako bat edo bestea aukeratzeko askatasuna izaten.

Funtzionaria gidatzeko eskubideak -hark, ematen zaizkion aginduak jarraitzen ez baditu- kargugabetzeko eskubidea suposatzen du, edo mailaz jasotzekoa bere eginbeharrak arretaz betetzen baditu. Magistratu hautatu bat, ordea, ez dago ez kargutik kentzerik, ez mailaz jasotzerik. Hautapenezko funtzioen izaerari dagokio agintaldiaren bukaera arte erreboka ezina izatea. Izan ere, magistratu hautatuak ez du ezer espero behar edo ezeren beldur izan behar bere hautesleengandik izan ezik. Funtzio publiko guztiak hautapenaren ondorio direnean, ezin da benetako hierarkiarik egon funtzionarioen artean, ezin baita pertsona berarengan elkartu agintzeko eskubidea eta desobedientzia eraginkorki zentzaraztekoa, eta agintzeko eskubidearekin ere ezingo litzateke batu sariak edo zigorrak ematekoa.

Beren gobernuan bigarren mailako engranaietan hautapena sartzen duten herriek administrazio-baliabide gisa zigor judizialen erabilera handia egin behar izaten dute.

Honekin ez da lehen begiratu batean topo egiten. Gobernariet, funtzioak hautagarri bihurtzea lehen kontzesio bat iruditzen zaie, eta magistratu hautatua epaileen erabakipean jartzea bigarren kontzesio bat. Beldur beretsua ematen diete bi berrikuntza hauek; eta lehena egitea bigarrena baino gehiago eskatzen zaenez, funtzionariaren hautapena onartzen dute baina epaileagandik independente uzten dute. Hala ere, bi neurri horietako bat da besteari ezar dakiokkeen kontrapisu bakarra. Kontu handia izan behar da, zeren eta hautapenezko botere batek, botere judizialaren menpe ez bada jartzen, lehenago edo geroago kontrol orori ihes egiten dio edo suntsitua gertatzen da. Botere zentralaren eta gorputz administratibo hautatuen artean, auzitegiak bakarrik izan daitezke bitartekari. Hauek bakarrik behartu dezakete obeditzera funtzionari hautatua, hauteslearen eskubidea hautsi gabe.

Botere judizialaren hedapenak politika-arloan, koerlatiboa izan behar du hautapenezko boterearen hedapenarekin. Bi gauza hauek ez badoaz elkarrekin, azkenean estatua anarkian edo esklabutzan jausten da.

Garai guztietan garbi azaldu da, aztura judizialek nahiko gaizki prestatzen zutela jendea botere administratiboa egikaritzeko.

Amerikarrek arbasoengandik, ingelesengandik, hartu zuten erakunde baten ideia, Europako kontinentean ezagutzen dugunarekin inolako analogiarik ez duena, bake-epailearena, alegia.

Bake-epailea jende xehearen eta magistratuaren, administratzailearen eta epailearen bitarteko zerbait da. Bake-epailea pertsona ilustratua da, baina ez derrigorrez legeen ezagutza aditua. Beraz, gizarteko polizia izateko ardura bakarrik ematen zaio, eta honek zentzua eta zuzentasuna gehiago eskatzen ditu jakintza baino. Bake-epaileak administrazioan esku hartzen duenean, forma eta publizitatearekiko halako gustu bat ezartzen du administrazioan, despotismoarentzat oso tresna gogaikarri bihurtzen duena; baina ez da bilakatzen magistratuak gobernatzeko ezgai bihurtzen dituzten lege-superstizio horien morroi.

Amerikarrak bake-epaileen erakundeaz jabetu dira, baina ama aberrian zuen izaera aristokratikoa erabat kenduz.

Massachusettsko gobernariak<sup>86</sup> konderri guztietan izendatzen du hainbat bake-epaile, berauen funtzioak zazpi urterako direlarik<sup>87</sup>.

Gainera, bake-epaile hauen artetik, hiru izendatzen ditu, konderri bakoitzean *sesio-auzitegia* delakoa osatzen dutelarik.

Bake-epaileek banaka esku hartzen dute administrazio publikoan. Batzuetan, hautapenezko funtzionarietkin batera, zenbait administrazio-egintzaz arduratzen dira<sup>88</sup>; beste batzuetan auzitegi bat osatzen dute, zeinen aurrean magistratuek sumariak akusatzen duten legea bete nahi ez duen hiritarra, edota hauek magistratuen delituak salatzen. Baina bake-epaileek sesio-auzitegian egikaritzen dituzte beren funtzio administratiborik garrantzizkoenak.

Sesio-auzitegia urtean bi aldiz biltzen da konderriko hiriburuan. Massachusettsen, bera arduratzen da funtzionari publikoen kopuru handiena<sup>89</sup> obedienciaz<sup>90</sup>.

Azpimarratzekoa da Massachusettsen sesio-auzitegia benetako gorputz administratibo bat dela, eta aldi berean auzitegi politiko bat.

Esan dugu konderriak<sup>91</sup> ez zuela izate administratiboa baizik. Sesio-auzitegia da konderriko zenbait udalerriri edo guztiei batera dagozkien interes gutxi batzuk bere kabuz zuzentzen dituen, hauen ardura ezin baitzaio beraietako bati bakarrik eman.

Konderriari dagokionez, sesio-auzitegiaren betebeharrak administratiboak dira huts-hutsik, eta bere jokabidean forma judizialak sartzen baditu sarri, argitzeko bidea<sup>92</sup> eta administratuei ematen dien garantia baino ez da. Hala ere, udalerrietako administrazioa

ziurtatu beharra dagoenean, gorputz judizial bezala jokatzeko du ia beti, eta kasu bakan batzuetan bakarrik, gorputz administratibo bezala.

Agertzen den lehen eragozpena udalerriari berari obediaraztea da, estatuko lege orokorretatik ia independentea den boterea baita.

Ikusi dugu udalerriek magistratu-kopuru bat izendatu behar dutela urtero, aholkulari izenaz zergak banatzen dituztenak. Udalerri batek zerga ordaindu beharrari ihes egin nahi badio aholkularirik izendatu gabe, sesio-auzitegiak isun latza ezartzen dio<sup>93</sup>. Isuna biztanle guztien artean biltzen da kolektiboki. Konderriko sheriffak, justizi ofizialak, betearazten du epaia. Honela, begirada guztietatik arretaz gordetzeko gogoz ematen du botereak Estatu Batuetan. Administrazio-agintea mandatu judizialaren atzean gordetzen da ia beti; honek ahaltsuago bihurtzen du, orduan bereganatzen baitu jendeak forma legalari ematen dion indar ia jarkiezin hori.

Ibilera hau erraza da jarraitzen, eta eragozpenik gabe ulertzen da. Udalerriari eskatzen zaiona argi eta zehatza da, oro har; gauza sinplea da eta ez konplexua, printzipio bat da eta ez xehetasunezko aplikazioa<sup>94</sup>. Baina zailtasuna, ez udalerriari, baizik eta udal-funtzionarioei obediarazi nahi izatean hasten da.

Funtzionario publiko batek zertu ditzakeen egintza zentzagarri guztiak azken batean ondorengo kategoria hauetakoren batean sartzen dira:

Legeak agintzen diona gogorik eta ardurarik gabe egitea.

Legeak agintzen diona ez egitea.

Azkenik, legeak debekatzen diona egitea.

Auzitegi bati, azken bi kasuetan bakarrik legokioke funtzionarioaren jokabidea. Egitate positibo eta baloragarria behar da akzio judizialaren oinarri izateko.

Honela, *selectmen*ek ez badituzte udal-hauteskundeetan kasuan legeak eskaturiko formalitateak betetzen, isun-zigorra jasan dezakete<sup>95</sup>.

Baina funtzionario publikoak buru-argitasunik gabe betetzen badu bere zeregina, gogorik eta ardurarik gabe betetzen baditu legearen aginduak, gorputz judizialaren irispidetik kanpo aurkitzen da erabat.

Sesio-auzitegiak, bere eskurantzaren administratiboez hornitua egon arren, kasu hauetan ez du ahalmenik funtzionarioari bere eginbeharrak guztiz betearazteko. Errebokazioaren beldurra bakarrik eragotz ditzake delitu-gisako hauek, eta sesio-auzitegiak ez du udal-botereen jatorria; ezin ditu errebokatu berak izendatzen ez dituen funtzionarioak.

Bestalde, axolagabezia eta arduragabekeria daudela ziurtatzeko, etengabe zaindu beharko litzateke beheargoko funtzionarioa. Nolanahi ere, sesio-auzitegia bitan bakarrik biltzen da urtean; ez du ikuskapenik egiten, salatzen zaizkion egitate zentzagarriak epaitzen ditu bakarrik.

Funtzionario publikoak kargutik kentzeko ahalmen arbitrarioak bakarrik garantiza dezake, bestalde, errepresio judizialak ezin ezarri dien obedientzia argi eta aktibo hori.

Frantzia, *hierarkia administratiboan* bilatzen dugu azken berme hau; Amerikan *hautapenean* bilatzen dute.

Honela, hitz gutxitan laburtzeko azaldu berri dudana:

Ingalaterra Berriko funtzionario publikoak bere funtzioak betetzean *krimen* bat egiten badu, ohiko auzitegiei dagokie *beti* justizia egitea.

*Hutsegite administratiboa* egiten badu, auzitegi administratibo hutsa arduratzen da zigortzeaz, eta gauza larria edo presazkoa denean, epaileak egiten du funtzionarioak egin beharko zukeena<sup>96</sup>.

Azkenik, funtzionario hori berori, giza justiziak ez definitu, ez baloratu ezin dituen delitu ulergaitz horietako baten errudun bihurtzen bada, apelaziorik gabeko auzitegi baten

aurrean agertzen da urtero, honek berehala utz dezakeelarik zeharo ezgaituta; agintaldiarekin batera ihes egiten dio botereak.

Sistema honek seguraski abantaila handiak ditu bere baitan, baina bere egikaritzan badu azpimarratu beharreko eragozpen praktiko bat.

Jadanik ohartarazi dut sesio-auzitegia deritzan ausitegi administratiboak ez zuela udal-magistratuak ikuskatzeko eskubiderik; zuzenbidearen arabera, apelatzen dutenean baino ezin du jardun. Horretan datza sistemaren ahulezia.

Ingalaterra Berriko amerikarrek ez zuten ministerio publikorik ezarri sesio-auzitegiaren aurrean<sup>97</sup>, eta ulertzekoa da nekeza gertatzen zitzaizela horrelako bat ezartzea. Konderri bakoitzeko hiriburuan magistratu akusatzaile bat ezartzera mugatu izan balira, udalerrietan inolako agenterik eman gabe, magistratu horrek zergatik jakin beharko zukeen konderrian gertatzen zenaz sesio-auzitegiako kideek berek baino gehiago? Udalerrri bakoitzean agenteak eman izan balitzaizkio, botererik beldurgarriena eskuratuko zukeen, judizialki administratzekoa, alegia. Legeak, bestalde, azturen ondorio dira, eta antzekorik ezer ez zegoen legeria ingelesean.

Amerikarrek, beraz, zatitu egin dute ikuskapen- eta salaketa-eskubidea, gainerako funtzio administratibo guztiak bezalaxe.

Legearen arabera, epaimahai handiko kideek beren konderrian egin daitezkeen mota guztietako delituez<sup>98</sup> ohartarazi behar dute dagokien ausitegia. Badira administrazio-delitu handi batzuk ministerio publiko arruntak ofizioz pertsegitu behar dituenak<sup>99</sup>; gehienetan, gaizkileak zigorrazteko obligazioa ofizial fiskalari ezartzen zaio, isuna kobratzeaz arduratzen denari; honela, udalerriko diruzaina arduratzen da bere aurrean egiten diren delitu administratibo gehienak pertsegitzeaz.

Baina batez ere interes partikularrera jotzen du legeria amerikarrak<sup>100</sup>; hau da Estatu Batuetako legeak aztertzen direnean etengabe agertzen den printzipio nagusia.

Legegile amerikarrek konfiantza gutxi agertzen dute giza zuzentasunean; baina betiere buruargitzat jotzen dute gizakia. Beraz, gehienetan interes pertsonalean oinarritzen dira legeak betearazteko.

Administrazio-delitu batek positiboki eta benetan kalte egiten badio pertsona bati, ulergarria da, noski, honen interes pertsonala izatea salaketa ziurtatuko duena.

Baina erraz ulertzen da lege-agindua baldin bada, eta, gizartearentzat onuragarri izanik ere, ez badu bakoitzak onuragarritasun hori benetan sentitzen, akusatzaile bihurtzeko zalantza izango dutela guztiek. Honela, eta halako akordio isil batengatik, legeak ez erabiltzera irits daitezke.

Beren sistemak eramaten ditu mutur horretaraino, eta hor amerikarrak beharturik daude salatzaleei interesa sortzera, kasu batzuetan isun-diruaren parte bat emanez<sup>101</sup>.

Baliabide arriskutsua da, ohiturak degradatuz legeak betearazten dituen.

Konderriko magistratuen gainetik ez dago, egia esateko, botere administratiborik, gobernu-boterea baizik.

Idea orokorrak Estatu Batuetako administrazioari buruz

Zertan bereizten diren Batasuneko estatuak beren artean, administrazio-sistemari dagokionez.- Udal-bizitza ez da hain aktiboa eta osoa hegoaldera jaitsi ahala.- Orduan magistratuaren boterea handiago bihurtzen da, hauteslearena txikiago.- Udalerritik konderrira pasatzen da administrazioa.- New York, Ohio eta Pennsylvaniako estatuak.- Printzipio administratiboak, Batasun osoari aplikagarriak.- Funtzionari publikoen hautapena edo hauen funtzioen aldaezintasuna.- Hierarkiarik eza.- Baliabide judizialen sarrera administrazioan.

Lehenago iragarri dut, Ingalaterra Berrian udalerriaren eta konderriaren eraketa zehatz-mehatz aztertu ondoren, begiratu orokor bat emango niola Batasunaren gainerakoari.

Estatu bakoitzean daude udalerriak eta udal-bizitza; baina estatu konfederatuetan inon ez dago Ingalaterra Berriko udalerriak bezalakorik.

Hegoaldera jaitsi ahala, udal-bizitzak gero eta aktibotasun gutxiago duela nabari da; udalerriak magistratu, eskubide eta betebeharrak gutxiago du; han jendeak ez du hain eragin zuzenik arazo publikoetan; udal-batzarrak gutxiagotan egiten dira eta gai gutxiago tratatzen dituzte. Beraz, magistratu hautatuaren boterea handiagoa da konparazioan eta hauteslearena txikiagoa, udal-izpiritua ez dago hain erne eta ez da hain ahaltua<sup>102</sup>.

Ezberdintasun hauek sumatzen New Yorkeko estatuan hasten da; oso nabarmenak dira Pennsylvanian; baina ez dira hain nabariak ipar-mendebalderantz joan ahala. Ipar-mendebaldeko estatuak sortuko dituzten migrari gehienak Ingalaterra Berritik irteten dira, eta ama aberriko aztura administratiboak adopziozko aberrira eramaten dituzte. Ohio-ko udalerriak Massachusetts-eko udalerriaren antz handia du.

Ikusi dugunez, administrazio publikoaren printzipioa udalerrian aurkitzen da Massachusettsen. Udalerria da jendearen interes eta afektuen bilgunea. Baina gero eta gutxiago gertatzen da hau jakintzargia hain orokorki hedatua ez dagoen estatuetara jaitsi ahala, zeinetan, ondorioz, udalerriak zuhurtasunaren garrantzia gutxiago eta administrazio-elementu gutxiago baitu. Ingalaterra Berritik urrundu ahala, udal-bizitza konderriara pasatzen da nolabait ere. Konderria bilakatzen da administrazio-gune nagusi, eta gobernuaren eta hiritar hutsen arteko botere bitartekaria eratzen du.

Esan dut Massachusettsen konderriko arazoak sesio-auzitegiak zuzentzen dituela. Sesio-auzitegia magistratu-kopuru batek osatzen du, gobernariak eta honen kontseiluak izendatuta. Konderriak ez du inolako ordezkariarik, eta beraren aurrekontua legislatibo nazionalak bozkatzen du.

Aitzitik, New Yorkeko estatu handian, Ohio-ko estatuan eta Pennsylvanian, konderri bakoitzeko biztanleek diputatu-multzo bat aukeratzen dute; diputatu hauek, bildurik, konderria ordezkatzeko duen batzarra osatzen dute<sup>103</sup>.

Konderriko batzarrak badu, muga batzuen barruan, jendea zerga ezartzeko eskubidea; ikuspegi honetatik, benetako legislatiboa osatzen du berak; konderria administratzen duen aldi berean, zenbait kasutan udalerrietako administrazioa zuzentzen du eta Massachusettsen baino askoz muga estuagoetara murrizten ditu udal-botereak.

Hauek dira udalerriaren eta konderriaren antolamenduak estatu konfederatu ezberdinetan dituen diferentzia nagusiak. Exekuzio-bideei buruzko xehetasunera jaitsi nahi izango banu, oraindik beste ezberdintasun asko izango nuke adierazteko. Baina nire helburua ez da zuzenbide administratibo amerikarrari buruzko ikastaro bat ematea.

Estatu Batuetan administrazioaren oinarrian dauden printzipio orokorrak ulertarazteko nahikoa esan dudala uste dut. Printzipio hauek era ezberdinetan aplikatzen dira; lekuen arabera ondorio gehixeago edo gutxiixeago izaten dute, baina funtsean berberak dira alde guztietan. Legeak aldatu egiten dira; hauen fisionomia aldatu egiten da; izpiritu berberak biziartzeko dituzte.

Udalerria eta konderria ez daude berdinean eratuak alde guztietan; baina esan daiteke udalerriaren eta konderriaren antolamendua Estatu Batuetan ideia beraren gain oinarritzen dela edonon: norbera dela berari bakarrik dagokionaren epailarik onena, baita bere behar partikularrak betetzeko egoerarik onenean dagoena ere. Udalerriak eta konderriak, beraz, beren interes bereziak zaintzeko ardura dute. Estatuak gobernatu egiten du, eta ez administratu. Printzipio honek baditu bere salbuespenak, baina ez kontrako printzipiorik.

Doktrina honen lehen ondorioa, udalerriko eta konderriko administrazioaile guztiak biztanleek berek aukeratzea izan da, edo behintzat beren artean bakarrik aukeratzea magistratu horiek.

Administratzaileak aukeratuak izanik alde guztietan, edo errebokaekin behintzat, ondorioz hierarkiaren erregelak inon ezin izan dira sartu. Hortaz, zenbat funtzio hainbat funtzionario independente izan da ia. Botere administratiboa sakabanaturik dago esku askoren artean.

Hierarkia administratiborik inon ez dagoenez, administratzaileak hautatuak eta agintaldiaren azkenerraino errebokaekin direnez, gehixeago edo gutxiago auzitegiak administrazioan sartu beharra sortu da. Hortik isun-sistema, hauen bidez behartzen dituztelarik legea obeditzera bigarren mailako gorputzak eta hauen ordezkariak. Sistema hau Batasunaren mutur batetik besteraino aurkitzen da.

Gainerantzean, delitu administratiboak erreprimitzeko ahalmena, edo, behar izanez gero, administrazio-egintzak gauzatzekoa, ez zaie estatu guztietan epaile berberei eman. Angloamerikarrek sorburu beretik atera dute bake-epaileen erakundea; estatu guztietan aurkitzen da. Baina ez diote beti erabilera bera eman.

Bake-epaileek alde guztietan esku hartzen dute udalerrri eta konderrien administrazioan<sup>104</sup>, bai haiek berek administratuz, bai delitu administratibo jakin batzuk erreprimitzuz; baina, estatu gehienetan, delitu horietako astunenak auzitegi arrunten esku jartzen dira.

Honela, bada, funtzionario administratiboen hautapena edo hauen funtzioen aldaezintasuna, hierarkia administratiborik eza, gizarteko bigarren mailako gobernuan baliabide judizialak sartzea, hauek dira administrazio amerikararen ezaugarri nagusiak, Mainetik Floridetaraino.

Estatu batzuetan hasiak dira zentralizazio administratiboaren arrastoak ikusten. New Yorkeko estatua da zentzu honetan aurreratuena.

New Yorkeko estatuan, gobernu zentralaren funtzionarioek, kasu batzuetan, halako ikuskapen eta kontrol bat zertzen dute bigarren mailako gorputzen jokabideaz<sup>105</sup>. Beste batzuetan, berriz, apelazioko auzitegia bezalakoa eratzen dute arazoak erabakitzeko<sup>106</sup>. New Yorkeko estatuan, zigor judizialak beste leku batzuetan baino gutxiago erabiltzen dira baliabide administratibo bezala. Delitu administratiboak pertsegitzeko eskubidea ere esku gutxiagotan ezarria dago han<sup>107</sup>.

Joera bera sumatzen da pixka bat beste estatu batzuetan ere<sup>108</sup>. Baina, oro har, Estatu Batuetako administrazio publikoaren ezaugarri nabariena oso deszentralizatua izatea dela esan daiteke.

Estatua

Udalerriez eta administrazioaz hitz egin dut; estatuaz eta gobernuaz hitz egitea falta zait. Hemen bizkorrago ibil naiteke, ez ulertua izateko beldurrik gabe; esan behar dudana konstituzio idatzietan ezarria dago dena, eta erraz eskura ditzake edozeinek<sup>109</sup>. Konstituzio hauek, bestalde, teoria sinple eta razional batean oinarritzen dira.

Horietan adierazten diren forma gehienak herri konstituzional guztiek berenganatu dituzte; ezagun bilakatu zaizkigu horrela.

Beraz, ez dut hemen azalpen labur bat besterik eman behar. Geroago saiatuko naiz orain deskribatuko dudana epaitzen.

Estatuaren botere legegilea

Gorputz legegilearen banaketa bi ganbaratan.- Senatua.- Ordezkarien Ganbara.- Bi gorputz hauen eskurantza ezberdinak.

Estatuaren botere legegilea bi batzarren esku dago; lehenari Senatu izena ematen zaio normalean.

Senatua gorputz legegilea izaten da normalean; baina batzuetan gorputz administratibo eta judizial ere bihurtzen da.

Konstituzio ezberdinen arabera, hainbat eratan esku hartzen du administrazioan<sup>110</sup>; baina funtzionarien hautapenean esku hartuz sartzen da normalean botere exekutiboaren esparruan.

Botere judizialean, zenbait delitu politikori buruz erabakiz esku hartzen du, baita batzuetan zenbait kausa zibiletan ere<sup>111</sup>.

Kide gutxi izaten du beti.

Legislatiboaren beste adarrak, normalean Ordezkarien Ganbara deritzanak, ez du ezertan esku hartzen botere administratiboan, eta botere judizialean ere ez du parte hartzen funtzionari publikoak Senatuaren aurrean akusatuz baizik.

Bi ganbaretako kideak hautagarritasun-baldintza beretsuen menpe daude ia leku guztietan. Batzuk eta besteak era berean eta hiritar berberak aukeratzen dituzte.

Berorien arteko ezberdintasun bakarra, senadoreen agintaldia orokorrean ordezkariena baino luzeagoa izatea da. Bigarren hauek nekez jarraitzen dute funtziotan urtebete baino gehiago; lehenengoek bizpahiru urte irauten dute normalean.

Hainbat urtetarako izendatuak izateko pribilegioa ematean senadoreei, eta serieka berritzean, legegileen artean arazoekin ohitutako pertsona-kopuru bat mantentzeaz arduratu da legea, etorri berrien gain eragin onuragarria izan dezaketen pertsonak.

Gorputz legegilea bi adarretan banatzean, amerikarrek ez dute batzar bat herentziazkoa eta beste bat hautapenezkoa sortu nahi izan, ezta bata gorputz aristokratikoa eta bestea demokraziaren ordezkari ere; haien helburua ere ez da izan lehenengoaz botereari euskarri bat ematea, herriaren interes eta grinak bigarrenari utziz.

Indar legegilea banatzea, honela batzar politikoen mugimendua mantsotzea eta legeak berrikusteko apelazioko auzitegi bat sortzea, hauek dira Estatu Batuetako bi ganbaren egungo eraketak dituen abantaila bakarrak.

Denborak eta esperientziak erakutsi diete amerikarrei, abantaila horietara mugatuta ere, botere legegileen banaketa behar-beharrezko zerbait dela. Baturiko errepublika guztien artean, Pennsylvaniakoa bakarrik saiatu zen hasieran batzar bakarra ezartzen. Franklinek berak ere, herri-subiranotasunaren dogmaren ondorio logikoek eraginda, bultzatu egin zuen neurri hau. Baina laster aldatu behar izan zuten legea eta bi ganbarak eratu. Botere legegilea banatzeko printzipioak bere azken sagarapena izan zuen horrela; harrezkero, beraz, egia frogatutzat har daiteke zenbait gorputzen artean banatu beharra ekintza legegilea. Teoria hau, antzinako errepublikentzat ezezagun samarra, munduan ia ustekabea sartua -egia handi gehienak bezala- eta hainbat herri modernorentzat ezezaguna, azkenean axioma bezala bihurtu da gaur egungo zientzia politikoa.

Estatuaren botere exekutiboa

Gobernaria zer den estatu amerikar batean.- Zer egoeratan dagoen legislatiboarekiko.- Zeintzuk dituen bere eskubide eta betebeharrak.- Herriarekiko menpekotasuna.

Estatuaren botere exekutiboak gobernaria du ordezkari.

Ordezkarri hitz hau ez dut kasualitatez erabili. Izan ere, estatuko gobernariak botere exekutiboa ordezkatzan du; baina bere eskubideetako batzuk bakarrik egikaritzen ditu.

Magistratu gorena, gobernari deritzana, legislatiboaren ondoan kokaturik dago moderatzaile eta kontseilari gisa. Beto esekitzaileaz horniturik dago, honek mugimenduak bere nahierara geldiarazteko edo gutxienez mantsotzeko aukera ematen diolarik. Herrialdeko beharrak azaltzen dizkio gorputz legegileari eta horiek betetzeko berari erabilgarri iruditzen zaizkion baliabideak ezagutarazten dizkio; haren nahien betearazle naturala da nazio osoari interesatzen zaizkion eginkizun guztietarako<sup>112</sup>. Legislatiborik ez dagoenean, tupusteko bortitz eta ezusteko arriskuetatik estatua babesteko neurri egoki guztiak hartu behar ditu.

Gobernariak bere eskuetan biltzen du estatuko botere militar guztia. Milizien komandantea eta indar armatuaren burua da.



Jendeak legeari eman nahi izan dion iritzi-botereak begirunea galtzen duenean, gobernaria jartzen da estatuko indar materialaren buru, erresistentzia apurtu eta ohiko ordena berrezartzen du.

Gainerantzean, gobernaria ez da udalerri eta konderrien administrazioan sartzen, edo behintzat oso zeharka baino ez du esku hartzen: bake-epaileak izendatzen ditu, gero errebokatu ezin dituenak<sup>113</sup>.

Gobernaria hautapenezko magistratua da. Oro har, zaintzen da urtebete edo bi baino gehiagorako ez hautatzea; eta horrela, beti gelditzen da bera sortu duen gehiengoarekiko menpekotasun estuan.

Deszentralizazio administratiboaren ondorio politikoak Estatu Batuetan

Gobernu-zentralizazioaren eta zentralizazio administratiboaren artean ezarri beharreko bereizketa.- Estatu Batuetan zentralizazio administratiborik ez dago, baina bai gobernu-zentralizazio oso handia.- Estatu Batuetako deszentralizazio administratibo ikaragarriaren zenbait ondorio gogaikarri.- Egoera honen abantaila administratiboak.- Gizartea administratzen duen indarra, Europakoa baino arau, jakintzargi eta trebetasun gutxiagokoa, baina askoz handiagoa.- Egoera beraren abantaila politikoak.- Estatu Batuetan aberriak edonon sentiarazten du bere burua.- Gobernatuek gobernuari ematen dioten laguntza.- Erakunde probintzialak are beharrezkoagoak gizarte-egoera demokratikogo bihurtzen den neurrian.- Honen zergatia.

Zentralizazioa gaur egun etengabe errepikatzen den hitza da, baina oro har inor ez da esanahia zehazten saiatzen.

Badira, ordea, bi zentralizazio-mota, oso ezberdinak, eta ongi ezagutu beharrekoak.

Interes batzuk nazioko zati guztiei dagozkie; esate baterako, lege orokorren eraketa eta herriaren harremanak atzerritarrekin.

Beste interes batzuk nazioko zati batzuei bakarrik dagozkie, udal-eginkizunak, adibidez. Lehenengoak zuzentzeko boterea leku edo esku bakar batean kontzentratzea gobernu-zentralizazioa deituko dudana ezartzea da.

Bigarrenak zuzentzeko boterea era berean kontzentratzea, zentralizazio administratiboa deituko dudana ezartzea da.

Bi zentralizazio-mota hauek elkarrekin nahasten dira zenbait puntutan. Baina, bakoitzaren esparruan bereziki sartzen diren gauzak orokorrean hartuta, erraz bereizi daitezke.

Ulgarria da gobernu-zentralizazioak ikaragarritzko indarra hartzea zentralizazio administratiboarekin bat egiten duenean. Honela, beren borondatearen abstrakzio osoa eta iraunkorra egitera ohitzen ditu pertsonak; eta obeditzera, ez behin eta gauza batean, gauza guztietan eta beti baizik. Orduan ez ditu indarrez bakarrik menperatzen, baizik eta azturen bidez ere bereganatzen ditu; isolatu egiten ditu eta ondoren banan-banan hartzen ditu masa komun horretan.

Bi zentralizazio-mota hauek elkarri laguntzen diote, bata bestea erakartzen du; baina ez nuke sinetsiko banaezinak direnik.

Louis XIV.aren menpean, imajina daitekeen gobernu-zentralizaziorik handiena ikusi zuen Frantziak, gizon bakar batek egiten baitzituen lege orokorrak, eta interpretatzeko ahalmena ere berak zeukan; Frantziaren ordezkari zen kanpoan eta beraren izenean jokatzeko zuen. "Estatua ni naiz" esaten zuen, eta arrazoiz.

Hala ere, Louis XIV.aren menpean gaur egun baino askoz zentralizazio administratibo txikiagoa zegoen.

Gaur egun bada potentzia bat, Ingalaterra, non gobernu-zentralizazioa oso maila altuan dagoen. Han estatua gizon bakarra bailitzan mugitzen dela dirudi; egundoko jendetzak altxatzen ditu bere nahierara, bere boterearen indar guztia bildu eta noranahi bideratzen du.

Ingalaterrak, duela berrogeita hamar urtetik hona hain gauza handiak egin dituenak, ez du zentralizazio administratiborik.

Nire aldetik, ezin dut imajinatu nazio bat bizi daitekeenik, eta batez ere aurrerapenik egin dezakeenik, gobernu-zentralizazio handirik gabe.

Baina zentralizazio administratiboak beraren menpe jartzen diren herriak ahultzeko bakarrik balio duela pentsatzen dut, jendearen artean izpiritu hiritarra gutxitzera jotzen baitu etengabe. Egia esateko, zentralizazio administratiboa, zenbait garai eta lekutan, nazioko indar erabilgarri guztiak biltzera iristen da, baina indar hauen birsortzapenari kalte egiten dio. Borroka-egunean garaipena ematen dio, baina luzera ahalmena gutxitzen. Beraz, miresgarriro lagun diezaioke pertsona baten handitasun igarokorrari, baina ez herri baten oparotasun iraunkorrari.

Oso kontuan izan behar da, estatu batek zentralizaziorik ez duelako ezin duela jardun esaten denean, oharkabean gobernu-zentralizazioaz esaten dela ia beti. Behin eta berriro esaten da Alemaniako inperioak sekula ezin izan zuela bere indarretatik ahalik eta probetxurik handiena atera. Konforme. Baina zergatik? Indar nazionala inoiz ez zelako zentralizaturik egon; estatuak ezin izan zituelako inoiz bere lege orokorrak obediari; gorputz handi hartatik bananduriko zatiek beti izan zutelako aginpide komuna zeukatenei laguntza ukatzeko eskubidea edo aukera, baita hiritar guztien intereseko gaietan ere; beste era batera esanda, ez zegoelako gobernu-zentralizaziorik. Oharpen berbera egin daiteke Erdi Aroaz ere: Gizarte feudaleko ezbehar guztiak, boterea -ez administratzekoa bakarrik, baita gobernatzekoa ere- milaka eskutan banatua eta mila eratan zatiturik egoteak sortarazi zituen; batere gobernu-zentralizaziorik ez egoteak eragozten zien orduan Europako nazioei edozein helburutarantz kementsu joatea.

Ikusi dugu Estatu Batuetan ez zegoela zentralizazio administratiborik. Hierarki arrastorik ere ez da ia aurkitzen. Europako ezein nazioek -nire ustez, ondoez bizirik gabe- jasango ez lukeen mailaraino eramana da han deszentralizazioa, eta Amerikan bertan ere ondorio gogaikarriak sortzen ditu. Baina Estatu Batuetan mailarik gorenean dago gobernu-zentralizazioa. Erraza izango litzateke frogatzea han botere nazionala kontzentratuago dagoela Europan antzinako monarkietan baino. Estatu bakoitzean legeak egiten dituen gorputz bakarra egoteaz gain, bere inguruan bizitza politikoa sor lezakeen botere bakarra egoteaz gain, oro har, saihestu egin da barruti edo konderrietako batzar ugariarik eratzea, batzar hauek beren eskurantzia administratiboetatik irteteko eta gobernuaren martxa oztopatzekeo tentazioa izango ote zuten beldur. Amerikan estatu bakoitzeko legislatiboak ez du aurre egin diezaiokeen botererik. Ezerk ez luke bere bidean geldiaraziko, ez pribilegioek, ez inmunitate lokalak, ez eragin pertsonalak, ezta arrazoiaren autoritateak ere, bera baita gehiengoaren ordezkari, eta gehiengoak arrazoiaren organo bakartzat du bere burua. Bere jardueran ez du, beraz, bere borondatea beste mugarik. Beraren ondoan eta eskupean kokatua botere exekutiboaren ordezkaria dago, zeinek, indar materialaren laguntzaz, pozik ez daudenak obedientziara behartu behar baititu.

Ez dago ahultasunik gobernu-ekintzaren zenbait xehetasunetan izan ezik.

Errepublikak amerikarrek ez dute indar armatu iraunkorrik gutxiengoak zapaltzeko, baina orain arte gutxiengoak ez dituzte inoiz gerra egitera behartu izan, eta armadaren beharrik ez da oraindik sumatu. Gehienetan, udalerri edo konderriko funtzionarioez baliatzen da estatua hiritarren gain jarduteko. Honela, esate baterako, Ingalaterra Berrian udalerriko aholkularia izaten da zerga ezartzen duena; udalerriko biltzaileak kobratzen du; bildutakoa udalerriko diruzainak helarazten du altxortegi publikora, eta aurkezturiko erreklamazioak auzitegi arruntetara eramaten dira. Zerga biltzeko era hau mantsoa eta gogaikarria da; etengabe eragotziko luke diru-behar handiak lituzkeen gobernu baten martxa. Oro har, bere bizitzarako funtsezkoa duen guztirako, gobernuak

bere funtzionariak izatea komeniko litzateke, berak aukeratuak, berak erreboka litzakeenak eta prozedura-modu arinekoak; baina, Amerikan antolatua dagoen bezala, botere zentralarentzat beti izango da erraza ekintza-bide kementsuago eta eraginkorragoak sartzea, beharren arabera.

Ez da beraz egia, sarri esaten den bezala, Estatu Batuetan zentralizaziorik ez dagoelako galduko direla Mundu Berriko errepublikak; aitzitik, nahikoa zentralizaturik ez egotetik urrun, gobernu amerikarrak zentralizatuégiak direla esan daiteke; geroago frogatuko dut hau. Batzar legegileek egunero irensten dituzte gobernu-botereen hondarren batzuk; guztiak beren baitan biltzeko joera izaten dute, Konbentzioak egin zuen bezalaxe. Honela zentralizaturik, gizarte-boterea etengabe aldatzen da eskuz, herri-boterearen menpe dagoelako. Sarritan zuhurtasuna eta aurrikuspena faltatzen zaizkio, dena baitezake. Horretan datza berarentzat arriskua. Hortaz, bere indarragatik, eta ez bere ahultasunagatik, dago egunen batean galtzeko arriskuan.

Deszentralizazio administratiboak hainbat ondorio ezberdin sortzen du Amerikan.

Ikusi dugu amerikarrek ia erabat isolatu zutela administrazioa gobernutik; honetan zentzuaren mugak gainditu egin dituztela iruditzen zait; zeren eta ordena, bigarren mailako gauzetan ere, interes nazionala baita oraindik<sup>114</sup>.

Estatua, lurraldeko puntu ezberdinetan postu finkoetan ezarriarik eta bultzada komun bat emateko moduan bere funtzionari administratiborik ez duenez, nekez saiatzzen da polizi arau orokorrak ezartzen. Nolanahi ere, arau hauen beharra biziki sentitzen da. Europarra sarritan ohartzen da horien gabezia. Gainazalean nagusi den desordena-itxura honek sinestarazten dio, lehen begiratuan, erabateko anarkia dagoela gizartean; gauzak sakon aztertzean bakarrik ohartzen da oker zegoela.

Eginkizun batzuk estatu osoari interesatzen zaizkio eta, hala ere, ezin dira gauzatu, ez dagoelako gidatuko dituen administrazio nazionalik. Udalerrri eta konderriek zaintzeko utzirik, aldi baterako agente hautatuen esku lagata, ez dute inolako emaitzik edo ezer iraunkorrik sortzen.

Europar zentralizazioaren aldekoek esaten dute gobernu-botereak hobeto administratzen dituela herriak, hauek beren kabuz baino. Hau izan daiteke egia botere zentrala ilustratua eta herriak jakintzargirik gabeak direnean, hura aktiboa eta hauek geldoak, hark jarduteko ohitura duenean eta hauek obeditzekoa. Halaber, ulertzekoa da, zentralizazioa gehitu ahala, joera bikoitz hau ere hazi egiten dela, eta areagotu egiten direla alde bateko gaitasuna eta besteko ezgaitasuna.

Baina horrela denik ukatu egiten dut herria ilustratua denean, bere interesak zaintzen dituen eta hauetaz arduratzen ohitua dagoenean, Amerikan egiten duen bezala.

Aitzitik, komentziturik nago, kasu honetan gizarte-ongizatea eragiteko hiritarren indar kolektiboa beti indartsuagoa izango dela gobernuaren aginpidea baino.

Aitortzen dut zaila dela ziur esatea zein den lokarturiko herria esnatzeko bidea, ez dauzkan grinak eta jakintzargia emateko; jendea bere arazoez ardura dadin komentzitzea, badakit eginkizun neketsua dela. Sarritan errazagoa litzateke gortean bete beharreko etiketa-xehetasunez arduraraztea, herriko etxearen konponketaz baino.

Pentsatzen dut, halaber, administrazio zentralak, lehenengo interesatuen eskuhartze askea zeharo ordeztu nahi duenean, bere burua edo besteona engainatu nahi izaten duela.

Botere zentralak, oso ilustratu eta jakintsu izan arren, ezin ditu berak bakarrik herri handi baten bizitzako xehetasun guztiak barne hartu. Ezin du, giza indarrak gainditzen baititu horrelako eginkizunak. Bere ardura hutsez hainbeste baliabide ezberdin sortu eta funtzionarazi nahi duenean, emaitza ezosoaz konformatzen da, edo alferrikako ahaleginetan ahitzen.

Egia esateko, zentralizazioa erraz iristen da gizakiaren kanpo-ekintzak halako uniformitate baten menpe jartzera, azkenean hau berez bihurtzen delarik desiragarri, zeri aplikatzen zaion kontuan izan gabe; irudikatzen duen jainkoaz ahazturik estatua bat gurtzen duten jainkoak horiek bezala. Zentralizazioak nekerik gabe lortzen du arazo arruntei abiada erregular bat ezartzea, gizarte-poliziaren xehetasunak jakinduriaz zuzentzea, desordena arin eta delitu txikiak erreprimitzea, ez gainbehera ez aurrerapen ez den *statu quo* batean gizarte mantentzea, gizarte-gorputzean halako sortasun administratibo bat -administratzaileek ordena on eta lasaitasun publiko deitu ohi duten mantentzea<sup>115</sup>. Labur esateko, paregabea da eragozteko, ez orde egiteko. Gizarte sakon mugiarazi edo bizkor ibilarazi behar duenean, huts egiten dio indarrak. Zentralismoaren neurriek gizabanakoaren laguntza pixka bat behar duten momentuan, harrigarria gertatzen da makineria itzel honen ahultasuna; ezintasunak jota gelditzen da bat-batean.

Batzuetan zentralizazioa, egoera etsigarrietan, hiritarren laguntza eskatzen ahalegintzen da; baina esaten die: "Nik nahi bezala jokatu duzue, nik nahi bitartean eta nire gogoko norabidean gainera. Xehetasun hauetaz arduratuko zarete, guztia zuzentzeko asmorik gabe; ilunbeetan lan egingo duzue, eta geroago epaituko duzue nire egintza emaitzen arabera". Ezin da honelako egoeran giza borondatearen laguntzarik lortu. Askatasuna behar du bere ibileran, erantzukizuna bere egintzetan. Gizakiak, egina dagoen bezala, nahiago du geldi geratu, norantz ez dakiela independentziarik gabe ibili baino.

Ez dut ukatuko Estatu Batuetan sarri deitoratzen dela gutako bakoitza etengabe zaintzen dutela diruditen arau uniforme horiek ez egotea.

Noizean behin, gizarte-axolagabekeria eta zabarkeriaren adibide handiak aurkitzen dira. Tarteka-marteka orban traketsak agertzen dira, inguruko zibilizazioarekin erabateko desadostasunean diruditenak.

Beren arrakastarako etengabeko arreta eta zehaztasun zorrotza eskatzen duten eginkizun praktikotik batzuk azkenerako bertan behera gelditzen dira sarritan; zeren eta Amerikan, alde guztietan bezalaxe, herriak momentuko ahalegin eta bat-bateko bultzada bidez jokatzen baitu.

Europarra, gutxi gora-behera gauza guztietan sartzen den funtzionario bat etengabe eskura izaten ohiturik dagoenez, nekez moldatzen da udal-administrazioko engranaia ezberdin hauetara. Oro har, bizitza gozo eta eroso bihurtzen duten gizarte-poliziar buruzko xehetasun txikiak Amerikan ahaztu egiten direla esan daiteke; baina gizartean pertsonarentzat funtsezkoak diren garantiak han ere badira beste edonon bezalaxe. Amerikarren artean, estatua administratzen duen indarra ez dago hain arautua, ez da hain ilustratu eta jakintsua, baina bai European baino ehun aldiz handiagoa. Ez dago munduan herrialderik, non gizakiek, azken finean, hainbeste ahalegin egiten duten gizarte-ongizatea sortzeko. Ez dut ezagutzen herririk hainbeste eskola eta hain eraginkorrik ezartzera iritsi denik, edo biztanleen erlijio-beharretarako tenplu egokiagorik, edo hobeto zainduriko udal-errepiderik. Estatu Batuetan ez da, beraz, proiektuen uniformitatea eta iraupena bilatu behar, ezta xehetasunen zainketa zehatza edo prozedura administratiboaren bikaintasuna ere<sup>116</sup>; han aurkitzen dena indarraren irudia da, pixka bat basatia, egia esateko, baina boterez betea; eta bizitzaren irudia, gora-behera askorekin, baina baita mugimendu eta ahaleginekin ere.

Gainera, onartuko dut, nahi bada, Estatu Batuetako herri eta konderriak hobeto administratuko lituzkeela urruti kokaturiko, eta arrotz litzaiekeen, aginte zentral batek, beren baitatik harturiko funtzionarioek baino. Aitortuko dut, eskatzen bazait, Amerikan segurtasuna handiagoa izango litzatekeela, gizarte-baliabideen erabilera zuhurrago eta zentzuzkoagoa egingo litzatekeela, herrialde osoko administrazioa esku bakar batean

bildua balego. Baina deszentralizazioaren sistematik amerikarrek ateratzen dituzten abantaila *politikoak* ikusita, nahiago nuke hori aurkako sistema baino.

Azken finean, zer axola dit agintea beti erne egotea, nire atseginen lasaitasuna zainduz, nire aurretik joan eta arrisku guztiak kenduz, nik gauza hauetan pentsatu ere egin beharrik gabe, aldi berean aginte hau, bidetik arantzarik txikienak ere kentzen dizkidan bitartean, nire askatasunaren eta bizitzaren jaun eta jabe baldin bada, eta, bera ahultzen denean inguruan dena ahuldu, bera lokartzean dena lokartu eta bera hiltzean dena galdu behar izateko punturaino mugimendua eta existentzia monopolizatzen baditu?

Badira European nazioak zeinetan biztanlea bere bizilekuaren destinoaz arduratzen ez den maiztertzat hartzen baita. Herrialde hauetan biztanleen eskuhartzerik gabe gertatzen dira aldaketarik handienak; zer gertatu den ere ez du zehazki jakiten; zalantza du; txiripaz entzun du gertatuaren berri. Are gehiago, bere herriaren zoriak, bere kaleko poliziak, bere elizaren eta presbiterioaren zorteak ez dute kezkatzen; gauza hauek guztiak batere ez dagozkiola pentsatzen du, eta gobernua deritzan arrotz ahaltsu bati dagozkiola. Bere ustez, usufruktudun bailitzan gozatzen du ondasun hauetaz, jabetza-sentipenik gabe eta hobetzeko batere asmorik gabe. Bere buruarekiko axolagabezia hau hain urrutiraino doanez, azkenean bere segurtasuna edo seme-alabena arriskuan badago, arrisku hori uxatzeaz arduratu beharrean, besoak gurutzatzen ditu nazio osoa beraren laguntzan etor dadin itxaroteko. Pertsona honek, gainerantzean, bere hautamenaren sakrifizio hain osoa egin duen arren, ez du obedientzia beste inork baino gehiago atsegin. Egia esateko, makurtuko da enplegaturen baten apetara; baina atsegin du legeari erronka egitea, etsai menperatuak, kontrako indarra erretiratu ondoren, egin ohi duen bezala. Honela, etengabe morrontzaren eta libertinajearen artean dabilela ikusten dugu.

Nazioek, puntu honetara iristen direnean, beren legeak eta ohiturak aldatu egin behar dituzte, edota desagertu, berorietan bertute publikoen iturria agortua bezala baitago: oraindik badira menpekoak nazio horietan, baina ez hiritarrik jada.

Horrelako nazioak konkista ditzaten prest daudela esaten dut. Lurgainetik desagertzen ez badira, antzeko nazioz edo kaskarragoz inguraturik daudelako da; oraindik gelditzen zaielako beren baitan aberriaren halako sen zehaztezin bat, berorren izenarekiko harrotasun hausnargaberen bat, beren iraganeko aintzaren oroitzapen lausoren bat, zein, garbi ezertan oinarritu gabe, aski den, behar izanez gero, iraunarazteko bultzada bat emateko.

Okerra litzateke lasaitzea pentsatuz herri batzuek ahalegin ikaragarriak egin izan dituztela aberria defenditzeko, nolabait ere atzerritar gisa bizi arren bertan. Adi aztertuz gero, ikusiko da erlijioa izan zutela ia beti beren eragile garrantzizkoena.

Nazioaren iraupena, aintza edo oparotasuna dogma sakratu bihurtuak ziren haientzat eta, beren aberria defenditzean, hiri santua ere defenditzen zuten, bertako hiritarrak baitziren guztiak.

Herri turkiarrek sekula ez zuten esku hartu gizarteko arazoen zuzendaritzan; hala ere, egundoko eginkizunak burutu zituzten, sultanen konkistetan Mahomaren erlijioaren arrakasta ikusi zuten bitartean. Gaur egun erlijioa desagertuz doa; despotismoa bakarrik gelditzen zaie, eta beheraka doaz.

Montesquieuk, despotismoari bere indar propioa aitortzean, merezi ez zuen ohorea egin zion, nire ustez. Despotismoak, berak bakarrik, ezin du ezer iraunkorrik lortu. Hurbiletik begiratzen zaionean, gobernu absolutuak luzaroan aurrerarazi dituen erlijioa dela ikusten da, eta ez beldurra.

Zernahi eginda ere, sekula ez da gizakien artean benetako botererik aurkituko, borondateen elkartze askean ez bada. Nolanahi ere, munduan abertzaletasunak edo erlijioak bakarrik ibilaraz ditzake hiritar guztiak luzaroan helburu bererantz.

Ez da legeen zeregina itzaltzen ari diren sineskizunak suspertzea; baina legeen zeregina da jendea bere herrialdearen destinoetan inplikaraztea. Legeen zeregina da aberri-sen zehazgabe hori, beti gizakiaren bihotzean dagoena, esnarazi eta gidatzea, eta eguneroko pentsamendu, grina eta azturekin lotzean, sentimendu hausnartu eta iraunkor bihurtzea. Eta inork ez dezala esan beranduegi denik horretan saiatzeko; nazioak ez dira pertsonak bezala zahartzen. Beraren baitan jaiotzen den belaunaldi bakoitza herri berri bat bezala da, bere burua legegilearen esku jartzen duena.

Nik Amerikan gehien miresten dudana, ez dira deszentralizazioaren ondorio *administratiboak*, ondorio *politikoak* baizik. Estatu Batuetan, aberriak edonon sentiarazten du bere burua. Arduragai da herriskatik hasi eta Batasun osoraino. Biztanlea bere herrialdeko interes bakoitzari atxikitzen zaio, bere-bereei bezalaxe. Nazioaren aintzaz aintzatzen du bere burua; nazioaren arrakasta bere egintza dela iruditzen zaio, eta harrotu egiten da; oparotasun orokorraz poztu egiten da, beronetaz baliatzen delarik. Familiarekiko duen sentimenduaren antzeko zerbait du aberriarekiko, eta nolabaiteko berekoikeriagatik arduratzen da estatuaz ere.

Sarritan, europarrak ez du funtzionariagan indarra baizik ikusten; amerikarrak zuzenbidea ikusten du harengan. Esan daiteke, beraz, Amerikan gizakiak sekula ez diola gizakiari obeditzen, justiziari edo legeari baizik.

Horrela sortu du bere buruaz iritzi bat, sarritan larregizkoa, baina ia beti onuragarria. Bere indarraz fidatzen da beldurrik gabe, gauza guztietarako aski iruditzen zaiolarik. Partikular batek edozein ekimenen ideia asmatzen du; ekimen honek harreman zuzena izan arren gizartearen ongizatearekin, ez zaio bururatzen agintaritza publikoagana jotzerik honen laguntza lortzeko. Bere plana ezagutarazten du, betetzeko prest agertzen da, gizabanakoen indarrak eskatzen ditu berari laguntzeko eta aurrez aurre borrokatzen da oztopo guztien kontra. Sarritan, zalantzarik gabe, estatua beraren lekuan egonda baino gutxiago lortzen du; baina luzarora banakako ekimen guztien emaitza orokorrak erraz gainditzen du gobernuak egin zezakeena.

Agintaritza administratiboak, administratuen ondoan ezarria dagoenez eta nolabait ere berauen ordezkari denez, ez du ez jelosiarik, ez gorrotorik sortzen. Bere ekintza-bideak mugatuak dituenek, guztiek sumatzen dute ez daitezkeela berorrenagan bakarrik oinarritu.

Honela, bada, botere administratiboa, bere eskurantz esparruan esku hartzen duenean, ez da inola ere bere kontu utzia gelditzen, Europan bezala. Ez da uste izaten partikularren eginbeharrak amaitu direnik, publikoaren ordezkaria datorrelako jardutera. Aitzitik, guztiek gidatzen, laguntzen eta sostengatzen dute.

Banakako indarren ekintza gizarte-indarren ekintzarekin bat eginez, sarritan lortzen da administrazioari kontzentratuen eta kementsuenak inola ere ezingo lukeena egitea (I).

Egitate asko aipatu ahal izango nituzke aurreratu dudana frogatzeko; baina nahiago dut bat bakarra hartzea, eta ongien ezagutzen dudana aukeratzea.

Amerikan, krimenak aurkitzeko eta kriminalak pertsegitzeko agintearen esku jarritako baliabideak gutxi izaten dira.

Polizia administratiborik ez dago; pasaporterik ez da ezagutzen. Estatu Batuetako polizia judiziala ezin da gurearekin konparatu; ministerio publikoaren agenteak gutxi izaten dira, eta ez dute beti pertsekuzio-eginbideetan ekimena izaten; instrukzioa bizkorra eta ahozkoa izaten da. Zalantza dut, ordea, beste herrialderen batean krimenak hain gutxitan ihes egiten dionik zigorrari.

Honen arrazoa? Mundu guztiak izaten duela delituaren frogak aurkeztu eta gaizkilea harrapatzeko interesa.

Estatu Batuetan egin nuen egonaldian, krimen bat egin zeneko konderriko biztanleak beren kabuz batzordeak sortzen ikusi nituen, erruduna pertsegitu eta auzitegiataraz eramateko helburuz.

Europar, kriminala zorigabe bat da, bere burua boterearen agenteengandik libratzeko borrokatzen dena; jendea borroka horren ikusle izaten da nolabait ere. Amerikan, kriminala gizajendearen etsai da, eta gizadi osoa du bere aurka.

Erakunde probintzialak herri guztientzat direla onuragarri uste dut; baina erakunde hauen beharrik handiena gizarte-egoera demokratikoa dutenetan dagoela iruditzen zait. Aristokrazietan beti dago askatasunaren baitan halako ordena bat mantentzeko ziurtasuna.

Gobernariak zer galdu asko dutenez, ordena interes handikoa da beraientzat.

Esan daiteke, halaber, aristokrazia batean herria babesturik dagoela despotismoaren gehiegikerietatik, beti aurkitzen direlako indar antolatuak despotari aurre egiteko prest.

Erakunde probintzialik gabeko demokrazia batek ez du inolako garantiarik horrelako gaitzen aurka.

Nola jasanarazi askatasuna gauza handietan, gauza txikietan ere horretaz baliatzen ikasi ez duen jendetzari?

Nola aurre egin tiraniari gizabanako bakoitza ahula den herrialdean, eta banako horiek ez badute elkartuko dituen inolako interes komunik?

Libertinajearen eta botere absolutuaren beldur direnek berdin desiratu behar dute askatasun probintzialen garapen mailakatua.

Gainera, komentziturik nago zentralizazio administratiboaren uztarpean jausteko arriskurik handiena gizarte-egoera demokratikoa dutenetan dagoela.

Hainbat kausak bultzatzen du emaitza horretara, baina beste batzuen artean hauek:

Nazio hauek, herria zuzenean ordezkatzeko duen botere bakarraren eskuetan gobernu-botere osoa biltzera jotzen dute etengabe, zeren eta, herriaz harantzago, masa komun batean nahasten diren gizabanako berdinak bakarrik hautematen baitira.

Baina botere bat bera dagoeneko gobernu-eskurantza guztiez hornitua dagoenean, oso zaila gertatzen zaio administrazioko xehetasunetan sartzen ez saiatzea, eta luzarora horretarako aukerarik ez zaio falta izaten. Honen lekuko geu izan gara geurean.

Iraultza Frantsesean kontrako zentzuko bi mugimendu izan ziren, nahastu behar ez direnak: bata askatasunaren aldekoa, bestea despotismoaren aldekoa.

Antzinako monarkian, bakarrik egiten zuen erregeak legea.

Botere subiranoaren azpian erakunde probintzialen hondarren batzuk zeuden, erdi suntsiturik. Erakunde probintzial hauek inkoherenteak ziren, gaizki antolatuak, sarritan zentzugabeak. Aristokraziaren eskuetan, batzuetan zapalkuntza-tresna ere izanak.

Iraultza erregetzaren eta erakunde probintzialen aurka agertu zen aldi berean. Gorroto bat berean nahastu zuen bere aurreko guztia, botere absolutua eta honen gogorkeria bigun zezakeena; errepublikazale eta zentralista izan zen aldi berean.

Iraultza Frantsesaren izaera bikoitz honetaz, botere absolutuaren adiskideak trebetasun handiz jabetu dira. Zentralizazio administratiboa defenditzen ikusten dituguenean, despotismoaren alde ari direla uste al duzue? Inola ere ez, Iraultzaren konkista handietako bat defenditzen ari dira (K). Honela, izan daiteke herrikoi eta aldi berean herriaren eskubideen etsai, tiraniaren ezkutuko zerbitzari eta askatasunaren maitale agerikoa.

Askatasun probintzialen sistema mailarik goreneraino garatu duten bi nazioak bisitatu ditut eta nazio horiek zatitzen dituzten alderdien ahotsa entzun dut.

Amerikan, beren herrialdeko erakunde demokratikoak suntsitzeko nahi ezkutua zutenak aurkitu ditut. Ingalaterran, aristokraziari gogor erasotzen zioten beste batzuk aurkitu ditut; ez dut askatasun probintziala ondasun handitzat ez zeukan bat bakarra ere aurkitu.

Bi herrialde hauetan estatuko gaitzak hainbat kausa ezberdini egozten dizkiotela ikusi dut, baina sekula ez udal-askatasunari.

Aberriaren handitasun edo oparotasuna arrazoi askori egozten entzun ditut hiritarrak; baina lehen mailan eta beste abantaila guztien zerrenda-buruan askatasun probintziala jartzen entzun ditut guztiak.

Berez hain zatiturik dauden gizakiak, ez doktrina erlijiosoei ez teoria politikoei buruz ados jartzen ez direnak, gauza bakar batean, egunero beren aurrean dutelako ongien epai dezaketen horretan, ados jartzen badira, oker dabiltzala sinetsiko ote dut?

Erakunde probintzial gutxi edo batere ez duten herriek bakarrik ukatzen dute horien onura; hau da, gaia batere ezagutzen ez dutenek bakarrik hitz egiten dute gaizki berorretaz.

VI

*Botere judiziala Estatu Batuetan eta beraren eragina gizarte politikoan*

Gainerako herrietan bereizgarri dituen ezaugarri guztiekin gorde dute angloamerikarrek botere judiziala.- Hala ere, botere politiko handi bihurtu dute.- Nola.- Zertan bereizten den angloamerikarren sistema judiziala beste guztietatik.- Epaile amerikarrek zergatik duten legeak konstituziokontra kotzat deklaratzeko eskubidea.- Epaile amerikarrek nola erabiltzen duten eskubide hau.- Legegileak harturiko neurriak eskubide honen abusua eragozteko.

Beharrezkoa iruditu zait botere judizialari kapitulu berezi bat eskaintzea. Hain garrantzi politikoa handia duenez, honetaz gain-gainetik bakarrik hitz egitea irakurleen aurrean gutxiestea izango litzatekeela iruditu zait.

Izan dira konfederazioak Amerikaz kanpo ere; izan dira errepublikak Mundu Berriko itsasertzetatik kanpo ere; ordezkapen-sistema Europako zenbait estatutan ere hartu da; baina ez dut uste, gaur arte, munduko beste nazioen batek amerikarrek bezala eratu duenik botere judiziala.

Estatu Batuetan antolamendu judiziala da atzerritarrari gehien kostatzen zaiona ulertzea. Nolabait esateko, ia gertakari politiko guztietan entzuten du inbokatzen epailearen aginpidea; eta hortik ateratzen du, noski, Estatu Batuetan epailea dela botere politiko nagusienetakoa. Auzitegien eraketa aztertzeari ekiten dionean, lehen begiratuan ez ditu eskurantza eta aztura judizialak baino aurkitzen. Iruditzen zaio magistratua sekula ez dela arazo publikoetan kasualitatez baizik sartzen; baina kasualitate hau egunero gertatzen da.

Pariseko Parlamentuak eragozpenak jarri eta ediktu bat erregistratzeari uko egiten zionean, funtzionari prebikatuak baten bere auzitegira joanarazten zuenean, garbi ikusten zen botere judizialaren eragin politikoa. Baina ez da horrelako ezer ikusten Estatu Batuetan.

Amerikarrek mantendu egin dituzte botere judizialean beroni aitortu ohi zaizkion ezaugarri guztiak. Mugitu ohi deneko esparruaren barruan itxi dute zehazki.

Botere judizialaren lehen ezaugarria, herri guztietan, arbitro-funtzioa betetzea da. Auzitegien aldetik akzioa egoteko, beharrezkoa da liskarra egotea. Epailerik egoteko, beharrezkoa da prozesua egotea. Legeren batek liskarrik sortzen ez duen bitartean, botere judizialak ez du lege horretaz arduratzeko aukerarik; ez du ikusten, hor egon arren. Prozesuren bat dela eta, epaileak prozesuari buruzko legeren bati erasotzen dionean, bere eskurantzen esparrua hedatzen du, baina ez da hortik irteten, zeren eta nolabait ere legea epaitu behar izan baitu prozesua epaitzera iristeko. Prozesu batetik abiatu gabe lege bati buruz erabakitzen duenean, bere esparrutik guztiz irteten eta botere legegilearenean sartzen da.

Botere judizialaren bigarren ezaugarria kasu partikularrak erabakitzea da, eta ez printzipio orokorrak. Arazo partikular bat ebaztean epaileak printzipio orokor bat



suntsitzen badu -printzipioaren ondorioetako bakoitza era berean jotzean printzipioa antzu bihurtzen den ziurtasuna dagoelako-, epailea bere jardunaren berezko esparruan gelditzen da; baina epaileak zuzenean erasotzen badio printzipio orokorrari, eta aurrean kasu partikular bat izan gabe suntsitu egiten badu, irten egiten da herri guztiek -adostasunez- itxi ohi duten esparrutik; zerbait garrantzizkoago bihurtzen da, magistratu bat baino onuragarriago agian, baina botere judizialaren ordezkari izateari uzten dio.

Botere judizialaren hirugarren ezaugarria ezin jardun izatea da ez bazaio deitzen edo, legezko adierazpenaren arabera, ez bada errekeritua izaten. Ezaugarri hau ez da beste biak bezain orokorra. Hala ere, uste dut, salbuespenak salbuespen, funtsezkotzat jo daitekeela. Bere izatez, botere judizialak ez du ekimenik; mugiarazi beharra dago mugi dadin. Krimen bat salatzen zaio, eta erruduna zigortzen du; bidegabekeria bat zuzentzeko dei egin, eta zuzendu egiten du; egintza bat aurkeztu, eta interpretatu egiten du; baina ez da bere kabuz kriminalak pertsegitzen hasten, bidegabekeriak bilatzen edo egitateak aztertzen. Botere judizialak nolabait ere bortxatu egingo luke izaera pasibo hori, ekimena bere kabuz hartuko balu eta legeen zentsore bihurtuko balitz.

Amerikarrek botere judizialaren hiru ezaugarri hauek gorde dituzte. Epaile amerikarrak ezin du erabaki liskarra dagoenean baizik. Sekula ez da kasu partikularrez baizik arduratzen; eta, jarduteko, beregana jo arte itxaron behar izaten du beti.

Epaile amerikarrak, beraz, beste nazioetako magistratuen antz oso-oso du. Baina ikaragarritzko botere politikoaz horniturik dago.

Nondik dator hori? Beste epaileen esparru berean mugitzen da eta baliabide berberez baliatzen da; zergatik du hark beste hauek ez duten boterea?

Honetantxe bakarrik datza kausa: beren erabakiak *legeetan* baino gehiago *konstituzioan* oinarritzeko eskubidea onartu diete amerikarrek epaileei. Beste era batera esanda, konstituziokontrakoak iruditzen zaizkien legeak ez aplikatzeko baimena eman diete.

Badakit beste herrialde batzuetako auzitegiek ere eskatu dutela batzuetan antzerako eskubiderik; baina sekula ez zaie eman izan. Amerikan, botere guztiek onartua dute; ez dago alderdi bakar bat, ezta pertsona bat ere, hori eztabaidatzen duenik.

Honen azalpena konstituzio amerikarren printzipioan bertan aurkitu behar da.

Frantzian, konstituzioa egintza aldaezina da, edo horrela hartzen da behintzat. Ez dago botererik ezer alda dezakeenik; hau da onarturiko teoria (L).

Ingalaterran, onartzen zaio Parlamentuari konstituzioa aldatzeko eskubidea.

Ingalaterran, etengabe alda daiteke konstituzioa edota, hobeto esanda, egon ere ez dago.

Parlamentua, gorputz legegile eta aldi berean gorputz konstituziogile da (M).

Amerikan, teoria politikoak sinpleagoak eta razionalagoak dira.

Konstituzio amerikar bat ez da aldaezinezkotzat jotzen Frantzian bezala; ezingo lukete gizarteko botere arruntek aldatu, Ingalaterran bezala. Aparteko obra da, herri osoaren borondatea ordezkatzeko duenez, legegileak nahiz hiritar xeheak behartzen dituen, baina herriaren borondatez alda daitekeena, horretarako ezarritako formen arabera eta aurrikusiriko kasuetan.

Amerikan, konstituzioa aldagarria da, beraz; baina dagoen bitartean, botere guztien sorburu da. Berarengan bakarrik dago indar nagusia.

Erraza da ikustea diferentzia hauek zer eragin izan dezaketen gorputz judizialaren egoera eta eskubideetan, aipatu ditudan hiru herrialdeetan.

Frantzian, konstituziokontrakotzat jotzen dituztela argudiatuz, auzitegiek legeei desobeditu ahal izango baliote, botere konstituziogilea beren esku izango lukete benetan, beraiek bakarrik izango bailukete konstituzioa interpretatzeko eskubidea, beste inork ezingo lituzkeelarik horren terminoak aldatu. Nazioaren lekuan jarriko liriateke orduan eta gizartea menperatuko lukete, botere judizialari datzekion ahultasunak utzitako neurrian behintzat.

Badakit legeak konstituziokontrakotzat deklaratzeko eskubidea epaileei ukatzean, zeharka gorputz legegileari ematen diogula konstituzioa aldatzeko eskubidea, ez baitu geldiaraziko duen beste lege-hesirik aurkitzen. Baina hobe, hala ere, konstituzioa aldatzeko ahalmena erdizpurdika bederen herriaren nahiak ordezkatzan dituztenei ematea, beren burua bakarrik ordezkatzan dutenei ematea baino.

Are zentzugabeagoa litzateke epaile ingelesei gorputz legegilearen borondateari aurka egiteko eskubidea ematea, zeren eta Parlamentuak, legea egiten duenak, konstituzioa ere egiten baitu eta, ondorioz, inolako kasutan ere ezin da lege bat konstituziokontrakotzat jo hiru botereetatik sortua denean.

Bi arrazoibide horietako bat ere ezin da Amerikan aplikatu.

Estatu Batuetan, legegileak nahiz hiritar xeheak menperatzen ditu konstituzioak. Legeetako lehena da beraz, eta ezingo luke lege batek aldatu. Bidezkoa da beraz auzitegiek konstituzioari obeditzea, lege guztien aurretik. Hau botere judizialaren muiari berari dagokio: legezko xedapenen artean estukien lotzen dutenak aukeratzea da, nolabait ere, magistratuaren berezko eskubidea.

Frantzia ere, konstituzioa da legeetako lehena, eta epaileek eskubide bera dute beren erabakien oinarritzat hartzeko; baina, eskubide hau gauzatzean, ezin dute zanpatu gabe utzi berea baino sakratuagoa den beste bat: gizartearena, zeinen izenean jarduten baitute. Hemen arrazoi arruntak amore eman behar du estatu-arrazoiaren aurrean.

Amerikan, non nazioak, bere konstituzioa aldatuz, beti behartu ditzakeen magistratuak obediencia, ez dago horrelako arriskuen beldurrik. Puntu honetan bat datoz politika eta logika, eta herriak, baita epaileak ere, bere pribilegioekin jarraitzen du.

Estatu Batuetako auzitegietan, epaileak konstituziokontrakotzat jotzen duen lege bat inbokatzen denean, epaile horrek uko egin diezaioke aplikatzeari. Botere hau da magistratu amerikarrak soilik duen bakarra, baina eragin politiko handia sortzen da berorretatik.

Izan ere, oso gutxi dira azterketa judizialari luzaroan ihes egin ahal izateko moduko legeak, zeren eta gutxi baitira interes indibidualen bat kaltetzen ez dutenak, eta auzilariak auzitegietan inbokatu ezin edo inbokatu behar ez dituztenak.

Nolanahi ere, epaileak prozesuan lege bat aplikatzeari uko egiten dion egunean, lege horrek berehala galtzen du bere indar moralaren zati bat. Kalte egin dienei ohartarazten zaie badela bide bat obeditu beharri ihes egiteko. Prozesuak ugaltu egiten dira, eta legea ezintasunean erortzen da. Eta bi gauza hauetakoren bat gertatzen da orduan: herriak bere konstituzioa aldatzen du edo legislatiboak bere legea deusezten du.

Beraz, amerikarrek egundoko botere politikoa eman diete beren auzitegiei; baina legearen kontrako erasoak bide judizialeetatik bakarrik egitera behartuz, asko gutxitu dituzte botere horren arriskuak.

Epaileak era teoriko eta orokorrean eraso ahal izan balitu legeak; ekimena hartu eta legegilea zentsuratu ahal izan balu, distiratsu sartuko zatekeen eskenatoki politikoan; alderdi baten txapeldun edo etsai bihurturik, herrialdea zatitzen duten grina guztiak deituko zituzkeen borrokan esku hartzera. Baina epaileak lege bati eztabaida ilun eta aplikazio partikular batean erasotzen dionean, publikoaren bistatik ezkutatu egiten du neurri batean erasoaren garrantzia. Beraren epaiak interes indibidual bati ukitzeko helburua besterik ez du; legea kasualitatez bakarrik gertatzen da kaltetua.

Bestalde, honela zentsuraturiko legea ez da suntsitua gertatzen: indar morala gutxitu egiten zaio, baina eragin materiala ez da etenda gelditzen. Poliki-poliki eta jurisprudentziaren kolpe errepikatuez bakarrik erortzen da azkenean.

Gainera, erraz ulertzen da legeen zentsura probokatzeko ardura interes partikularrari ematean, legeari egindako prozesua gizaki bati egindako prozesuarekin estu-estu lotzean, legeriari arinkeriazko erasorik ez zaiola egingo ziurtatzen dela. Sistema

honetan, legeria ez dago alderdien eguneroko erasoen arriskupean. Legegilearen hutsegiteak adieraztean, benetako behar bati obeditzen zaio: egitate positibo eta baloragarri batetik abiatzen da, prozesu baten oinarri izan behar baitu.

Nik ez dakit auzitegi amerikarren jokaera hau, ordena publikoarentzat mesedegarriena izateaz gain, askatasunarentzat ere ez ote den mesedegarriena.

Epaileak legegileei eraso egiteko modu bakarra aurrez aurre egitea balitz, garai batzuetan horretarako beldur izango litzateke; beste batzuetan, berriz, alderdi-izpirituak hori egitera bultzatuko luke egunero. Honela, legeek, sorburu duten boterea ahula denean, erasoak jasan beharko lituzkete, eta botere hori indartsua izanez gero, txintik esan gabe menpera makurtuko litzaizkioke; hots, legeei sarritan egingo litzaieke eraso errespetatzea onuragarriago litzatekeenean, eta errespetatu egingo lirateke beraien izenean zapaltzea erraza bihurtutakoan.

Baina epaile amerikarra gogoz kontra politikaren esparrura eramaten dute. Prozesu bat epaitu behar duelako bakarrik epaitzen du legea, eta ezin du ekidin prozesua epaitzea. Berak ebatzi behar duen arazo politikoa auzilarien interesari lotua dago, eta ezingo lioke erabakitzeari uko egin justiziari bidegabekeria egin gabe. Magistratu-lanari ezarritako betebeharrak estuak betetzean hiritar-egintza burutzen du. Egia da, honela, auzitegiek legeriaren gain zertzen duten zentsura judiziala ez daitekeela, bereizketarik gabe, lege guztietara hedatu, bai baitaude batzuk garbi formulaturiko liskar-mota hori, prozesua deitzen dena, eragin ezin dutenak. Eta horrelako liskar bat egingarri denean, hala ere gerta liteke auzitegietara jo nahi duenik ez egotea.

Amerikarrek sarri sentitu dute eragozpen hau, baina erdizka jarri diote konponbidea, kasu guztietan eraginkortasun arriskutsua emateko beldurrez.

Legeen konstituziok kontraktotasuna erabakitzeke auzitegi amerikarrei emaniko ahalmena, bere mugetan itxia, batzar politikoen tiraniaren aurka inoiz ezarri den hesirik ahaltsuenetakoa da.

Epaile amerikarrei emaniko beste ahalmen batzuk

Estatu Batuetan hiritar guztiek dute funtzionari publikoak auzitegi arruntetan akusatzeko eskubidea.- Nola erabiltzen duten eskubide hau.- VIII. urteko Konstituzio frantsesaren 75. art.- Amerikarrek eta ingelesek ezin dute ulertu artikulua honen zentzua.

Ez dakit esan beharrik dudanez, hain gauza normala baita, amerikarrena bezalako herri aske batean hiritar guztiek dutela funtzionari publikoak epaile arruntan aurrean akusatzeko eskubidea, eta epaile guztiek dutela funtzionari publikoak kondenatzeko eskubidea.

Legea hausten dutenean, botere exekutiboaren agenteak zigortzen uztea ez da auzitegiei pribilegio berezi bat ematea. Berezko eskubide bat kentzea izango litzateke hori debekatzea.

Ez zait iruditu Estatu Batuetan, funtzionari guztiak auzitegien aurrean erantzule bihurtzeagatik, gobernuaren baliabideak ahuldu egin direnik.

Aitzitik, iruditu zait amerikarrek, horrela jokatzeari, areagotu egin dutela gobernariei zor zaien begirunea, hauek askoz gehiago arduratzen baitira kritikari ihes egiteko.

Ez dut, halaber, ikusi Estatu Batuetan prozesu politiko asko zertzen denik, eta erraz ulertzen dut. Prozesu bat, bere izaera gora-behera, beti da zail eta kostu handikoa. Erraza da pertsona publiko bat egunkarietan akusatzeko, baina pisuzko zergatirik gabe inork ez du justiziaren aurrera dei egitea erabakitzen. Funtzionari bat juridikoki pertsegitzeko, beharrezkoa da beraz kexatzeko bidezko motiboren bat izatea; eta funtzionarioek nekez ematen dute horrelako motiborik pertsekuzioaren beldur direnean.

Honek ez du zerikusirik amerikarrek hartu duten era errepublikarrarekin, esperientzia berbera egiten baita egunero Ingalaterran.

Bi herri hauek ez dute pentsatu beren independentzia ziurtatua zutenik, boterearen agente nagusiak juzgatzeko bideak jarrita. Askatasuna bermatzea, hiritarrik xehenaren eskura egunero jarritako prozesu txikien bidez hobeto lortzen dela pentsatu dute, eta ez sekula erabiltzen ez diren edota beranduegi erabiltzen diren prozedura handien bidez.

Erdi Aroan, kriminalak harrapatzea oso zaila zenean, epaileek baten bat harrapatzen bazuten, sarritan atsekabe beldurgarriak jasan behar izaten zituen dohakabeak, baina honek ez zuen gaizkileen kopurua gutxitzen. Geroago jakin da justizia seguruago eta bide batez bigunago bihurtzean, aldi berean eraginkorrago ere bihurtzen zela.

Amerikarrek eta ingelesek pentsatzen dute arbitrarietatea eta tirania lapurreta bezala tratatu behar direla: pertsekuzioa erraztuz eta zigorra arinduz.

Errepublika frantsesaren VIII. urtean Konstituzio bat agertu zen, honela zioelarik 75. artikuluan: "Gobernu-agenteak, ministroak izan ezik, ezin dira pertsegitu beren funtzioei dagozkien egitateengatik, Estatu Kontseiluaren erabakiz ez bada; kasu honetan, prozesua auzitegi arruntetan zertuko da".

VIII. urteko Konstituzioa igaro zen, baina ez artikulua hau, gero ere iraun baitzuen; eta oraindik ere egunero kontrajartzen zaie hiritarren bidezko erreklamazioei.

Sarritan ahalegindu naiz 75. art. honen zentzua amerikarrei edo ingelesei ulertarazten, eta oso nekeza gertatu izan zait beti.

Lehenengo ohararazten zutena, Estatu Kontseilua, Frantzian, auzitegi handi bat zela erresumaren erdian kokatua, eta halako tirania bat zegoela auzi-jartzaile guztiak lehen-lehenik bertara bidaltzean.

Baina Estatu Kontseilua, hitzaren ohiko zentzuan, gorputz judizial bat ez zela ulertarazten saiatzzen nintzen, gorputz administratibo bat baizik, kontseilukideak erregearen menpe zeudelarik; izan ere, erregeak bere zerbitzarietako bati, prefektu delakoari, bidegabekeria bat egiteko subiranoki agindu ondoren, beste zerbitzarietako bati, estatu-kontseilari zeritzanari, lehenengoaren zigorra eragozteko agindu ziezaiokeen subiranoki; eta printzearen aginduak kalteturiko hiritarra, justizia egiteko baimena printzeari berari eskatu beharrean erakusten nien; baina ez zuten horrelako izugarrikeriarik sinetsi nahi eta gezurti eta ezjakintzat akusatzen ninduten.

Antzinako monarkian sarritan gertatzen zen delituren baten errudun zen funtzionari publikoaren atxiloketa agintzea Parlamentuak. Batzuetan errege-aginteak esku hartu eta prozedura deuseztarazten zuen. Despotismoa agerian gelditzen zen orduan, eta hari obeditzea indarraren menpe jartzea bakarrik zen.

Gure arbasoak iritsi zireneko puntu hartatik, beraz, asko egin dugu atzera; zeren eta guk justiziaren itxurapean uzten baitugu egiten eta legearen izenean sagaratzen baitugu haiei bortxak bakarrik ezartzen ziena.

## VII

### *Judizio politikoa Estatu Batuetan*

Autoreak zer ulertzen duen judizio politikoaz.- Judizio politikoa nola ulertzen den Frantzian, Ingalaterran, Estatu Batuetan.- Amerikan epaile politikoa ez da arduratzen funtzionari politikoez baizik.- Kargu-gabetzeak erabakitzen ditu zigorrak baino gehiago.- Judizio politikoa, ohiko gobernu-baliabidea.- Judizio politikoa, Estatu Batuetan ulertzen den bezala, biguna izan arren, eta bere biguntasunagatik agian, oso arma ahaltsua da gehiengoaren eskuetan.

Judizio politikoa, niretzat, gorputz politiko batek, une batez epaitzeko eskubideaz horniturik, ematen duen epaia da.

Gobernu absolutuetan alferrikakoa da judizioei forma bereziak ematea. Printzeak, zeinen izenean pertsegitzen den akusatua, auzitegien eta gainerako guztiaren jabe denez, ez dauka beste inon garantia bilatu beharrik beraren botereaz dagoen ideian baizik. Izan

dezakeen beldur bakarra justiziaren kanpo-itxurak ere ez gordetzea litzateke, eta bere aginpidea, sendotu nahi izatean, desohoratu egingo ote den.

Baina herrialde aske gehienetan, non gehiengoak ezin duen inoiz printze absolutuak egingo lukeen bezala auzitegietan eragin, batzuetan gertatu izan da botere judiziala momentu batez gizartearen ordezkarien beraien eskuetan jartzea. Honela nahiago izan da botereak une batez nahastea gobernu-batasunaren beharrezko printzipioa haustea baino. Ingalaterrak, Frantziak eta Estatu Batuek judizio politikoa sartu dute beren legeetan. Bitxia da aztertzea hiru herri handi hauek nola baliatu diren horretaz.

Ingalaterran eta Frantzian, Pareen Ganbarak eratzen du nazioko Auzitegi Kriminal Gorena<sup>117</sup>. Ez ditu delitu politiko guztiak epaitzen, baina epai ditzake guztiak.

Pareen Ganbararen ondoan beste botere politiko bat aurkitzen da, akusatzeko eskubideaz hornitua. Puntu honetan bi herrialdeen artean dagoen diferentzia bakarra hau da: Ingalaterran, diputatuek nornahi akusa dezakete Pareen aurrean; Frantzian, berriz, erregearen ministroak bakarrik pertsegi daitezke era honetan.

Gainera, bi herrialdeetan, Pareen Ganbarak lege penal guztiak ditu bere esku gaizkileak zigortzeko.

Estatu Batuetan, Europan bezalaxe, legislatiboaren bi adarretako bat akusazio-eskubideaz horniturik dago, eta bestea, epaitzeko eskubideaz. Ordezkariak erruduna salatzen dute, Senatuak zigortu egiten.

Baina Senatura *ordezkariak* bakarrik *jo* dezakete, eta ordezkariak *funtzionari publikoak* bakarrik sala ditzakete. Honela, Senatuak, Frantziako Pareen auzitegiak baino eskuduntza murriztagoa du, eta ordezkariak gure diputatuek baino akusazio-eskubide zabalagoa dute.

Hona hemen Amerikaren eta Europaren artean dagoen diferentziarik handiena: Europan, auzitegi politikoek kode penaleko xedapen guztiak aplika ditzakete; Amerikan, errudun bat bere izaera publikoaz gabetu eta geroan inolako funtzio publikorik betetzeko ezduintzat jotzen dutenean, hor amaitzen zaie beren eskumena, eta auzitegi arrunten eginkizuna hasten da.

Demagun Estatu Batuetako lehendakariak traizio handiko krimen bat egin duela.

Ordezkarien Ganbarak akusatu egiten du, senadoreek kargutik kentzea erabakitzen dute. Ondoren, epaimahaiaren aurrean agertzen da, honek bakarrik ken diezaiokeelarik askatasuna edo bizia.

Honek biziki argitzen du aztergai duguna.

Judizio politikoa beren legeetan sartzean, europarrek kriminal handiak menderatu nahi izan dituzte, edozelakoa izanik hauen jatorria, maila edo Estatuaren barruan duten boterea. Honetara iristeko, gorputz politiko handi baten baitan, auzitegien prerrogatiba guztiak bildu dituzte une batez.

Legegilea magistratu bihurtu da orduan; krimena ezarri ahal izan du, sailkatu eta zigortu. Epailearen eskubideak ematean, betebeharrak guztiak ezarri dizkio legeak eta justiziaren forma guztiak betetzera behartu du.

Auzitegi politiko frantses nahiz ingeles batek funtzionari publiko bat baldin badu auzipetua eta kondenatzea erabakitzen badu, egitate honen bidez bere funtzioak kentzen dizkio eta etorkizunean besterik hartzeko ezduintzat jo dezake. Baina hemen kargu-kentzea eta interdizio politikoa epaiaren ondorio dira eta ez epaia bera.

Beraz, Europan judizio politikoa egintza judiziala gehiago da neurri administratiboa baino.

Kontrakoa ikusten da Estatu Batuetan, eta erraza da komentzitzea han judizio politikoa neurri administratiboa gehiago dela egintza judiziala baino.

Egia da Senatuaren epaia judiziala dela formari dagokionez; epaia emateko, senadoreak beharturik daude prozeduraren solemnitaterik eta usadioen arabera jokatzera. Bere

oinarrian dituen zioengatik ere judiziala da; orokorrean Senatua beharturik dago erabakiaren oinarritzat zuzenbide komuneko delitu bat hartzera. Baina administratiboa da bere xedeagatik.

Legegile amerikarraren helburu nagusia gorputz politiko bat botere judizial handiz hornitzea izan balitz benetan, ez zukeen bere ekintza funtzionari publikoen esparrura mugatuko, Estatuaren etsairik arriskutsuenak batere funtziorik gabe egon baitaitezke. Hau egia da batez ere errepubliketan, hauetan alderdien eragina izaten baita botereetan lehena, eta sarritan indartsuagoa izaten da legalki inolako botererik egikaritzen ez denean.

Legegile amerikarrak gizarteari berari eman nahi izan balio krimen handiak epaileak bezala eragozteko eskubidea, zigorraren beldurrez auzitegi politikoaren esku utzi beharko zituzkeen kode penalaren baliabide guztiak; baina arma osagabea bakarrik eman die, kriminalik arriskutsuenak harrapatzeko gauza ez dena. Izan ere, gutxi axola zaio interdikzio politikozko epaia legeak berak ere irauli nahi dituenari.

Estatu Batuetan boterea gaizki erabiltzen duenari botere hori kentzea da judizio politikoaren helburu nagusia, eta hiritar honek beronek etorkizunean botererik izan dezan eragozteko. Ikusten denez, egintza administratiboa da, epaiaren solemnitaterik hornitua.

Gai honetan, amerikarrek zerbait mistoa sortu dute. Kargu-kentze administratiboari judizio politikoaren berme guztiak eman dizkiote, eta judizio politikoari gogortasunik handiena kendu diote.

Puntu hau finkaturik, dena dago kateatua; horrela jakiten da konstituzio amerikarrek zergatik jartzen dituzten funtzionari zibil guztiak Senatuaren eskumen edo jurisdikziopean, militarrek salbuetsiz, nahiz eta hauen krimenak beldurgarriagoak izan. Maila zibilean, amerikarrek ez dute, nolabait esateko, funtzionari errebokagarririk: batzuk mugiezinak dira, besteek derogatu ezin den agintearen eskubideak dituzte. Boterea kentzeko, juzgatu beharra dago guztiak. Baina militarrek estatu-buruaren menpe daude, hau berau ere funtzionari zibila delarik. Estatu-burua harrapatzean, guztiak harrapatzen dira kolpe berean<sup>118</sup>.

Orain, sistema europarra eta sistema amerikarra alderatzen badira, bakoitzak eragiten dituen edo eragin ditzakeen ondorioei dagokienez, ez dira ezberdintasun txikiagoak aurkitzen.

Frantzia eta Ingalaterran, judizio politikoa aparteko armatzat hartzen da, eta gizarteak ez du honetaz baliatu behar arrisku handiko momentuetan salbatzeko baizik.

Ukaezina da judizio politikoak, European ulertzen den bezala, botere-banaketaren printzipio kontserbadorea hausten duela, eta etengabe mehatxatzen duela gizakien askatasuna eta bizitza.

Judizio politikoak Estatu Batuetan zeharkako erasoak bakarrik inplikatzeko du botere-banaketaren printzipioarentzat; ez du hiritarraren bizitza mehatxatzen; ez dago, European bezala, buru guztien gainean, zeren eta, funtzio publikoak onartzean, aurrez beraren gogortasunera makurtu direnak bakarrik harrapatzen baititu.

Aldi berean ez da hain beldurgarria eta bai eraginkorragoa.

Estatu Batuetako legegileek ez dute hartu gizarteko gaitz handientzako azken erremedioa bailitza, gobernatzeko ohiko baliabidetzat baizik.

Ikuspegi honetatik agian benetako eragin handiagoa izango du gizarte-gorputzean Amerikan European baino. Izan ere, ez gaitu liluratu behar legeria amerikarraren itxurazko gozotasunak judizio politikoei dagokienean. Azpimarratu behar da, lehenik, Estatu Batuetan judizio hauek erabakitzen dituen auzitegia eta akusatzeaz arduratzen den gorputza elementu berberetik osaturik eta eragin berberaren menpean daudela, eta honek bultzada ia geldiezina ematen diela alderdien grina mendekatiei. Estatu Batuetan

epaile politikoek Europakoek bezain zigor zorrotzak erabaki ezin badituzte ere, aukera gutxiago dute absolbitzeko. Kondena ez da hain beldurgarria, baina ziurragoa bai.

Europarrek, auzitegi politikoak ezartzean, errudunak *zigortzea* izan dute helburu nagusia; amerikarrek, *boterea kentzea*. Judizio politikoa Estatu Batuetan prebentzio-neurria da, nolabait ere. Han ez dago, beraz, epailea definizio kriminal oso zehatzetan kateatu beharrik.

Ezer ez beldurgarriagorik lege amerikarren zehazgabetasuna baino, hertsiki krimen politikotzat har daitezkeenak definitzen dituztenean. "Lehendakariaren kondena eragingo duten krimenak (dio Estatu Batuetako Konstituzioak, IV. sekzioan, 1. art.an) goi-mailako traizioa, ustelkeria edo beste krimen eta delitu handi batzuk dira". Estatuetakoa konstituzio gehienak askoz ilunagoak dira oraindik.

"Funtzionari publikoak, dio Massachusettseko Konstituzioak, izandako portaera errudunagatik eta beren administrazio txarragatik kondenatuko dituzte"<sup>119</sup>. "Administrazio txar, ustelkeria edo beste delitu batzuegatik Estatu arriskuan jartzen duten funtzionari guztiak, esaten du Virginiako Konstituzioak, Diputatuen Ganbarak akusatu ahal izango ditu". Badira konstituzioak batere krimenik zehazten ez dutenak, funtzionari publikoen gain erantzukizun mugagabearen zama geldidadin<sup>120</sup>.

Baina puntu honetan lege amerikarrak hain beldurgarri bihurtzen dituen haien biguntasuna bera dela esatera ausartuko nintzateke.

Europar funtzionaria kargutik kentzea eta interdikzio politikoa zigorraren ondorioetako bat zirela ikusi dugu, eta Amerikan berriz zigorra bera. Hortik dator Europar auzitegi politikoak eskubide beldurgarri hornituak egotea, batzuetan nola erabili ere ez dakizkitenak; eta gehiegi zigortzeko beldurrez ez dutela zigortzen gertatzen zaie. Baina Amerikan ez da atzera egiten gizadiari intziri eragiten ez dion zigorraren aurrean: boterea kentzeko arerio politikoa heriotza-zigorrera kondenatzea, hilketa beldurgarria da guztientzat; botere hori berori edukitzeko kontrakoa ezduintzat deklaratzeko, eta, askatasuna eta bizitza utziz, boterea kentzea, borrokaren emaitza zintzoa dela eman dezake.

Baina, erabakitzen hain erraza den judizio hori zoritxar ezin handiagoa da aplikatzen zaien guztientzat. Kriminal handiak arranditsu ibiliko dira berorren gogortasun hutsalen aurrean; jende xeheri, bere egoera suntsitzen, ohorea zikintzen eta heriotza baino lotsagarriagoa den aisiara kondenatzen dituen epaia irudituko zaio.

Judizio politikoak, Estatu Batuetan, zenbat eta beldur gutxiago eman, orduan eta eragin handiagoa du gizartearen martxan. Ez du zuzenean gobernatuengan eragiten, baina gobernatzen dutenen jaun eta jabe bihurtzen du gehiengoa; ez dio legislatiboari ikaragarritzko botererik ematen, krisi-egunen batean bakarrik erabili ahal izateko; ahalmen neurritsu eta erregularra hartzen uzten dio, egunero erabil dezakeena. Indarra txikiagoa bada ere, erabilera erosoagoa da eta abusua errazagoa.

Auzitegi politikoei zigor judizialak erabakitzea eragotziz, amerikarrek, tirania bera baino gehiago legegintzako tiraniaren ondorioz beldurgarrienak saihestu dituztela iruditzen zait. Eta, azken finean, ez dakit judizio politikoa, Estatu Batuetan ulertzen den bezala, ez ote den izango gehiengoaren eskuetan sekula jarri den armarik ikaragarriena.

Errepublikak amerikarrak galbideratzen hasten direnean, erraz ikusi ahal izango dela iruditzen zait: nahikoa izango da judizio politikoen kopurua gehitzen den ala ez ikustea (N).

## VIII

### *Konstituzio Federala*

Orain arte estatu bakoitza zera oso bat bailitzan hartu dut, eta bertan herriak mugiarazten dituen baliabide ezberdinak azaldu ditut, baita erabiltzen dituen ekintza-bideak ere. Baina independente bezala aztertu ditudan estatu horiek guztiak beharturik

daude, zenbait kasutan, goragoko aginte bati obeditzera, Batasunekoari, alegia. Iritsi da garaia Batasunari emandako subiranotasun-zatia aztertzekoa, eta Konstituzio federalari begiratu bizkor bat ematekoa<sup>121</sup>.

Konstituzio Federalaren historia

Lehen Batasunaren jatorria.- Beraren ahulezia.- Kongresuak botere konstituziogilera jo.- Bi urteko tartearen momentu honetatik Konstituzio berriaren promulgaziora bitartekoa.

Azken mendearen bukaeran, Ingalaterraren uztarria aldi berean astindu zuten hamahiru koloniek, esan dudan bezala, erlijio bera, hizkuntza bera, ohitura berberak eta ia lege berberak zituzten; etsai komun baten aurka borrokatzen ziren; arrazoi indartsuak izango zituzten, beraz, batzuk besteekin estu-estu elkartzeko, eta nazio bakar eta berean bat egiteko.

Baina haietako bakoitzak, beti bere izate bereizia eta gobernua bere esku izana zuenez, sortuak zituen interes eta usadio bereziak, eta onargaitza gertatzen zitzairen batasun solido eta osoa, bakoitzaren garrantzia garrantzi komun batean desagertaraziko zukeena. Hortik sortu ziren bi aurkako joera: bata, angloamerikarrak batzera zeramatzana, bestea, banatzera bultzatzen zituena.

Ama aberriarekin gerrak iraun bitartean, beharragatik batasun-printzipioa nagusitu zen. Eta batasun hau eratzen zuten legeak akastunak izan arren, lotura komunak iraun egin zuen, legeak gora-behera<sup>122</sup>.

Baina bakea sinatu zenean, legeriaren akatsak agerian gelditu ziren: Estatua bat-batean desegingo zela zirudien. Kolonia bakoitza, errepublika independente bihurtua, subiranotasun osoaz jabetu zen. Gobernu federalak, Konstituzioak berak ahuleziara behartua eta arrisku publikoaren sentimenduaren laguntzarik gabe, bere bandera Europako herri handien irainpean ikusi zuen, eta aldi berean ezin zuen behar hainbat baliabide aurkitu nazio indiarrei aurre egiteko eta Independentzi gerran eginiko zorren interesak ordaintzeko. Galzorian, berak aitortu zuen ofizialki bere ezintasuna eta botere konstituziogilera jo zuen<sup>123</sup>.

Amerikak inoiz jakin izan bazuen aintza-maila handi bateraino igotzen, bere biztanleen irudimen harroak beti erakutsi nahiko ligukeen mailaraino alegia, hori une goren hartan izan zen, botere nazionalak nolabait ere bere inperioaz abdikatu zueneko hartan.

Herri batek bere independentzia konkistatzeko indartsu borroka egitea, mende guztiek eskaini ahal izan duten ikuskizuna da. Bestalde, gehiegikeria askotxo esan da ingelesen uztarpetik irteteko amerikarrek egin zituzten ahaleginei buruz. Beren etsaiengandik 1.300 itsas lekoak banandurik, aliatu indartsu baten laguntzaz, Estatu Batuen garaipena hauen kokalekuari gehiago zor izan zitzaion, armaden adoreari edo hiritarren patriotismoari baino. Nor ausartuko litzateke Amerikako gerra Iraultza Frantseseko gerrekin alderatzera, eta amerikarren ahaleginak gureekin konparatzera, Frantziak, Europa osoaren erasoei aurre egin behar eta, dirurik gabe, krediturik gabe, aliaturik gabe, bere biztanleen hogeiko bat etsaien aurrera botatzen bazuen, erraiak kiskaltzen zizkion sutea esku batez itzali eta besteaz zuzia astintzen zuelarik bere inguruan? Baina herri handi bat, bere gobernu-mekanismoak gelditzen ari direla ohartu ondoren legegileei esker, zalaparta eta beldurrik gabe bere buruari begiratzen ikustea gauza berria da benetan gizartearen historian, baita ere gaitzaren sakontasuna aztertzen, sendabidea lasai aurkitzeko xedeaz bi urte osoz itxaroten eta, erremedioa aurkitu ondoren, bere borondatez erremedio horretara makurtzen ikustea, gizadiari batere malkorik edo odol-tantarik kostatu gabe.

Lehen Konstituzio federalaren gutxiegitasuna nabaritu zenean, iraultzak sortarazitako grina politikoen irakidura jadanik baretua zegoen neurri batean eta iraultzak sortutako pertsonaia handi guztiak bizi ziren artean. Zoriontasun bikoitza izan zen



Amerikarentzat. Bigarren Konstituzioa idazteaz arduratu zen batzar urri samarrak<sup>124</sup> Mundu Berrian sekula izan ziren izpiriturik bikainenetakoak eta izaerarik jatorrenetakoak bildu zituen. George Washington zen buru.

Batzorde nazional honek, azterketa luze eta sakonen ondoren, oraindik gaur egun Batasuna arautzen duten lege organikoen gorputza eskaini zion herriari, onespena eman ziezaion. Estatu guztiek onartu zuten, batak bestearen ondoren<sup>125</sup>. Gobernu federal berria 1789an hasi zen bere egitekoak betetzen, bi urteko hutsartearen ondoren. Amerikako iraultza gurea hasi zen une berean amaitu zen, beraz.

Konstituzio Federalaren azalpen laburra

Botere-banaketa subiranotasun federalaren eta estatuenaren artean.- Estatuetakoa gobernua, zuzenbide komuna;- gobernu federala, salbuespena.

Lehen arazo bat sortu bide zitzaien amerikarrei. Subiranotasuna banatu beharra zegoen, baina betiere Batasuna eratzen zuten estatu ezberdinek barne-oparotasunari bakarrik zegokion guztian beren burua gobernatzen jarraitzeko moduan, nazio osoak, Batasunak ordezkaturik, gorputz bat izateari eta bere beharrian orokor guztiak hornitzeari utzi gabe. Arazo konplexua eta konponkaitza.

Ezinezkoa zen subiranotasuna banatu behar zuten bi gobernuetako bakoitzari zegokion botere-zatia, era zehatz eta osoan, aurrez erabakitzea.

Nork aurrikus zitzakeen herri baten bizitzako xehetasun guztiak?

Gobernu federalaren betebeharrak eta eskubideak sinpleak ziren eta nahiko erraz zehaztekoak, behar orokor handi batzuei erantzuteko xedeaz eratu baitzen Batasuna. Estatuetakoa gobernuaren betebeharrak eta eskubideak, aitzitik, ugariak eta zailak ziren, gobernu hau gizarte-bizitzako xehetasun guztietan sartzen baitzen.

Arretaz definitu zituzten, beraz, gobernu federalaren ahalmenak, eta definizioan sarturik ez zegoen guztia estatuetakoa gobernuaren ahalmenetan sartzen zela aldarrikatu zen. Honela, bada, estatuetakoa gobernua zuzenbide komuntzat hartu zen; gobernu federala salbuespena izan zen<sup>126</sup>.

Baina, praktikan, salbuespenezko gobernu honen muga zehatzei buruzko arazoak sor zitezkeela aurrikusten zenez, eta arazo hauen konponbidea estatu ezberdinetan estatuek berek eratutako auzitegi arrunten esku uztea arriskutsua izan zitekeelako, auzitegi federal goren bat sortu zen<sup>127</sup>, auzitegi bakarra, eta honen eskurantzetako bat bi gobernu kontrarioen artean botere-banaketari eustea izan zen, Konstituzioak ezarria zuen bezala<sup>128</sup>.

Gobernu Federalaren eskurantzak

Bakea edo gerra eta zerga orokorrak ezartzeko gobernu federalari emandako boterea.- Barne-politikako arazoak, bere ardurapean har ditzakeenak.- Batasuneko gobernua, antzinako monarkia frantsesean errege-gobernua baino ere zentralizatuago zenbait puntutan.

Herriak beren artean banakoak baino ez dira. Nazio batek atzerriarren aurrean abantailaz agertzeko du, batez ere, gobernu bakarraren beharra.

Batasunari eman zitzaion, beraz, bakea eta gerra egiteko eskubide eksklusiboa, merkatal tratuak sinatzekoa, armadak eratzekoa eta flota hornitzekoa.

Gobernu nazionalaren beharra ez da hain biziki sentitzen gizarteko barne-arazoen zuzendaritzan.

Hala ere, badira interes orokor batzuk aginte orokorrak bakarrik zain ditzakeenak onuraz.

Batasunaren esku utzi zen diruaren balioari buruzko guztia arautzeko eskubidea; posta-zerbitzuaren ardura ere eman zitzaion, baita lurraldeko eskualde ezberdinak elkartu behar zituzten komunikazio handiak irekitzeko eskubidea ere.

Oro har, estatu ezberdinetako gobernuari askatasuna eman zitzaion bere esparruan; baina abusatu egin zezakeen independentzia horretaz eta neurri zuhurgabeekin Batasun osoaren segurtasuna arriskuan jarri; aurrez zehazturiko kasu bakan hauetarako, utzi egin zitzaion gobernu federalari estatuen barne-arazoetan esku sartzen<sup>131</sup>. Honela, errepublika konfederatuetak bakoitzari legeria aldatzeko boterea aitortu arren, debekatu egin zitzaion atzeraeraginezko legeak egitea eta bere baitan nobleen gorputz bat sortzea<sup>132</sup>.

Azkenik, gobernu federalak berari ezarritako obligazioak bete behar zituenenez, zergak biltzeko eskubide mugagabea eman zitzaion<sup>133</sup>.

Konstituzioak finkatu bezalako botere-banaketari arreta jartzen zaionean eta, batetik, estatu bakoitzak beretzat gorde zuen subiranotasun-zatia eta, bestetik, Batasunak bereganatu zuen botere-zatia aztertzen direnean, erraz ikusten da legegile federalek oso ideia garbi eta zuzenak zituztela aurrez aipatu dudan gobernu-zentralizazioaz.

Estatu Batuek ez dute errepublika bakarrik osatzen, baita konfederazio bat ere. Hala ere, aginte nazionala alderdi batzuetan han zentralizatuago dago garai berean Europako zenbait monarkia absolututan baino. Bi adibide bakarrik aipatuko ditut.

Frantziak hamahiru auzitegi subirano zeuzkan, gehienetan legea interpretatzeko eskubidea zutenak apelaziorik gabe. Gainera, bazituen *pays d'Etat* delako zenbait probintzia, eta hauek, nazioa ordezkatzeko ardura zuen aginte subiranoak zerga bat biltzeko agindu ondoren, uko egin ziezaioketen beren laguntza emateari.

Batasunak auzitegi bakarra du legea interpretatzeko, eta legislatibo bakarra egiteko ere; nazioaren ordezkariak bozkaturiko zergak hiritar guztiak behartzen ditu. Funtsezko bi puntu hauetan, beraz, Batasuna zentralizatuago dago monarkia frantsesa zegoena baino; hala ere, Batasuna ez da errepublika konfederatuen batzarra baino.

Espainian, zenbait probintziak bere aduana-sistema berezia ezartzeko ahalmena zeukan, eta botere hau, berez, subiranotasun nazionalari dagokio.

Amerikan, Kongresuak bakarrik du estatuen arteko merkatal harremanak arautzeko eskubidea. Konfederazioko gobernua, beraz, zentralizatuagoa da puntu honetan Espainiako erresumakoa baino.

Egia da, Frantzia eta Espainia errege-boterea erresumako konstituzioak galarazten ziona egiteko egoeran zegoenez beti, eta behar izanez gero indarrez, azken finean puntu berera iristen zela. Baina hemen teoriaz ari naiz ni.

Botere Federalak

Garbi zehazturiko ekintza-esparru batean sartu ondoren gobernu federala, nola mugiaraziko zitzaion jakitea zen kontua.

Botere legegileak

Gorputz legegilearen banaketa bi adarretan.- Ezberdintasunak bi ganbarak eratze moduan.- Estatuen independentziaren printzipioa nagusitu Senatuaren eraketan.- Subiranotasun nazionalaren dogma Ordezkarien Ganbararen osaketan.- Herriak gazteak direnean bakarrik izaten dira logikoak konstituzioak: honetatik sortzen diren ondorio bitxiak.

Batasuneko botereen antolamenduan, puntu askotan jarraitu zitzaion estatu bakoitzeko konstituzio partikularrak aurrez ezarritako planari.

Batasuneko gorputz legegile federala Senatuak eta Ordezkarien Ganbarak osatu zuten.

Batzar hauetako bakoitzaren eraketan arau ezberdinak aplikatzea ekarri zuen adostasun-izpirituak.

Adierazi dut gorago, Konstituzio federala ezarri nahi izan zenean, aurkako bi interes aurkitu zirela aurrez aurre. Bi interes hauek bi iritzi sortarazi zituzten.

Batzuek estatu independenteen elkarte bezala egin nahi zuten Batasuna, kongresu bat bezala, non herri ezberdinen ordezkariak bilduko ziren guztien intereseko zenbait puntu eztabaidatzera.

Besteek antzinako kolonietako jende guztia herri bakar eta berean bildu nahi zuten, eta gobernu bat eman, beronen esparrua mugatua izan arren, esparru honetan behintzat nazioaren ordezkari bakar bezala jokatu ahal izateko moduan. Bi teoria hauen ondorio praktikoak oso ezberdinak ziren.

Honela, liga bat antolatu nahi baldin bazen eta ez gobernu nazionala, estatuen gehiengoari zegokion legea egitea, eta ez Batasuneko biztanleen gehiengoari. Zeren eta orduan estatu bakoitzak, handi nahiz txiki izan, botere independentearen izaera gordetzen baitzuen, eta erabateko berdintasunean sartzen baitzen Batasunean.

Aitzitik, Estatu Batuetako biztanleak herri bakar eta bera osatuz hartzen baziren, normala zen Batasuneko hiritarren gehiengoak bakarrik egitea legea.

Subiranotasun federalari zegokionean, ulergarria da estatu txikiek ezin zutela doktrina honen aplikazioa amaitu beren izateari zeharo uko egin gabe; zeren eta botere koerregulatzailerik izateari herri handi baten zati ñimiño izatera igarotzen baitziren. Lehen sistemak botere neurrigabea emango ziekeen; bigarrenak deuseztatu egiten zituen.

Egoera honetan, ia beti gertatzen dena gertatu zen, interesak arrazoinamenduekin kontrajartzen direnean: bortxatu egin ziren logikaren erregelak. Legegileek erdibide bat onartu zuten, teorikoki bateraezinak ziren bi sistemak indarrez bat etorrazteko.

Estatuen independentzi printzipioa garaile atera zen Senatuaren eraketan; subiranotasun nazionalaren dogma, Ordezkarien Ganbararen osaketan.

Estatu bakoitzak bi senadore bidali behar zituen Kongresura, eta ordezkari-kopuru bat, bere biztanleriaren arabera<sup>134</sup>.

Antolamendu honen ondorioz, gaur egun gertatzen da New Yorkeko estatuak berrogei ordezkari dituela Kongresuan eta bi senadore bakarrik; Delawareko estatuak bi senadore eta ordezkari bat bakarrik. Delawareko estatua, beraz, New Yorkeko estatuaren pareko da Senatuan, baina, Ordezkarien Ganbaran, bigarren honek lehenengoak baino berrogei aldiz eragin handiagoa du. Honela, nazioko gutxiengoak, Senatuan nagusituz, gehiengoaren nahiak -beste ganbarak ordezkatzeko dituenak- zeharo geldiaraztea gerta daiteke, eta gobernu konstituzionalen izpirituaren kontra dago hau.

Argi erakusten du honek guztiak zein arraro eta zaila den legeriaren zati guztiak era logiko eta arrazoizkoan beren artean lotzea.

Denborak, luzarora, herri beraren baitan beti sortarazten ditu interes ezberdinak, eta eskubide diferenteak finkatzen. Gero konstituzio orokor bat ezarri behar bada, interes eta eskubide hauetako bakoitza berezko oztopo bihurtzen da, edozein printzipio politikori bere ondorio guztietara iristea eragozten diona. Beraz, gizartearen sorreran bakarrik izan daiteke guztiz logiko legeetan. Herri batek abantaila hau duela ikusten baduzue, ez ezazue azkarregi zuhurtzat hartu, baizik eta pentsatu gaztea dela.

Konstituzio federala eratu zen garaian, angloamerikarren artean bi interes bakarrik zeuden positiboki elkarren aurka jarrita: banakotasun-interesa estatu partikularrentzat, batasun-interesa herri osoarentzat; eta beharrezkoa izan zen konpromezu batera iristea.

Hala ere, aitortu beharra dago Konstituzioaren zati honek ez duela orain arte pentsa zitekeen gaitzik sortu.

Estatu guztiak gazteak dira; hurbildu egin dira elkarren artean; ohitura, ideia eta behar homogeneousak dituzte; tamaina handiago edo txikiagotik sortzen den diferentzia ez da nahikoa oso interes kontrajarriak sortarazteko. Sekula ez da Senatuan estatu txikiak handien asmoen kontra elkartu direnik ikusi. Bestalde, herri oso baten borondatearen legezko adierazpenean hain indar jarkiezina dagoenez, gehiengoak Ordezkarien

Ganbarako organoaren bidez espresatzen denean, Senatuak oso ahul ikusten du bere burua.

Are gehiago, ezin da ahaztu ez zegoela legegile amerikarren esku beraiek legez hornitu nahi zuten herria nazio bakar eta bera bihurtzea. Konstituzio federalaren xedea ez zen estatuen izatea desagitea, baizik eta murriztea bakarrik. Bigarren mailako gorputz hauei benetako boterea uzten zitzaaien momentutik (eta ezin zitzaaien hori kendu), aurrez uko egiten zitzaion gehiengoaren borondatera makurrarazteko bortxa sarri erabiltzeari. Hau finkatuta, haien banakako indarrak gobernu federalaren engranaian sartzea ez zen ezer apartekoa. Zegoen zerbait konstatatzea baino ez zuen egiten, onartutako botere bat, kontuz erabili behar zena, bortxatu gabe.

Beste ezberdintasun bat senatuaren eta ordezkarien ganbararen artean

Senatua, legegile probintzialek izendatua.- Ordezkariak, herriak.- Bi hautapen-maila lehenengoarentzat.- Bakarra bigarrenarentzat.- Agintaldi ezberdinen iraupena.- Eskurantzak.

Senatuaren ezberdintasuna beste ganbarekiko ez datza ordezkapenaren printzipioan bakarrik, baita hautapen-eran, agintaldiaren iraupenean eta eskurantza ezberdinetan ere.

Ordezkarien Ganbara herriak izendatzen du; Senatua, estatu bakoitzeko legegileek.

Bata zuzeneko hautapenaren emaitza da, bestea bi mailako hautapenarena.

Ordezkarien agintaldiak bi urte bakarrik irauten du; senadoreenak, sei.

Ordezkarien Ganbarak funtzio legegileak bakarrik ditu; ez du botere judizialean esku hartzen funtzionari publikoak akusatuz baizik. Senatuak legeen eraketan parte hartzen du; Ordezkarien Ganbarak bidaltzen dizkion delitu politikoak epaitzen ditu; gainera, nazioko kontseilu exekutibo handia da. Lehendakariak eginiko hitzarmenak Senatuak berretsi behar ditu; haren erabakiek, behin-betikoak izateko, gorputz beraren onespena behar dute<sup>135</sup>.

### Botere exekutiboa<sup>136</sup>

Lehendakariaren menpekotasuna.- Hautapenezkoa eta erantzulea.- Bere esparruan aske, Senatuak zaindu egiten du eta ez du gidatzen.- Lehendakariari bere egitekotan hastean finkatzen zaio soldata.- Beto esekitzalea.

Legegile amerikarrek eginkizun zail bat zuten betetzeko: gehiengoaren menpeko izango zen botere exekutiboa sortu nahi zuten, baina bere esparruan bere kabuz askatasunez jarduteko nahikoa indartsu izango zena aldi berean.

Era errepublikarrari eusteak botere exekutiboaren ordezkaria borondate nazionalaren menpeko izatea eskatzen zuen.

Hautetsitako magistratu bat da lehendakaria. Honen ohore, ondasun, askatasun eta bizitzak herriari erantzuten diote etengabe bere botereaz egingo duen erabilera onaz. Botere hau egikaritzean ez da, bestalde, guztiz independentea: Senatuak zaintzen du atzerriko botereekin dituen harremanetan, baita lanpostuen banaketan ere; ez dezake, beraz, inork bera usteldu, ezta berak ere beste inor.

Batasuneko legegileek onartu zuten botere exekutiboak ezingo zuela duintasun eta onuraz bere zeregina bete, estatu partikularretan ematen zitzaion baino egonkortasun eta indar gehiago ematea lortzen ez bazuten.

Lehendakaria lau urterako izendatu zuten, eta berrautatua izan zitekeen. Etorkizun horrekin, bazuen adorerik on publikoaren alde lan egiteko, baita horretarako baliabiderik ere.

Lehendakaria Batasuneko botere exekutiboaren ordezkari bakar egin zuten. Beraren nahiak ez zituzten kontseilu batenaren menpe ere jarri: gauza arriskutsua, gobernuaren ekintza ahultzean gobernarien erantzukizuna gutxitzen baitu. Senatuak badu eskubiderik lehendakariaren egintza batzuk ondorio gabe uzteko; baina ezin du jardutera behartu, ezta berarekin botere exekutiboa banatu ere.

Legislatiboaren ekintza botere exekutiboaren gain zuzenekoa izan daiteke; oraintxe ikusi dugu hori horrela ez izateaz arduratu zirela amerikarrak. Zeharkakoa ere izan daiteke.

Ganbarek, funtzionari publikoari bere soldata kentzean, independentziaren zati bat kentzen diote; legeak egiteko jaun eta jabe izanik, beldur izatekoa da Konstituzioak eman nahi izan zion botere-zati hura poliki-poliki ez ote dion kenduko.

Botere exekutiboaren menpekotasun hau da konstituzio errepublikarren akatsetako bat. Amerikarrek ezin izan dute suntsitu batzar legegileek gobernuaz jabetzeko duten joera, baina joera hain jarkiezina ez izatea lortu dute.

Lehendakariari bere egitekotan hastean finkatzen zaio soldata, magistraturak iraun behar duen denboraldi osorako. Gainera, beto esekitzaileaz horniturik dago lehendakaria, Konstituzioak utzi dion independentzi zatia suntsi lezaketen legeak geldiarazteko aukera ematen diona. Hala ere, berdintasunik gabeko borroka bakarrik eman liteke lehendakariaren eta legislatiboaren artean, zeren eta hau, bere asmoekin jarraituz, jaun eta jabe baita beti hark jartzen dion erresistentzia gainditzeko; baina, gutxienez, egindako bidetik itzultzeraz behartzen du beto esekitzaileak; arazoa berriro hausnartzera behartzen du eta, oraingoan, bi herenen gehiengoz bakarrik erabaki dezake. Betoa, bestalde, herriarengana jotzeko era bat da. Botere exekutiboak -garantia hau gabe, ezkutuan zapaldu ahal izango zatekeena- bere kausa defendatzen du eta bere arrazoiak entzunarazten. Baina legislatiboak bere asmoetan jarraitzen badu, ezin al du jartzen zaion erresistentzia beti gainditu? Honi erantzungo diot herri guztien konstituzioan, edozelakoa izanik beronen izaera, badela puntu bat, non legegilea beharturik dagoen hiritarren zentzu eta bertuteaz fidatzera. Puntu hau hurbilago dago eta ikusterrazagoa da errepubliketan, eta urrutiago eta arreta gehiagoz ezkutatua monarkietan; baina beti egoten da nonbait. Ez dago herrialderik legeak dena aurrikus dezakeenik, eta erakundeek arrazoiaren eta ohituren lekua hartu behar dutenik.

Zertan bereizten den estatu-lehendakariaren egoera Frantziako errege konstituzionalarenaren aldean

Estatu Batuetan botere exekutiboa mugatua eta salbuespenezkoa da, bere jardunaren oinarri duen subiranotasuna bezalaxe.- Botere exekutiboa Frantzian gauza guztietara hedatzen da, subiranotasuna bezala.- Erregea legearen egileetako bat da.- Lehendakaria ez da legea betearazten duena baizik.- Bi botereen iraupenetik sortzen diren beste ezberdintasun batzuk.- Lehendakaria oztopatua botere exekutiboaren esparruan.- Erregea aske da esparru horretan.- Ezberdintasun horiek gora-behera, Frantziak antz handiagoa du errepublikarena Batasunak monarkiarena baino.- Bi herrialdeetan botere exekutiboaren menpe dauden funtzionarien kopuruaren konparazioa.

Botere exekutiboak hain paper handia jokatzen duenez nazioen destinoan, puntu honetan gelditu nahi dut une batez, amerikarren artean zer leku duen hobeto ulertarazteko.

Estatu Batuetako lehendakariaren egoeraz ideia garbi eta zehatza izateko, mesedegarri da Europako monarkia konstituzional bateko erregearenarekin alderatzea.

Konparazio honetan gutxi aztertuko ditut boterearen kanpo-aztarnak; behatzailea engainatu gehiago egiten dute zuzen gidatu baino.

Monarkia bat poliki-poliki errepublika bihurtzen denean, bertan botere exekutiboak tituluak, ohoreak, begirunea eta dirua ere gordetzen ditu agintearen errealitatea galdu eta askoz luzaragoan. Ingelesak, beren erregeetako bati lepoa moztu eta beste bat tronutik bota ondoren, artean belaunikatu egiten ziren printze haien ondorengoei hitz egiteko.

Bestalde, errepublikak bakar baten uztarpean erortzen direnean, botereak bere maneratan sinple, xume eta apal agertzen jarraitzen du, jadanik guztien gainetik ez balego bezala. Enperadoreak beren herrikideen ondasun eta bizitzaz despotikoki

baliatzen zirenean, hala ere Zesar deitzen zitzairen beraietaz hitz egitean, eta adiskideen etxera joan ohi ziren lagunartean afaltzera.

Gainazala utzi eta barrurago sartu beharra dago, beraz.

Estatu Batuetan Batasunaren eta estatuen artean banaturik dago subiranotasuna; gure artean, berriz, bakarra eta trinkoa da; hortik sortzen da nik ikusten dudana lehenengo ezberdintasuna eta handiena Estatu Batuetako lehendakariaren eta Frantziako erregearen artean.

Estatu Batuetan botere exekutiboa mugatua da eta salbuespenezkoa, bere jardunaren oinarri duen subiranotasuna bezalaxe; Frantzia gauza guztietara hedatzen da, subiranotasuna bezala.

Amerikarrek gobernu federala dute; guk, gobernu nazionala.

Hona hemen lehen gutxiagotasun-kausa bat, gauzen izaeratik bertatik sortzen dena; baina ez da bakarra. Bigarrena, garrantziari dagokionez, beste hau da: zehatz hitz eginez, subiranotasuna legeak egiteko eskubidea dela esan daiteke.

Erregea, Frantzia, botere subiranoaren parte da benetan, ez baita legerik izaten hark uko egiten badio berronesteari; gainera, bera da legeak betearazten dituen.

Era berean, lehendakariak ere betearazten ditu legeak, baina legea egiten ez du benetan esku hartzen, bere onespena ukatuta ere ezin baitio izatea eragotzi. Ez da beraz subiranotasunaren parte; agentea besterik ez da.

Frantzia, erregea ez da subiranotasunaren parte bat bakarrik, baizik eta beste parte den legislatiboaren eraketan ere esku hartzen du. Ganbara bateko kideak izendatuz esku hartzen du, eta bestearen agintaldiaren iraupena bere nahierara amaiaraziz. Estatu Batuetako lehendakariak ez du gorputz legegilearen osaketan inola ere esku hartzen eta ezin du desegin ere.

Erregeak, ganbarekin zatibanaturik, legea proposatzeko eskubidea du.

Lehendakariak ez du antzeko ekimenik.

Ganbaren baitan erregea hainbat agentek ordezkatzeko dute, hauek beraren ikuspegiak azaldu, iritziak defendatu eta gobernu-arauak nagusiarazten dituztelarik.

Lehendakariak ez du Kongresuan sartzerik; beraren ministroak ere kanpo gelditzen dira bera bezalaxe, eta zeharkako bideetatik bakarrik sarrarazten ditu gorputz handi honetan bere eragina eta iritziak.

Frantziako erregea, beraz, parez pare ibiltzen da legislatiboarekin, honek ezin baitu hura gabe jardun, ezta hark ere hau gabe.

Lehendakaria legislatiboaren ondoan ezarria dago, beheagoko eta menpeko botere bezala.

Botere exekutiboaren egikaritzan -eta ematen du puntu honetan dutela antzik gehien haren egoerak eta Frantziako erregearenak-, lehendakariak badu, hala ere, garrantzizko zenbait gutxiagotasun-kausa.

Erregearen botereak Frantzia iraupenaren abantaila du lehenik, lehendakariarenaren aldean. Nolanahi ere, iraupena indarraren lehen elementuetarikoa da. Luzaroan iraun behar duenari bakarrik izaten zaizkio maitasuna eta beldurra.

Estatu Batuetako lehendakaria lau urterako hautaturiko magistratua da. Erregea, Frantzia, herentziazko buruzagi da.

Botere exekutiboaren egikaritzan, Estatu Batuetako lehendakaria begirada jeloskorren menpe egoten da etengabe. Tratatuak prestatzen ditu, baina ez ditu gauzatzen; karguetarako proposamenak egiten ditu, baina ez ditu izendatzen<sup>137</sup>.

Frantziako erregea jaun eta jabe da botere exekutiboaren esparruan.

Estatu Batuetako lehendakaria bere egintzen erantzule da. Erregearen pertsona bortxaezina dela dio Frantziako legeak.

Hala ere, bataren eta bestearen gainetik bada botere zuzendari bat, iritzi publikoarena. Botere hau Frantzia ez dago Estatu Batuetan bezain zehaztua; gutxiago aintzatetsia eta legeetan gutxiago formulatua dago, baina egon badago. Amerikan hauteskunde eta epaien bidez dihardu; Frantzia iraultzen bidez. Honela, Frantziak eta Estatu Batuek, konstituzio ezberdinak eduki arren, badute puntu komun hau: azken finean, iritzi publikoa dela bietan botere nagusia. Egia esateko, legeen printzipio sortzailea berbera da bi herrietan, nahiz eta berorren garapenak askatasun gehixeago edo gutxiagokoak izan eta ateratzen diren ondorioak ere sarritan ezberdinak izan. Printzipio hau, bere izaeraz, errepublikarra da funtsean. Horregatik pentsatzen dut Frantziak, bere erregearekin, errepublikaren antz handiagoa duela, Batasunak, bere lehendakariarekin, monarkiaarena baino.

Aurreko honetan guztian, kontuz ibili naiz ezberdintasun-puntu nagusiak bakarrik aipatzeko. Xehetasunetan sartu nahi izan banu, are harrigarriagoa izango zatekeen koadroa. Baina zeresan gehiegi dudanez, labur izan beharra dut.

Azpmarratua dut Estatu Batuetako lehendakariaren agintea subiranotasun murriztuaren esparruan bakarrik egikaritzen dela, eta Frantziako erregearenak, berriz, erabateko subiranotasunaren baitan jarduten duela.

Erakutsi ahal izango nukeen Frantziako erregearen gobernu-boterea bere berezko mugak ere gainditzen, hauek oso zabalak izan arren, eta gizabanakoen interesen administrazioan mila eratara sartzen.

Eragipen-kausa honi funtzionari publikoen kopuru handitik sortzen dena erants niezaioke, ia guztiek botere exekutiboari zor baitiote agintea. Kopuru honek muga ezagun guztiak gainditu ditu gure artean; 138.000koa da<sup>138</sup>. 138.000 izendapen hauetako bakoitza indar-elementutzat hartu behar da. Lehendakariak ez du eskubide absoluturik enplegu publikoetarako izendapenak egiteko, eta enplegu hauek ez dira 12.000 baino askoz gehiago<sup>139</sup>.

Botere exekutiboaren eragina dezaketen kausa akzidentalak

Batasunak gozatzen duen kanpo-segurtasuna.- Igurikapenezko politika.- 6.000 soldaduko armada.- Zenbait itsasuntzi bakarrik.- Lehendakariak prerrogatiba handiak ditu, baina ez berauetaz baliatzeko aukerarik.- Jardutea dagokion esparruan, berriz, ahula da.

Botere exekutiboa Frantzia bezain indartsua ez baldin bada Amerikan, honen zergatia agian inguruabarrei gehiago egotzi behar zaie legeei baino.

Nazio bateko botere exekutiboa atzeritarrekiko harremanetan izaten du batik bat bere trebetasun eta indarra erakusteko aukera.

Batasuneko bizitza mehatxupean balego etengabe, interes handi hauek beste herri ahaltsu batzuenekin nahasirik baleude egunero, botere exekutiboa hazi egingo litzateke iritzi publikoan, bai beragandik esperoiko litzatekeenagatik, bai berak zertuko lukeenagatik.

Egia esateko, Estatu Batuetako lehendakaria armadaren buru da, baina armada hau 6.000 soldadukoa da; flota ere bere agindupean du, baina itsasuntzi batzuk bakarrik ditu bertan; Batasunak atzerriekiko dituen arazoak berak gidatzen ditu, baina Estatu Batuek ez dute auzo-herririk. Munduaren gainerakotik ozeanoak bereizita, oraindik ahulegiak itsasoa menperatu nahi izateko, ez dute etsirik eta haien interesak eta munduko beste nazio batzuenak oso gutxitan egoten dira elkar ukitzen.

Honek garbi ikusarazten du gobernuaren praktika ez dela teoriaren arabera epaitu behar. Estatu Batuetako lehendakariak errege-prerrogatibak ditu ia, baina ez du horietaz baliatzeko aukerarik, eta orain arte erabil ditzakeen eskubideak ere oso mugatuak dira: legeek indartsu izateko aukera ematen diote, zirkunstantziek ahul mantentzen dute.

Aitzitik, zirkunstantziak dira, legeak baino ere gehiago, Frantziako errege-aginpideari indarrik handiena ematen diotenak.

Frantzian botere exekutiboa egundoko oztopoen aurka borrokatzen da etengabe, eta egundoko baliabideak ditu garaitzeko ere. Hazi egiten da zertzen dituen gauzen handitasunagatik eta zuzentzen dituen gertakarien garrantziagatik, bere eraketa aldatu gabe horregatik.

Legeek Batasunekoa bezain ahul eta mugatua sortu izan balute ere Frantziako botere exekutiboa, beronen eragina laster bilakatuko zatekeen askoz handiagoa.

Zergatik ez duen Estatu Batuetako lehendakariak ganbaretan gehiengo behar arazoak gidatzeko

Europar ezarritako axioma da errege konstituzionalak ezin duela gobernatu, ganbara legegileen iritzia berarenarekin bat ez datorrenean.

Estatu Batuetan hainbat lehendakari ikusi da gorputz legegilean gehiengoaren laguntza galtzen, boterea utzi beharrik gabe eta hortik gizartearentzat gaitz handirik ere ondorioztatu gabe.

Hau aipatzen entzun izan dut Amerikako botere exekutiboak duen independentzia eta indarra frogatzeko. Halaz guztiz, aski da gogoeta pixka bat egitea, hor beraren ezintasunaren froga ikusteko.

Europako errege batek gorputz legegilearen laguntza lortu beharra du konstituzioak ezartzen dion zeregina betetzeko, ikaragarri handia baita zeregin hau. Europako errege konstituzional bat ez da legearen betearazle bakarrik; betearaztearen ardura hain osorik dagokionez berari, legea kontrako gertatuko balitzaio, geldiarazi ahal izango lituzke indarrak. Berak ganbaren beharra du legea egiteko, ganbarek beraren beharra dute betearazteko: bata bestea gabe bizi ezin diren botereak dira; eta hauen artean desadostasuna dagoen momentuan gobernuko mekanismoak gelditu egiten dira.

Amerikan lehendakariak ezin du legeen eraketa eragotzi; derrigorturik dago betearaztera ere. Beraren eskuhartze arduratsu eta zintzoa onuragarria da, zalantzarik gabe, baina ez beharrezkoa gobernuaren martxarako. Berak egiten duen funtsezko guztian, zuzenean edo zeharka legislatiboaren menpe jartzen da; honekiko guztiz independente den gauzetan, ia ezin du ezer egin. Bere ahulezia da, beraz, eta ez indarra, botere legegilearekiko kontrakotasunean bizitzen uzten diona.

Europar, beharrezkoa da erregearen eta ganbaren artean akordioa izatea, berauen artean borroka latza sor daitekeelako. Amerikan, akordioa ez da derrigorrezkoa, borroka ezinezkoa da eta.

Lehendakariaren hautapena

Hautapen-sistemaren arriskua areagotu egiten da botere exekutiboaren prerrogatiben hedapenaren arabera.- Har dezakete amerikarrek sistema hau, ez dutelako behar botere exekutibo indartsurik.- Inguruabarrek nola jokatzten duten hautapen-sistema ezartzearen alde.- Lehendakariaren hautapenak zergatik ez dituen gobernu-printzipioak aldarazten.- Lehendakariaren hautapenak bigarren mailako funtzionarioen zorian duen eragina.

Hautapen-sistemak, herri handi bateko botere exekutiboaren buruari aplikatuta, baditu bere arriskuak, esperientziak eta historialariek nahikoa erakutsi dituztenak.

Hortaz, Amerikari buruz bakarrik hitz egin nahi dut nik.

Hautapen-sistemak sortaraz ditzakeen arriskuak handiagoak edo txikiagoak izango dira botere exekutiboak duen tokiaren eta Estatuan duen garrantziaren arabera, baita hautapen-eraren eta hautesle den herriak bizi dituen zirkunstantzien arabera ere.

Estatu-buruari aplikaturik, hautapen-sistemari aurpegiratzen zaiona, eta ez arrazoirik gabe, gutizia partikularrei hain erakarpen handia eskaintzea da, eta botere bila ibiltzeko hain biziki gogoberotzea; izan ere, sarritan, baliabide legalak aski ez dituztelarik, gutziatsuek indarrera jotzen dute eskubideak huts egiten dienean.

Garbi dago, zenbat eta prerrogatiba gehiago izan botere exekutiboak, are handiagoa dela erakarpena; zenbat eta gehiago piztu izangaien gutizia, are laguntza handiagoa aurkitzen



duela bigarren mailako gutziatsu mordo baten artean, hauek boterea zatibantzea espero baitute beren hautagaiak garaitu ondoren.

Hautapen-sistemaren arriskuak, beraz, hazi egiten dira botere exekutiboak Estatuko arazoetan zertzen duen eraginaren zuzeneko proportzioan.

Poloniako iraultzak ez zaizkio oro har hautapen-sistemari bakarrik egotzi behar, baita magistratu hautatua monarkia handi bateko buru izateari ere.

Hautapen-sistemaren ontasun absolutuaz eztabaidatu aurretik, bada beti aurrez erabaki beharreko arazo bat: sistema sartu nahi den herriaren kokapen geografikoak, legeak, azturek, ohiturek eta iritziek botere exekutibo ahul eta menpeko bat bertan ezartzen uzten ote duten jakin behar da; zeren eta Estatuaren ordezkaria botere handiz hornitua eta aldi berean hautatua izan dadin desiratzea kontraesankor diren bi gurari adieraztea da, nire ustez. Nire aldetik, bide bakarra ezagutzen dut herentziazko erregetza hautapenezko aginte-egoerara pasarazteko: aurrez beraren ekintza-esparrua murriztu beharra dago, poliki-poliki prerrogatibak gutxitu eta herria beraren laguntzarik gabe bizitzera pixkanaka ohitu. Baina Europako errepublikazaleak ia ez dira horretaz arduratzen. Horietako askok tirania gorrotatzen badute, beronen gogorkerien arriskupean daudelako da, eta, beraz, botere exekutiboaren hedapenak ez ditu kaltetzen; jatorriari bakarrik erasotzen diote, bi gauzak elkartzen dituen lokarri estuaz ohartu gabe. Oraindik ez da inor aurkitu bere ohorea eta bizia arriskatzeko prest dagoenik Estatu Batuetako lehendakari izatera iristeko, lehendakariak aldi baterako boterea baitu, mugatua eta menpekoa. Zoriak egundoko saria jarri behar izaten du jokoan, etsigabeko jokalaria aurkez daitezten lehian. Gaur arte ez da izan hautagairik bere alde atxikimendu sutsu eta herri-grina arriskutsurik sortarazi duenik. Honen arrazoia sinplea da: gobernu-buru bihurtu ondoren, ezin die lagunei botere asko banatu, ezta aberastasun edo aintza handirik eman ere, eta Estatuan duen eragina ahulegia da, berau agintera iristea alderdiek beren arrakasta edo hondamenditzat har dezaten.

Herentziazko monarkiek abantaila handi bat dute: familia baten interes partikularra etengabe eta estu-estu Estatuaren interesari lotua dagoenez, hau ez da inoiz une bakar batez ere bertan behera utzia gelditzen. Ez dakit monarkia hauetan arazoak beste edonon baino hobeto zuzentzen dituzten ala ez; baina gutxienez bada beti norbait, ongi ala gaizki, bere gaitasunaren arabera, arazo horietaz arduratzen dena.

Hautapenezko estatuetan, aitzitik, hauteskundeak hurbiltzean eta askoz lehenagotik ere, gobernu-mekanismoak beren indarrez bakarrik ibiltzen dira, nolabait ere. Jakina, konbina daitezke legeak, hautapena kolpe bakarrean eta bizkor eginez, botere exekutiboaren egoitza sekula hutsik ez gelditzeko eran, nolabait esateko; baina, zernahi eginda ere, izaten da hutsunerik izpirituetan, legegilea ahalegindu arren.

Hauteskundeak hurbiltzean, botere exekutiboko buruak hurbiltzen ari den borrokan bakarrik pentsatzen du; ez du beste etorkizunik; ezin dio ezeri ekin, eta gogo txarrez bakarrik jarraitzen du agian beste batek burutuko duena egiten. "Neure erretiroko momentutik hain hurbil nagoenez", idazten zuen Jefferson lehendakariak 1809ko urtarrilaren 21ean (hauteskundeak baino sei aste lehenago), "neure iritzia adieraziz bakarrik esku hartzen dut jadanik arazoetan. Bidezkoa iruditzen zait neure ondorengoaren esku uztea zenbait neurriren ekimena, berak betearazi beharko baititu, baita erantzukizuna hartu ere".

Nazioa ere, bere aldetik, puntu bakar batera begira dago; prestatzen ari den erditze-lana zaintzeaz bakarrik arduratzen da.

Zenbat eta zabalagoa izan botere exekutiboaren zeregina arazoan zuzendaritzan, are handiagoa eta beharrezkoagoa izaten da haren ohiko ekintza, eta are arriskutsuagoa izaten da horrelako egoera. Botere exekutiboak goberna dezan -eta are gehiago,

administra dezan- ohitu den herri batean, hauteskondeek asaldura sakona eragin behar ezinbestean.

Estatu Batuetan, inolako zigorrik gabe geldotu daiteke botere exekutiboaren ekintza, ahula eta mugatua baita berau.

Gobernu-burua aukeratu ondoren, egonkortasunik eza sortzen da ia beti Estatuaren barne- eta kanpo-politikan. Hau da sistema honen akats nagusienetariko bat.

Baina akats hori gehiago edo gutxiago nabaritzen da magistratu hautetsiari emandako botere-zatiaren arabera. Erroman gobernu-printzipioak ez ziren aldatzen, nahiz eta kontsulak urtero aldatu, Senatua baitzen botere gidaria, eta Senatua herentziazko gorputza zen. Europako monarkiarik gehienetan, erregea hautatu egingo balitz, erresuma itxuraz aldatuko litzateke hautaketa berri bakoitzean.

Amerikan lehendakariak aski eragin handia izaten du Estatuko arazoetan, baina ez ditu zuzentzen; botere nagusia ordezkartza nazional osoan datza. Hortaz, herria orokorki aldatu behar da, eta ez lehendakaria bakarrik, politikako arau nagusiak alda daitezten. Beraz, Amerikan hautapen-sistemak, botere exekutiboko buruari aplikatuta, ez dio kalte nabariegarik eragiten gobernuaren finkotasunari.

Gainerantzean, hautapen-sistemak hain berea duenez finkotasunik eza, biziki nabaritzen da lehendakariaren ekintza-eremuan ere, nahiz eta hau oso mugatua izan.

Arrazoiz pentsatu dute amerikarrek botere exekutiboko buruak, bere eginkizuna bete eta erantzukizunaren zama oso-osorik eramateko, ahal den neurrian aske izan behar duela bere agenteak aukeratzeko eta bere nahierara kentzeko; gorputz legegileak zaindu egiten du lehendakaria, gidatu baino gehiago. Ondorioz, hautaketa berri bakoitzaren ondoren, enplegatu federal guztien zoria esekita bezala gelditzen da.

Europako monarkia konstituzionaletan kexatu egiten dira administrazioako agente apalenen destinoa ministroen zoriaren menpe egoten delako sarri. Askoz ere txarragoa izaten da gobernu-burua hautatu egiten den estatuetan. Sinplea da arrazoa. Monarkia konstituzionaletan ministroak bizkor ordeztzen dira; baina botere exekutiboaren ordezkari nagusia ez da sekula aldatzen, eta honek halako muga batzuen barruan eusten dio berrikuntza-izpirituari. Honelako monarkietan, beraz, sistema administratiboak xehetasunetan gehiago aldatzen dira printzipioetan baino; ezingo lirateke bat-batean batzuk besteez ordeztu nolabaiteko iraultzarik sortu gabe. Amerikan iraultza hori lau urtero egiten da legearen izenean.

Horrelako legeriaren berezko ondorio diren zoritxar indibidualei dagokienez, aitortu beharra dago funtzionarien finkotasunik ezak ez dituela Amerikan beste alde batzuetan espero litezkeen gaitzak sortzen. Estatu Batuetan, bizimodu independentea sortzea hain erraza denez, funtzionari bati bere postua kentzeak bizitzako erosotasuna kentzea esan nahi du batzuetan, baina sekula ez bizibiderik gabe uztea.

Kapitulu honen hasieran esan dut botere exekutiboko buruari aplikaturiko hautapen-sistemaren arriskuak handiagoak edo txikiagoak zirela, hautesle den herriak bizi dituen zirkunstantzien arabera.

Alferrikakoa da botere exekutiboaren papera murrizten saiatzea; legeek ematen dioten garrantzia gora-behera, botere honek eragin handia du gauza batean, kanpo-politikan, alegia. Nekez eman dakioke hasiera eta jarraipen emankorra negoziazio bati, pertsona bakar batek izan ezik.

Zenbat eta kolokago eta egoera arriskutsuagoan egon herri bat, eta zenbat eta gehiago sentitu jarraipen eta finkotasun-beharra kanpo-arazoen zuzendaritzan, orduan eta arriskutsuago bihurtzen da hautapen-sistemaren aplikazioa estatu-buruari.

Amerikarren politika mundu osoaren aurrean sinplea da; esan liteke inork ez duela haien beharrik, ezta beraiek ere inoren beharrik. Sekula ez dago mehatxupean haien independentzia.

Beraz, haien artean botere exekutiboaren papera zirkunstantziek gehiago mugatzen dute legeek baino. Lehendakariak sarri alda ditzake bere ikuspegiak Estatuak nozitu edo galbidean jarri gabe.

Botere exekutiboak dituen prerrogatibak edozelakoak izanik ere, nazioaren krisialditzat hartu behar dira beti hauteskunde aurre-aurreko garaia eta burutzen diren bitartekoa.

Zenbat eta zailagoa izan herrialde baten barne-egoera, eta zenbat eta handiagoak bere kanpo-arriskuak, are arriskutsuagoa izaten da berarentzat krisiune hori. Europako herrien artean ere, gutxi dira konkistaren edo anarkiaren beldur izan beharko ez luketenak buruzagi berri bat aukeratzeko kasu guztietan.

Amerikan bere kabuz eta laguntzarik gabe irauteko moduan dago eratua gizartea; han kanpo-arriskuak inoiz ez dira larriak izaten. Lehendakariaren hautapenak asaldura eragiten du, baina ez hondamendia.

Hautapen-era

Hautapen-era aukeratzekoan legegile amerikarrek erakutsi duten trebetasuna.- Gorputz hautesle berezi baten eraketa.- Hautesle berezien boto banandua.- Zein kasutan dagokion Ordezkarien Ganbarari lehendakariaren hautapena.- Konstituzioa indarrean dagoenetik egin diren hamabi hauteskundeetan gertatu dena.

Printzipioari berez dagozkion arriskuez gain, badira beste asko hautatzeko moduetatik sortzen direnak eta legegilearen arretak ekidin ditzakeenak.

Herri batek, bere buruzagia aukeratzeko plaza publikoan armaturik biltzen denean, hautapen-sistemak berez dituen arriskuez gain, horrelako hautapen-era batek sortzen duen gerra zibilaren arriskua ere jasan behar izaten du.

Poloniako legeek erregearen hautapena pertsona bakar baten *beto*-aren menpe uzten zutenean, pertsona hori hiltzera gonbidatzen ari ziren, edo aurrez anarkia zertzen.

Estatu Batuetako erakundeak aztertu ahala eta bertako egoera politiko eta sozialari arreta handiagoz begiratu ahala, adostasun miresgarria aurkitzen da patuaren eta gizakiaren ahaleginen artean. Eskualde berria zen Amerika; hala ere, han bizi zen herria ordurako aspaldidanik hasia zen askatasuna erabiltzen: hona hemen barne-ordenaren bi oinarri sendo. Gainera, Amerika ez zen konkistaren beldur. Legegile amerikarrek, inguruabar mesedegarri hauez baliatuz, ez zuten eragozpenik izan botere exekutibo ahul eta menpeko bat ezartzeko; horrelakoa sortu ondoren, arriskurik gabe bihurtu ahal izan zuten hautapenezko.

Hautapen-sistema ezberdinen artean, arriskurik gutxienekoa aukeratzea baino ez zeukaten; honetarako egin zituzten arauak miresgarriro osatzen dituzte herrialdearen eraketa fisiko eta politikoak jadanik eskaintzen zituen garantiak.

Konpondu beharreko arazoa hautapen-modua aurkitzea zen, herriaren benetako nahiak islatzeaz gain, beronen grinak gutxi suspertu eta zalantza-egoeran ahalik eta gutxien edukiko zuena. Lehenik, legea gehiengo *soilak* egingo zuela onartu zen. Baina oso zaila zen gehiengo hori lortzea, gauza guztien gaintik ekidin nahi ziren luzamenduen beldur izan gabe.

Herri handi batean nekeza da, izan ere, pertsona bat sufragioen gehiengoa lehen saioan biltzen ikustea. Zailtasuna areagotu egiten da estatu konfederatuen errepublika batean, non eragin lokalak askoz garatuago eta indartsuagoak baitira.

Bigarren oztopo hau gaingritzeko, bide bat aurkitu zen: nazioaren hauteskunde-ahalmenak bera ordezkatzeko zuen gorputz baten esku uztea.

Hautapen-era honek lorgarriago bihurtzen zuen gehiengoa; zeren eta, zenbat eta gutxiago izan hautesleak, orduan eta errazagoa baitzaie elkar ulertzea. Garantia gehiago ere ematen zuen ongi aukeratzeko.

Baina hautatzeko eskubidea gorputz legegileari berari, nazioaren ohiko ordezkariari, eman behar ote zitzaion ala, aitzitik, hautesle-kolegio bat eratu behar ote zen, lehendakariaren izendapena egiteko xede bakarrarekin?

Amerikarrek nahiago izan zuten azken irtenbide hau. Pentsatu zuten ohiko legeak egitera bidaltzen ziren pertsonak ez zutela oso-osorik ordezkatzeko herriaren nahia lehen magistratuaren hautapenari zegokionean. Bestalde, urtebete baino gehiagorako hautatuak zirenez, bazitekeen jadanik aldatua zen borondatea ordezkatzeko. Botere exekutiboko burua hautatzeaz legislatiboa arduratzen bazen, honen kideak, hauteskundeak baino askoz lehenagotik, ustelkeriazko maniobra eta azpijokoen helburu bihurtuko zirela pentsatu zuten; hautesle bereziak, ordeak, epaimahaien antzera, jendartean ezezagunak izango ziren jardun beharreko egunera arte, eta unetxo batez bakarrik agertuko ziren beren epaia emateko.

Beraz, estatu bakoitzak hautesle-kopuru bat izendatuko zuela ezarri zen<sup>140</sup>, gero lehendakaria aukeratzeko zutenak. Eta oharturik zeudenez hautapenezko herrialdeetan gobernu-buruak aukeratzeko ardura zuten batzarrak grina eta azpijokoen biltoki bihurtzen zirela halabeharrez; eta kontuan izanik batzuetan beraiei ez zegozkien ahalmenez jabetzen zirela, eta sarritan haien eragiketak eta ondoriozko zalantza-giroa Estatuaren arriskuan jartzeko beste luzatzen zirela, hautesle guztiek botoa egun finkatu batean, baina bildurik egon gabe, emango zutela arautu zen<sup>141</sup>.

Bi mailako hautapen-erak honek gehiengoa lorgarri bihurtzen zuen, baina ez zuen ziurtatzen, gerta baitzitekeen hautesleak ere beren artean bat ez etortzea beraien komisio-emaileak bezalaxe.

Kasu hau gertatuz gero, hiru neurri hauetakoren bat hartu beharra zegoen derrigorrez: hautesle berriak izendatzea, edo jadanik izendaturik zeudenak berriro kontsultatzea edota, azkenik, hautapena aginte berriren baten esku uztea.

Lehen bi metodoek, oso seguruak ez izateaz gain, geldotasuna inplikatzeko zuten eta arriskutsua zen asaldura-giroa betikotzen.

Beraz, hirugarrena aukeratu zen, eta hautesleen botoak kartazal itxian Senatuko lehendakariari helaraziko zitzaizkiola erabaki zen; eta honek, finkaturiko egunean eta bi ganbaren aurrean, zenbaketa egingo zuela. Hautagaietarikoa inork ez bazuen gehiengoa biltzen, Ordezkarien Ganbarak berak ekingo zion berehala hautapenari; baina honen eskubidea mugatzeaz arduratu ziren. Ordezkariak ezingo zuten aukeratu sufragiorik gehien lorturiko hiru hautagaietarikoa bat baizik<sup>142</sup>.

Ikus daitekeenez, kasu arraro eta aurrikusgaitzen batean bakarrik dagokie hautapena nazioko ordezkari arruntei, eta honelakoetan ere hautesle berezien gutxiengo ahaltsu batek jadanik izendaturiko hiritar bat bakarrik aukera dezakete; zorioneko konbinazio honek herriaren borondateari zor zaion begirunea eta Estatuaren interesak eskatzen dituen exekuzio-arintasuna eta ordena-garantiak adosten ditu. Gainerantz, adostasun gabeko kasuetan arazoa Ordezkarien Ganbarari erabakiaraziz, ez zen, hala ere, eragozpen guztien erabateko konponketa lortzen; zeren eta gerta baitzitekeen gehiengoa ere zalantzan egotea Ordezkarien Ganbaran, eta honelakoetan Konstituzioak ez zuen erremediorik eskaintzen. Baina derrigorrezko hautagaiak ezartzean, hauen kopurua hirura murriztean eta arazoa gizon ilustratu batzuen aukerara uztean, berdinduak zituen nolabait ere bere esku egon zitezkeen oztopo guztiak<sup>143</sup>; gainerakoak hautapen-sistemari berari zegozkion.

Konstituzio federala sortuz geroztiko berrogeita lau urteotan Estatu Batuek dagoeneko hamabi aldiz aukeratu dute beren lehendakaria.

Hamar alditan hautapena une batean egin zen, lurraldeko hainbat puntutan kokaturiko hautesle berezien aldi bereko boto bidez.

Ordezkarien Ganbara bitan bakarrik baliatu da desadostasun-kasuan erabil dezakeen salbuespenezko eskubideaz. Lehen aldiz, 1801ean, Mr. Jefferson-en hautapenekoan; eta bigarrena, 1825ean, Mr. Quincy Adams izendatu zutenean.

Hautapeneko krisia

Lehendakaria hautatzeko unea nazioaren krisiunetzat har daiteke.- Zergatik.- Herriaren grinak.- Lehendakariaren kezka.- Hautapeneko asalduraren ondorengo barealdia.

Adierazi dut zein zirkunstantzia egokitan aurkitzen ziren Estatu Batuak hautapen-sistema hartzeko, eta jakinarazi ditut arriskuak gutxitzeko legegileek hartutako neurriak. Amerikarrak ohiturik daude hautapen-mota guztiak egiten. Esperientziak erakutsi die zer-nolako asaldura-mailaraino irits daitezkeen eta non gelditu behar duten. Beren lurraldearen hedadura handi eta biztanleen barreaketarik, beste inon baino probabilitate eta arrisku gutxiago dago han alderdi ezberdinek elkar jotzeko. Hauteskundeak direla-eta nazionak bizi izan dituen zirkunstantzia politikoez ez dute gaur arte benetako arriskurik batere sortu.

Hala ere, Estatu Batuetako lehendakaria hautatzeko momentua oraindik ere nazioaren krisi-garaitzat har daiteke.

Arazoen bilakaeran lehendakariak duen eragina ahula eta zeharkakoa da, zalantzarik gabe, baina nazio osora hedatzen da; lehendakariaren hautapena neurri batean bakarrik axola zaio hiritar bakoitzari, baina hiritar guztiei axola zaie. Nolanahi ere, interes bat, oso txikia izan arren, garrantzi handiko bihurtzen da, interes orokor bihurtzen den momentuan.

Europako errege baten aldean, zalantzarik gabe lehendakariak baliabide gutxi du bere jarraitzaileentzat sortzeko; hala ere, bere esku dituen postuak aski ugariak dira zenbait milaka hautesle zuzenean edo zeharka beraren kausaren alde jar daitezten.

Gainera, alderdiek, Estatu Batuetan beste alde batzuetan bezalaxe, pertsona baten inguruan bildu beharra sentitzen dute, honela jendeak errazago aditu ahal izateko. Beraz, oro har, ikur batez bezala baliatzen dira lehendakariaren izenez; honengan pertsonifikatzen dituzte beren teoriak. Honela, alderdiek interes handia dute hautapena beren aldeko izan dadin, ez hainbeste lehendakari hautatuaren laguntzaz beraien doktrinek arrakasta izan dezaten, baizik eta doktrina hauek, lehendakariaren hautapenez, gehiengoak konkistatu dutela erakusteko.

Finkaturiko momentua iritsi baino askoz lehenago, lehendakariaren hautapena bihurtzen da jendeari axola zaion arazo handien eta, nolabait esateko, bakarra. Are sutuago bihurtzen dira orduan alderdiak; herrialde zoriotsu eta lasai batean irudimenak sor ditzakeen grina artifizial guztiak, une horretan irteten dira asaldaturik argitara.

Lehendakaria, berriz, bere burua defendatzeaz arduratzen da. Ez du jadanik Estatuaren intereserako gobernatzen, bere berrautapenerako baizik; gehiengoaren aurrean makurtzen da eta, sarritan, honen grinei kontra egin ordez, egin beharko lukeen bezala, hor ibiltzen da beronen apeta edo nahikerien aurretik.

Hautapena hurbildu ahala, azpijokoak gero eta aktiboago bihurtzen dira, asaldura gero eta biziago eta hedatuago. Hiritarrek hainbat sailetan banatzen dira, bakoitzak bere hautagaiaren izena hartzen duelarik. Nazio osoa jotzen du halako sukarraldi batek, hautapena izaten da aldizkarietako eguneroko irakurgaia, elkarriketa partikularretako mintzagaia, kudeaketa guztien xedea, gogoeta guztien helburua, momentuko ardura bakarra.

Egia da, halaber, zoriak erabaki ondoren, sugar hori itzali egiten dela, dena lasaitu eta une batez gainezka egin duen ibaia bere bidera itzultzen dela bare-bare. Baina ez al da harrigarria ekaitza sortu ahal izana?

Lehendakariaren berrautapena

Botere exekutiboko burua berrautagarri denean, Estatua bera izaten da azpikerian eta ustelkerian jarduten duena.- Berrautatua izan nahiak menperatzen ditu Estatu Batuetako lehendakariaren gogoeta guztiak.- Berrautapenaren eragozpena, Amerikari bereziki dagokiona.- Demokrazien berezko akatsa botere guztiak poliki-poliki gehiengoaren desirarik txikienetara makurtzea da.- Lehendakariaren berrautapenak akats hau areagotu egiten du.

Estatu Batuetako legegileek, zuzen ala oker jokatu ote dute lehendakaria berrautatzeko aukera onartzean?

Botere exekutiboko burua berrauta dezaten galarazteak arrazoiaren kontrakoa dirudi, lehen begiratuan. Jakina da pertsona bakar baten gaitasunek edo izaerak zer-nolako eragina duten herri oso baten zorian, inguruabar zailetan eta krisi-garaian, batez ere. Hiritarrei beren lehen magistratua berrautatzea galaraziko balie legeak, Estatua aurrerazteko edo salbatzeko beraiek duten baliabiderik onena kenduko lieke. Bestalde, ondorio bitxi batera iritsiko ginateke horrela, hots, pertsona bat, ongi gobernatzeko gai dela erakutsi duen momentuan bertan izango litzatekeela gobernutik baztertua.

Arrazoi hauek pisuzkoak dira, noski; baina ezin ote zaizkie are indartsuago diren beste batzuk kontrajarri?

Azpikeria eta ustelkeria hautapenezko gobernuen berezko akatsak dira. Baina estatu-burua berrautagarria denean, akats hauek mugarik gabe zabaltzen dira eta herrialdearen izatea bera jartzen dute koloka. Hautagai arrunt batek, azpikeriaz igo nahi duenean, esparru mugatuan zertu ditzake bere azpijokoak. Aitzitik, lehian sartzen dena estatu-burua denean, gobernuaren indarra hartzen du berak erabiltzeko.

Lehen kasuan, pertsona bat da bere baliabide ahulekin; bigarrenean, Estatua bera da, baliabide ikaragarriekin, azpikerian eta ustelkerian diharduena.

Boterera iristeko azpijoko gaitzesgarriak erabiltzen dituen hiritar arruntak zeharka bakarrik kaltetu dezake oparotasun publikoa; baina botere exekutiboaren ordezkaria sartzen bada lehian, gobernuaz arduratzea bigarren mailako kezka bihurtzen zaio; kezka nagusia bere hautapena du. Negoziazioak, legeak bezalaxe, hauteskunde-konbinazioak baino ez dira berarentzat; postuak, ez nazioari baizik eta buruzagiari egindako zerbitzuen sari bihurtzen dira. Gobernuaren ekintza ez izan arren beti herrialdearen interesaren kontrakoa, gutxienez ez da honen zerbitzura ere jartzen, nahiz eta beronek bakarrik erabiltzeko izan egina.

Ezinezkoa da Estatu Batuetan gauzen ohiko bilakaera aztertzea, ohartu gabe lehendakariaren gogoetetan berraukeratua izateko nahia nagusi dela; bere administrazioaren politika osoa horretarantz bideratzen dela; eginbide txikiak helburu horretara makurtzen direla; krisiunea hurbildu ahala, batez ere, interes orokorraren ordezkari bere interesa gailentzen zaiola barnean.

Berrautapenaren printzipioak, beraz, hautapenezko gobernuen eragin ustelgarria hedatuago eta arriskutsuago bihurtzen du. Herriaren moral politikoa galbidean jartzen du eta abertzaletasunaren ordezkari bizkorkeria ezartzen.

Amerikan are hurbilagoetik erasotzen ditu izate nazionalaren sorburuak.

Gobernu bakoitzak darama bere baitan berezko akats bat, bere bizi-printzipioari atxikia dirudiena; horretaz ongi ohartzean datza legegilearen jeinua. Estatu batek lege txar asko gaindi ditzake, eta sarritan exageratu egiten da hauek eragindako gaitza. Baina heriotza-hazi horren garapena eragiten duen lege oro nahitaez hilgarri bihurtuko da luzarora, beraren ondorio txarrak berehala ez nabaritu arren.

Hondamendiaren hasiera, monarkia absolutuetan, errege-boterearen hedapen mugagabe eta zentzubakoa izaten da. Beraz, konstituzioak botere horri ezarritako kontrapisuak kentzeko moduko neurri bat zeharo txarra izango litzateke, nahiz eta ondorioak ez direla sumatzen iruditu luzaroan.

Era berean, demokrazia nagusi den herrialdeetan, eta herriak etengabe dena beregana erakartzen duen horietan, ekintza hori gero eta bizkorrago eta jarkiezinezkoago bihurtzen duten legeek gobernuaren izateari erasotzen diote zuzenean.

Egia honetaz garbi ohartu eta praktikan jartzeko ausardia izana da legegile amerikarren meriturik handiena.

Herriaz gain, beronekiko guztiz independente izan gabe, beren esparruan askatasun-maila dezentea edukiko zuten beste botere batzuk beharrezkotzat jo zituzten; honela, gehiengoaren zuzendaritza iraunkorrari obeditzera beharturik, aldi berean honen nahikerien kontra borrokatu eta eskakizun arriskutsuei uko egin ahal izan ziezaieten.

Honetarako, nazioko botere exekutibo guztia esku bakar batean bildu zuten; lehendakariari prerrogatiba zabalak eman zizkioten eta betoaz hornitu zuten, legislatiboaren usurpazioei aurre egin ahal izateko.

Baina berrautapen-printzipioa sartzean, neurri batean suntsitu egin zuten beren egintza. Lehendakariari botere handi bat eman zioten, eta horretaz baliatzeko borondatea kendu.

Berrautagarria ez balitz ere, lehendakaria ez litzateke horregatik herriarekiko independentea izango, ez bailioke haren aurrean erantzule izateari utziko; baina herriaren laguntza ez litzaioke gauza guztietan beronen nahietara makurtu behar izateko bezain beharrezkoa gertatuko.

Berrautagarria izatean (eta hau, batez ere gaur egun, moral politikoa lasaitu eta pertsonaia handiak desagertzean, da egia), Estatu Batuetako lehendakaria tresna erabilgarri baino ez da gehiengoaren eskuetan. Honek maite duena maitatzen du berak, eta honek gorrotatzen duena gorrotatzen; honen nahia betetzen lehiatzen da, kexuei aurrea hartzen die, desirarik txikienetara makurtzen; gehiengoa gida zezan nahi zuten legegileek, baina atzetik jarraitzen dio.

Honela, pertsona baten dohainez Estatu ez gabetzeko, dohain hauek ia alferrikako bihurtu dituzte; eta aparteko zirkunstantzietan baliabide bat eduki ahal izateko, eguneroko arriskuen menpe jarri dute herrialdea.

#### Auzitegi federalak<sup>144</sup>

Botere judizialaren garrantzi politikoa Estatu Batuetan.- Gai hau aztertzeke zailtasuna.- Justiziaren erabilgarritasuna konfederazioetan.- Zein auzitegiz balia zitekeen Batasuna?- Justizia federaleko auzitegiak ezarri beharra.- Justizia federalaren antolamendua.- Auzitegi Gorena.- Hau zertan bereizten den ezagutzen ditugun justizi auzitegi guztietatik.

Batasuneko botere legegilea eta botere exekutiboa aztertu ditut. Botere judiziala aztertzea falta zait oraindik.

Hemen neure beldurak azaldu behar dizkiet irakurleei.

Erakunde judizialek eragin handia dute angloamerikarren destinoan; zehatz esanda erakunde politiko diren horien artean oso toki garrantzitsua dute. Ikuspegi honetatik, bereziki merezi dute gure begirada erakartzea.

Baina nola ulertarazi auzitegi amerikarren ekintza politikoa, haien eraketa eta formei buruzko zenbait xehetasun teknikotan sartu gabe? Eta nola sartu xehetasunetan, horrelako gai batek berez duen lehortasunagatik, irakurlearen jakingura zapuztu gabe? Nola izan argi, labur izateari utzi gabe?

Ez naiz harrotzen arrisku ezberdin horiei ihes egin izanaz. Hala ere, luzeegi ari naizela irudituko zaio jende arruntari; legelariak laburregi ari naizela pentsatuko dute. Baina eragozpen hori nire gaiari dagokio oro har, eta une honetan aztertzen ari naizen gaiari bereziki.

Eragozpenik handiena ez zen gobernu federala nola eratuko zen jakitea, haren legeak nola obediartzeko ziren jakitea baizik.

Oro har, gobernuek bi bide dituzte gobernatuen kontrakotasuna gainditzeko: beren baitan aurkitzen duten indar materiala, eta auzitegien epaiek ematen dieten indar morala.

Legeak obediartzeko gerra bakarrik lukeen gobernua bere hondamenditik oso hurbil legoke. Bi gauza hauetako bat gertatuko litzaioke seguraski: ahul eta neurritsu izanez gero, ezinbestean bakarrik erabiliko luke indarra eta desobedientzia partzial asko utziko lituzke oharkabean pasatzen; horrela poliki-poliki anarkian jausiko litzateke Estatua.

Ausart eta ahaltsu izanez gero, bortxa erabiltzera joko luke etengabe, eta laster despotismo militar hutsean gainbehera abiatuko litzateke. Hura jardutea nahiz geldi egotea era berean lirateke gobernatuentzat kaltegarri.

Justiziaren xede nagusia bortxakeriaren ideia ordez zuzenbidearena ezartzea da, gobernuaren eta indar materialaren erabileraren artean bitartekariak jartzea.

Harrigarria da auzitegien eskuhartzeari jendeak oro har ematen dion iritzi-ahalmena. Ahalmen hau hain handia denez, nahiz eta jadanik substantziarik izan ez, hala ere forma judizialari atxikitzen zaio; gorputza ematen dio itzalari.

Auzitegiek duten indar moralak askoz arraroago bihurtzen du indar materialaren erabilera, ordeztu egiten duelarik kasurik gehienetan; eta azkenean beharrezko bada indarrak jardutea, bestearekin elkartu eta bikoiztu egiten dio ahalmena.

Gobernu federal batek beste edozeinek baino gehiago desiratu behar du justiziaren laguntza lortzea, ahulagoa baita bere izaeraz, eta errazago sor baitaitezke kontrakotasunak beraren aurka<sup>145</sup>. Beti eta lehen mailan indarra erabili behar balu, ezingo luke bere zeregina bete.

Bere legeak obediartzeko hiritarrei, edo lege horien aurkako erasoei aurre egin ahal izateko, auzitegien behar berezia zuen Batasunak.

Baina zer-nolako auzitegiez baliatu behar zuen? Estatu bakoitzak bazuen jadanik botere judizial bat bere baitan antolatuta. Auzitegi hauetara jo behar ote zuen? Justizia federal bat sortu behar ote zen? Erraza da frogatzea Batasunak ezin zuela bere erabilerara egokitu estatuetan ezarritako botere judiziala.

Bakoitzaren segurtasunerako eta guztien askatasunerako garrantzizkoa da, zalantzarik gabe, botere judiziala beste guztietatik bananduta egotea; baina nazioaren existentziarako hori bezain beharrezkoa da Estatu bakoitzaren botere ezberdinek jatorri berbera izatea, printzipio berberei jarraitzea eta esparru berean jardutea, labur esateko, *koerlatiboak* eta *homogeneoak* izatea. Pentsatzen dut ez zaiola inori sekula bururatu Frantzia eginiko delituak atzerriko auzitegiei epaiaraztea, magistratuen inpartzialtasunaz ziurrago egoteko.

Amerikarrek herri bakarra osatzen dute, beren gobernu federalari dagokionez. Baina, herri horren erdian, zenbait gorputz politikori irauten utzi diote, gobernu nazionalaren menpeko zenbait puntutan, eta independente beste guztietan, beren jatorri berezi, doktrina propio eta jokabide bereziak dituztelarik. Batasuneko legeen exekuzioa gorputz politiko horiek ezarritako auzitegien esku uztea, nazioa atzerriko epaileen esku uztea zen.

Are gehiago, estatu bakoitza Batasunarekiko ez da atzeritar bakarrik, baita eguneroko etsai ere, Batasunaren subiranotasuna estatuenaren mesederako bakarrik gal daiteke eta. Batasuneko legeen aplikazioa estatu partikularretako auzitegien esku uztean, nazioa, ez epaile atzeritarrei bakarrik, baita epaile partzialei ere, entregatzen zitzaion.

Bestalde, estatuetako auzitegiak helburu nazional baten zerbitzurako ezgaitzen zituenak ez zen haien izaera bakarrik, baizik eta beraien kopurua, batez ere.

Konstituzio federala eratu zen momentuan, Estatu Batuetan baziren jadanik hamahiru justizi auzitegi apelaziorik gabe epaitzen zutenak. Gaur egun hogeita lau dira. Nola onartu estatu batek iraun dezakeenik bere lege nagusienak aldi berean hogeita lau era



ezberdinetan interpreta eta aplika daitezkeenean! Horrelako sistema arrazoiaren nahiz esperientziak erakusten duenaren aurkakoa da.

Amerikako legegileek, beraz, botere judizial federala eratzea hitzartu zuten, Batasuneko legeak aplikatzeko eta interes orokorreko zenbait arazo -aurrez arretaz zehazturikoak- erabakitzeko.

Batasuneko botere judizial guztia auzitegi bakar batean bildu zen, Estatu Batuetako Auzitegi Gorena delakoan. Baina arazoen izapideak errazteko, beheagoko auzitegiak erantsi zitzaizkion, garrantzi gutxiko kausak subiranotasunez epaitzeko arduraz, baita auzi larriagoak lehen instantzian epaitzeko ere. Auzitegi Gorenako kideak ez zituen herriak edo legislatiboak hautatzen; Estatu Batuetako lehendakariak aukeratu behar zituen, Senatuaren iritzia eskatu ondoren.

Beste botereekiko aske izan zitezen, mugigaitz bihurtu ziren eta beraien soldata, behin finkatu ondoren, legislatiboaren kontrolpetik kanpo uztea erabaki zen<sup>146</sup>.

Nahiko erraza izan zen justizia federalaren ezarpena printzipio-mailan aldarrikatzea, baina eskurantzak finkatu nahi izaterakoan sortu zen eragozpen asko.

Auzitegi federalaren eskuduntza finkatzeko era

Konfederazioetako auzitegi ezberdinen eskuduntza finkatzeko zailtasuna.- Batasuneko auzitegiek beren eskuduntza finkatzeko eskubidea lortu zuten.- Erregela honek zergatik erasotzen dion estatu partikularrek berenganatua zuten subiranotasun-zatiari.- Estatu hauen subiranotasuna, legeek eta legeen interpretazioak murriztua.- Honela, benetakoa baino itxurazkoagoa den arriskua jasan behar estatu partikularrek.

Hona hemen sortu zen lehen arazoa: Estatu Batuetako Konstituzioak bi subiranotasun ezberdin jartzen zituen aurrez aurre, justiziari zegokionez bi auzitegi-ordena diferentetz ordezkatuak; bi auzitegi-ordena hauetako bakoitzaren eskumena kontuz finkatu arren, ez zegoen eragozterik beren artean sarri elkarjotzea. Baina, kasu honetan, nori ote zegokion eskuduntza ezartzeko eskubidea?

Gizarte politiko bakar eta berbera osatzen duten herrietan, bi auzitegiren artean eskuduntza-arazoren bat sortzen bada, arbitroarena egiten duen hirugarren batengana eramaten da normalean.

Eragozpenik gabe egiten da hau, zeren eta herri hauetan eskuduntza judizialeko arazoez ez baitute inolako erlaziorik subiranotasun nazionaleko arazoekin.

Baina estatu partikular bateko Auzitegi Gorenaren eta Estatu Batuetako Auzitegi Gorenaren gainera, ezinezkoa zen beste auzitegirik ezartzea, bata ala bestea izango ez zena.

Beharrezkoa zen, beraz, bi auzitegietako bati bere kausan epaitzeko eskubidea ematea, eta auzitan zegoen gaiaren instrukzioa onartu edo erretentzekoa. Pribilegio hau ez zegoen estatuetako auzitegi ezberdinei ematerik; Batasunaren subiranotasuna, zuzenbidez ezarri ondoren, egitatez suntsitzea izango zatekeen, zeren eta Konstituzioaren interpretazioak laster itzuliko baitzkiekeen estatu partikularrei Konstituzioaren terminoek kendutako independentzi zatia.

Auzitegi federal bat sortuz, estatuetako auzitegiei, bakoitzak bere erara interes nazionaleko arazoak epaitzeko eskubidea kendu nahi izan zitzaien, honela Batasuneko legeen interpretaziorako jurisprudentzia uniformeko gorputz bat eratzeraz iritsi ahal izateko. Helburua ez zatekeen lortuko estatu partikularretako auzitegiek, prozesuak federalak bezala epaitu gabe, federalak ez zirela pretendituz epaitu ahal izan balituzte.

Estatu Batuetako Auzitegi Gorena eskuduntza-arazo guztiak erabakitzeko eskubideaz hornitu zuten<sup>147</sup>.

Hau izan zen estatuen subiranotasunari emandako kolperik arriskutsuena. Honela, murrizturik gelditzen baitzen, ez legeengatik bakarrik, baita legeen interpretazioagatik ere; muga ezagun batengatik eta ezaguna ez zen beste batengatik; erregela finko

batengatik eta erregela arbitrario batengatik. Egia esateko, Konstituzioak ezarriak zizkion muga zehatzak subiranotasun federalari, baina subiranotasun hau estatuenarekin lehian dagoen bakoitzean, auzitegi federal batek erabaki behar du.

Gainerantzean, jokaera honekin estatuen subiranotasunerako sortzen ziren arriskuak benetan ez ziren ematen zuten bezain handiak.

Aurrerago ikusiko dugunez, Amerikan benetako indarra gobernu probintzietan dago, gobernu federalean baino gehiago. Epaille federalek, botere baten izenean dihardutelarik, botere horren ahulezia erlatiboa sentitzen dute, eta legeak eskumen-eskubidea ematen dien kasuetan eskubide hori abandonatzeko joera handiagoa dute, legezkontra erreklamatzekoa baino.

Eskumen-kasu ezberdinak

Materia eta pertsona, eskumen federalaren oinarriak.- Enbaxariei egindako prozesuak,- Batasunari,- estatu partikular bati.- Nork epaitzen dituen.- Batasuneko legeetatik sortzen diren prozesuak.- Zergatik epaitzen dituzten auzitegi federalek.- Kontratuak ez betetzeari buruzko prozesuak, justizia federalak epaituak.- Honen ondorioak.

Eskuduntza federala finkatzeko era ezarri ondoren, eskuduntza hori zein eskumen-kasutan egikaritu behar zen zehaztu zuten Batasuneko legegileek.

Onartu zen baziela zenbait auzilari auzitegi federalek bakarrik epai zitzaketenak, nolanahikoa izanik ere prozesuaren izaera.

Ondoren, ezarri zen baziela zenbait prozesu auzitegi beroriek bakarrik erabaki zitzaketenak, nolanahikoa izanik ere auzilarien kalitatea.

Pertsona eta materia bilakatu ziren, beraz, eskuduntza federalaren bi oinarriak.

Enbaxariek Batasunaren adiskide diren nazioak ordezkatzan dituzte; enbaxariei dagokien guztia nolabait ere Batasun osoari dagokio. Enbaxari bat prozesuan parte denean, nazioaren ongizateari dagokion arazo bilakatzan da prozesua; normala da auzitegi federal batek erabakitzea.

Batasunak berak ere izan ditzake prozesuak. Kasu honetan, zentzuaren kontrako zatekeen, baita nazioen usadioaren kontrako ere, berarenaz bestelako subiranotasuna ordezkatzan duten auzitegien judiziora jotzea. Auzitegi federaleari bakarrik dagokie erabakitzea.

Bi gizabanakok, bi estatu ezberdinetakoak izanik, prozesua dutenean, ezinezkoa da kalterik gabe bi estatu horietariko bateko auzitegiek epaitzea. Seguruagoa da alderdi bati nahiz besteari susmo txarrik sortaraziko ez dion auzitegi bat aukeratzea eta hau, berez, Batasunekoa da.

Bi auzilariak, ez gizabanako isolatuak baizik eta estatuak direnean, ekitate-arrazoi berari lehen mailako arrazoi politiko bat eransten zaio. Honetan auzilarien kalitateak garrantzi nazionala ematen die prozesu guztiei; bi estaturen arteko liskar-arazorik txikiena Batasun osoko bakeari dagokio<sup>148</sup>.

Sarritan prozesuaren izaera bera hartu behar izan zen eskuduntzaren erregelatzat. Honela, itsas merkataritzari buruzko arazo guztiak auzitegi federalek erabaki behar zituzten<sup>149</sup>.

Erraza da arrazoia adieraztea: arazo hauek ia gehienak Jendeen Zuzenbidearen alorrean sartzen dira. Ikuspegi honetatik, funtsean Batasun osoari dagozkio atzerriarren aurrean. Bestalde, itsasoa ez dagokionez esparru judizial bati beste bati baino gehiago, justizia nazionala bakarrik izan daiteke aditua itsas jatorriko auzietan.

Konstituzioak kategoria bakarrean sartu ditu beren izaeragatik auzitegi federaleari dagozkien ia prozesu guztiak.

Honi dagokionez ezartzen duen erregela sinplea da, baina bere baitan ideia-sistema oso zabala eta egitate ugari ditu.

Konstituzioak dioenez, auzitegi federalek *Estatu Batuetako legeetatik sorturiko* prozesu guztiak juzgatu beharko dituzte.

Bi adibideok oso garbi ulertaraziko dute legegilearen pentsaera.

Konstituzioak debekatu egiten die estatuei diruaren zirkulazioari buruzko legeak egitea; debekua gora-behera, estatu batek horrelako lege bat egiten du. Inplikaturiko aldeek uko egiten diote legea betetzeari, Konstituzioaren aurkakoa delako. Auzitegi federal batera joan behar da, erasorako bidea Estatu Batuetako legeetatik sortzen baita.

Kongresuak inportazio-tasa bat ezartzen du. Arazoak sortzen dira tasa honen bilketarako. Orain ere auzitegi federaletara jo beharra dago, Estatu Batuetako lege baten interpretazioan baitago prozesuaren kausa.

Erregela hau guztiz bat dator Konstituzio federalak onarturiko oinarriekin.

Egia esateko, Batasunak, 1789an eratu zen bezala, subiranotasun murriztua bakarrik du, baina esparru honetan herri bat bera eta bakarra osatu nahi izan da<sup>150</sup>. Esparru honetan, bere buruaren jabe da. Puntu hau proposatu eta onartuz gero, gainerako guztia erraza da; zeren eta Estatu Batuek, Konstituzioak ezarritako mugen barruan, herri bakarra osatzen dutela onartzen bada, eman beharra dago herri guztiei dagozkien eskubideak.

Baina, gizarteak sortu zirenetik, adostasuna dago puntu honetan: herri orok du eskubidea bere auzitegiek epai ditzaten bere legeak betearazteari buruzko arazo guztiak. Baina zera erantzuten da: egoera berezian dago Batasuna, gai batzuetarako bakarrik osatzen baitu herri bat; gainerako guztietarako ez da ezer. Zer ondorioztatzen da hortik? Bada, gai horiei buruzko lege guztietan behintzat, erabateko subiranotasunari onartuko litzaizkiokeen eskubideak dituela. Benetan zaila gai horiek zeintzuk diren jakitea da. Puntu hau erabaki ondoren (eta ikusi dugu gorago, eskuduntzarena aztertzerakoan, nola erabaki zuten), egia esateko, ez dago arazorik; zeren eta, prozesu bat federala zela - alegia, Konstituzioak Batasunari erreserbaturiko subiranotasun-zatian sartzen zela - ezarri ondoren, berez ondorioztatzen baitzen auzitegi federal batek bakarrik erabaki behar zuela.

Hortaz, Estatu Batuetako legeei eraso nahi zaien bakoitzean, edo nork bere burua defendatzeko inbokatu nahi direnean, auzitegi federaletara jo behar da.

Honela, Batasuneko auzitegien eskumena hedatu edo murriztu egiten da Batasunaren subiranotasuna bera murrizten edo hedatzen den neurrian.

Ikusi dugunez, subiranotasuna bi zati ezberdinetan banatzea izan zen 1789ko legegileen xede nagusia. Batean, Batasuneko interes orokor guztien zuzendaritza ipini zuten; bestean, beraren zatietakoren batzuen interes berezi guztien zuzendaritza.

Haien ardura nagusia gobernu federala nahiko boterez hornitzea izan zen, estatu partikularren usurpazioen aurka defendatu ahal izateko bere esparruan.

Estatu partikularrei zegokienez, beren esparruan aske uzteko printzipio orokorra onartu zen. Gobernu zentralak ezin ditu gidatu, ezta horien jokabidea ikuskatu ere.

Azken printzipio hau ez zutela beti errespetatu adierazi dut botere-banaketari buruzko kapituluan. Badira lege batzuk estatu partikular batek egin ezin dituenak, nahiz eta itxuraz berari bakarrik dagozkionak izan.

Batasuneko estatu batek izaera horretako lege bat egiten duenean, lege hau betearazteak kalteturiko hiritarrek auzitegi federaletara jo dezakete.

Honela, auzitegi federalen eskumena ez da beren sorburua Batasuneko legeetan duten prozesu guztietara bakarrik hedatzen, baita estatu partikularrek Konstituzioaren kontra egindako legeetatik sortzen diren ere.

Galarazi egiten zaie estatuei gai kriminaletan atzeraeraginezko legerik egitea; honelako lege baten indarrez kondenaturiko pertsonak justizia federalera jo dezake.

Era berean Konstituzioak galarazi egiten die estatuei kontratu baten indarrez lorturiko eskubideak suntsitu edo alda litzaketen legeak egitea (*impairing the obligations of contracts*)<sup>151</sup>.

Partikular bati iruditzen bazaio bere estatuko lege batek honelako eskubide bat lesionatzen duela, uko egin diezaioke betetzeari eta justizia federalera jo dezake<sup>152</sup>. Xedapen honek estatuen subiranotasunari gainerako guztiek baino sakonkiago erasotzen diola iruditzen zait.

Helburu nazional nabarietarako gobernu federalari emaniko eskubideak zehatzak dira eta ulerterrazak. Aipatu berri dudan artikulua zeharka ematen dizkienak ez dira hain nabariak, ezta hain muga zehatzetakoak ere. Izan ere, lege politiko asko daude kontratuen existentziari buruzkoak, eta honela botere zentralari usurpaziorako aukera eman liezaioketenak.

Auzitegi federalen prozedura

Justiziaren berezko ahulezia konfederazioetan.- Legegileek egin beharreko ahaleginak, litekeen neurrian gizabanakoak bakarrik, eta ez estatuak, eramateko auzitegi federaletara.- Amerikarrek nola lortu duten hori.- Auzitegi federalen zuzeneko ekintza partikular hutsen gain.- Zeharkako eraso Batasuneko legeak hausten dituzten estatuen aurka.- Justizia federalaren epaiak ez du lege probintziala suntsitzen; ahuldu egiten du. Jakinarazi dut zeintzuk ziren auzitegi federalen eskubideak; hori bezain garrantzitsua da nola gauzatzen dituzten jakitea.

Subiranotasuna banatzen ez den herrietan, epaiak jotako gizabanakoaren kontra borrokan dagoen nazio osoaren ordezkari dira auzitegiak, eta hortik sortzen da justiziaren indar jarkiezina. Zuzenbidearen ideari, zuzenbideari laguntzen dion indarrarena elkartzen zaio.

Baina subiranotasuna banaturik dagoen herrialdeetan ez da beti honela gertatzen. Gehienetan justiziak ez du bere aurrean gizabanakoa aurkitzen, nazioaren zati bat baizik. Beraren ahalmen moralak eta indar materialak txikiagotu egiten dira.

Hortaz, estatu federaletan justizia ahulagoa da berez, eta auzipetua indartsuagoa.

Legegileak konfederazioetan etengabe lan egin behar du, subiranotasuna banatu ez duten herriek daukaten mailaren antzekoa emateko auzitegiei; beste era batera esanda, etengabeko ahaleginak egin behar dituzte justizia federalak nazioa ordezkari dezan, eta auzipetuen interes partikular bat.

Gobernu batek, nolanahikoa izanik ere bere izaera, gobernatuen gain jardun beharra dauka, zor diotena ematera behartzeko; haien aurka jardun beharra dauka beraien erasoetatik babesteko.

Legeak obeditzera behartzeko gobernuak gobernatuen gain duen zuzeneko ekintzari dagokionez, auzitegi federaletan, lege horien izenean jardunez, beti gizabanakoei buruz bakarrik jarduteko modua zertu zuen Estatu Batuetako Konstituzioak (eta hau izan zen beraren maisu-lana). Izan ere, Konstituzioak ezarritako esparruan konfederazioak herri bakar eta berbera osatzen zuela aitortua zegoenez, gertatzen zen Konstituzio horrek eraturiko gobernuak, bere mugen barruan jardunez, gobernu nazionalaren eskubide guztiez horniturik zegoela, hauetako garrantzizkoena bere aginduak, bitartekaririk gabe, hiritar arruntarenganaino iristaraztea izanik. Beraz, Batasunak zerga bat biltzea agintzen zuenean, adibidez, ez zuen estatuengana jo behar hori hartzeko, Amerikako hiritar bakoitzagana baizik, bere kuotaren arabera. Justizia federalak, berriz, Batasunaren lege hori betearazteko ardura zuelarik, ez zuen estatu setatia kondenatu behar, zergapekoa baizik. Beste herrialde batzuetako justiziak bezalaxe, gizabanakoa bakarrik aurkitzen zuen bere aurrean.

Ohar gaitezen hemen Batasunak berak aukeratu zuela bere kontrarioa. Ahula aukeratu zuen; oso normala da honek lur jotzea.

Baina Batasunak, eraso egin ordez, bere burua babestera mugatu behar duenean, zailtasuna areagotu egiten da. Konstituzioak legeak egiteko ahalmena onartzen die estatuei. Lege hauek Batasunaren eskubideak hauts ditzakete. Kasu honetan, halaber, legea egin duen estatuaren subiranotasunarekin borrokan aurkitzen dugu.

Ekintza-bideen artean, arriskurik gutxienekoa aukeratzea baino ez da gelditzen. Bide hau jadanik adierazia zegoen aurrez aipatu ditudan printzipio orokorretan<sup>153</sup>.

Suposatu berri dudak kasuan, Batasunak estatuari auzitegi federal baten aurrera dei ziezaiokeela pentsa daiteke, honek legea deuseztat joko zukeelarik; hau ideien martxarik naturalena jarraitzea izango zatekeen. Baina, honela, justizia federala estatu baten aurrez aurre aurkituko zatekeen zuzenean, haxe izanik, ahal zen neurrian, saihestu nahi zen gauza.

Lege berri bat betearaztean interes partikularren bat ez kaltetzea ia ezinezkoa zela pentsatu zuten amerikarrek.

Konstituzio federalaren egileak interes partikular horretan oinarritzen dira Batasunaren kexa eragin lezakeen legegintza-neurriari erasotzeko. Interes horri eskaintzen diote babesa.

Adibidez, estatu batek lurak saltzen dizkio konpainia bati; urtebete geroago, lege berri batek beste erabilera bat ematen die lur beroriei, eta, honela, kontratuz lorturiko eskubideak aldatzea galarazten duen Konstituzio-zatia hausten du. Lege berriaren arabera erosi dituen lurrez jabetzera aurkezten denean, edukizaleak, aurreko legearen bidez eskubideak dauzkanak, Batasuneko auzitegira eramaten du kasua eta bestearen titulua deusezteaz eskatzen du<sup>154</sup>. Honela, errealitatean, justizia federala borrokan aurkitzen da estatuaren subiranotasunarekin; baina xehetasunezko aplikazio bati dagokionean eta zeharka bakarrik erasotzen dio. Legea bere ondorioetan jotzen du, ez bere printzipioan; ez du suntsitzen, ahultzen baizik.

Beste hipotesi bat gelditzen zen azkenik.

Estatu bakoitzak korporazio bat osatzen zuen, bere izatea eta eskubide zibilak aparte zituen; ondorioz, berak auzia jar zezakeen eta beste batzuek beraren aurka jar zezaketen. Estatu batek, adibidez, beste estatu baten aurka jo zezakeen justiziaren bidez. Kasu honetan, Batasunak ez zeukan lege probintzial bati eraso beharrik, estatu bat parte zeneko prozesu bat epaitu baizik. Beste edozein prozesu bezalakoa zen; auzilarien nolakotasuna bakarrik zen ezberdina. Hemen oraindik bada kapituluaren hasieran adierazitako arriskua; baina oraingoan ezin da ekidin; Konstituzio federalen funtsari berari dagokiona da, honen ondorioa nazioaren baitan partikular aski ahaltsuak sortzea izango delarik beti, justiziak nekez joka dezan hauen kontra.

Estatuko botere handien artean auzitegi gorenak duen goi-maila

Inongo herrik ez du amerikarrek bezain botere judizial handirik sortu.- Honen eskurantzaren hedadura.- Eragin politikoa.- Bakea eta Batasunaren izatea bera ere zazpi epaile federalen zuzeraren arabera dago.

Auzitegi Gorenen antolamendua zehatz-mehatz aztertu ondoren, eman zaizkion eskurantzak oro har aztertzeari ekiten zaionean, erraz ohartzen da sekula ez dela botere judizial handiagorik inongo herritan eratu.

Auzitegi Gorena beste edozein auzitegi ezagun baino gorago dago ezarria, bai bere eskubideen *izaeragatik* baita bere auziperagarrien *espezieagatik* ere.

Europako nazio zibilizatu guztien artean, gobernuak oso gogo gutxi azaldu du beti berari interesatzen zitzaizkion arazoak justizia arruntari erabakitzen uzteko. Gobernua zenbat eta absolutuagoa izan, are txikiagoa izaten da gogo hori. Aitzitik, askatasuna gehitu ahala, auzitegien eskurantzaren esparrua ere zabalduz joaten da; baina Europako nazioetako bakar batek ere ez du oraindik pentsatu arazo judizial oro, nolana hika izanik berauen jatorria, zuzenbide komunezko epaileen esku utzi daitekeenik.

Amerikan teoria hau praktikan jarri da. Estatu Batuetako Auzitegi Gorena nazioko auzitegi bakarra da.

Berak du lege eta tratatuaren interpretazioaren ardura; itsas merkataritzari buruzko arazoak, eta oro har Jendearen Zuzenbideari dagozkion guztiak, beraren eskuduntza

esklusiboak dira. Beraren eskurantzak ia oso-osorik politikoak direla ere esan daiteke, nahiz eta eraketa zeharo judiziala izan. Helburu bakarra Batasuneko legeak betearaztea du, eta Batasunak, gobernuak gobernatuekiko eta nazioak atzeritarrekiko dituzten harremanak baino ez ditu erregulatzen; hiritarren arteko harremanak, ia guztiak, estatuen subiranotasunak arautzen ditu.

Garrantziaren lehen kausa honi beste bat ere erantsi behar zaio are handiagoa. Europako nazioen artean partikularrak bakarrik auzipera ditzakete auzitegiek; baina Estatu Batuetako Auzitegi Gorenak bere aurrera subiranoak etorrarazten dituela esan daiteke. Atezainak, auzitegiko harmailetan aurreratu eta hitz apur hauek "New Yorkeko estatua Ohiokoaren aurka" esaten dituenean, han justizia arrunteko auzitegi baten esparruan ez gaudela sumatzen da. Eta auzilari hauetako batek milioi bat pertsona, eta besteak bi milioi, ordezkatzan dituela pentsatzean, harrigarria gertatzen da zazpi epaileen erantzukizuna, beraien epaiak herrikideen hain kopuru handia alaitu edo goibelduko baitu.

Zazpi epaile federalen esku daude etengabe bakea, oparotasuna, Batasunaren izatea bera ere. Horiek gabe, Konstituzioa gauza hila da; botere exekutiboak beraiegana jotzen du gorputz legegilearen usurpazioei kontra egiteko; legislatiboak, bere burua botere exekutiboaren ekimenetatik babesteko; Batasunak, estatuek obedi diezaizoten; estatuek, Batasunaren gehiegizko asmoak errefusatzeko; interes publikoak interes pribatuaren aurka; kontserbazio-gogoak ezegonkortasun demokratikoaren aurka. Epaile horien ahalmena ikaragarria da; baina iritzi-ahalmena da. Guztiahaldunak dira, herriak legeak obeditzea onartzen duen bitartean; honek legea gutxietsiz gero, haiek ezin dute ezer egin. Nolanahi ere, iritzi-ahalmena da erabiltzeko zailena, ezin baita esan mugak non dituen zehatz-mehatz. Sarritan muga horiek gainditzea beroriez behetik gelditzea bezain arriskutsua izaten da.

Epaile federaletan ez dute, beraz, hiritar on, pertsona eskolatu eta prestu bakarrik izan behar, magistratu guztiek behar dituzten kualitateak; gainera estatu-gizon ere izan behar dute; beren garaiko izpiritua bereizten jakin behar dute, eta gaindi daitezkeen oztopoei aurre egiten eta, Batasunaren subiranotasuna eta legee zorian zaien obedientzia uholdeak berekin eramateko arriskua dagoenean, korrontetik alde egiten.

Lehendakariak egin dezake huts Estatuak nozitu gabe, eginbehar mugatua baitu lehendakariak. Kongresuak joka dezake oker Batasuna galbideratu gabe, beraren gainetik baitago hautesle-gorputza, kideak aldatuz Kongresuaren izpiritua alda dezakeena.

Baina egunen batean Auzitegi Gorena pertsona zuhurgabe eta ustelduek osatuko balute, anarkiaren edo gerra zibilaren beldur izan beharko luke konfederazioak.

Gainera, ez dadila inor engaina, arriskuaren lehen eragilea ez datza auzitegiaren eraketan, gobernu federalen izaeran bertan baizik. Ikusi dugu herri konfederatuetan beste inon baino beharrezkoagoa dela botere judiziala indartsu eratzea, zeren eta izaki indibidualak, gizarte-gorputzaren kontra borroka daitezkeenak, inon ez baitira haietan baino handiagoak eta ez daude gobernuaren indar materialaren erabilerari aurre egiteko egoera hobean ere.

Nolanahi ere, zenbat eta beharrezkoagoa izan botere bat indartsua izatea, orduan eta gehiago eman behar zaio hedadura eta independentzia. Zenbat eta hedatuagoa eta independenteagoa izan botere bat, orduan eta arriskutsuagoa da berorretaz egin daitezkeen abusua. Gaitzaren jatorria ez datza, beraz, botere horren eraketan, Estatuaren beraren eraketan baizik, horrelako botere baten beharra duelarik.

Zertan den Konstituzio Federala Estatu Batuetako konstituzioak baino gehiago

Nola konpara daitezkeen Batasuneko Konstituzioa estatu partikularretakoekin.- Legegile federalen zuhurtziari egotzi behar zaio batez ere Batasuneko Konstituzioaren

nagusitasuna.- Batasuneko legislatiboak estatuetaoak baino menpekotasun txikiagoa du herriarekiko.- Botere exekutiboa, askeago bere esparruan.- Botere judiziala, gutxiago lotua gehiengoaren borondateari.- Honen ondorio praktikoak.- Legegile federalek gutxitu egin dituzte demokraziaren gobernuari dagozkion arriskuak; estatuetao legegileek areagotu egin dituzte arrisku horiek.

Estatuetao konstituzioaren aldean, Konstituzio federalaren funtsezko ezberdintasuna bere xedean datza, baina besteen antz handia du helburu hori lortzeko baliabideei dagokienean. Gobernu-helburua ezberdina da, baina gobernu-formak berberak dira. Ikuspegi berezi honetatik, onuragarriro egin daiteke konparaketa.

Konstituzio federala estatuetao konstituzio guztien gainetik dagoela uste dut nik. Nagusitasun honek hainbat kausa ditu.

Batasuneko egungo Konstituzioa estatu gehienetakoen ondoren sortu zen; beraz, hauetan lortutako esperientziaz baliatzeko aukera izan zuen.

Hala ere, edonor komentzituko da kausa hau bigarren mailakoa dela, kontuan izanik, Konstituzio federala ezarri ostean, konfederazio amerikarrak hamaika estatu berri hartu dituela, eta hauek ia beti gutxitu baino gehiago areagotu egin dituztela beren aurretikoen konstituzioetan zeuden akatsak.

Konstituzio federalaren nagusitasunaren eragile nagusia legegileen izaeran bertan datza. Konstituzio hori eratu zen garaian, konfederazioaren hondamendiak berehalakoa zirudien; guztien aurrean zegoen, nolabait esateko. Egoera larri hartan, herriak ez zituen agian begikoen zituenak aukeratu, baina bai estimatuen zituenak.

Ohartarazi dut gorago Batasuneko legegileak ia guztiak aipagarriak izan zirela beren jakintzargiengatik, eta are gehiago beren abertzaletasunagatik.

Gizarte-krisiaren erdian heziak izan ziren guztiak, non askatasun-izpirituak etengabe borrokatu behar izan zuen aginpide indartsu eta menperatzaile baten aurka. Borroka amaiturik -eta, ohi bezala, jendearen grina asaldatek aspaldi desagertuak ziren arriskuak borrokatzen jarraitzen zuten bitartean-, haiek geldi geratu ziren; baretasun eta sakontasun handiagoz begiratu zioten beren aberriari; behin-betiko iraultza bat burutua zela ohartu ziren, eta herria mehatxatzen zuten arriskuak aurrerantzean askatasunaren gehiegikerietatik bakarrik sor zitezkeela. Pentsatzen zutena esateko ausardia izan zuten, askatasun berorrekiko atxikimendu zintzo eta sutsua baitzuten bihotz barrenean; askatasuna murritzez hitz egiten ausartu ziren, ziur baitzeuden ez zutela suntsitu nahi<sup>155</sup>.

Estatuetao konstituzio gehienek Ordezkarien Ganbarari urtebeteko agintaldia bakarrik ematen diote, eta bikoia Senatuari. Honela, gorputz legegileko kideak etengabe eta estu-estu daude loturik beren hautesleen desirarik txikienekin.

Legislatiboaren menpekotasun ikaragarri honek ordezkapen-sistemaren ondorio nagusiak desnaturalizatu egingo zituela pentsatu zuten Batasuneko legegileek, herriarengan berarengan ezarriz ez botereen jatorria bakarrik, baita gobernua ere.

Hautetsien agintaldia luzatu egin zuten, diputatua gehiago baliatu ahal izateko bere aukeramenaz.

Konstituzio federalak, estatuetao konstituzio ezberdinek bezalaxe, bitan banatu zuen gorputz legegilea.

Baina estatuetao, legislatiboaren bi zati horiek osagai berberetz eta hautapen-era berberari jarraituz eratu ziren. Ondorioz, gehiengoaren grina eta nahiek ganbara batean bestean bezain erraz eta bizkor aurkitu zituzten organo bat eta tresna bat. Honek izaera bortitz eta lasterra eman zion legeen eraketari.

Halaber, Konstituzio federalak herriaren botoetatik sortarazi zituen bi ganbarak; baina aldatu egin zituen hautagarri izateko baldintzak eta hautatzeko era; zenbait naziotan

bezala, legislatiboaren zatietako batek ez bazituen besteak ez bezalako interesak ordezkatzeko ere, zuhurtzia handiagoaren ordezkari izan zedin gutxienez.

Senadore izateko heltzarora iritsia izatea eskatzen zen, eta aurrez aukeratua izandako eta oso ugaria ez zen batzar bati eman zitzaion hautapenaren ardura.

Demokraziek berezko joera dute gizarte-indar guztia gorputz legegilearen esku biltzeko. Hau izanik herritik zuzenki sortzen den boterea, berorren ahalguztiduntasunean partaidetza handiena duena ere bada.

Beraz, aginte-mota oro bere baitan biltzera eragiten dion ohiko joera ikusten da horrengan.

Botere-kontzentrazio honek, arazoen martxa egokia eragozteaz gain, gehiengoaren despotismoa ere sortzen du.

Estatuetako legegileak sarri erori izan dira demokraziaren joera horietan; Batasunekoak, berriz, adoretu borrokatu dira beti horien aurka.

Estatuetan botere exekutiboa magistratu baten esku uzten da, itxuraz legislatiboaren ondoan kokatua dagoena, baina, errealitatean, haren borondatearen egile itsu eta tresna pasibo baino ez dena. Nondik atera lezake bere indarra? Bere funtzioen iraupenetik? Normalean, urtebeterako bakarrik izendatzen dute. Bere prerrogatibetatik? Bat ere ez duela esan daiteke. Legislatiboak ezintasunean utz dezake, legeak betearazteko ardura bere baitan eraturiko batzorde bereziei eman. Nahi izango balu, nolabait ere deuseztatu egin ahal izango luke, soldata kenduz.

Botere exekutiboaren eskubide guztiak, baita erantzukizun osoa ere, pertsona bakar batengan bildu ditu Konstituzio federalak. Lau urteko iraupena eman dio lehendakariari; soldata ziurtatu dio agintaldiak irauten duen denbora guztirako; bezeria bat ere eman dio eta beto esekitzailaz hornitu. Hitz batean, botere exekutiboaren esparrua arretaz mugatu ondoren, ahal den neurrian eta esparru horren barruan, egoera indartsu eta askea eman nahi izan dio.

Botere guztien artetik, judiziala da botere legegilearekiko menpekotasunik txikiena duena estatuetako konstituzioetan.

Hala ere, estatu guztietan legislatiboari dagokio epaileen ordainsariak finkatzea, honek derrigorrez haren zuzeneko eraginpean jartzen dituelarik azken hauek.

Estatu batzuetan aldi baterako bakarrik izendatzen dira epaileak, eta honek ere indar eta askatasun dezente kentzen die.

Beste batzuetan botere legegilea eta judiziala erabat nahasturik daude. New Yorkeko Senatuak, adibidez, estatuko Auzitegi Goren bihurtzen da zenbait prozesutan.

Konstituzio federala, aitzitik, botere judiziala beste guztietatik ongi bereizteaz arduratu da. Gainera, epaileak independente bihurtu ditu, soldata finkoak eta eginkizun errebokaekin ezarritik.

Ezberdintasun hauen ondorio praktikoak ikusterrazak dira. Adi begiratzen duenarentzat garbi dago Batasuneko arazoak edozein estatutako arazo partikularrek baino askoz ere hobeto zuzendurik daudela.

Gobernu federala estatuak baino zuzenago eta neurritsuagoa da bere jokabidean. Zuhurtzia handiagoa du bere ikuspegietan, iraupen eta jakinduria handiagoa bere proiektuetan, trebezia, jarraipen eta irmotasun handiagoa hartutako neurriak betearazterakoan.

Hitz gutxi batzuk aski dira kapitulu hau laburtzeko.

Bi arrisku nagusik mehatxatzen dituzte demokraziak:

Botere legegilearen erabateko morrontza hautesleriaren borondatearekiko.

Botere legegilean kontzentratzea gobernuaren beste botere guztiak.

Estatuetako legegileek arrisku hauen garapena bultzatu dute. Batasuneko legegileek ahal dutena egin dute hain beldurgarriak izan ez daitezen.



Amerikako Estatu Batuetako konstituzio federala beste konstituzio federal guztietatik bereizten duena

Konfederazio amerikarra konfederazio guztien antzekoa da itxuraz.- Beraren ondorioak, ordea, ez dira berdinak.- Honen jatorria.- Konfederazio hau zertan bereizten den gainerako guztietatik.- Gobernu amerikarra ez da gobernu federal bat, gobernu nazional osagabea baizik.

Amerikako Estatu Batuak ez dira konfederazio baten lehenengo adibidea eta bakarra. Antzinateaz hitz egin gabe ere, Europa modernoan izan da zenbait kasu. Suitza, Inperio germaniarra eta Herbeheretako Errepublika konfederazioak izan dira edota dira oraindik.

Herrialde ezberdin hauetako konstituzioak aztertzen direnean, harriduraz ohartzen da horiek gobernu federalari emandako ahalmenak eta Konstituzio amerikarrak Estatu Batuetako gobernuari emandakoak berdintsuak direla gutxi gora-behera. Azken honek bezalaxe, aginte zentralari ematen dizkiote bakea eta gerra egiteko eskubidea, jendea erreklutatu eta dirua biltzekoa, premia orokorrak asetu eta nazioaren interes komunak arautzekoa.

Hala ere, herrialde ezberdin horietan gobernu federala ia beti ahul eta ezintasunean egon da, Estatu Batuetako arazoak tinko eta erraz gidatzen dituen bitartean.

Are gehiago, lehenengo Batasun amerikarrak ezin izan zuen iraun gobernuaren gehiegizko ahuleziagatik, eta, hala ere, hain ahula zen gobernu hark gaur egungo gobernu federalak bezain eskubide zabalak zituen hartuak. Neurri batean, gainera, haren pribilegioak handiagoak zirela ere esan daiteke.

Estatu Batuetako egungo Konstituzioan badira, beraz, printzipio berri batzuk, hasieran deigarriak ez direnak, baina eragin sakona zertzen dutenak.

Konstituzio hau, lehen begiratuan bere aurretiko konstituzio federalekin nahasteko tentazioa ematen duena, teoria berri-berri baten gainean oinarritzen da, egungo zientzia politikoaren baitan aurkikuntza handitzat hartu behar delarik.

1789ko konfederazio amerikarraren aurretiko konfederazio guztietan, herriek, xede komun baten inguruan elkartzen zirelarik, gobernu federalaren aginduak betetzea onartzen zuten; baina Batasuneko legeen betetzea beren baitan agindu eta ikuskatzeko eskubidea gordetzen zuten.

1789an elkartu ziren estatu amerikarrek ez zuten bakarrik gobernu federalak legeak eman ziezazkien onartu, baita legeak hark berak betearaztea ere.

Bi kasuetan eskubidea berbera da, eskubide horren egikaritza bakarrik da ezberdina. Baina diferentzia bakar honek berebiziko ondorioak ditu.

Egungo Batasun amerikarraren aurretik izan diren konfederazio guztietan, gobernu federalak, bere beharrak betetzeko, gobernu partikularrengana jotzen zuen. Agindutakoa ez bazen hauetakoren baten gogokoa, honek beti ihes egin ziezaiokeen obeditu beharrari. Indartsua bazen, armatara jotzen zuen; ahula bazen, jasan egiten zuen Batasuneko legeei -bere lege bilakatu- jarkitzea, ezintasunaren aitzakia eman eta inertiaren indarrera jotzen zuen.

Honela, bi gauza hauetako bat gertatu izan da beti: elkarturiko herrietako ahaltsuenak, aginte federalaren eskubideak bere esku hartuz, gainerako guztiak menperatu izan ditu haren izenean<sup>156</sup>; edo gobernu federala bere indarrekin bakarrik utzi izan dute, eta orduan anarkia ezarri da konfederatuen artean, eta ezer egin ezinik gelditu izan da Batasuna<sup>157</sup>.

Amerikan Batasunak ez ditu estatuak gobernatzen, hiritar hutsak baizik. Zerga bat bildu nahi duenean, ez du Massachusettsko gobernuagana jotzen, Massachusettsko biztanle bakoitzagana baizik. Antzinako gobernu federalek herriak zituzten beren aurrean, Batasunekoak gizabanakoak ditu. Ez du indarra maileguan hartzen, bere baitatik

ateratzen baizik. Bere administratzaileak ditu, bere auzitegiak, bere justizi ofizialak eta bere armada.

Zalantzarik gabe, honela eraturiko botere federalaren hedadura murriztera eta beraren borondatearekiko erresistentzi guneak sortzera jotzen dute estatu bakoitzeko nazio-izpirituak, grina kolektiboek, aurriritzi probintziales; botere federalak bere subiranotasuna murriztua duenez, ezin da izan oso-osorik daukana bezain indartsu; baina hau sistema federalari dagokion gaitza da.

Amerikan estatu bakoitzak askoz aukera eta tentazio gutxiago du erresistitzeko; eta horretarako gogoia etortzen bazaio, ezin du gauzatu, Batasuneko legeak garbi hautsi, justiziaren ohiko martxa etenarazi eta matxinadaren ikurra altxatu gabe; labur esateko, mutur baten alde jarri behar du bat-batean, eta honetarako zalantza handia izaten du jendeak.

Antzinako konfederazioetan, Batasunari emandako eskubideak gerra-eragile gertatzen zitzaizkion, eta ez botere-eragile, eskubide horiek eskakizunak ugaltzen baitzizkieten, obediartzeko baliabideak gehitu gabe. Gobernu federalen benetako ahulezia beren botere nominalarekiko proportzio zuzenean hasten dela ikusi izan da ia beti.

Baina ez da honela gertatzen Batasun amerikarrean; ohiko gobernu gehienek bezalaxe, gobernu federalak, egiteko eskubidea duen guztia zertzeko ahalmena du.

Giza izpirituak errazago asmatzen ditu gauzak hitzak baino: hortik dator hainbeste termino desegoki eta adierazpen osagabe erabiltzea.

Zenbait naziok liga iraunkorra eratzen dute eta aginte goren bat ezartzen; honek ez du gobernu nazional batek bezala hiritar hutsengan eragiten, baizik eta herri konfederatu bakoitzarengan, gorputz bezala harturik.

Gobernu honek, beste guztiengandik hain ezberdina, federal izena hartzen du.

Berehala aurkitzen da gizarte-forma bat, non zenbait herrik bat egiten duten interes komun batzuei dagokienez, gainerako guztietarako banandurik eta konfederatuta bakarrik jarraitzen dutelarik.

Hemen aginte zentralak bitartekaririk gabe jarduten du gobernatuengan, berak administratzen eta epaitzen ditu, gobernu nazionalak bezala, baina esparru murriztu batean bakarrik jokatzen du honela. Jakina, horretan ez da gobernu federal bat, gobernu nazional osagabea baizik. Honela, gobernu-forma bat aurkitu da, nazionala edo federala ez dena; baina hor gelditu da, eta gauza berri hori adierazi behar duen hitz berririk ez dago oraindik.

Konfederazio-mota berri hau ez ezagutu izanagatik iritsi dira Batasun guztiak gerra zibilera, morrontzara edo inertziara. Batasun horietako herriek ez zuten jakintzargirik izan beren gaitzen erremedioa ikusteko, edo adorerik aplikatzeko.

Lehen Batasun amerikarrak ere akats berberak egin zituen.

Baina Amerikan estatu konfederatuak, independentziara iritsi aurretik, inperio beraren parte izan ziren luzaroan; artean ez zuten beren buruak erabat gobernatzeko ohiturarik, eta aurriritzi nazionalak ez zuten sustrai sakonik botata; munduaren gainerakoa baino ilustratuagoak, beren artean berdinak ziren jakintzargietan, eta bizitasun gutxiz sentitzen zituzten botere federala hedatzearen kontra herrien artean normalean egon ohi diren grinak, eta grina hauen kontra hiritarrik bikainenak borrokatzen ziren. Amerikarrek, gaitza sentitzen zuten bitartean, irmotasunez aztertu zuten erremedioa. Zuzenketak egin legetan eta onik atera zuten herrialdea.

Sistema federalak oro har dituen abantailak eta Amerikarako duen onura berezia

Nazio txikiek gozatzen duten zoriona eta askatasuna.- Nazio handien boterea.- Inperio handiek zibilizazioaren garapena bultzatzen dute.- Nazioentzat indarra da sarritan lehen oparotasun-elementua.- Herriek beren lurraldearen handitasun eta txikitasunetik ateratzen dituzten abantailak elkartzea da sistema federalaren helburua.- Estatu Batuek

sistema honetatik ateratzen dituzten abantailak.- Legea herrien beharretara makurtzen da, eta herriak ez dira legearen beharretara makurtzen.- Askatasunaren jarduera, aurrerapen, zaletasun eta erabilera herri amerikarren artean.- Batasuneko izpiritu publikoa abertzaletasun probintzialaren laburbilduma baino ez da.- Gauzak eta ideiak askatasunez mugitzen dira Estatu Batuetako lurraldean.- Batasuna aske eta zoriontsu da nazio txiki bat bezala, eta errespetatua handia bezala.

Nazio txikietan gizartearen begia edonon sartzen da; hobekuntza-izpiritua xehetasunik txikienetara iristen da; herriaren handinahia bere ahuleziak biziki apaltzen duelarik, beraren ahalegin eta baliabideak barne-ongizatera bihurtzen dira ia osorik, eta ez daude loriazko kealdi hutsaletan desagertzeko arriskuan. Gainera, bakoitzaren ahalmenak orokorrean mugaturik daudenez, desirak ere berdin daude. Aberastasunen kaxkarkeriak gutxi gora-behera berdindu egiten ditu egoerak; ohiturek ere bilakaera sinple eta baketsua dute. Honela, oro har, eta moralitate eta jakintzargien maila ezberdinak kontuan harturik, nazio txikietan handietan baino oparotasun, biztanleria eta lasaitasun handiagoa aurkitzen da normalean.

Tirania nazio txiki baten baitan ezartzen denean, beste edozein aldetan baino ezerosoagoa izaten da bertan, esparru murriztagoan jardutean, orotara hedatzen baita esparru horretan. Helburu handi bati heldu ezin dionez, txikikeria askotaz arduratzen da; bortitz eta nahastaile da aldi berean. Politikaren mundutik -zehatz esanda, hau du bere esparrua- bizitza pribatura sartzen da. Ekintzak arautu ondoren, gustuak ere arautu nahi izaten ditu; Estatuaren ondoren, familiak gobernatu nahi izaten ditu. Baina hau nekez lortzen du; askatasuna da, egia esateko, gizarte txikien berezko egoera. Gobernuak erakarpen gutxiegitxo eskaintzen dio gutiziari, partikularren baliabideak mugatuegiak dira, botere subiranoa pertsona bakar baten eskuetan erraz bildu ahal izateko. Hala egokituz gero, gobernatuei ez zaie zaila gertatzen bat egitea eta, guztien ahaleginez, tiranoa eta tirania aldi berean eraistea.

Betidanik nazio txikiak izan dira askatasun politikoaren sehaska. Horien arteko gehienek haztean askatasuna galdu egin dutela gertatu da; honek garbi erakusten du akats hori herriaren txikitasunari zegokiola eta ez herriari berari.

Munduaren historian ez dago luzaroan errepublika izaten jarraitu duen nazio handi baten kasurik<sup>158</sup>, eta ez zela egingarria esanarazi du honek. Nire ustez, ez da batere zuhurra gizakiak ahalgarri dena mugatu eta etorkizuna epaitu nahi izatea, berari beti ihes egiten baitiote errealak eta orainak, eta etengabe harrapatzen baitute ezustean ongien ezagutzen dituen gauzek ere. Ziurtasunez esan daiteke errepublika handiak txikiak baino arrisku handiagoak izango dituela beti.

Errepublikentzat galgarriak diren grina guztiak lurraldearen hedadurarekin areagotzen dira, baina lagungarri zaizkion bertuteak ez dira inola ere neurri berean hazten.

Partikularren gutizia Estatuaren boterearekin gehitzen da; alderdien indarra, beren buruari ezartzen dioten xedearen garrantziarekin; baina aberriaganako maitasuna, grina suntsitzaile horien aurka borrokatu behar duena, ez da errepublika handian txikian baino indartsuagoa izaten. Are gehiago, garapen eta botere gutxiago duela frogatzea ere erraza izango litzateke. Aberastasun handiak eta lazeria itzelak, metropoliak, ohituren galdukeria, norberekoikeria, interesen konplikazioa, ia beti Estatuaren handitasunetik sortzen diren beste hainbat arrisku dira. Gauza hauetako zenbaitek ez dio monarkiarik kalterik egiten, eta iraunarazten ere lagun diezaiokete batzuek. Bestalde, monarkietan, gobernuak badu bere-berea duen indar bat; herriaz baliatzen da eta ez dago beronen menpe; zenbat eta handiagoa izan herria, are indartsuagoa printzea; baina arrisku hauen aurka gobernu errepublikarrak ezin du gehiengoaren laguntza baino erabili. Nolanahi ere, indar-elementu hau ez da, proportzioan, errepublika handian txikian baino ahaltsuagoa. Honela, erasorako baliabideak kopuruz eta ahalmenez etengabe gehitzen

diren bitartean, erresistentzi indarrak bere horretan irauten du. Gutxitu ere egiten dela esan daiteke, zeren eta, zenbat eta ugariagoa izan herria, eta zenbat eta gehiago dibertsifikatu izpirituen eta interesen izaera, orduan eta zailagoa izaten baita gehiago trinko bat eratzea.

Bestalde, giza grinak areagotu egiten direla ikusi ahal izan da, ez bakarrik lortu nahi duten helburuaren handitasunagatik, baita aldi berean sentitzen dituzten kopuruagatik ere. Ez dago inor hunkituago egon ez denik berarekin batera hunkidura bera sentitzen zuen jendetza asaldatu baten erdian, berak bakarrik sentituta baino. Errepublika handi batean grina politikoak jarkiezin bihurtzen dira, ez bakarrik berorien helburua ikaragarria delako, baita milioika pertsonak era berean eta une berean sentitzen dituztelako ere.

Beraz, esan daiteke orokorrean ezer ez dela gizakien ongizate eta askatasunaren kontrakoago inperio handiak baino.

Hala ere, estatu handiek badituzte bere-bereak dituzten abantailak, aitortu behar zaizkienak.

Pertsona arruntentz botere-nahia haietan beste inon baino sutuagoa den bezalaxe, aintza-zaletasuna ere garatuago dago bihotz batzuetan, herri handi baten txaloak lortzea beren ahaleginentzako helburu duina iruditzen baitzaie, eta egokia nolabait ere beren buruak gainditzeko. Haietan pentsamenduak bultzada bizkorrago eta ahaltsuagoa hartzen du gauza guztietan, ideiak askatasun handiagoz ibiltzen dira, metropoliak egundoko zentru intelektualak bezala dira, non distiratsu konbinatzen diren giza izpirituen izpi guztiak; honek azaltzen digu zergatik nazio handiek txikiak baino aurrerapen bizkorragoak eragiten dizkieten jakintzargiei eta zibilizazioaren kausa orokorrari. Gaineratu behar da aurkikuntza garrantzitsuek sarritan eskatzen duten indar nazionalaren garapena emateko, herri txiki bateko gobernuak ez dela gauza izaten; nazio handietan gobernuak ideia orokor gehiago izaten du, gehiago askatzen da bere aurrekoen ohikerietatik eta berekoikeria lokaletatik. Jeinu handiagoa du bere asmaketetan, ausardia gehiago bere aurrerabidean.

Barne-ongizatea osoagoa eta banatuagoa izaten da nazio txikietan, bakean dirauten bitartean; baina gerra-egoera kaltegarriagoa zaie handiei baino. Azken hauetan mugen urruntasunagatik herriaren gehiengo batzuetan hainbat mende egoten da arriskutik urruti. Honi gerrak ondoeza gehiago eragiten dio hondamendia baino.

Bestalde, gai honetan, beste askotan bezalaxe, bada argudio bat beste guztiak menperatzen dituen: beharrarena.

Nazio txikiak bakarrik baleude eta handirik batere ez, gizadia askeago eta zoriotsuago izango litzateke seguraski; baina ezin da ekidin nazio handiak egotea.

Honek nazio-oparotasuneko elementu berri bat sartzen du munduan, indarra, alegia. Zer axola dio herri batek ongizate eta askatasunaren itxura izateak, lapurtua edo konkistatua izateko arriskuarekin badago egunero? Zer axola dio industriari eta merkataritza izateak, itsasoak beste norbaitek kontrolatzen baditu eta merkatu guztietan bere legea ezartzen badu? Nazio txikiak behartsuak izaten dira sarri, ez txikiak direlako, ahulak direlako baizik; handiek aurrera egiten dute, ez handiak direlako, indartsuak direlako baizik. Beraz, sarritan indarra da nazioentzat beren zorionaren, baita izatearen ere, lehenengo baldintzetakoa. Ondorioz, eta zirkunstantzia bereziak salbu, azkenean herri txikiak handiekin elkartzen dituzte bortxaz, edo beren borondatez batzen zaizkie bestela. Ez dakit egoera tamalgarriagorik dagoen bere burua defendatu ezin eta bere buruaz aski ez duen herriarena baino.

Nazioen handitasun eta txikitasunetik sortzen diren abantaila ezberdinak elkartzeko sortu zen sistema federala.

Aski da Amerikako Estatu Batuei begiratu bat ematea, sistema hau hartu izatetik datozkien onura guztiez ohartzeko.

Nazio zentralizatu handietan, legegilea beharturik dago legeei era bereko izaera ematera, leku- eta ohitura-aniztasuna kontuan hartu gabe; sekula ez duenez kasu partikularrik ezagutzen, arau orokorren bidez bakarrik jokatzeko du; horrela jendea beharturik dago legeriaren beharretara makurtzera, legeriak ez baitaki jendearen premia eta ohituretara moldatzen; honek arazo eta ezbehar handiak eragiten ditu.

Eragozpen hau ez dago konfederazioetan: Kongresuak arautzen ditu gizarte-bizitzako egintza nagusiak; xehetasun guztiak legeria probintzialen esku uzten dira.

Imajinaezina da subiranotasunaren banaketa honek zenbateraino laguntzen dion Batasuna osatzen duten estatuetakoko bakoitzaren ongizateari. Gizarte txiki horietan, beren burua babestu edo handitzeaz batere arduratzen ez direnez, botere publiko guztia eta gizabanakoaren energia guztia barne-hobekuntzetara zuzentzen dira. Estatu bakoitzeko gobernu zentrala, gobernatuen ondo-ondoan dagoelarik, sumatzen diren premiez ohartarazia dago egunero. Honela, plan berriak aurkezten dira urtero, udal-batzarretan edo estatuko legislatiboaren aurrean eztabaidatu eta, gero, prentsak argitara eman ondoren, interes unibertsala eta hiritarren ardura sortarazten dituztelarik. Hobetu behar honek etengabe astintzen ditu errepublika amerikarrak, baina arazorik sortu gabe; han botere-irrikak ongizatearen maitasunari uzten dio leku, grina arruntagoa dena, baina arrisku txikiagokoa. Amerikan oso zabaldua dagoen iritzia da forma errepublikarren izatea eta iraupena Mundu Berrian sistema federalaren izate eta iraupenarekin loturik daudela. Hego Amerikako estatu berriek dituzten zoritxarretako asko, subiranotasuna zatitu ordez, errepublika handiak ezarri nahi izateari egozten zaio.

Izan ere, ukaezina da Estatu Batuetan gobernu errepublikarrarekiko zaletasuna eta usadioa udalerrietan eta batzar probintzialen baitan sortu zirela. Connecticut bezalako nazio txiki batean, adibidez, -non ubide bat irekitzea edo bide bat egitea den arazo politiko handiena, non Estatuak ez duen ordaindu beharreko armadarik edo mantendu beharreko gerrarik, eta non agintzen dutenei ezin zaien aberastasun askorik edo aintza handirik eman-, ezin da ezer naturalagorik edo gauzen izaerarekiko ezer egokiagorik imajinatu errepublika baino. Nolanahi ere, izpiritu errepublikar hori berori da, herri aske baten ohitura eta aztura horiek dira, estatu ezberdinetan sortu eta garatu ondoren, gero nekerik gabe herrialde osoari aplikatzen zaizkionak. Batasuneko izpiritu publikoa bera ere ez da nolabait abertzaletasun probintzialaren laburbilduma baino. Estatu Batuetako hiritar bakoitzak, bere errepublika txikiak sortarazten dion arreta, aberri komunarekiko maitasunera eramaten du, nolabait esateko. Batasuna defendatzean, bere kantonamenduaren oparotasun hazkorra defendatzen du, baita bertako arazoak zuzentzeko eskubidea eta bera aberastu behar duten hobekuntza-planak aurrera aterako diren itxaropena ere: gauza hauek guztiak, normalean, gehiago hunkitzen dute jendea herrialdeko interes orokorrek eta nazioaren aintzak baino.

Bestalde, biztanleen izpiritu eta ohiturek beste batzuk baino egokiago bihurtzen badituzte errepublika handi bati oparotasunean aurrera eragiteko, sistema federalak asko erraztu du zeregin hau. Estatu amerikar guztien konfederazioak ez du jende-samalda handien ohiko eragozpenik. Batasuna errepublika handi bat da hedadurari dagokionez; baina modu batean errepublika txiki batekin pareka liteke, bertako gobernuak oso gai gutxiren ardura baitu. Bere egintzak garrantzizkoak dira, baina bakanak. Batasunaren subiranotasuna oztopatua eta osagabea denez, subiranotasun honen erabilera ez da askatasunarentzako arriskutsua. Ez ditu errepublika handientzat hain kaltegarri diren botere eta ospe-irrika neurrigabe horiek ere sortarazten. Azkenean dena ez doanez derrigorrez erdigune komun batera, ez da metropoli zabalik ikusten, ezta ikaragarritzko aberastasunik, edo lazeria handirik, edo bat-bateko iraultzarik ere. Grina politikoak, une

batean sugarraldia bezala herrialde osoan zehar zabaldu ordeztu, estatu bakoitzeko interes eta grina indibidualen kontra apurtzen dira.

Batasunean, ordea, herri bakar eta beraren baitan bezala, aske ibiltzen dira gauzak eta ideiak. Ezerk ez du ekimen-izpirituaren bultzada geldiarazten. Gobernuak beregana erakartzen ditu talentuak eta jakintzargiak. Batasuneko mugen barnean bake sakona da nagusi, inperio beraren menpe dagoen herrialdearen baitan bezala; kanpoan munduko naziorik ahaltsuenen artean kokatzen da; atzerriko merkataritzari zortziehun lekora baino gehiagoko itsasertza eskaintzen dio; eta mundu oso baten giltzak bere esku dituelarik, azkeneko itsasertzetan ere errespetarazten du bere bandera.

Batasuna aske eta zoriontsu da nazio txiki bat bezala, aintzatsu eta indartsu handi bat bezala.

Zergatik ez dagoen sistema federala herri guztien esku, eta zergatik berenganatu ahal izan duten angloamerikarrek

Sistema federal orotan daude berezko akatsak, legegileak eraso ezin dituenak.- Sistema federal ororen konplikazioa.- Egunero beren adimenaz baliatzea eskatzen die gobernatuei.- Amerikarren zientzia praktikoa gobernu-gaietan.- Batasuneko gobernuaren ahulezia erlatiboa, sistema federalari dagokion beste akats bat.- Amerikarrek murriztu egin dute akats hori, baina ezin izan dute zeharo desegin.- Estatu partikularren subiranotasuna Batasunarena baino ahulagoa da itxuraz, baina indartsuagoa praktikan.- Zergatik.- Legeez gain, beharrezkoa da, beraz, batasunerako kausa naturalak egotea herri konfederatuen artean.- Zeintzuk diren kausa horiek angloamerikarren artean.- Maine eta Georgia, elkarren artean 400 lekora urrunduta, baina hala ere Normandia eta Britainia baino elkartuago berez.- Gerra da konfederazioen arriskurik nagusia.- Batasunak ez du zertan gerra handien beldur izan.- Zergatik.- Europako herriek izango lituzketen arriskuak amerikarren sistema federala berenganatzean.

Hamaika ahaleginen ondoren, nazioen destinoan zeharkako eragina izatera iristen da batzuetan legegilea, eta beraren jeinua goraiatzeko da orduan, baina sarritan herrialdearen kokapen geografikoak -hark ezin duelarik honetaz ezer egin-, edo beraren eskuhartzerik gabe sortutako gizarte-egoeraren batek, edo nondik sortu diren ez dakien ohitura eta ideien batzuek, edo ezagutzen ez duen abiapunturen batek gizarteari mugimendu jarkiezinak eragiten dizkio, berauen kontra alfer-alferrik borrokatu eta azkenean aurrean eramaten dutelarik legegilea.

Itsasoen erdian bere bidea ezartzen duenaren antzeko da legegilea. Bere ibilgailu duen untzia ere gida dezake, baina ezingo du untzi horren egitura aldatu, haizeak sortu edo hankapean altxatzea ozeanoari galarazi.

Erakutsi dut nolako abantailak ateratzen dituzten amerikarrek sistema federaletik. Sistema hau zergatik hartu ahal izan duten ulertaraztea falta zait orain, ezin baitituzte herri guztiek gozatu berorren onurak.

Sistema federalean badira funtsezkoak ez diren akatsak, legeetatik sortzen direnak; hauek zuzen ditzakete legegileak. Badira beste batzuk, sistemari dagozkionak izanik, berau hartzen duten herriek suntsitu ezin dituztenak. Beraz, herri hauek beren baitan aurkitu behar dute gobernuaren berezko akatsak jasateko beharrezko indarra.

Sistema federal orori dagozkion akatsen artean, erabiltzen dituen baliabideen konplikazioa da guztien arteko nabariena. Sistema honek halabeharrez bi subiranotasun jartzen ditu aurrez aurre. Bi subiranotasun hauen mugimenduak ahalik eta sinpleen eta berdinenak egitera iristen da legegilea, eta garbi zehazturiko ekintza-esparrutan sar ditzake biak; baina ezin duena lortu bat bakarrik egotea da, edo punturen batean elkar uki dezaten eragozteak.

Zernahi eginda ere, sistema federala teoria konplikatuan oinarritzen da, eta honen aplikazioak arrazoiaren argitasunaz egunero baliatzea eskatzen die gobernatuei.

Normalean, ideia sinpleak bakarrik jabetzen dira herriaren izpirituaz. Ideia faltsu batek, argia eta zehatza bada, munduan indar gehiago izango du beti, egiazkoa baina konplexua den ideiak baino. Horregatik saiatzeko dira alderdiak, nazio handi batean nazio txiki bezalakoak direnak, daukaten helburua eta erabiltzen dituzten bideak sarritan oso desegoki errepresentatzen dituen izen edo printzipio bat hartzen, berau gabe ezingo luketelarik ez iraun, ezta mugitu ere. Zehazten erraza den ideia edo sentimendu bakar batean oinarritzen diren gobernuak ez dira agian onenak izaten, baina bai indartsuenak eta iraunkorrenak.

Aitzitik, Estatu Batuetako Konstituzioa, ezagutzen diren konstituzio federal guztien arteko bikainena, aztertzen denean, txunditzekoa da zenbat ezagupen ezberdin eta zelako bereizmena suposatzen duen berak zuzendu behar dituenen artean. Batasuneko gobernu legezk fikzioen gain oinarritzen da ia osorik. Batasuna nazio ideial bat da, nolabait esateko izpiritueta bakarrik dagoena, beraren hedadura eta mugak adimenak bakarrik aurkitzen dituelarik.

Teoria orokorra ongi ulertu ondoren, aplikazio-zailtasunak gelditzen dira; hauek ikaragarri ugariak dira, zeren eta, Batasunaren subiranotasuna hainbestearino dagoenez estatuenarekin elkarlotua, ezinezkoa baita lehen begiratuan mugak bereiztea. Dena konbentzional eta artifizia da horrelako gobernu batean, eta aspalditik bere arazoak berak zuzentzera ohiturik dagoen herri bati eta bertan zientzia politikoa gizartearen azken mailataraino iritsi bada bakarrik komeni dakiok. Ezertan ez dut amerikarren zentzua eta adimen praktikoa miretsiago izan, beren Konstituzio federaletik sortzen zaizkien eragozpen ugarietatik ihes egiteko duten eran baino. Amerikan ia inoiz ez dut jende xeherik aurkitu, Kongresuaren legeetatik sortutako betebeharrak eta bere estatuko legeetatik sortutakoak erraztasun harrigarritz bereizten ez zituenik, ezta, Batasuneko eskurantz orokorre zegozkien gaiak eta legislatibo lokalak arautu beharrekoak bereizi ondoren, auzitegi federalen eskuduntza non hasten zen eta estatuko auzitegiarena non amaitzen zen adierazteko gai ez zenik ere.

Estatu Batuetako Konstituzioa giza industriaren sorkuntza eder horien antzekoa da; asmatzen dituztenak aintzaz eta ondasunez betetzen dituzte, baina alferrikakoak dira beste esku batzuetan.

Hau da Mexikok ikusarazi diguna gaur egun.

Mexikoko biztanleek, sistema federala ezarri nahi zutelarik, eredutzat hartu eta ia osorik kopiatu zuten auzoko angloamerikarren Konstituzio federala<sup>159</sup>. Baina legearen letra beren artera eramatean, ezin izan zuten aldi berean eraman biziartzaren zuen izpiritua. Beraz, etengabe behaztopatu ziren beren gobernu bikoitzaren mekanismoetan. Estatuen eta Batasunaren subiranotasunak, Konstituzioak ezarritako esparrutik irtetean, bata bestearnean sartzen ziren egunero. Gaur egun ere, Mexiko etengabe dabil anarkiatik despotismo militarre bidean, eta despotismo militarretik anarkiarantz.

Bigarrena eta akats guztietako txarrena, sistema federalari berari dagokiola uste dudana, Batasuneko gobernuaren ahulezia erlatiboa da.

Konfederazio guztien oinarrian dagoen printzipioa subiranotasunaren zatiketa da. Zatiketa hau oso nabaria ez izatea lortzen dute legegileek; aldi batez bistatik ere ezkututzen dute, baina ezin diote izatea eragotzi. Nolanahi ere, subiranotasun zatikatua beti izango da subiranotasun osoa baino ahulagoa.

Estatu Batuetako Konstituzioaren azalpenean ikusi da amerikarrek zer-nolako artea izan duten Batasunaren botereari, gobernu federalen esparru murriztean itxi arren, hala ere gobernu nazional baten itxura eta, neurri bateraino, indarra emateko.

Honela jokatu, Batasuneko legegileek gutxitu egin dute konfederazioen berezko arriskua, baina ezin izan dute erabat desagertarazi.

Gobernu amerikarrak, esan ohi da, ez du estatuengana jotzen; bere aginduak zuzen-zuzenean hiritarregana helarazten ditu, eta borondate komunaren agindupera makurtzen ditu banaka.

Baina lege federala bortizki joango balitz estatu baten interes eta aurriritzien kontra, ez ote litzateke gero estatu horretako hiritar bakoitza, obeditzeari uko egiten dion pertsonaren kausan interesaturik sentituko? Estatuko hiritar guztiak, aldi berean eta era berean Batasuneko aginteak honela lesionaturik aurkitzean, gobernu federala alferrik saiatuko litzateke beroriek isolatzen erasotzeko; beren buruak defendatzeko elkartu egin behar dutela adieraziko lieke senak, eta beren estatuari utzitako subiranotasun-zatian horretarako prest dagoen antolamendua aurkituko lukete. Fikzioa desagertu egingo litzateke errealtateari leku emateko, eta lurralde-zati bateko botere antolatua aginte zentralaren aurka borrokan ikusiko litzateke.

Beste horrenbeste esango nuke justizia federalaz. Prozesu partikular batean Batasuneko auzitegiek estatu bateko lege garrantzizkoren bat hautsiz gero, borroka, itxurazkoa ez bada ere bai behintzat benetakoa, estatu kaltetuaren eta Batasunaren artekoa izango litzateke, lehena hiritar batek ordezkaturia, eta bigarrena bere auzitegiek<sup>160</sup>.

Mundu honetako gauzen esperientzia oso txikiaz bakarrik imajina daiteke, giza grinei asebetetzeko bidea utzi ondoren, beti eragotziko zaiela, fikzio legalen laguntzaz, bide horretaz ohartu eta balia daitezen.

Legegile amerikarrek, bi subiranotasunen arteko borrokari ahalgarritasuna kentzean, ez dituzte, hala ere, horren kausak suntsitu.

Urrutirago ere joan daiteke eta, borroka sortuz gero, botere federalari ezin izan diotela nagusitasuna ziurtatu esan daiteke.

Batasunari dirua eta soldaduak eman zizkioten, baina estatuak herrien maitasuna eta aurriritziak gorde zituzten.

Batasunaren subiranotasuna zerbait abstraktua da, kanpoko gauza gutxi batzuei bakarrik dagokiena. Estatuaren subiranotasuna zentzumen guztiek hautematen dute; nekerik gabe ulertzen da; une oro ikusten da jardunean. Bata berria da, bestea herriarekin berarekin sortua.

Batasunaren subiranotasuna artearen obra da. Estatuaren subiranotasuna berezkoa da; bere kabuz existitzen da, ahaleginik gabe, familiburuaren aginpidea bezala.

Batasunaren subiranotasunak interes handi batzuetan bakarrik ukitzen ditu pertsonak; aberri zabala ordezkatzeko du, urrutikoa, sentimendu lauso eta zehazgabea. Estatuaren subiranotasunak, nolabait ere, hiritar bakoitza inguratzen du, eguneroko xehetasunetan eraginez. Berau arduratzen da hiritarraren jabetza, askatasuna eta bizitza bermatzeaz; etengabeko eragina du horren ongizate edo atsekabeen. Estatuaren subiranotasuna oroitzapenetan, azturetan, aurriritzi lokaletan, probintzi eta famili mailako norberekoikerian oinarritzen da; hitz batean, aberri-sena giza bihotzean hain ahaltsu egiten duten gauza guztietan. Nola zalantzan jarri horren abantailak?

Sistema federalak aurrez aurre jartzen dituen bi subiranotasunen artean elkarjotze arriskutsuak gertatzea legegileek eragotzi ezin dutenez, beharrezkoa da herri konfederatuak gerratik desbideratzeko ahaleginei herri hauek bakera eramateko xedapen bereziak eranstea.

Hortik ateratzen denez, itun federalak ez luke luze iraungo, aplikatzen deneko herrietan ez balitu halako batasun-baldintza batzuk aurkituko, bizitza komun hori eroso bihurtu eta gobernu-lana errazteko modukoak.

Honela, sistema federalak, arrakasta izateko, ez ditu lege onak bakarrik behar, inguruabarrak ere aldeko izan behar ditu.



Konfederatu diren herri guztiek izan dituzte halako interes komun batzuk, elkarketaren lokarri intelektual bezala izan direnak.

Baina interes materialen gainetik, ideiak eta sentimenduak ere baditu gizakiak. Konfederazio batek luze irauteko, beharrezkoa da osatzen duten herri ezberdinen zibilizazioan eta premietan pareko homogeneousutasuna egotea. Vaud kantonamenduko eta Uri kantonamenduko zibilizazioaren artean XIX. mendetik XV.era artekoa bezalako alde dago; horregatik ez du Suitzak, egia esateko, inoiz gobernu federalik izan. Hango kantonamendu ezberdinen arteko batasuna mapan bakarrik dago; eta ongi ikusiko litzateke hori aginte zentralak lege berberak lurralde osoan aplikatu nahi izango balitu.

Estatu Batuetan bada gauza bat gobernu federalaren izatea asko errazten duena. Estatu ezberdinek gutxi gora-behera interes beretsuak eta jatorri eta hizkuntza bera izateaz gain, zibilizazio-maila bera ere badute, beren arteko akordioa ia beti gauza erraz bihurtzen duena. Ez dakit nazio europarrak dagoen, oso txikia izanik ere, bere zati ezberdinetan homogeneousutasun handiagoa duenik herri amerikarrak baino, nahiz eta honen lurraldea Europaren erdia bezain handia izan.

Maineko estatutik Georgiakoraino lauhun lekora inguru daude. Hala ere, ezberdintasun txikiagoa dago Maineko zibilizazioaren eta Georgiakoaren artean, Normandia eta Britainiakoaren artean baino. Mainek eta Georgiak, inperio zabal baten bi muturretan kokatuak, berez egiazko erraztasun gehiago aurkitzen dute konfederazioa eratzeke Normandiak eta Britainiak baino, hauek errekatxo batek bereizten dituen arren.

Herriaren ohitura eta azturek legegile amerikarrei eskaintzen zizkieten erraztasun horiei, herrialdearen kokapen geografikotik sortzen ziren beste batzuk gehitzen zitzaizkien.

Azken hauei egotzi behar zaie batez ere sistema federala hartu eta bertan iraun izatea.

Herri baten bizitza marka dezakeen egintzarik garrantzizkoenetakoa gerra da. Gerran herri batek pertsona bakarra bailitzan jokatzen du atzerrien aurrean: bere izatearen beraren alde borrokatzen da.

Arazoa herrialdearen baitan bakeari eutsi eta oparotasuna bultzatzea bakarrik den neurrian, gobernuan trebetasuna, gobernatuengan zentzutasuna eta jendeak bere aberriarekiko ia beti duen berezko atxikimendua aski izan daitezke; baina nazioa gerra handi bat egiteko egoeran aurki dadin, sakrifizio ugari eta latzak egin behar dituzte hiritarrek. Jende-kopuru handi bat bere kabuz horrelako gizarte-eskakizunak bere gain hartzeko gai izango dela pentsatzea gizadia gaizki ezagutzea da.

Horregatik, gerra handiak egin behar izan dituzten herri guztiek, ia beren gogoaren kontra, gobernuaren indarrak areagotu behar izan dituzte. Hori lortu ez zutenak menperatu egin zituzten. Gerra luze batek ia beti aukerabide triste honetan jartzen ditu nazioak: porrotak suntsipenera eramaten ditu, eta garaipenak despotismora.

Normalean gerran azaltzen da, beraz, erarik nabarien eta arriskutsuenean gobernuaren ahulezia; eta erakutsi dut gobernu federalei berez dagokien akatsa oso ahulak izatea zela.

Sistema federalean, zentralizazio administratiborik edo antzekorik ezer ez egoteaz gain, gobernu-zentralizazioa bera ere osagabea izaten da, eta hau beti da ahuleziaren eragile handia, zentralizazio hori oso-osoa duten herrien aurka defendatu beharra dagoenean behintzat.

Estatu Batuetako Konstituzio federalean, guztien artean gobernu zentralak benetako indar gehien duen horretan ere, biziki nabaritzen da gaitz hori.

Adibide bakar bat aski izango da irakurleak juzga dezan.

Matxinada zapaldu edo inbasioari aurre egiteko, estatu ezberdinetako miliziarri zerbitzu aktibora dei egiteko eskubidea ematen dio Konstituzioak Kongresuari; beste artikulua batek dioenez, kasu honetan Estatu Batuetako lehendakaria da milizia horren aginteburu.

1812ko gerran, lehendakariak mugetara joateko agindua eman zien iparraldeko miliziei. Connecticutek eta Massachusettsek uko egin zioten beren jendea bidaltzeari, gerrak beraien interesak kaltetzen zituela eta.

Esan zutenez, Konstituzioak *matxinada* edo *inbasio* kasuan bakarrik ematen zion gobernu federalari miliziez baliatzeko baimena; eta ez zegoen, une hartara arte, ez matxinadarik, ez inbasiorik. Gainera, miliziei zerbitzu aktibora dei egiteko eskubidea Batasunari ematen zion Konstituzio berak, ofizialak izendatzeko eskubidea estatuei uzten ziela erantsi zuten; hortik ondorioztatzen zen, haien ustez, gerran ere Batasuneko ofizialek ez zutela milizien gain agintzeko eskubiderik, lehendakariak berak izan ezik. Nolanahi ere, ez honen, baizik eta beste baten, agindupeko armadan zerbitzatu beharra zegoen orduan.

Doktrina zentzugabe eta suntsitzaile hauek gobernari eta legislatiboaren onespenez gain, bi estatuetako justizi auzitegia ere izan zuten; eta gobernu federalak beste nonbait aurkitu behar izan zituen falta zitzaizkion guda-losteak<sup>161</sup>.

Zergatik, bada, Batasun amerikarra, bere legeen perfekzio erlatiboaz babesturik egon arren, ez da desagiten gerra handi baten erdian? Ez duelako zertan gerra handien beldur izan.

Kontinente handi baten erdian kokatua, non giza industria mugarik gabe heda daitekeen, Batasuna, ia alde guztietatik ozeanoak inguratuko balu bezain isolaturik dago mundutik. Milioi bat biztanle besterik ez du Kanadak; biztanleak bi nazio etsaitan banaturik ditu. Klimaren gogortasunak lurraldearen hedadura mugatzen du eta sei hilabetez ixten ditu hango itsasportuak.

Kanadatik Mexikoko itsasgolkora badira oraindik tribu basati batzuk, erdi suntsituta, sei mila soldaduk aurrean darabiltzatenak.

Hegoaldean, Batasunak puntu batean ukitzen du Mexikoko inperioa; seguraski hortik etorriko dira egunen batean gerra handiak. Baina oraindik luzaroan, zibilizazioaren aurrerapen eskasak, ohituren ustelkeriak eta lazeriak nazioen artean goi-maila lortzea eragotziko diote Mexikori. Europako potentziei dagokienez, urrutiegi daude beldurgarri izateko (O).

Estatu Batuen zorion handia ez datza, beraz, gerra handiak egiteko aukera ematen dien Konstituzio federala aurkitu izatean, beren kokalekuagatik gerra horien beldurrik ez izatean baizik.

Ezin inork nik baino gehiago preziatu sistema federalaren abantailak. Sistema horretan, giza oparotasun eta askatasunaren aldeko konbinazio indartsuenetako bat ikusten dut. Inbidia ematen dit sistema hori berenganatu ahal izan duten nazioen zoriak. Hala ere, ezin dut sinetsi herri konfederatuak luzaroan borroka daitezkeenik gobernu-boterea zentralizatua duen nazio baten kontra, indarrak berdinduta badituzte.

Europako monarkia militar handien aurrean herri batek bere subiranotasuna zatituko balu, horregatik bakarrik, bere botereari -eta bere izateari eta izenari agian- uko egiten diola irudituko litzaidake.

Egoera miresgarria Mundu Berriarena, non gizakiak ez duen oraindik bere buruaz beste etsairik! Zoriontsu eta aske izateko, nahikoa du nahi izatea.

Orain arte erakundeak aztertu ditut, lege idatziak azaldu ditut, Estatu Batuetako gizarte politikoaren egungo formak marraztu ditut.

Baina erakunde guztien gainetik eta forma guztiez kanpo badago botere subirano bat, herriarena, horiek bere nahierara suntsitzen edo aldatzen dituen.

Lege-menderatzaile den botere honek nola jokatzen duen ezagutaraztea falta zait; zein diren beronen sen eta grinak; zein eragingarri ezkutuk bultzatzen, atzerarazten edo gidatzen duen bere geldiezinezko aurrerabidean; zer ondorio sortzen duen berorren guztiahalak, eta zer-nolako etorkizuna dagokion.

Oharrak

A) Oraindik europarrak sartu ez diren mendebaldeko lurralde guztiei buruz, ikus Long maiorrak eginiko bi bidaiak, gastuak Kongresuak ordainduta.

Eremu edo basamortu amerikar handiari buruz, Mr. Longek dio, batez ere, Red ibaitik hasi eta Plate ibairaino lerro bat marraz daitekeela luzerako 20. graduarekin ia paraleloan (Washingtoneko meridianoa<sup>162</sup>). Imajinaturiko lerro honetatik Mississippi harana mendebaldean mugatzen duten Mendi Harritsuetaraino egundoko lautadak hedatzen dira, normalean nekazaritzarako landu ezin den hareaz estaliak edo granito-harriz josiak. Udan urik ere ez dute izaten. Bufalo eta basa zaldien talde handiak bakarrik aurkitzen dira bertan. Indioen andana batzuk ere ikusten dira, baina ez asko.

Long maiorrak entzuna zuen esaten Plate ibaia baino gorago joanez gero, norabide berean, beti eremu berbera aurkitzen zela ezkerretara; baina ezin izan zuen berak datu honen zehaztasuna egiaztatu. *Long's Expedition*, II. bol., 361. or.

Long maiorraren kontaketak konfiantza merezi duen arren, ez da, hala ere, ahaztu behar aipatzen duen herrialde hori berak zeharkatu baino ez zuela egin, jarraitzen zuen lerrotik kanpo sigi-saga handirik egin gabe.

B) Hego Amerikak, tropikoarteko eskualdeetan, ikaragarritzko joritasunez sortzen ditu "aihen" izen orokorraz ezagutzen diren landare igokari horiek. Antilletako florak berak bakarrik baditu berrogei mota ezberdin baino gehiago.

Zuhaiska hauetako lirainen artean granadaxoa dago. Landare polit hau, hala dio Descourtiz-ek Antilletako landaretza deskribatzean, kiribil batzuen bidez zuhaitzei atxikitzen zaie, eta arkudura mugikorrek eratzen ditu, zutabe jori eta, apaingarri dituzten lore gorrimin eta urdinen edertasunagatik, dotoreak, lurrin gozo paregabea botatzen dutenak; I. bol., 265. or.

Zorro handiko akazia oso liana lodia da, bizkor garatzen dena eta, zuhaitzetik zuhaitzera igaroz, batzuetan lekoa erdi baino gehiago estaltzen duena; III. bol., 227. or.

### C) HIZKUNTZA AMERIKARREI BURUZ

Arktiar polotik Hornos lurmuturreraino Amerikako indioek hitz egiten dituzten hizkuntzak, denak eredu bat beraren arabera eraturik daudela esan ohi da, eta gramatika-arau berberen menpe; egiantz handiz ondoriozta daiteke hortik, indioen nazio guztiak jatorri berekoak direla.

Kontinente amerikarreko leinu bakoitzak dialekto ezberdin bat hitz egiten du, baina hizkuntza-hizkuntzak oso gutxi dira, honek ere frogatuko lukeelarik Mundu Berriko herriek ez dutela oso jatorri zaharra.

Azkenik, Amerikako hizkuntzek erregularitasun itzela dute; litekeena da, beraz, horiek erabiltzen dituzten herriek oraindik iraultza handirik ez jasan izatea, eta atzerriekin, beharturik edo beren borondatez, ez nahastu izatea; zeren eta, normalean, zenbait hizkuntza bat bakarrean elkartzeak sortzen baititu gramatika-irregularitasunak.

Ez da denbora asko hizkuntza amerikarrek, eta Ipar Amerikako hizkuntzek batez ere, hizkuntzalarien benetako arreta erakarri dutela. Horrela jakin da, lehen aldiz, herri basati baten hizkuntza hori ideia oso konplikatu eta oso konbinazio jakintsuen sistema baten emaitza zela. Ikusi zen, halaber, hizkuntza hauek oso aberatsak zirela eta entzumenarentzako ezintasuna oso kontuan hartu zela beroriek eratzekoan.

Amerikarren gramatika-sistema hainbat puntutan ezberdintzen da beste guztietatik, baina batez ere ondorengo honetan.

Europako herri batzuek, beste batzuen artean alemanek, adiera ezberdinak konbinatzeko ahalmena dute behar izanez gero, honela zentzu konplexua emanez zenbait hitzi. Indioek erarik harrigarrienean hedatu zuten ahalmen hau eta, nolabait esateko, puntu bakar batean ideia-kopuru handia finkatzera iritsi ziren. Hau erraz ulertuko da M.

Duponceauk bere *Mémoires de la Société Philosophique d'Amérique* delakoan aipatzen duen adibide baten bidez.

Emakume delaware bat katu edo txakur batekin jolasean ari denean, batzuetan *kuligatschis* hitza esaten duela entzuten da. Honela osaturik dago hitz hau: *k* bigarren pertsonaren adierazle da, eta *zu* edo *zure* esan nahi du; *uli*, *ouli* ahoskatzen dena, *wulit* hitzaren zati bat da, *eder*, *polit* esan nahi duena; *gat*, *wichgat* hitzaren beste zati bat da, eta *hanka* esan nahi du; eta azkenik *schis*, *chise* ahoskatzen dena, hitz-amaiera txikigarria da, berekin txikitasunaren ideia daramana. Honela, hitz bakar batean, "zure hankatxo polita" esan du emakume indioak.

Hona hemen beste adibide bat, Amerikako basatiek hitzak zein ongi asmatzen zituzten erakusten duena.

Mutil gazte, delaware hizkuntzan, *pilapé* esaten da. Hitz hau garbi, errugabe esan nahi duen *pilsit* hitzaz, eta gizon esan nahi duen *lénapé* hitzaz osaturik dago, hau da, gizona bere garbitasun eta errugabetasunean.

Hitzak beren artean konbinatzeko ahalmen hau oso era bitxian nabarmentzen da aditz-eraketan. Ekintzarik konplikatuena aditz bakarraren bidez adierazten da sarritan; ideia-eraberraketa ia guztiek aditzari eragiten diote eta aldarazi egiten.

Nik oso gaingiroki baizik ukitu ez dudan gai hau zehaztasun handiagoz aztertu nahi duenak ondorengoak irakurri behar ditu:

1.º M. Duponceauk Rev. Hecwelder-ekin izandako posta-trukea, indioen hizkuntzei buruz. Gutun hauek *Mémoires de la Société Philosophique d'Amérique* delakoaren lehen bolumenean daude, Filadelfian, 1819an, Abraham Small-en inprimategian argitaratuak, 356-464. orr.

2.º Delaware edo lenape hizkuntzaren gramatika, Geiberger-ena, eta M. Duponceauk erantsitako hitzaurrea. Bilduma berean dago dena, III. bol.

3.º Lan hauen laburpen bat, oso ongi egina, *Entziklopedia amerikarra*-ren VI. bolumenaren bukaeran dagoena.

D) Charlevoix-en I. tomoko 235. or. an dago Kanadako frantsesek 1610ean irokiarren kontra egin behar izan zuten lehen gerraren historia. Hauek, nahiz eta geziz eta uztaz armatuak egon, etsi-etsian kontra egin zieten frantsesei eta hauen aliatuei. Charlevoixek, kontalari ona ez izan arren, oso ongi ikusarazten du ondorengo pasartean europarren eta basati haien ohituren artean zegoen aldea, baita ohorea ulertzeko bi arraza hauek zituzten era ezberdinak ere.

"Han zeuden irokiarren gorpuak estaltzen zituzten kastore-larruazalez jabetu ziren frantsesak. Hauen aliatu huroiak zeharo eskandalizatu ziren jokaera hori ikustean. Baina hauek, beren aldetik, ohiko ankerkeriak egiten hasi ziren presoekin, eta hildakoetako bat jan zuten, frantsesak zeharo izuaraziz. Honela, gaineratzen du Charlevoixek, barbaro haiek harro zeuden beren ondasun-goserik ezaz, txundituta gure herrian aurkitzen ez zutelako, eta ez zuten ulertzen hildakoak biluztea hobea zenik berauen haragiaz, basapiztia ankerrak bezala, asetzea baino".

Charlevoixek berak, beste pasarte batean, I. bol.eko 230. or. an, honela azaltzen du Champlainek ikusi zuen lehen suplizioa, eta huroiak nola itzuli ziren beren herrira.

"Zortzi lekoka egin ondoren, dio berak, gure aliatuak gelditu egin ziren, eta, preso zeramatenetako bat harturik, beren nazioko gerlariei -haien esku jausitakoei- egindako ankerkeria guztiak leporatu zizkioten, eta era berean tratatua izatea espero behar zuela esan zioten, bihotzik baldin bazuen, abestuz erakutsiko zuela gaineratuz. Orduan, bere gudu-kanta hasi zuen berehala, eta zekizkien beste guztiak, baina oso doinuera tristeaz, dio Champlainek, artean honek ez baitzuen denborarik izan jakiteko basatien musika guztiak duela halako goibeltasun bat. Presoaren oinazeak, ondoren aipatuko ditugun izugarrikeria guztiekin, izutu egin zituen frantsesak, ahalegin guztiak egin zituztelarik

alfer-alferrik hura amaiarazteko. Hurrengo gauean, atzetik jarraika zebilzkiela amets egin zuelarik huroi batek, erretirada benetako ihesaldi bihurtu zen, eta basati haiek ez ziren gelditu arrisku guztietatik libre egoteko moduko lekuan izan arte.

"Beren herriko etxolak begiztatu orduko, makila luzeak moztu eta haietan lotu zituzten banaketan egokitutako adatsak, garaitikur bezala eramanez. Hau ikustean, emakumeak lasterka irten zitzaizkien bidera, uretara igerian oldartu eta, kanoetara iritsi ondoren, artean odoletan zeuden adatsak senarren eskuetatik hartu eta lepotik zintzilikatu zituzten.

"Gerlariak Champlaini eskaini zioten trofeo beldurgarri haietako bat, eta uztai eta gezi batzuk ere oparitu zizkieten gainera, irokiarrei kendu nahi izan zizkieten harrapakin bakarrak, eta Frantziako erregeari erakusteko erregutu zioten".

Champlaineak bakar-bakarrak eman zuen negu oso bat basati haien artean, ez bera eta ez beraren gauzak une batez ere arriskuan egon gabe.

E) Amerikako kolonia ingelesaren sorreran egon zen hertsitasun puritanoa dagoeneko asko ahuldu den arren, oraindik ere aztarna harriarriak aurkitzen dira aztura eta legeetan.

1792an, Frantziako errepublika antikristauak bere izatealdi iragankorra hasten zuen garai berean, Massachusettseko gorputz legegileak ondoren irakurriko duzuen legea aldarrikatu zuen, hiritarrak igandea gordetzera behartzeko. Hona hemen legearen atarikoa eta xedapen nagusiak, irakurlearen arreta osoa merezi dutenak:

"Kontuan izanik, dio legegileak, igandea gordetzea interes publikokoa dela; etenaldi onuragarria sortzen duela lanean; bizitzako eginbeharrei eta gizadiak hain bereak dituen hutsegiteei buruz gogoeta egiteko aukera ematen diela gizakiei; pribatuan nahiz publikoan, unibertsoaren egile eta gobernari den Jainkoa ohoratzeak aukera ematen duela, baita kristau-gizartearen edergarri eta aringarri diren karitatezko egintzak egiteko ere;

"kontuan izanik pertsona erlijioz gabe edo arinek, igandea ezartzen dituen betebeharrak eta hortik gizarteak ateratzen duen abantaila ahaztuz, egun honen santutasuna profanatzeko dutela beren buruak atseginetara edo lanera emanez; jokabide hau, kristau bezala beraiek dituzten interesen kontrakoa dela; gainera, portaera hau haien jarraibideari segitzen ez diona asaldarazteko modukoa dela, eta gizarte osoari benetako kaltea eragiten diola, lasaikeria eta aztura zabarretarako joera sartzen diolako bere baitan.

"Senatuak eta Ordezkarien Ganbarak ondorengo agintzen dute:

1.º Inork ezingo du igandean bere denda edo lantegia zabalik izan. Inork ezingo da egun horretan inolako lan edo negozioz arduratu, ezta ezelako kontzertu, dantza edo ikuskizunetara joan ere, ezta edozein motatako ehizik, joko edo jolasik egin ere, bestela isuna ezar dakioke eta. Isuna ez da 10 txelinekoa baino txikiagoa izango, ezta 20koa baino handiagoa ere, arau-hauste bakoitzeko.

2.º Bidaiari, gidari edo gurtzainak, beharrezko kasuan izan ezik, ezingo du igandean bidaiatu, bestela isun bera jasan dezake.

3.º Tabernariak, txikikako dendariak eta ostalariak eragotzi egingo dute beren udalerrian bizi den inork igandean beraingana joan dadin, atsegin edo negoziotan denbora pasatzeko. Arau hau hautsiz gero, ostalariak eta ostariak biek ordainduko dute isuna. Gainera, ostalariak bere baimena gal dezake.

4.ª Osasunez ongi izanik eta bidezko arrazoirik gabe, hiru hilabetez Jainkoari gurtza publikorik ematen ez dionak 10 txelineko isuna izango du.

5.ª Tenpluaren esparruan behar bezalako jokabidea izaten ez duenak 5 txelinetik 40ra bitarteko isuna ordainduko du.

6.<sup>a</sup> Lege hau betearazteko ardura udalerrietako tythingmen-ek<sup>163</sup> izango dute. Hauek igandean ostatu eta leku publiko guztiak bisitatzeko eskubidea dute. Bere etxera sartzen uzten ez dien ostalariak, horregatik bakarrik, 40 txelineko isuna izango du.

"Tythingmen-ek geldiarazi egin beharko dituzte bidaiariak, eta igandean bidaiatzera behartu dituen zergatia jakin. Erantzuteari uko egiten dionak 5 libra esterlinako isuna izan dezake.

"Bidaiariak emandako arrazoia ez bazaio nahikoa iruditzen tythingman-ari, honek kantonamenduko bake-epailearen aurrera eramango du aipatu bidaiaria". *1792ko martxoaren 8ko Legea. General Laws of Massachusetts*, I. bol., 410. or.

1797ko martxoaren 11n lege berri batek gehitu egin zituen isun-tasak, berauen erdia gaizkilea pertsegitzen zuenarentzat izango zelarik. *Bilduma bera*, I. bol., 535. or.

1816ko otsailaren 16an lege berri batek berretsi egin zituen lege hauek berauek. *Bilduma bera*, II. bol., 405. or.

Antzerako xedapenak daude New Yorkeko estatuko legeetan, 1827an eta 1828an berrikusiak. (Ikus *Revised Statutes*, 1. zatia, XX. kap., 675. or.). Esaten da igandean inork ezingo duela ehizan, arrantzan edo jokoan egin, ezta edaritegietara joan ere. Inork ezingo du bidaiatu, beharrezko kasuan izan ezik.

Hauek ez dira lehenengo migrari haien erlijio-izpirituak eta ohitura hertsiek legeetan utzitako aztarna bakarrak.

New Yorkeko estatuko estatutu berrikusietan, I. bol.eko 662. or.an, ondorengo artikulua agertzen da:

"Hogeita lau orduko epean, jokoan edo apostuan 25 dolar (132 libera gutxi gora-behera) galdu edo irabazten dituenak, delitu baten (*misdemeanor*) erruduntzat joko da, eta, egitatea frogatu ondoren, irabazi edo galdutako balioaren bost halakoko isuna ezarriko zaio gutxienez; isun hau udalerriko behartsuen begiralearen esku utziko da.

"25 dolar edo gehiago galtzen dituenak justiziaren aurrera jo dezake berreskuratzeko. Ez badu hori egiten, behartsuen begiraleak auzia jar dezake irabazlearen kontra eta irabazitako kopurua eta hiru halako ematera behartu dezake behartsuen onurarako".

Oso berriak dira aipatu ditugun lege hauek; baina nork ulertu ahal izango lituzke kolonien jatorriraino bertaraino jo gabe? Ez dut zalantzarik gaur egun legeria honen alde penala oso gutxitan aplikatzen dela; legeek beren zurruntasunari eusten diote, ohiturak garai berrietara egokitu ondoren ere. Hala ere, igandea gordetzea da atzerritarra oraindik ere bizikien harritzen duena Amerikan.

Bada, batez ere, hiri amerikar handi bat, non larunbat arratsetik aurrera gizarte-mugimendua bertan behera bezala gelditzen den. Helduentzat negoziotarako eta gazteentzat atseginetarako egokiena dirudien orduan handik ibiltzen bazarete, erabateko bakardadean aurkituko zarete. Inork ere lanik ez egiteaz gain, inor ere ez dela bizi ematen du. Ez da lan-mugimendurik entzuten, ez poz-oihurik, ezta hiri handien baitatik etengabe sortzen den murmurio nahasi hori ere. Kateak jartzen dira eliz inguruetan; etxeetako kontraleihoek, erdi itxita, nekez uzten dute eguzki-izpirik sartzen hiritarren bizilekuan. Noizean behin gizon bakartiren bat ikusten da, bidegurutze hutsetan zehar eta kale abandonatuetan aurrera hotsik atera gabe joaten.

Biharamun goizean, egunsentian, zalgurdien gupil-hotsa, mailuen zarata eta jendearen deiadarrak entzuten dira berriro; hiria itzartu egiten da; jendeak zalapartaka merkatal eta industri guneetara jotzen du; dena mugitzen da, dena asaldatzen, dena lasterka hasten zuen inguruan. Lozorroaren ondoren ikaragarritzko ekin-beharra sortzen da; esan liteke bakoitzak egun bakarra baino ez duela aberastasuna eskuratu eta gozatzeko.

F) Esan beharrik ez dago, irakurri berri den kapituluan nire asmoa ez dela izan Amerikako historia egitea. Nire helburu bakarra, irakurlea lehenengo migrarien iritziek eta ohiturek kolonia ezberdinen eta oro har Batasunaren zorian izan zuten eragina

baloratzeko egoeran jartzea izan da. Beraz, pasarte solte batzuk aipatzera mugatu behar izan dut.

Ez dakit oker nabilen, baina iruditzen zait, hemen adierazi besterik egiten ez dudan bideari jarraituz, aurkeztu ahal izango litzatekeela errepublika amerikarren lehen garaietako deskribapenik, jendearen arreta erakartzeko eta estatu-gidariei hausnargaia emateko modukorik, zalantzarik gabe. Nik neuk ezin dudanez lan hori egin, gutxienez beste batzuei erraztu nahi izan diet. Hortaz, iruditzen zait beharrezkoa dela hemen nomenklatura motz bat aurkeztea eta azterketarako interesgarrien iruditzen zaizkidan obren analisi labur bat egitea.

Onuraz kontsulta daitezkeen dokumentu orokorren artean, lehenik honako hau sartuko dut: *Historical Collection of State Papers and other authentic documents, intended as materials for an history of the United States of America, by Evenezer Hazard.*

Bilketa honen lehen bolumenean, 1792an Filadelfian inprimatua, Ingalaterrako koroak migrariei emandako karta guztien kopia testuala dago, baita kolonietako gobernuen hasiera-hasierako akta nagusiak ere. Beste batzuen artean, Ingalaterra Berriko eta Virginiako garai hartako arazoei buruz benetako dokumentu asko dago bilduman.

Bigarren bolumenak, ia oso-osorik, 1643ko konfederazioko aktak biltzen ditu. Indioei aurre egiteko Ingalaterra Berriko kolonien artean egindako itun federal hau angloamerikarren batasunaren lehen kasua izan zen. Geroztik izaera bereko beste konfederazio batzuk ere izan ziren, kolonien independentzia ekarri zuen 1776kora arte.

Filadelfiako bilduma historikoa Errege Liburutegian aurkitzen da.

Kolonia bakoitzak ditu gainera bere monumentu historikoak, hauetako batzuk oso baliotsuak. Virginiatik hasiko dut neure azterketa, lehenengo jendeztatu zen estatua baita.

Virginiako historialari guztien arteko lehena beraren fundatzailea izan zen, Jean Smith kapitaina. Smith kapitainak laurdeneko bolumen bat utzi digu, izenburu honekin: *The General History of Virginia and New England, by Captain John Smith, some time governor in those countryes and admiral of New England*, Londresen 1627an inprimatua. (Bolumen hau Errege Liburutegian dago). Smithen obra, inprimatu zen garaiko mapa eta grabatu oso bitxiz hornitua dago. Historialariaren kontaketa 1584tik 1626ra artekoa da. Smithen liburua estimatua da, eta merezi du. Autorea abenturaz beteriko mende hartan agertu zen abenturaririk ospetsuenetako bat da, mendearen azkenaldera bizi izan zelarik; liburuak berak badu garai hartako jendeak aurkikuntzekiko sentitzen zuen zaletasunaren eta enpresa-izpirituaren kutsua; bertan aurkitzen dira negozioarekin nahasten eta aberastasunak eskuratzeko erabiltzen ziren zaldun-ohiturak.

Baina Smith kapitainagan azpimarragarriena zera da, batez ere: bere garaikideen bertuteei haien arteko gehienek izan ez zituzten kalitateak erantsi zizkiela; beraren idazkera xume eta garbia da, kontaketa guztiek egiaren zigilua dute, deskribapenek ez dute apaingarririk.

Autore honek balio handiko argitasunak ematen ditu Ipar Amerika aurkitu zen garaiko indioen egoeraz.

Kontsultatu beharreko bigarren historialaria Beverley da. Beverleyren obra, 12reneko bolumena osatzen duena, frantsesera itzuli zen eta 1707an Amsterdamen inprimatu. Autorea 1585ean hasten ditu bere kontaketak eta 1700ean amaitzen. Liburuaren lehen zatian, zehatz esanda historikoak diren dokumentuak daude, koloniaren haurtzaroari buruzkoak. Bigarrenak aspaldiko garai hartako indioen egoerari buruzko ikuspegi bitxia ematen du. Hirugarrenak oso ideia garbiak ematen ditu autorearen garaiko virginiarren ohitura, gizarte-egoera, lege eta aztura politikoei buruz.

Beverley Virginiakoa zen sortzez, eta honek esanarazten dio hasieran, "beraren obra kritika zorrotzegiz ez aztertzeko erregutzen diela irakurleei, bera Indiatan jaioa izanik, ez duelako hizkuntz garbitasunerako asmorik". Kolonoaren apaltasun hau gora-behera, autoreak obran zehar garbi uzten du arrenkuraz jasaten duela ama aberriaren nagusitasuna. Halaber, Amerikako kolonia ingelesek jada orduan bizi zuten askatasun zibilaren izpiritu horren aztarna asko aurkitzen da Beverleyren obran. Bestalde, haien artean hain luzaroan egon eta independentzia atzeratu zuten banaketen arrastoak ere aurkitzen dira bertan. Beverleyk higuina die bere auzoko Marylandeko katolikoei, gobernu ingelesari baino ere gehiago. Autore honen idazkera xumea da; beronen kontaketak interes handikoak dira sarritan eta sinesgarritasuna dute. Beverleyren historiaren itzulpen frantsesa Errege Liburutegian dago.

Kontsultatzea mereziko lukeen beste obra bat ere ikusi dut Amerikan, baina ezin izan dut Frantzia aurkitu; izenburua: *History of Virginia, by William Stith*. Xehetasun bitxiak ematen ditu liburu honek, baina luze eta zehazgabe samarra iruditu zait.

Carolinetako historiari buruz kontsulta daitekeen dokumenturik antzinakoena eta onena laurdeneko liburutxo bat da; izenburua: *The History of Carolina, by John Lawson*, Londresen 1718an inprimatua.

Lawsonen obran lehenik Carolinaren mendebaldean egindako aurkikuntza-bidaia bat dago. Bidaia egunkari moduan dago idatzia; autorearen kontaketak nahasiak dira; oharpenak oso axalekoak; garai hartako basatien artean nafarrieriak eta pattarrak eragiten zuten hondamenaren ikuspegi zirraragarria bakarrik aurkitzen da, baita haien arteko ohitura-ustelkeriaren deskribapen bitxia ere, europarren presentziak areagotzen zuena, hain zuzen.

Lawsonen obraren bigarren zatiak Carolinaren egitura fisikoa azaltzen du, eta hango produkzioa ezagutarazten.

Hirugarren zatian, garai hartako indioen ohitura, usadio eta gobernuaren deskribapen interesgarria egiten du autoreak.

Liburuaren zati honetan gatz eta originaltasun handiko pasarteak daude sarri.

Lawsonen liburua Charles II.aren garaian Carolinari emandako kartaz amaitzen da.

Obra honen tankera orokorra arina da, lizun samarra sarritan, eta garai berean Ingalaterra Berrian argitara emandako obren idazkera serioaren aldean oso bestelakoa.

Lawsonen historia oso dokumentu bakana da Amerikan, eta eskuraezina Europan. Hala ere, bada ale bat Errege Liburutegian.

Estatu Batuen hegoaldeko muturretik iparraldeko muturrera noa berehala. Bitartekoa geroago jendeztatu zen.

Lehenik bilduma oso bitxi bat aipatu behar dut; izenburua: *Collection of the Massachusetts Historical Society*, lehen aldiz 1792an Bostonen inprimatua, eta 1806an berrargitaratua. Obra hau ez dago Errege Liburutegian, ezta, nire ustez, beste inon ere.

Bilduma honetan (oraindik jarraitzen du) balio handiko dokumentu asko dago Ingalaterra Berriko estatu ezberdinei buruz. Eskutitz argitaragabeak eta artxibategi probintzialetan ahaztuta zeuden benetako piezak daude han. Indioei buruzko Gookin-en obra osoa sartu da bertan.

Ohar honi dagokion kapituluari zehar hainbat aldiz aipatu dut Nathaniel Mortonren obra; izenburua: *New-England's Memorial*. Esan dudana aski da Ingalaterra Berriko historia ezagutu nahi duenaren arreta erakartzea merezi duela frogatzeko. Nathaniel Mortonren liburua 8reneko bolumen bat da, 1826an Bostonen berrargitaratua. Ez dago Errege Liburutegian.

Ingalaterra Berriko historiari buruz dagoen dokumenturik preziatuen eta garrantzizkoena Rev. Cotton Mather-en obra da; izenburua: *Magnalia Christi*



*Americana, or the ecclesiastical history of New-England*, 1620-1698, 2 bol. 8reanean, 1820an Hartford-en berrargitaratuak. Ez dut uste Errege Liburutegian dagoenik.

Autoreak zazpi liburukitan banatu du bere obra.

Lehenak Ingalaterra Berriaren fundazioa prestatu eta eragin zuenaren historia azaltzen du.

Bigarrenak herrialde hura administratu zuten lehen gobernari eta magistratu nagusien bizitza dauka.

Hirugarrena garai berean han arimak zuzendu zituzten ministro ebanjelikoen bizitza eta lanari buruzkoa da.

Laugarrenak Cambridgeko (Massachusetts) Unibertsitatearen sorrera eta garapena ezagutarazten ditu.

Bosgarrenean Ingalaterra Berriko Elizaren printzipioak eta diziplina azaltzen ditu.

Seigarrena, berriz, Matherren arabera, Ingalaterra Berriko biztanleen gain Probidentziaren ekintza ongilea erakusten duten zenbait egitate azaltzeko da.

Zazpigarrenean, azkenik, Ingalaterra Berriko Elizak jasan behar izan zituen heresia eta arazoak berri ematen digu autoreak.

Cotton Mather ministro ebanjelikoa zen, Bostonen jaio eta bere bizitza han igaro zuena.

Ingalaterra Berriaren fundazioa eragin zuten erlijiozko sugar eta grina guztiak daude haren kontaketen muin eta bizitasunean. Sarri gustu txarreko aztarnak aurkitzen dira haren idazkeran; baina erakargarria da, gogoberotasunez betea egonik, azkenean irakurleari pasarazten baitio. Sarritan jasangogorra da, sarriagotan sinesbera; baina inoiz ez zaio engainatzeko gogorik sumatzen; batzuetan baditu haren obrak pasarte ederrak eta benetako gogoeta sakonak, ondorengoak bezalakoak:

"Puritanoak iritsi baino lehen", dio I. bol.ean, IV. kap. an, 61. or. an, "ingelesak hainbat aldiz saiatu ziren gu bizi gareneko herrialdea jendeztatzen; baina beren interes materialen arrakastaz gorago begiratzen ez zutenez, eragozpenek laster hartu zituzten menpean; ez zen horrela gertatu goiburu erlijiosoak bultzaturik eta sostengaturik Amerikara iritsi zirenekin. Agian beste kolonia-fundatzaile guztiek sekula aurkitu dituzten baino etsai gehiago aurkitu bazituzten ere haiek, beren egitasmoari eutsi egin zioten, eta haiek egindako establezimenduak oraindik ere iraun egiten du gaur egun".

Batzuetan Mather-ek goxotasun eta samurtasunez beteriko irudiak tartekatzen ditu bere koadroen gogortasunean. Erlijio-suak senarrarekin batera Amerikara eramanez zuen eta erbestaldiko neke eta ezbeharrek laster lurperatu zuten andre ingeles bati buruz hitz egin ondoren, gaineratzen du:

"Senar bertutetsua, Isaac Johnson, bera gabe bizitzen saiatu zen, baina ezin izan zuen lortu eta laster hil zen" (I. bol., 71. or.).

Matherren liburuak oso ederki ezagutarazten ditu deskribatu nahi dituen garaia eta herrialdea.

Itsasoz harantz babesleku bila puritanoak zerk eramanez zituen jakinarazi nahi digunean, honela dio:

"Zeruko Jainkoak bere herritarren artean Ingalaterran bizi zirenei dei egin zien. Elkar sekula ikusi ez zuten milaka pertsonari aldi berean hitz eginez, beren aberrian zeuzkaten bizi-erosotasunak bertan behera uzteko eta ozeano beldurgarria zeharkatuz eremu izugarriagoetan ezartzera joateko irrikaz bete zituen, han oztoporik gabe beraren legeetara makur zitezen helburu bakarraz.

"Urrutirago joan aurretik, gaineratzen du, on da ezagutaraztea zeintzuk izan ziren ekimen honen zioak, ondorengoek ongi ulertzen; batez ere, garrantzizkoa da gaur egungo jendea horiek gogoraraztea, gurasoek lortu nahi zuten helburua bistatik galdu eta Ingalaterra Berriaren benetako interesak ahaz ez ditzaten. Zio hauetako batzuk garai hartako eskuizkribu batean agertzen diren bezala jarriko ditut hemen.

"Lehen zioa: Elizari zerbitzu handia egitea litzateke munduko alderdi honetara (Ipar Amerikara) Ebanjelioa ekartzea eta hemen gotorleku bat eraikitzea fededunak Antikristoaren aurka babesteko, zeinen inperioa ezarri nahi baita unibertsoaren gainerakoan.

"Bigarren zioa: Europako beste Eliza guztiak jo ditu hondamenak, eta beldur izatekoa da gurearen kontra ere Jainkoak ez ote duen epai berbera eman izango. Nork daki ez ote duen leku hau (Ingalaterra Berria) prestatu suntsipen orokorretik salbatu nahi dituenen babesleku izateko?

"Hirugarren zioa: Bizi gareneko herrialdeak nekatua dirudi bere biztanleez; hemen gizakiak, izaki guztien arteko baliotsuenak, hankapean zapaltzen duen lurak baino gutxiago balio du. Zama astuntzat hartzen da seme-alabak, auzokoak, lagunak izatea; ihes egiten zaio behartsuari; eta ordena naturalari jarraituz gero mundu honetako atsegini handienak eragin beharko litzateke baztertu egiten du jendeak.

"Laugarren zioa: Gure grinak iritsi dira puntu bateraino, non ez dagoen ondasunik pertsona batek bere parekoen artean bere mailari eutsi ahal izateko modukorik. Eta, hala ere, hori lortzen ez duena gutxiesgarri bihurtzen da; ondorioz, bidegabeki aberastea bilatzen da lanbide guztietan, eta nekeza gertatzen zaio jende zintzoari eroso eta desohorerik gabe bizitzea.

"Bosgarren zioa: Zientziak eta erlijioa irakasten direneko eskolak hain usteldurik daudenez, haurrik gehienak -eta sarritan onenak, bikainenak eta itxaropenik sendoenak sortarazten zituztenak- zeharo galbideraturik daude ikusten duten eredu txar askorengatik eta inguruan duten lizunkeriagatik.

"Seigarren zioa: Ez al da lur osoa Jainkoaren baratza? Ez al die Jainkoak Adanen seme-alabei eman, landu eta edertu dezaten? Zergatik uzten ditugu lekuri ezagatik geure buruak goseak hiltzen, lurralde zabalak, gizakiak erabiltzeko egokiak, jenderik gabe eta landu gabe daudenean?

"Zazpigarren zioa: Eliza erreformatu bat sortu eta beronen hastapenetan sostengatzea; berau sendotu, aurrerarazi eta arriskuetatik -eta laguntza hau gabe agian izango lukeen erabateko hondamenditik- salbatzeko gure indarrak herri zintzoarenarekin elkartzea; ba ote hau baino eginkizun bikain eta ederragorik, kristau batentzat zeregin duinagorik?

"Zortzigarren zioa: Jainkozaletasun ezaguneko pertsonak, eta hemen (Ingalaterran) aberastasunaren eta zorionaren erdian bizi direnak, abantaila hauek Eliza erreformatu horren ezarpenean lan egiteko lagako balituzte eta Elizaren zori ilun eta neketsuarekin bat egitea onartuko balute, jarraibide bikain eta mesedegarria izango litzateke, koloniaren alde Jainkoari zuzentzen dizkioten otoitzetan sinestedenen fedea berpiztuko lukeena eta beste asko beraiekin bat egitera eramango lukeena".

Aurrerago, Ingalaterra Berriko Elizak moral-gaietan zituen printzipioak azaltzean, Mather-ek bortizki erasotzen dio topa egitearen usadioari, aztura pagano eta higuinarriztat dauka eta.

Zorroztasun berberaz debekatzen ditu emakumezkoek buruan eraman ohi dituzten apaingarri guztiak, eta errukirik gabe gaitzesten du lepoa eta besoak estali gabe ibiltzeko emakumeen artean sartzen ari den moda.

Bere obraren beste pasarte batean, Ingalaterra Berria asaldatu zuen zenbait sorginkeri egitateren azalpen luzea egiten digu. Garbi dago demonioaren ekintza nabaria mundu honetako gauzetan egia eztabaiaezin eta frogatua iruditzen zaiola.

Liburu honen beste pasarte askotan, autorearen garaikideen ezaugarri zen askatasun zibil eta idenpendentzia politikoaren izpiritua agertzen da. Sarri-sarri agertzen dira gobernu-gaietan zituzten printzipioak. Honela ikusten da, adibidez, Massachusettsko biztanleek 1630ean, Plymouth sortu eta hamar urte geroago, 400 libra esterlina erabili zituztela Cambridgeko Unibertsitatea sortzeko.

Ingalaterra Berriko historiari buruzko dokumentu orokorretatik beraren baitako estatuei buruzkoetara pasatzen banaiz, lehenik ondorengo izenburua duena aipatu beharko nuke: *The History of the Colony of Massachusetts, by Hutchinson lieutenant-governor of the Massachusetts province*, 2. bol. 8reanean. Errege Liburutegian bada liburu honen ale bat; Londresen 1765ean inprimaturiko bigarren argitalpena da.

Hutchinsonen historia, ohar honi dagokion kapituluaren zenbait aldiz aipatu dudana, 1628an hasi eta 1750ean amaitzen da. Egiantz handia du obra osoak; idazkera xumea eta apaingarririk gabea da. Historia hau oso zehatza da.

Connecticuti dagokionez kontsulta daitekeen dokumenturik onena Benjamin Trumbull-en historia da; izenburua: *A complete History of Connecticut, civil and ecclesiastical*, 1630-1764, 2 bol. 8reanean, 1818an New Haven-en inprimatua. Ez dut uste Trumbullen obra Errege Liburutegian aurkitzen denik.

Historia honek izenburuan adierazitako garaian Connecticuten jazotako gertakari guztien azalpen argi eta objektiboa egiten du. Autoreak informazio-etorbide onenetara jo du, eta egiaren zigilua dute beraren kontaketeak. Connecticuteko estatuaren lehen garaiei buruz esaten duen guztia oso-oso bitxia da. Beraren obran ikus, batez ere, 1639ko Konstituzioa, I. bol., VI. kap., 100. or.; baita Connecticuteko lege penalak ere, I. bol., VII. kap., 123. or.

Estimatua da, eta arrazoiz, Jeremy Belknap-en *History of New Hampshire* obra, 2 bol. 8reanean, 1792an Bostonen inprimatuak. Belknapen obran ikus, batez ere, lehen bolumeneko III. kap. Beronetan autoreak balio handiko xehetasunak ematen ditu puritanoen printzipio politiko eta erlijiosoei buruz, haien migrazioaren kausa eta haien legeei buruz. 1663an egindako sermoi baten aipu bitxi hau aurkitzen da bertan: "Ingalaterra Berriak etengabe izan behar du gogoan helburu erlijioso, eta ez merkatal, batez izan dela sortua. Beraren bekokian irakurtzen da garbitasun-aitorpena egin duela doktrina- eta diziiplina-gaietan. Merkataria eta txanpona txanponaren gain metatzera emanak oroit daitezela, beraz, erlijioa izan dela, eta ez irabazia, kolonia hauek fundatzeko helburua. Munduaz eta erlijioaz egiten duen estimazioan lehena 13tat eta bigarrena 12tat bakarrik hartzen duenik baldin badago gure artean, honelako honek ez du Ingalaterra Berriko benetako seme-alabaren sentimendurik". Belknapen obran irakurleek ideia orokorrak eta pentsamendu indartsuak aurkituko dute gaur arteko beste historialari amerikarrenetan baino.

Ez dakit liburu hau Errege Liburutegian dagoen ala ez.

Erdialdean antzinatek dauden, eta gure arreta merezi duten, estatuen artean, New Yorkeko estatua dago eta Pennsylvaniakoa. New Yorkeko estatuaz dugun historiarik onena *History of New York* da, William Smith-ena, 1757an Londresen inprimatua. Bada itzulpen frantsesa, hau ere Londresen inprimatua 1767an, bol. 1, 12reanean. Smithen xehetasun baliotsuak ematen dizkigu frantses eta ingeles gerrei buruz Amerikan. Historialari amerikar guztien artean berau da irokiarren konfederazio ospetsua ongien ezagutarazten duena.

Pennsylvaniari dagokionez, ezin Proud-en obra baino gauza hoberik aipatu: *The History of Pennsylvania, from the original institution and settlement of that province, under the first proprietor and governor William Penn, in 1681 till after the year 1742*, Robert Proud-ena, 2 bol. 8reanean, 1797an Filadelfian inprimatuak.

Liburu honek irakurlearen arreta berezia merezi du; dokumentu bitxi asko dauka Penn-i, kuakeroen doktrinari eta Pennsylvaniako lehen biztanleen izaera, ohitura eta usadioei buruz. Nik dakidanez ez dago Liburutegian.

Ez dut erantsi beharrik Pennsylvaniari buruzko dokumenturik garrantzizkoenen artean Penn beraren obrak daudela eta Franklin-enak. Irakurle askok ezagutzen dituzte obra hauek.

Aipatu berri ditudan liburu hauetako gehienak Amerikan egon nintzen bitartean kontsultatu nituen. Errege Liburutegiak on iritzi dio horietako batzuk lagatzeari; besteak Mr. Warden-ek utzi dizkit; hau antzina Estatu Batuetako kontsul nagusi izan zen Parisen, eta Amerikari buruzko obra bikain baten autore da. Ez dut ohar hau amaitu nahi hemen Mr. Wardeni nire esker ona adierazi gabe.

G) *Jefferson's Memoirs* delakoetan ondorengo aurkitzen da: "Ingelesak Virginian finkatu zireneko lehen garaietan, lurrak gutxiren edota ezeren truke lortzen zirenean, zenbait pertsona aurrikuslek, kontzesio handiak berenganaturik eta beren familiaren distirari eutsi nahirik, beren ondasunak ondorengoei utzi zizkieten. Jabetza hauen eskualdaketak belaunaldiz belaunaldi, deitura bereko jendearen artean beti, azkenerako famili mota berezi bat sortu zuen eta, beren aberastasunak betikotzeko pribilegioa ematen zielarik legeak, patrizioen ordena bezalako bat eratzeraz iritsi ziren, beren egoitzen handitasun eta luxuagatik nabarmentzen zirenak. Erregeak ordena honetatik aukeratzen zituen normalean bere kontseilariak" (*Jefferson's Memoirs*).

Estatu Batuetan, oinordetzei buruzko lege ingelesaren xedapen nagusiak erabat baztertu zituzten.

"Oinordetza-gaia jarraitzen dugun lehen legea", dio Mr. Kentek, "honako hau da: Pertsona bat, testamenturik gabe hiltzen denean, ondasunak beraren oinordekoei pasatzen zaizkie zuzenean; oinordeko bakarra baldin badu, gizonezko nahiz emakumezko, berak bakarrik jasotzen du ondare guztia. Maila bereko oinordeko bat baino gehiago baldin badago, berdinki banatzen dute beren artean ondarea, sexu-bereizketarik gabe".

Arau hau lehen aldiz New Yorkeko estatuan 1786ko otsailaren 23ko estatutu batek agindu zuen (ikus *Revised Statutes*, III. bol.; *Appendix*, 48. or.); gero estatu bereko estatutu berrikusietan sartu zuten. Orain Estatu Batu guztietan da nagusi, salbuespen bakar batekin: Vermont-eko estatuan oinordeko gizonezkoak bi aldiz gehiago hartzen du. *Kent's Commentaries*, IV. bol., 370. or.

Obra berean, IV. bol., 1-22. orr.etan, ordezkotzei buruzko legeria amerikarraren historia egiten du Mr. Kentek. Hortik ateratzen denez, Amerikako iraultza baino lehen, ordezkotzei buruzko lege ingelesak ziren kolonietako zuzenbide arrunta. Zehatz esanda ordezkotzak zirenak (*Estates' tail*) 1776an abolitu zituzten Virginian (Jeffersonen mozioari jarraituz egin zen abolizio hau; ikus *Jefferson's Memoirs*), eta 1786an New Yorkeko estatuan. Abolizio bera sartu zen gero Ipar Carolinan, Kentuckyn, Tennessee, Georgian eta Missourin. Vermont, Indiana, Illinois, Hego Carolina eta Louisianan sekula ez dira ordezkotzak erabili izan. Ordezkotzei buruzko legeria ingelesa gorde egin behar zutela uste izan duten estatuek aldatu egin dute berorren ezaugarri aristokratiko nagusiak kentzeko. "Gobernu-gaia ditugun printzipio orokorrak", dio Mr. Kentek, "jabetzaren zirkulazio askearen aldeko dira".

Ondorengotzei buruzko legeria amerikarra aztertzen duen irakurle frantsesari bereziki harrigarria gertatzen zaio gaiari buruzko gure legeak oraindik ere haienak baino askoz ere demokratikoagoak izatea.

Lege amerikarrek berdinki banatzen dituzte aitaren ondasunak, baina beraren borondatea ezagutzen ez den kasuan bakarrik: "zeren eta gizaki orok baitu New Yorkeko estatuan", dio legeak (*Revised Statutes*, III. bol.; *Appendice*, 51. or.), "bere ondasunak edozeinen alde testamentuz erabiltzeko, legatzeko edo banatzeko askatasun, botere eta aginpide osoa, betiere ez badu gorputz politiko edo elkarte antolatu baten aldeko testamentua egiten".

Lege frantsesaren arabera, banaketa berdin edo ia berdina da testamentu-egilearentzako araua.

Oraindik errepublika amerikar gehienek onartzen dituzte ordezkotzak eta ondorioak murriztera mugatzen dira.

Lege frantsesak ez du ordezkotzarik inolako kasutan onartzen.

Amerikarren gizarte-egoera oraindik ere gurea baino demokratikoagoa baldin bada, gure legeak, ordeak, haienak baino demokratikoagoak dira. Uste baino errazagoa da honen azalpena: Frantzia oraindik ere suntsitzeaz arduratzen da demokrazia; Amerikan hondakinen gainean nagusi da lasai-lasai.

#### H) ESTATU BATUETAKO HAUTESKUNDE-BALDINTZEN LABURPENA

Hauteskunde-eskubideen gozamina hogeita bat urterekin onartzen dute estatu guztiek. Estatu guztietan da beharrezkoa bozkatzen deneko barrutian denboraldi bat bizi izatea. Denboraldi hau hiru hilabetetik bi urtera artekoa izan daiteke.

Zentsuari dagokionez, Massachusettseko estatuan, hautesle izateko, 3 libra esterlinako errenta behar da, edo 60ko kapitela.

Rhode-Islanden 133 dolarreko (704 liberako) balioko lurjabetza izan behar da.

Connecticuten 17 dolarreko (gutxi gora-behera 90 liberako) errentako jabetza eduki behar da. Milizian urtebetez egoteak ere hauteskunde-eskubidea ematen du.

New Jersey 50 libra esterlinako ondasunak izan behar ditu hautesleak.

Hego Carolinan eta Marylanden, 50 akre lur eduki behar ditu hautesleak.

Tennessee edozein jabetza izan behar du.

Mississippi, Ohio, Georgia, Virginia, Pennsylvania, Delaware eta New Yorkeko estatuetan, hautesle izateko, aski da zergak ordaintzea; estatu hauek gehienetan miliziako zerbitzuak zergak ordaintzeak beste balio du.

Maine eta New Hampshiren aski da behartsuen zerrendan ez egotea.

Azkenik, Missouri, Alabama, Illinois, Louisiana, Indiana, Kentucky eta Vermonteko estatuetan ez da eskatzen hauteslearen ondasunekin erlazionaturiko baldintzarik.

Nire ustez, Ipar Carolinak bakarrik ezartzen dizkie Senatuaren hautesleei Ordezkarien Ganbararen hautesleei ez bezalako baldintzak. Lehenengoen 50 akre lur jabe izan behar dute. Ordezkariak hautatu ahal izateko, ordeak, aski dute zerga bat ordaintzea.

I) Sistema debekatzailerako Estatu Batuetan. Aduanari gutxi eta kosta asko egoteak oso erraza egiten du kontrabandoa; hala ere, beste leku batzuetan baino askoz ere gutxiago dago, guztiak aritzen baitira berorren kontra.

Estatu Batuetan prebentziozko polizia ez dagoenez, Europan baino sute gehiago ikusten da han; baina oro har lehenago itzaltzen dira, inguruetako jendea bizkor joaten baita arrisku-lekuetara.

K) Ez da bidezkoa zentralizazioa Iraultza Frantsesetik sortu dela esatea; Iraultza Frantsesak biribildu egin du, baina ez sortu. Zentralizaziorako zaletasuna eta dena arautzeko mania legelariak gobernuan sartu ziren garaikoa da Frantzia, eta honek Felipe Ederraren garairaino garamatza. Ordudanik, bi gauza hauek hazi egin dira etengabe. Hona hemen M. de Malesherbes-ek, laguntza-auzitegiaren izenean hitz eginez, Louis XVI. erregeari 1775ean esaten ziona<sup>164</sup>.

"...Gorputz bakoitzari, hiritarren komunitate bakoitzari, gelditzen zitzaion bere arazoak administratzeko eskubidea; eta guk ez dugu esaten eskubide hau erresumen antzinako Konstituzioaren osagai zenik, askoz lehenagokoa baitzen: eskubide naturala da, arrazoiaren eskubidea. Hala ere, kendu egin zaie zuen menpekoei, Jauna, eta ez dugu beldurrik puntu honetan administrazioa umekieratzen jo daitezkeen gehiegikerietan jausi dela esateko.

Batzar nazionala deitzen ez uztea ministro ahaltsuek printzipio politiko bihurtu dutenez, ondorioz ondorio ibili gara herri bateko biztanleen deliberazioak intendente batek baimentzen ez dituen deuseztat jotzeraino; honela, komunitate horrek gasturen bat egin behar badu, intendentearen azpidelegatuaren onespina behar du, eta beraz hark

onarturiko planari jarraitu, haren gogoko langileak erabili eta hark nahi bezala ordaindu; eta komunitateak prozesuren bat zertu behar baldin badu, honetarako ere intendenteak eman behar dio baimena. Auzia lehen auzitegi honek ikusi behar du justiziaren aurrera eramane baino lehen. Eta intendentearen iritzia biztanleen aurkakoa baldin bada, edota hauen arerioak intendentzian sinesgarritasuna badu, komunitateari kendu egiten zaio bere eskubideak defendatzeko ahalmena. Hona hemen, Jauna, zer-nola saiatu diren Frantzian udal-izpiritu oro itotzen eta, ahal izanez gero, hiritarren sentimenduak ere itzaltzen; nolabait esateko, nazio osoa *ezgaitu* da, eta tutoreak eman zaizkio".

Zer hoberik esan ote liteke gaur egun, Iraultza Frantsesak zentralizazio-gaietan bere *konkistak* deritzanak egin dituenen?

1789an Jeffersonek bere lagunetako bati idazten zion Parisetik: "Ez dago herrialderik gehiegi gobernatzeko maniak Frantzian baino sustrai sakonagoak bota dituenik eta gaitz gehiago eragiten duenik". *Madison-i gutunak*, 1789ko abuztuak 28.

Egia esateko, Frantzian, hainbat mendetan zehar, botere zentralak ahal duen guztia egin izan du zentralizazio administratiboa hedatzeko; ez du lasterketa honetan beste mugarik izan, bere indarrak izan ezik.

Iraultza Frantsesetik sortutako botere zentrala bere aurrekoak baino askoz aurrerago joan da honetan, beste guztiak baino indartsuago eta zuhurragoa izan delako. Louis XIV.ak udal-bizitzako xehetasunak intendente baten nahiaren menpe jartzen zituen; Napoleonek ministro batenaren menpe. Betiere printzipio bera da, bere ondorioetan urrutirago edo hurbilerago eramana.

L) Konstituzioaren aldaezintasun hau Frantzian gure legeek beharturiko ondorio bat da.

Eta lege guztien arteko garrantzizkoenaz hitz egitearren lehenik, tronurako ondorengotza-ordena arautzen duenaz alegia, zer dago bere printzipioan aldaezinagorik aitaren ondorengoa semea izateko ordena naturalean oinarrituriko ordena politikoa baino? 1814an, Louis XVIII.ak bere familiaren alde onartarazi zuen ondorengotza politikoa betikotasun hau; 1830eko iraultzaren ondorioak arautu zituztenek haren jarraibideari segitu zioten, baina legearen betikotasuna beste familia baten onurarako ezarri; honetan Maupeou kantzilerra imitatu zuten, honek antzinako Parlamentuaren hondakinen gainean berria eratzean, garbi utzi baitzuen ordenantza berean magistratu berriak aldaezinak izango zirela, beraien aurrekoak bezalaxe.

1830eko legeek, 1814koek bezalaxe, ez dute konstituzioa aldatzeko inolako biderik adierazten. Nolanahi ere, garbi dago legeriaren ohiko baliabideak ez liratekeela horretarako aski.

Norengandik hartzen ditu erregeak bere ahalmenak? Konstituziotik. Norengandik pareek? Konstituziotik. Norengandik diputatuak? Konstituziotik. Nola, bada, erregeak, pareak eta diputatuak, elkarturik, alda liezaiokete ezer legeari, beronen indarrez bakarrik gobernatzen baitute? Konstituziotik kanpo ez dira ezer; non kokatuko lirateke, bada, konstituzioa aldatzeko? Biotako batean: edo beraien ahaleginek indarrik ez dute kartaren kontra, honek haien gogoaren kontra ere irauten duelarik, eta, orduan, beronen izenean jarraitzen dute erreinatzen; edo karta aldatzea lortzen dute, eta, orduan, beraiek izanarazten zituen legerik ez dagoenez, beraiek ere ez dira jadanik ezer. Gutuna suntsitzean, beren buruak suntsitzen dituzte.

Hau oraindik ere garbiago ikusten da 1830eko legeetan 1814koetan baino. 1814an errege-agintea nolabait ere Konstituzioz kanpo eta gainetik kokatzen zen; baina 1830ean errege-agintea aitortzen du Konstituzioak sortua dela eta ez dela deus hau gabe.

Honela, bada, gure Konstituzioaren zati bat aldaezina da, familia baten destinoarekin lotu delako; eta Konstituzio osoa ere aldaezina da, ez baita aurkitzen batere bide legalik aldatu ahal izateko.

Hau guztia ezin zaio Ingalaterrari aplikatu. Ingalaterrak konstituzio idatzirik ez duenez, nork esan dezake hango konstituzioa aldatu egiten dela?

M) Konstituzio ingelesari buruz idatzi duten autorerik estimatuenean elkarren lehian bezala ezartzen dute Parlamentuaren guztiahala.

Delolmek dio (X. kap., 77. or.): *It is a fundamental principle with the English lawyers, that parliament can do everything, except making a woman a man or a man a woman.*

Delolme baino, biziago ez bada ere, biribilkiago mintzo da Blackstone; hona hemen zer dioten:

"Sir Edward Coke-ren arabera (4 Hist. 36), Parlamentuaren boterea eta eskumena, pertsona nahiz arazoen gain, hain zabalak eta absolutuak direnez, ezin zaie inolako mugarik jarri... Auzitegi honetaz, gaineratzen du, egia esan daiteke: *Si antiquitatem spectes, est vetustissima; si dignitatem, est honoratissima; si jurisdictionem, est capacissima.* Horren aginpideak, subiranoa eta kontrolgabea, berretsi, hedatu, murriztu, derogatu, kontraerabaki, berriztatu eta interpretarazi egin ditzake, eliz, denborazko, zibil, militar, itsas eta kriminal gaietako buruzko legeak. Erresuma hauetako Konstituzioak Parlamentuari eman dio botere despotiko eta absolutu hau, gobernu orotan nonbait egon behar duena. Irainak, beharrezko erremedioak, legeen ohiko bidetik kanpoko erabakiak, aparteko auzitegi horri dagokio dena. Tronurako ondorengotza arautu edo alda dezake, Henry VIII. eta Gillermo III.aren erregealdietan egin zuen bezala; ezarritako erlijio nazionala alda dezake, zenbait zirkunstantzian Henry VIII.aren eta haren seme-alaben menpean egin zuen bezala; *erresumaren* -eta Parlamentuen beraien- *konstituzioa aldatu eta berregin dezake*, Ingalaterra eta Eskoziako Batasun Aktaren bidez egin zuen bezala, baita hirurteko eta zazpiurteko hauteskundeetarako zenbait estatuturen bidez ere. Labur esateko, berez ezinezkoa ez den guztia egin dezake; beraz, inolako erreparorik gabe deitu zaio botere horri, agian gogor samarra den irudiaz, Parlamentuaren *guztiahala*".

N) Beste ezein gaitan ez dute konstituzio amerikarrek adostasun gehiago judizio politikoarenean baino.

Gai honetaz arduratzen diren konstituzio guztiek Ordezkarien Ganbarari ematen diote akusatzeko eskubide eskusiboa, Ipar Carolinako Konstituzioak izan ezik, eskubide hau berau epaimahai handiei ematen baitie (23. art.).

Ia konstituzio guztiek Senatuari, edo ordezkari batzarrari, ematen diote epaitzeko eskubide eskusiboa.

Auzitegi politikoek erabaki ditzaketen zigor bakarrak hauek dira: kargugabetzea edo etorkizunean funtzio publikoak betetzeko ezgaitzea. Virginiako Konstituzioak bakarrik baimentzen du edozelako zigor-motak erabakitzea.

Judizio politikora eraman dezaketen krimenak ondorengoak dira: Konstituzio federalean (IV. sek., I. art.), Indianakoan (3. art., 23. eta 24. orr.), New Yorkekoan (5. art.) eta Delawarekoan (5. art.) goi-mailako traizioa, ustelkeria eta beste krimen edo delitu handi batzuk.

Massachusettsko Konstituzioan (I. kap., II. sek.), Ipar Carolinakoan (23. art.) eta Virginiakoan (252. or.) portaera txarra eta administrazio txarra.

New Hampshireko Konstituzioan (105. or.) ustelkeria, azpijoko hobendunak eta administrazio txarra.

Vermontekoan (II. kap., 24. art.) administrazio txarra.

Hego Carolina (5. art.), Kentucky (5. art.), Tennessee (4. art.), Ohio (I. art., § 23, 24), Louisiana (5. art.), Mississippi (5. art.), Alabama (6. art.) eta Pennsylvaniakoetan (4. art.) funtziotan egindako delituak.

Illinois, Georgia, Maine eta Connecticuteko estatuetan ez da inolako krimenik zehazten.

O) Egia da Europako potentziek itsas gerra handiak egin diezazkioketela Batasunari; baina beti da errazagoa eta arrisku gutxiagokoa itsasoan gerra egitea kontinentean egitea

baino. Itsas gerrak mota bateko ahaleginak bakarrik eskatzen ditu. Merkatal herri batek, prest baldin badago bere gobernuari dirua emateko, beti izango ditu gerrauntziak. Nolanahi ere, nazioei askoz errazago eska dakizkieke diru-sakrifizioak giza sakrifizioak eta ahalegin pertsonalak baino. Bestalde, itsasoan porrot egiteak gutxitan jartzen du arriskuan herri menperatuaren izatea edo independentzia.

Gerra kontinentalei dagokionez, garbi dago Europako herriek ezin diotela gerra arriskutsurik egin Batasunari.

Oso zaila da Amerikara 25.000 soldadu baino gehiago eraman eta mantentzea, eta honek gutxi gora-behera 2.000.000 pertsonako nazioa esan nahi du. Europako naziorik handiena, honela Batasunaren kontra borrokan, 2.000.000 biztanleko nazio bat 12.000.000ko baten kontra egongo litzatekeen egoera berean dago. Erantsi honi amerikarrak bere esku dituela baliabide guztiak, eta europarrak 1.500 lekoara bereak, eta Estatu Batuetako lurraldearen zabalera itzela bera ere oztopo gaindigaitza izango litzatekeela konkistarako.





## BIGARREN ZATIA

### I

*Nola esan daitekeen zehaztasunez Estatu Batuetan herria dela gobernatzen duena*

Amerikan herriak izendatzen du legea egiten duena eta betearazten duena; berak eratzen du lege-haustea zigortzen dituen epaimahaia. Erakundeak demokratikoak dira ez beren printzipioan bakarrik, baita beren garapen guztietan ere; honela herriak *zuzenean* izendatzen ditu bere ordezkariak eta oro har *urtero* hautatzen ditu, erabat bere menpe eduki ahal izateko. Herria da, beraz, gidatzaile duena, eta, gobernu-era ordezkapenezkoa izan arren, nabaria da herriaren iritzi, aurriritzi, interes eta bai grinek ere ez dezaketela aurki gizartearen eguneroko gidaritzan jardutea eragotziko dien oztopo iraunkorrik.

Estatu Batuetan, herria nagusi den herrialde guztietan bezalaxe, gehiengo da herriaren izenean gobernatzen duena.

Gehiengo hau, batez ere, hiritar baketsuek osatzen dute, beren gustu nahiz interesagatik herrialdearen ongia zintzoki nahi dutenak. Hauen inguruan zalapartaka alderdiak ibiltzen dira etengabe, beren baitara erakartzen eta beren euskarri bihurtzen saiatzen direlarik.

### II

*Estatu Batuetako alderdiak*

Bereizketa handi bat egin behar da alderdien artean.- Beren artean aurkako nazioak bezalako diren alderdiak.- Zehatz esanda alderdi direnak.- Alderdi handien eta txikien arteko ezberdintasuna.- Zein garaitan sortzen diren.- Beraien izaera ezberdinak.- Alderdi handiak izan ditu Amerikak.- Jadanik ez du horrelakorik.- Federalistak.- Errepublikarrak.- Federalisten porrota.- Estatu Batuetan alderdiak sortzeko zailtasuna.- Zer egiten den hori lortzeko.- Alderdi guztietan aurkitzen den izaera aristokratiko edo demokratikoa.- Jackson jeneralaren borroka bankaren kontra.

Lehenik bereizketa handi bat egin behar dut alderdien artean.

Herrialde batzuk hain zabalak direnez, horien baitako herri ezberdinek, subiranotasun beraren menpe bildurik egon arren, interes kontraesankorrak izaten dituzte, eta hortik etengabeko aurkakotasuna sortzen da beraien artean. Herri bat beraren zati ezberdinek ez dituzte orduan, zehatz esanda, alderdiak eratzen, nazio ezberdinak baizik, eta, gerra zibila sortzen bada, aurkako herrien arteko gatazka izaten da, fakzioen artekoa baino gehiago.

Baina herrialdeko zati guztiei berdin interesatzen zaizkien puntuei buruz -gobernurako printzipio orokorreari buruz, adibidez- hiritarren artean ezberdintasuna sortzen bada, benetan alderdi deituko ditudanak sortzen dira orduan.

Alderdiak gobernu askeei dagokien gaitz bat dira; baina ez dute aldi guztietan izaera bera, ezta joera berberak ere.

Garai batzuetan nazioei, hain gaitz handiek atsekabetzen dituztenez, beren eraketa politikoan erabateko aldaketa egitea bururatzen zaie. Beste batzuetan are sakonagoa izaten da gaitza, eta gizarte-egoera bera egoten da arriskuan. Iraultza handien eta alderdi handien garaia izaten da.

Desordena eta zorigaitzeko mende hauen artean, badira beste batzuk zeinetan ematen duen gizarteak baretu egiten direla eta giza endak arnasa berriro hartzen duela. Baina, hala ere, egia esateko, itxura baino ez da; denborak ez du bere martxa gelditzen ez herrientzat, ez gizakientzat; batzuek nahiz besteek aurrera egiten dute egunero, ezagutzen ez duten etorkizun baterantz; eta geldi daudela iruditzen zaigunean, horien mugimenduak ikusten ez ditugulako da. Ibili dabilen jendea da, nahiz eta geldi daudela iruditu lasterka doazenei.

Nolanahi ere, herrien eraketa politikoan eta gizarte-egoeran garai batzuetan gauzatzen diren aldaketak hain motel eta sentiezinak izaten direnez, azken egoerara iritsi direla pentsatzen du jendeak; orduan, oinarri batzuen gain tinko kokaturik dagoela uste izaten du giza izpirituak, eta ez du halako muga batez harantzago begiratzen.

Azpijokoen eta alderdi txikien garaia izaten da.

Nik alderdi politiko handiak deitzen ditudanak, printzipioei berauen ondorioei baino gehiago atxikitzen zaizkienak dira, orokortasunei eta ez kasu partikularrei, ideiei eta ez gizakiei. Oro har, alderdi hauek besteek baino ezaugarri bikainagoak dituzte, grina eskuzabalagoak, uste sendoagoak, jokabide zintzoago eta ausartagoak. Interes partikularra, grina politikoetan beti paper nagusia izaten duena, trebetasun handiz ezkututzen da orduan interes publikoaren estalkipean; berak bultzatzen eta jardunarazten dituenen bistatik desagertzeraino ere iristen da batzuetan.

Alderdi txikiek, aldiz, ez dute normalean fede politikorik. Helburu handiek eraiki eta eusten dietenik sentitzen ez dutenez, ekintza bakoitzean nabarmen agertzen den berekoikeriaz blai dute beren izaera. Txikikeriengatik berotzen dira; hizkera bortitza dute, baina ibilera herabe eta ziurtasunik gabea. Erabiltzen dituzten baliabideak kaskarrak dira, duten xedea bera bezalakoxea. Hortik dator, iraultza bortitz baten ondoren barealdia iristen denean, badirudi bat-batean gizaki handiak desagertu egiten direla eta arimak beren baitan ixten.

Alderdi handiek irauli egiten dute gizartea, txikiek astindu; haiek urratu egiten dute eta besteok galbideratu; lehenengoek asaldaraziz salbatu egiten dute batzuetan, bigarrenek onurarik gabe nahasten dute beti.

Amerikak alderdi handiak izan ditu; gaur egun jada ez du horrelakorik. Honekin asko irabazi du zoriontasunean, baina ez moralitasunean.

Independentzi gerra amaitu eta gobernu berriaren oinarriak ezartzeko momentua iristean, bi iritziren artean banaturik aurkitu zen nazioa. Iritzi hauek mundua bezain zaharrak ziren, eta gizarte aske guztietan aurkitzen dira forma ezberdinen azpian eta izen ezberdinekin. Batak murriztu egin nahi zuen herriaren boterea, besteak mugarik gabe zabaldu.

Bi iritzi hauen arteko borrokak ez zuen inoiz amerikarren artean beste leku batzuetan sarri izan duen izaera bortitzik izan. Amerikan bi alderdiak bat zetozen punturik funtsezkoenetan. Garaipena lortzeko, ez batak eta ez besteak ez zeukaten ordena zaharrak suntsitu beharrik, ezta gizarte-egoera oso bat irauli beharrik ere. Ondorioz, ez batak eta ez besteak ez zeukaten beren printzipioen arrakastaren menpean jende askoren existentzia indibidualak jarri beharrik. Baina lehen mailako interes inmaterialak ukitzen zituzten, berdintasunaren eta independentziaren maitasuna, adibidez. Hori aski zen grina bortitzak sortarazteko.

Herri-boterea murriztu nahi zuen alderdiak Batasuneko Konstituzioan egin nahi izan zuen, batez ere, bere doktrinen aplikazioa, eta *federal* izena eman zioten horrela.

Besteak, askatasunaren aldeko bakarra omen zenak, *errepublikar* titulua hartu zuen.

Amerika demokraziaren lurraldea da. Federalistak beti gutxiengoak izan ziren, beraz; baina Independentzi gerrak sortarazitako gizon handi ia guztiak beren artean zeuzkaten, eta haien indar morala oso hedatua zegoen. Bestalde, zirkunstantziak ere beren aldeko izan zituzten. Lehen konfederazioaren porrotak anarkian erortzeko beldurra sentiarazi zion herriari, eta sentipen iragankor honetaz baliatu ziren federalistak. Hamar edo hamabi urtez, beraiek gidatu zituzten arazo publikoak eta, beren printzipio guztiak ez bada ere, batzuk behintzat aplikatu ahal izan zituzten, zeren eta kontrako korrontea egunetik egunera bortitzagoa baitzen, beraren kontra borrokatzera ausartzeko.

1801ean, azkenean errepublikarrak jabetu ziren gobernuaz. Thomas Jefferson izendatu zuten lehendakari; izen ospetsuaren, talentu handiaren eta egundoko herri-onarpenaren laguntza eman zien errepublikarrei.

Federalistak bitarteko artifizial eta momentuko baliabidez bakarrik mantendu ziren beti; buruzagien bertute edo talentuek, baita aldeko zirkunstantziek ere, bultzatu zituzten agintera. Errepublikarren txanda iritsi zenean, kontrako alderdia bat-bateko uholdearen erdian harrapatua bezala gelditu zen. Gehiengo handi bat beraren aurka azaldu zen, eta, hain gutxiengo txikia zela ohartzean, berehala etsi zuen bere buruaz. Orduz geroztik, alderdi errepublikar edo demokratikoa konkistaz konkista ibili da eta gizarte osoaz jabetu da.

Federalistak, menperaturik, baliabiderik gabe eta nazioaren erdian isolaturik sentitzean, zatitu egin ziren; batzuk garaileekin elkartu ziren; beste batzuek beren bandera utzi eta izena aldatu zuten. Dagoeneko urte asko dira alderdi izateari erabat utzi ziotela.

Federalistak agintean egotea izan zen, nire iritziz, batasun amerikar handiaren sorrerako gertakariarik zorionsuenetakoa. Federalistak beren mende eta herrialdeko joera geldiezinaren aurka borrokatzen ziren. Zeinahi izanik ere haien teorien ontasun edo gaitza, akats bat zuten: beren osotasunean aplikaezinak ziren gidatu nahi zuten gizarte hartan; Jeffersonekin gertatu zena, beraz, gertatu beharrekoa zen lehentxeago edo geroxeago. Baina haien gobernuak, gutxienez, finkatzeko astia utzi zion errepublika berriari, eta, ondoren, beraiek erasotako doktrinen garapen bizkorra eragozpenik gabe laguntzeko aukera eman zion. Bestalde, haien printzipioetariko asko kontrarioen programan sartu ziren azkenerako; eta Konstituzio federala, oraindik ere gaur egun irautean duena, haien abertzaletasunaren eta jakinduriaren oroitarri iraunkorra da.

Honela, bada, gaur egun ez da Estatu Batuetan alderdi politiko handirik aurkitzen. Alderdi asko daude Batasunaren etorkizuna mehatxatzen dutenak; baina ez dirudi egungo gobernu-erari eta gizartearen martxa orokorrari erasotzen dienik dagoenik. Batasuna mehatxatzen duten alderdiak ez dira printzipioetan oinarritzen, interes materialetan baizik. Interes hauek, hain aginterri zabaleko probintzia ezberdinetan, gehiago eratzen dituzte aurkako nazioak alderdiak baino. Azken aldi honetan horregatik agertu da Iparraldea merkatal debekuen sistemaren alde, eta Hegoaldeak armak hartu ditu merkatal askatasunaren alde; honetarako izan den arrazoi bakarra Iparraldea manufakturatzaile eta Hegoaldea kultibatzaile izatea da, eta sistema murriztaileak bataren onurarako eta bestearen kalterako diharduela.

Alderdi handirik ez dagoenez, txikiak inurriak baino ugariago dira Estatu Batuetan, eta iritzi publikoa amaigabe zatitzen da xehetasunetan. Imajinaezina da zelako lana hartzen den alderdiak sortzen; ez da gauza erraza gure garaian. Estatu Batuetan ez dago erlijiozko gorrotorik, erlijioari guztiek baitiote begirunea eta ez dago sekta bat nagusi dena; ez dago klase-gorrotorik ere, herria baita dena, eta oraindik inor ez da beronen kontra borrokatzeri ausartzen; azkenik, ez dago aprobeitza daitekeen ezbehar publikorik ere, herrialdeko egoera materialak egundoko aukera eskaintzen baitu industriarako, gizakiari bere kasa uztea nahikoa izanik honek gauza miragarriak egin ditzan. Hala ere, beharrezkoa da gutizia alderdiak sortzera iristea, zaila baita boterea daukana iraultzea, beraren lekua hartu nahi izateagatik bakarrik. Politikarien abilezia guztia alderdiak eratzean datza, beraz. Estatu Batuetan politikariak bere interesa bereizi nahi izaten du lehenik, eta berearen inguruan bildu litezkeen antzeko interesak zeintzuk diren ikusi; ondoren, ea kasualitatez elkarte berriaren buruan egokiro ezar daitekeen doktrina edo printzipioren bat munduan ba ote den aurkitzeki ekiten dio, argitara atera eta aske ibiltzeko eskubidea eman ahal izateko. Nolabait esateko, erregearen pribilegioa bezala da, antzina gure arbasoek beren obretako lehen orrialdean inprimatu eta liburuan sartzen zutena, nahiz eta ez izan honen osagai.

Hori eginda, politikaren arloan sartzen da botere berria.

Atzerritarrari amerikarren barne-liskar ia guztiak ulergaitzak edo umekeriak iruditzen zaizkio lehen begiratuan, eta ez du jakiten txikikeria horietaz seriozki arduratzen den herriaz errukitu egin behar duen, ala horietaz arduratu ahal izateko zorionagatik inbidia izan behar dion.

Baina Amerikan fakzioak gobernatzen dituzten ezkutuko instintuak arretaz aztertzen direnean, erraz aurkitzen da horietako gehienak gizarte askeak daudenetik gizakiak banatzen dituzten bi alderdi handietako batarekin edo bestearekin loturik daudela gehixeago edo gutxiago. Alderdi hauen pentsaeraren muinean zenbat eta sakonago sartu, batzuek botere publikoaren erabilera murrizteko lan egiten dutela ikusten da, besteek hedatzeko.

Nik ez dut esaten alderdi amerikarren xede nabarmena, ezta ezkutukoa ere, herrialdean aristokrazia edo demokrazia nagusiaraztea denik beti; diodana da grina aristokratiko edo demokratikoak erraz aurkitzen direla alderdi guztien barren-barrenean; eta, bistan ez egon arren, horiek alderdien puntu sentikor eta arima bezala direla.

Duela gutxiko adibide bat aipatuko dut: lehendakariak Estatu Batuetako bankari erasotzen dio; herrialdea asalatu eta zatitu egiten da; klase ilustratuak, oro har, bankaren alde jartzen dira, herria lehendakariaren alde. Uste duzue herriak jakin duela bere iritzia arrazoiak bereizten hain zaila den arazo baten kikinakoen artean, non adituak direnak ere zalantzan egoten baitira? Inola ere ez. Baina banka establezimendu handi bat da, bere izate independentea duena; herriak, botere guztiak suntsitzen edo goratzen dituenak, ezin du ezer egin horren kontra, eta honek harritu egiten du. Gizarteko mugimendu unibertsalaren erdian, puntu mugigaitz horrekin topo egiten du herriaren begiradak, eta gainerakoa bezalaxe mugiaraztea lortuko ote duen ikusi nahi du.

Alderdi aristokratikoaren hondarrak Estatu Batuetan

Aberatsek demokraziarekiko duten aurkakotasun ezkutua.- Bizitza pribatura erretiratzen dira.- Plazer eksklusibo eta luxurako duten zaletasuna beren egoitzen barnean.- Beraien sinpletasuna kanpoan.- Herriarekiko duten eramanpen afektatua.

Iritzietan banaturiko herri batean, alderdien arteko oreka apurtzean, bietako batek nagusitasun jarkiezina lortzen duela gertatzen da batzuetan. Oztopo guztiak apurtzen ditu, kontrarioa zapaltzen du eta gizarte osoa ustiatzen du bere probetxurako. Garaituak, arrakasta izateko itxaropenik gabe, ezkutatu edo isildu egiten dira. Gelditasun eta isiltasun orokorra sortzen da. Nazioak pentsamendu bat beraren inguruan ematen du bildua. Alderdi garaileak altxatu eta esaten du: "Nik ekarri diot bakea herrialde honi eta esker ona zor zait".

Baina ageriko iritzi-batasun honen azpian zatiketa sakonak eta benetako aurkakotasuna ezkututzen dira, hala ere.

Hau da Amerikan gertatu zena: alderdi demokratikoak nagusitasuna lortu zuenean, arazo publikoen zuzendaritza eksklusiboaz jabetu zen. Geroztik bere nahierara moldatu izan ditu etengabe ohiturak eta legeak.

Gaur egun Estatu Batuetan gizarteko klase aberatsak arazo politikoetatik ia erabat kanpo daudela esan daiteke, eta han aberastasuna, eskubide bat izan ordez, benetan kaltegarri eta oztopo bat dela agintera iristeko.

Aberatsek nahiago dute, beraz, lehiatik irtetea, beren herrikiderik behartsuenen kontra sarri berdintasunik gabeko borrokan jardutea baino. Bizitza pribatuan bezalako mailarik bizitza publikoan lortu ezin dutenez, bertan behera uzten dute azken hau eta lehenengoan murgiltzen dira. Estatuaren erdian gizarte berezi bat bezala osatzen dute, aparteko zaletasun eta gozamenak dituen.

Ekidinezinezko gaitza bezala onartzen du aberatsak gauzen egoera hau; gogaikarria zaiola azaltzea ere arreta handiz saihesten du; gobernu errepublikarraren gozotasunak eta forma demokratikoen abantailak goesten ditu publikoan. Zeren eta, etsaiak gorrotatu ondoren, ba al da gizakiarentzat gauza naturalagorik beroriek lausengatzea baino?

Ikusten duzu hiritar oparo hau? Ez al du ematen bere aberastasuna agertzeko beldur den Erdi Aroko judu bat? Itxura xumea du, ibilera apala; bere egoitzako lau hormen artean gurtu egiten da luxua; ez dio inori santutegi horretan sartzen uzten, lotsagabe bere mailakide deitzen dituen gonbidatu hautatu batzuei izan ezik. Europan ez dago noblerik bere plazerretan hau baino eskusiboago agertzen denik, ezta egoera pribilegiatuak ziurtatzen dituen abantailarik txikieneen irrika handiagoz dagoenik ere. Baina, horra hor, etxetik irten eta hiriaren eta negozioen erdian duen zoko hautseztatu batera doa lanera, non edozeinek jo dezakeen berarengana. Bide erdian bere zapatariarekin topo egiten du; gelditu eta hizketan hasten dira biak. Zer esan diezaiokete elkarri? Bi hiritar horiek estatuko arazoez ari dira, eta ez dira bananduko elkarri bostekoa eman gabe.

Konbentziozko gogoberotasun horren barruan eta nagusi den botereaganako manera atsegin horien erdian, erraz sumatzen da aberatsengan beren herrialdeko erakunde demokratikoekiko destaina handia. Beldurra eta mesprezua sortarazten dien boterea da herria. Egunen batean demokraziaren gobernu txarrak krisi politikoa ekarriko balu, Estatu Batuetan noizbait monarkia ahalgarri azalduko balitz, laster frogatuko litzateke hemen aurreratu dudaren egitasuna.

Arrakasta lortzeko alderdiek erabiltzen dituzten bi arma handiak egunkariak eta elkarteak dira.

### III

#### *Prensa-askatasuna Estatu Batuetan*

Prensa-askatasuna murrizteko zailtasuna.- Askatasun honi eusteko zenbait herrik dituzten arrazoi bereziak.- Herri-subiranotasunak, Amerikan ulertzen den bezala, prentsa-askatasuna du beharrezko ondorio bat.- Estatu Batuetako aldizkako prentsaren hizkuntz bortizkeria.- Aldizkako prentsak bere joera bereziak ditu; Estatu Batuetako kasuak frogatzen du hori.- Amerikarren iritzia prentsa-delituen errepresio judizialaz.- Prentsak zergatik duen Estatu Batuetan Frantzia baino ahalmen gutxiago.

Prensa-askatasunak ez du bere boterea iritzi politikoetan bakarrik sentiarazten, baita gizakien iritzi guztietan ere. Legeak ezezik, ohiturak ere aldarazten ditu. Obra honen beste zati batean saiaturiko naiz zehazten prentsa-askatasunak zenbaterainoko eragina izan duen Estatu Batuetako gizarte zibilaren gain; ideiei eman dien norabidea bereizten ahaleginduko naiz, baita amerikarren izpirituari eta sentimenduei harrarazi dizkien azturak ere. Une honetan, prentsa-askatasunak politika-arloan sortarazitako ondorioak bakarrik aztertu nahi ditut.

Aitortzen dut ez dudala prentsa-askatasunarekiko sentitzen, beren izaeraz guztiz on diren gauzei berehala ematen zaien erabateko maitasun hori. Maiteago dut eragozten dituen gaitzengatik berak egiten dituen gauza onengatik baino.

Norbaitek pentsamenaren erabateko independentziaren eta morrontza osoaren artean bitarteko jarrera bat, bertan mantendu ahal izateko modukoa, erakutsiko balit, neure egingo nuke beharbada; baina nork aurkituko du bitarteko jarrera hori? Prentsaren lizentziatik abiatu eta ordenaren bidetik joan nahi baduzu, zer egiten duzu? Lehenik idazleak epaimahaien menpe jartzen dituzu; baina epaimahaiek absolbitu egiten dituzte, eta pertsona bakar baten iritzia zena herrialdearen iritzi bihurtzen da. Gehiegi eta gutxiegi egin duzu, beraz; aurrera egin beharra dago. Autoreak magistratu iraunkorren esku uzten dituzu; baina epaileak beharturik daude entzutera kondenatu aurretik; eta liburuan aitortzeak beldurra ematen zuena, zigorgabe aldarrikatzen da alegazioan;

kontaketa batean ilunkiro esango zatekeena beste milatan errepikatzen da horrela. Adierazpena kanpo-forma da eta, zilegi bazait esatea, pentsamenduaren gorputza, baina ez pentsamendua bera. Zure auzitegiek gorputza atxilotzen dute, baina arimak ihes egiten die eta sotilki labaintzen zaie esku artetik. Gehiegi eta gutxiegi egin duzu, beraz; aurrera segi beharra dago. Azkenean idazleak zentsoreen esku jartzen dituzu. Ederki! Ari gara hurbiltzen. Baina ez al da aske tribuna politikoa? Ez duzu, beraz, oraindik ezer egin; oker nabil, gaitza areagotu duzu. Bere agenteen kopuruarekin batera hazten diren indar material horietako bat bezala hartuko ote duzu, kasualitatez, pentsamena? Armadako soldaduak bezala zenbatuko ote dituzu idazleak? Indar material guztiak ez bezala, pentsamenaren ahalmena, adierazten dutenen kopuru txikiagatik ere areagotzen da sarri. Gizon ahaltsu baten hitza, bera bakarrik batzar mutu baten grina artean sartzen dena, mila hizlariren oihu nahasiak baino ahaltsuagoa da; eta leku publiko bakar batean gutxi bada ere aske hitz egin badaiteke, herriska bakoitzean publikoki hitz egingo balitz bezala da. Idazteko askatasuna bezalaxe mintzatzekoa ere suntsitu beharra daukazu orduan; oraingoan iritsi zara portura: denak isilik. Baina nora iritsi zara? Askatasunaren abusuetatik abiatu zinen, eta despota baten hankapean aurkitzen zaitut.

Erabateko independentziazatik erabateko morrontzara joan zara, pausatu ahal izateko leku bakar bat ere aurkitu gabe hain bide luzean.

Badira herri batzuk, aipatu berri ditudan arrazoi orokorrez aparte, beren arrazoi partikularrak dituztenak prentsa-askatasunari atxikitzeko.

Aske omen diren nazio batzuetan, boterearen agente guztiek hauts dezakete legea zigorgabe, herrialde horietako konstituzioak ez dielarik zapalduerik justiziaren aurrean kexatzeko eskubidea ematen. Herri horietan prentsaren independentzia ez da jadanik garantietako beste bat bezala hartu behar, hiritarren askatasun eta segurtasunerako gelditzen den garantia bakartzat baizik.

Beraz, nazio horiek gobernatzen dituztenek prentsari independentzia kentzea aipatuko balute, herri osoak zera erantzun ahal izango lieke: Utziguzue zeuen krimenak epaile arrunten aurrera eramaten, eta agian orduan onartuko dugu guk iritziaren auzitegira ez jotzea.

Herri-subiranotasunaren dogma nabarmenki nagusi den herrialdean zentsura, arrisku bat ezezik, zentzugabekeria handia ere bada.

Gizartea gobernatzeko eskubidea bakoitzari onartzen zaionean, bere garaikideak astintzen dituzten iritzi ezberdinen artean aukeratzeko gaitasuna ere onartu behar zaio, baita zenbait egitate baloratzekoa ere, berauen ezagutzak gida badezake.

Herri-subiranotasuna eta prentsa-askatasuna bi gauza zeharo koerlatibo dira, beraz. Zentsura eta boto uniberttsala, aitzitik, kontraesanean dauden bi gauza dira eta ezin dira luzaroan elkarrekin egon herri bereko erakunde politikoetan. Estatu Batuetako lurraldean bizi diren hamabi milioi biztanleen artean, oraindik ez dago *bat bakarra* ere prentsa-askatasunaren murriztapena proposatzera ausartu denik.

Amerikara iristean nire begien aurrera etorri zen lehen egunkariak ondorengo artikulua hau zeukan, zintzo-zintzo itzultzen dudana:

"Arazo honetan guztian, Jackson-ek (lehendakariak) erabilitako hizkera bihozgabeko despotarena izan da, bere botereari eusteaz bakarrik arduratzen denarena. Gutizia da haren krimena eta bertan aurkituko du zigorra. Azpijokoa du bere bokazioa, eta azpijokoak nahastaraziko dizkio bere egitasmoak eta kenduko bere indarra. Ustelkeriaz gobernatzen du, eta bere azpikeria hobendunek nahastu eta lotsarazi egingo dute. Jokaleku politikoan ahalkerik eta balaztarik gabeko jokalaria bezala agertu da. Arrakasta izan du; baina justiziaren ordua hurbiltzen ari da; laster itzuli egin beharko du irabazi duena, beregandik urruti bota dado iruzurlea eta erretiro-etxeren batean bukatu beharko

du, bere erokeriaren kontra askatasunez birao eginez; zeren eta damua ez baita beraren bihotzak inoiz ezagutu ahal izango duen bertutea".

(Vincenne's Gazette.)

Jende askok pentsatzen du Frantzian prentsaren bortizkeriak eragiten dituela gure artean gizarte-egoeraren ezegonkortasuna, gure grina politikoak eta ondoriozko egonezin orokorra. Etengabe espero dute, beraz, gizartea egoera lasai batera iristen den garaian, prentsa ere baretuko dela bere aldetik. Niri dagokidanez, gogo onez egotziko nieke goian aipaturiko kausei prentsak gure gain duen eragin ikaragarria; baina ez dut uste kausa horiek asko eragiten dutenik beraren hizkeran. Aldizkako prentsak bere joera eta grina bereziak dituela iruditzen zait, bere jardueraren inguruko zirkunstantzietatik aparte. Amerikan gertatzen denak frogatu berria dit hori.

Une honetan Amerika da agian bere baitan iraultza-hazirik gutxien duen munduko herrialdea. Amerikan, hala ere, Frantzian bezalakoxe gustu suntsitzaileak ditu prentsak, eta bortizkeria berbera, baina ez sumintzeko kausa berberak. Amerikan, Frantzian bezala, prentsa aparteko indarra da, gauza on eta txarrez oso era bitxian hornitua; bera gabe askatasunak ezin du bizirik iraun, eta berarekin ozta-ozta manten daiteke ordena.

Esan beharra dago prentsak askoz botere gutxiago duela Estatu Batuetan gure artean baino. Hala ere, oso arraroa da herrialde hartan prentsaren aurkako pertsekuzio judizialen bat ikustea. Honen zergatia sinplea da: amerikarrek, herri-subiranotasunaren dogma beren artean onartzean, beronen aplikazio zintzoa egin zuten. Ez zuten, egunero aldatzen diren elementuez, betiko iraupena izango zuten konstituzioak egiteko asmorik izan. Beraz, dauden legeei erasotzea ez da kriminala, berauei bortizkeriaren bidez ihes egin nahi ez bazaie behintzat.

Bestalde, amerikarrek uste dute auzitegiak ez direla prentsa moderatzeko gai, eta, azterketa judizialari etengabe ihes egiten dioten giza mintzairen malgutasunagatik, izaera horretako delituek nolabait ere ihes egiten dutela haiek harrapatzeko luzatzen den eskutik. Prentsaren gain eraginkortasunez jardun ahal izateko, pentsatzen dute auzitegi bat aurkitu beharko litzatekeela, ez bakarrik dagoen ordenari atxikia, baita beraren inguruan astintzen den iritzi publikoaren gainetik jar daitekeena ere; publizitatea onartu gabe epaituko lukeen auzitegi bat, bere epaiak motibatu gabe emango lituzkeena, eta hitzak baino ere gehiago asmoak zigortuko lituzkeena. Honelako auzitegi bat sortu eta mantentzeko ahalmena leukakeenak bere denbora alferrik galduko luke prentsa-askatasuna pertsegitzen; zeren eta orduan gizartearen beraren jaun eta jabe oso izango bailitzateke, eta idazleengandik eta hauen idazkietatik libratu ahal izango litzateke aldi berean. Beraz, prentsa-gaietan ez dago benetan erdibiderik morrontzaren eta askatasun mugagabearen artean. Prentsa-askatasunak ziurtatzen dituen ondasun preziagaitzak jasotzeko, jakin beharra dago berak halabeharrez sortarazten dituen gaitzetara makurtzen. Batzuei ihes eginez besteak lortu nahi izatea, normalean nazio gaixoei - borrokatzeaz nekaturik eta ahaleginengatik aumatuta, lurralde eta aldi berean iritzi etsaiak eta kontrako printzipioak elkarrekin irauteko bideak bilatzen dituztenean- entretenigarri izaten dituzten ilusio horietako batean murgiltzea da.

Amerikan egunkariak duten indar urriak hainbat kausa ditu; hona hemen nagusienak:

Idazteko askatasuna, beste guztiak bezalaxe, zenbat eta berriagoa izan, orduan eta beldurgarriagoa izaten da; estatuko arazoak bere aurrean aipatzen sekula entzun ez duen herriak, agertzen den lehen tribunoari sinesten dio. Angloamerikarren artean askatasun hau kolonien fundazioa bezain zaharra da; bestalde, prentsak, giza grinak pizten hain ongi dakienak, ezin ditu, ordea, berak bakarrik sortarazi. Nolanahi ere, Amerikan bizitza politikoa aktiboa da, bariatua, asaldatua ere bai, baina nekez grina sakonek atsekabetua; arraroa da hauek suspertzea interes materialak ez badaude jokoan, eta Estatu Batuetan interes hauek oparo egiten dute aurrera. Puntu honetan angloamerikarren eta gure artean



dagoen ezberdintasuna epaitzeko, aski dut bi herrietako egunkariei begiratu bat ematea. Frantzian, merkatal iragarkiek oso leku murrizta hartzen dute, albisteak berak ere urriak izaten dira; egunkari baten funtsezko zatia eztabaida politikoak daudeneko hura da. Amerikan, zeure aurrean daukazun egunkari handiaren hiru laurdenak iragarkiz beteta daude, gainerakoa gehienetan albiste politikoek edo anekdota hutsek hartzen dute; oso noizean behin bakarrik aurkitzen da baztertxo ahazturen batean gure artean irakurleen eguneroko elikagai diren eztabaida sutsu horietakoren bat.

Botere orok bere indarren ekintza areagotu egiten du horien zuzendaritza zentralizatzen duen neurrian; hau naturako lege orokor bat da, azterketak berak behatzaileari erakusten diona, eta are ziurragoa den sen batek beti jakinarazi diena despotarik txikienei ere.

Frantzian bi zentralizazio-mota ezberdin biltzen ditu prentsak.

Horren botere ia guztia leku bat berean dago bildua, eta nolabait esateko esku beretan, berorren organoak oso gutxi baitira.

Nazio eszeptiko baten erdian honela eratua, prentsaren botereak ia mugagabea izan behar du. Arerio bat da, eta berorrekin gobernu batek tregoa luzexeago edo laburxeagoak egin ditzake, baina aurrez aurre jarrita zail zaio luzaroan irautea.

Amerikan ez dago aipatu berri ditudan bi zentralizazio-mota horietako ez bata eta ez bestea.

Estatu Batuek ez dute hiribururik: jakintzargia nahiz boterea sakabanaturik dago eskualde zabal honetako alde guztietan; giza adimenaren izpiak, erdigune komun batetik irten ordez, gurutzatu egiten dira zentzu guztietan; amerikarrek ez dute inon kokatu pentsamenaren zuzendaritza orokorra, ezta negozioena ere.

Hau gizakien esku ez dauden tokian tokiko zirkunstantzien ondorio da; baina hona hemen legee zor zaizkienak:

Estatu Batuetan ez dago patenterik inprimatzaileentzat, ezta tinbre edo erregistrorik ere egunkarientzat; azkenik, fidantzei buruzko araua ere ez da ezagutzen.

Horren ondorioz egunkari bat sortzea eginkizun sinple eta erraza da; harpidedun gutxi batzuk aski dira argitaratzaileak bere gastuak ordaindu ahal izateko. Horregatik, aldizkako edo erdi aldizkako idazkien kopurua zenbatekoa den sinesterik ere ez dago Estatu Batuetan. Amerikarrik ilustratuene prentsaren indarren barreiaketa ikaragarri honi egozten diote beraren ahalmen eskasa. Zientzia politikoaren axioma bat da Estatu Batuetan, egunkarien efektuak neutralizatzeko bide bakarra berorien kopurua ugaltzea dela. Ezin dut ulertu hain egia nabaria nola ez den gure artean gehiago zabaldu. Iraultzak prentsaren laguntzaz egin nahi dituztenek berari organo ahaltsu batzuk bakarrik eman nahi izatea erraz ulertzen dut; baina ezin dut inola ere ulertu ezarritako ordenaren alde ofizialki daudenek eta legeen berezko eusleek nola sinesten duten prentsaren ekintza berau kontzentratuz gutxitzen dutela. Europako gobernuak prentsaren aurrean antzina zaldunek lehiakideen aurrean bezala jokatzen dutela iruditzen zait: zentralizazioa arma ahaltsua dela ohartu dira esperientziaz eta horretaz hornitu nahi dute arerioa, beroni aurre egiterakoan aintza gehiago lortu ahal izateko, zalantzarik gabe.

Estatu Batuetan ia ez dago herriskarik bere egunkaririk gabe. Erraz ulertzen da hainbeste gudulariren artean ezin dela ez diziplinarik, ez ekintza-batasunik lortu. Horregatik ikusten da nor bere bandera altxatzen. Kontua ez da Batasuneko egunkari politiko guztiak lerrokatu direla administrazioaren alde edo aurka, baizik eta makina bat era ezberdinetan erasotzen eta defendatzen dutela. Beraz, Estatu Batuetan egunkariak ezin dute iritzi-korronte handirik sortu, dikerik sendoenak suntsitzen edo gainditzen dituzten horietakorik, alegia. Prentsaren indar-banaketa honek beste efektu batzuk ere eragiten ditu, aurrekoak bezain ohargarriak: erraza izanik egunkari bat sortzea, mundu guztiak egin dezake hori; bestalde, konkurrentziaren ondorioz egunkari batek ez dezake oso mozkin handirik espero izan; eta honek eragozten die industri gaitasun handikoei

honelako enpresatan esku hartzea. Bestalde, egunkariak aberastasun-iturri izango balira ere, ugariegi direnez, talentuko idazleak ez lirateke aski izango horiek zuzentzeko. Kazetariak Estatu Batuetan ez dute, oro har, goi-mailarik gizartean, beraien heziketa oraindik zirriborratua baino ez dago eta dituzten ideien jitea arrunta da sarri. Nolanahi ere, gauza guztietan gehiengoak egiten du legea; berak ezartzen du zenbait jokabide, gero mundu guztiak bere egiten dituenak; aztura komun hauen multzoari izpiritu deritzo: bada foro-izpiritua, auzitegi-izpiritua. Frantzia kazetari-izpiritua estatuko interes handiak bortizki, baina era jasoan eta hitz ederrez sarri, eztabaidatzea da; beti ez bada honela gertatzen, arau orok bere salbuespenak dituelako da. Amerikan kazetari-izpiritua bere irakurleen grinak zabarki, zehar-meharka ibili barik eta arterik gabe, erasotzea da, printzipioak utzi eta pertsonen heldutasuna, eta hauei beren bizitza pribatuan jarraitzea, berauen ahuleziak eta bizioak agerian jarritz.

Deitoratu beharra dago pentsamenaren horrelako abusua; geroago izango dut aukera egunkariak herri amerikarraren gustu eta moraltasunean zer-nolako eragina duten ikertzeko; baina, berriro diot, une honetan politika-arloak bakarrik ari naiz. Ezin da disimulatu prentsaren askatasun mugagabe honen efektu politikoek ez dutela zeharka lasaitasun publikoa mantentzen laguntzen. Ondorioz, herrikideen iritzian jadanik goi-maila duten pertsonak ez dira egunkarietan idaztera ausartzen, eta honela herri-grinak beren probetxurako mugiarazteko erabil lezaketen armarik beldurgarriena galtzen dute<sup>165</sup>. Hortik dator, batez ere, kazetariak adierazitako ikuspegi pertsonalek ez izatea, nolabait esateko, inolako pisurik irakurleentzat. Hauek egunkari batean bilatzen dutena egitateak jakitea da; egitate hauek aldatuz edo desnaturalizatuz bakarrik lor dezake kazetariak bere iritzia eragingarri bihurtzea.

Baliabide bakar hauetara mugatua, hala ere ikaragarritzko boterea zertzen du prentsak Amerikan. Bizitza politikoa zirkularazten du lurralde zabal hartako zati guztietan. Beti erne, berak jartzen ditu etengabe agerian politikaren ezkutuko eragileak, eta iritziaren auzitegira etortzera behartzen ditu gizon publikoak txandaka. Berak biltzen ditu interesak zenbait doktrinaren inguruan eta alderdien programak formulatzen ditu; hauek beraren bidez hitz egiten dute elkar ikusi gabe, eta elkar ulertzen dute harremanetan jarri gabe. Prentsa-organoen kopuru handi batek bide beretik ibiltzea lortzen duenean, hauen eragina ia jarkiezina bihurtzen da luzera, eta iritzi publikoak, beti alde beretik eraso, azkenean amore ematen die haien kolpeei.

Estatu Batuetan egunkari bakoitzak botere gutxi du banaka; baina aldizkako prentsa da oraindik, herriaren ondoren, botereetan lehena (A).

*Estatu Batuetan prentsa-askatasunaren agintepean ezartzen diren iritziak sarri tinkoagoak dira beste alde batzuetan zentsuraren agintepean ezartzen direnak baino.*

Estatu Batuetan demokraziak jende berria eramaten du etengabe arazo publikoen zuzendaritzara; gobernuak, beraz, jarraipen eta ordena gutxi jartzen du bere neurrietan. Baina gobernu-printzipio orokorrak beste herrialde askotan baino egonkorragoak dira han, eta gizartea arautzen duten iritzi nagusiak iraunkorrago ageri dira. Ideia bat herri amerikarraren izpirituaz jabetu denean, bidezkoa nahiz zentzugabea izan, ez dago hori erazteko baino gauza zailagorik.

Egitate bera nabaritu izan da Ingalaterran, mende batez Europako herrialde honetan ikusi direlarik pentsaera-askatasunik handiena eta aurriritzirik garaitezinenak.

Efektu hau, lehen begiratuan, sortzea eragotzi beharko lukeela ematen duen kausa berari egozten diot, prentsa-askatasunari, alegia. Askatasun hau beren baitan duten herriak uste sendoz bezainbat harrotasunez atxikitzen zaizkie beren iritziei. Maite dituzte, bidezkoak iruditzen zaizkielako, baita berek aukeratu dituztelako ere, eta haiei atxikitzen zaizkie ez egiazko gauza bati bezala bakarrik, baita bere-bere duten zerbaiti bezala ere.

Oraindik badira beste arrazoi batzuk ere.

Gizon handi batek esan du *zientziaren bi muturretan zegoela ezjakintasuna*. Agian egiazkoagoa izango zatekeen esatea uste sakonak bi muturretan bakarrik aurkitzen direla, eta erdian zalantza dagoela. Izan ere, hiru egoera ezberdinetan -eta sarri segidazko diren egoeratan- kontsidera daiteke giza adimena.

Gizakiak tinko sinesten du, sakondu gabe onartzen duelako. Objekzioak agertzean zalantza sortzen zaio. Sarri bere zalantza guztiak argitzea lortzen du, eta berriro sinesten hasten da orduan. Oraingoan ez du jadanik egia ausaz eta ilunbetan hautematen, baizik eta aurrez aurre ikusten du eta beraren argipean joaten da zuzenean<sup>166</sup>.

Prentsa-askatasunak gizakiak lehen egoeran aurkitzen dituenean, oraindik luzaroan uzten die hausnartu gabe tinko sinesteko aztura hori; baina egunero aldatzen du hausnargabeko sineskizun horien gaia. Adimenaren zerumuga zabalean, giza izpirituak aldi berean puntu bakarra ikusten jarraitzen du, baina puntu hau etengabe aldatzen da. Bat-bateko iraultzen garaia da. Zoritxarrekoak bat-batean prentsa-askatasuna onartzen lehenak diren belaunaldiak!

Laster, ordea, kurritzen da gutxi gora-behera ideia berrien esparrua. Esperientzia iristen da, eta gizakia zalantza eta mesfidantza unibertsalean murgiltzen da.

Pentsa daiteke pertsona gehienak bi egoera hauetako batean geldituko direla beti: zergatik jakin gabe sinetsiko dute, edo ez dute zehatz-mehatz jakingo zer sinetsi behar den.

Jakintzatik sortu eta zalantzaren asalduren erdi-erditik goratzen den uste hausnartu eta bere buruaren jabe den beste horretaz, pertsona gutxi batzuen ahaleginari bakarrik emango zaio beti uste sendo hori lortu ahal izatea.

Nolanahi ere, ikusi da erlijio-berotasunezko mendeetan jendeak sineskizunak aldatzen zituela batzuetan, zalantza-mendeetan bakoitzak bereari setati eusten zion bitartean. Honela gertatzen da politikan, prentsa-askatasunaren agintepean. Gizarte-teoria guztiak txandaka eztabaidatu eta eraso ondoren, horietako bati atxikitzen zaionak eutsi egiten dio, ez hainbeste ona dela ziur dagoelako, hoberik dagoen ala ez ziur ez dagoelako baizik.

Mende horietan ez dute hain erraz onartzen beren iritziengatik heriotza jasatea, baina aldatu ere ez dituzte egiten, eta aldi berean martiri eta apostata gutxiago aurkitzen da horrelakoetan.

Erantsi arrazoi honi are indartsuagoa den beste hau: iritzietan zalantza dagoenean, azkenean jendea joera eta interes materialei bakarrik atxikitzen zaie, beren izaeraz iritzia baino askoz nabariago, ukigarriago eta iraunkorragoak direlarik.

Oso arazo zaila da erabakitzea nork gobernatzen duen hobeto, demokraziak ala aristokraziak. Baina garbi dago demokraziak bata gogaitzen duela, eta aristokraziak bestea zapaltzen.

Hau bere kabuz ezartzen den egia da eta eztabaidarik behar ez duena: zu aberatsa zara eta ni behartsua.

#### IV

##### *Elkartze politikoa Estatu Batuetan*

Elkartzeko eskubideaz angloamerikarrek egunero egiten duten erabilera.- Hiru motatako elkarte politikoak.- Amerikarrek nola aplikatzen dieten elkarteei ordezkapen-sistema.- Hortik Estatuarentzat ondorioztatzen diren arriskuak.- 1831ko konbentzio handia tarifari buruz.- Konbentzio honen izaera legegilea.- Elkartzeko eskubidearen erabilera mugagabea zergatik ez den Estatu Batuetan beste alde batzuetan bezain arriskutsua.- Han zergatik jo daitekeen beharrezkotzat.- Elkarteen ondorio onak herri demokratikoetan.

Amerika da elkartzeari onura gehien atera dion eta ekintza-bide ahaltsu hau helbururik ezberdinenei aplikatu dien munduko herrialdea.

Udalerri, hiri eta konderri izenpean legeak eraturiko elkarte iraunkorrez gain, beste asko daude banakoen borondatez bakarrik sortu eta garatu direnak.

Estatu Batuetako biztanleak jaiotzatik ikasten du bere buruagan oinarritu behar duela bizitzako gaitz eta oztopoen kontra borrokatzeko; gizarte-aginteari mesfidantzaz eta urduritasunez baino ez dio begiratzen, eta besterik ezean bakarrik jotzen du horren aginpidera. Honetaz eskolatik bertatik hasten da jabetzen, non haurrak, jokoetan ere, berek ezarritako arauetara makurtzen baitira eta beren artean zigortzen haiek berek zehazturiko delituak. Gizarte-bizitzako egintza guztietan aurkitzen da izpiritu berbera. Demagun oztopo bat agertzen dela bide publikoan, ezin dela pasatu eta zirkulazioa gelditu dagoela; herritarrak berehala bihurtzen dira gorputz deliberatzaile; bat-bateko batzar honetatik gaitzari konponbidea jarriko dion botere exekutiboa sortuko da, interesatuenena baino aurretikoagoko aginpidearen ideia inori bururatu ere egin baino lehen. Dibertitzea bada kontua, festari distira eta erregulartasun gehiago emateko elkartuko dira. Erabat intelektualak diren etsaiei aurre egiteko elkartzen dira azkenik; neurrigabekeriaren aurka ere amankomunean borrokatzen dira. Estatu Batuetan segurtasun publiko, merkataritza eta industria, moral eta erlijiozko helburuekin elkartzen dira. Giza borondateak guzti-guztia lortzea espero du gizabanakoen indar kolektiboaren ekintza askearen bidez.

Aurrerago izango dut aukera elkartzeak bizitza zibilean eragiten dituen ondorioei buruz hitz egiteko. Une honetan politika-arlorra mugatu behar dut.

Elkartzeko eskubidea onartua dagoelarik, hiritarrak hainbat eratara balia daitezke horretaz.

Elkarte bat, pertsona-kopuru batek doktrina batzuei edo besteei ematen dien atxikimendu publikoan bakarrik datza, eta doktrina horiek nagusi daitezzen era jakin batean laguntzeko hartzen duen konpromezuan. Honela, elkartzeko eskubidea ia nahastu egiten da idazteko askatasunarekin; hala ere, prentsa baino ahaltsuagoa da jadanik elkarteak. Iritzi bat elkarte batek bere egiten duenean, beharturik dago forma garbi eta zehatzagoa hartzera. Bere aldekoak ditu eta bere kausan konprometitzen ditu. Hauek berauek ikasten dute elkar ezagutzen, eta kopuruarekin batera gogo-berotasuna areagotzen zaie. Elkarteak sorta batean biltzen ditu izpiritu urrunkorren ahaleginak, eta kementsu bultza egiten die berak garbi adierazitako xede bakar baterantz.

Elkartzeko eskubidearen egikaritzan dagoen bigarren maila bildu ahal izatea da. Elkarte politiko bati herrialdeko zenbait toki garrantzizkotan ekintza-guneak jartzen uzten zaionean, beraren jarduera handiagoa izaten da eta eragina zabalagoa. Gune horietan, jendeak elkar ikusten du, egikaritza-bideak konbinatu egiten dira eta pentsamendu idatziak inoiz lortu ezin duen indar eta berotasunarekin garatzen dira iritziak.

Azkenik, elkartzeko eskubidearen egikaritzan bada, politika-gaietan, beste maila bat: iritzi beraren aldekoak hautesle-kolegioak eratuz biltze daitezke, eta mandatariak izendatu batzar zentrolean beraien ordezkari izateko. Zehatz esanda, ordezkapen-sistema da, alderdi bati aplikatua.

Honela, lehen kasuan, iritzi beraren aldeko direnek adimen-mailako lotura hutsa ezartzen dute beren artean; bigarren kasuan, batzar txikitik biltzen dira, alderdiaren zati bat baino ordezkatzeko ez dutenak; hirugarrenean, azkenik, nazioaren baitan aparteko nazio bat bezalakoa osatzen dute, gobernuaren baitan beste gobernu bat. Haien mandatariak, gehiengoaren mandatarien antzekoak, beren aldekoen indar kolektibo guztia ordezkatzeko dute berek bakarrik; azken hauek bezalaxe, nazionalitate-itxura bat hartzen dute eta honen ondoriozko indar moral guztia. Egia da ez dutela, besteek bezala, legea egiteko eskubidea, baina badute dagoenari erasotzeko eta gero izan behar duena aurrez formulatzeko ahalmena.

Demagun herri bat ez dagoela erabat ohitua askatasunaz baliatzen, edo herri horretan grina politiko sakonak daudela irakiten. Legeak egiten dituen gehiengoaren ondoan, *kontuan hartuzkoez* bakarrik arduratu eta *xedapenezkoan* gelditzen den gutxiengo bat kokatzen bada, derrigorrez sinetsi behar ordena publikoa ezusteko handien arriskupean dagoela.

Lege bat berez beste bat baino hobea dela frogatzearen eta hark beste hau ordeztu behar duela frogatzearen artean tarte handia dago, zalantzarik gabe. Baina pertsona ilustratuen izpirituak oraindik tarte handia ikusten duen lekuan, jendetzaren irudimenak ez du jada ezer hautematen. Gainera, garai batzuetan nazioa bi alderdi ia berdinetan banatzen da, bakoitzak dioelarik gehiengoaren ordezkari dela. Botere gidatzailearen ondoan, ia berak bezain aginpide moral handia duen beste botere bat ezartzen bada, pentsa al daiteke luzaroan mugatuko dela hitz egitera jardun gabe?

Gogoeta metafisiko honen aurrean geldituko ote da beti, alegia, elkarteen helburua iritziak gidatzea dela eta ez ezartzea, legeari aholku ematea eta ez legea egitea?

Zenbat eta gehiago aztertu prentsaren independentzia bere efektu nagusietan, are gehiago komentitzen naiz modernoan artean prentsaren independentzia funtsezko elementua dela, askatasuna ezartzen duena, nolabait esateko. Aske iraun nahi duen herriak kosta ahala kosta errespetatzen dezaten eskatzeko eskubidea du. Baina elkartzeko askatasun *mugagabea* arlo politikoan ezin da erabat nahastu idatzeko askatasunarekin. Bata ez da bestea bezain beharrezkoa, baina aldi berean bai arriskutsuagoa. Nazio batek mugak jar diezazkioke, bere buruaren jabe izateari utzi gabe; batzuetan horrela egin behar izaten du existitzen jarraitzeko.

Amerikan helburu politikoekin elkartzeko eskubidea mugagabea da.

Nik erants nezakeen guztiak baino hobeto adieraziko du adibide batek zein mailataraino toleratzen den.

Gogoan izango da tarifaren edo merkatal askatasunaren arazoak noraino astindu zituen izpirituak Amerikan. Tarifak ez zituen iritziak bakarrik bultzatzen edo erasotzen, baita interes material oso ahaltsuak ere. Iparraldeak bere oparotasunaren zati bat egozten zion, Hegoaldeak ia bere ezbehar guztiak. Esan daiteke, tarifak sortarazi izan dituela luzaroan Batasuna astindu duten grina politiko bakarrak.

1831n, liskarra gaiztotuen zegoen unean, Massachusettseko hiritar ilun bati zera bururatu zitzaion, tarifaren kontrako guztiei egunkarien bidez proposatzea diputatuak bidal zitatzela Filadelfiara, guztien artean eztabaidatzeko nola itzuli merkataritzari bere askatasuna. Proposamen honek egun gutxi behar izan zituen Mainetik Orleans Berriraino zabaltzeko inprimategien indarrez. Sutsu onartu zuten tarifaren kontrakoak. Alde guztietatik bildu eta diputatuak izendatu zituzten. Hauetako gehienak pertsona ezagunak ziren, eta batzuk ospetsu izateraino iritsiak. Hego Carolinak, gero kausa beragatik armak hartu zituenak, hirurogeita hiru delegatu bidali zituen bere aldetik. 1831ko urriaren 1ean eratu zen Filadelfian batzarra, amerikar azturaren arabera konbentzio izena harturik; berrehun kide baino gehiago zituen. Eztabaidak publikoak ziren eta lehen egunetik izaera legegilea hartu zuten erabat; Kongresuaren botereen hedadura eztabaidatu zen, merkatal askatasunari buruzko teoriak eta, azkenik, tarifari buruzko xedapen ezberdinak. Hamar egunen buruan, batzarra banatu egin zen herri amerikarrari oroitagiri bat idatzi ondoren. Agiri honetan esaten zen: 1.<sup>a</sup> Kongresuak ez zuela eskubiderik tarifa bat ezartzeko, eta zegoen tarifa konstituziokontrakoa zela; 2.<sup>a</sup> ezein herrirentzat, eta herri amerikararentzat bereziki, ez zela interesgarria merkataritza aske ez izatea.

Aitortu beharra dago elkartzeko askatasun mugagabeak politika-arloan ez duela gaur arte Estatu Batuetan sortu, beste alde batzuetan agian espero zitekeen ondorio gaiztorik.

Elkartzeko eskubidea Ingalaterratik eramana dute han, eta betidanik izan da Amerikan. Eskubide honen erabilera gaur egun sartua dago aztura eta ohituretan.

Gure garaian, elkartzeko eskubidea beharrezko garrantzia bilakatu da gehiengoaren tiraniaren kontra. Estatu Batuetan, behin alderdi bat nagusi bihurtu denean, botere publiko guztia berorren eskuetara pasatzen da; berorren adiskide partikularrek hartzen dituzte postu guztiak eta indar antolatu guztiez baliatzen dira. Kontrako alderdiko pertsonarik garrantzizkoenak, boteretik banatzen dituen hesia gainditu ezin dutenez, kanpoan ezarri behar izaten dute; beharrezkoa gertatzen da gutxiengoak bere indar moral guztia jartzea bera zapaltzen duen indar materialaren kontra. Are beldurgarriagoa den arrisku baten kontra jartzen den beste arrisku bat da, beraz.

Gehiengoaren guztiahala errepublika amerikarrentzat hain arrisku handia iruditzen zaidanez, hori mugatzeko erabiltzen duten baliabide arriskutsua gauza on bat dela iruditzen zait.

Gogoeta bat adieraziko dut hemen, beste leku batean udal-askatasunei buruz esandakoa gogoraraziko duena: alderdien despotismoa edo printzearen nagusikeria eragozteko, elkarteak inon ez dira beharrezkoagoak gizarte-egoera demokratikoa duten herrialdeetan baino. Nazio aristokratikoetan, bigarren mailako gorputzek berezko elkarteak eratzen dituzte boterearen abusuak geldiarazteko. Horrelako elkarterik ez dagoen herrialdeetan, partikularrek ezin badute artifizialki eta momentuan antzeko zerbaite sortu, nik ez dut jada hesirik ikusten edozelako tiraniaren aurka, eta herri handi bat zigorgabe zapal dezake fakzioso-taldetxo edo pertsona batek.

Konbentzio politiko (mota guztietakoak baitaude) handi baten bilera, sarri beharrezko neurri bilaka daitekeena, beti da, Amerikan ere, gertakari larri bat, bere herrialdearen alde daudenek beldurrez ikusten dutena.

Hau garbi ikusi zen 1831ko konbentzioan, non batzarkide ziren gizon garrantzizkoen ahalegin guztiak hizkera biguntzera eta helburua mugatzera zuzendu baitziren. Agian 1831ko konbentzioak eragin handia izan zuen, hain zuzen ere, pozik ez zeudenen izpirituetan, eta 1832an Batasuneko merkatal legeen kontra agerian gauzatu zen erreboltarako prestatu zituen.

Ezin da ukatu elkartzeko askatasun mugagabea politika-gaietan, askatasun guztien artetik herri batek jasan dezakeen azkena dela. Anarkian erorarazten ez badu, beronen ondo-ondoan ibilarazten du etengabe. Hala ere, hain arriskutsua den askatasun honek garrantziak eskaintzen ditu puntu batean; elkarteak aske diren herrialdeetan, ezezagunak dira ezkutuko elkarteak. Amerikan bada fakziosorik, baina ez konspiratzailerik.

Elkartzeko eskubidea ulertzeko era ezberdinak Europan

eta Estatu Batuetan, eta honetaz egiten den erabilera ezberdina

Bakarrik jarduteko eskubidearen ondoren, gizakiarentzat naturalena bere ahaleginak bere antzekoenekin elkartu eta amankomunean jardutea da. Hortaz, elkartzeko eskubidea bere izaeraz banakoaren askatasuna bezain inorenduezina iruditzen zait. Legegileak ezingo luke suntsitu gizarteari berari eraso egin gabe. Halaz guztiz, elkartzeko eskubidea herri batzuetan ongile eta oparotasun-sortzaile baldin bada ere, beste batzuetan, beren gehiegikeriengatik, desnaturalizatu egiten dute, eta bizi-elementu den zerbaite suntsipen-eragile bihurtzen dute. Askatasuna ulertzen den herrialdeetan eta askatasun hori mugagabekeria bihurtzen denetan, elkarteek jarraitzen dituzten bide ezberdinen konparazioa onuragarri izango litzatekeela iruditzen zait, bai gobernuentzat, baita alderdientzat ere.

Europarrik gehienentzat oraindik gerrako arma da elkartea, presaka eratzen dena berehala gudu-zelaira joan eta probatzeko.

Egia da hitz egiteko xedeaz elkartzen dela jendea, baina izpiritu guztietan egoten da laster jarduteko ideia. Elkartea armada bat da; hitz egiten da bertan kideak zenbatu eta

elkar adoretzeko, eta gero arerioaren aurka joaten da. Elkartea osatzen dutenei baliabide legalak bitartekoak irudi lekizkieke, baina hauek sekula ez dira izaten arrakastarako bitarteko bakarrik.

Ez da honela ulertzen elkartzeko eskubidea Estatu Batuetan. Amerikan gutxiengoa osatzen duten hiritarrak elkartu egiten badira, lehenik beren kopurua konstatatzeko da eta honela gehiengoaren aginte morala ahultzeko; elkartzen direnen bigarren helburua eztabaidatzea da eta honela gehiengoa hunkiarazteko argudiorik egokienak aurkitzea; zeren eta gehiengoa berenganatzeko itxaropena izaten baitute beti, eta gero, beronen izenean, botereaz baliatzekoa.

Elkarte politikoak, beraz, Estatu Batuetan baketsuak dira beren helburuan, eta legezkoak beren bitartekoetan; eta arrakasta legeen bidez bakarrik nahi dutela esaten dutenean, egia diote, oro har.

Puntu honetan amerikarren eta gure artean ikusten den aldeak hainbat arrazoi ditu.

Europar dauden alderdi batzuek hain ezberdinak direnez gehiengoaren aldean, inoiz ezin dute espero izan gehiengo horren laguntza lortzerik, eta alderdi horiek beren burua nahiko indartsu sentitzen dute gehiengoaren aurka borrokatzeko. Honelako alderdi batek elkarre bat eratzen duenean, ez du komentzitu nahi izaten, borrokatu baizik. Amerikan, beren iritziagatik gehiengoagandik oso urruti daudenek ezin dute ezer egin honen boterearen kontra; beste guztiek hau berenganatzea espero dute.

Elkartzeko eskubidearen erabilera, beraz, alderdi handiek gehiengo bilakatzeko duten ezintasunaren proportzioan bihurtzen da arriskutsu. Estatu Batuak bezalako herrialde batean, non iritziak ñabarduretan bakarrik bereizten diren, elkartzeko eskubidea, nolabait esateko, mugarik gabea izan daiteke.

Elkartzeko eskubidean, gobernariak gerra egiteko eskubidea bakarrik ikusarazten diguna, askatasun-kontutuan dugun esperientziarik eza da. Alderdi nahiz gizaki bati, indarra etortzen zaionean, lehenengo bururatzen zaion ideia bortxakeriarena da; pertsuasioaren ideia geroago iristen da, eta esperientziatik sortzen da.

Ingelesak, beren artean hain sakon banaturik daudenak, oso nekez abusatzen dute elkartzeko eskubideaz, luzaroagoan erabili baitute.

Gainera, gure artean gerrarako zaletasuna hain bizia denez, ez dago eginkizunik -oso zentzugabea izanda ere, Estatua irauli nahi lukeena bezalako- hilik suertatzea goresgarria iruditzen ez zaigunik, armak eskuan ditugula baldin bada.

Baina Estatu Batuetan elkarte politikoaren bortizkeria moderatzen laguntzen duten kausa guztietatik, indartsuena boto unibertsala izango da agian. Boto unibertsala onarturik dagoen herrialdeetan, gehiengoa sekula ez da dudazkoa, zeren eta ez baitago alderdirik botoa eman ez diotenen ordezkari bihurtuko denik, zentzutasunez behintzat. Elkarre badakite, beraz, eta mundu guztiak daki, eurek ez dutela gehiengoa ordezkatzeko. Hau haien izatearen beraren ondorio da; zeren eta, ordezkatzeko balute, beraiek aldatuko bailukete legea, eraberritzeko eskatu ordez.

Elkarre erasopean dagoen gobernuaren indar morala asko areagotzen da horrela; beroriena, berriz, asko ahultzen.

Europar ia ez dago elkarre gehiengoaren nahiak ordezkatzeko dituela uste edo sinesten ez duenik. Uste edo sineskizun honek ikaragarri areagotzen du horien indarra, eta oso ondo balio du horien ekintzak legitimatzeko. Zeren eta, ba al da ezer bortizkeria baino desenkusagarriagorik, zuzenbidearen kausa zapaldua garaile ateratzeko?

Honela, giza legeen konplikazio ikaragarrian, batzuetan gertatzen da erabateko askatasunak askatasunaren abusuak zuzenarazten dituela, eta erabateko demokraziak demokraziaren arriskuak prebenitzen dituela.

Europar, nolabait ere, nazioko kontseilu legegile eta betearazleak balira bezala sentitzen dira elkarre, nazioak berak ez baitezake bere ahotsa entzunarazi; ideia honetatik

abiatuz, jardun eta agindu egiten dute. Amerikan, non guztien begietarako nazioan gutxiengo bat bakarrik ordezkatzan duten, hitz egin eta eskariak egiten dituzte.

Europar elkarrekin erabiltzen dituzten bitartekoak beren xedearan arabera izaten dira.

Elkarte hauen helburu nagusia jardutea izanik eta ez hitz egitea, borrokatzea eta ez komentatzea, berez jotzen dute beren buruari batere zibila ez den antolamendua ematera eta beren baitan aztura eta maxima militarrek sarraraztera. Honela, ahal duten neurrian, zentralizatu egiten dute beren indarren zuzendaritza, eta guztien boterea oso kopuru txiki baten esku jartzen dute.

Elkarte hauetako kideek gako-hitz bati erantzuten diote, soldaduek gerra-garaian bezala; obediencia pasiboaren dogma profesatzen dute, edo, hobeto esanda, elkartzen direnean kolpe batean egiten dute beren bereizmenaren eta aske erabakitzeko ahalmenaren sakrifizioa. Honela, elkarrekin hauen barruan, berauek erasotzen duten gobernuaren izenean gizartearen gauzatzen dena baino tirania jasanezinagoa izaten da sarri nagusi.

Honek asko urritzen du horien indar morala. Horrela, zapalduen zapaltzaileen aurkako borrokan egozten zaien izaera sakratua galtzen dute. Zeren eta zenbait kasutan bere antzekoetakoren batzuei, bere borondatea entregatuz eta bere pentsamena ere horien menpe jarritz, morroi bezala obeditzea onartzen duenak, honek nola esan lezake aske izan nahi duela?

Amerikarrek gobernu ere ezarri dute elkarrekin baitan, baina gobernu zibila da, zilegi bazait honela esatea. Independentzia indibidualak bere parte du han. Gizartearen bezalaxe, pertsona guztiak doaz han aldi berean helmuga bererantz, baina inor ez dago behartuta juxtu-juxtu bide beretatik ibiltzera. Han ez da bakoitzaren borondatearen eta arrazoimenaren sakrifizioarik egiten, baizik eta eginkizun amankomun batek arrakasta izan dezan erabiltzen dira borondatea eta arrazoimena.

V

#### *Demokraziaren gobernu Amerikan*

Badakit leku arriskutsuan sartzen naizela hemen. Kapitulu honetako hitz bakoitzak punturen batean mintu egingo ditu nire herrialdea zatitzen duten alderdiak. Hala ere, ez dut ezkutatu nire pentsaera osoa.

Europar zailtasunak ditugu demokraziaren benetako izaera eta joera iraunkorrak epaitzeko, Europar borroka baitago aurkako bi printzipioen artean eta ez da zehazki jakiten zer parte egotzi behar zaien printzipioei berei, edo zer parte borrokak sortarazitako grinei.

Amerikan ez da gauza bera gertatzen. Han herria nagusi da oztoporik gabe; ez dago beldurra sortarazteko arriskurik, ezta mendekatu beharreko irainik ere.

Amerikan, beraz, demokrazia bere joeretara utzia dago. Bere ibilerak naturalak dira eta mugimendu guztiak askeak. Han epaitu behar da. Eta norentzat litzateke azterketa hau interesgarri eta probetxuzko, guretzat ez bada, alegia, mugimendu geldiezin batek egunero arrastaka eramanda itsu-itsuan agian despotismorantz, agian errepublikarantz, baina zalantzarik gabe gizarte-egoera demokratikorantz goazenontzat ez bada?

Boto unibertsala

Esan dut lehen Batasuneko estatu guztiek onartu zutela boto unibertsala. Gizarte-eskalako maila ezberdinetan kokaturik dauden herrietan aurkitzen da. Berorren efektuak leku ezberdinetan eta beren hizkuntza, erlijio edo ohiturengatik elkarren artean ia arrotz diren giza enden artean ikusteko aukera izan dut, Louisianan nahiz Ingalaterra Berrian, Georgian nahiz Kanadan. Adierazi dut guk Europar espero ditugun on guztiak eta gaitz guztiak sortaraztetik urruti zegoela boto unibertsala Amerikan, eta beronen efektuak oro har espero ez bezalakoak zirela.

Herriaren aukeraketak eta demokrazia amerikarren joeran bere aukeraketetan



Estatu Batuetan pertsonarik bikainenak nekez deitzen dituzte arazo publikoen zuzendaritzara.- Fenomeno honen zergatiak.- Frantziako behe-klaseek goikoen kontra sentitzen duten bekaizkeria ez da sentimendu frantsesa, demokratikoa baizik.- Zergatik Amerikan gizon garrantzizkoek sarri aldentzen dituzten beren buruak karrera politikotik.

Europar jende askok sinesten du esan gabe, edo esaten du sinetsi gabe, boto unibertsalaren abantaila handietako bat hau dela: konfiantza publikoa merezi duten pertsonak deitzea arazoen zuzendaritzara. Esaten da herriak ez lukeela bere burua gobernatzen jakingo, baina benetan Estatuaren ongia nahi duela beti, eta nahi hori berori dutenak eta boterea beren esku izateko gaitasun gehien dutenak izendatzerakoan senak nekez huts egiten diola.

Nire aldetik, esan beharrean nago Amerikan ikusi dudanak ez didala hori horrela denik pentsarazten. Estatu Batuetara iristean, harriturik gelditu nintzen ohartzean meritua zein hedatua zegoen gobernatuen artean, eta zein urria zen gobernarien artean. Gaur egun etengabe errepikatzen den gauza da pertsonarik bikainenak nekez deitzen dituztela eginkizun publikoetara, eta onartu beharra dago demokraziak bere antzinako muga guztiak gainditu dituen neurrian izan dela hori horrela. Nabaria da estatu-gizon amerikarren askazia bereziki kaskartu dela azken mende erdi honetan.

Fenomeno honen hainbat kausa adieraz daitezke.

Eginak egin, ezinezkoa da herriaren jakintzargiak halako maila batetik gora jasotzea. Giza ezagupenetara iristea erraztu arren, irakas-metodoak hobetu eta zientzia merketu arren, sekula ez da lortuko jendeak eskolatu eta bere adimena garatzerik horretara denborarik eman gabe.

Lanik egin gabe bizitzeko herriak izan dezakeen erraztasun handiago edo txikiagoak ezartzen du bere aurrerapen intelektualen derrigorrezko muga. Muga hau urrutirago dago zenbait herrialdetan, hurbilago beste batzuetan, baina mugarik ez izateko, herriak ez luke bizitzako beharrian materialez arduratu beharrik izan behar, hau da, jadanik ez luke herria izan beharko. Beraz, hiritar guztiak aberats dituen estatu bat imajinatzea bezain zaila da pertsona guztiak oso ilustratu dituen gizarte bat imajinatzea; bi zailtasun koerlatibo dira horiek. Eragozpenik gabe onartuko dut hiritargoak bene-benetan nahi duela herrialdearen ongia; are urrutirago joanez, esango dut, nire ustez, desira horretan gizarteko behe-klaseek beren interes pertsonaleko gauza gutxiago nahasten dituztela, goi-klaseek baino; baina beti falta zaiena, gehixeago edo gutxiixeago, baliabideak aztertzeko artea da, helburua benetan nahi izan arren. Zein azterketa luzea, zenbat ezagupen ezberdin behar den pertsona bakar baten izaerari buruzko ideia zehatza eratzeko! Jeinurik handienak desbideratu egiten dira horretan, eta jendetzak asmatuko du! Herriak sekula ez du lan honetarako astirik eta bitartekorik aurkitzen. Presaka erabaki behar izaten du beti, eta gauzarik nabarienari atxiki behar. Hortik dator mota guztietako berriak hain ongi jakitea herriari atsegin emateko sekretua, honetan benetako adiskideek gehienetan porrot egiten duten bitartean.

Gainerantz, merituko pertsonak aukeratzeko, demokraziari ez zaio beti gaitasuna falta izaten, nahia eta gustua baizik.

Ez da ezkutatu behar erakunde demokratikoen goi-mailaraino garatzen dutela inbidiaren sentimendua giza bihotzetan. Ez da hainbeste bakoitzari besteekin parekatzeko bitartekoak eskaintzen dizkiotelako, baizik eta bitarteko hauek etengabe huts egiten dietelako erabiltzen dituztenei. Erakunde demokratikoen berdintasunaren grina suspertzen eta lausengatzen dute, guztiz asebate ahal izan gabe sekula. Erabateko berdintasun honek egunero ihes egiten dio herriari eskuetatik lortzen ari dela uste duen unean; eta ihes egiten dio, Pascalek dioen bezala, betiko ihesaldian; eta herria berotu egiten da ondasun honen bilaketan, are preziatuagoa delarik ezagutu ahal izateko

nahikoa hurbil dagoelako eta ezin gozatu izateko nahikoa urruti. Lortzeko aukerak bultza egiten dio, arrakastaren ziurtasunik ezak amorrarazi; asaldu egiten da, gogaitu, garraztu. Edozein aldetatik gain hartzen dion guztia bere nahietarako oztopo iruditzen zaio orduan, eta ez dago nagusitasunik, oso legitimoa izan arren, ikusteak nekatzen ez duenik.

Jende askok uste du gure artean behe-klaseek duten ezkutuko joera hori -alegia, goi-klaseak arazo publikoen zuzendaritzatik ahalik eta gehien aldenaraztekoa- Frantzia bakarrik aurkitzen dela; ez da egia: aipatzen ari naizen joera hau ez da frantsesa, demokratikoa baizik; agian halako garraztasun berezi bat emango zioten zirkunstantzia politikoei, baina hauek ez dute sortarazi.

Estatu Batuetan herriak ez die gorrotorik gizarteko goi-klaseei, baina berauenganako onginahi gutxi sentitzen du eta kontu handiz edukitzen ditu agintetik kanpo; herria ez da talentu handien beldur, baina gutxi gustatzen zaizkio. Oro har, herriaren laguntzarik gabe gora egiten duen guztiak beraren faborea nekez lortzen duela ikusten da.

Demokraziaren berezko joerak herria jende argia boteretik aldenaraztera daraman bitartean, batere ahulagoa ez den joerak daramatza beste hauek karrera politikotik urruntzera, honetan oso zaila baitzaie diren bezalakoak izaten jarraitzea eta doilortu gabe jokatzeko. Hauxe da xalotasun handiz Kent kantzilerrak adierazitako pentsamendua. Autore ospetsu honek, epaileen izendapena botere exekutiboari ematen dion konstituzio-zatiaren gorespen handiak egin ondoren, erantzen du: "Hain zuzen ere, litekeena da postu hauek betetzeko pertsonarik egokienek erreparatu gehiegi izatea beren maneratan eta zorrotasun gehiegi printzipioetan boto unibertsalean oinarrituriko hauteskundeetan sufragioen gehiengoa inoiz bildu ahal izateko". (*Kent's Commentaries*, I. bol., 272. or.). Hona hemen, inork kontrarik esan gabe, 1830. urtean inprimatzen zena Amerikan.

Komentaturik nago boto unibertsala aukeraketan ontasunaren garantiaz hartzen dutenak erabateko ameskerian daudela. Boto unibertsalak beste abantaila batzuk ditu, baina ez hori.

Neurri batean demokraziaren joera horien zuzentzaile izan daitezkeen kausak

Arrisku handiek herri nahiz gizakiengan eragiten dituzten kontrako efektuak.- Duela berrogeita hamar urte Amerikak zergatik izan zuen hainbeste jende bikain arazo publikoen buruzagitzan.- Jakintzargiek eta ohiturek herriaren aukeraketan duten eragina.- Ingalaterra Berriko adibidea.- Hego-mendebaldeko estatuak.- Lege batzuek nola eragiten duten herriaren aukeraketan.- Hautapena bi mailatan.- Beronen efektuak Senatuaren osaketan.

Estatua arrisku handiek mehatxatzen dutenean, onik ateratzeko pertsonarik egokienak zuzen aukeratzen ikusten da sarri herria.

Ikusi da arrisku larrian dagoen pertsonak nekez irauten duela ohiko mailan; askoz gorago igotzen da, edo azpitik erortzen. Gauza bera gertatzen zaie herriei ere. Arriskurik handienek, nazioa gorarazi ordez, lur joarazten diote batzuetan; grinak suspertzen dizkiote gidatu gabe, eta adimena nahastarazten, argitu ordez. Juduek, Tenpluaren hondakin erraustuen artean ere, beren buruak lepo egiten zituzten. Baina normalagoa izaten da, nazio nahiz pertsonen artean, aparteko bertuteak arriskuen hurbiltasunetik bertatik sortzen ikustea. Orduan agertzen dira nabarmen izaera handikoak, gaueko iluntasunak ezkututzen zituen eta sutearen argitasunak bat-batean agertarazten dituen monumentuak bezala. Jeinuak ez du destainatzen bere burua aurkeztea, eta herriak, bere arriskuengatik izaturik, aldi batez ahaztu egiten ditu bere grina bekaiztiak. Orduan ez da arraroa izaten hautesontzitik izen ospetsuak irteten ikustea. Esan dut gorago Amerikan gaur egun dauden estatu-gizonek duela berrogeita hamar urte arazo publikoen buru izan zirenek baino askoz kaskarragoak ematen dutela. Hau legeengatik ezezik,

zirkunstantziengatik ere bada. Amerika kausarik bidezkoenagatik borrokatzen zenean - beste herri baten uztarpetik ihes egiteagatik, alegia-, munduan nazio berri bat sarrarazi behar zenean, arima guztiak goratzen ziren beren ahaleginen xedearen mailara iristeko. Asaldura orokor hartan, pertsonaia gorenak herriaren aurrean joaten ziren lasterka, eta herriak, besoetan harturik, buruzagitzan jartzen zituen. Baina horrelako gertakariak urriak dira; gauzen ohiko ibilera arrunta da epaitu behar dena.

Batzuetan gertakari iragankorrek demokraziaren grinei erasotzea lortzen badute, jakintzargiek -eta, batez ere, ohiturek- ez eragin ahulagoa baizik eta iraunkorragoa zertzen dute joera horietan. Hau garbi ikusten da Estatu Batuetan.

Ingalaterra Berrian -non hezkuntza eta askatasuna moralaren eta erlijioaren alaba diren, non gizarteak, jada antzinakoa eta aspaldidanik ezarria, bere maxima eta azturak eratu ahal izan dituen-, herria, aberastasunak eta jaiotzak gizakien artean beti sortarazi izan dituzten nagusitasunetatik ihes egiten duen aldi berean, nagusitasun intelektual eta moralak errespetatzen eta hauetara atseginez makurtzen ohitu da. Honela, Ingalaterra Berrian demokraziak beste inon baino aukeraketa hobeak egiten dituela ikusten da.

Hegoaldera jaitsi ahala, ordea, gizarte-lotura hain antzinakoa eta hain indartsua ez den estatuetan -non irakaskuntza ez dagoen hain hedatua, eta non moralaren, erlijioaren eta askatasunaren printzipioak ez dauden hain era egokian konbinatuak- gobernarien artean talentuak eta bertuteak gero eta urriagoak direla ikusten da.

Azkenik, hego-mendebaldeko estatu berrietan sartzean -non gizarte-gorputza, atzo bertan eratua, oraindik ez den abenturazale eta espekulatzailerik-multzo bat baizik-, txunditzekoa da aginte publikoa zein eskutan dagoen ikustea, eta nork bere buruari galdetzen dio legeria eta gizakiengandik independente den zein indarrengatik haz daitekeen han Estatua, eta aurreratu gizartea.

Badira lege batzuk izaera demokratikoa dutenak eta, hala ere, demokraziaren joera arriskutsu horiek zuzentzea lortzen dutenak, neurri batean behintzat.

Washingtonen, Ordezkarien Ganbarara sartzen zarenean, harriturik gelditzen zara batzar handi haren itxura arruntaz. Sarritan alferrik ibiliko zara han barruan pertsona ospetsuren baten bila. Batzarkide gehienak pertsonaia ilunak dira, haien izenak ez duelarik inolako irudirik ekartzen gogora. Haietako gehienak herrietako abokatuak dira, merkatariak edota klaserik apalenetako pertsonak. Irakaskuntza ia unibertsalki hedatua dagoen herrialde hartan, herri-ordezkariek ez omen dakite beti zuzen idazten.

Handik oso hurbil Senatuaren egoitza dago, esparru estu hartan dagoelarik Amerikako pertsona ospetsuetako asko. Ia ez da inortxo ere ikusten berriki ilustratua ematen ez duenik. Mintzo ederreko abokatuak dira, jeneral argiak, magistratu iaioak edo estatugizon ezagunak. Batzar honetatik irteten diren hitz guztiek ohoratu egingo lituzkete Europako eztabaida parlamentariorik handienak.

Nondik dator kontraste bitxi hau? Nazioko elitea, zergatik aurkitzen da areto honetan bestean baino gehiago? Zergatik biltzen da lehenengoan hainbeste elementu arrunt, bigarrenak talentu eta jakintzargien monopolioa duela dirudien bitartean? Edonola ere, herriagandik sortzen dira bata zein bestea, sufragio unibertsalaren emaitza dira biak, eta orain arte Amerikan inork ez du esan Senatua herri-interesen etsai denik. Nondik dator, beraz, horren alde handia? Nire ustez, egitate bakarra dago hori azaltzen duena: Ordezkarien Ganbara sortarazten duen hautapena zuzenekoa da; Senatua sortarazten duena, berriz, bi graduren menpe dago. Hiritar guztiek izendatzen dute estatu bakoitzeko legislatiboa, eta Konstituzio federalak, legislatibo horietako bakoitza gorputz hautesle bihurtzean, berorietatik ateratzen ditu Senatuko kideak. Beraz, senadoreek adierazten dute, zeharka bederen, boto unibertsalaren emaitza; zeren eta legislatiboa, senadoreak izendatzen dituen, ez baita gorputz aristokratiko edo pribilegiatu bat, hautesle-eskubidea bere baitatik ateratzen duena; legislatiboa hiritarren

unibertsaltasunaren menpe dago funtsean; oro har, urtero hautatzen dute hauek, eta beti bidera ditzakete beren aukeraketak kide berriz osatuz. Baina nahikoa da herri-borondatea batzar aukeratu honetan zehar igarotzea, nolabait ere bertatik eraldatua eta forma bikain eta ederragoz gainjantzia irteteko. Honela aukeraturikoei, beraz, beti zehatz-mehatz ordezkatzeko dute gobernari den nazio-gehiengoa; baina haiek honen baitan dabilten pentsamendu jasoak bakarrik ordezkatzeko dituzte, eragiten dioten instintu eskuzabalak, eta ez sarri asaldatzen duten grina txikiak eta desohoratzen duten bizioak.

Erraza da aurrikustea etorkizunean momenturen batean errepublika amerikarrak beharturik aurkituko direla bi gradu horiek ugaltzera beren hauteskunde-sisteman, bestela zoritxarrez galbideratu egingo baitira demokraziaren oztopen artean.

Ez dut eragozpenik aitortzeko: hauteskunde-gradu bikoitzean ikusten dut askatasun politikoaren erabilera herriko klase guztien irispidean jartzeko bide bakarra. Baliabide hau alderdi baten arma eksklusibo bihurtu nahi dutenak, eta berorren beldur direnak, hutsegite berean jausten direla iruditzen zait.

Demokrazia amerikarrak hauteskunde-legeetan izan duen eragina

Hauteskundeen urritasunak krisialdi handien menpe jartzen du Estatuak.- Maiztasunak etengabeko asaldura sutsuan edukitzen du.- Gaitz hauetariko bigarrena aukeratu dute amerikarrek.- Legearen aldakortasuna.- Hamilton, Madison eta Jefferson-en iritzia gaitz gaitz.

Hauteskundeen artean tarte luzeak igarotzen direnean, hauteskunde bakoitzean astinaldi baten arriskua izaten du Estatuak.

Orduan, alderdiek ikaragarritzko ahaleginak egiten dituzte beren irispidean hain nekez pasatzen den aukeraz jabetzeko; eta porrot egiten duten hautagaien gaitza ia sendaezina denez, haiek etsipeneraino eramandako gutziak edozer gauzaren beldur izatera garamatza. Aitzitik, borroka legala laster berriztatzea bada, menderatuek pazientzia itxaroten dute.

Hauteskundeak sarri egiten badira, maiztasun horrek asaldura sutsuan mantentzen du gizartea, eta arazo publikoak aldakortasun-egoera iraunkorrean edukitzen ditu.

Honela, alde batetik, ondorengo aukera dago Estatuarentzat; bestetik, iraultzarako aukera. Lehen sistemak gobernuaren ontasunari egiten dio kalte, bigarrenak berorren izatea mehatxatzen du.

Amerikarrek nahiago izan dute lehenengo gaitzaren arriskua bigarrenarena baino. Horretan senak gehiago gidatu ditu arrazoimenak baino; barietate-zaletasuna grina bihurtu du demokraziak. Hortik aldakortasun berezia sortzen da legerian.

Amerikar askorentzat bere legeen ezegonkortasuna efektu orokor onuragarriak dituen sistema baten beharrezko ondorioa da. Baina uste dut Estatu Batuetan ez dagoela inor ezegonkortasun horren izatea ukatzen duenik edo gaitz handitzat hartzen ez duenik.

Hamiltonen, lege txarren aldarrikapena eragotzi edo gutxienez atzera lezakeen botere baten onura frogatu ondoren, erantzen du: "Lege txarrak prebenitzeko botereak onak prebenitzeko ere inplikatzeko duela erantzungo zait agian. Objektzio honek ezin ditu konforme utzi legearen iraupengabetasun eta aldakortasunetik datozkigun gaitz guztiak aztertzea iritsi direnak. Legegintzako ezegonkortasuna gure erakundeetan aurki daitekeen mantxarrik handiena da". *Form the greatest blemish in the character and genius of our government (Federalist, 73. zk.).*

"Legeak aldatzeko dagoen erraztasuna, dio Madisonen, eta botere legegileaz egin daitekeen gehiegikeria iruditzen zaizkit gure gobernuak izan ditzakeen gaitzik arriskutsuenak" (*Federalist, 62. zk.).*

Jeffersonen berak, demokrazia amerikararen baitatik orain arte irten den demokratik handienak, arrisku berberak seinalatu ditu.

"Gure legeen ezegonkortasuna oso eragozpen larria da benetan, dio berak. Uste dut hori konpondua izan beharko genukeela legearen aurkezpenaren eta behin-betiko botoaren artean beti urtebeteko tarte behar dela erabakiz. Ondoren eztabaidatu eta bozkatu egingo litzateke, ezingo litzaiokeelarik hitz bakar bat ere aldatu, eta zirkunstantziek konponbide arinagoa eskatuko balute, proposamena ezingo litzateke gehiengo soilez onartu, baizik eta bi hereneko gehiengoz ganbara batean nahiz bestean"<sup>167</sup>.

Funtzionari publikoak demokrazia amerikarraren agintepean

Funtzionari amerikarren sinpletasuna.- Uniformerik eza.- Funtzionari guztiak, ordainduak.- Egitate honen ondorio politikoak.- Amerikan ez dago karrera publikorik.- Honen ondorioak.

Estatu Batuetan funtzionari publikoak nahasian daude hiritar guztien artean; ez dute jauregirik, ez goardiarik, ez uniforme arranditsurik. Gobernarien sinpletasun hau ez zaio izpiritu amerikarraren jite berezi bati bakarrik egotzi behar, gizartearen funtsezko printzipioei baizik.

Demokraziaren ikuspegitik, gobernuak ez da gauza on bat, beharrezko gauza txar bat baizik. Nolabaiteko boterea eman beharra dago funtzionarioei, zeren eta, botere hau gabe, zertarako balioko lukete? Baina boterearen kanpo-itxurak ez dira ezinbestekoak arazo publikoen bilakaerarako; alfer-alferrik mintzen dute publikoaren bista.

Funtzionarioek berek ongi asko sumatzen dute, besteen gainetik jartzeko eskubidea lortu badute beren botereagatik, beren maneretan guztien mailara jaisteko baldintzarekin izan dela.

Ezin dut imajinatu bere jardueran bakunagorik, guztientzako eskurakoiagorik, eskaerekiko aditasun gehiagorik eta bere erantzunetan gizalegezkagorik Estatu Batuetako gizon publikoa baino.

Gogoko dut demokraziaren gobernuaren ibilera natural hori; funtzioari baino gehiago funtzionarioari, boterearen kanpo-zeinuei baino gehiago gizakiari atxikitzen zaion barne-indar honetan, miresten dudana gizotasunezko zerbait hautematen dut.

Uniformeek zertu dezaketen eraginari buruz, uste dut asko exageratzen dela beroriek izan beharreko garrantzia gurea bezalako mende batean. Amerikan nik ez dut ikusi funtzionaria, bere botereaz baliatzean, begirune eta errespetu gutxiagoz hartzen dutenik bere meritura bakarrik mugatua egoteagatik.

Bestalde, zalantza handia dut jantzi berezi batek eramango dituenik pertsona publikoak beren burua errespetatzera, ez baldin badute horretarako berezko joerarik; ezin baitu sinetsi beren jantziari begirune gehiago izango diotenik beren buruari baino.

Gure arteko zenbait magistratu, auzitan dabiltzan alderdiak zakar tratatzen edo beroriei hitz politak zuzentzen, defentsaren argudioen aurrean bizkarra goratzen eta akusazioen zerrendaketan atseginez irribarre egiten ikusten ditudanean, toga kentzen saiatzea nahi nuke, ea hiritar arruntak bezala jantzirik egoteak giza espeziearen berezko duintasuna gogorarazten dien.

Estatu Batuetako funtzionari publikoetako inork ez du uniformerik, baina denek hartzen dute lansaria.

Aurrekoa baino ere naturaltasun handiagoz ondorioztatzen da hau printzipio demokratikoetatik. Demokrazia batek ponperia handiz ingura ditzake bere magistratuak, eta zetaz eta urrez estali, zuzenean eraso gabe bere izatearen printzipioari. Horrelako pribilegioak iragankorrak dira; postuari dagozkio, eta ez pertsonari. Baina doaneko funtzioak ezartzea, funtzionari aberats eta independenteen klase bat sortzea da, aristokrazia baten gunea eratzea da. Oraindik ere herriak gordetzen badu aukeratzeko eskubidea, eskubide honen erabilerak baditu beharrezko mugapenak.

Errepublika demokratiko batek funtzio ordainduak doan bihurtzen dituenean, uste dut esan daitekeela monarkiarantz doala. Eta monarkia bat doaneko funtzioak ordaintzen hasten denean, garbi dago estatu despotiko edo estatu errepublikarrerantz abiatu dela. Doaneko funtzioen ordeztu ordaindutakoak ezartzea, hori berori bakarrik ere benetako iraultza dela iruditzen zait.

Amerikan demokraziak duen aginte absolutuaren seinalerik nabarienetakotzat jotzen dut doaneko funtziorik batere ez egotea. Publikoari ematen zaizkion zerbitzuak, nolanahikoak direla ere, ordaindu egiten dira. Horregatik, mundu guztiak du han, eskubidea ezezik, baita zerbitzu horiek emateko aukera ere.

Estatu demokratikoetan karguak hiritar guztiek lor baditzakete ere, guztiek ez dute horretan saiatzeko tentaziorik izaten. Ez kandidaturaren baldintzak, baizik eta hautagaien kopurua eta gaitasuna izaten dira sarri hautesleen aukera mugatzen dutenak.

Hautapen-printzipioa gauza guztietara hedatzen den herrietan ez dago, zehatz esanda, karrera publikorik. Nolabait ere, pertsonak kasualitatez iristen dira funtzioetara, eta ez dute horietan irauteko inolako ziurtasunik. Hau hauteskundeak urterokoak direnean izaten da, batez ere, egia. Ondorioz, barealdietan, funtzio publikoek erakarpen gutxi eskaintzen diote gutiziari. Estatu Batuetan, beren desiretan neurritsuak direnak murgiltzen dira politikaren kikinakoetan. Talentu handiak eta grina handiak orokorki aldendu egiten dira boteretik, aberastu ahal izateko; eta sarri gertatzen da beren arazo propioak zuzentzeko gai sentitzen ez direnean bakarrik arduratzen direla estatuaren aberastasuna gidatzeaz.

Kausa hauei egotzi behar zaie, demokraziaren aukeraketa txarrei adina, hainbeste pertsona arrunt egotea funtzio publikoak betetzen. Ez dakit Estatu Batuetan herriak aukeratuko lituzkeen ala ez pertsonarik bikainenak hauek botoa eskatuz gero, baina egia da hauek eskatu ere ez dietela egiten.

Magistratuen<sup>168</sup> arbitrariotasuna demokrazia amerikarren agintepean

Magistratuen arbitrariotasuna zergatik den handiagoa monarkia absolutuen eta errepublika demokratikoen menpean monarkia moderatuetan baino.- Magistratuen arbitrariotasuna Ingalaterra Berrian.

Bi gobernu-motaren menpe arbitrariotasun asko nahasten da magistratuen jardueran: horrela gertatzen da pertsona bakar baten gobernu absolutuaren menpean eta demokraziaren gobernupean.

Efektu hau berau kausa ia analogoetatik dator.

Estatu despotikoetan ez dago ziurtatua inoren zoria, ez funtzionari publikoena, ezta partikular soilena ere. Subiranoak, berak enplegatzen dituen pertsonen bizia, ondasunak eta batzuetan ohorea beti bere esku dituenek, pentsatzen du ez duela zertan menpeko horien beldur izan, eta ekintza-askatasun handia uzten die, seguru sentitzen baita ez dutela inoiz askatasun horretaz abusatuko beraren aurka.

Estatu despotikoetan, subiranoak bere boterea hain maite duenez, bere arau propioen gogaikarritasunaren beldur izaten da; eta bere agenteak gutxi gora-behera ausaz ibil daitezela gustatzen zaio, ziur egoteko ez duela horiengan inoiz aurkituko bere nahien aurkako joerarik.

Demokrazietan ere, gehiengoak, urtero ken diezaiekeenez agintea aurrez eman dienei, ez du bere aurka abusatuko den beldurrik izaten. Une oroz bere nahiak gobernariei jakinarazteko ahalmena duenez, nahiago izaten du beren ahaletan egin ditzaten uztea erregela aldaezin bati lotzea baino, honek, agintariei mugak jartzean, nolabait ere bera mugatuko bailuke.

Hurbiletik behatuz gero, demokraziaren agintepean magistratuaren arbitrariotasunak estatu despotikoetakoak baino ere handiagoa izan behar duela ikusten da.

Estatu despotikoetan, subiranoak une batean zigor ditzake ikusten dituen hutsegite guztiak; baina ezin da harrotu zigortu beharko lituzkeen hutsegite guztiak ikusteaz. Demokrazietan, aitzitik, subiranoa, ahalguztiduna den aldi berean, alde guztietan dago batera. Honela, ikusten da funtzionari amerikarrak askoz askeago direla legeak ezarri dien ekintza-esparruan Europako edozein funtzionari baino. Sarritan zein helmugatarantz jo behar duten erakustera mugatzen da, bitartekoak aukeratzeko askatasun osoa utziz.

Ingalaterra Berrian, adibidez, udalerri bakoitzeko *selectmen*-ei dagokie epaimahaietako zerrenda osatzeko ardura; ezartzen zaien erregela bakarra hau da: hauteskunde-eskubideak dituzten eta izen ona duten hiritarren artetik aukeratu behar dituzte epaimahaikoak<sup>169</sup>.

Frantzian, jendearen bizia eta askatasuna arriskuan daudela pentsatuko genuke, hain eskubide beldurgarriaren egikaritza funtzionari baten esku utziz gero, nornahi izanik berau.

Ingalaterra Berrian, magistratu horiek beroriek tabernetan jarraraz ditzakete jendaurrean mozkorren izenak eta isunaren mehatxupean ardorik ematea debekatu biztanleei<sup>170</sup>.

Horrelako zentsura-ahalmenak herria altxaraziko luke monarkiarik absolutuenean; han, ordea, eragozpenik gabe onartzen da.

Legeak inon ez dio aukera zabalagorik utzi arbitrariotasunari errepublika demokratikoetan baino, hauetan arbitrariotasunak ez baitu beldurgarria denik ematen. Are gehiago, esan daiteke magistratua askeago bilakatzen dela hauteskunde-eskubidea beherago iristen den eta magistraturaren denboraldia laburragoa den neurrian.

Hortik dator hain zaila izatea errepublika demokratiko bat monarki egoerara pasaraztea. Magistratuak, hautapenezkoa izateari uztean, normalean gorde egiten ditu eskubideak eta magistratu hautatuaren usadioak kontserbatzen. Despotismora iristen da orduan.

Monarkia moderatuetan bakarrik arduratzen da legea, funtzionari publikoen inguruan ekintza-esparrua mugatzeaz gain, hauek urrats bakoitzean gidatzeaz ere. Honen zergatia erraza da adierazten.

Monarkia moderatuetan, herriaren eta printzearen artean zatiturik aurkitzen da boterea. Batari nahiz besteari interesatzen zaio magistratuaren egoera egonkorra izatea.

Printzeak ez du funtzionarien zoria herriaren eskuetan utzi nahi, hauek beraren autoritatea traizionatuko ez ote duten beldur; herria, bere aldetik, beldur da magistratuek, erabat printzearen menpe jarrita, ez ote duten askatasuna zapaltzeko balio izango; beraz, ez zaie nolabait ere inoren menpe egonarazten.

Printzea eta herria funtzionaria independente bihurtzera eramaten dituen kausa berak eramaten ditu honen independentziaren abusuen aurkako garantiak bilatzera, bataren autoritatearen edo bestearen askatasunaren kontra erabil ez dezan. Beraz, biak datoz bat funtzionari publikoari aurrez jokabide bat ezarri beharraz, eta beren intereseko iruditzen zaie funtzionariari baztertu ezingo dituen arauak ezartzea.

Ezegonkortasun administratiboa Estatu Batuetan

Amerikan gizartearen egintzek arrasto gutxiago uzten dute sarri familia baten ekintzek baino.- Egunkariak, oroigarri historiko bakarrak.- Gehiegizko ezegonkortasun administratiboak nola kalte egiten dion gobernatzeko arteari.

Pertsonak boterean lipar bat bakarrik irauten dutenez, gero egunero aurpegiz aldatzen den jendetzaren baitan galtzen direlarik berehala, gizartearen egintzek Amerikan sarri arrasto gutxiago uzten dute, familia soil baten ekintzek baino. Administrazio publikoa, nolabait ere, ahozkoa eta tradizionala da han. Ez da ezer idazten, edota idatzita dagoena haizerik txikienak eramaten du, Sibilaren orriak bezala, eta itzultzerik gabe desagertzen da.

Estatu Batuetako oroigarri historiko bakarrak egunkariak dira. Zenbakiren bat falta izaten bada, denboraren katea apurtu bezala egiten da. Oraina eta iragana ez dira elkartzen. Ez dut zalantzarik berrogeita hamar urte barru zailagoa izango dela egungo amerikarren gizarte-bizitzako xehetasunei buruzko benetako dokumentuak biltzea, Erdi Aroko frantsesen administrazioari buruzkoak baino; eta barbaroen inbasio batek harrapatuko balitu Estatu Batuak, berauetan bizi den herriari buruzko zerbait jakiteko, beste nazio batzuen historiara jo beharko litzateke.

Ezegonkortasun administratiboa azturetan sartzen hasi zen; ia esan nezake gaur egun mundu guztiak gustu hartu diola azkenerako. Inor ez da kezkatzen bere aurretik egindakoaz. Ez da metodoz batere jokutzen, ez da bildumarik egiten, ez da dokumenturik biltzen, nahiz eta erraza izango litzatekeen egitea. Kasualitatez badaudenean, ia ez dira preziatzen. Baditut neure paperen artean jatorrizko agiri batzuk, nire galderetako batzuei erantzuteko administrazio publikoetan eman zitzaizkidanak. Amerikan gizarteak egunean egunekoa bizi duela ematen du, gerran ari den armadak bezala. Hala ere, administratzeko artea zientzia bat da, dudarik gabe; eta zientzia guztiek, aurrera egiteko, belaunaldi ezberdinen aurkikuntzak elkarlotu egin behar izaten dituzte, gertatu ahala. Pertsona bat, bere bizialdi laburrean, egitate batez ohartzen da, beste bati ideia bat bururatzen zaio, honako honek bitarteko bat asmatzen du, eta beste hark formula bat aurkitzen; gizadiak, pasatzean, esperientzia indibidualaren fruitu ezberdin horiek biltzen ditu, eta zientziak eraten. Oso zaila da administratzaile amerikarrek ezer ikastea elkarrengandik. Honela, beren baitan barreiatutik aurkitzen dituzten jakintzargiak ematen dizkiote gizartearen jokabideari, baina ez bere-bereak dituzten ezagupenak. Bere azken mugetaraino eramanez gero, demokraziak kalte egiten dio gobernatzeko artearen aurrerapenari. Alde honetatik, hobeto dagokio bere heziketa administratiboa burutua duen herri bati, arazo publikoekiko eskarmentu gutxi duen herri bati baino.

Hau, gainera, ez dagokio bakarrik administrazio-zientziari. Gobernu demokratikoak, hain ideia sinple eta naturalean oinarritzen dena, beti eskatzen du oso gizarte zibilizatu eta jakintsu bat izatea<sup>171</sup>. Lehenik, munduko lehen aroen garaikide dela usteko litzateke; hurbiletik begiraturaz gero, erraz ikusten da azkena etorria behar duela izan.

Karga publikoak demokrazia amerikarraren agintepEAN

Gizarte guztietan, hiritarrak hainbat klasetan banatzen dira.- Klase hauetako bakoitzak estatuko finantzen zuzendaritzara ekartzen duen joera.- Gastu publikoek zergatik izan behar duten hazteko joera herriak gobernatzen duenean.- Zerk eragiten duen demokraziaren gehiegikeriak hain beldurgarriak ez izatea Amerikan.- Diru publikoen erabilera demokraziaren menpean.

Ekonomikoa ote da demokraziaren gobernua? Zerekin alderatu nahi dugun jakin behar da lehenik.

Galderari erantzutea erraza izango litzateke errepublika demokratikoaren eta monarkia absolutuaren artean paralelotasuna ezarri nahi balitz. Gastu publikoak lehenengoan bigarreanean baino dezente handiagoak direla ikusiko litzateke. Baina gauza bera gertatzen da estatu aske guztietan, ez direnekin alderaturaz gero. Egia da despotismoak ekoizpena eragotziz eragiten diola porrot jendeari, ekoizpenaren fruituak kenduz baino gehiago; aberastasunen iturria agortzen du, eta lorturiko aberastasuna errespetatu egiten sarri. Askatasunak, aitzitik, suntsitzen dituen ondasunak baino mila aldiz gehiago sortarazten du, eta, ezagutzen duten nazioetan, herriaren baliabideak zergak baino askoz arinago hazten dira.

Une honetan axola zaidana herri askeak beren artean konparatzea da, eta azken hauen artean demokraziak estatuaren finantzetan zer eragin duen aztertzea.



Gizarteek, gorputz antolatuek bezalaxe, halako arau finko batzuk jarraitzen dituzte beren eraketan, saihestezinak beraientzat. Alde guztietan eta garai guztietan aurkitzen diren zenbait elementuz osaturik daude.

Betiere erraza izango da herri bakoitza ideialki hiru klasetan banatzea.

Lehen klasea aberatsek osatuko dute. Bigarrenean, aberatsak izan gabe, bizimodu erosoaren dutenak sartuko dira. Hirugarrenean ezereen edo gauza gutxiaren jabe direnak sartuko dira, eta bizi, batez ere, beste biek ematen dieten lanetik bizi direnak.

Kategoria ezberdin horietan sarturikoak gehiago edo gutxiago izan litezke gizarte-egoeraren arabera; baina ezinezkoa da horrelako kategoriarik ez egotea.

Garbi dago klase horietako bakoitzak bere-bereak dituen zenbait joera ezarriko dituela estatuko finantzen mantenuan.

Demagun lehenak bakarrik egiten dituela legeak. Ziur aski gutxi arduratuko da diru publikoak aurrezteaz, zeren eta aberastasun handi samar bat kargatzen duen zergak gainezkoa bakarrik kentzen baitu eta ez du efektu handiegirik eragiten.

Aitzitik, onar dezagun klase ertainak bakarrik izatea legea egingo dutenak. Pentsa daiteke ez dituztela zergak ugalduko, ez baitago ezer kaltegarriagorik aberastasun txiki baten gainera tasa handia botatzea baino.

Gobernu askeen artean, klase ertainen gobernuak iruditzen zait izango dela, ez dut esango ilustratuena, ezta batez ere eskuzabalena, baina bai ekonomikoena.

Demagun orain azken klasea, bera bakarrik, arduratzen dela legea egiteaz; karga publikoak gutxitu ordez gehitzeko aukera dagoela iruditzen zait, eta hau bi arrazoiengatik:

Orduan legea bozkatzeko duten gehienera, jabetza zergagarriak batere ez dutenez, gizartearen intereserako gastatzen den diru guztia onuragarri gertatuko zaiela ematen du, sekula kaltegarri izan gabe; eta jabetza txikiaren bat dutenek erraz aurkitzen dute zerga ezartzeko bidea, aberatsei bakarrik ordainarazi eta behartsuak bakarrik probetxatzeko moduan, aberatsek beren aldetik egin ezin duten gauza gobernuaren jabe direnean.

Legea egiteaz behartsuak<sup>172</sup> bakarrik arduratzen diren herrialdeetan ezin da espero, beraz, gastu publikoetan asko aurrezterik. Gastu hauek aski handiak izango dira beti, bai zergak ezin direlako iritsi bozkatzeko dituztenengana, bai ez iristeko moduan ezarrita daudelako. Beste era batera esanda, demokraziaren gobernuak da bakarra, non zerga bozkatzeko duenak ihes egin diezaiokeen ordaindu beharri.

Alferrik esango da herriaren interesa, ongi ulertua, aberatsen ondasunak zaintzean datzala, bestela hark ere laster nozitu beharko bailuke berak sortarazitako gabezia. Baina erregeen interesa ere ez al datza beren menpekoak zoriontsu bihurtzean? Eta nobleena, beren lekuak egoki zabaltzen jakitean? Geroko interesa momentuko grina eta beharren gainetik nagusitu ahal balitz, sekula ez zatekeen subiranoko tiranikorik izango, ezta aristokrazia eskusiborik ere.

Hala ere, gendituko naute esanez: Nori bururatu zaio inoiz legea egiteko ardura behartsuei bakarrik ematea? Nori? Boto unibertsala ezarri dutenei. Gehiengoak ala gutxiengoak da legea egiten duena? Gehiengoak, dudarik gabe; eta gehiengoak beti behartsuek osatzen dutela frogatzen badut, ez al dut arrazoi izango, bozkatzera deitzen dituzten herrialdeetan, legeak behartsuek bakarrik egiten dituztela gaineratzean?

Nolanahi ere, egia da gaur arte munduko nazio guztietan kopururik handiena jabetzarik gabekoek osatu izan dutela, edota lanik egin gabe eroso bizi ahal izateko adina jabetza ez zutenek. Boto unibertsalak, beraz, benetan behartsuei ematen die gizartearen gobernuak.

Batzuetan herri-agintek estatuko finantzietan izan lezakeen eragin tamalgarria antzinako zenbait errepublika demokratikotan ikusi ahal izan zen garbi, non altxor

publikoa hiritar behartsuei laguntzen edota herriari joko eta ikuskizunak ematen xahutzen baitzen.

Egia da ordezkapen-sistema ia ez zela ezagutzen antzinatean. Gaur egun, herri-grinak nekezago sortzen dira arazo publikoetan; pentsa daiteke, hala ere, luzarora agintaria bere komitenteen izpiritura moldatuko dela beti eta hauen joerak nahiz interesak nagusiaraziko dituela azkenerako.

Gainerantzean, herria ondasunen jabe bihurtzen den neurrian, demokraziaren gehiegikerien beldur gutxiago izan behar da, zeren eta orduan, batetik, aberatsen diruaren behar gutxiago baitu herriak, eta, bestetik, zerga ezartzean zailagoa gertatzen baitzaio bere buruari kalterik ez egitea. Ikuspegi honetatik, boto unibertsala arrisku txikiagokoa litzateke Frantzia Ingalaterran baino, azken honetan jabetza zergagarri guztia esku gutxi batzuetan baitago. Amerika, non hiritar gehienak baitira ondasunen jabe, egoera hobean dago Frantzia baino.

Badira oraindik beste kausa batzuk gastu publikoen kopurua igoaraz dezaketenak demokrazietan.

Aristokraziak gobernatzen duenean, estatuko arazoak gidatzen dituztenek premia guztietatik ihes egiten dute beren egoeratik beragatik; beren zoriaz pozik, batez ere boterea eta aintza eskatzen dizkiote gizarteari; eta, hiritarren multzo ilunaren gain kokatuta, beti ez dute garbi ikusten ongizate orokorrak nola eragingo duen beraien handitasunean ere. Kontua ez da errukirik gabe ikusten dituztela behartsuaren atsekabeak; baina ezin dituzte ezbehar horiek berek konpartituko balituzte bezala sentitu; herria bere zoriaz konformatzen dela ematen duen neurrian, pozik gelditzen dira eta ez dute gobernuagandik ezer gehiago espero. Aristokraziak gehiago pentsatzen du dagoenari eustea hobetzea baino.

Aitzitik, botere publikoa herriaren esku dagoenean, subiranoak onena bilatzen du alde guztietan, gaizki sentitzen baita bera.

Hobekuntza-izpiritua mila gauzatar hedatzen da orduan; xehetasun mugagabeetara iristen da eta, batez ere, ordainduz bakarrik lor litezkeen hobekuntza horietara aplikatzen da; zeren eta kontua bere buruari lagundu ezin dion behartsuaren egoera hobetzea baita.

Gizarte demokratikoetan bada gainera helburu zehatzik gabeko asaldura bat; halako sukar-mota iraunkor bat izaten da nagusi, edozelako berrikuntzen nahia sortzen duena, eta berrikuntzak kostu handikoak izaten dira ia beti.

Monarkia eta aristokrazietan, subiranoa ospe eta botererantz eramaten duen zaletasun naturala lausengatzen dute gutziatsuek, eta honela gastu handietara bultzatzen dute sarri.

Demokrazietan, non subiranoa behartsu baita, nekez lor daiteke haren onginahia beraren ongizatea areagotuz baizik; eta hau diruaz bakarrik egin daiteke ia beti.

Are gehiago, herria bere egoera hausnartzen hasten denean, hasieran sumatu gabeko premia-multzo handia sortzen zaio, estatuaren baliabideetara jo gabe asebate ezin dena. Horregatik ematen du karga publikoak orokorki zibilizazioarekin gehitu egiten direla, eta jakintzargiak zabaltzen diren neurrian zergak igo.

Bada azken kausa bat gobernu demokratikoa bestelakoak baino garestiago bihurtzen duena sarri. Batzuetan demokraziak ekonomizatu egin nahi izaten du bere gastuetan, baina ezin izaten du lortu, ez daukalako ekonomikoa izateko arterik.

Sarri aldatzen duenez iritziz eta are sarriagotan agentez, bere egitekoak gaizki zuzenduta egoten dira, edo burutu gabe gelditzen. Lehen kasuan, Estatuak, lortu nahi duen helburuaren handitasunarekiko proportziorik gabeko gastuak egiten ditu; bigarrenean, emankorrak ez diren gastuak.

Demokrazia amerikarraren joerak funtzionarioen soldata finkatzerakoan

Demokrazietan, soldata handiak ezartzen dituztenek ez dute berorietaz aprobetxatzeko aukerarik izaten.- Demokrazia amerikarraren joera bigarren mailako funtzionarien soldata igotzeko eta lehen mailakoena murrizteko.- Zergatik den hori horrela.- Estatu Batuetako eta Frantziako funtzionari publikoen soldaten konparazio-aula.

Bada arrazoi handi bat normalean demokraziak funtzionari publikoen soldatetan ekonomizatzea eramatean dituen.

Demokrazietan, soldatak ezartzen dituztenak asko izaten direnez, aukera gutxi dute inoiz horiek ukitzera iristeko.

Aristokrazietan, aitzitik, soldata handiak ezartzen dituztenek izaten dute nolabaiteko itxaropenik horietaz aprobetxatzeko. Beren buruarentzat sortzen dituzten kapitalak dira, edota gutxienez beren seme-alabentzat prestaturiko baliabideak.

Aitortu beharra dago, hala ere, demokraziak bere agente nagusienekiko bakarrik jokatzen duela zuhertasunez.

Amerikan, bigarren mailako funtzionarioei beste alde batzuetan baino gehiago ordaintzen zaie, baina goi-mailako funtzionarioei askoz gutxiago.

Kausa berberak eragiten ditu kontrako efektu horiek; bi kasuetan herriak finkatzen du funtzionari publikoen soldata; bere beharretan pentsatzen du, eta konparazio honek argi egiten dio. Bera oso eroso bizi denez, naturala iruditzen zaio beraren zerbitzura daudenean ere horretan parte izatea<sup>173</sup>. Baina estatuko ofizial handien zoria erabaki behar duenean, arau horrek huts egiten dio eta ausaz jokatzen du orduan.

Pobreak ez du gizarteko goi-klaseek izan ditzaketen beharren ideia garbirik zertzen. Aberatsari neurritzko kopurua iruditzen zaiona, besteari ikaragarritzkoa iruditzen zaio, behar-beharrezkoaz konformatzen baita; eta estatuko gobernaria, bi mila ezkutuz hornitua, zoriontsu eta inbidia sortarazteko moduan dagoela pentsatzen du<sup>174</sup>.

Nazio handi baten ordezkariak atzeritarren aurrean halako distira batez azaldu behar duela ulertarazten saiatzen bazarete, berehala ulertuko dizue; baina bere egoitza xumeaz eta bere lan neketsuaren emaitza apalez oroitzen denean, zuei gutxiegia iruditutako alokairu horrekin berak egin ahal izango lukeen guztian pentsatuko du, eta harriturik eta izuturik bezala geldituko da hainbeste aberastasunen aurrean.

Erantsi horri bigarren mailako funtzionaria herriaren mailan dagoela ia, besteak menpean daukan bitartean. Lehenak, beraz, oraindik ere interesa susper diezaioke, baina bestea inbidia sortarazten hasten da.

Hau oso garbi ikusten da Estatu Batuetan, non badirudien alokairuak neurri batean gutxitu egiten direla funtzionarien boterea handiagoa den neurrian<sup>175</sup>.

Aristokraziaren agintepean kontrakoa gertatzen da. Goi-funtzionarioek lansari handiak hartzen dituzte, txikiek sarri zerez bizi ez daukaten bitartean. Honen zergatia erraz aurkitzen da gorago aipatu ditudan kausen antzekoetan.

Demokraziak ezin baditu ulertu aberatsaren plazerrak edota inbidia sortzen badiote, aristokraziak bere aldetik ez ditu behartsuaren zorigaitzak ulertzen edota ez die jaramonik egiten. Behartsua ez da, zehatz esanda, aberatsaren antzekoa; beste mota batekoa da. Aristokrazia, beraz, oso gutxi arduratzen da bere menpeko agenteen zoriaz. Prezio urriegian zerbitzatzeari uko egitean bakarrik igotzen dizkie alokairuak.

Demokraziak funtzionari nagusienekiko duen zuhertasunak egotzarazi dizkio berari berak ez daukan joera ekonomiko handiak.

Egia da demokraziak ozta-ozta ematen dizkiela bere gobernarietara itxuraz bizitzeko baliabideak, baina egundoko dirutzak gastatzen ditu herriaren beharrak betetzen edo atseginbideak errazten<sup>176</sup>. Horra hor zergaren emaitzaren erabilera hobe, baina ez ekonomikoa den zerbaite.

Oro har, demokraziak gutxi ematen die gobernarietari eta asko gobernatuei. Kontrakoa aristokrazietan ikusten da, haietan estatuaren dirua batez ere arazo publikoak zuzentzen dituen klasearentzat izaten baita onuragarri.

Gobernu amerikarra ekonomizatzen bultzatzen duten kausak bereizteko zailtasuna Gizadiaren zorian legeek zertzen duten benetako eragina egitateetan ikertzen duena hutsegite handien arriskupean dago, ez baitago ezer baloragaitzagorik egitate bat baino. Herri bat, berez, kaskarin eta buruberoa da; beste bat hausnartzaile eta kalkulatzailerak. Hau bakoitzaren eraketa fisikoaren edota nik ez dakizkidan urrutiko kausen ondorio da. Herri batzuek nabarmentzea, zarata eta alaitasuna izaten dituzte gogoko, eta ez dira damutzen ketan milioi bat gastatzeaz. Beste batzuek bakarkako plazerrak bakarrik baloratzen dituzte eta pozik agertzeaz lotsatu egiten direla ematen du. Zenbait herrialdetan balio handia ematen zaio eraikinen edertasunari. Beste batzuetan ez zaie inolako baliorik ematen arte-objektuei, eta gutxietsi egiten da emankor ez dena. Azkenik, batzuetan ospea izaten dute gogoko, eta beste batzuetan dirua gauza guztien aurretik.

Legeez aparte, kausa hauek guztiek eragin handia izaten dute estatuko finantzen portaeran.

Amerikarrei sekula ez bazaie bururatzen herriaren dirua festa publikoetan gastatzea, ez da bakarrik haien artean herriak bozkatzeko duelako zerga, baita herriak ez duelako dibertitzea atsegin ere.

Beren arkitekturan apaingarriak errefusatu eta abantaila material eta positiboak bakarrik baloratzen badituzte, ez da bakarrik nazio demokratiko bat direlako, baita merkatal herri direlako ere.

Bizitza pribatuko azturek bizitza publikoan izan dute jarraipena; eta haien artean ongi bereizi beharra dago erakundearen menpeko ekonomiak, eta aztura eta ohituren ondoriozko direnak.

Konpara al daitezke Estatu Batuetako gastu publikoak Frantziakoekin?

Karga publikoen hedadura baloratzeko ezarri beharreko bi puntu: aberastasun nazionala eta zerga.- Ez dira zehatz-mehatz ezagutzen Frantziako aberastasuna eta kargak.- Zergatik ezin daitekeen espero Batasuneko aberastasuna eta kargak ezagutzea.- Autorearen ikerketak Pennsylvaniako zergen zenbatekoa jakiteko.- Herri bateko kargen hedadura ezagutzeko bidea ematen duten zeinu orokorrak.- Azterketa honen emaitza Batasunari dagokionez.

Azken aldi hauetan ahalegin handia egin da Estatu Batuetako gastu publikoak gureekin alderatzeko. Lan hauek guztiek ez dute emaitzarik izan, eta, nire ustez, hitz gutxi batzuk aski izango dira hori normala dela frogatzeko.

Karga publikoek herri batean duten hedadura baloratu ahal izateko, bi eragiketa egin behar dira: herri horren aberastasuna zein den jakin behar da lehenik, eta ondoren aberastasun horretatik zenbat bideratzen duen estatuko gastuetara. Norbaitek zergen zenbatekoa ikertzeari ekingo balio, zerga horiek hornitu behar dituzten baliabideen hedadura ezagutu gabe, alferrikako lana egingo luke, ez baita gastua, baizik eta gastuak errentarekin duen erlazioa, jakingarri dena.

Zergadun aberatsak erraz jasaten duen zerga berak miseria gorrian utz dezake behartsua. Herrien aberastasunak hainbat osagai ditu: fondo higiezinak osatzen dute lehena, ondasun higigarriak bigarrena.

Ez da erraza jakitea nazio batek dauzkan lur kultibagarrien hedadura, eta berauen balio berezko edo erantsia. Are zailagoa da herri batek dauzkan ondasun higigarri guztiak baloratzea. Hauek, beren aniztasun eta kopuruagatik, ia azterketa-ahalegin guztiei ihes egiten diete.

Halaber, ikusten dugu European lehenengo zibilizatu ziren nazioek, administrazioa zentralizaturik duten horiek beroriek, ez dutela orain arte zehatz-mehatz neurtu bere aberastasunaren egoera.

Amerikan bururatu ere ez zaie egin horretan saiatzerik. Eta nola harropuztu hori lortzeaz herrialde berri batean, bertan gizartea ez bada oraindik lasai eta behin-betiko finkatu; edo gobernu nazionalak ez badu, gureak bezala, agente-pilo bat bere esku, hauen ahaleginak aldi berean kontrolatu eta gidatzeko moduan; edo estatistikarik ere ez bada lantzen, ez dagoelako inor dokumentuak biltzeko ahalmena edota aztertzeko astia duenik?

Honela, bada, ezin lortu gure kalkulua osatuko luketen elementuak. Ez dakigu zein den Frantzia eta Batasuneko aberastasun erlatiboa. Bataren aberastasuna oraindik ez da ezagutzen, eta bestearena kalkulatzeko biderik ez dago.

Baina une batez onartu egingo dut konparaketarako beharrezko den termino hori alde batera uztea; uko egingo diot zergaren eta errentaren arteko erlazioa zein den jakiteari, eta zergaren zenbatekoa ezartzen saiatzera mugatuko naiz.

Irakurlea ohartuko da ikerketen esparrua murriztuz ere ez dudala neure eginkizuna erraztu.

Ez dut zalantzarik Frantziako administrazio zentrala, bere esku dituen funtzionari guztien laguntzaz, irits daitekeela hiritarrek zuzenean edo zeharka ordaindu beharreko zergen zenbatekoa zehazki jakitera. Baina lan hauek, partikular batek egin ezinezkoak, gobernu frantsesak berak ere ez ditu oraindik burutu, edo behintzat ez ditu emaitzak jakinarazi. Badakigu zeintzuk diren estatuaren kargak; departamentu-gastuen guztizkoa ere ezagutzen dugu; ez dakigu udalerrietan zer gertatzen den. Inork ezin esan, beraz, une honetan zenbatekoak diren Frantziako gastu publikoak.

Orain Amerikara itzultzen banaiz, zailtasunak ugariagoak eta gaindigaitzagoak direla ohartzen naiz. Batasunak zehatz-mehatz jakinarazten dit bere kargen zenbatekoa; berori osatzen duten hogeita lau estatuetakoa aurrekontu partikularrak eskura ditzaket; baina nork esango dit hiritarrek zer gastatzen duten konderri eta udalerrien administrazioan<sup>177</sup>?

Agintaritzak ezin ditu gobernu probintzialak behartu puntu honetan argitasunak ematera; eta gobernu hauek beren laguntza batera emateko prest baleude ere, zalantza dut hori egiteko egoeran egongo ote liratekeen. Egiteko honen berezko zailtasunaz gain, herrialdearen antolamendu politikoa ere ahalegin horien arrakastaren kontra legoke. Udalerriko eta konderriko magistratuak ez dituzte estatuko administrazioaileek izendatzen, eta ez daude hauen menpe. Pentsa daiteke, beraz, beharrezkoa zaigun informazioa lortu nahi izanez gero estatuak, oztopo handiak aurkituko lituzkeela derrigorrez erabili beharreko behe-funtzionarien axolagabezian<sup>178</sup>.

Bestalde, alferrikakoa da amerikarrek gai honetan egin ahal izango luketena ikertzea, garbi baitago orain arte ez dutela ezer egin.

Beraz, gaur ez dago Amerikan edo European pertsona bakar bat ere esan diezagukeena Batasuneko hiritar bakoitzak urtean zer ordaintzen duen gizarteko kargei eusteko<sup>179</sup>.

Ondoriozta dezagun amerikarren gizarte-gastuak gurekin arrakastaz alderatzea bezain zaila dela Batasuneko aberastasuna Frantziakoarekin konparatzea. Horretan saiatzea ere arriskutsua litzatekeela gehituko dut. Estatistikak, egia-egiazko kalkuluetan oinarritzen ez denean, okerbideratu egiten du zuzendu orde. Estatistikak bere desbiderapenetan ere gordetzen duen zehaztasun-itxura faltsuak erraz liluratzen du izpiritua, eta hau kezkarik gabe oinarritzen da erroreetan ere, egiaren forma matematikoak baitituzte haren ikuspegitik.

Utz ditzagun zifrak, eta saia gaitezen gure frogak beste nonbait aurkitzen.

Demagun herrialde batek oparotasun materialaren itxura duela; Estatuari ordaindu ondoren, behartsuak oraindik baliabideak dauzka han, eta aberatsak gainezkoa; batak eta besteak pozik dirudite beren zoriaz, eta oraindik ere hobetzen saiatzen dira egunero, horrela industriari sekula ez zaiolarik kapitalik falta, eta bere aldetik industriak ere ez die kapitalei huts egiten: hauek dira, dokumentu positiborik ezean, bila daitezkeen zeinuak herriaren gain dauden karga publikoak bere aberastasunarekiko proportziozkoak diren ala ez jakiteko.

Behatzaileak, lekukotasun hauetan oinarrituko balitz, zalantzarik gabe pentsatuko luke Estatu Batuetako amerikarrak bere errentaren zati aski txikiagoa ematen diola Estatuari frantsesak baino.

Baina, nola pentsa bestela izan daitekeenik?

Frantziako zorraren zati bat bi inbasioren ondorio da. Batasuna ez da horrelakoen beldur. Gure kokalekuak armada ugari bat beti prest izatera behartzen gaitu; Batasunaren isolamenduak 6.000 soldadu bakarrik izateko aukera ematen dio. Guk ia 300 itsasuntzi mantendu behar ditugu; amerikarrek 52 bakarrik<sup>178</sup>. Batasuneko biztanleak nola ordaindu beharko dio, bada, Estatuari, Frantziakoak beste?

Hortaz, ez dago paralelotasunik ezartzerik hain kokaleku ezberdina duten herrialdeetako finantzen artean.

Batasunean gertatzen dena aztertuz, eta ez Batasuna Frantziarekin alderatuz, erabaki ahal izango dugu demokrazia amerikarra benetan ekonomikoa den ala ez.

Konfederazioa osatzen duten errepubliketako bakoitzari begiratzen badiot, ikusten dut bertako gobernuak sarri ez duela bere egitasmoetan iraunkortasunik, eta ez dituela etengabe zaintzen bere enpleguak. Berehala ondorioztatzen dut hortik sarri askotan alfer-alferrik gastatu behar duela zergadunen dirua, edota behar baino gehiago dedikatu bere egitekoetara.

Bere herri-jatorriarekiko zintzotasunez, gizarteko behe-klaseen beharrak betetzen ahalegin handiak egiten dituela ikusten dut, baita aginterako bideak irekitzen eta beraren baitan ongizatea eta jakintzargiak zabaltzen ere. Behartsuak mantentzen ditu, urtero milioiak banatzen ditu eskoletan, zerbitzu guztiak pagatu eta eskuzabaltasunez ordaintzen die bere agenterik txikienei. Gobernatzeko era hau onuragarri eta zentzuzkoa dela iruditzen bazait ere, aitortu beharrean nago garestia dela.

Behartsua arazo publikoak zuzentzen eta baliabide nazionalak erabiltzen ikusten dut; eta derrigorrez pentsatu behar, estatuko gastuez aprobetxatzean, sarri askotan Estatua gastu berrietara herrestatzen duela.

Konklusio gisa, beraz, zifra osagabeetara jo gabe eta ausazko konparazioak egin nahi gabe, esan dezaket amerikarren gobernu demokratikoa ez dela, batzuetan uste izaten den bezala, merkea; eta beldurrik gabe iragartzen dut, egunen batean Estatu Batuetako herrietara urrialdi handia iritsiz gero, Europako aristokrazia edo monarkia gehienetan beste igoko lirakeela zergak haien artean ere.

Gobernarien ustelkeria eta demokrazian; honen ondorioak moraltasun publikoan

Aristokrazietan, batzuetan besteak usteltzen saiatzen dira gobernariak.- Demokrazietan, sarri beraiek agertzen dira ustelduta.- Lehenengoetan, bizioek zuzenean erasotzen diote herriaren moraltasunari.- Bigarrenetan, zeharkako eragina dute herriarengan, are beldurgarriagoa dena.

Aristokraziak eta demokraziak elkarri aurpegiratzen diote ustelkeria erraztearen errua.

Bereizi beharra dago:

Gobernu aristokratikoetan, arazo publikoetara iristen direnak aberatsak izaten dira, boterea baino ez dutenak nahi. Demokrazietan, estatu-pertsonak behartsuak izaten dira eta oraindik ez dute aberastasunik.

Horrela, bada, estatu aristokratikoetan gobernariak ez dute ustelkeriarako joerarik eta diru-zaletasun oso urria izaten dute, kontrakoa gertatzen delarik herri demokratikoetan.

Baina aristokrazietan, arazo publikoen buruzagitzara iritsi nahi dutenek aberastasun handiak izaten dituztenez, eta bertara iristaraz ditzaketenen kopurua sarri mugatua denez, gobernuak, nolabait ere, enkantean aurkitzen da. Demokrazietan, aitzitik, agintea lortu nahi dutenak ia sekula ez dira aberatsak, eta agintea lortzen laguntzen dietenen kopurua oso handia izaten da. Beharbada demokrazietan ez da pertsona gutxiago salgai egoten, baina ia eroslerik ere ez; eta, bestalde, aldi berean jende gehiegi erosi beharko litzateke helburua lortu ahal izateko.

Azken berrogei urteotan Frantzia agintea izan dutenen artean, hainbat akusatu dituzte estatuaren eta aliatuen gastuen kontura aberastu izanaz, oso gutxitan aurpegiratu zitzaizen gauza antzinako monarkiako pertsona publikoei. Baina Frantzia ia inoiz ez da gertatzen hautesle baten botoa diruz erostea, Ingalaterran agerian eta jendaurrean egiten den gauza.

Sekula ez dut entzun Estatu Batuetan aberastasunak erabili direnik gobernatuak erosteko; baina sarritan ikusi dut funtzionari publikoen jatorrasuna zalantzan jarria. Are gehiagotan entzun dut beraien arrakasta satorlan txatxu edota azpikeria hobendunei egozten dietela.

Aristokraziak gidatzen dituztenak besteak usteltzen saiatzen badira batzuetan, demokrazien buruak berak agertu ohi dira ustelduta. Batzuen kasuan zuzenean erasotzen zaio herriaren moraltasunari; besteen kasuan, zeharkako eragina zertzen da kontzientzia publikoan, are beldur handiagoa izan behar zaion zerbait.

Herri demokratikoetan, estatuaren buruek, ia beti direnez susmo txarren helburu, nolabait ere gobernuaren babesa ematen diete beraiei aurpegiratzen zaizkien krimenei. Honela, jarraibide arriskutsuak eskaintzen dizkiote oraindik borrokatzen den bertuteari; eta konparazio aintzatsuak, ezkututzen den bizioari.

Alferrik esango da grina desonestuak maila guztietan daudela, sarritan jaiotza-eskubidez iristen direla tronura eta pertsona oso mesprezagarriak nazio aristokratikoen buruzagitzan nahiz demokrazien baitan aurki daitezkeela.

Erantzun honek ez nau betetzen. Agintera ustegabeen iristen direnen ustelkerian, jendetzarentzat kutsakor bihurtzen duen gordinkeria eta arrunkeriazko zerbait aurkitzen da; jaun handien galdukerian, berriz, halako sofistikazio aristokratiko bat izaten da nagusi, handitasun-kutsu bat, askotan besterengana komunikatzea ere eragozten duena.

Herria ez da inoiz gorte-izpirituaren labirinto ilunean sartuko; nekez aurkituko du inoiz maneren dotoreziaren, gustu-bilaketaren eta hizkuntz polikerien azpian ezkututzen den apalkeria. Baina altxor publikoa lapurtzea edo estatuaren mesedeak diruaren truke saltzea, edozein dohakabek ere ulertzen du hori eta bere aldetik beste horrenbeste egiteaz harro daiteke.

Bestalde, handien inmoraltasunaren ikuspena baino beldurgarriagoa handitasunera daraman inmoraltasuna da. Demokrazian, hiritar xeheek pertsona bat beren artetik irten eta urte gutxiren buruan aberastasuna eta boterea eskuratzera iristen dela ikusten dute; ikuskizun honek harridura eta bekaizkeria sortzen dizkie; eta ikertu egiten dute atzo mailakide zutenak nola ote duen gaur beraiek zuzentzeko eskubidea. Igoera hori beraren talentu edo bertuteei egozteak ez da eroso, zeren eta beraiek bestea bezain bertutetsu eta iaio ez direla aitortzea baita. Orduan, kausa nagusia beraren bizioetakoren batean jartzen dute, eta sarri arrazoi dute horretan. Honela, nik jakin ezineko nahasketa higuinagarria zertzen da apalkeria eta boterea, ezduintasun eta arrakasta, onuragarritasun eta desohorea bezalako ideien artean.

Zer-nolako ahaleginak egiteko gai den demokrazia

Batasuna behin bakarrik borrokatu da bere izatearen alde.- Gogoberotasuna gerraren hasieran.- Hoztasuna bukaeran.- Amerikan itsas erreklutamendu edo inskripzioa egiteko zailtasuna.- Herri demokratikoak zergatik duen beste batek baino gaitasun txikiagoa etengabeko ahalegin handiak egiteko.

Herriaren benetako nahiei jarraitzen dien gobernuaz ari naizela hemen ohartarazten dut irakurlea, eta ez herriaren izenean agintzera bakarrik mugatzen den gobernuaz.

Ez da ezer jarkiezinezkoagorik herriaren izenean agintzen duen botere tiranikoa baino, zeren eta, gehiengoaren borondateari dagokion aginpide moralaz horniturik, aldi berean pertsona bakar batek bezain kementsu, bizkor eta setati jotzen baitu.

Nahikoa zaila da esatea gobernu demokratiko bat zenbaterainoko ahalegina egiteko gai den nazioaren krisi-garaian.

Orain arte ez da inoiz ikusi errepublika demokratiko handirik. Errepublikak iraintzea izango litzateke 1793an Frantzian agindu zuen oligarkiari izen hori ematea. Estatu Batuetan bakarrik ikus daiteke egoera berri hau.

Nolanahi ere, Batasuna sortu zenetik igarotako mende erdi honetan, behin bakarrik egon da koloka berorren izatea, Independentzi gerran, alegia. Gerra luze haren hasieran, aberriaren zerbitzurako aparteko gogo sutsua nabaritu zen<sup>179</sup>. Baina borroka luzatu ahala, norberekeria azaldu zen berriro. Altxortegi publikora ez zen dirurik iristen, armadara ez zen jenderik agertzen; artean herriak nahi zuen independentzia, baina hori lortzeko bitartekoen aurrean atzera egiten zuen. "Alferrik ugaldu ditugu zergak eta biltzeko metodo berriak saiatu, dio Hamiltonek *Federalist*-en (12. zk.); igurikimen publikoari huts eragin diote beti, eta estatuetakoa altxortegia hutsik gelditu da. Administrazioaren forma demokratikoek -gure gobernuaren izaera demokratikoari berezko zaizkionak-, gure merkataritzaren ahulezi egoerak sortzen zuen diru-urritasunarekin elkartzean, alferrikako bihurtu dituzte dirutza handi samarrak biltzeko ahalegin guztiak. Legislatibo ezberdinek azkenean ulertu dute ahalegin horien zentzugabekeria".

Orduz geroztik, Estatu Batuek ez dute beste gerra serio samarrik izan.

Demokraziak beren buruari zer-nolako sakrifizioak ezartzeko gai diren epaitzeko, itxaron egin beharko da nazio amerikarra bere ondasun-errentaren erdia gobernuaren esku utzi beharrean aurkitu arte, Ingalaterra bezala, edo aldi berean bere biztanleen hogeitik bat gudu-zelaira bidali beharrean aurkitu arte, Frantziak egin duen bezala.

Amerikan, konskripzioa ez da ezagutzen; diruaren truke erreklutatzen dira pertsonak. Derrigorrezko erreklutamendua Estatu Batuetako herriaren ideien hain aurkakoa eta azturrikiko hain arrotza izanik, ez dut uste legeetan sartzera inoiz ausartuko direnik. Frantzian konskripzioa deitzen den hori gure zergetako astunena izango da ziur aski; baina, konskripziorik gabe, nola egin ahal izango genuke gerra kontinental handirik?

Itsasorako ere amerikarrek ez dute beren artean ingelesezko bilketa-sistematik onartu. Gure itsas inskripzioaren antzekorik ere ez dute. Estatuko flota, merkatal flota bezalaxe, borondatezko zerrendaketaren bidez biltzen da.

Nolanahi ere, ez da erraza pentsatzea herri batek itsas gerra handirik egin dezakeenik gorago aipatu bi bide horietako batez baliatu gabe. Honela, Batasunak, dagoeneko itsasoan loriaz borrokatu denak, ez du hala ere inoiz flota ugarririk izan, eta bere untzi-kopuru txikiaren armamentua oso garesti kostatu izan zaio beti.

Estatu-gizon amerikarrak entzun ditut aitortzen Batasunak arazoak izango dituela itsasoan bere mailari eusteko, ez bada behintzat itsas bilketa edo inskripzioaz baliatzen; baina zaila da herria, gobernatzen duena izanik, itsas bilketa edo inskripzioa jasatera behartzea.



Ukaezina da herri askeek normalean askoz ere kementsuago jokatzen dutela arriskualdian, aske ez direnek baino; esango nuke, ordea, hori elementu aristokratikoa nagusi duten herri askeetan dela egia, batez ere.

Demokrazia askoz egokiagoa iruditzen zait bakean dagoen gizarte bat zuzentzeko edo, behar izanez gero, bat-bateko ahalegin indartsu bat egiteko, herrien politika-bizitzako ekaitzaldi handiei luzaroan aurre egiteko baino. Honen zergatia sinplea da: jendea gogo-berotasunez jartzen da arriskuak eta gabeziak jasateko prest, baina hausnarketaren ondorioz bakarrik jasaten dituzte horrelakoak luzaroan. Instintuzko kuraia delako horretan berorretan, uste baino kalkulu gehiago egoten da; eta lehen ahaleginak oro har grinek bakarrik eragiten dituzten arren, emaitza ikustean segitzen da horiekin aurrera. Kuttun zaigunaren zati bat arriskatzen da gainerakoa salbatzeko.

Nolanahi ere, etorkizunaren pertzepzio garbi hau da, jakintzargietan eta esperientzian oinarritua, demokraziari sarritan falta izaten zaiona. Herriak sentitu egiten du arrazoiu baino gehiago; eta egungo gaitzak handiak badira, beldur izatekoa da derrota-kasuan ez ote dituen ahaztuko agian etor lekizkiokeen gaitz handiagoak.

Bada oraindik beste kausa bat gobernu demokratiko baten ahaleginak aristokraziarenak bezain iraunkor ez izatea eragiten duena.

Herriak ez du goi-klaseek bezain argi ikusten etorkizunetik zer espero dezakeen edo zeren beldur izan behar duen, eta gainera oso bestela pairatzen ditu egungo gaitzak. Nobleak, bere burua arriskatzean, arriskurako adina aukera izaten du aintzarako. Bere errenten zatirik handiena Estatuari ematean, aberastasunaren plazerretako batzuei uko egiten die momentuz; baina, behartsuarentzat heriotzak ez du prestigiorik, eta aberatsa gogaitzen duen zerga horrek sarri bizi-iturriei erasotzen die behartsuaren kasuan.

Krisialdian errepublika demokratikoez duten ahulezia erlatibo hau da agian oztoporik handiena Europar horrelako errepublika bat sor dadin. Europako herri batean errepublika demokratikoa eragozpenik gabe irauteko, beharrezkoa izango litzateke aldi berean beste guztietan ere ezartzea.

Demokraziaren gobernuak, luzarora, gizartearen benetako indarrak areagotu egin behar dituela uste dut; baina ezingo du aldi berean, puntu batean eta denbora jakin batean bildu gobernu aristokratiko edo monarkia absolutu batek adina indar. Herrialde demokratiko bat mende batez gobernu errepublikarraren menpe egongo balitz, pentsa daiteke mende horren buruan inguruko estatu despotikoak baino aberatsagoa, jendeztatuagoa eta aurreratuagoa izango litzatekeela; baina mende horretan zehar, hainbat aldiz jasan beharko luke auzoko horiek konkista dezaten arriskua.

Oro har demokrazia amerikarrak bere gain zertzen duen boterea

Herri amerikarrak luzarora bakarrik oniritzen dio, eta batzuetan uko egiten dio, bere ongizaterako komeni zaiona egiteari.- Amerikarrek duten gaitasuna hutsegite konpongarriak egiteko.

Grinak menperatzeko eta etorkizunera begira momentuko beharrak isilarazteko demokraziak duen zailtasun hau gauzarik txikienetan ohartzen da Estatu Batuetan.

Herriak, lausengariz inguratua, nekez lortzen du bere gain arrakasta izatea. Gabetasun edo gauza gogaikarriren bat onar dezan lortu nahi den bakoitzean, nahiz eta beraren arazoimenak onartzen duen helburu bat izan, hori errefusatz hasten da ia beti. Arrazoiz goraipatzen da amerikarrek legeekiko duten obedientzia. Erantsi beharra dago Amerikan herriak eta herriarentzat egin izaten dela legeria. Estatu Batuetan, legea beren alde dute beste edonon legea hausteko interesik handiena dutenek. Honela, pentsa daiteke lege gogaikarri bat, gehiengoak ez badio momentuz onurarik ikusten, ez dutela onartu edo obedituko.

Estatu Batuetan ez dago legeriarik maulazko bankarota-kasuetarako. Ez ote dago, bada, bankarrotarik? Bai horixe; hain zuzen ere, asko daudelako da. Porrot-egile bezala

pertsegitua izateko beldurra, bankarrotan behea jota gelditzeko beldurra baino handiagoa da gehiengoaren barnean; eta kontzientzia publikoan halako tolerantzia hobendun bat sortzen da bakoitzak banaka gaitzesten duen delituarekiko.

Hego-mendebaldeko estatu berrietan, ia beti hiritarrek egiten dute justizia beren artean, eta hilketak etengabe gertatzen dira han. Egoera hau herriaren azturak zakarregiak izatetik dator, eta jakintzargiak ez daude behar beste zabalduta basa eremu haietan, legeari indar ematea onuragarri dela ohartzeko. Oraindik nahiago dituzte dueluak prozesuak baino.

Behin Filadelfian norbaitek esan zidan Amerikako krimen gehientsuenak edari biziak eraginak zirela, herri xeheak nahierara edaten baitzituen, oso merke saltzen zitzaizkiolako. "Zergatik, galdetu nion, ez diozue tasarik jartzen pattarrari?". "Gure legegileek sarri pentsatu dute hori, erantzun zidan, baina zaila da eginkizuna. Altxamenduaren beldurra dago; eta, bestalde, lege horren aldeko botoa eman lezaketeneke ziur dakite ez liratekeela berrautatuak izango". "Hortaz, esan nion berriro, edaleak gehiengoak dira zuen artean, eta herriak ez du neurritasuna gogoko".

Gauza hauek estatu-gizonei adierazten diezunean, zera erantzutera mugatzen dira: utzi denborari bere bidea egiten, gaizkiaren sentipenak argi egingo dio herriari eta bere beharrak erakutsiko. Hau egia da sarri askotan: demokraziak, errege batek edo nobleriak baino aukera gehiago baldin badu tronpatzeko, behin argia hartu ondoren egia itzultzeko ere aukera gehiago du, beraren baitan ez baitago normalean gehiengoaren kontrako interesik, eta arrazoiaren aurka borrokatzen denik. Baina demokraziak esperientziatik bakarrik atera dezake egia, eta herri askok ezingo lituzkete, hondatu gabe, beren errorearen emaitzak itxaron.

Beraz, amerikarren pribilegio handia ez da bakarrik beste batzuk baino ilustratuagoa izatea, hutsegite konpongarriak egiteko ahalmena izatea baizik.

Erantsi behar da, iraganeko esperientziatik probetxua erraz atera ahal izateko, beharrezkoa dela demokrazia halako zibilizazio eta jakintzargien maila batera iritsia izatea.

Herri batzuetan lehen heziketa hain akastuna izan denez, eta beraien izaeran grina, ezjakintasun eta gauza guztiei buruzko nozio okerren hain nahasketa arraroa dagoenez, herri horiek beren kabuz ez lukete asmatuko beren zorigaitzen kausa bereizten. Ezagutzen ez dituzten gaitzen azpian erortzen dira.

Eskualde zabaletan zehar ibilia naiz, dagoeneko existitzen ez diren nazio indiar ahaltsuen bizileku izandakoetan antzina; dagoeneko murrizturik dauden tribuetan bizi izan naiz, egunez egun ikusten dutelarik beren kopurua urritzen eta beren ospe basatiaren distira itzaltzen; indio hauei berauei entzun diet beren arrazarentzat erreserbaturiko azken patua iragartzen. Hala ere, ez dago europarrik zoritxarreko herri horiek ezinbesteko hondamenditik onik ateratzeko zer egin beharko litzatekeen konturatzen ez denik. Baina haiek ez dute ikusten; sentitzen dituzte urtero beraien gain metatzen diren gaitzak, baina azkenekoraino galduko dira erremedioa errefusatu. Indarra erabili beharko litzateke bizitzera behartzeko.

Azken mende laurden honetan, harrigarria gertatzen da Hego Amerikako nazio berriak asaldaturik ikustea etengabe birsortzen diren iraultzen erdian, eta egunero espero da beraien *egoera naturala* deritzan horretara itzultzen ikustea. Baina nork esan dezake iraultza ez dela, gaur egun, Hego Amerikako espainolen egoerarik naturalena? Herrialde horretan gizarteak leizearen barrenean dabil borroka, bere ahaleginez ezin delarik hortik irten.

Hemisferio baten erdi eder horretan bizi den herriak setati emana dirudi bere erraiak urratzera; ezerk ezin dio hori eragotzi. Nekeak atsedean hartzera behartzen du pixka batean, eta atsedeanak sugar berriak pizten dizkio berehala. Zorigaitz nahiz krimen artean

dagoela kontuan hartzen dudanean, berarentzat despotismoa onuragarri litzatekeela pentsatzeko tentazioa izaten dut.

Baina bi hitz hauek ez dira inoiz nire pentsamenean baturik aurkituko.

Demokrazia amerikarrak nola gidatzen dituen estatuko

kanpo-arazoak

Estatu Batuetako kanpo-politikari Washington eta Jeffersonek emandako norabidea.- Demokraziaren berezko akats gehienak kanpo-arazoen zuzendaritzan sentiarazten dira, eta beraren kalitateak gutxi nabaritzen dira hor.

Konstituzio federalak nazioaren kanpo-interesen zuzendaritza iraunkorra lehendakariaren eta Senatuaren<sup>180</sup> esku uzten duela ikusi dugu, eta honek Batasuneko politika orokorra herriaren zuzeneko eta eguneroko eraginetik kanpo jartzen du neurri bateraino. Hortaz, ezin da esan era absolutuan, Amerikan demokrazia dela estatuko kanpo-arazoak gidatzen dituen.

Badira bi gizon amerikarren politikari gaur egun oraindik ere irauten duen norabidea ezarri diotenak; lehena Washington da, eta Jefferson bigarrena.

Washingtonek, bere herrikideei zuzenduriko gutun mirezgarri honetan -gizon handi honen testamentu politikoa bezala har daiteke- zera zioen:

"Atzerriekin ditugun merkatal harremanak zabaltzea, eta beraien eta gure artean ahalik eta lotura politiko gutxien ezartzea, hori izango da gure politikaren araua. Leialtasunez bete behar ditugu jadanik harturiko konpromezuak, baina ez dugu besterik hartu behar.

"Europak badu zenbait interes propio, gure interesekin erlaziorik ez dutenak edo oso zeharkakoa bestela; hortaz, sarri askotan aurkituko da guri berez arrotz zaizkigun liskarretan sartuta; haren politikaren gora-beherei lotura artifizialez atxikitzea, haren adiskidetasun eta gorrotoen konbinazio ezberdinetan sartzea eta ondoriozko borroketan esku hartzea zuhurtziaz gabe jokatzea izango litzateke.

"Berarekiko isolamenduak eta urruntasunak kontrako bidetik joatera gonbidatzen gaituzte, eta hortik jarraitzeko aukera ematen digute. Nazio bakarra, gobernu indartsu batek zuzendua, osatzen jarraitzen badugu, ez dago urruti inoren beldur izan beharko ez dugun garaia. Orduan geure neutraltasuna errespetaraziko duen jarrera hartu ahal izango dugu; nazio borrokazaleak, gugandik ezer ezin dutela lortu ohartzean, motiborik gabe probokatzeko beldur izango dira; eta bakea edo gerra aukeratzeko egoeran izango gara, geure ekintzetarako beste gidarik hartu gabe geure interesa eta justizia izan ezik.

"Zergatik utziko ditugu alde batera hain egoera onuragarritik atera ditzakegun abantailak? Zergatik irten geure-geurea dugun terrenotik, arrotz zaigun beste batean sartzera joateko? Azkenik, gure destinoa Europako edozein zatirenarekin lotuz, zergatik arriskatu geure bakea eta oparotasuna han bizi diren herrien gutizia, lehia, interes edo nahikerien menpe?

"Gure benetako politika nazio arrotzekin aliantza iraunkorrik ez egitea da; are gutxiago oraindik ez egiteko askatasuna dugun bitartean, inola ere ez baitut nahi aurretikako konpromezuetan huts egiterik. Zintzotasuna da beti politikarik onena; goiburu hau nazio-arazoei bezain aplikagarria iruditzen zait gizabanakoenei. Hortaz, beren hedadura osoan bete behar direla uste dut jadanik hartuak ditugun konpromezuak; baina alferrikakoa eta zuhurgabea iruditzen zait besterik hartzea. Jar gaitezen beti geure jarrera errespetarazteko moduan, eta aldi baterako aliantzak aski izango zaizkigu arrisku guztiei aurre egin ahal izateko".

Aurrez, Washingtonek adierazia zuen ideia eder eta zuzen hau: "Beste nazio batenganako maitasun edo gorrotozko sentimenduak dituen nazioa nolabait ere esklabu bihurtzen da normalean. Bere gorrotoaren edo maitasunaren esklabu izaten da".

Washingtonen jokabide politikoa bere maximen araberakoa izan zen beti. Munduaren gainerakoa gerran ari zen bitartean, bere herrialdea bakean edukitzea lortu zuen, eta

amerikarren interesa, ongi ulertua, Europako barne-liskarretan sekula esku ez hartzea zela ezarri zuen doktrinatzat.

Are urrutirago joan zen Jefferson, eta Batasunaren politikan beste maxima hau sartu zuen: "Amerikarrek ez zietela inoiz pribilegiorik eskatu behar atzerriko nazioei, gero ematera beharturik ere ez egoteko".

Bi printzipio hauek, beren zuzentasun nabariagatik jendeak erraz ulertzeko modukoak, ikaragarri sinplifikatu dute Estatu Batuen kanpo-politika.

Batasunak, Europako arazoetan nahastu ez denez, ez du, nolabait esateko, kanpo-interesik eztabaidagai, oraindik ez baitu auzoko ahaltsurik Amerikan. Bere kokalekuz nahiz bere borondatez Mundu Zaharreko grinetatik kanpo, ez dauka ez horietatik gorde, ez horiekin ezkondu beharrik. Eta Mundu Berrikoei dagokienez, oraindik ezkutuan dauzka etorkizunak.

Batasuna aske dago aurretiko konpromezuetatik; Europako herri zaharren eskarmentuaz baliatzen da, baina beharturik egon gabe, haiek bezala, iragana kontuan hartu eta orainaldira egokitzen; ez dago behartua, haiek bezala, arbasoek utziriko ondare zabala onartzera: aintza eta zorigaitzen, adiskidetasun eta gorroto nazionalen nahasketa. Estatu Batuen kanpo-politika aiduru egotea da, batez ere; gehiago datza abstenitzean zerbait egitean baino.

Orainari dagokionez, oso zaila da jakitea zer-nolako iaioitasuna izango duen demokrazia amerikarrak estatuko kanpo-arazoen gidaritzan. Puntu honetan, haren etsaiek nahiz lagunek bertan behera utzi behar dute beren epaiketa.

Neuri dagokidanez, ez dut eragozpenik esateko: gobernu demokratikoak gizartearen kanpo-interesen zuzendaritzan iruditzen zaizkit garbi besteak baino kaskarragoak. Eskarmentuak, ohiturek eta irakaskuntzak azkenerako ia beti sortzen dute demokrazian eguneroko jakinduria praktikoko hori eta bizitzako gora-behera txikien zientzia hori, zentzutasuna deritzana. Zentzutasuna aski da gizartearen ohiko ibilerarako; eta heziketa egina duen herri batean, askatasun demokratikoak, estatuko barne-arazoei aplikatuta, gauza on gehiago sortzen du gobernu demokratikoaren erroreek eragin litzaketen gaitzak baino. Herrien arteko harremanetan, ordea, ez da beti horrela gertatzen.

Kanpo-politikak ez du demokraziak bere-bere dituen kualitatez baliatzea eskatzen, eta, aitzitik, falta zaizkion gehientsuenak erabiltzea eskatzen du. Demokraziak estatuko barne-baliabideen hazkundera bultzatzen du, ongizatea zabaltzen, izpiritu publikoa garatzen eta legearekiko begirunea sendotzen du gizarteko klase ezberdinetan: gauza hauek guztiek zeharkako eragina bakarrik dute herri batek beste batenganako duen jarrian. Baina demokraziak nekez koordina ditzake eginkizun handi baten xehetasunak, edo egitasmo bat zehaztu eta gero nekez jarrai diezaioke setati oztopoen gainetik. Gaitasun urria du ezkutuko neurriak hartzeko eta horien emaitzaren zain egonarriz egoteko. Hauek, batez ere, pertsona bakar bati edota aristokraziari dagozkion kualitateak dira. Nolanahi ere, kualitate hauek dira, hain zuzen, herri bat, banako bezala, luzarora nagusi izatera eramaten dutenak.

Aitzitik, aristokraziaren berezko akatsei arreta jarritz gero, ohartuko zarete sor lezaketen ondorioa ia ez dela nabaritzen estatuko kanpo-arazoen zuzendaritzan. Aristokraziari egozten zaion akats nagusia beretzat bakarrik lan egitea da, eta ez herri-multzoarentzat. Kanpo-politikan nekez gertatzen da aristokraziak herriak ez bezalako interesak izatea.

Demokrazia, politikan, arrazonamenduei obeditu ordez sentimenduei obeditzen eta momentuko grina bat asetzeko luzaroan umoturiko plana baztertzen eramaten duen joera garbi ikusi ahal izan zen Amerikan Iraultza Frantsesa lehertu zenean. Arrazoiaren argitasun sinpleenak aski ziren orduan, gaur egun bezalaxe, amerikarrei ulertarazteko beren interesa ez zetzala Europa odolduko zuen borrokan konprometitzean, borroka hartatik Estatu Batuei ez baitzitzaien inolako kalterik etorriko.

Hala ere, herriaren jarrera Frantziaren alde hain bortizki agertu zenez, Washingtonen izaera tinkoa eta beraren ospe ikaragarria behar izan ziren Ingalaterraren kontra gerran ez hasteko. Eta hala ere, gizon bikain honen adimen zorrotzak bere herrikideen grina eskuzabalen, baina hausnargabeen, kontra borrokatzeko egin zituen ahaleginek ia-ia kendu egin zioten beretzat nahi izan zuen sari bakarra: herriaren maitasuna. Gehiengoaren politikaren kontra agertu zen; gaur egun herri osoak onesten du<sup>181</sup>.

Konstituzioak eta herriaren babesak ez baliote Washingtoni estatuko kanpo-arazoen zuzendaritza eman, gauza ziurra da nazioak gaur egun gaitzesten duen hori berori egingo zukeela orduan.

Munduan indartsu jokatu duten herri gehientsuenak, egitasmo handiak asmatu, jarraitu eta gauzatu dituztenak, erromatarrengandik ingelesenganaino, aristokraziak zuzendurik zeuden, eta nola harritu horretaz?

Bere ikuspegietan tinkoena dena munduan aristokrazia da. Herritarren multzoa seduzi daiteke bere ezjakintasun edo grinengatik; errege baten izpiritua har liteke ustekabeen, beraren proiektuak koloka jarraziz, eta gainera erregea ez da hilezkorra. Baina gorputz aristokratiko bat ugarietara da inork bereganatu ahal izateko, eta urriegia grina hausnargabeen mozkorraldiari erraz amore emateko. Gorputz aristokratiko bat pertsona irmo eta ilustratua da, inoiz hiltzen ez dena.

VI

*Zein diren gizarte amerikarrak demokraziaren gobernutik ateratzen dituen benatako abantailak*

Kapitulu hau hasi aurretik, irakurleari gogorarazi beharra sentitzen dut dagoeneko hainbat aldiz adierazi dudana liburu honetan zehar.

Estatu Batuetako konstituzio politikoa demokraziak bere gobernuari eman diezaiokeen formetako bat iruditzen zait; baina erakunde amerikarrak ez ditut jotzen herri demokratiko batek beregana ditzakeen ez erakunde bakartzat, ezta onenentzat ere.

Demokraziaren gobernutik amerikarrek zer gauza on lortzen duten jakinaraztean, ez dut inola ere esan edo pentsatu nahi antzerako abantailak lege berberen laguntzaz bakarrik lor daitezkeenik.

Legen joera orokorra demokrazia amerikarraren menpean, eta aplikatzen dituztenen joera

Demokraziaren akatsak berehala ikusten dira.- Abantailak luzarora baino ez dira hautematen.- Demokrazia amerikarra ezegokia da sarri, baina beraren legeen joera orokorra probetxagarria da.- Funtzionari publikoek, demokrazia amerikarrean, ez dute gehiengoarenak ez bezalako interes iraunkorrik.- Honen ondorioak.

Demokraziaren gobernuaren akatsak eta ahuleziak eragozpenik gabe ikusten dira; egitate nabarieratzen agertzen dira, baina beraren eragin osasuntsua era ohartzezinean zertzen da, eta, nolabait esateko, ezkutuan. Beraren akatsez lehen begiratuan ohartzen gara, baina kualitateak luzarora bakarrik aurkitzen.

Demokrazia amerikarraren legeak akastunak edo osagabeak dira sarri; batzuetan jadanik finkatutako eskubideak hausten dituzte, edota arriskutsuak berresten. Onak izanda ere, beraien maiztasuna gaitz handia izango litzateke. Hau dena lehen begiratuan hautematen da.

Orduan, zer dela-eta mantentzen eta aurreratzen dira errepublika amerikarrak?

Legeetan arreata handiz bereizi beharra dago haiek lortu nahi duten helburua eta helburu horretarantz joateko modua, beraien ontasun absolutua eta erlatiboa baino ez dena.

Demagun legegilearen helburua gutxiengoaren interesen alde jokatzeko dela, gehiengoaren lepotik betiere; bere erabakiak, ukan nahi duen emaitza ahalik eta denborarik laburrenean eta ahaleginik txikienaz lortzera bideratzen ditu. Legea ongi

egina izango da, baina helburua txarra; arriskutsua izango da haren eraginkortasunaren beraren proportzioan.

Demokraziaren legeek, oro har, gehiengoaren ongia izaten dute helburu, hiritarren gehiengotik sortuak baitira; hau egon daiteke oker, baina nekez izango du bere buruaren aurkako interesik.

Aristokraziaren legeek, aitzitik, aberastasuna eta boterea gutxiengoaren eskuetan monopolizatzea jotzen dute, aristokrazia beti gutxiengo bat izaten baita berez.

Hortaz, esan daiteke oro har demokraziaren helburua bere legerian onuragarriagoa dela gizadiarentzat, aristokraziaren helburua berean baino.

Baina hor amaitzen dira demokraziaren abantailak.

Aristokrazia askoz ere iaioagoa da legegilearen zientzian demokrazia baino. Bere buruaren jabe, ez da zirikaldi iragankorren menpe egoten; luzerako egitasmoak izaten ditu, eta beroriek umatzen jakiten du aukera egokia iritsi arte. Zuhurtziaz jokutzen du aristokraziak; ezagutzen du bere lege guztien indar kolektiboa aldi berean eta puntu bat bererantz bideratzeko artea.

Ez da horrela gertatzen demokrazian: honen legeak akastunak edo ezegokiak izaten dira ia beti.

Demokraziaren baliabideak ez dira, beraz, aristokraziarenak bezain biribilak. Sarritan, nahi gabe, bere buruaren kontra jarduten du, baina beraren helburua onuragarriagoa da.

Imajinatu gizarte bat naturak, edo bere konstituzioak, lege txarren eragin iragankorra jasateko moduan antolaturik duena, eta legeen *joera orokorraren* emaitza itxaron dezakeena desagertu gabe; eta ohartuko zarete, bere akatsak gora-behera, hala ere demokraziaren gobernua dela egokiena gizarte horri aurrera eragiteko.

Horixe da, hain zuzen, Estatu Batuetan gertatzen dena; beste alde batzuetan adierazi dudana errepikatzen dut hemen: amerikarren pribilegio handia hutsegite konpongarriak egin ahal izatea da.

Antzerako zerbaite esango dut funtzionari publikoei buruz.

Erraz ikusten da demokrazia amerikarra sarri tronpatzen dela bere boterea hartuko duten pertsonak aukeratzekoan; baina ez da hain erraza esatea Estatuak zergatik egiten duen aurrera haien eskuetan.

Ohartu, lehenik, estatu demokratikoetan gobernariak ez badira hain zintzo eta hain gaituak ere, gobernatuak ilustratuagoak eta erneagoak izaten direla.

Demokrazietan, herriak, bere arazoez etengabe arduratua eta bere eskubideez jeloskor egoten delarik, ez die bere ordezkariak uzten bere interesak ezartzen dien halako ildo orokor batetik aldentzen.

Ohartu, gainera, magistratu demokratikoak beste batek baino okerrago erabiltzen badu boterea, oro har denbora laburragoan edukitzen duela botere hori.

Baina bada arrazoi bat hori baino orokorragoa, eta gogobetegarriagoa.

Zalantzarik gabe, garrantzizkoa da nazioen onerako gobernariak bertuteak edo talentuak izatea; baina are garrantzizkoagoa da agian gobernariak ez izatea gobernatu gehienek aurkako interesik, zeren eta, kasu honetan, ia alferrikakoak izan bailitezke bertuteak, eta oso kaltegarriak talentuak.

Esan dut garrantzizkoa dela gobernariak ez izatea gobernatu gehienek aurkako interesik, edo interes ezberdinik; ez dut esan gobernatu *guztien* interesen antzekoak izatea garrantzizkoa denik, ez baitakit hori lortu denik orain arte.

Ez da, gaur arte, gizarte osatzen duten klase guztien garapena eta oparotasuna berdinki bultzatuko duen forma politikorik aurkitu. Klase horiek, nazio berean beste hainbat nazio ezberdin bezala izaten jarraitu dute, eta esperientziak erakutsi du horietako bati besteen zoria erabat ematea bezain arriskutsua zela herri bat beste herri baten destinoen arbitro bihurtzea. Aberatsek bakarrik gobernatzen dutenean, behartsuen interesa

arriskuan egoten da beti; eta legea behartsuek egiten dutenean, aberatsen interesak ezusteko handiak jasaten ditu. Zein da, beraz, demokraziaren abantaila? Demokraziaren benetako abantaila ez da, esan izan den bezala, guztion oparotasuna bultzatzea, gehiengoaren ongizatearen zerbitzurako izatea baizik.

Estatu Batuetan arazo publikoak zuzentzeaz arduratzen direnak sarri gaitasun eta moralitasunez kaskarragoak izaten dira aristokraziak agintera eramango lituzkeenak baino; baina haien interesa bat dator beren herrikideen gehiengoarenarekin. Egin ditzakete, beraz, infidelitasun ugariak eta hutsegite larriak, baina ez dute inoiz sistematikoki izango gehiengo horren aurkako joerarik; eta ezinezkoa da gobernuari halako jite eskusibo eta arriskutsu bat ezartzea.

Bestalde, magistratu baten administrazio txarra, demokrazian, egitate isolatu bat da, administrazio horren iraupen laburrean bakarrik eragiten duena. Ustelkeria eta gaitasunik eza ez dira pertsonak beren artean iraunkorki elkarlotu ditzaketen interes komunak.

Magistratu usteldu edo gaitasungabeak ez ditu bere ahaleginak beste magistratu batekin konbinatuko, azken hau ere bera bezalaxe ezgai eta usteldua delako arrazoiatatik bakarrik, eta bi hauek ez dute inoiz adostasunean lan egingo ustelkeria eta gaitasunik eza beren ondorengoen artean lorarazteko. Aitzitik, bataren gutizia eta azpikeriak bestea agerian uzteko balioko dute. Magistratuaren akatsak demokrazietan guztiz pertsonalak izaten dira orokorrean.

Baina pertsona publikoek, aristokraziaren gobernupean, klase-interes bat izaten dute, batzuetan gehiengoarenarekin bat etorri arren, sarri ezberdina izaten dena. Interes horrek lotura komun eta iraunkorra sortzen du beraien artean; beren ahaleginak batu eta konbinatzera gonbidatzen ditu, beti gehiengoaren zoriontasuna izaten ez den helburu baterantz. Ez ditu gobernariak bakarrik elkarrekin lotzen, baita hauek gobernatuen arteko multzo handi samar batekin ere; zeren eta hiritar asko, inolako kargurik ez badute ere, aristokraziaren parte baitira.

Beraz, magistratu aristokratikoak etengabeko laguntza aurkitzen du gizartean, gobernuan ere aurkitzen duen aldi berean.

Aristokrazietan, magistratuak bere garaikideetako batzuen interesarekin elkartzen dituen helburu komun honek identifikatu eta, nolabait esateko, geroko belaunaldien menpe ere jartzen ditu. Etorkizunerako lan egiten dute, orainaldirako beste. Hortaz, magistratu aristokratikoari aldi berean puntu bererantz bultza egiten diote gobernatuen grinek, bere grinek eta, ia esango nuke, bere ondorengoen grinek ere bai.

Zergatik harritu ez badu erresistentziarik jartzen? Horregatik ikusten da sarri aristokrazietan, klase-izpirituak usteltzen ez dituenak ere herrestatzen dituela, hauek oharkabea poliki-poliki beren erabilerarako moldatu eta beren ondorengoentzat prestatzen dutelarik gizartea.

Ez dakit inoiz izan den aristokraziarik Ingalaterrakoa bezain liberalik eta, etenaldirik gabe, herrialdeko gobernuari pertsona hain duin eta ilustraturik eman dionik.

Hala ere, erraz ikus daiteke legeria ingelesean behartsuaren ongia azkenean aberatsarenari sakrifikatu izan zaiola sarri, eta gehiengoaren eskubideak batzuen pribilegioei. Honela, gaur egungo Ingalaterrak bere baitan biltzen ditu zoriaren egoerarik muturrekoenak, eta han aurkitzen diren behar gorriak bertako botere eta aintzaren pareko dira ia.

Estatu Batuetan, non funtzionari publikoek ez duten nagusiarazi beharreko klase-interesik, gobernuaren martxa orokor eta iraunkorra ongilea da, nahiz eta gobernariak sarri gaitasungabeak izan, eta batzuetan mesprezagarriak.

Erakunde demokratikoen barrenean bada, beraz, joera ezkutu bat sarritan jendea, bere akats edo hutsegiteak gora-behera, oparotasun orokorra bultzatzera eramaten duena; erakunde aristokratikoetan, berriz, aurkitzen da batzuetan joera ezkutu bat, talentu eta bertuteak gora-behera, beren antzekoen ezbeharrak areagotzera bultzatzen dituen. Horrela, gerta liteke gobernu aristokratikoetan pertsona publikoek nahi gabe gaizkia egitea, eta demokrazietan ongia egitea horretarako asmorik izan gabe.

Izpiritu publikoa Estatu Batuetan

Instintuzko aberri-maitasuna.- Hausnarturiko abertzaletasuna.- Horien izaera ezberdinak.- Herriek beren indar guztiz bigarrenerantz jo behar dute lehena desagertzen denean.- Amerikarrek egin dituzten ahaleginak horretara iristeko.- Gizabanakoaren interesa herrialdearenarekin estu lotua.

Bada aberri-maitasun bat bere sorburua, giza bihotza norbera jaio deneko lekuarekin lotzen duen sentimendu hausnargabe, desinteresatu eta zehazgaitz horretan duena, batez ere. Instintuzko maitasun hau antzinako ekanduen zaletasunarekin nahasten da, arbasoenganako begirune eta iraganaren oroitzapenarekin; berau sentitzen dutenek gurasoen etxea maite izaten den bezala maitatzen dute herrialdea. Bertan duten lasaitasuna gustatzen zaie; bertan harturiko aztura baketsuei eusten diete; bertako oroigarriei atxikitzen zaizkie, eta nolabaiteko goxotasuna ere aurkitzen diote han obedientzia bizitzeari. Sarritan abertzaletasun hau erlijio-suak areagotzen du, eta gauza miragarriak egiten ditu orduan. Erlijio-mota bat da bera ere; ez du arrazoitzen, sinetsi egiten du, sentitu, jardun. Aurkitu dira herri batzuk, nolabait ere aberria pertsonifikatu egin dutenak, eta hori printzearengan ikusten dutenak. Hortaz, berarengana eraman dute abertzaletasunaren osagai diren sentimenduen parte bat; beraren arrakastez harrotu izan dira, eta beraren botereaz ere bai. Garai batean, antzinako monarkiaren menpean, frantsesek halako alaitasun bat sentitzen zuten erremediorik gabe monarkaren arbitrarotasunaren menpe zeudela sentitzean, eta harrotasunez esaten zuten: "Munduko erregerik ahaltsuenaren menpe bizi gara gu".

Grina hausnargabe guztiak bezalaxe, herrialdearen maitasun honek ahalegin iragankor handietara bultzatzen du, ahalegin iraunkorretara baino gehiago. Krisialdian Estatua onik atera ondoren, bake-garaian hondatzen uzten da sarri.

Herriak oraindik beren ohituretan sinpleak eta beren sinesmenean sendoak diren bitartean, gizartea gauzen antzinako ordenan, beronen legezkotasuna zalantzan jarri gabe, gozo-gozo oinarritzen denean, orduan izaten da nagusi instintuzko aberri-maitasun hau.

Bada beste bat hau baino arrazionalagoa; ez da hain eskuzabala, ezta hain sutsua ere, baina bai emankorrago eta iraunkorragoa; jakintzargietatik sortzen da; legeen laguntzaz garatzen da, eskubideen erabileraz hazten da eta azkenerako interes pertsonalarekin nahasten da, nolabait ere. Pertsona batek ulertzen du herrialdearen ongizateak zer-nolako eragina duen bere ongizatean; badaki ongizate hori sortzen laguntzeko aukera ematen diola legeak, eta bere herrialdearen oparotasunaz arduratzen da, lehenik beretzat onuragarri duelako eta gero bere egintza bezala.

Baina batzuetan herrien bizitzan iristen da momentu bat antzinako ekanduak aldatu egiten direnekoa, ohiturak suntsitu, sineskizunak desegin, oroitzapenen prestigioa desagertu, eta hala ere jakintzargiak osagabe gelditzen dira eta eskubide politikoak gaizki ziurtatuak edo murriztuak. Orduan, jendeak argitasun ahul eta zalantzatsuz bakarrik ikusten du aberria; ez dute jadanik zoruan kokatzen, beraientzat lur bizigabe bihurtu baita; ezta arbasoen usadioetan ere, uztarritzat hartzen ikasi baitute; ezta erlijioan ere, zalantzak dituzte eta; ezta legeetan ere, ez baitituzte berek egin; ezta legegilearengan ere, honen beldur izan eta gutxietsi egiten baitute. Ez dute, beraz, inon ikusten, ez berari dagozkion ezaugarriekin, ez beste batzuekin, eta berekoikeria estu eta



jakintzargirik gabekora erretiratzen dira. Pertsona horiek aurriritziei ihes egiten diete, arrazoiaren nagusitasuna errekonozitu gabe; ez dute ez monarkiaren instintuzko abertzaletasuna, ez errepublikaren abertzaletasun hausnartua, baizik eta bien artean gelditu dira, nahasmenaren eta ezbeharren erdian.

Zer egin horrelako egoera batean? Atzera egin. Baina herriak ez dira itzultzen gaztaroko sentimenduetara, pertsonak ere txikitako zaletasun inuzenteetara itzultzen ez diren bezalaxe; oroit daitezke etsipenez horietaz, baina ez berpiztarazi. Beraz, aurrera jarraitu behar da eta presaka ibili herriak bat eginda ikus ditzan banakoen interesa eta herrialdearen interesa, zeren eta abertzaletasun desinteresatua ihesi baitoa, itzulerarik gabe.

Nik ez dut inola ere esan nahi emaitza honetara iristeko bat-batean eskubide politikoen erabilera eman behar zaienik gizaki guztiei; baina esaten dut jendea bere aberriaren zoriaz ardurarazteko daukagun bide ahaltsuena, eta gelditzen zaigun bakarra agian, jendeari bere gobernuan parte harraraztea dela. Gaur egun hiritartasun-izpiritua eta eskubide politikoen egikaritzea banaezinak iruditzen zaizkit; eta pentsatzen dut aurrerantzean eskubide horien hedapenaren arabera gehitu edo gutxituko dela Europar hiritarren kopurua.

Nondik dator Estatu Batuetan, non biztanleak atzo iritsiak diren bizi direneko lurrera, usadiorik eta oroitzapenik ekarri gabe bertara; non lehen aldiz topo egiten duten elkarrekin aurrez ezagutu gabe; non, hitz batez esateko, ia ezin daitekeen aberri-senik egon; nondik dator guztiak beren udalerriko, kantonamenduko eta estatu osoko arazoez arduratzea beren arazoez bezalaxe? Kontua da bakoitzak, bere esparruan, aktiboki esku hartzen duela gizartearen gobernuan.

Estatu Batuetan herriko jendeak ulertu egin du oparotasun orokorrak norberaren zorionean duen eragina, ideia oso sinplea baina herriak oso gutxi ezagutzen duena. Gainera, ohitua dago oparotasun hori bere egintza bailitzan ikustera. Beraz, zori publikoan berea ere ikusten du, eta Estatuaren onerako lan egiten du, ez bere eginbeharra duelako edo harrotasunez bakarrik, baita gutiziagatik ere egiten duela esango nuke ia.

Ez dago amerikarren erakundeak eta historia aztertu beharrik aurreko hori egia dela jakiteko; ohiturek nahikoa argi uzten dute. Amerikarrak, bertan egiten den guztian esku hartzen duelarik, herrialdea kritika guztietatik defendatu beharra sentitzen du, ez baitzaio orduan herrialdeari bakarrik erasotzen, baita berari ere. Horrela ikusten da haren urguilu nazionala trikimailu guztiez baliatzen dela eta harropuzkeria indibidualaren umekeria guztietara jaisten dela.

Ohiko bizimoduan ezer ez dago gogaikarriagorik amerikarren abertzaletasun amorragarri hori baino. Atzerritarrak pozik onartuko luke herrialde hartako gauza asko goraiatzea, baina gauza batzuk kritikatzeko ere utz diezaioten nahiko luke, eta horixe da erabat ukatzen zaiona.

Hortaz, askatasunezko herrialdea da Amerika, non, inor ez mintzeko, atzerritarrak ez duen aske hitz egin behar ez partikularrez, ez estatuaz, ez gobernatuez, ez gobernariez, ez eginkizun publikoez, ezta pribatuez ere; azken finean, han aurkitzen den ezertaz ere ez, klimaz eta lurzoruz izan ezik. Hala ere, amerikar batzuk prest egoten dira azken hauetako bata nahiz bestea defendatzeko, hauen eraketan ere esku hartu izan balute bezala.

Gaur egun, jakin beharra dago baten edo bestearen alde jartzen eta ausartu beharra dago guztien abertzaletasunaren eta gutxiengoaren gobernuaren artean aukeratzen, ezinezkoa baita aldi berean eskuratzea lehenak ematen dituen gizarte-indar eta -jarduerak, eta bigarrenak batzuetan ematen dituen lasaitasun-garantiak.

Eskubideen ideia Estatu Batuetan

Ez dago herri handirik eskubideen ideiarik gabe.- Zein den eskubideen ideia herriari emateko bidea.- Eskubideekiko begirunea Estatu Batuetan.- Nondik sortzen den hori.

Bertutearen ideia orokorraren ondoren, ez dut besterik ezagutzen eskubideena baino ederragorik; edota, hobeto esanda, bi ideia horiek elkarrekin nahasten dira. Eskubideen ideia ez da bertutearen ideia politika-munduan sartuta baino.

Eskubideen ideiaz definitu du gizakiak zer ziren libertinajea eta tirania. Ideia horrek argiturik, bakoitza independente agertu ahal izan da harrokeriarik gabe, eta menperatuta apalkeriarik gabe. Gizakiak bortxakeriari obeditzen dionean bere burua makurtzen eta beheratzen du, baina hurkoari aitortzen dion agintzeko eskubidearen menpe jartzen denean, agintzen dionaren beraren gainetik jartzen da, nolabait ere. Ez dago pertsona handirik bertuterik gabe; eskubideekiko begirunerik gabe ez dago herri handirik; ia esan daiteke ez dagoela gizarterik ere, zeren eta, zer da bada izaki arrazional eta adimendunen elkarte bat, beren lotura bakarra indarra badute?

Neure buruari galdetzen diot zein ote den gaur egun gizakiei eskubideen ideia transmititzeko bidea, eta zentzuetatik sarraraztekoa, nolabait esateko; bat bakarra ikusten dut, alegia, guztiei ematea zenbait eskubideren erabilera baketsua. Ongi ikusten da hau haurren artean, gizakiak direlarik, baina indarririk eta eskarmenturik gabeak. Haurra kanpoko gauzen artean mugitzen hasten denean, eskura aurkitzen duen guztia erabiltzera bultzatzen du senak; ez du besteen jabetzaren ideiarik, ezta existentziarena ere; baina gauzen balioaz jabetu ahala eta berari ere ken diezazkioketela konturatu ahala, zentzudunago bihurtzen da eta berarengan errespetu dezaten nahi duena besteengan ere errespetatuz amaitzen du azkenean.

Haurrari bere jostailuekin gertatzen zaiona gertatzen zaio geroago pertsonari bere gauza guztiekin. Amerikan, demokraziaren herrialdean, zergatik ez zaio inori entzuten jabetzaren aurka oro har European sarri entzuten diren kexa horiek? Esan beharra al dago? Kontua da Amerikan ez dagoela proletariorik. Bakoitzak baduenez ondasun partikularren bat defendatzeko, printzipioz onartu egiten du jabetza-eskubidea.

Gauza bera gertatzen da politika-arloan. Amerikan, herriko jendeak eskubide politikoen ideia jasoa du, berak ere badituelako eskubide politikoak; ez die besteenei erasotzen, ez ditzaten berarenak urratu. Eta European pertsona horrek berorrek aginpide subiranoa ere onartzen ez duen bitartean, amerikarra murmuriorik gabe jartzen da bere magistratuetariko txikienaren agintepean.

Egia hau herrien bizitzako xehetasunik txikienetan ere agertzen da. Frantzia plazer gutxi dago gizarteko goi-klaseentzat bakarrik gordeta; aberatsa sar daitekeen lekurik gehientsuenetan onartzen dute behartsua ere. Beraz, honek eratasunez jokatzeko du eta konpartitzen dituen gozamenetarako balio duen guztia errespetatzen du. Ingalaterran, non aberastasunak baititu alaitasunaren pribilegioa nahiz boterearen monopolioa, behartsuak aberatsaren plazerretarako diren lekuetan ezkutuka sartzea lortzen duenean, kexatu egiten dira alferrikako hondamenak eragitea gustatzen omen zaiolako behartsuari. Zergatik harritzen dira? Ongi arduratu dira behartsuak zer galdurik izan ez dezan.

Demokraziaren gobernuak eskubide politikoen ideia hiritarrik txikienarenganaino iristarazten du, ondasun-banaketak jabetza-eskubidearen ideia oro har pertsona guztien irispidean jartzen duen bezalaxe. Nire iritziz, hori da beraren meriturik handienetako bat.

Ez dut esaten gauza erraza denik pertsona guztiei beren eskubide politikoez baliatzen irakastea; baizik eta diot, hori egingarri denean, ondorengo emaitzak handiak izaten direla.

Eta gaineratzen dut, menderen batean saiatu behar bada horrelako eginkizun bat, gure mendean saiatu behar dela.

Ez al duzue ikusten erlijioak ahultzen ari direla eta eskubideen jainkozko ideia desagertzen? Ez al zarete konturatzen ohiturak aldatuz doazela eta berauekin batera ezabatuz doala eskubideen ideia morala?

Ez al zarete ohartzen alde guztietan sineskizunen ordeztarazibideak nagusitzen direla, eta sentimenduen ordeztarazibideak? Hondamendi unibertsal honen erdian, ez baduzue lortzen eskubideen ideia interes pertsonalarekin lotzea, hauxe izanik giza bihotzean puntu mugigaitz bakarra, zer geldituko zaizue, bada, mundua gobernatzeko, beldurra baizik?

Esaten zaidanean legeak ahulak, gobernatuak asaldakorrak, grinak biziak eta bertutea botere gabea dela, eta egoera honetan ezin dela imajinatu demokraziaren eskubideak areagotzerik, erantzun ohi dut, nire ustez, gauza horiexengatik, hain zuzen, pentsatu behar dela horretan; eta, egia esateko, pentsatzen dut gobernuak interes gehiago dutela horretarako gizarteak baino, gobernuak desagertu egiten baitira, eta gizartea ezin da hil. Gainerantz, ez dut abusatu nahi Amerikako adibideaz.

Amerikan herriari eskubide politikoak eman zitzaizkion garaian nekez egin zezakeen horien erabilera txarra, hiritarrak gutxi baitziren eta ohitura xumeak baitzituzten. Haztean, amerikarrek ez dituzte, nolabait esateko, demokraziaren botereak gehitu, baizik eta beronen esparruak hedatu dituzte.

Ezin da zalantzan jarri aurrez izan ez dituen eskubide politikoak herri bati ematen zaizkion momentuan krisia sortzen dela, beharrezko krisia sarri, baina arriskutsua betiere.

Haurrak hil egiten du biziak zenbat balio duen ez dakienean; beste bati gauzak kentzen dizkio, berari ere ken diezazkioketela jakin arte. Herriko jendea, eskubide politikoak ematen zaizkion momentu berean, haurra natura osoaren aurrean bezalakoxe egoeran aurkitzen da bere eskubideei dagokienez, eta kasu horretantxe aplikatu dakioke esaldi ospetsu hau: *Homo puer robustus*.

Amerikan bertan aurkitzen da egia hau. Beren eskubideez gozatzen aspaldien hasitako hiritarrak dauzkaten estatuetan jakiten dute gainera eskubide horietaz ongien baliatzen ere.

Ez da inoiz gehiegi errepikatuko: aske izateko artea baino gauza emankorragorik ez dago miragarriak sortzeko; baina askatasunaren ikaskuntza baino gogorragorik ere ezer ez dago. Ez da gauza bera gertatzen despotismoarekin. Jasandako gaitz guztien sendagarri agertzen da despotismoa sarri; bidezko eskubidearen laguntzaile, zapalduen euskarri eta ordenaren oinarri. Herriak lokartu egiten dira despotismoak sortarazten duen momentuko oparotasunaren baitan, eta esnatzen direnean lazerian aurkitzen dira. Askatasuna, aitzitik, ekaitz artean sortzen da normalean, nekez ezartzen da gatazka zibilen artean eta zahartzen denean bakarrik ezagut daitezke beraren onurak.

Legearekiko begirunea Estatu Batuetan

Amerikarrek legearekiko duten begirunea.- Berorrekiko sentitzen duten guraso-gisako maitasuna.- Guztiek duten interes pertsonala legearen ahalmena gehitzeko.

Ezin zaio beti herri osoari dei egin, zuzenean edo zeharka, legea egitera; baina ezin da ukatu, hori egin daitekeenean, legeak aginpide handia hartzen duela. Jatorri herritar horrek, sarritan legeriaren ontasun eta jakinduriari kalte egiten badie ere, biziki areagotzen du berorren boterea.

Herri oso baten nahien adierazpenean indar ikaragarria dago. Argi eta garbi agertzen denean, beraren kontra borroka egin nahiko luketenen irudimena bera ere abailduta bezala gelditzen da.

Hau egia dela ongi asko dakite alderdiek.

Horregatik aritzen dira gehiengoa eztabaidatzen, ahal duten alde guztietan. Bozkatu dutenen artean falta zaienean, abstenitu direnen artean ezartzen dute, eta hor ere ihes egiten badie, bozkatzeko eskubiderik ez zutenen artean aurkitzen dute.

Estatu Batuetan, esklabu, morroi-neskame eta udalek mantenduriko behartsuak ezik, ez dago inor hautesle ez denik, eta beraz legea egiten zeharka esku hartzen ez duenik. Legeei eraso egin nahi dietenak, beraz, bi gauza hauetakoren bat nabarmen egitera mugaturik daude: nazioaren iritzia aldarazi behar dute ala beraren nahiak hankapean hartu.

Lehen arrazoi honi erantsi beste hau zuzenagoa eta ahaltsuagoa, alegia, Estatu Batuetan bakoitzak halako interes pertsonal bat aurkitzen duela guztiek legeari obeditzean, zeren eta gaur gehiengoaren parte ez dena bihar berorren barruan egongo baita agian; eta legegilearen borondateari orain dion begirune hori, berearentzat eskatzeko aukera izango baitu laster. Legea oso gogaikarria izan arren, Estatu Batuetako jendea eragozpenik gabe jartzen da berorren menpe, ez bakarrik gehiengoaren egintza delako, baita bere-berea duelako ere; kontratu baten ikuspegitik hartzen du, bera kontratu horretan alderdi bat delarik.

Estatu Batuetan ez da ikusten jendetza handi eta beti asalaturik, legea berezko etsaitzat daukalako, beldurrez eta susmo txarrez bakarrik begiratzen dion horretakorik. Aitzitik, ezinezkoa da ez ohartzea klase guztiek usteon handia dutela herrialdea arautzen duen legerian, guraso-gisako maitasuna sentitzen dutelarik berorrekiko.

Oker nabil "klase guztiek" esatean. Amerikan Europako botere-eskala alderantzikatua dagoelarik, Europan behartsuek duten egoeraren antzekoa dute han aberatsek; berauek dira sarritan legearekiko mesfidantza dutenak. Esan dut beste nonbait: gobernu demokratikoaren benetako abantaila ez da guztien interesak ziurtatzea, batzuetan esan nahi izan den bezala, baizik eta gehiengoarenak babestea bakarrik. Estatu Batuetan, non behartsuak gobernatzen duen, aberatsak beti dira beldur hark ez ote duen beraien kontra bere botereaz abusatuko.

Aberatsen izpirituaurren jarrera honek halako atsekabe sor bat eragin dezake, baina gizartea ez da bortizki asaldua gertatzen, zeren eta aberatsari bere konfiantza legegileari ematea eragozten dion arrazoi berberak eragozten baitio honen aginduek desafiatzea ere. Ez du legea egiten aberatsa delako, eta ez da legea hausten ausartzen bere aberastasunagatik. Nazio zibilizatuen artean, zer galdurik ez dutenak errebelatzen dira normalean. Honela, bada, nahiz eta beti ez izan errespetagarriak demokraziaren legeak, ia beti errespetatzen dituzte, zeren eta, oro har, legeak hausten dituztenek ezin baitituzte bete gabe utzi berek egindakoak eta beren probetxurako direnak, eta legea hausteko interesa izan lezaketen hiritarrak beren izaera eta jarrerak bultzatzen ditu legegilearen edozelako borondatearen menpe jartzera. Gainerantzean, herriak Amerikan ez dio legeari bere egintza delako bakarrik obeditzen, baita, ausaz kaltegarri gertatzen bazaio, alda dezakeelako ere; lehenik, berak bere buruari ezarri dion gaitz baten menpe bezala jartzen da haren menpe, eta ondoren gaitz iragankor baten menpe bezala.

Estatu Batuetako gorputz politikoaren zati guztietan dagoen jarduera; honek gizartean duen eragina

Zailagoa da Estatu Batuetan dagoen jarduera politikoa ulertzea bertan aurkitzen den askatasun edo berdintasuna ulertzea baino.- Legislatiboak etengabe asaldatzen dituen mugimendu handia albo-gertaera bat baino ez da, mugimendu unibertsal horren luzapena.- Bere arazoez bakarrik arduratzeko amerikarrak aurkitzen duen zailtasuna.- Asaldura politikoa gizarte zibilean zabaltzen da.- Amerikarren jarduera industrial, neurri batean kausa horrek eragina.- Demokraziaren gobernutik gizarteak ateratzen dituen zeharkako abantailak.

Herrialde aske batetik aske ez den beste batera igarotzean, aparteko ikuskizun bat gertatzen da harrigarri: han dena da jarduera eta mugimendu, hemen orok lasai eta mugigaitz dirudi. Batean hobekuntza eta aurrerapen-kontua baino ez da; bestean, esan liteke gizarteak, ondasun guztiak lortu ondoren, hauetaz gozatzeko atsedean hartzea baino ez duela nahi. Hala ere, zoriontsu izateko hainbesteko asaldura daukan gizarte normallean aberats eta oparoagoa izaten da, bere zoriaz hain asebetea dirudiena baino. Eta bata eta bestea aztertuz, nekez ulertzen da horietako lehenengoan nola sortzen den hainbeste behar berri egunero, bigarrenean hain gutxi sumatzen diren bitartean.

Oharpen hau forma monarkikoa gorde duten eta aristokrazia nagusi duten herrialde askeei aplikagarri bada, are gehiago errepublika demokratikoei. Hauetan, jadanik ez da herriaren zati bat gizartearen egoera hobetzeari ekiten diona; herri osoa arduratzen da horretaz. Kontua ez da klase baten beharrak eta erosotasunak asebetetzea bakarrik, klase guztienak aldi berean baizik.

Ez da ezinezkoa amerikarrek duten askatasun itzela ulertzea; beraien ikaragarritzko berdintasunaz ere jabetu daiteke, baina, lekuko izan gabe ulertu ezin dena, Estatu Batuetan dagoen jarduera politikoa da.

Amerikako zorua zapaldu orduko, nolabaiteko zarraparra baten erdian aurkituko zarete; arrabots nahasi bat entzuten da alde guztietan; mila ahots iristen dira aldi berean belarrira, eta bakoitzak gizarte-premia batzuen berri ematen du. Dena dago mugimenduan, zuen inguruan: hemen, auzo bateko jendea bildurik dago eliza eraiki behar den jakiteko; han, ordezkari bat aukeratzeko ari dira lanean; harago, kantonamenduko diputatuak presaka doaz hirira, zenbait hobekuntza lokal egin dadin gestioak egitera; beste toki batean, herriko laborariek soroetatik aldegin dute errepide edo eskola bat egiteko plana eztabaidatzeko. Hiritar batzuk, gobernuaren martxa gaitzesten dutela adierazteko helburu bakarraz batzartzen dira, eta aldi berean beste batzuk, gobernuan daudenak aberriaren guraso direla aldarrikatzeko biltzen dira. Halaber, beste zenbait, estatuko gaitzen jatorri nagusitzat hordikeria jotzen dutelarik, handikiro konprometitzen dira neurritasunaren etsenplu ematera<sup>182</sup>.

Legislatibo amerikarrak etengabe asaldatzen dituen mugimendu politiko handia, kanpotik ikusten den bakarra, albo-gertakari bat eta herriaren azken mailetan hasi eta ondoren poliki-poliki hiritar-klase guztiak bereganatzen dituen mugimendu unibertsal horren luzapen-moduko bat baino ez da. Ezin da gogotsuago lan egin zoriontsu izateko. Zaila da esaten zer leku hartzen duten politika-ardurek Estatu Batuetako pertsona baten bizitzan. Gizartearen gobernuan esku hartzea eta horretaz hitz egitea da gairik nagusia eta, nolabait esateko, amerikarrak ezagutzen duen plazer bakarra. Bizitzako azturarik txikienetan ere ohartzen da hau: emakumeak berak ere sarri joaten dira batzar publikoetara eta, hitzaldi politikoak entzunez, etxeko lanen nekeari ihes egiten diote. Berauentzat, neurri bateraino klubek ordeztzen dituzte ikuskizunak. Amerikarrak ez daki elkarriketan, eztabaidan baizik; ez du pentsatzen, mintzatzen baizik. Batzar bati bezala hitz egingo dizue beti; eta kasualitatez berotu egiten bada, "Jaunak" esango dio bere solaskide duenari.

Zenbait herrialdetan, jendeak halako higuin batez bakarrik onartzen ditu legeak ematen dizkion eskubide politikoak; interes komunez arduraraztean denbora kentzen diotela iruditzen zaio, eta bere burua berekoikeria estuan ixtea gustatzen zaio, lau zangak eta hesiak osaturiko muga zehatzen barnean.

Aitzitik, amerikarra bere arazoez bakarrik arduratzera mugatuko balute, biziaren erdia kenduko liokete; egundoko hutsunea sentituko luke bere egunetan, eta ikaragarri zoritxarreko izango litzateke<sup>183</sup>.

Komentziturik nago egunen batean despotismoa Amerikan ezartzera iristen bada, zailtasun handiagoa izango duela askatasunak sortarazitako azturak menperatzen, askatasunaren maitasuna bera gainditzen baino.

Etengabe birsortzen den asaldura hau, demokraziaren gobernuak politika-munduan sartu duena, gizarte zibilera pasatzen da ondoren. Azken finean, ez dakit ez ote den horixe gobernu demokratikoaren abantailarik handiena, eta gehiago goraipatzen dut eragiten duenagatik berak egiten duenagatik baino.

Ukaezina da sarritan herriak oso gaizki zuzentzen dituela arazo publikoak; baina herriak ezin du arazo publikoetan esku hartu bere ideien esparrua hedatu gabe eta bere izpiritua ohiko errutinatik atera gabe. Gizartearen gobernura deitua den herriko jendeak bere buruaren halako estima bat zertzen du. Orduan autoritate bat denez, oso adimen ilustratuak jartzen dira harenaren zerbitzura. Etengabe jotzen dute berarengana laguntza eske eta, mila era ezberdinetan engainatu nahi izatean, ilustratu egiten dute. Politikan, berak asmatu gabeko eginkizunetan esku hartzen du, baina eginkizunetarako zaletasun orokorra sortzen diote. Jabego komunari egin beharreko hobekuntza berriak adierazten zaizkio egunero; eta pertsonalki berea duena hobetu nahia sortzen sentitzen du. Ez da agian ez bertutetsuagoa, ez zoriontsuagoa, baina bai bere aurrekoak baino ilustratuago eta aktiboagoa. Ez dut zalantzan jartzen erakunde demokratikoak, herrialdearen izaera fisikoarekin batera, Estatu Batuetan ikusten den industri mugimendu harrigarriaren kausa direla, ez zuzeneko kausa, hainbestek dioen bezala, zeharkakoa baizik. Ez dira legeak hori sortarazten dutenak, baizik eta legea egitean herria da hori sortzen ikasten duena.

Demokraziaren etsaiek esaten dutenean guztien gobernuak baino bakar batenak hobeto betetzen duela bere ardura, arrazoi dutela iruditzen zait. Bakar baten gobernuak, bi aldeetan jakintzargiak berdin daudela suposatuz, jendetza handiak baino jarraipen handiagoa izaten du bere eginkizunetan; iraunkortasun handiagoa agertzen du, osotasunaren ideia beteagoa, xehetasunetan perfekzio handiagoa, jendea aukeratzerakoan bereizmen zuzenagoa. Gauza hauek ukatzen dituztenek sekula ez dute ikusi errepublika demokratikorik, edota kasu gutxi batzuen gain epaitu dute. Demokraziak, tokiko zirkunstantziek eta herriaren erabakiek irauteko aukera eman arren, ez du izaten gobernuaren erregulartasun administratiboaren eta ordena metodikoaren ikuspegirik; hau egia da. Askatasun demokratikoak ez du bere eginkizunetako bakoitza despotismo adimentsuaren perfekzio berberaz burutzen; sarri askotan, bertan behera uzten ditu berorien emaitza jaso baino lehen, edo arriskutsu diren batzuetan murgiltzen da. Baina luzarora emankorragoa da; gauza bakoitza ez du hain ongi egiten, baina gauza gehiago egiten du. Beraren agintepean, azpimarragarria ez da, batez ere, administrazio publikoak gauzatzen duena izaten, baizik eta bera gabe edo beragandik kanpo gauzatzen dena. Beraz, demokraziak ez dio herriari gobernurik trebeena ematen, baina gobernurik trebeenak sarri sortu ezin duena egiten du berak; gizarte-gorputz osoan jarduera geldigaitza hedarazten du, indar lar-ugaria, bera gabe sekula ez dagoen kemena eta, zirkunstantziak aldeko samar izanez gero, mirariak sortaraz ditzakeena. Horiek dira beraren benetako abantailak.

Mende honetan, kristaudiaren destinoek zintzilika diruditelarik, batzuek bizkor erasotzen diote demokraziari, botere etsai balitz bezala, oraindik ere haziz doan bitartean; besteek, jada ezerezetik sorturiko jainko berri bat gurtzen dute berarengan; baina batzuek nahiz besteek ez dute bete-betean ezagutzen gorrotatu edo desiratzen dutena. Ilunpetan borrokatzen dira eta itsumustuan ematen kolpeak.

Zer eskatzen diozue gizarteari eta beraren gobernuari? Ea garbi uzten dugun.

Giza izpirituari halako handitasun bat eman nahi al diozue, mundu honetako gauzei aurre egiteko era eskuzabal bat? Gizakiengan ondasun materialekiko gutxiespena

ernearazi nahi al duzue? Ala uste sendoak sortarazi edo mantendu eta sakrifizio handiak prestatzea gura duzue?

Ohiturak bikaintzea, manerak goratzea eta arteak distiraraztea axola al zaizue? Olerkia, ospea, aintza nahi al dituzue?

Zuen asmoa herri bat antolatzea al da, gainerako guztien gain biziki eragingo duena? Eginkizun handietan sar dadin nahi al duzue, eta, bere ahaleginen emaitza nolanahikoa izanik ere, historian arrasto ikaragarria utz dezala?

Hori bada, zuen ustez, jendeak gizartean izan behar duen helburu nagusia, ez aukeratu demokraziaren gobernua; ziur aski ez zintuzkete zeuen helmugara eramango.

Baina gizakiaren jardura intelektual eta morala bizitza materialeko beharretara bideratzeari eta ongizatea sortzen erabiltzeari egoki baderitzozue; jendearentzat arrazoimena jeinua baino onuragarriagoa iruditzen bazaizue; zuen helburua ez bada bertute heroikoak sortaraztea, aztura baketsuak baizik; gogokoago baduzue bizioak ikustea krimenak baino, eta nahiago izanez gero ekintza handi gutxiago aurkitzea, delituak ere gutxiago izatekotan; gizarte distiratsu baten baitan jardun ordez, gizarte oparo baten erdian bizitzea aski baduzue; azkenik, zuen ustez, gobernuaren helburu nagusia ez baldin bada nazioko gorputz osoari ahalik eta indarririk edo aintzarik handiena ematea, baizik eta gizartea osatzen duen bakoitzari ahalik eta ongizaterik handiena eman eta ahalik eta atsekaberik gehien ekiditea; orduan, berdindu baldintzak eta eratu demokraziaren gobernua.

Dagoeneko ez badago aukera egiteko astirik, eta gizakiaren gainetik dagoen indarren batek, zer nahi duzuen galdetu gabe, bi gobernuetako baterantz herrestatzen bazaituzte, saia zaitezte behintzat egin dezakeen on guztia ateratzen; eta beraren sen onak ezagutuz, baita joera txarrak ere, saia zaitezte bigarrenen efektua murrizten eta lehenengoak garatzen.

## VII

### *Gehiengoaren ahalguztiduntasuna Estatu Batuetan eta horren ondorioak*

Gehiengoaren berezko indarra demokrazietan.- Konstituzio amerikar gehienek artifizialki gehitu dute berezko indar hau.- Nola.- Aginte inperatiboak.- Gehiengoaren aginte morala.- Beraren hutsezintasunari buruzko iritzia.- Beraren eskubideekiko begirunea.- Hau zerk areagotzen duen Estatu Batuetan.

Gobernu demokratikoen funtsari dagokio gehiengoaren agintea absolutua izatea, zeren eta demokrazietan, gehiengoaz kanpo, ez baitago ezer kontra egingo dionik.

Hala ere, gehiengoaren berezko indar hori artifizialki gehitzen saiatu dira konstituzio amerikar gehienak<sup>184</sup>.

Botere politiko guztien artean, legislatiboa da gehiengoari gogotsuen obeditzen diona. Legislatiboko kideak herriak *zuzenean* izendatzea nahi izan dute amerikarrek, eta denboraldi *oso laburrerako*, horrela behartzeko ez bakarrik ikuspegi orokorren menpe egotera, baita ordezkatuaren eguneroko grinen menpe egotera ere.

Klase beretsuetatik hartu eta era berean izendatu dituzte bi Ganbaretako kideak; horrela, gorputz legegilearen mugimenduak batzar bakar batenak bezain bizkorrak eta geldiezinak dira ia.

Honela eraturik legislatiboa, beraren baitan bildu dute ia gobernu osoa.

Legeak, berez indartsu ziren botereen indarra areagotzen zuen aldi berean, gero eta gehiago ahultzen zituen berez ahulak zirenak. Botere exekutiboaren ordezkariak ez zien ez egonkortasunik, ez independentziarik ematen; eta, legislatiboaren kapritxoetara guztiz makurraraztean, gobernu demokratikoaren izaerak egikaritzen utziko ziekeen eragin urria kentzen zien.

Hainbat estatutan, botere judiziala gehiengoaren aukerapean uzten zuen, eta guztietan, botere horren existentzia nolabait ere botere legegilearen menpe jartzen zuen, ordezkariei ematen baitzien epaileen soldatak urtero finkatzeko eskubidea.

Usadioak legeak baino ere urrutirago joan dira.

Estatu Batuetan gero eta gehiago ari da hedatzen, ordezkapenezko gobernuaren garantiak azkenean alferrikako bihurtuko dituen ekandua bat: oso sarri gertatzen da hautesleek, diputatu bat izendatzean, jokaera-plan bat trazatu eta zenbait betebeharrak positibo ezartzen diotela, hauetatik ezingo delarik inola ere aldentu. Iskanbila salbu, gehiengoak berak plaza publikoan deliberatuko balu bezalaxe da.

Halaber, zenbait zirkunstantzia berezik gehiengoaren boterea, nagusi ezezik, jarkigaitz ere bihurtzen dute Amerikan.

Gehiengoaren aginte moralak ideia honetan oinarritzen da neurri batean: jakintzargi eta jakinduria gehiago dagoela bildutako pertsona askoren artean bakar batengan baino; legegileen kopuruan gehiago, aukeratu ahal izatean baino. Berdintasunaren teoria da adimenei aplikatua. Doktrina honek gizakiaren harrotasunari erasotzen dio bere azken babeslekuan: horregatik nekez onartzen du gutxiengoak; luzarora bakarrik ohitzen da horretara. Botere guztiek bezala, eta besteek baino gehiago agian, gehiengoaren botereak iraun beharra dauka legeko dela emateko. Ezartzen hasten denean, bortxaz ezartzen du bereganako obediencia; beraren legepean luzaroan bizi izan ondoren bakarrik sortzen da begirunea.

Gehiengoak, bere jakintzargiengatik, gizartearen gobernatzeko duen eskubidearen ideia Estatu Batuetako lurraldera bertako lehen biztanleek eraman zuten. Ideia hau, bera bakarrik herri aske bat sortzeko nahikoa litzatekeena, ohituretan sartua dago gaur egun, eta bizitzako azturarik txikienetan ere aurkitzen da.

Antzinako monarkiaren garaian, frantsesek arautzat zeukaten erregeak sekula ezin zuela huts egin; eta zerbait gaizki egitea gertatzen bazen, errua beraren kontseilariena zela pentsatzen zuten. Honek ikaragarri errazten zuen obediencia. Jardun zitekeen marmar legearen aurka, legegileari maitasun eta begirunea izateari utzi gabe. Amerikarrek iritzi bera dute gehiengoaz.

Gehiengoaren aginte moralak beste printzipio honetan ere oinarritzen da: gehiengoaren interesak gutxiengoarenak baino lehen jarri behar direla. Nolanahi ere, erraz ulertzen da kopuru handiagoaren eskubidearekiko dagoen begirunea berez gehitzen edo gutxitzen dela, alderdien egoeraren arabera. Nazio bat hainbat interes elkartezin handiren artean banaturik dagoenean, gehiengoaren pribilegioa ez da errespetatzen sarri, neketsuegia gertatzen baita berorren menpe jartzea.

Amerikan egongo balitz hiritar-mota bat, mendeetan zehar edukiriko zenbait abantaila eskusibotatik legegileak gabetu nahi lukeena eta gehiengoaren artera eramateko goimailatik jaitzarazi nahi lukeena, baliteke gutxiengoak erraz ez makurtzea berorren legeetara.

Baina Estatu Batuak elkarren artean mailakide zirenek jendeztatu zituztenez, ez dago oraindik desadostasun berezko eta iraunkorrik hango biztanle ezberdinen interesen artean.

Bada gizarte-egoera bat, zeinetan gutxiengoak osatzen dutenek ez dezaketen espero izan gehiengoak erakartzerik, zeren eta honetarako gehiengoaren kontra daramaten borrokaren muina bera baztertu beharko bailukete. Aristokrazia bat, adibidez, ezingo litzateke gehiengo bihurtu bere pribilegio eskusiboak gordez, eta ezingo litzuke bere pribilegioak galdu aristokrazia izateari utzi gabe.

Estatu Batuetan arazo politikoak ezin dira planteatu hain era orokor eta absolutuan, eta alderdi guztiak daude prest gehiengoaren eskubideak onartzeko, guztiek espero baitute egunen batean horiek beren probetxurako erabiltzea.



Estatu Batuetan, beraz, egitate-ahalmen itzela du gehiengoak eta iritzi-ahalmena ere aurrekoa bezain handia ia; eta behin gai bati buruz erabaki ondoren, ez dago, nolabait esateko, eragozpenik, ez dut esango geldiaraziko duenik, baina ezta beraren martxa atzeratuko duenik eta pasatzerakoan zapaltzen dituenen kexak entzuteko astia utziko dionik ere.

Egoera honen ondorioak oso kaltegarriak eta arriskutsuak dira etorkizunerako.

Gehiengoaren ahalguztiduntasunak nola areagotzen duen Amerikan legegintzako eta administrazioeko ezegonkortasuna, demokrazietan berezkoa dena

Amerikarrek, legeilea urtero aldatu eta botere ia mugagabeaz hornitzean, nola areagotzen duten legegintzako ezegonkortasuna, demokrazian berezkoa dena.- Ondorio berbera sortzen dute administrazioan.- Amerikan gizarte-hobekuntzei Europan baino askoz ere indar handiagoa ematen zaie, baina ez hain etengabea.

Aurrez hitz egin dut demokraziaren gobernuari berezko zaizkion akatsei buruz; ez dago bat bakarra ere gehiengoaren boterearekin batera hazten ez denik.

Eta guztien arteko nabarienarekin hasiko naiz:

Legiegintzako ezegonkortasuna gobernu demokratikoari atxikiriko gaitza da, demokrazien izaerari baitagokio pertsona berriak agintera eramatea. Baina gaitz hau handiagoa edo txikiagoa izaten da, legeileari ematen zaizkion ahalmen eta ekintza-bideen arabera.

Amerikan legeak egiten dituen agintaritzari botere subiranoa ematen zaio. Bizkor eta inork kontra ez egiteko moduan ekin diezaioke bere desira guztiak betetzeari, eta urtero beste ordezkari batzuk ematen zaizkio. Alegia, ezegonkortasun demokratikoa gehien bultzatzen duen konbinazioa onartu da, demokraziari bere borondate aldakorra gauzarik garrantzizkoenetara aplikatzeko aukera ematen diona.

Horregatik, Amerika da gaur egun munduan legeek iraupenik laburrena duten herrialdea. Azken hogeita hamar urteotan konstituzio amerikar gehientsuenek izan dituzte zuzenketak. Ez dago, beraz, estatu amerikarrik denboraldi horretan bere legeen printzipioa aldatu ez duenik.

Legeei berei dagokienez, Batasuneko estatu ezberdinetako artxiboetan begiratu bat egitea aski da Amerikan legeilearen ekintza sekula ez dela geldirotsen komentzi gaitzen. Kontua ez da demokrazia amerikarra bere izaeraz beste edozein baino ezegonkorragoa izatea, baizik eta haren joerek berez duten ezegonkortasunari jarraitzeko bidea eman zaiola legeen eraketan<sup>185</sup>.

Estatu Batuetan, gehiengoaren ahalguztiduntasunak eta beraren nahiak betetzeko dagoen era bizkor eta absolutuak legea ezegonkor bihurtu ezezik, eragin berbera zertzen dute legea betearazterakoan eta administrazio publikoaren ekintzan ere.

Gehiengoak izanik pozik edukitzea garrantzizkoa den botere bakarra, sugartsu esku hartzen da berak abiarazitako egintzetan; baina beraren arreta beste leku batera aldatzen den momentuan, bertan behera gelditzen dira ahalegin guztiak; Europako estatu askeetan, non botere administratiboak izate independentea eta egoera ziurtatua dituen, legeilearen nahia betetzen jarraitzen da, nahiz eta hau beste gai batzuek arduratu.

Amerikan, zenbait hobekuntzataraz askoz gogo-berotasun eta ahalegin handiagoa bideratzen da beste alde batzuetan baino.

Europan, gauza horietan berorietan askoz ere gizarte-indar txikiagoa erabiltzen da, baina jarraituagoa.

Duela zenbait urte, pertsona erlijioso batzuek presondegietakako egoera hobetzeari ekin zioten. Publikoa hunkitu egin zen haiei entzutean, eta kriminalen errehabilitazioa egintza herrikoi bihurtu zen.

Presondegi berriak eraiki ziren orduan. Lehen aldiz, erruduna eraberritzeko ideia zigorraren ideiarekin batera sartu zen ziegara. Baina zorioneko iraultza hura, publikoak

hain sugartsu bereganatua eta hiritarren ahalegin bateratuek geldiezinezko bihurtzen zutena, ezin zitekeen une batean gauzatu.

Presondegia berrien ondoan, zeinen garapena bizkortu egiten baitzuen gehiengoaren nahiak, presondegia zaharrek ere iraun egiten zuten, eta errudun-kopuru handia zegoen beraietan itxita. Hauek gero eta osasungaitz eta ustelgarriagoak ziruditen, berriak eraberritzaile eta osasungarriago bihurtu ahala. Erraz ulertzen da ondorio bikoitz hau: gehiengoak, establezimendu berria sortzeko ideiaz arduratuta, ahaztu egin zuen lehendik zegoena. Hala, nagusiaren begirada erakartzen ez zuen gauzari so egiteari utzi egin ziolarik mundu guztiak, begiraletza amaitu egin zen. Lehenik lasaitu egin ziren eta gero, oso laster, eten egin ziren diziplinaren lokarri osasuntsuak. Eta presondegiaren -gure garaiko gozotasun eta jakintzargien oroigarri iraunkorraren- ondoan, Erdi Aroko ankerkeria gogorarazten zuen ziega zegoen.

Gehiengoaren tirania

Nola ulertu behar den herriaren subiranotasunaren printzipioa.- Gobernu mistoa zertzeko ezintasuna.- Beharrezkoa da botere subiranoa nonbait egotea.- Beraren ekintza moderatzeko hartu beharreko neurriak.- Neurri hauek ez dira Estatu Batuetan hartu.- Horren ondorioa.

Anker eta nardagarritzat daukat, gobernu-gaietan herri bateko gehiengoak edozer egiteko eskubidea duela dioen maxima hori; eta hala ere, gehiengoaren borondatean ezartzen dut nik botere guztien jatorria. Kontraesanean ote nago neure buruarekin?

Bada lege orokor bat, ez herri bateko edo besteko gehiengoak bakarrik, baizik eta gizaki guztien arteko gehienek egina, edo gutxienez berenganatua dutena. Lege hau justizia da. Justiziak eratzen du, beraz, herri bakoitzaren eskubidearen muga.

Nazio bat, gizarte unibertsala ordezkatu eta bere lege duen justizia aplikatzeko ardura duen epaimahai bat bezala da. Epaimahaiak, gizarte ordezkatzeko duelarik, gizarteak berak baino ere botere handiagoa izan behar ote du, beronen legeak aplikatzen baditu ere?

Hortaz, lege bidegabe bati obeditzeari uko egiten diodanean, ez diot gehiengoari agintzeko eskubidea ukatzen; herriaren subiranotasunetik gizadiaren subiranotasunera jotzen dut bakarrik.

Bada jendea beldur gabe esan duena herria, berari bakarrik interesatzen zaizkion gaietan, ezin dela erabat irten justiziaren eta arrazoimenaren mugetatik, eta, beraz, ez dagoela zertan beldur izan botere osoa herri horren ordezkari den gehiengoari emateko. Baina esklabu-hizkera da hau.

Gehiengoak, kolektiboki hartuta, zer da, bada, bere iritzia eta, sarri, gutxiengo deritzan banako baten kontrako interesak dituen beste banako bat baino? Nolanahi ere, ahalguztiz hornituriko pertsona batek bere etsaien aurka abusatu egin dezakeela onartzen baduzue, zergatik ez onartu gauza bera gehiengoari buruz? Pertsonak, elkartzean, izaeraz aldatzen ote dira? Oztipoen aurrean eramankorrango bilakatzen ote indartsuago bihurtzean<sup>186</sup>? Nik, behintzat, ez dut sinesten; eta dena egiteko ahalmena, nire hurkoetako bakarrari ukatzen diodana, sekula ez diet hainbati emango.

Ez dut uste, askatasuna gordetzeko, zenbait printzipio gobernu bat berean nahas daitekeenik, benetan elkarren kontra jartzeko moduan.

Mistoa deritzan gobernu kimera bat iruditu izan zait beti. Egia esateko, ez dago gobernu mistorik (hitz honi ematen zaion zentzuan), zeren eta, azkenerako, gizarte bakoitzean aurkitzen baita ekintza-printzipio bat beste guztien gain dagoena.

Joan zen mendeko Ingalaterra, honelako gobernuen adibide gisa bereziki aipatu izan dena, estatu aristokratikoa zen funtsean, nahiz eta demokrazi elementu handiak aurkitu beraren baitan, zeren eta, bertan legeak eta ohiturak ezarrita zeuden moduan,

aristokraziak luzarora beti nagusi izan behar baitzuen eta arazo publikoak bere nahierara zuzendu.

Hutsegitea, handien interesak herriarenekin etengabeko lehian ikusiz, borrokan bakarrik pentsatzetik etorri zen, borroka horren emaitzari arreta jarri ordez, benetan hau izanik garrantzizko puntua. Gizarte bat benetan gobernu mistoa edukitzera iristen denean, kontrako printzipioen artean berdin banatua alegia, iraultzan murgiltzen da edo desegin egiten da.

Pentsatzen dut beti ezarri behar dela nonbait gizarte-botere bat, gainerako guztien gainetikoa, baina askatasuna arriskuan dagoela uste dut botere horrek ez badu bere aurrean inolako eragozpenik aurkitzen, bere martxari eutsi eta bere burua moderatzeko astia eman diezaiokeenik.

Ahalguztiduntasuna gauza txar eta arriskutsua iruditzen zait berez. Berorren erabilera gizakiaren indarren gainetik dagoela iruditzen zait, nornahi izanik ere pertsona hori, eta arriskurik gabe ahalguztidun izan daitekeen bakarra Jainkoa dela iruditzen zait, jakinduria eta justizia bere ahalaren pareko baititu beti. Ez dago, beraz, lur gainean aginterik, berez hain errespetagarri edo hain eskubide sakratuz hornitua izanik, kontrolgabe jarduten eta oztoporik gabe nagusi bihurtzen utzi nahiko niokeenik. Hortaz, edozein botereri -berdin zait herria edo erregea, demokrazia edo aristokrazia deitzea, berdin monarkia nahiz errepublika batean erabiltzea- edozer egiteko eskubidea eta ahalmena ematen zaiola ikusten dudanean, esaten dut: tiraniaren hazia dago hor, eta beste lege batzuen menpe bizitzera joaten saiatzen naiz.

Gobernu demokratikoari, Estatu Batuetan antolatua dagoen bezala, gehien aurpegiratzen diodana ez da, Europan jende askok nahi duen bezala, bere ahulezia, baizik eta bere indar jarkigaitza. Eta Amerikan higuigarriena iruditzen zaidana ez da han dagoen erabateko askatasuna, tiraniaren aurkako garantia urria baizik.

Estatu Batuetan pertsona nahiz alderdi batek bidegabekeriaren bat jasaten duenean, hark norengana jotzea nahi duzue? Iritzi publikoagana? Berau da gehiengoaren eratzeko duena. Gorputz legegileagana? Gehiengoaren ordezkari da eta itsu-itsuan obeditzen dio. Botere exekutiboagana? Gehiengoak izendatzen du eta tresna pasibo bezala erabiltzen. Indar publikoagana? Indar publikoa ez da gehiengoaren armatuta baizik. Epaimahaiagana? Epaimahaiak, gehiengoaren epaiak emateko eskubideaz hornitua da. Epaileak ere, zenbait estatutan, gehiengoak aukeratzen ditu. Oso bidegabe edo zentzugabea izan arren kalte egiten dizuen neurria, beronetara makurtu beharra duzue, beraz.

Imajina dezagun, aitzitik, gorputz legegile bat, gehiengoaren ordezkari, bai, baina derrigorrez berorren grinen esklabu izan gabe osatua; botere exekutibo bat, bere indar propioa duena, eta botere judizial bat, beste bi botereekiko independentea; horrela ere gobernu demokratikoa duzue, baina tiraniarako ia batere aukerarik gabea.

Nik ez dut esaten gaur egun Amerikan tirania sarri erabiltzen denik; diodana da ez dagoela berorren aurka batere bermerik, eta gobernuaren ezintasunaren kausak zirkunstantzietan eta ohituretan aurkitu behar direla han, legeetan baino gehiago.

Gehiengoaren ahalguztiduntasunaren ondorioak funtzionari publiko amerikarren arbitrariotasunean

Lege amerikarrak funtzionarioei utzi dien askatasuna, ezarri dien esparruaren barruan.- Berauen boterea.

Ongi bereizi beharra dago arbitrariotasuna tiraniatik. Tirania legearen beraren bidez zertu daiteke eta orduan ez da arbitrarioa; arbitrariotasuna gobernatuen intereserako zertu daiteke, eta orduan ez da tiranikoa.

Tirania arbitrariotasunaz baliatzen da normalean, baina behar izanez gero hori gabe irauten du.

Estatu Batuetan gehiengoaren ahalguztiduntasunak, legegilearen lege-despotismoa errazten duen aldi berean, magistratuaren arbitrariotasuna ere errazten du. Gehiengoak, legea egiteko eta honen betearaztea zaintzeko jaun eta jabe izanik, eta gobernari nahiz gobernatuen gain kontrol berdina duenez, funtzionari publikoak bere agente pasibotzat hartzen ditu eta gogo onez uzten du hauen gain bere egitasmoak betetzeko ardura. Beraz, ez da aurrez sartzen funtzionari horien eginbeharren xehetasunetan eta nekez hasten da horien eskubideak zehazten ere. Ugazabak bere zerbitzariak bezala erabiltzen ditu, beti bere aurrean jardunean ikusi eta horien jokabidea une oroz bideratu edo zuzendu ahal izango balu bezala.

Oro har, legeak, berak ezarritako esparruaren barruan, askeago uzten ditu funtzionari amerikarrak gure funtzionariak baino. Batzuetan gertatzen da gehiengoak utzi egiten diela esparru horretatik irteten. Gehiengoaren iritziaz bermaturik eta beraren laguntzaz indarturik, arbitrariotasuna ikusten ohitua dagoen europarra ere harritu egiten duten gauzak egitera ausartzen dira. Honela, askatasunaren baitan aztura batzuk sortzen dira, egunen batean oso kaltegarri gerta lekizkiokeenak.

Amerikan gehiengoak pentsamenduaren gain zertzen duen boterea

Estatu Batuetan, gehiengoak gai bati buruzko erabaki errebokaezina hartu duenean, ez da gehiago eztabaidatzen.- Zergatik.- Gehiengoak pentsamenduaren gain zertzen duen botere morala.- Errepublikak demokratikoek inmaterializatu egiten dute despotismoa.

Estatu Batuetan pentsamenduaren egikaritzea zer-nolakoa den aztertzeari ekiten zaionean, orduan ikusten da garbi asko han gehiengoaren botereak zenbateraino gainditzen dituen European ezagutzen ditugun botere guztiak.

Pentsamendua botere ikustezin eta ia ukiezina da, tirania guztiei barre egiten diena. Gaur egun, Europako subiranorik absolutuenek ezin dute eragotzi beren aginpidearen aurkako zenbait pentsaera isil-gordeka ibil dadin beren estatuetan, ezta beren gorte barruan ere. Ez da gauza bera gertatzen Amerikan. Gehiengoak koloka dagoen bitartean, hitz egiten da; baina bere erabaki errebokaezina ematen duen momentuan, guztiak isiltzen dira, eta orduan badirudi adiskide nahiz etsaiak bat eginik atxikitzen zaizkiola gurdi horri. Zergatia ulertteraza da: ez dago monarka hain absoluturik gizarteko indar guztiak bere esku bildu eta kontrako jarrerak gaindi ditzakeenik, legeak egiteko eta betearazteko eskubideaz horniturik dagoen gehiengoak egin lezakeen bezala.

Bestalde, erregeak botere materiala bakarrik du, ekintzetan eragiten duena, baina borondateetara iritsi ezin dena; gehiengoak, ordea, indar material eta aldi berean morala du, ekintzetan bezainbat borondatearen gain eragiten duena, eta aldi berean egitea eta egiteko nahia eragozten dituen.

Ez dut ezagutzen herrialderik, oro har, izpiritu-independentzia gutxiago eta eztabaidarako benetako askatasun gutxiago duenik Amerikak baino.

Ez dago teoria erlijioso edo politikorik Europako estatu konstituzionaletan askatasunez predikatu ezin denik eta besteetan sartzen ez denik; zeren eta ez baitago European herrialderik, botere bakar baten hain menpe dagoenik, egia esan nahi duenak bere independentziaren ondorioetatik babestuko duen laguntza ezin aurkitu izateko modukorik. Gobernu absolutu baten menpe bizitzeko zoritxarra baldin badu, sarri bere alde izaten du herria; herrialde aske batean bizi bada, errege-agintearen atzean babes daiteke, behar izanez gero. Gizarteko zati aristokratikoak lagunduko du eskualde demokratikoetan, eta demokraziak besteetan. Baina Estatu Batuetakoa bezalako demokrazia antolatua baten, botere bakarra aurkitzen da, indar- eta arrakasta-elementu bakarra, eta ezer ez hortik kanpo.

Amerikan gehiengoak ikaragarritzko esparrua mugatzen du pentsamenduaren inguruan. Muga horien barruan, idazlea aske da; baina zoritxarrekoa hortik irteten ausartzen bada! Ez du autofedeen beldur izan beharrik, baina edozelako atsekabe eta etengabeko

pertsekuzioei egin beharko die aurre. Itxirik du karrera politikoa, iraindu egin baitu ireki ziezaiokeen botere bakarra. Dena ukatzen zaio, aintza ere bai. Bere iritzia argitara eman aurretik, aldekoak bazituela uste zuen; orain guztien aurrean biluztu denean, jadanik ez dituela iruditzen zaio, zeren eta erruduntzat jotzen dutenak ozen mintzatzen baitira, eta, beraren adorerik izan gabe, berak bezala pentsatzen dutenak isildu eta urrundu egiten baitira. Amore ematen du, azkenerako eguneroko ahaleginaren zamapean makurtu eta isiltasunean murgiltzen da, egia esan izanaren bihotz-zimikoa balu bezala.

Kateak eta borrarroak, horiek ziren aspaldi tiraniak erabiltzen zituen tresna zabarrak; baina gaur egun zibilizazioak despotismoa bera ere zibilizatu egin du, jada zer ikasirik ez zuela ematen zuen arren.

Printzeek bortxa materializatua egin zuten, nolabait esateko; gaur egungo errepublika demokratikoek, menperatu nahi duten giza borondatea bezain intelektual bihurtu dute bortxa hori. Bakar baten gobernu absolutuaren menpean, despotismoak, arimara iristeko, gorputza zigortzen zuen zabarki; eta arima, kolpe horiei ihesi, haren gain goratzen zen aintzatsu; baina errepublika demokratikoetan, tiraniak ez du horrela jokatzeko; gorputza utzi eta arimara doa zuzenean. Nagusiak ez du jadanik esaten: Pentsa ezazue nik bezala ala heriotza izango duzue. Zera esaten du: Aske zarete nik bezala ez pentsatzeko; zuen bizia, zuen ondasunak, dena gordeko duzue; baina aurrerantzean arrotz izango zarete gure artean. Gordeko dituzue zeuen pribilegioak hirian, baina alferrikako bihurtuko zaizkizue, zeren eta herrikideen botoa erakarri nahi baduzue, ez baitzuzute emango, eta beraien estima baino ez baduzue eskatzen, hau ere ukatu egingo baitzuzute. Gizakien artean jarraituko duzue, baina zuen gizatasun-eskubideak galduko dituzue. Zeuen hurkoengana hurbiltzen zaretenean, izaki kutsatuengandik bezala ihes egingo dute zuengandik; eta zuen errugabetasunean sinesten dutenek ere bertan behera utziko zaituztete, bestela beraiegangandik ere ihes egingo bailukete besteek. Zoazte bakean, bizia uzten dizuet, baina heriotza baino okerragoa uzten dizuet.

Monarkia absolutuek desohoratua zuten despotismoa; ibil gaitezen kontuz errepublika demokratikoek birgaitu ez dezaten eta, batzuentzat astunago bihurtzean, ken ez diezazkieten, gehiengoaren begietarako, bere itxura higuigarri eta izaera doilorgarria.

Mundu Zaharreko naziorik harroenetan garaikideen akats eta barregarrikeriak zehatz-mehatz jasotzeko helburua zuten obrak eman dira argitara; La Bruyère, handikiei buruzko atala idatzi zuenean, Louis XVI.aren jauregian bizi zen, eta Molièrek gortea kritikatzeko gortesauen aurrean emanarazten zituen antzeslanetan. Baina Estatu Batuetan nagusi den botereak ez du onartzen berari horrela barre egiterik. Errietaryk arinenak mindu egiten du, egia garratz txikienak haserrearazi; eta goraipatu egin behar izaten zaio bere hizkera-formak nahiz bertuterik sendoenak. Ez dago idazlerik, nolanahiko ospea izanik ere, bere herrikideak intzentsatzeko obligazio honi ihes egingo dionik. Gehiengoa, beraz, etengabe bere burua gurtuz bizi da; atzerritarrek edo esperientziak bakarrik helaraz dezakete zenbait egia amerikarren belarrietaraino.

Amerikak ez badu oraindik idazle handirik izan, ez ditugu arrazoiak beste nonbait bilatu behar: ez dago jeinu literariorik izpiritu-askatasunik gabe, eta Amerikan ez dago izpiritu-askatasunik.

Espanian Inkisizioak ezin izan zuen inoiz eragotzi gehiengoaren erlijioaren aurkako liburuak zabaltzea. Gehiengoaren nagusitasunak gauzak hobeto egiten ditu Estatu Batuetan: argitaratzeko pentsamendua bera ere kendu egiten du. Badira fedegabeak Amerikan, baina fedegabetasunak ez du aurkitzen han organorik, nolabait esateko.

Badira gobernuak ohiturak babesten saiatzen direnak liburu lizunen idazleak gaitzetsiz. Estatu Batuetan inor ez dute gaitzesten horrelako obrengeatik, baina inork ez du idazteko

tentaziorik ere izaten. Hala ere, honek ez du esan nahi hiritar guztiek ohitura garbiak dituztenik, baina gehiengo arauzkoa da bereetan.

Honetan, zalantzarik gabe, ona da boterearen erabilera, baina botereaz berataz bakarrik ari naiz. Botere jarkigaitz hori egitate etengabea da, eta horren erabilera ona ustegabekoa bakarrik.

Gehiengoaren tiraniaren ondorioak amerikarren izaera nazionalen; gorte-izpiritua Estatu Batuetan

Gehiengoaren tiraniaren ondorioak orain arte gehiago sentiarazten dira ohituretan gizartearen jokabidean baino.- Pertsonaia handien garapena geldiarazten dute.- Estatu Batuetakoak bezala antolaturiko errepublika demokratikoek gehiengoaren esku jartzen dute gorte-izpiritua.- Izpiritu honen frogak Estatu Batuetan.- Zergatik dagoen abertzaletasun gehiago herriarengan beronen izenean gobernatzen dutenengan baino.

Esandakoaren eragina ahul sentiarazten da oraindik gizarte politikoa; baina horren ondorio kaltegarriak sumatzen dira jadanik amerikarren izaera nazionalen. Uste dut Estatu Batuetan etengabe haziz doan gehiengoaren despotismoaren ekintzari egotzi behar zaiola, batez ere, gaur egun jokaleku politikoa agertzen diren pertsona ospetsuen kopuru urria.

Amerikako iraultza lehertu zenean, saldoan agertu ziren; orduan iritzi publikoak gidatu egiten zituen borondateak eta ez zituen tiranizatzen. Garai hartako pertsona ospetsuek, izpirituen mugimenduarekin aske elkartzuz, handitasun propio bat ukan zuten: beren distira nazioaren gain bota zuten eta ez zuten honengandik hartu.

Gobernu absolutuetan, tronutik hurbil dauden handikiek nagusiaren grinak lausengatzen dituzte eta honen kapritxoetara makurtzen dira beren borondatez. Baina nazioaren gehiengo ez da jopu izateko prest agertzen; sarri ahuleziaz, azturaz edo ezjakintasunez makurtzen da; beste batzuetan erregetzarekiko edo erregeaganako maitasunez. Ikusi izan dira herriak atsegin eta harrotasunez beren borondatea printzearenaren menpe sakrifikatzen, honela nolabaiteko arima-independentzia obedientziaren erdi-erdian ere ezarritik. Herri horietan, miseriak baino askoz degradazio gutxiago aurkitzen da. Alde handia dago, bestalde, onesten ez dena egitearen eta egiten dena onesten delako itxura egitearen artean: bata pertsona ahulari dagokiona, baina bestea morroiaren azturetakoa da.

Herrialde askeetan, non mundu guztia dagoen gutxi ez bada asko estatuko arazoez bere iritzia ematera deitua; errepublika demokratikoetan, non bizitza publikoa etengabe dagoen bizitza pribatuarekin nahastua, non alde guztietatik jo daitekeen subiranoagana, aski delarik ahotsa ozentzea berak entzun dezan, askoz jende gehiago dago subiranoaren ahuleziez espekulatu eta beraren grinaren kontura bizi nahi duena monarkia absolutuetan baino. Herrialde horietan jendea ez da berez beste alde batzuetan baino okerragoa, baizik eta tentazioa biziagoa da eta jende gehiagok sentitzen du aldi berean. Ondorioz, arimak askoz gehiago doilortzen dira horietan.

Errepublika demokratikoek gehiengoaren irispidean jartzen dute gorte-izpiritua eta klase guztietan sarrarazten dute aldi berean. Hau da aurpegira dakioken gauzarik garrantzizkoenetakoa.

Hau, batez ere, errepublika amerikarrak bezala antolaturiko estatu demokratikoetan da egia, non, gehiengoak hain nagusitasun absolutu eta jarkigaitza duenez, beronek ezarritako bidetik aldendu nahi denean, nolabait ere uko egin behar izaten baitaie hiritar-eskubideei, eta gizaki-kualitateari, nolabait esateko.

Estatu Batuetan karrera politikoa lehiatzen den jendetza handiaren artean, oso gutxi ikusi ditut beste garai batzuetako amerikarrak sarri bereizi izan zituen xalotasun kementsua, pentsamenaren independentzia sendoa, azaltzen zutenak, hauxe izanik aurkitzen den leku orotan pertsonaia handien ezaugarri nabarmena. Lehen begiratuan,

esan liteke Amerikan izpiritu guztiak eredu beraren arabera eratu direla, bide berberetatik ibiltzen baitira beti. Egia esan, batzuetan atzerritarrek aurkitzen dituzten formula zorrotzetatik aldentzen diren amerikarren batzuk; hauek legeen akatsak, demokraziaren aldakortasuna eta jakintzargirik eza deitoratzen dituzte; hauek izaera nazionala aldarazten duten akatsak azpimarratzeraino ere iristen dira sarri, eta zuzentzeko hartu ahal izango liratekeen neurriak adierazten dituzte; baina, zuek izan ezik, inork ez die entzuten; eta zuek, beraien gogoeta ezkutuen jakitun zaretenok, atzerritar zarete eta behin-behinean zaudete han. Zuentzat alferrikakoak diren egiak jakinarazten dizkizute gogotsu, eta plaza publikora jaistean beste hizkera bat erabiltzen dute.

Lerro hauek inoiz Amerikara iristen badira, ziur nago bi gauzaz: lehena, irakurle guztiek ozenki gaitzetsi egingo nautela; bigarrena, beraien arteko askok absolbitu egingo nautela beren kontzientzien barrenean.

Entzun izan dut aberriaz hitz egiten Estatu Batuetan. Benetako abertzaletasuna herriarengan aurkitu dut; sarritan alferrik bilatu izan dut herria zuzentzen dutenen artean. Hau erraz ulertzen da analogiaz: despotismoak askoz gehiago gaiztotzen du berari makurtzen zaiona despotismo hori ezartzen duena baino. Monarkia absolutuetan, erregeak bertute handiak izaten ditu sarri, baina gortesauak doilorrak izaten dira beti.

Egia da gortesauak ez dutela Amerikan *Sire* (Jauna) eta *Maiestate Hori* esaten, diferentzia handi eta funtsezkoa; baina etengabe mintzatzen dira beren nagusiaren berezko jakintzargiez; ez dira eztabaidan hasten jakiteko zein den printzearen bertuteetatik miretsiena izatea merezi duena, zeren eta, diotenez, printzeak bertute guztiak baititu, eskuratu beharrik gabe eta, nolabait esateko, nahi ere izan gabe; ez dizkiote beren emazte eta alabak ematen bere maitale-mailara jasotzeari oniritz diezaion, baina, beren iritziak sakrifikatuz, beren buruak prostituitzen dituzte.

Amerikan moralistak eta filosofoak ez daude beharturik beren iritziak alegoriaren estalkietan biltzera, baina egia gogaikarriren bat bota aurretik, esaten dute: "Badakigu entzule dugun herri hau giza ahulezien oso gainetik dagoela, etengabe bere buruaren jabe ez izateko. Ez genuke antzerako hizkerarik erabiliko, beren bertute eta jakintzargiengatik, beste guztien artean aske izateko duin diren bakarrei ez bagintzaizkie zuzenduko".

Nola egin zezaketen hobeto Louis XIV.aren lausengariek?

Nik neuk uste dut gobernu guztietan, nolanahikoak izanik ere, txatxarkeria indarrari atxikiko zaiola, eta lausengua botereari. Eta bide bakarra ezagutzen dut pertsonen degradazioa eragozteko: inori ez ematea, ahalguztiduntasunaz, doilortzeko ahalmen subiranoa.

Errepublika amerikarren arriskurik handiena gehiengoaren ahalguztiduntasunetik dator. Bere ahalmenaren erabilera txarrez, eta ez bere ezintasunez, daude errepublika amerikarrak galtzeko arriskuan.- Errepublika amerikarretako gobernua zentralizatuagoa eta kementsuagoa da Europako monarkietakoa baino.- Horren arriskua.- Madisonen eta Jeffersonen iritzia gai honetaz.

Gobernuak ezintasun edo tiraniagatik galtzen dira normalean. Lehen kasuan, ihes egiten die botereak; bigarrenean, kendu egiten zaie.

Estatu demokratikoak anarkian erortzen ikustean, estatu horietako gobernua berez ahul eta indargabea zela pentsatu izan du jende askok. Egia zera da, alderdien artean behin gerra piztu ondoren, gobernuak galdu egiten duela bere ekintza gizartean. Baina nik ez dut uste botere demokratikoaren izaerari dagokionik indar eta baliabiderik eza; aitzitik, ia beti bere indarren abusuak eta baliabideen erabilera txarrak galbideratzen dutela uste dut. Anarkia botere horren tirania edo ezgaitasunetik sortzen da ia beti, baina ez ezintasunetik.

Ez da egonkortasuna indarrarekin nahastu behar, gauzaren handitasuna bere iraupenarekin. Errepublika demokratikoetan, gizartea zuzentzen duen boterea<sup>187</sup> ez da egonkorra, zeren eta sarri aldatzen baita eskuz eta helburuz. Baina, dagoen tokian dagoela, beraren indarra ia geldiezin da.

Errepublika amerikarretako gobernua Europako monarkia absolutuetakoa bezain zentralizatua eta kementsuagoa iruditzen zait. Ez dut, beraz, ahuleziaz galtzen denik uste<sup>188</sup>.

Amerikan askatasuna noizbait galtzen bada, gehiengoaren ahalguztiduntasunari egotzi beharko zaio, gutxiengoak etsipenera eraman eta indar materiala erabiltzera behartu dituelako izango da eta. Anarkia agertuko da orduan, baina despotismoaren ondorioz iritsiko da.

James Madison lehendakariak gogoeta berberak egin ditu (Ikus *The Federalist*, 51. zk.).

"Garrantzi handikoa da errepubliketan, dio berak, ez bakarrik gobernatzen dutenen zapalkuntzaren kontra gizartea babestea, baita gizartearen zati bat bestearen bidegabekeriaren kontra bermatzea ere. Justizia da gobernu orok izan behar duen helburua; pertsonak elkartzean ezartzen duten helburua da. Herriek beti egin izan dituzte eta egingo dituzte ahaleginak helburu horretarantz, bertara iristea lortu edo beren askatasuna galdu arte.

"Balego gizarte bat, non alderdirik ahaltsuena bere indarrak erraz bildu eta ahulena zapaltzeko egoeran legokeen, horrelako gizarte batean anarkia naturako egoeran bezain nagusi dela pentsatu ahal izango litzateke, non ahulenak ez duen inolako garantiarik indartsuenaren bortxaren aurka; eta naturako egoeran bezalaxe, zalantzazko eta badaezpadako zoriaren eragozpenek bultzatzen dute indartsuena, bera nahiz ahulena babesten duen gobernuaren menpe jartzera; gobernu anarkikoan, arrazoi berberak eramango dituzte alderdirik ahaltsuenak alderdi guztiak, indartsuak nahiz ahulak, berdin babes ditzakeen gobernua desiratzera. Rhode Islandeko estatua konfederaziotik bananduta balego eta gobernu herritar baten -muga estuen barnean subiranotasunez egikarituriko baten- esku balego, zalantzarik gabe bertan gehiengoaren tiraniak eskubideen erabilera hain koloka jarriko lukeenez, herriagandik guztiz independentea den boterea eskatuko litzateke. Beharrezko bihurtua luketen fakzioek berek joko lukete bizkor horretara".

Halaber, Jeffersonek zioen: "Gure gobernuaren botere exekutiboa ez da bakarra, ezta agian nire arreta-gai nagusia ere. Legegileen tirania da gaur egun, eta urte askotan izango da oraindik, arriskurik beldurgarriena. Botere exekutiboaren arriskua ere iritsiko da bere garaian, baina beranduago<sup>189</sup>".

Gai honetan oso gogoko dut beste inoren aurretik Jefferson aipatzea, demokraziak inoiz izan duen apostolurik ahaltsuena dela uste baitut.

## VIII

### *Zerk moderatzen duen Estatu Batuetan gehiengoaren tirania*

Administrazio-zentralizaziorik eza

Gehiengo nazionalak ez du dena egiteko ideiarik.- Beharturik dago udalerri eta konderrietako magistratuek baliatzera bere borondate subiranoa betearazteko.

Bi zentralizazio-mota bereizi ditut aurrerago: batari gobernu-zentralizazioa deitu diot, eta besteari administrazio-zentralizazioa.

Lehena bakarrik dago Amerikan; bigarrena ia ezezaguna da bertan.

Gizarte amerikarrak gidatzen dituen botereak bi gobernu-bide horiek bere esku izango balitu, eta dena agintzeko eskubideari dena bere kabuz betearazteko ahalmena eta aztura erantsiko balizkio; gobernu-printzipio orokorrak ezarri ondoren, aplikazioaren xehetasunetan ere sartuko balitz, eta herrialdeko interes handiak arautu ondoren banako



interesen mugaraino jaitsi ahal izango balitz, askatasuna laster asko kanporatuko litzateke Mundu Berritik.

Baina Estatu Batuetan gehiengoak, sarritan despotaren zaletasun eta joerak dituenak, ez ditu oraindik tiraniaren tresnarik biribilenak.

Errepublikak amerikar guztietan, gobernu zentrala gauza gutxi batzuek bakarrik arduratu izan da beti, beren garrantziagatik begirada erakartzen zioten batzuek, alegia. Ez dio ekin gizarteko bigarren mailako gauzak arautzeari. Ezerk ez du adierazten hori egiteko gogorik ere izan duenik. Gehiengoak, gero eta absolutuago bihurtzean, ez ditu gehitu botere zentralaren eskurantzak; bere esparruan ahalguztidun bihurtzea besterik ez du egin. Honela, despotismoa oso astun izan daiteke puntu batean, baina ezin da guztietara hedatu.

Bestalde, gehiengo nazionalak, bere grinaren oso menpe egon arren, bere proiektuekiko oso gogoberotsu egon arren, ezin du lortu alde guztietan, era eta une berean, hiritar guztiak bere nahietara makurrarazterik. Beraren ordezkari den gobernu zentralak subiranoki agintzen duenean, sarritan bere menpe ez dituen eta une oroz gida ez ditzakeen agenteengana jo behar izaten du bere agindua betearazteko. Udal-gorputzak eta konderrietako administrazioak, ezkutuko beste zenbait oztopo bezala dira, herri-nahiaren uhina atzerarazten edo zatitzen dutenak. Legea zapaltzailea izango balitz, hala ere askatasunak aurkituko luke babesik legea betearazteko moduan; eta gehiengoak ezingo litzateke xehetasunetara -eta ausartzen banaiz esatera, ezta tirania administratiboaren umekerietara ere- iritsi. Egin dezakeenik ere ez zaio bururatzen, ez baita bere ahalmenaz erabat jabetzen. Bere berezko indarrak bakarrik ezagutzen ditu oraindik, eta ez daki arteak noraino hedarazi ahal izango lizkiokeen mugak.

Honek merezi du gogoeta egitea. Jadanik bakar baten boterea ezarria eta zentralizazio administratiboa aztura nahiz legeetan sartua lukeen herrialde batean noizbait Estatu Batuetakoa bezalako errepublika demokratiko bat eratuko balitz, ez dut beldurrik esateko, horrelako errepublika batean despotismoa askoz jasangaitzagoa izango litzatekeela Europako edozein monarkia absolututan baino. Asiarra joan beharko litzateke antzerako zerbait aurkitu ahal izateko.

Legelari-izpiritua Estatu Batuetan, eta nola balio duen demokraziaren kontrapisu izateko Legelari-izpirituaren berezko joerak zeintzuk diren ikertzearen onura.- Legelariak zeregin garrantzizkoa izango dute jaio nahian ari den gizartean.- Legelariak duten lan-motak nola ematen dien halako kutsu aristokratiko bat beraien ideiei.- Ideia horien garapenari kontra egin diezaioketen kausa akzidentalak.- Aristokraziak aurkitzen duen erraztasuna legelariekin elkartzeko.- Despota bat nola balia litekeen legelariez.- Nola legelariak osatzen duten elementu aristokratiko bakarra, demokraziaren berezko elementuekin konbinatu ahal izateko modukoa.- Legelari ingeles eta amerikarren izpirituari halako kutsu aristokratiko bat eman ohi dioten kausa bereziak.- Aristokrazia amerikarra abokatuen bankuan eta epaileen aulkian datza.- Legelariak gizarte amerikarrean zertzen duten eragina.- Beraien izpiritua nola sartzen den legislatiboan baitan eta administrazioan, azkenerako herriari berari emanek magistratuen joeretakoa zerbait.

Amerikarrak bisitatu eta haien legeak aztertzen direnean, ikusten da legelariei ematen dieten aginpidea eta gobernuan hartzen uzten dieten eragina direla gaur egun hesirik sendoenak demokraziaren desbiderapenen aurka. Efektu hau kausa orokor batek eragina dela iruditzen zait, eta ikertzea merezi duela, beste edonon ere gerta baitaiteke.

Azken bostehun urteotan legelariak gizarte politikoaren mugimendu guztietan egon dira nahastuta Europan. Batzuetan haiek berak izan dira botere politikoaren tresna, beste batzuetan haiek botere politikoak hartu dituzte beren tresnatzat. Erdi Aroan legelariak ikaragarri lagundu zuten erregeen agintea zabaltzen; geroztik, kementsu lan egin dute

botere hori berori murrizteko. Ingalaterran, elkartasun estu-estua izan dute aristokraziarekin; Frantzian, beronen etsairik arriskutsuenak izan dira. Legelariak bat-bateko eta momentuko bulkaden menpe egoten ote dira ala, zirkunstantzien arabera, berezko dituzten eta egunero birsortzen diren instintuei obeditzen ote diete gehixeago edo gutxiixeago? Puntu hau argitu nahi nuke, zeren eta agian legelariak zeregin nagusia izango baitute jaio nahian ari den gizarte politikoa.

Legeen azterketa berezia egin duten pertsonen lan horietatik ordena-aztura batzuk, formekiko halako gustu bat, ideien kateaketa erregularrarekiko nolabaiteko zaletasun instintiboa atera dituzte, eta hauek guztiek demokraziaren izpiritu iraultzaile eta grina hausnargabeen kontra-kontrako bihurtzen dituzte, noski.

Legen aztertzean legelariak lortzen dituzten ezagupen bereziek aparteko maila bat ematen diete gizartean; halako klase pribilegiatu bat eratzen dute adimendunen artean. Nagusitasun honen ideia egunero berraurkitzen dute beren lanbidea egikaritzean; beharrezko zientzia bateko maisu dira, beronen ezagutza ez dagoelarik zabaldua; arbitroarena egiten dute hiritarren artean, eta auzilarien grinaitsuak konponbiderantz zuzentzeko azturak halako mesprezu bat sortarazten die jendearen epaiarekiko. Erantsi horri *gorputz bat* osatzen dutela berez. Kontua ez da beren artean elkar hartu eta adostasunez puntu bererantz bideratzen direla, baizik eta ikasketa amankomunak eta metodo-batasunak lotu egiten dizkietela izpirituak, interesak beraien borondateak batu litzakeen bezalaxe.

Beraz, legelarien arima barnean ezkutaturik, aristokraziaren zaletasun eta azturetako batzuk aurkitzen dira. Aristokraziak bezalaxe, badute senez ordenarako joera, formekiko berezko zaletasuna; hark bezalaxe, jendetzaren ekintzekiko nazka sentitu eta herriaren gobernu mesprezatzen dute ezkutuan.

Ez dut inola ere esan nahi legelarien berezko joera hauek haiek ezinbestean lotzeko bezain indartsuak direnik. Legelarien artean nagusi dena, gizaki guztien artean bezalaxe, interes partikularra da, eta momentuko interesa, batez ere.

Gizarte batzuetan legegizonek ezin izaten dute politika-arloan bizitza pribatuan dutenaren antzeko mailarik lortu; ziur egon honela antolaturiko gizarte batean legelariak iraultza-agente oso aktiboak izango direla. Baina orduan suntsitzera edo aldatzera bultzatzen dituen kausa, jarrera iraunkor ala behin-behinekotik sortzen zaien ikertu behar da. Egia da legelariak bereziki esku hartu zutela 1789an Frantziako monarkia iraultzen. Jakiteke dago oraindik horrela jokatu baldin bazuten legeak ikasi zituztelako izan zen ala ezin zutelako lege horiek egiten esku hartu.

Duela bostehun urte, aristokrazia ingelesa herriaren buru jarri eta beronen izenean hitz egiten zuen; gaur egun tronuari eusten dio eta errege-agintearen aldeko nagusia da. Hala ere, aristokraziak baditu bere-bereak dituen sen eta joerak.

Halaber, ez dira inola ere gorputz horretako partaide isolatuak gorputz osotzat hartu behar.

Gobernu aske guztietan, nolanahikoa izanik berorien forma, legelariak aurkituko dira alderdi guztietako lehen lerroetan. Oharpen hau berau aplikatu dakioke aristokraziari ere. Mundua astindu duten mugimendu demokratiko ia guztiak nobleek zuzendu izan dituzte.

Eliteko gorputz bat sekula ez da aski bere baitan dituen gutizia guztietarako; bere baitan beti izaten dira karguak baino talentu eta grina gehiago, eta beti aurkitzen da jendekopuru handi bat, gorputz-pribilegioez baliatuz behar hainbat bizkor igo ezin denez, pribilegio horiei eraso eginez igotzen saiatzen dena.

Ez dut inola ere esan nahi legelari *guztiek*, edo beraien arteko gehienek momentu *guztietan*, ordenaren adiskide eta aldaketen etsai bezala agertu beharko duten garaien bat iritsiko denik.

Diodana da, legelariak berez dagokien goi-maila aurkakotasunik gabe okupatzen duten gizarte batean, berorien izpiritua nagusiki kontserbadorea izango dela eta demokraziaren aurka agertuko dela.

Aristokraziak bere lerroak ixten dizkienean legelariei, hauek oso etsai arriskutsu bihurtzen zaizkio, beren aberastasun eta botereagatik haren azpitik egon arren, beren lanagatik independente baitira eta beren jakintzargiengatik haren pareko sentitzen baitira.

Baina nobleek beren pribilegioetako batzuk legelariekin banatu nahi izan dituztenean, bi klase hauek erraztasun handiak aurkitu dituzte elkartzeko eta, nolabait esateko, familia berekoak direla ohartu dira.

Era berean uste dut errege bati erraza gertatuko zaiola legelariak bere boterearen tresnarik erabilgarrien bihurtzea.

Berezko kidetasuna askoz ere handiagoa da legegizonen eta botere exekutiboaren artean, haien eta herriaren artean baino, nahiz eta legelariak sarri jo izan duten lehenengoa iraultzera; era berean, nobleen eta erregearen arteko kidetasuna ere nobleen eta herriaren artekoa baino askoz handiagoa da, nahiz eta sarri ikusi diren gizarteko goi-klaseak beste klaseekin elkar hartzen errege-boterearen aurka borrokatzeko.

Gauza guztien gainera, ordena ikustea da legelariak maite dutena, eta ordenaren bermerik sendoen aginpidea da. Ez da ahaztu behar, bestalde, askatasuna preziatzen badute ere, orokorrean horren oso gainera jartzen dutela legetasuna; beldur gutxiago diote tiraniari arbitrariotasunari baino, eta, jendeari independentzia kentzeaz arduratuko dena legegilea bera baldin bada, nahikoa pozik egoten dira.

Beraz, indartsu letorkeen demokrazia baten aurrean, printzeak, bere estatuetan botere judiziala eraisten eta legelarien eragin politikoa gutxitzen saiatuko balitz, hutsegite handia egingo lukeela pentsatzen dut. Aginpidearen mamia jaregingo lioke berorren itzalari heltzeko.

Ez dut zalantzarik onuragarriagoa gertatuko litzaiokeela legelariak gobernuan sartzea. Despotismoaren ardura bortxaren formapean eman ondoren, agian justiziaren eta legearen itxurapean aurkituko luke berriro haien eskuetan.

Demokraziaren gobernuak legelarien botere politikoen aldeko da. Aberatsa, noblea eta printzea gobernutik kanpo uzten direnean, legelariak iristen dira bertara, eskubide osoz, nolabait esateko; zeren eta orduan berauek izaten baitira pertsona ilustratu eta iaio bakarrik, herriak bere baitatik kanpo aukera ditzakeenak.

Legelariak beren gustuengatik aristokrazia eta printzearengana jotzen badute berez, beren interesagatik herriarengana jotzen dute berez.

Honela, legelariak demokraziaren gobernuak maite dute, baina honen joerak konpartitu gabe eta ahuleziak imitatu gabe, kausa bikoitza ahaltsu izateko berorrenagatik eta berorren gain.

Demokrazian, herriak ez du legelarienganako mesfidantzarik izaten, bai baitaiki hauen interesa beraren kausa zerbitzatzea dela; suminik gabe entzuten die, ez baitaie azpi-asmorik suposatzen. Izan ere, legelariak ez dute irauli nahi izaten demokraziak bere buruari ezarritako gobernuak, baina honen ez den joera bati jarraituz eta arrotz zaizkion bitartekoen bidez gidatzen saiatzen dira etengabe. Legelaria herriaren parte da bere interes eta jaiotzagatik, eta aristokraziaren parte bere aztura eta gustuengatik; bi gauza hauen arteko lokarri naturala bezala da bera, elkartzeko dituen eratzuna bezala.

Legelarien gorputzak osatzen du demokraziaren berezko elementuekin esfortzurik gabe nahas daitekeen elementu aristokratiko bakarra, elementu horiekin era zoriontsu eta iraunkorrean konbina daitekeena. Ongi dakizkit diren legelari-izpirituari dagozkion akatsak; legelari-izpiritua izpiritu demokratikoarekin nahastu gabe, zalantza dut demokraziak luzaroan gobernatu ahal izango ote lukeen gizartea, eta ez dut sinesten

gaur egun errepublika batek bere izatea luzaroan gordetzea espero dezakeenik, legelariak arazo publikoetan duten eragina ez bada herriaren boterearen proportzioan hazten.

Legelari-izpirituan hautematen dudan izaera aristokratiko hau are biziagoa da Estatu Batuetan eta Ingalaterran beste edozein herrialdetan baino. Honen zergatia ez datza bakarrik legelari ingeles eta amerikarrek legeez egiten duten ikasketan, baita legeriaren izaeran bertan eta interpretari hauek bi herri horien baitan duten posizioan ere.

Ingeles eta amerikarrek aurrekoen legeria gorde dute, hau da, arbasoen iritzia eta erabaki legaletatik jarraitzen dute ateratzen lege-kontuetan izan behar dituzten iritzia eta hartu beharreko erabakiak.

Legelari ingeles edo amerikarrarengan, antzinakoa denari zaion gustua eta begirunea ia beti elkartzen dira arauzkoa eta legezkoa denari zaion maitasunarekin.

Honek badu beste eragin bat ere legelarien irizpidean eta ondorioz gizartearen bilakaeran.

Legelari ingeles edo amerikarrak egin dena ikertzen du, legelari frantsesak egin nahi izan dena; batak epaiak nahi ditu, besteak arrazoiak.

Legelari ingeles edo amerikar bati entzutean, harrigarria gertatzen da besteen iritzia hain sarri aipatzea eta bereaz hain gutxi hitz egitea; gure artean, berriz, guztiz kontrakoa gertatzen da.

Oso txikia izanik ere, ez dago arazorik abokatu frantsesak tratatzea onartuko duenik, berea duen ideia-sistema bat bertan sartu gabe, eta legeen printzipio eratzaileak ere eztabaidatuko ditu helburu bakar batekin, alegia, auzitegiak onets dezala auzipean dagoen soroaren muga eskubete atzeratzea.

Arbasoen irizpidera jotzeko, legelari ingeles eta amerikarrak bere irizpideari egiten dion uko-moduko honek; morrontza-moduko honek, non eutsi behar baitio bere pentsaerari, legelari-izpirituari aztura herabeagoak eman eta joera egonkorragoak harraraziko dizkio Ingalaterran eta Amerikan Frantzia baino.

Gure lege idatziak ulergaitzak dira sarri, baina mundu guztiak irakur ditzake; aitzitik, herri xehearentzat ezer ez dago ilunagorik eta bere eskuetatik urrutirago aurrekarietan oinarrituriko legeria baino. Ingalaterran eta Estatu Batuetan dagoen legelari-beharrak, beraren buruargitasunaz eratzen den iritzia jasoak, gero eta gehiago aldentzen dute herriagandik, eta azkenerako aparteko klase bihurtzen. Legelari frantsesa jakintsu bat besterik ez da; baina legegizon ingeles edo amerikarrak Egiptoko apaizen antza du, nolabait ere; haiek bezalaxe, ezkutuko jakintza baten interpretari bakarra da.

Legegizonek Ingalaterran eta Amerikan duten posizioak ere ez du eragin txikiagoa zertzen beraien aztura eta iritzietan. Ingalaterrako aristokraziak, berarekin analogia naturalen bat zuen guztia bere baitara erakartzeaz arduratu denak, itzal eta botere-zati handia eman die legelariei. Gizarte ingelesean legelariak ez daude lehen mailan, baina pozik daude dagokien mailan. Aristokrazia ingelesaren adar gaztea bezala dira, eta maitatu eta errespetatu egiten dituzte zaharragoak, hauen pribilegio guztiak konpartitu gabe. Legelari ingelesek, beraz, beren lanbideko interes aristokratikoekin nahasten dituzte bizi direneko gizartearen ideia eta gustu aristokratikoak.

Honela, batez ere Ingalaterran ikus daiteke nabarmen, nik deskribatu nahi dudan legelari-mota hori. Legelari ingelesak legeak estimatzen baditu, ez da hainbeste onak direlako, zaharrak direlako baizik; eta, denborarekin gizarteek jasan behar izaten dituzten aldaketetara moldatzeko, punturen batean legeak aldatu beharrean aurkitzen bada, sotiltasunik sinesgaitzenetara jotzen du, arbasoek egindakoari zerbait eranstea, haien pentsaera garatu eta haien lanak osatu baino ez dituela egiten komentzitzeko. Ez espero izan berritzaile dela aitortuko duenik; lehenago onartuko du absurdutasuneraino iristea bere burua hain krimen handiaren errudun aitortu baino lehen. Lege-izpiritu hori

-alegia, gauzen mamia ez zaiola axola, letraz bakarrik arduratzen dela eta arrazoi eta gizatasunetik legetik baino lehenago irtengo litzatekeela ematen duen izpiritu hori-Ingalaterran sortu zen.

Legeria ingelesa antzinako zuhaitz bat bezala da, beraren gain legelariak etengabe kimurik arraroenak txertatu dituztelarik itxaropen batekin, alegia, kimu horiek, fruitu ezberdinak eman arren, gutxienez beren hostaia euskarri duten enbor beneragarriarekin bat egingo duten itxaropenarekin.

Amerikan ez dago noblerik, ez literaturgilerik, eta herria ez da aberatsez fido. Legelariak osatzen dute, beraz, klase politiko gorena eta gizarteko zatirik intelektualena. Horregatik, galdu baino ez lukete egingo zerbait berritzailekoan: honek interes kontserbadorea eranstean dio ordenarekiko duten berezko zaletasunari.

Aristokrazia amerikarra non kokatzen dudan galdetuko balitzait, aberatsen artean ezetz erantzungo nuke zalantzarik gabe, ez dutela elkar litzakeen lokarri komunik. Aristokrazia amerikarra abokatuen bankuan eta epaileen aulkian datza.

Zenbat eta gehiago hausnartu Estatu Batuetan gertatzen dena, orduan eta komentzituago nago herrialde hartan legelarien gorputza dela demokraziaren kontrapisu ahaltsuena eta, nolabait esateko, bakarra.

Estatu Batuetan ohartzen da eragozpenik gabe zenbateraino den legelari-izpiritua bere kualitateengatik, eta bere akatsengatik ere baietz esango nuke, herri-gobernuari dagozkion bizioak neutralizatzeko egokia.

Herri amerikarra bere grinek mozkortzen edo bere ideiek arrastaka eramaten dutenean, abiada mantsotu eta geldiarazten duen galga ia ikustezina sentiarazten diote legelariak. Herriaren instintu demokratikoei, joera aristokratikoak kontrajartzen dizkiete ezkutuan; haren berrikuntza-zaletasunari, antzinakoari dioten begirune superstiziosoak; haren egitasmoen zabaltasunari, ikuspegi estuak; hark arauetikiko duen mesprezuari, formenganako gustua; eta haren suhertasunari, astiro jokatzeko aztura.

Auzitegiak dira legelarien gorputzak demokraziaren gain eragiteko erabiltzen dituen organorik agerikoenak.

Epailea legelari bat da, legeak ikasterakoan bereganatu duen ordena eta arauetikiko zaletasunaz gain, bere funtzioen mugiezintasunetik ere egonkortasunaren maitasuna ateratzen duena. Bere lege-ezagupenek dagoeneko ziurtatua zioten goi-maila bere hurkoen artean; bere botere politikoak aparteko maila batean kokatzen du azkenean, eta klase pribilegiatuen instintuak ematen.

Legeak konstituziokontrakotzat deklaratzeko eskubideaz horniturik, magistratu amerikarra etengabe sartzen da arazo politikoetan<sup>190</sup>. Ezin du herria legeak egitera behartu, baina bere legetikiko leial eta bere buruarekin bat izatera behartzen du gutxienez.

Badakit Estatu Batuetan badagoela ezkutuko joera bat herria botere judiziala murriztera daramana; estatu-konstituzio partikular gehienetan, gobernuak, bi Ganbaren eskariz, aulkia ken diezaieke epaileei. Konstituzio batzuek auzitegiak kideak *hautatu* beharra ezartzen dute, eta sarri-sarri berrautatuak izatera behartzen. Berrikuntza hauek lehentxeago edo geroxeago emaitza kaltegarriak izango dituztela iragartzera ausartzen naiz, eta egunen batean ohartuko direla, magistratuen independentzia horrela gutxituz, ez zaiola botere judizialari bakarrik eraso egin, baita errepublika demokratikoari berari ere.

Gainerantzean, ez da sinetsi behar Estatu Batuetan legelari-izpiritua auzitegien esparruan bakarrik dagoenik itxita; harantzago ere hedatzen da.

Legelariak, herriak mesfidantzaz ikusten ez duen klase ilustratu bakarra izanik, funtzio publiko gehienak betetzera deitzen dituzte naturalki. Batzar legegileak betetzen dituzte, eta administrazioen buru aurkitzen dira; eragin handia dute, beraz, legeak sortzailekoan

eta hauek betearazterakoan. Hala ere, legelariak beharturik daude arrastaka eramaten dituen iritzi publikoaren korronteari amore ematera; baina erraza da aske izango balira egingo luketenaren aztarnak aurkitzea. Amerikarrek, beren lege politikoetan hainbeste berritu dutenek, aldaketa arinak bakarrik sartu dituzte, eta nekez gainera, beren lege zibiletan, nahiz eta lege hauetako batzuk oso higuingarriak izan beraien gizarte-egoeran. Hau gertatzen da zuzenbide zibileko gaietan gehiengoak beharturik dagoelako beti legelariengana jotzera; eta legelari amerikarrek, beren aukeramenaren arabera, ez dute ezer berritzen.

Oso bitxia gertatzen da frantses batentzat, legelarien izpiritu kontserbadorearen eta ezarritakoaren alde horiek dituzten aurriritzien aurka Estatu Batuetan sortzen diren kexak entzutea.

Legelari-izpiritua nik ezarri berri ditudan muga horiek baino urrutirago ere hedatzen da. Estatu Batuetan ia ez dago arazo politikorik lehentxeago edo geroxeago arazo judizial bihurtzen ez denik. Hortik sortzen da alderdiek beren eguneroko eztabaidetan ideiak eta hizkera justiziatik hartzeko duten obligazioa. Pertsona publiko gehienak legelari direnez edo izan direnez, bere-bereak dituzten usadio eta ideia-motak pasaratzen dituzte arazo publikoen tratamendura. Azkenetako, epaimahaiek oso ezagun bihurtzen dituzte klase guztien artean. Honela, hizkera judiziala nolabait ere hizkera arrunt bihurtzen da; legelari-izpiritua, eskola eta auzitegien barnean sartua, bere esparrutik kanpo hedatzen da poliki-poliki; gizarte osoan infiltratzen da, nolabait esateko, azken mailetaraino iristen da, eta azkenetako herri osoak bereganatzen du magistratuaren aztura eta gustuen parte bat.

Estatu Batuetan, beldur gutxi sortzen duen botere bat osatzen dute legelariak: nekez hautematen dena, bandera propiorik ez duena, denboraren eskakizunetara malgutasunez makurtzen dena eta bera gizarte-gorputzaren mugimendu guztiek eraman dezaten uzten duena, erresistentziarik gabe; baina gizartea oso-osorik biltzen du, osatzen duen klaseetarik bakoitzean sartzen da, ezkutuan landu, berorren gain oharkabea etengabe jardun eta azkenetako bere nahien arabera moldatzen du.

Epaimahaia Estatu Batuetan erakunde politikotzat hartua

Epaimahaia, herri-subiranotasunaren moduetako bat, subiranotasun hori ezartzen duten beste legeekin erlazioan jarri behar da.- Epaimahaiaren osaera Estatu Batuetan.- Epaimahaiak izaera nazionalean eragindako ondorioak.- Herriari ematen dion heziketa.- Nola jotzen duen magistratuen eragina ezartzera eta legelarien izpiritua hedatzera.

Nire gaiak berez Estatu Batuetako justiziaz hitz egitera eraman nauenez, ez dut gai hau utziko epaimahaiaz jardun gabe.

Bi gauza bereizi behar dira epaimahaian: erakunde judiziala eta erakunde politikoa.

Epaimahaiak -eta, batez ere, epaimahaiak gai zibiletan- justiziaren administrazio onerako balio ote duen jakitea izango balitz kontua, horren onuragarritasuna dudazkoa dela aitortuko nuke.

Epaimahaiaren erakundea gutxi aurreratutako gizarte batean sortua da, non egitate-arazo sinpleak bakarrik eramaten baitziren auzitegiak; eta ez da eginkizun erraza hori herri oso zibilizatu baten beharretara moldatzea, jendearen arteko harremanak bereziki ugari direnean eta jakinduriarazko eta adimenezko izaera hartu dutenean<sup>191</sup>.

Nire helburu nagusia, une honetan, epaimahaiaren alderdi politikoa aztertzea da: beste bide batek aldendu egingo ninduke neure gaitik. Epaimahaiak, baliabide judizialtzat harturik, bi hitz baino ez ditut esango. Ingelesak, epaimahaiaren erakundea hartu zutenean, herri erdi barbaroa ziren; geroztik, munduko naziorik ilustratuenetako bat izatera iritsi dira, eta epaimahaiarekiko atxikimendua beren jakintzargiekin areagotuz joan zaiela dirudi. Beren lurraldetik irten eta mundu osoan zehar zabaltzeko batzuek koloniak sortu dituzte, beste batzuek estatu independenteak; nazioaren gorputzak

erregea gorde du, migrarietako batzuek errepublika ahaltsuak sortu dituzte; baina alde guztietan ingelesek era beretsuan bultzatu dute epaimahaiaren erakundea<sup>192</sup>. Alde guztietan ezarri dute, edota bizkor berrezarri. Mende luzeetan zehar herri handi baten sufragioak honela bereganatzen dituen erakunde judiziala, zibilizazioko garai orotan, klima guztietan eta gobernu-era guztien menpean sutsu birsortzen dena, ezin izan justiziaren izpirituaren kontrako<sup>193</sup>.

Baina utz dezagun gai hau alde batera. Epaimahaia erakunde judizialtzat hartzera mugatzea, beraren kontzeptua oso murriztea izango litzateke; zeren eta, prozesuen zorian eragin handia zertzen badu, are handiagoa zertzen baitu gizartearen destinoetan beretan. Epaimahaia, beraz, erakunde politikoa da, batez ere. Eta erakunde hori epaitzeko, ikuspuntu honetan jarri behar da beti.

Epaimahaitzat hiritar-kopuru bat ulertzen dut, ausaz hartua eta epaitzeko eskubideaz hornitua momentu batez.

Krimenen errepresiora epaimahaia aplikatzea, gobernuan oso errepublikarra den erakunde bat sartzea iruditzen zait. Orain azalduko dut:

Epaimahaiaren erakundea aristokratikoa edo demokratikoa izan daiteke, epaimahaikoak zein klasetatik hartzen diren kontuan izanda; baina izaera errepublikarra gordeko du beti, gizartearen benetako zuzendaritza gobernatuen edo hauen arteko batzuen esku jartzen baitu, eta ez gobernarien esku.

Indarra sekula ez da arrakasta-elementu iragankorra baizik: beraren ondoren zuzenbidearen ideia etortzen da berehala. Gobernu bat, bere etsaiak gudu-zelaian bakarrik borrokatzera mugatua badago, laster suntsituko dute. Lege politikoen benetako santzioa, beraz, lege penaletan datza, eta, onespentak huts egiten badu, lehentxeago edo geroxeago legeak bere indarra galtzen du. Beraz, *kriminala* epaitzen duen pertsona da benetan gizartearen jabe. Nolanahi ere, epaimahaiaren erakundeak herria bera jartzen du, edo hiritarren klase bat behintzat, epailearen aulkian. Hortaz, epaimahaiaren erakundeak herriaren edo klase horren esku jartzen du benetan gizartearen zuzendaritza<sup>194</sup>.

Ingalaterran, epaimahaia nazioaren zati aristokratikotik ateratzen da. Aristokraziak egiten ditu legeak, berak aplikatzen ditu legeak, eta bai lege-haustek epaitu ere (B). Dena bat dator; honela, egia esan, errepublika aristokratiko bat eratzen du Ingalaterrak. Estatu Batuetan sistema bera herri osoari aplikatzen zaio. Amerikako hiritar bakoitza hautesle, hautagarri eta epaimahaiko da (C). Epaimahaiaren sistema, Amerikan ulertzen den bezala, herri-subiranotasunaren dogmaren ondorio iruditzen zait, sufragio unibertsala bezain ondorio zuzeneko eta muturrekoa. Bata bestea bezain baliabide ahaltsua da, gehiengo nagusi izan dadin lortzeko.

Beren boterearen sorburuak beren baitatik atera eta, gizarteak gida ditzan onartu ordez, gizartea berek gidatu nahi izan duten subirano guztiek suntsitu edo ahuldu egin dute epaimahaiaren erakundea. Tudortarrek presondegira bidaltzen zituzten kondena-epaia eman nahi ez zuten epaimahaiak, eta Napoleonek bere agenteen bidez hautarazten zituen.

Oso nabariak izan arren aurreko egia horietako gehienak, ez dituzte izpiritu guztiek ulertzen, eta sarritan, gure artean ere, ideia nahasia baino ez dago epaimahaiaren erakundeaz. Epaimahaikoen zerrenda zer-nolako elementuz osatu behar den jakin behar bada, partaide izan behar dutenen jakintzargiak eta gaitasuna zelakoak diren eztabaidatzera mugatzen dira, erakunde judiziala baino izango ez balitz bezala. Egia esan, arazoaren zatirik txikienaz arduratzea iruditzen zait hori; epaimahaia erakunde politikoa da, batez ere; herri-subiranotasunaren modu bat bezala hartu behar da; herri-subiranotasuna errefusatzen denean, zeharo errefusatu behar da, edo subiranotasun hori ezartzen duten beste legeekin erlazioan jarri. Epaimahaia legeen betearaztea ziurtatzeko

ardura duen nazio-zatia da, Ganbarak legeak egiteko ardura duten nazio-zatia diren bezalaxe; eta gizartea era finko eta uniformean gobernatua izan dadin, beharrezkoa da epaimahaikoen zerrenda hautesleenarekin batera zabaldu edo murriztea. Ikuspegi hau da, nire ustez, legegilearen arreta nagusia bereganatu behar duena. Gainerakoa osagarria da, nolabait esateko.

Epaimahaia batez ere erakunde politikoa dela hain komentziturik nagoenez, horrela hartzen dut gai zibiletan aplikatzen denean ere.

Legeak beti egoten dira koloka ohituretan oinarritzen ez diren bitartean; ohiturek osatzen dute herri batean botere sendo eta iraunkor bakarra.

Epaimahaia arazo kriminaletara bakarrik mugatzen denean, herriak oso noizean behin eta kasu partikularretan bakarrik ikusten du jardunean; bera gabe moldatzera ohitzen da bizimodu arruntean, eta beste bitarteko bat bezala hartzen du eta ez justizia lortzeko bitarteko bakartzat<sup>195</sup>.

Aitzitik, epaimahaia gai zibiletara hedatzen denean, berorren aplikazioa begien bistan egoten da etengabe; interes guztiak ukitzen ditu orduan; guztiek esku hartzen dute beraren ekintzan; bizitzako usadioetan ere sartzen da horrela; giza izpiritu bere formetara makurtzen du eta justiziaren ideiarekin berarekin bat egiten du, nolabait esateko.

Beraz, epaimahaiaren erakundea, arazo kriminaletara mugatua, arriskuan dago beti; behin gai zibiletan sartuz gero, aurre egiten die denborari eta gizakien ahaleginei. Epaimahaia ingelesen ohituretatik beraien legeetatik bezain erraz kendu ahal izan balitz, Tudortarren menpe jausiko zatekeen erabat. Epaimahai zibila izan da, hortaz, Ingalaterrako libertateak benetan salbatu dituen.

Epaimahaia nolanahi aplikaturik ere, eragin handia zertzen du nazio-izaeran; baina eragin hau mugarik gabe hazten da gai zibiletan barrurago sartu ahala.

Epaimahaiak, eta epaimahai zibilak batez ere, hiritar guztien izpirituari epailearen izpirituaren azturetako batzuk emateko balio izaten du; eta aztura hauek dira, hain zuzen, herria ongien prestatzen dutenak aske izateko.

Epaitutako gauzarekiko begirunea eta zuzenbidearen ideia hedatzen ditu klase guztietara. Ken itzazue bi gauza hauek eta independentziaren maitasuna grina suntsikor bat baino ez da izango.

Ekitatearen praktika erakusten die gizakiei. Bakoitzak, bere hurkoa epaitzean, bera ere epai dezaketela pentsatzen du. Hau arlo zibileko epaimahaiak da, batez ere, egia. Ia inork ez du egunen batean prozesamendu kriminalen bat jasan dezakeen beldurrik, baina mundu guztiak izan dezake auziren bat.

Epaimahaiak pertsona guztiei beren egintzen aurrean atzera ez egiten erakusten die; jarrera adoretu hau gabe, ez dago bertute politikorik.

Nolabaiteko magistratura batez hornitzen du hiritar bakoitza; gizartearekiko betebeharrak dituztela sentiarazten die guztiei, eta partaide direla berorren gobernuan. Jendea bere arazoak ez diren beste zerbaitez arduratzen behartzen duenez, norberekoikeriaren kontra borrokatzen da, gizartearen herdoila bezala den norberekoikeriaren kontra.

Epaimahaiak ikaragarri balio du herriaren bereizmena eratzeke eta berezko jakintzargiak areagotzeko. Hori da, nire iritziz, bere abantailarik handiena. Dohainea eta beti zabalik dagoen eskolatzat hartu behar da: bertara jotzen du epaimahaiko bakoitzak bere eskubideen berri izateko, bertan sartzen da egunero komunikazioan goi-klaseetako kiderik ikasien eta ilustratuenekin, eta bertan legeak era praktikoa irakatsi eta lege horiek bere adimenaren irispidean jartzen zaizkio abokatuen ahalegin, epailearen iritzi eta auzi-alderdien grinen bidez. Uste dut amerikarren adimen praktikoa



eta zentzu politikoa, arlo zibilean epaimahaiak egin duten erabilera luzeari egotzi behar zaiola, batez ere.

Ez dakit epaimahaia onuragarria den prozesuak dituztenentzat, baina ziur nago oso onuragarria dela epaitzen dituztenentzat. Gizarteak herria hezitzeko erabil dezakeen baliabiderik eraginkorrenetako bat iruditzen zait.

Aurreko hori nazio guztiei aplikatzen zaie, baina hona hemen zer den berezia amerikarren kasuan, eta herri demokratiko guztien kasuan, oro har.

Esan dut gorago demokrazietan legelariak, eta hauen artean magistratuak, eratzen dutela herriaren mugimenduak modera ditzakeen gorputz aristokratiko bakarra. Aristokrazia honek ez du inolako botere materialik, izpirituen gain bakarrik zertzen du bere eragin kontserbadorea. Nolanahi ere, epaimahai zibilaren erakundean aurkitzen ditu bere boterearen iturburu nagusiak.

Prozesu kriminaletan, non gizarte pertsona baten aurka borrokatzen den, epaimahaiak gizarte-boterearen tresna pasiboa ikusten du epailearengan eta ez da fidatzen honen iritziez. Are gehiago, prozesu kriminalak egitate sinpletan oinarritzen dira guztiz, zentzuak erraz balora ditzakeenak. Alor honetan, epailea eta epaimahaia berdinak dira.

Ez da gauza bera gertatzen prozesu zibiletan; orduan, epailea arbitro desinteresatu gisa agertzen da alderdien grinaren artean. Epaimahaioek konfiantzaz ikusten dute, eta begirunez entzuten; zeren eta gai hauetan epailearen adimenak zeharo menperatzen baitu epaimahaikoena. Berak garatzen ditu epaimahaikoen aurrean hauen oroimena nekarazi duten argudioak, eta eskutik hartzen ditu prozeduraren zoko-mokoetan aurrera gidatzeko; bera da gertatutakora mugarazten dituen eta zuzenbide-arazoari eman beharreko erantzuna erakusten diena. Ia mugagabea da beraren eragina epaimahaikoengan.

Ba al dago esan beharrik zergatik hunkitzen nauten hain gutxi epaimahaioek arlo zibilean omen duten ezgaitasunetik ateratako argudioak?

Prozesu zibiletan, egitatezko arazoak aztergai ez diren guztietan behintzat, gorputz judizial baten itxura baino ez du epaimahaiak.

Epaileak proposatu dien epaia erabakitzen dute epaimahaioek. Epai horri, ordezkatzeko gaitasunaren aginpidea ematen diote beraiek, eta epaileak, arrazoiarena eta legearena (D).

Epaileek Ingalaterran eta Amerikan prozesu kriminalen zorian duten eragina bezalakorik sekula ez du ezagutu epaile frantsesak. Erraz ulertzen da ezberdintasun honen zergatia: magistratu ingeles edo amerikarrak arlo zibilean ezarri du bere boterea, eta beste esparru batean egikaritzea besterik ez du egiten gero; baina lortu, ez du hemen lortzen.

Badira kasuak, eta garrantzizkoenak dira sarri, non epaile amerikarrak berak bakarrik duen erabakitze eskubidea<sup>196</sup>. Orduan, behingoz, epaile frantsesa normalean aurkitzen den egoeran aurkitzen da hura; baina haren botere morala askoz handiagoa da: epaimahaiaren oroitzapenek jarraitu egiten diote oraindik, eta beraren ahotsa gizartearena bezain indartsua da ia, honen organo zirelarik epaimahaiak.

Beraren eragina auzitegien esparrutik kanpora ere hedatzen da: bizitza pribatuko atsedendietan nahiz bizitza politikoko neketan, plaza publikoan nahiz legislatiboan barnean, epaile amerikarrak etengabe aurkitzen ditu inguruan adimen handiagokoa balitz bezala begiratu ohi dioten pertsonak; eta, prozesuetan egikaritu ondoren, berarekin batera epaitzen esku hartu dutenen izpirituaren aztura guztietan eta ariman bertan ere sentiarazten da haren boterea.

Epaimahaiak, magistraturaren eskubideak murriztu egiten dituela eman arren, benetan oinarritu egiten du honen agintea, eta ez dago epaile ahaltsuagorik duen herrialderik herriak epaileen pribilegioak konpartitzen dituzteneko haiek baino.

Magistratura amerikarrak arlo zibilean epaimahaiak ematen dion laguntzaz sarrarazten du, batez ere, legelari-izpiritua deitu dudana gizarteko azken mailetaraino.

Honela, epaimahaia, herriari agintea emateko baliabiderik indartsuena izanik, agintzen irakasteko baliabiderik eraginkorrena ere bada.

## IX

### *Estatu Batuetan errepublika demokratikoari irauten laguntzen dioten kausa nagusiak*

Errepublika demokratikoak iraun egiten du Estatu Batuetan. Fenomeno honen kausak ulertaraztea izan da liburu honen helburu nagusia.

Kausa horietako batzuk albora utzi eta, ez nahi izan arren, neure gaiaren korranteak aurrera eraman nau, bidenabar aipatu baino ez ditudalarik egin urrititik. Beste batzuek ezin izan naiz arduratu, eta luze aztertu ahal izan ditudanak nire atzean gelditu dira xehetasunen azpian ezkutaturik bezala.

Beraz, urrutirago joan eta etorkizunaz hitz egin aurretik, oraina esplikatzen duten arrazoi guztiak esparru estu batean bildu behar ditudala pentsatu dut.

Laburpena bezalako honetan laburra izango naiz, zeren eta oso gainerik baino ez baitiot gogoraraziko irakurleari dagoeneko ezagutzen duena, eta oraindik azaltzeko aukerarik izan ez dudana egitateen artetik, nagusienak bakarrik aukeratuko baititut.

Estatu Batuetan errepublika demokratikoari irauten laguntzen dioten kausa guztiak hirura murriz daitezkeela iruditu zait:

Probidentziak amerikarrei eman dien egoera berezi eta akzidentala da lehena.

Legeetatik dator bigarrena.

Aztura eta ohituren ondorio da hirugarrena.

Estatu Batuetako errepublikari irauten laguntzen dioten kausa akzidental edo probidentzialak

Batasunak ez du auzokorik.- Ezta hiriburu handirik ere.- Amerikarrek jaiotzaren zoria beren alde izan dute.- Hutsik dagoen herrialdea da Amerika.- Nola zirkunstantzia honek asko laguntzen dion irauten errepublika demokratikoari.- Nola jendeztatzen diren Amerikako basa eremuak.- Angloamerikarren irrika Mundu Berriko bakarlekuez jabetzeko.- Ongizate materialak amerikarren iritzietan duen eragina.

Bada makina bat zirkunstantzia, giza borondatearekin zerikusirik gabea, Estatu Batuetan errepublika demokratikoa errazten duena. Batzuk jakinak dira, beste batzuk jakinarazteko errazak. Nagusienak azaltzera mugatuko naiz.

Amerikarrek ez dute auzokorik, eta, beraz, ezta gerra handi, finantza-krisi, hondamendi edo konkistaren beldur izan beharrik ere; ez dute behar ez zerga handirik, ez armada ugaririk, ez jeneral handirik; horiek guztiak batera baino errepublikentzat izurri arriskutsuagoa den zerbaiten -aintza militarren- beldurrik ere ez dute ia zertan izan.

Nola ukatu aintza militarrek herriaren izpirituan duen eragin itzela? Jackson jenerala, beren buru izateko amerikarrek bi aldiz aukeratua, izaera bortitz eta erdi-mailako gaitasuna duen pertsona da. Bere karrera osoan zehar ez zuen inoiz frogatu herri aske bat gobernatzeko beharrezko kualitatetik zuenik. Honela, Batasuneko klase ilustratu gehienak kontra izan ditu beti. Nork jarri du, beraz, lehendakariaren aulkian eta nork mantentzen du oraindik bertan? Duela hogeitaz urte, Orleans Berriko murrupen, lortu zuen garaipenaren oroitzapenak; nolanahi ere, Orleans Berriko garaipen hura arma-egintza oso arrunta izan zen, eta ez litzaioke jaramon handirik egingo batere gudurik ez duen herrialderen batean izan ezik; eta aintzaren ospeak honela herrestatzen duen herri

hori, munduko herri guztien artean hotzena, kalkulatzailena, izpiritu militar gutxienekoa eta, honela esan badezaket, prosaikoena izango da, ziur aski.

Amerikak ez du hiriburu handirik<sup>196</sup>, bere zuzeneko edo zeharkako eragina lurraldearen zabalera osoan sentiarazteko modukorik, eta hau iruditzen zait niri Estatu Batuetako erakunde errepublikarren iraupenaren lehen kausetako bat. Hirietan nekez eragotz daiteke jendea ados jartzea, elkarrekin berotzea eta bat-bateko erabaki grinatsuak hartzea. Hiriak batzar handiak bezala dira, biztanle guztiak direlarik batzarkide. Hirietan herriak eragin izugarria zertzen du magistratuengan, eta sarritan bitartekaririk gabe betearazten du bere borondatea.

Probintziak hiriburuaren menpe jartzea, ez da bakarrik aginterri osoaren destinoa herriaren zati baten esku jartzea, bidegabekoa den gauza, baina baita bere kabuz diharduen herriaren esku uztea ere, eta hau oso arriskutsua da. Hiriburuaren nagusitasunak kalte handia egiten dio ordezkapen-sistemari. Nagusitasun horrek errepublika modernoak antzinako errepubliken akatsetan erortarazten ditu, sistema hori ezagutu ez zutelako desagertu zirelarik guztiak.

Erraz egingo nuke hemen Estatu Batuetan errepublika demokratikoaren ezarpena bultzatu eta iraupena ziurtatzen duten bigarren mailako kausa askoren zerrenda. Baina zirkunstantzia mesedegarri ugariaren artean, bi iruditzen zaizkit nagusienak, eta berehala aipatuko ditut.

Dagoeneko esan dut aurrez Estatu Batuen egungo oparotasuna eragin ahal izan duten kausa guztien arteko lehena eta eraginkorrena amerikarren jatorrian, beraien abiapuntua deitu dudana horretan, ikusten nuela. Amerikarrek beren alde izan dute jaiotzaren patua. Aspaldi batean arbasoek ekarri zuten orain bizi direneko lurraldera baldintza- eta adimen-berdintasuna, egun batean honetatik sortuko zelarik errepublika demokratikoa berezko sorburutik bezala. Hala ere, ez da dena; gizarte-egoera errepublikarrarekin batera, errepublika lorarazteko aztura, ideia eta ohiturarik egokienak utzi zizkieten ondorengoei. Jatorrizko egitate hori zerk eragin ote zuen pentsatzen dudanean, Amerikaren destino osoa itsasertzera iritsi zen lehenengo puritanoaren baitan ikusten dut, giza endak osoa lehenengo gizakiaren baitan bezalaxe.

Estatu Batuetan errepublika demokratikoaren ezarpena bultzatu eta iraupena ziurtatu duten beste zirkunstantzia mesedegarri batzuen artean, garrantzizkoena amerikarrak bizi direneko herrialdearen beraren aukeraketa da. Berdintasun eta askatasunarekiko maitasuna eman zieten arbasoek, baina Jainkoa bera izan da, mugarik gabeko kontinente bat ematean, beren artean berdina eta aske luzaroan izateko baliabideak eman dizkiena.

Ongizate orokorrak gobernu guztien egonkortasuna sendotzen du, baina batez ere gobernu demokratikoarena, hau gehiengoaren erabakietan, eta bereziki beharrik handienak dituztenen erabakietan, oinarritzen baita. Herriak gobernatzen duenean, beharrezkoa da hau zoriontsu izatea, Estatua iraul ez dezan. Ezbeharrak sortzen du herriarengana gutziak erregeengan eragiten duena. Nolanahi ere, ongizatea sor lezaketen kausa materialak eta legeekiko independenteak ugariagoak dira Amerikan, munduko beste edozein herrialdetan historiako edozein garaitan izan direnak baino.

Estatu Batuetan, demokratikoa ez da legeria bakarrik, naturak berak ere herriarentzat lan egiten du.

Gizakiaren oroitzapenen artean, non aurkitu Ipar Amerikan gertatzen ikusten dugunaren antzekorik?

Antzinako gizarte ospetsuak herri etsaien artean sortu ziren guztiak, eta etsai haiek menperatu egin behar izan zituzten bertan ezartzeko. Gizarte modernoek ere Hego Amerikako zenbait aldetan eskualde zabalak aurkitu dituzte, berak baino gutxiago ilustraturiko jendearen populatuak, baina jadanik zoruaren jabe zirenak landu egiten

zutelako. Estatu berriak sortzeko, herri ugari suntsitu edo esklabuztatu behar izan dute, eta beren garaipenekin zibilizazioa lotsarazi dute.

Baina Ipar Amerikan tribu ibiltariak bakarrik bizi ziren, lurreko natur aberastasunak erabiltzeko asmorik ez zutenak. Zehatz esanda, artean hutsik zegoen kontinente bat zen Ipar Amerika, basa eremu bat, biztanle zain zegoena.

Guztia da apartekoa amerikarren artean, gizarte-egoera nahiz legeak; baina are apartekoagoa dena, horien oinarri den lurzorua da.

Egileak gizakiei eman zienean, lurra gazte eta agortezina zen, baina gizakiak ahul eta ezjakinak; eta lurrak bere baitan zeuzkan altxorrez baliatzen ikasi zutenerako, lurgaina estaltzen zuten jadanik, eta laster borrokan hasi behar izan zuten bertan babeslekua eduki eta askatasunean atseden hartzeko eskubidea izateko.

Orduantxe aurkitzen da Ipar Amerika, Jainkoak gorderik eduki eta uholdearen azpitik irten berria balitz bezala.

Kreazioko lehen egunetan bezala, agortzen ez den iturburutik sortutako ibaiak daude; bakarleku berde eta hezeak, alor mugagabeak laborariaren goldeak oraindik landu gabeak. Amerika egoera honetan ez zaio jadanik lehen garaietako gizaki isolatu, ezjakin eta barbaroari eskaintzen, naturako sekreturik garrantzizkoenen jabe den gizakiari baizik, bere antzekoekin elkarturik dagoen eta berrogeita hamar mendetako esperientzia duenari.

Mintzo naizen une honetan, hamahiru milioi europar zibilizatu ari dira hedatzen lasai asko basa eremu emankorretan, berauen baliabideak eta hedadura oraindik zehazki ezagutu gabe. Haien aurretik, hiruzpalau mila soldaduk daramate bultzaka bertakoen enda ibiltaria; jende armatuaren atzetik, egurgileak dabilta: basoak irekitzen dituzte, piztia basatiak uxatzen, ibaibideak esploratzen eta zibilizazioaren garaipenezko ibilia prestatzen dute eremuan zehar.

Obra honetan zehar, sarri aipatu dut amerikarrek duten ongizate materiala; haien legeen arrakastaren kausa handietariko bat bezala azpimarratu dut, gainera. Makina batek emana zuen arrazoi hori nire aurretik. Nolabait ere europarron zentzumenetatik sartu delako edo, gure artean oso ezagun bihurtu den bakarra da. Ez naiz, beraz, luzatuko hain sarri aztertua eta hain ongi ulertua den gai batean; datu berri batzuk bakarrik erantsiko ditut.

Eskuarki, Amerikako eremuak migrari europarren laguntzaz jendeztatzen direla imajinatzen dugu, urtero Mundu Berriko itsasertzetara iristen direlarik, biztanleria amerikarra arbasoek okupaturiko zoruan hazten eta ugaltzen den bitartean. Oso ikuspegi okerra da hori. Estatu Batuetara iristen den europarra lagunik eta sarritan baliabiderik gabe iristen da hara; bizi ahal izateko, bere zerbitzuak alokatu behar izaten ditu, eta nekez gainditzen du Ozeanoaren luzeran dagoen industrialde handia. Ezin da basa eremua goldatu kapitalik edo krediturik gabe; basoetan zehar arriskatu aurretik, gorputza ohitu beharra dago klima berri baten lazkerietara. Amerikarrak dira, beraz, beren jaioteritik etengabe irten eta jabego zabalak sortzera urrutira doazenak. Honela, europarra bere etxolatik irten eta Atlantikoaz bestaldeko itsasertzetara doa bizitzera, eta itsasertzotan jaiotako amerikarra, berriz, Ertamerikako bakarlekuetan barrena sartzen da. Migrazio-mugimendu bikoitz hau ez da sekula amaitzen: Europaren barruan hasten da, Ozeano handiaren gainetik jarraitu eta Mundu Berriko bakarlekuetan zehar segitzen du. Milioika pertsona doaz aldi berean zeru-ertzeko puntu bererantz: beren hizkuntza, erlijio eta ohiturak ezberdinak dituzte, baina helburua komuna. Esan zaie nonbait mende baldera dagoela aberastasuna, eta presaka doaz harantz.

Ezer ez dago gizadiaren etengabeko desplazamendu horren parekorik, Erromako inperioa erori ondoren gertatutakoa izan ezik agian. Gaur egun bezalaxe, orduan ere saldoan puntu bererantz lasterka joan eta arrapaladan puntu beretsuetan elkartu zen

jendea; baina Probidentziaren asmoak bestelakoak ziren. Etorri berri bakoitzak suntsipena eta heriotza zeramatzan berekin; gaur egun horietako bakoitzak oparotasun eta bizi-hazia darama berekin.

Amerikarrek mendebalderantz duten migrazio honen ondorio urrunak oraindik ezkutatu egiten dizkigu etorkizunak, baina erraz imajinatzekoak dira berehalako emaitzak: jaio zireneko estatuetatik urtero biztanle zaharretako batzuk urruntzean, estatu hauek oso astiro jendetzatzen dira, nahiz eta zahartuz joan; honela, Connecticuten, oraindik ere milia karratuko berrogeita hemeretzi biztanle bakarrik dituelarik, biztanleria laurden bat bakarrik hazi da azken berrogei urteotan, eta denbora berean Ingalaterrakoa heren bat gehitu da. Europako migraria erdi hutsik dagoen herrialde batera iristen da beti, non eskulana falta zaion industriari; bizimodu erosoko langile bihurtzen da; beraren semea herrialde huts batera joaten da aberastasun bila, eta jabe aberats bihurtzen da. Bigarrenak erabiltzen duen kapitala metatzen du lehenak, eta ez dago lazeriarik ez atzerritarraren, ez bertan jaioaren etxean.

Estatu Batuetan legeriak ahal den guztia bultzatzen du jabetzaren zatiketa; baina legeria baino kausa ahaltsuago batek eragotzi egiten du jabetza neurririk gabe zatitzea<sup>197</sup>. Hau garbi ikusten da azkenengo betetzen hasi diren estatuetan. Massachusetts da Batasuneko herrialderik jendetsuena; milia karratuko laurogei biztanle daude bertan, Frantzia baino askoz ere gutxiago, hemen ehun eta hirurogeita bi baitaude espazio berean.

Hala ere, jadanik arraroa da Massachusettsen jabetza txikiak zatitzea. Eskuarki zaharrenak hartzen du lurra; gazteagoek basa eremura jotzen dute aberastasun bila.

Legeak abolitu egin du lehenseme-eskubidea; baina esan daiteke Probidentziak berriro ezarri duela, inork ez duelarik zertaz kexatu, eta oraingoan behintzat ez dio justiziarik kalterik egiten.

Datu bakar bat aski izango da ulertzeko zenbat jende irteten den horrela Ingalaterra Berritik bere bizilekua basa eremura eramateko. Ziurtatu zaigunez, 1830ean Kongresuko kideen artean hogeita hamasei ziren Connecticuteko estatu txikian jaioak. Connecticuteko biztanleriak, Estatu Batuetakoaren aldean berrogeita hiru partetik bat bakarrik izanik, ordezkarien zortzirena ematen zuen, beraz.

Connecticuteko estatuak berak, hala ere, bost diputatu bakarrik bidaltzen ditu Kongresura; gainerako hogeita hamaikak mendebaldeko estatu berrien ordezkari gisa agertzen dira han. Hogeita hamaika pertsona hauek Connecticuten gelditu izan balira, jabe aberatsak izan ordez, agian laborari txiki izaten jarraituko zuketena, karrera politikorik egin ezinik ilunbetan biziko ziratekeen, probetxuzko legegile izatera iritsi gabe, hiritar arriskutsu izango ziratekeen.

Gure gogoeta hauek ez dira amerikarren izpirituarentzat ere ezezagun.

"Ukaezina da, dio Kent kantzilerrak bere *Zuzenbide amerikarrari buruzko Tratatu* delakoan (IV. bol., 380. or.), jabegoen zatiketak kalte handiak eragingo dituela muturrera eramaten bada, lurzati bakoitzak ezingo baitu familia bat mantentzeko adina eman; baina eragozpen hauek sekula ez dira sumatu Estatu Batuetan, eta belaunaldi asko igaroko dira sumatu orduko. Gure lurralde jendegabearen zabalera itzela, inguruko lurraren ugaritasuna eta migrazio-korrante iraunkorra -Atlantikoaren ertzetatik abiatuz herrialdearen barrualdera etengabe doana- aski dira eta oraindik aski izango dira luzaroan ondareen zatikapena eragozteko".

Zaila izango litzateke adieraztea zelako irrikaz oldartzen den amerikarra zoriak eskaintzen dion harrapakin handi horren gainera. Hori lortzearen, beldurrik gabe egiten die aurre indioaren geziari eta basa eremuko gaixotasunei; basoetako isiltasunak ez du izutzen, basapiztien hurbiltasunak ez dio zirrarak eragiten; bizitzeko gogoia baino grina ahaltsuago batek akuilatzen du etengabe. Ia mugarik ez duen kontinentea zabaltzen zaio aurrean, eta esan liteke, lekurik gabe gelditzeko beldurrez, presaka ibiltzen dela

beranduegi ez iristeko. Antzinako estatuetako migrazioaz hitz egin dut; baina zer esan berrietakoaz? Ez dira berrogeita hamar urte igaro Ohio sortu zenetik; biztanle gehienak ez dira bertan jaioak; hiriburuak ez ditu hogeita hamar urte ere, eta egundoko basa eremu zabalek estaltzen dute oraindik lurralde hura; hala ere, dagoeneko hasia da Ohioko biztanleria mendealderantz joaten. Illinoisko zelai emankorretara jaisten diren gehienak Ohioko biztanleak dira. Pertsona hauek beren lehen aberritik irten ziren ongizatearen bila; bigarrenetik ere irten egin dira are hobeto bizitzeko. Ia alde guztietan aurkitzen dute aberastasuna, baina ez zoriona. Ongizatearen desira grina urduri eta sutsu bihurtu zaie, ase ahala areagotzen zaiena. Aspaldi eten zituzten jaio ziren lurraldearekiko lokarriak; geroztik ez dute besterik sortu. Beraientzat, migrazioa behar bat izan zen hasieran; gaur egun, beraien ikuspegitik azare-joko bilakatu da, honen zirrarak irabaziak beste maite dituztelarik.

Batzuetan, gizakia hain bizkor doanez aurrera, basa eremua berriro agertzen da beraren atzean. Oihana makurtu baino ez da egiten haren hankapean; gizakia igaro ondoren, berriro altxatzen da. Mendealdeko estatu berrietatik ibiltzean, ez da arraroa izaten basoen erdian bertan behera utzitako bizilekuak aurkitzea; sarritan etxola baten aztarnak aurkitzen dira bakardaderik handienez, eta harrigarria gertatzen da lantzen hasitako lurrak zeharkatzea, aldi berean giza ahalmenaren eta aldakortasunaren lekuko baitira. Soro abandonatuon erdian, egun bateko hondakinon gainean, antzinako oihana laster ernaberritzen da; animaliak beren aginte-eremuaz jabetzen dira berriro. Natura irribarretsu etortzen da gizakiaren aztarnak adar berdez eta lorez estaltzera, eta honen arrasto iragankorrak desagertarazten lehiatzen da.

Gogoan dut, New Yorkeko estatuan oraindik ere badiren kantonamendu hutsetako bat zeharkatzean, munduaren hasieran bezala dena oihanez inguratutik zegoen laku-ertz batera iritsi nintzela. Uharte txiki bat zegoen uraren erdian. Bertan zegoen basoak, bere hostaia inguru guztian zabalduz, erabat estaltzen zizkion ertzak. Laku-ertzean ezerk ez zuen adierazten gizakiaren presentziarik; zerumugan bakarrik begiztatzen zen ke-adar bat: zuhaitzen gainetik hodeietaraino zuzen-zuzen zihoanez, gehiago zirudien zeru goitik zintzilika zegoela behetik gora zihoala baino.

Hondarretan botata indioen piragua bat zegoen; hura erabili nuen hasieratik nire begirada erakarri zuen uharte bisitatzen joateko, eta laster nintzen beraren ertzean. Uharte osoa Mundu Berriko bakarleku zoragarri horietako bat zen, gizaki zibilizatuari ia basa bizitzaren irrika sortarazten dion horietakoa. Landaretza joriak bere miragarrien bidez zoruko aberastasun paregabeak iragartzen zituen. Ipar Amerikako basa eremu guztietan bezalaxe, isiltasun sakona zen han nagusi, pagausoan urruna monotonoak edo arbolan azalean okil berdeak emandako kolpeek bakarrik etena. Ez nukeen inola ere sinetsiko leku hura antzina jendeztatua egon zenik, naturak zeharo bere kasa utzia ematen baitzuen; baina, uhartearen erdira iristean, bat-batean gizakiaren aztarnak aurkitu nituela iruditu zitzaidan. Orduan arretaz aztertu nituen inguruko gauza guztiak, eta laster ziur egon nintzen europarren bat joana zela leku hartara babes bila. Baina zein itxuraldatua zegoen beraren egintza! Bere aterpea egiteko hark aspaldi presaka eraitsitako basoa ernaberritua zen gero; haren hesiak palaxu bilakatuak ziren, eta haren etxola basotxo bihurtua. Sastraka artean, sumatzen zen oraindik suak beztutako harririk, errauts-metatxo baten inguruan sakabanatuta; dudarik gabe, sukaldeari zegokion toki hura; tximiniak, behera erortzean, hondakinez estalia zeukan. Pixka batean isilik miretsi nituen naturaren baliabideak eta gizakiaren ahulezia; eta azkenean, leku liluratu haietatik aldendu behar izan nuenean, tristuraz errepikatzen nuen: "Horra! Hondakinak dagoeneko!"

Europar gizarte-arrisku handitzat jo ohi ditugu izpirituaren egonezina, aberastasunen irrika neurrigabea, independentzi zaletasun handia. Hain zuzen ere, gauza hauek guztiak

dira errepublika amerikarrei etorkizun luze eta baketsua bermatzen dietenak. Grina urduri hauek gabe, jendetza halako leku batzuen inguruan bilduko litzateke, eta laster, gure artean bezalaxe, beharizan asegaitzak sentituko lituzke. Zorioneko herrialdea Mundu Berria, non gizakiaren bizioak ia beraren bertuteak bezain onuragarri baitira gizartearentzat!

Honek eragin handia zertzen du bi hemisferioetan giza ekintzak epaitzeko eran. Sarritan amerikarrek industria laudagarri deitzen diote guk irabazi-nahia deritzogunari, eta haiek nolabaiteko bihotz-ahulezia ikusten dute guretzat desira-neurritasuna den horretan.

Frantzia gustu-sinpletasuna, ohitura-lasaitasuna, famili izpirituak eta jaioterriaren maitasuna, estatuarentzako lasaitasun eta zorionaren garantia handitzat hartzen dira; baina Amerikan ezerk ez dirudi gizartearentzako kaltegarriago horrelako bertuteek baino. Kanadako frantsesek, antzinako ohituren tradizioak zintzo gorde dituztenek, dagoeneko badute zailtasunik beren lurraldean bizitzeko, eta jaio berri den herri txiki hau ere laster harrapatuko dute nazio zaharretako miseria berberak. Kanadan jakintzargi, abertzaletasun eta gizatasun gehien dutenek ikaragarritzko ahaleginak egiten dituzte herria nazka dadin oraingoz aski zaion zorion sinple horretaz. Aberastasunaren abantailak ospatzen dituzte, agian gure artean kaxkarkeria zintzo baten xarmak laudatuko lituzketen bezalaxe, eta arreta handiagoa jartzen dute giza grinak akuilatzen beste alde batzuetan horiek baretzeko egiten den ahalegina baino. Aberriak behartsuari berari ere eskaintzen dizkion plazer garbi eta lasaien orde, ongizateak atzerriko zerupean ematen dituen gozamen agorrek aukeratzea; gurasoen etxetik eta arbasoak dautzaneko lurretatik ihes egitea; aberastasunen atzetik lehiatzeko bizi direnak eta hildakoak bertan behera uztea, ez dago ezer gauza horiek baino laudagarriagorik haien ikuspegirako.

Gaur egun, Amerikak askoz ere esparru zabalagoak eskaintzen dizkio jendeari, ustiatzeko behar den industria baino.

Amerikan, beraz, ezingo litzateke jakintzargi gehiegi eman, zeren eta, jakintzargi guztiak, dauzkanarentzat onuragarri izan daitezkeen aldi berean, ez dauzkanarentzat probetxugarri ere bihurtzen baitira. Han ez dago zertan izan premia berrien beldur, eragozpenik gabe asetzen baitira behar guztiak. Han ez dago grina gehiegi sortarazteko beldur ere izan beharrik, grina guztiek aurkitzen baitute elikagai erraz eta osasuntsua; han ez dago gizakiak askeegi egiterik, ez baitute ia inoiz askatasunaz gaizki baliatzeko tentaziorik izaten.

Gaur egungo errepublika amerikarrak negoziolarien konpainiak bezala dira, Mundu Berriko lurralde hutsak amankomunean ustiatzeko eratuak eta gero eta oparoagoa den merkataritzan dihardutenak.

Amerikarrak sakonenean asaldatzen dituzten grinak merkataritza-grinak dira eta ez grina politikoak, edota, hobeto esateko, negozio-azturak eramaten dituzte politikara. Ordena maite dute, hau gabe ezingo luketelarik negozioek aurrera egin, eta bereziki baloratzen dute ohitura-erregulartasuna, familia onen oinarri dena; nahiago izaten dute zentzua, aberastasun handiak sortzen dituen, jeinua baino, honek sarritan xahutu egiten baititu. Ideia orokorrekin izutu egiten dituzte haien izpirituak, kalkulu positiboetara ohiturik baitaude, eta haien artean praktika ohoratuagoa da teoria baino.

Amerikara joan behar da ulertzeko ongizate materialak zer-nolako boterea zertzen duen ekintza politikoen gain, baita iritzien beren gain ere, nahiz eta hauek arrazoiaren menpe bakarrik egon beharko luketen. Hau egia dela atzerritarren artean ohartzen da, batez ere. Europako migrari gehienek Mundu Berrira eramaten dute independentzia eta aldaketaren maitasun basati hau, gure ezbeharren artean hain sarri sortzen dena. Batzuetan aurkitzen nituen Estatu Batuetan iritzi politikoengatik aspaldi beren herrialdetik ihes egin beharra izan zuten europarrak. Guztiek uzten

ninduten harrituta beren hizkeraz, baina batek txunditu ninduen beste guztiek baino gehiago. Pennsylvaniako barrutirik urrutienetako bat zeharkatzen ari nintzela, gauak harrapatu ninduen, eta landatzaile aberats baten etxera joan nintzen babes eske: frantsesa zen. Sutondoan eserarazi ninduen, eta solasean hasi ginen askatasun osoz, beren jaioteritik bi mila lekoatara baso baten barrenean elkarrekin topo egiten duen jendeari dagokion bezala. Nik banekien nire ostaria berdintasunaren oso aldekoa eta demagogo sutsua izana zela berrogei urte lehenago. Beraren izena historian geratua zen.

Beraz, izugarri harritu ninduen jabetza-eskubideaz ekonomilari batek -ia esan nuen jabe batek- bezalaxe hitz egiten zuela entzuteak; zoriak gizakien artean ezartzen duen beharrezko hierarkiaz hitz egin zuen, ezarritako legeari zor zaion obedientziaz, ohitura onek errepubliketan duten eraginaz, eta ideia erlijiosoek ordenari eta askatasunari ematen dieten laguntzaz. Oharkabea bezala, Jesukristoren aginpidea aipatzeraino iritsi zen, bere iritzi politiko baten alde.

Hari entzutean, giza arrazoiaren ahultasuna miresten nuen. Gauza bat egiazkoa ala gezurrezkoa da: nola jakin zientziaren ez bai eta esperientziaren irakaspen ezberdinen artean? Nire zalantza guztiak uxatzen dituen gauza berri bat gertatzen da. Behartsu nintzen, eta hona hemen aberastuta. Ongizateak, nire jokabidean eragitean, bereizmena aske utziko balit gutxienez! Baina ez, aberastasunarekin batera iritziak ere aldatu egin zaizkit, eta nire onurarako izan den zorioneko gertakarian aurkitu dut benetan ordura arte falta zitzaidan erabateko arrazoia.

Ongizatearen eragina are askeago zertzen da amerikarrengan atzerritarrengan baino. Amerikarrak beti elkaturik eta aldi berean ibiltzen ikusi izan ditu bere aurrean ordena eta oparotasun publikoa; ez zaio buruan sartzen bananduta egon daitezkeenik. Ez du, beraz, zertan ahaztu ezer, eta ez du zertan galdu, europar askok bezala, bere lehen hezkuntzan harturikoa.

Legeen eragina Estatu Batuetako errepublika demokratikoaren iraupenean

Errepublika demokratikoaren iraupenaren hiru arrazoi nagusi.- Forma federala.- Udal-erakundeak.- Botere judiziala.

Liburu honen helburu nagusia Estatu Batuetako legeak ezagutaraztea zen; helburu hori lortu baldin badut, dagoeneko irakurleak berak erabakia izango du lege horien artean zeintzuk diren errepublika demokratikoaren iraupenerako benetan lagungarri direnak eta zeintzuk arriskuan jartzen dutenak. Liburu osoan zehar hau ez badut lortu, are gutxiago kapitulu batean.

Ez dut, beraz, berririo abiatu nahi dagoeneko egina dudan bidetik, eta lerro banaka batzuk aski izango dira laburtzeko.

Badirudi hiru gauza direla Mundu Berrian beste guztiak baino lagungarriago errepublika demokratikoaren iraupenerako:

Lehena, amerikarrek onartu duten forma federala, horrela Batasuna gai baita errepublika handi baten boterea izateko, baita txikiaren segurtasuna ere.

Bigarrena, gehiengoaren despotismoa eztatzen duten udal-erakundeak, herriari askatasun-zaletasuna eta, aldi berean, aske izateko artea ematen diotenak.

Hirugarrena botere judizialaren eraketa da. Erakutsi dut zenbateraino balio duten auzitegiek demokraziaren desbiderapenak zuzentzeko, eta, gehiengoaren mugimenduak inoiz geldiaraztera iritsi gabe, nola lortzen duten horiek mantsotu eta gidatzea.

Ohituren eragina errepublika demokratikoak iraun dezan Estatu Batuetan

Esan dut gorago ohiturak iruditzen zitzaizkidala Estatu Batuetan errepublika demokratikoari iraunarazten dioten kausa orokor handietariko bat.

Hemen *ohiturak* esatean, antzinakoek *mores* hitzari ematen zioten zentzuan hartzen dut; ez diet ohitura-ohiturei bakarrik aplikatzen, bihotz-azturak dei daitezkeenei alegia, baita



gizakien nozio ezberdinei, beraien artean dabilzan iritzi ezberdinei eta izpirituaren azturak eratzen dituzten ideia guztiei ere.

Hitz honetan, beraz, herri baten egoera moral eta intelektual osoa sartzen dut. Nire helburua ez da ohitura amerikarren deskribapena egitea; haien artean erakunde politikoen iraupenerako mesedegarri dena ikertzea mugatzen naiz une honetan.

Erljioak, erakunde politikotzat harturik, zelako balio indartsua duen amerikarren artean errepublika demokratikoari iraunarazteko

Ipar Amerika, kristautasun demokratiko eta errepublikarra zeukatenek jendeztatua.- Katolikoen etorrera.- Gaur egun zergatik osatzen duten katolikoek klaserik demokratikoen eta errepublikarrena.

Erljio bakoitzaren ondoan iritzi politiko bat egoten da, kidetasunez berari atxikia dagoena.

Utziozue giza izpirituari bere joerari jarraitzen, eta era bat berean arautuko ditu gizarte politikoa eta jainko-hiria; ausartzen banaiz esatera, lurra zeruarekin *harmonizatzen* saiatuko da.

Amerika ingelesaren zatirik handiena jendeztatu zutenak, aita santuaren aginpidetik ihes egin ondoren, inolako erljio-nagusitasunen menpe egon gabeak ziren; hortaz, Mundu Berrira eraman zuten kristautasuna, demokratikoa eta errepublikarra zela esanda baino hobeto ezingo nuke azaldu, eta hau bereziki lagungarria gertatu zen arazo publikoetan errepublika eta demokrazia ezartzeko. Hasieratik, politika eta erljioa bat etorri ziren, eta geroztik horrela jarraitu dute beti.

Gutxi gora-behera duela berrogeita hamar urte hasi zen Irlanda jendetza katolikoa Estatu Batuetara bidaltzen. Bere aldetik, katolizismo amerikarrak proselitoak egin zituen. Gaur egun Batasunean milioi bat kristau baino gehiagok aitortzen ditu Erromako elizaren egiak.

Katoliko hauek leialtasun handikoak dira beren kultu-egintzetan, eta gogobero eta sugartsuak beren sineskizunekiko; hala ere, Estatu Batuetan dagoen klaserik errepublikarren eta demokratikoen osatzen dute. Hau harrigarria gertatzen da lehen begiratuan, baina hausnartuz gero erraz aurkitzen dira ezkutuko kausak.

Erljio katolikoa demokraziaren berezko etsaitzat hartzea okerra dela iruditzen zait. Aitzitik, kristau-doktrina ezberdinen artean, katolizismoa iruditzen zait baldintza-berdintasunaren aldekoenetakoa bat. Katolikoen artean, gizarte erlijiosoa bi elementuz bakarrik osatzen da: apaiza eta herria. Apaiza bakarrik dago fededunen gainetik; beraren azpian dena berdina da.

Dogma-gaietan, katolizismoak maila berean jartzen ditu adimen guztiak; sineskizun berberen xehetasunetara makurrarazten ditu jakintsua nahiz ezjakina, jeinu handia nahiz pertsona arrunta; praktika berberak ezartzen dizkio aberatsari zein behartsuari, laztasun berberak jasanarazten ahaltsuari edo ahulari; ez dio trikimainarik onartzen inori eta, gizaki guztiei neurgailu bera aplikatzean, gizarte-klase guztiak aldare beraren aurrean nahastea gustatzen zaio, Jainkoaren aurrean nahasturik dauden bezalaxe.

Katolizismoak fededunak obedientziara bideratzen baditu ere, ez ditu ezberdintasunerako prestatzen. Kontrakoa esango nuke protestantismoaz, honek orokorrean independentziara baino askoz gutxiago eramaten baitu jendea berdintasunera.

Katolizismoa monarkia absolutu bat bezala da. Kendu printzea, eta baldintzak errepubliketan baino berdinaok dira horietan.

Sarritan gertatu izan da apaiz katolikoa santutegitik irten dela gizartean botere bat bezala sartzeko, eta gizarte-hierarkiaren erdian eseri dela; horrelakoetan, batzuetan, bere eragin erlijiosoaz baliatu da ordena politiko baten iraupena ziurtatzeko, bera ere ordena

horretako partaide izanik. Halaber, orduan ikusi ahal izan dira katoliko batzuk aristokraziaren alde, erlijio-izpirituz.

Baina behin apaizak gobernutik aldenarazi ondoren edo berez aldendu ondoren, Estatu Batuetan bezala, ez dago pertsonarik, bere sineskizunengatik, katolikoak bezain prest dagoenik baldintza-berdintasunaren ideia politika-arlorra ekartzeko.

Nahiz eta Estatu Batuetako katolikoak ez izan beren sineskizunen izaeragatik iritzi demokratiko edo errepublikarretara bortizki eramanak, berez ez dira behintzat hauen aurkako ere, eta beren gizarte-posizioak eta kopuru txikiak lege bihurtzen diete horiek onartzea.

Katoliko gehienak behartsuak dira, eta hiritar guztien gobernua behar dute eurak ere gobernura iristeko. Katolikoak gutxiengo dira, eta eskubide guztiak errespetatzea behar dute beren eskubideak aske erabili ahal izango dituztela ziurtatzeko. Bi kausa hauek bultzatzen diete, konturatu ere egin gabe, doktrina politiko jakin batzuetarantz, aberats eta gehiengo izango balira hain gogo beros onartuko ez lituzketenak agian.

Estatu Batuetako klero katolikoa ez da saiatu joera politiko horren kontra borrokatzen; gehiago ahalegintzen da justifikatzen. Amerikako apaiz katolikoek bitan zatitu dute adimen-mundua: batean dogma errebelatuak utzi dituzte, eztabaidatu gabe onartuz; bestean egia politikoa ezarri dute, eta pentsatzen dute gizakiek libre ikertu dezaten utzi duela Jainkoak. Honela, Estatu Batuetako katolikoak fededunik menpekoenak eta hiritarrik independenteenak dira aldi berean.

Esan daiteke, beraz, Estatu Batuetan ez dagoela erlijio-doktrina bakar bat ere erakunde demokratiko eta errepublikarren kontra agertzen denik. Han klero guztiek dute hizkera bera; han iritziak bat datoz legeekin, eta, nolabait esateko, ez dago korrante bakarra baino giza izpirituan.

Behin-behinean Batasuneko hiririk handienetako batean bizi nintzela, bilera politiko batera gonbidatu ninduten; poloniarrei laguntzeko helburua zuen, armak eta dirua bidaliz.

Bizpahiru mila pertsona aurkitu nituen beraientzako prestatua izan zen areto zabal batean. Laster, apaiz bat, bere eliz jantziekin, hizlariantzako zegoen mintzalekura aurreratu zen. Bildutakoak, kapelak kendu ondoren, zutik gelditu ziren isilik, eta honela hitz egin zuen apaizak:

"Jainko Ahalguztiduna! Armaden Jainkoa! Zuk, gure gurasoak independentzia nazionalaren alde ari zirenean, beraien bihotzari eutsi eta besoa gidatu zenuen horrek; zuk, zapalkuntza higuingarriaren gain garaipena, eta gure herriari bakearen eta askatasunaren onura eman diozun horrek; oi Jauna!, begira ezazu onginahiz beste hemisferiorantz; begiraiozu errukiz herri heroiko bati, guk antzina egin genuen bezalaxe eta eskubide berberen alde gaur egun borrokan ari den herriari! Jauna, gizaki guztiak eredu beraren arabera egin dituzuna, ez ezazu onar despotismoak zure egintza desitxuratu eta lurgainean desberdintasunari irauaraztea. Jainko ahalguztiduna! Zain ezazu poloniarren destinoa, egin itzazu aske izateko duin; izan bedi zure jakinduria nagusi haien batzarretan, eta bego zure indarra haien besoetan; zabaldu izua haien etsaien gain, sakabana itzazu haien hondamendia nahi duten botereak, eta ez utzi berrogeita hamar urteotan munduak ikusi duen bidegabekeria orain burutzen. Jauna, herrien nahiz gizakien bihotza zure esku ahaltsuan daukazun horrek, sortaraz itzazu bidezko eskubidearen kausa sakratuaren aliatuak; altxa dadila azkenean nazio frantsesa eta, buruzagiek eragindako lozorrotik ateraz, berriro ere borroka dadila munduko askatasunaren alde.

"Oi Jauna! Ez iezaguzu inoiz zure aurpegia ezkuta, eta izan gaitezela beti herririk erlijioetsuena eta askeena.

"Jainko ahalguztiduna, entzun gaur gure otoitza; salba poloniarrek. Gizaki guztion salbamenerako gurutzan hil zen zure seme maitearen, Jesukristo gure Jaunaren, izenean eskatzen dizugu. *Amen*".

Batzar osoak *amen* errepikatu zuen barne-bildutasun handiz.

Estatu Batuetako gizarte politikoan erlijio-sineskizunek duten zeharkako eragina

Kristautasunaren moralak, sekta guztietan dagoena.- Erlijioaren eragina amerikarren ohituretan.- Ezkon-loturarekiko begirunea.- Nola ixten duen erlijioak amerikarren irudimena muga batzuen barnean eta nola moderatzen duen beraien berritzeko grina.- Amerikarren iritzia erlijioaren erabilgarritasun politikoaz.- Egiten dituzten ahaleginak erlijioaren agintea hedatu eta ziurtatzeko.

Oraintxe azaldu dut erlijioak politikan duen zuzeneko eragina Estatu Batuetan. Are indartsuagoa iruditzen zait berorren zeharkako eragina, eta askatasunaz hitz egiten ez duenean orduan irakasten die ongien amerikarrei aske izateko artea.

Sekta-kopuru ikaragarria dago Estatu Batuetan. Guztiek iritzi ezberdinak dituzte Egileari eman behar zaion kultuaz, baina denak bat datoz gizakiek elkarrenganako dituzten eginbeharretan. Beraz, sekta bakoitzak bere erara gurtzen du Jainkoa, baina sekta guztiek moral berbera predikatzen dute Jainkoaren izenean. Gizabanakoarentzat bere erlijioa egiazkoa izatea oso garrantzizkoa bada ere, ez da hori horrela gizararentzat. Gizarteak ez du beste bizitzaren inolako beldur edo itxaropenik; eta gehien axola zaiona ez da hiritarrek egiazko erlijioari jarraitzea, erlijioaren bat izatea baizik. Bestalde, Estatu Batuetako sekta guztiek bat egiten dute kristau-batasun handian, eta kristautasunaren moralak berbera da alde guztietan.

Zilegi da pentsatzea amerikar batzuek, Jainkoari ematen dioten kultuan, beren uste sendoei baino gehiago azturei jarraitzen dietela. Bestalde, Estatu Batuetan aginte subiranoa erlijiosoa da, eta ondorioz hipokresia gauza arrunta izan behar; baina, hala ere, Amerikan du kristau-erlijioak arimen gain beste inon baino ahalmen handiagoa; eta gizakiarentzat zein onuragarri eta naturala den, beste ezerk baino hobeto erakusten du honek: gaur egun erlijio horrek aginte handiena duen herrialdea da aldi berean ilustratuen eta askeen ere.

Esan dut apaiz amerikarrak askatasun zibilaren aldeko direla orokorki, erlijio-askatasuna onartzen ez dutenak ere salbuetsi gabe; hala ere, ez diote beren laguntza inolako sistema politikori bereziki ematen. Arazo publikoetatik kanpo gelditzeaz arduratzen dira, eta ez dira alderdien jokoan sartzen. Ezin da esan, beraz, Estatu Batuetan erlijioak legeetan eragiten duenik, ezta iritzi politikoen xehetasunetan ere, baina bai ohiturak gidatzen dituela, eta familia arautuz lan egiten duela Estatua arautzen. Ez dut inolako zalantzarik Estatu Batuetan nabari den ohitura-zorroztasunak sineskizunetan duela bere lehen sorburua. Han sarritan erlijioak ezin izaten dio gizakiari eutsi, zoriak aurkezten dizkion tentazio ugarien erdian. Ezin du gauza guztiek akuilatzen duten aberasteko irrika hori baretu, baina erabateko nagusitasuna du emakumearen ariman, eta emakumea da ohiturak egiten dituenak. Amerika da ziur aski ezkon-loturarekiko begirunerik handiena duen munduko herrialdea, eta ezkon-zorionaren ideia goren eta zuzenena duena.

Europar gizarteko desordena ia guztiak etxe inguruan sortzen dira, eta ez ezkon-ohetik urrun. Jendeari hor bururatzen zaizkio berezko loturen eta zilegizko plazerren mesprezua, desordenaren zaletasuna, bihotz-kezka eta desiren egonkortasunik eza. Bere egoitza sarri nahaspilatu duten grina zalapartatsuek asaldua, europarra gogoz kontra baino ez da jartzen Estatuko botere legeegileen menpe. Amerikarra politika-arloko asalduretatik irten eta familiaren baitara itzultzen denean, han ordenaren eta bakearen irudia aurkitzen du berehala. Han plazer guztiak xume eta naturalak dira, pozak

hobengabe eta bareak; eta zoriontasunera bizitzako erregulartasunez iristen denez, nekerik gabe ohitzen da bere gustuak eta iritziak ere arautzera.

Etxeko atsekabeetatik ihes egiteko europarra gizartea astintzen saiatzen den bitartean, amerikarrak ordenaren maitasuna aurkitzen du bere egoitzan, ondoren estatu-arazoetara pasarazten duena.

Estatu Batuetan, erlijioak ez ditu ohiturak bakarrik arautzen, baita adimenaren gain ere hedatzen du bere agintea.

Angloamerikarren artean, batzuek sinesten dutelako aitortzen dituzte kristau-dogmak, beste batzuek sinesten ez duten itxura ematearen beldur direlako. Kristautasuna nagusi da eragozpenik gabe, guztiek aitortzen dute eta; ondorioz, beste nonbait esan dudana bezala, dena ziur eta tinkoa da moralaren arloan, nahiz eta politika-arloak badirudien jendearen eztabaida eta probetara utzia dagoela. Honela, giza izpirituak sekula ez du bere aurrean mugarik gabeko alorrik ikusten. Edozelakoa izanik ere bere ausardia, hesi gaingaitzen aurrean gelditu egin behar duela sumatzen du noizean behin. Berritzen hasi aurretik, beharturik dago oinarritzko printzipio batzuk onartzera eta bere ideiarik gogorrenak mantsotu eta geldiarazten dizkioten forma jakin batzuen menpe jartzera.

Amerikarren irudimena, bere gehiegikeriarik handienetan ere, ziurtasunik gabea izango da, baina zuhurra; ibilera oztopotua du, eta egintzak osagabeak. Moderazio-aztura hauek gizarte politikoan aurkitzen dira berriro, eta bereziki mesedegarriak dira herriaren lasaitasunerako, baita bere buruari eman dizkion erakundeen iraupenerako ere. Naturak eta zirkunstantziek ausarti bihurtua zuten Estatu Batuetako biztanlea; erraz froga daitekeen gauza da, aberastasunaren atzetik nola joaten den ikusiz. Amerikarren izpiritua traba guztietatik libre balego, laster aurkituko lirateke beraien artean munduko berritzailearik gogorrenak eta munduko logikaririk zorrotzenak. Baina Amerikako iraultzaileak beharturik daude kristau-moral eta ekitatearekiko halako begirune bat nabariki aitortzera, eta honek ez die uzten legeak erraz hausten beraien egitasmoen kontrakoak direnean; eta beren eskrupuluen gainetik jartzeko gai balira, hala ere beretarren eskrupuluek geldiarazita sentituko lirateke. Gaur arte inor ez da aurkitu Estatu Batuetan maxima hau aldarrikatzera ausartu denik: dena zilegi da gizartearen interesagatik. Fedegabeen maxima, askatasun-mende batean asmatua dirudiena, etorkizuneko tirano guztiak legitimatzeko.

Honela, bada, herri amerikarrari legeak dena egiten uzten dion bitartean, erlijioak edozer gauza asmatzea eragozten dio eta edozertara ausartzea galarazten.

Erljioa, gizartearen gobernuan zuzenean sekula nahasten ez dena amerikarren artean, berauen erakunde politikoetako lehenengotzat jo behar da; zeren eta, askatasun-zaletasuna ematen ez badie ere, berorren erabilera behintzat asko errazten baitie.

Halaber, ikuspegi honetatik ikusten dituzte erlijio-sineskizunak Estatu Batuetako biztanleek berek. Nik ez dakit amerikar guztiek fedea duten beren erlijioan, zeren eta, nork irakur ditzake bihotz-barrenak? Baina ziur nago beharrezkotzat jotzen dutela erakunde errepublikarrei iraunarazteko. Iritzi hau ez dagokio hiritar-klase edo alderdi bati, nazio osoari baizik; maila guztietan aurkitzen da.

Estatu Batuetan politikari batek sekta bati erasotzen badio, hau ez da arrazoi sekta horren aldekoek bera ez laguntzeko; baina sekta guztiei batera erasotzen badie, ihes egingo diote guztiek eta bakarrik geldituko da.

Amerikan nongoen bitartean, lekuko bat agertu zen New York estatuan dagoen Chester Konderriko auzitegian eta Jainkoaren izatean eta arimaren hilezkortasunean berak ez zuela sinesten aitortu zuen. Lehendakariak ez zuen haren zin-hitza kontuan hartu, zeren eta, esan zuenez, lekukoak suntsitua baitzuen aurrez bere hitzek izan zezaketen sinesgarritasun guztia<sup>198</sup>. Egunkariak komentariarik gabe eman zuten gertakariaren berri.

Amerikarrek beren izpirituan hain osoro nahasten dituztenez kristautasuna eta askatasuna, ia ezinezkoa gertatzen da haiei bata bestea gabe ulertaraztea; eta beraientzat ez da iraganak orainari legatzen dion sineskizun antzu horietako bat, bizirik baino gehiago arimaren barrenean lozorroan dagoela dirudien horietako bat.

Ikusi ditut amerikar batzuk elkar hartzen, mendebaldeko estatu berrietara apaizak bidali eta han eskolak eta elizak sortzeko; beldur dira erlijioa ez ote den basoen erdian galduko, eta sortuko den herria ezingo ote den abiapuntukoa bezain askea izan. Aurkitu dut Ingalaterra Berriko jende aberatsa, bere jaioterria utzia zuena, kristautasun eta askatasunaren oinarriak ezarri nahirik Missouri ertzerako edo Illinoisko zelaietara joateko helburuaz. Honela erlijio-garra etengabe berotzen da Estatu Batuetan abertzaletasunaren baitan. Pentsatuko duzue jende honek beste bizitzaz oroitzuz bakarrik diharduela, baina oker zaudete: betiko bizitza ez da haien arduretariko bat baino. Kristau-zibilizazioaren misiolari hauei galdetzen badiezue, zeharo harrituta geldituko zarete mundu honetako ondasunez hain sarri hitz egiten entzutean, eta erlijiosoak bakarrik zeudela uste zenutenean jende politikoarekin topo egitean. "Errepublika amerikar guztiak solidarioak dira elkarren artean", esango dizuete; "mendebaldeko errepublikak anarkian edo despotismoaren uztarpean jausiko balira, Atlantiar ozeanoren ertzetan loratzen diren erakunde errepublikarrak arrisku larrian egongo lirarteke; interesatzen zaigu, beraz, estatu berriak erlijiozale izatea, guk aske izaten jarraitu ahal izateko".

Horra hor amerikarren iritziak; baina nabaria da haien okerra: egunero ikusten dut oso argi dena ongi dagoela Amerikan, miresten dudana erlijio-izpiritu horixe izan ezik, hain zuzen; eta esaten didate Ozeanoaz bestaldeko giza espeziearen askatasun eta zorionari falta zaion gauza bakarra, Spinozarekin batera munduaren betikotasunean sinestea dela, eta, Cabanisekin batera, zerebroak pentsamendua jariatzen duela sinestea. Egia esan, honi ez daukat ezer erantzuteko, salbu horrela hitz egiten dutenak ez direla Amerikan egon eta ez dutela inoiz herri erlijiosorik, ez herri askerik ikusi. Handik itzultzen direnean, zain izango naute, beraz.

Bada jendea Frantzia erakunde errepublikarrak bere handitasunaren tresna igarokortzat hartzen dituen. Horiek bistaz neurtzen dute beren bizio eta ezbeharrak botere eta aberastasunetatik banatzen dituen tarte itzela, eta leize horretan hondakinak pilatu nahiko lituzkete betetzen saiatzeko. Hauek askatasunarekiko Erdi Aroko konpainia mertzenarioak erregeekiko bezala dira; beren kontura egiten dute gerra, nahiz eta haren ikurrak eraman. Errepublika beti biziko da horiek oraingo beheraldetik ateratzeko behar hainbat luze. Ez natzaie horiei mintzo. Baina badira beste batzuk errepublikan egoera iraunkor eta lasaia ikusten dutenak -beharrezko helmuga bat, ideiak eta ohiturek egunero helmuga horretarantz herrestatzen dituztelarik gizarte modernoak-, eta horiek jendea aske izateko prestatu nahiko lukete benetan. Hauek erlijio-sineskizunei erasotzen dietenean, beren grinei jarraitzen diete eta ez beren interesei. Federik gabe iraun dezakeen despotismoa da, baina ez askatasunik gabe. Erlijioa askoz beharrezkoagoa da goستن duten errepublikan erasotzen duten monarkian baino, eta errepublika demokratikoetan beharrezkoagoa gainerako guztietan baino. Nola egon gizartea galbideratu gabe, lotura politikoa lasaitzen den bitartean lotura morala ez bada estutzen? Eta zer egin bere buruaren jabe den herri batekin, Jainkoaren menpe ez baldin badago?

Amerikan erlijioa ahaltsu bihurtzen duten kausa nagusiak

Eliza eta Estatua banatzeko amerikarrek hartu zituzten neurriak.- Legeek, iritzi publikoak, apaizen beren ahaleginek ere emaitza horretarako laguntzen dute.- Kausa honi egotzi behar zaio Estatu Batuetan erlijioak arimetan duen ahalmena.- Zergatia.- Zein den gaur egun gizakien egoera naturala erlijio-gaietan.- Zein kausa partikular eta akzidentalek eragozten duen, zenbait herrialdetan, jendea egoera horretara moldatzea.

XVIII. mendeko filosofoek oso erraz azaltzen zuten zergatik ari ziren sineskizunak poliki-poliki indarra galtzen. Haiek ziotenez, erlijio-garra itzali egingo da askatasuna eta jakintzargiak gehitu ahala. Tamalgarria da egitateak bat ez etortzea teoria horrekin.

Europako jendetza baten fedegabetasuna bere zabarkeria eta ezjakintasunaren pareko bakarrik da, eta Amerikan, berriz, munduko herririk aske eta ilustratuenetako bat ikusten da erlijioaren kanpo-eginbehar guztiak gogo beros betetzen.

Estatu Batuetara iritsi nintzenean, herrialdearen alde erlijioitsuak harritu ninduen lehenik. Egonaldia luzatu ahala, egitate berri hauen ondorio politiko handiez jabetuz joan nintzen.

Gure artean ikusiak nituen erlijio-izpiritua eta askatasun-izpiritua ia beti kontrako zentzuan ibiltzen. Amerikan elkarri estu-estu loturik aurkitu nituen, eta biek batera agintzen zuten lurralde berean.

Fenomeno hau zerk eragiten zuen jakiteko gogoia areagotuz joan zitzaidan egunetik egunera.

Horretarako, erlijio-elkarte guztietako partaideak itaundu nituen; apaizen lagundia bilatu nuen, batez ere, hauek zaintzen baitute hainbat sineskizunen gordailua, eta interes pertsonala dute horrek iraun dezan. Neuk aitortzen dudana erlijioak klero katolikora hurbildu ninduen bereziki, eta laster lortu nuen halako barne-kidetasun bat beraietako zenbaitekin. Nire harridura agertu eta zalantzak agertzen nizekion bakoitzari. Pertsona haiek guztiak xehetasunetan bakarrik ezberdintzen zirela ohartu nintzen; baina, batez ere, Elizaren eta Estatuaren erabateko banaketari egozten zioten guztiek herrialde hartan erlijioak duen aginte baketsua. Ez naiz beldur esateko, Amerikan egin nuen egonaldian ez nuela pertsona bakar bat ere aurkitu, apaiz edo laiko, puntu honetan bat ez zetorrenik. Honek eraman ninduen ordura arte baino arretatsuago aztertzeraz apaiz amerikarrek gizarte politikoan duten posizioa. Harriduraz konturatu nintzen ez zutela inolako kargu publikorik egikaritzen<sup>199</sup>. Ez nuen bakar bat ere administrazioan aurkitu, eta batzarretan ere ez zeudela ordezkaturik ohartu nintzen.

Zenbait estatutan legeak ixten zien karrera politikoa<sup>200</sup>; gainerako guztietan iritzi publikoak.

Azkenean, kleroaren beraren izpiritua ikertzeari ekin nionean, ohartu nintzen kiderik gehienak beren borondatez urrundu bide zirela boteretik, eta halako harrotasun profesional bat zutela boterearekiko arrotz irautean.

Gutiziaren eta fede txarraren aurka anatema botatzen zuten, edozelakoak izanik ere horiek estaltzeko erabilitako iritzi politikoak. Baina, haiei entzunez, ikasi nuen jendea ezin daitekeela Jainkoaren aurrean kondenatu iritzi horiengatik, zintzoak direnean behintzat, eta ez dela bekatu handiagoa gobernu-gaietan huts egitea, egoitza bat eraiki edo ildo bat egiteko eran huts egitea baino.

Alderdi guztietatik arretaz urruntzen ikusi nituen, eta horiekiko harremanetatik ihes egiten interes pertsonalaren berotasunez.

Egitate hauek, egia esan zitzaidala frogatu zidaten azkenean. Orduan egitateetatik kausetara jo nahi izan nuen: galdetu nion neure buruari nola ote zitekeen erlijio baten itxurazko indarra ahultzean beraren benetako boterea indartzea, eta hau aurkitzea ezinezkoa ez zela uste izan nuen.

Hirurogei urteko tarte laburrak sekula ez du gizakiaren irudimen osoa bere baitan hartuko; mundu honetako gozamen osagabeek ez dute inoiz beraren bihotza asebeteko. Izaki guztien artetik, gizakiak bakarrik erakusten du berezko atsekabea existentziarekiko, baita egundoko irrika ere existitzeko: bizia mesprezatzen du eta ezerezaren beldur da. Instintu ezberdin hauek etengabe bultzatzen diote arima beste mundu baten kontenplaziorantz, eta erlijioak gidatzen du horretara. Beraz, itxaropenaren forma berezia baino ez da erlijioa, eta itxaropena bera bezain berezkoa zaio giza

bihotzari. Adimenaren nolabaiteko aberrazioagatik eta bere izaeraren gain zerturiko nolabaiteko bortxa moralaren laguntzaz urruntzen da jendea erlijio-sineskizunetatik; joera garaitezin batek eramaten ditu berriro horietara. Fedegabetasuna ustegabeko zerbait da; fedea da gizadiaren egoera iraunkor bakarra.

Erlijioak giza ikuspegi hutsetik bakarrik kontuan hartzean, esan daiteke erlijio guztiek gizakiagandik beragandik ateratzen dutela sekula faltako ez zaien indar-elementu bat, giza izaera osatzen duten printzipioetako bati dagokio eta.

Badakit garai batzuetan erlijioak, berea duen eragin honi, legeen botere artifiziale eta gizartearen gidatzen duten botere materialen laguntza erants diezazkiokeela. Ikusi dira erlijioak munduko gobernuarekin estu-estu lotuak, aldi berean izuaren eta fedearen bidez arimak menperatzen; baina erlijio batek horrelako elkargoa egiten duenean, beldurrik gabe esango dut, pertsona batek egin lezakeen bezala jokatzeko du: etorkizuna orainaren aurrean sakrifikatzen du, eta berari ez dagokion boterea lortzean, arriskuan jartzen du bere legezko boterea.

Erlijio batek bere agintea gizaki guztien bihotza era berean atsekabetzen duen hilezkortasun-irrikan bakarrik oinarritu nahi duenean, unibertsaltasuna nahi izan dezake; baina gobernuaren batekin batu nahi duenean, herri batzuei bakarrik aplikatu dakizkiekeen maximak hartu behar izaten ditu. Honela, bada, botere politiko batekin elkartzean, erlijioak bere boterea gehitzen du batzuen gain, eta guztien nagusi izateko itxaropena galtzen du.

Erlijioak, atsekabe guztien kontsolamendu diren sentipenen gain oinarritzen den neurrian bakarrik, bereganatu lezake gizadiaren bihotza. Mundu honetako grina garratzetan nahasturik, batzuetan ez maitasunak baizik eta interesak eman dizkion aliatuak defendatzera beharturik egoten da, eta etsaitzat errefusatu behar izaten ditu oraindik ere bera maite dutenak sarri, nahiz eta berarekin elkartutakoen kontra borrokan jardun. Erlijioa ezin da gobernariaren indar materialaren parte izan, hauek sortarazten dituzten gorrotoetako batzuk bere gain hartu gabe.

Ongien ezarrita diruditen botere politikoek beren iraupenaren garantiaz ez dituzte belarunaldi baten iritziak baino, mende baten interesak, pertsona baten bizitza sarritan. Lege batek aldatu egin dezake behin-betikoena eta finkatuena dirudien gizarte-egoera, eta honekin dena aldatzen da.

Gizarteko botereak gehixeago edo gutxiago guztiak dira iheskorak, gure urteak lurgainean bezalaxe; bizkor joaten dira batzuk besteen ondoren, bizitzako ardurak bezalaxe; eta sekula ez da ikusi giza bihotzaren jarrera aldaezin baten gainean ezarritako gobernurik, edo interes hilezkorren batean oinarritu ahal izan denik.

Horregatik, erlijio batek bere indarra historiako aro guztietan era berean birsortzen ikusten diren sentimendu, sen eta grinetan aurkitzen duen bitartean, aurre egiten dio denboraren hondamenari, edo behintzat beste erlijio batek bakarrik suntsi lezake. Baina erlijioak mundu honetako interesetan oinarritu nahi duenean, munduko botere guztiak bezain hauskor bihurtzen da ia. Bera bakarrik, espero lezake hilezkortasuna; botere igarokorrekin elkartuta, hauen zoriari jarraitzen dio eta berauen euskarri diren grina pasakorrekin batera erortzen da sarritan.

Botere politiko ezberdinekin elkartzean, erlijioak elkargo astuna hartzen du bere gain. Ez du botere horien laguntza beharrik bizi ahal izateko, eta horien zerbitzura jartzean hil egin daiteke.

Aipatu berri dudana arriskua garai guztietan dago, baina ez da beti hain erraz ikusten.

Mende batzuetan gobernuak hilezkorak dirudite, eta beste batzuetan gizartearen existentzia gizaki batena baino ere hauskorragoa dela esan liteke.

Konstituzio batzuek halako lozorro sakon batean edukitzen dituzte hiritarrak, eta beste batzuek zalaparta bizian ibilarazten.

Gobernuek hain indartsu eta legeek hain egonkor ematen dutenean, jendea ez da ohartzen erlijioak, boterearekin elkartzean, jasan lezakeen arriskuaz.

Gobernuak hain ahul eta legeak hain aldakor agertzen direnean, guztiek ikusten dute arriskua, baina sarritan ez da astirik egoten arriskuari ihes egiteko. Beraz, urrutitik hautematen ikasi behar da.

Nazio batek gizarte-egoera demokratikoa bereganatu eta gizarteak errepublikarantz jotzen ikusten direnean, gero eta arriskutsuagoa gertatzen da erlijioa agintearekin lotzea; zeren eta hurbiltzen ari baita boterea eskuz esku igaroko den garaia, teoria politikoak elkarren ondoren pasatuko direnekoa, pertsonak, legeak eta konstituzioak berak egunez egun desagertu edo aldatu egingo direnekoa, eta hau ez aldi batez bakarrik, etengabe baizik. Asaldura eta ezegonkortasuna errepublika demokratikoen izaeran daude, higiezentasuna eta lozorroa monarkia absolutuen lege diren bezalaxe.

Amerikarrek, estatu-burua lau urtez behin aldatzen dutenek, bi urtez behin legegile berriak aukeratu eta administratzaile probintzialak urtero ordeztzen dituztenek; amerikarrek, politika-arloa berritzaileen saiakuntzen menpe utzi dutenek, ez balute beren erlijioa nonbait politikatik kanpo utzi izan, erlijio horrek zeri heldu ahal izango ote lioke giza iritzien atzera-aurreretan? Alderdi-borrokaeren erdian, non geldituko ote litzateke zor zaion begirunea? Eta zer izango litzateke berorren hilezkortasuna, bere inguruan dena galdutakoan?

Apaiz amerikarrak beste guztiez baino lehen ohartu dira egia honetaz, eta beronetara moldatzen dute beren jokabidea. Eragin erlijiosoari uko egin beharra dagoela ikusi dute, botere politikoa lortu nahi izanez gero; eta nahiago izan dute boterearen laguntza galtzea, beronen gora-beheretan parte izatea baino.

Amerikan erlijioa ez da agian garai batzuetan eta herri jakin batzuetan izan den bezain ahaltsua, baina iraunkorragoa du bere eragina. Bere indarretara mugaturik dago, inork kendu ezin dizkion indarretara; zirkulu baten barruan bakarrik dihardu, baina guztiguztiaz ibiltzen da eta esfortzurik gabe agintzen du bertan.

Alde guztietatik sortzen diren oihuak entzuten ditut Europan; sineskizunik eza deitoratzen da, eta erlijioari antzina zuen boteretik pixka bat nola itzul ote dakioken galdetzen da.

Lehen-lehenik, gaur egun erlijio-kontuetan gizakion *egoera naturalak* nolakoa izan beharko lukeen ikertu behar dela iruditzen zait. Orduan zer espero dezakegun eta zeren beldur izan behar dugun jakinik, argi eta garbi ikusiko dugu zein helburutarantz jo behar duten gure ahaleginek.

Bi arrisku handiren mehatxupean dago erlijioen izatea: zismen eta axolagabeziarenean. Erlijio-gartsutasunezko mendeetan, batzuetan jendeak bertan behera uzten du erlijioa, baina honen uztarpetik ihes egitean beste baten menpe jartzeko izaten da. Fedea gaiz aldatzen da, baina ez da hiltzen. Orduan maitasun sutsuak edo gorroto amorratuak sortarazten ditu bihotz orotan antzinako erlijioak: batzuek suminduta lagatzen dute, besteak gogo-berotasun berriz atxikitzen zaizkio. Sineskizunak ezberdinak dira, erlijioabetasuna ezezaguna.

Baina ez da gauza bera gertatzen erlijio-sinesmenaren kontra zenbait doktrinak, negatiboak deituko ditudanak, beren azpilana egiten dutenean, zeren eta, erlijio baten faltsutasuna baieztatu arren, ez baitute beste baten egiazkotasunik ezartzen.

Orduan, iraultza miragarriak zertzen dira giza izpirituan, itxuraz behintzat gizakiak bere grinez lagundu gabe eta, nolabait esateko, ohartu ere egin gabe. Ahaztuz bezala, beren itxaropen-gairik kuttunenari ihes egiten uzten dioten pertsonak ikusten dira. Korrante sumaezin batek arrastaka eramanez, beronen aurka borrokatzeko adorerik gabe eta gogoz kontra amore emanez, maite duten fedea lagatzen dute, etsipenera eramango dituen zalantzari jarraitzeko.



Aipatu berri ditugun mende horietan, gorrotoz baino gehiago hoztasunez uzten dira sineskizunak; ez dira errefusatzen, beraiek aldegiten diote jendeari. Egiazko erlijioan sinesteari uztean ere, berorri onuragarri irizten jarraitzen du sinesgabeak. Erlijio-sineskizunak giza ikuspegitik hartzean, ohituren gain duten agintea aitortzen die, legeen gain duten eragina. Sineskizun horiek jendea bakean biziara eta heriotzarako eztiki prestatzeko gai direla ulertzen du sinesgabeak. Beraz, fede-mina sentitzen du fedearen galdu eta gero, eta, falta zaion ondasunaren balioa ongi ezagutzen duelarik, beldur da oraindik badutenei fede hori kentzeko.

Bere aldetik, sinesten jarraitzen duenak ez du beldurrik bere fedearen guztien aurrean agertzeko. Bere itxaropenekin bat ez datozenak dohakabetzat gehiago jotzen ditu etsaitzat baino; badaki hauen estima beregana dezakeela berauen jarraibideari segitu gabe; ez dago, beraz, inorekin gerran; eta sinestun honek, ez duenez bere gizartea hartzen erlijioak etsai amorratu ugariren aurka borrokan egiteko lekutzat, maite izaten ditu bere garaikideak, nahiz eta aldi berean hauen ahuleziak gaitzetsi eta errakuntzengatik atsekabetu.

Sinesten ez dutenek, beren fedegabetasuna ezkutatzat, eta sinesten dutenek, beren fedearen erakutsiz, erlijioaren aldeko iritzi publikoa sortzen da; erlijioa maitatu egiten da, lagundu, ohoratu, eta arimen barren-barreneraino sartu beharra egoten da egiten zaizkion zauriak aurkitu ahal izateko.

Gizakien gehiengoak, erlijio-sentimenduari atxikia jarraituz, ez du ezarritako sineskizunetatik aldenarazten duen ezer ikusten orduan. Beste bizitza baten senak erraz eramaten du aldare aurrera, eta bere bihotza fedearen agindu eta kontsolamenduetara ematen du.

Zergatik ez zaigu guri ere aplikagarri orain arte azaldutakoa?

Kristautasunean sinesteari utzi eta beste ezein erlijiori atxiki gabeko jendea ikusten dut gure artean.

Beste batzuek, zalantzan geldituta, jadanik sinesten ez duten plantak egiten dituztela ikusten dut.

Urrutirago, oraindik ere sinetsi bai, baina esaten ausartzen ez direnak aurkitzen ditut.

Lagun epel eta kontrako sutsu horien erdian, fededun-talde txiki bat aurkitzen dut azkenik, beren sineskizunen alde oztopo guztiak desafiatu eta arrisku guztiak gutxieteko prest daudenak. Hauek giza ahulezia bortxatzen dute iritzi komunaren gain altxatzeko. Esfortzu honek beronek arrastaka eramanean, ez dakite zehazki non gelditu behar duten. Beren aberrian gizakiak independentziaz baliatuz lehenengo egin duena erlijioari erasotzea izan dela ikusi dutenez, garaikideen beldur dira eta, izaturik, urrundu egiten dira horiek lortu nahi duten askatasunetik. Sinesgabetasuna gauza berria iruditzen zaenez, gorroto berean biltzen dute berria den guztia. Hortaz, gerran daude beren mende eta herrialdearekin, eta bertan agertzen den iritzi bakoitza fedearen ezinbesteko etsaitzat hartzen dute.

Gaur egun honek ez luke izan beharko gizakion egoera naturala erlijio-gaietan.

Bada gure artean kausa akzidental eta partikular bat bere joerari jarraitzea eragozten diona giza izpirituari, eta berez gelditu behar duen mugetatik harantzago bultzatzen duena.

Uste sendoa dut politikaren eta erlijioaren arteko lotura estua dela kausa partikular eta akzidental hori.

Europako sinesgabeek etsai politiko bailiran pertsegitzen dituzte kristauak, kontrako erlijioso bezala baino gehiago. Sineskizun oker bat baino gehiago alderdi baten iritzi bezala gorrotatzen dute fedearen; eta Jainkoaren ordezkari bezala baino gehiago errefusatzen dute apaiza boterearen laguntzat hartzen dutelako.

Europar kristautasunak onartu egin du munduko botereekin estu-estu lot zezaten. Gaur egun botere horiek jausten ari dira, eta kristautasuna lurperaturik bezala dago hondakinen azpian. Gorpuekin lotu nahi izan den gauza bizia da: ebaki eusten dioten lokarriak, eta altxatuko da berriro.

Ez dakit zer egin beharko litzatekeen Europako kristautasunari gaztetasunaren energia itzultzeko. Jainkoak bakarrik egin dezake hori; baina gutxienez gizakien esku dago fedeari uztea oraindik bere baitan dituen indar guztiez baliu dadin.

Nola laguntzen duten erakunde demokratikoen arrakastan amerikarren jakintzargiek, azturek eta esperientzia praktikoa

Zer ulertu behar den Amerikako herriaren jakintzargiak esatean.- Giza izpirituak kultura gutxiago hartu du Estatu Batuetan Europar baino.- Hala ere, inor ez da ezjakintasunean gelditu.- Zergatik.- Pentsamendua zein bizkor zabaltzen den mendealdean erdi hutsik dauden estatuetan.- Nola esperientzia praktikoa literatura-ezagupenak baino ere baliagarriagoa gertatzen den amerikarrentzat.

Obra honetan makina bat lekutan adierazi diet irakurleei amerikarren jakintzargiek eta azturek zer-nolako eragina zuten haien erakunde politikoen iraupenean. Beraz, gauza berri gutxi gelditzen zait esateko.

Gaur arte idazle aipagarri gutxi batzuk bakarrik izan ditu Amerikak; ez du historialari handirik, eta olerkari bakar bat ere ez. Han bizi direnek halako erreparatu batez ikusten dute literatura hutsa; eta Europar bada hirugarren mailako hiririk urtean literatura-lan gehiago argitaratzen duenik Batasuneko hogeita lau estatuek batera baino.

Amerikarren izpiritua aldentu egiten da ideia orokorretatik; ez da aurkikuntza teorikotara bideratzen. Politikak berak eta industriak ezin dute horretara bultzatu. Estatu Batuetan lege berriak egiten dira etengabe; baina oraindik ez da legeen printzipio orokorrak ikertzeko idazle handirik aurkitu.

Amerikarrek badituzte juristak eta iruzkingileak, baina publizistak falta zaizkie; eta politikan jarraibideak ematen dizkiote munduari irakaspenak baino gehiago.

Gauza bera gertatzen zaie arte mekanikotan.

Amerikan zolitasunez aplikatzen dira Europako aurkikuntzak eta, perfektionatu ondoren, ederki asko egokitzen dituzte herrialdeko beharretara. Jendea oso industrizalea da, baina ez dute lantzen industriaren zientzia. Langile onak daude han eta asmatzaile gutxi. Fultonek luzaroan erabili zuen bere jeinua kanpoko herrietan, bere herrialdean aplikatu ahal izan baino lehen.

Angloamerikarren artean jakintzargien egoera nolakoa den aztertu nahi duenak gauza bera bi alderdi ezberdinetatik ikusi behar du. Arreta jakintzuengan bakarrik jartzen badu, harritu egingo da hauen kopuru txikiaz; eta ezjakinak zenbatzen baditu, amerikarren herria munduko ilustratua irudituko zaio.

Bi mutur horien artean kokatua dago biztanleria osoa; dagoeneko esan dut beste nonbait.

Ingalaterra Berrian hiritar bakoitzak hartzen ditu giza jakintzen funtsezko nozioak; bere erlijioaren doktrinak eta frogak zeintzuk diren ere ikasten du; bere aberriaren historia eta arautzen duen Konstituzioaren ezaugarri nagusiak jakinarazten zaizkio. Connecticut eta Massachusettsen nekez aurkitzen da pertsona bat gauza horien guztien ezagutza, erdizkakoa bada ere, ez duenik, eta batere ezagutzen ez dituenak nolabait ere fenomenotzat har daiteke.

Alderatzen ditudanean Greziako eta Erromako errepublikak Amerikako errepublika hauekin, lehenengo haietan eskuz idatzirik zeuden liburu-multzoak eta bizi zen jendakila zabarra bigarren hauekin aurkitzen diren milaka egunkari eta jende ilustratuarekin; eta gero, pentsatzen dudanean oraindik ere zenbat ahalegin egiten den egungoak antzinako haien bidez epaitzeko eta, duela bi mila urte gertaturikoan oinarrituz, gaur egun

gertatuko dena aurrikusteko, orduan neure liburuak erretzeko tentazioa izaten dut, hain gizarte-egoera berriari ideia berriak bakarrik aplikatzeko.

Gainerantzean, ez da bereizi gabe Batasun osora hedatu behar Ingalaterra Berriaz esan dudana. Zenbat eta gehiago joan mendebalderantz edo hegoalderantz, orduan eta urriagoa da jendearen heziketa. Mexikoko golkoaren inguruko estatuetan bada, gure artean bezalaxe, jende-multzo bat giza ezagupenen hastapenak ezagutzen ez dituen; baina alferrik bilatuko da Estatu Batuetan ezjakintasunean murgilduriko kantonamendu bakar bat. Arrazoia ximplea da: Europako herriak ilunbe eta barbarietik abiatu ziren zibilizazio eta jakintzargietarantz jotzeko. Aurrerapenak ezberdinak izan dira: batzuek korrika egin dute lasterketa honetan, beste batzuk normal ibili dira; beste zenbait geldi geratu dira, eta oraindik lo daude bidean.

Ez da gauza bera gertatu Estatu Batuetan.

Angloamerikarrak guztiz zibilizatuta iritsi ziren haien ondorengoak dauden lurraldera; ez dute izan ikasi beharrik, aski izan dute ez ahaztea. Nolanahi ere, amerikar haien beraien seme-alabak dira urtero, beren egoitzarekin batera, basa eremura eramaten dituztenak lorturiko ezagupenak eta jakintzaren estima. Hezkuntzak jakintzargien onura sentiarazi die, eta jakintzargi hauek ondorengoengana eskualdatzeko egoeran jarri ditu. Estatu Batuetan gizarteak ez du, bada, haurtzarorik; heltzarotan sortzen da.

Amerikarrek ez dute laborari hitza ezertarako erabiltzen; ez dute hitza erabiltzen, ideia ere ez dutelako; lehen garaietako ezjakintasunak, landako sinpletasunak, herriskako arruntasunak ez du iraun haien artean, eta ezin dituzte ulertu sortzen ari den zibilizazio baten bertute, bizio, aztura zabar eta grazia lainoak.

Estatu konfederatuetakoz bazterrik urrutienetan, gizartearen eta basa eremuaren mugan, abenturari ausarten multzo bat dago, gurasoen etxean jasan beharko zuketuen pobrezia ihesi, Amerikako bakarlekuetan barneratu eta aberri berri bat bilatzeko beldurrik izan ez dutenak. Babesleku izango duten lekura iritsi orduko, aitzindariak berehala zuhaitz batzuk eraitsi eta etxola eraikitzen du hostailaz estaliz. Ezerk ez du egoitza isolatu hauek baino itxura kaskarragorik. Berauetara iluntzean hurbiltzen den bidaiariak, hormetan zehar, sukaldeko garrak ikusten ditu dir-dir; eta gauean, haizeak jotzen badu, sabaiaren hosto-hotsa entzungo du oihaireko zuhaitzen artean. Nork ez luke sinetsiko etxola kaskar hau zabarkeria eta ezjakintasunaren babesleku dela? Hala ere, ez da inolako loturarik ezarri behar aitzindariaren eta bere babeslekuaren artean. Dena primitiboa eta basatia da haren inguruan, baina bera hemezortzi mendeko lan eta esperientziaren emaitza da, nolabait esateko. Hiriko jantziak daramatza eta hiriko hizkuntzan mintzo da; badu iraganaren berri, etorkizunaren jakinmina du, orainaz argudiatzen du; oso gizaki zibilizatua da, aldi batez baso artean bizitzea onartu eta Biblia, aizkora eta egunkariarekin Mundu Berriko basa eremuetan barneratu dena.

Zaila da imajinatzea zelako arintasun sinestezinaz zirkulatzen duen pentsamenduak basa eremu horien baitan<sup>201</sup>.

Ez dut uste Frantziako kantonamendurik ilustratuen eta jendetsuenetan ere ematen denik mugimendu intelektual hain handirik<sup>202</sup>.

Ezin da zalantzan jarri Estatu Batuetan herriaren heziketa ikaragarri lagungarria dela errepublika demokratikoaren iraupenerako. Nire ustez, gauza bera gertatuko da izpiritua argitzen duen heziketa, ohiturak arautzen dituen hezkuntzatik banatzen ez den alde guztietan.

Hala ere, ez diot abantaila honi gehiegizko baliorik ematen eta ez dut inola ere sinesten, Europako jende askok bezala, nahikoa dela jendeari irakurtzen eta idazten irakastea berehalaxe hiritar bihurtzeko.

Benetako jakintzargiak esperientziatik sortzen dira, batez ere; eta amerikarrak ez balituzte poliki-poliki beren burua gobernatzera ohitu, dauzkaten ezagupen literarioak ez litzaizkieke gaur egun oso lagungarri izango hori lortzeko.

Asko bizi izan naiz Estatu Batuetako herriarekin, eta ez dakit nola esan zenbat miretsi dudan haien esperientzia eta zentzutasuna.

Ez ezazue amerikarra Europaz hitz egitera bultzatu; normalean hanpuruskeria handia eta harrokeria inozo samarra erakutsiko ditu. Herrialde guztietan ezjakinentzat hain baliagarri diren ideia orokor eta zehazgabeekin konformatuko da. Baina galdegiozue bere herrialdeaz, eta bat-batean desagertuko da haren adimena estaltzen zuen lainoa: haren hizkera argi, garbi eta zehatz bilakatuko da, beraren pentsamendua bezala. Bere eskubideak zein diren erakutsiko dizue, eta hauek egikaritzeko erabili behar dituen baliabideak; politika-arloa zelako usadioen arabera ibiltzen den ere jakingo du. Administrazio-arauak badakizkiela ohartuko zarete eta legeen mekanismoa ere ondo ezagutzen duela. Estatu Batuetako biztanleak ez ditu ezagupen praktiko eta nozio positibo hauek liburuetatik atera: bere heziketa literarioak horiek hartzeko prestatu du agian, baina eman ez dizkio eman.

Legegintzan esku hartuz ikasten du amerikarrak legeak ezagutzen; gobernatuz hezitzen du bere burua gobernu-moduetan. Gizarteko egintza handia beraren aurrean gauzatzen da egunero, eta beraren eskuetan, nolabait esateko.

Estatu Batuetan jendearen hezkuntza, oro har, politikarantz bideratua dago; Europan berorren helburu nagusia bizitza pribaturako prestatzea da. Hiritarren ekintza arazo publikoetan egitate arraroegia da aurrikusi ahal izateko.

Bi gizarteei begiratzean, beren kanpo-itxuran ere ageri dituzte ezberdintasun hauek.

Europan, bizitza pribatuko ideia eta azturak sarri sarrarazten ditugu bizitza publikoan, eta familiaren barnetik bat-batean Estatuaren gobernura igarotzen garenez, sarri ikusten gaituzte gizartearen interes handiei buruz eztabaidan, lagunarteko elkarriketan ari bagina bezala.

Aitzitik, amerikarrek bizitza publikoko azturak pasaratzen dituzte ia beti bizitza pribatura. Haien artean, epaimahaiaren ideia eskola-jokoetan aurki daiteke eta forma parlamentarioak oturuntza bateko ordenan ere nabaritzen dira.

Estatu Batuetan errepublika demokratikoaren iraupenerako legeek kausa fisikoek baino gehiago balio dute, eta ohiturek legeek baino gehiago

Amerikako herri guztiek dute gizarte-egoera demokratikoa.- Hala ere, erakunde demokratikoek angloamerikarren artean bakarrik irauten dute.- Hego Amerikako espainolek, angloamerikarrek bezain alde dutelarik natura fisikoa, ezin dute jasan errepublika demokratikoa.- Mexikok ere, Estatu Batuetako Konstituzioa bereganatu duelarik, ezin du jasan.- Mendebaldeko angloamerikarrek ekialdekoek baino nekezago jasaten dute.- Ezberdintasun hauen zergatiak.

Esana dut Estatu Batuetako erakunde demokratikoen iraupena zirkunstantziei, legeei eta ohiturei egotzi behar zitzaiela<sup>203</sup>.

Europar gehienek hiru kausa hauetako lehena bakarrik ezagutzen dute, eta berez ez duen nagusitasuna ematen diote.

Egia da angloamerikarrek baldintza-berdintasuna eramán dutela Mundu Berrira. Sekula ez da haien artean aurkitu ez plebeiorik, ez noblerik; han jaiotzari buruzko aurriritziak lanbideari buruzkoak bezain ezezagunak izan dira beti. Honela, gizarte-egoera demokratikoa izanik, demokraziak nekerik gabe ezarri zuen han bere agintea.

Baina egitate hau ez da Estatu Batuetakoa bakarrik; Amerikako ia kolonia guztiak, beren artean berdinak zirenek edo haietan bizitzean berdintasunera iritsitakoek sortu zituzten. Mundu Berrian ez dago leku bakar bat ere, non europarrek aristokrazia bat sortu ahal izan duten.

Hala ere, erakunde demokratikoek Estatu Batuetan bakarrik egiten dute aurrera. Amerikako Batasunak ez du etsairik borrokan egiteko. Bakarrik dago basa eremuen artean, uharte bat ozeanoaren erdian bezalaxe.

Baina naturak era berean isolatu zituen Hego Amerikako espainolak, eta isolamendu honek ez die eragotzi armadak edukitzea. Atzerritarrek falta izan zaizkienean, beren artean egin izan dute gerra. Angloamerikarren demokraziak bakarrik iraun ahal izan du gaur arte bakean.

Batasuneko lurraldea mugarik gabeko esparrua da giza jarduerarako; elikagai agortezina eskaintzen die industriari eta lanari. Beraz, han aberastasunen maitasuna bihurtzen da gutziaren ordezkio, eta ongizateak alderdienugarra itzaltzen du.

Baina munduan non aurki daiteke basa eremu emankorragorik, ibai handiagorik, gutxiago ustiatutako eta agortezinago den aberastasunik Hego Amerikan baino? Hala ere, Hego Amerikak ezin du demokrazia jasan. Zoriontsu izateko herriei aski balitzaie unibertsoa baztertxo batean kokatuak egon eta lurralde hutsetan beren nahierara hedatu ahal izatea, Hego Amerikako espainolek ez lukete beren zoriaz zertan kexatu. Eta Estatu Batuetako biztanleen zorion berberaz ez gozatu arren, Europako herrien inbidia sortu beharko lukete, behintzat. Ez dago, ordea, lurrian Hego Amerikakoak baino nazio behartsuagorik.

Honela, kausa fisikoek ezin dute inola ere hegoaldeko eta iparraldeko amerikarren artean antzerako emaitzarik sortu, baina gainera derrigorrez sortu behar lehenengoen artean Europan ikusten dena baino zerbait kaskarragoa, hemen kontrako zentzuan jarduten dutelarik kausa horiek.

Kausa fisikoek ez dute, beraz, uste den beste eragiten nazioen destinoetan.

Aberria laga, nahiz eta bertan aietasuna aurkitzeko aukera izan, eta aberastasun bila basamortura joateko prest zegoen jendea aurkitu dut Ingalaterra Berrian. Handik hurbil, Kanadako frantsesak ikusi ditut, beraientzat txikiegia den esparruan estu-estu eginda, nahiz eta hurbil izan basamortu bera; eta Estatu Batuetako migrariak lanegun batzuetako sariaz lursail handia erosten zuen bitartean, kanadiarrak artean Frantzia bizi balitz bezain garesti ordaintzen zuen lurra.

Honela, naturak, europarrei Mundu Berriko bakarlekuak ematean, ondasun batzuk eskaintzen dizkie, baina beti ez dute horietaz baliatzen jakiten.

Amerikako beste herri batzuen artean angloamerikarrek dituzten oparotasun-baldintza berberak ikusten ditut, baina ez legeak eta ohiturak; eta herri hauek behartsuak dira. Angloamerikarren lege eta ohituretan datza, beraz, haien handitasunaren arrazoi berezia eta bilatzen ari naizen kausa nagusia.

Ez dut inola ere esan nahi erabat onak direnik amerikarren legeak. Ez dut uste herri demokratiko guztiei aplikatu dakizkiekeenik; eta lege haien arteko batzuk arriskutsuak iruditzen zaizkit Estatu Batuetarako ere.

Hala ere, ezin da ukatu amerikarren legeria, oro har, ongi egokitua dagoela arautu behar duen herriaren jiteria eta herrialdeko naturara.

Amerikarren legeak onak dira, beraz, eta beraiei egotzi behar zaie demokraziaren gobernuak Amerikan duen arrakastaren zati handi bat; baina ez dut uste kausa nagusia direnik. Eta amerikarren gizarte-zoriontasunean herrialdeko naturak berak baino eragin handiagoa dutela iruditzen bazait ere, bestalde badut arrazoirik ohiturek baino eragin txikiagoa dutela pentsatzeko.

Lege federalek osatzen dute ziur aski Estatu Batuetako legeriaren zatirik garrantzizkoena.

Mexikok, angloamerikarren Batasuna bezain ongi kokatua, lege berberak bereganatu ditu, baina ezin da demokraziaren gobernura ohitu.

Bada, beraz, kausa fisiko eta legeekin zerikusirik ez duen arrazoiren bat, demokraziak Estatu Batuetan goberna dezan ahalbidetzen duena.

Baina hona hemen are froga handiagoa. Batasuneko lurraldean bizi diren ia guztiak odol beretikoak dira. Hizkuntza bera hitz egiten dute, era berean otoitz egiten diote Jainkoari, kausa material berberen menpe daude, lege berberak betetzen dituzte.

Nondik sortzen dira, bada, haien artean ikusten diren ezberdintasunak?

Batasuneko ekialdean, zergatik agertzen da gobernu errepublikarra hain sendo eta erregular, heldutasun eta patxadaz jokatzu? Zerk ematen die haren ekintza guztiei halako zuhurtzi eta iraupen-giro bat?

Aitzitik, nondik dator gizarte-botereak mendebaldean itsumustuan dabilatzalako itxura hori?

Zergatik dago han arazo publikoen mugimenduan zerbait desordenatua, grinatsua, ia sutua esan liteke, etorkizun luzerik iragartzen ez duena?

Ez ditut jada angloamerikarrak atzerriekin konparatzen; orain angloamerikarrak beren artean jartzen ditut aurrez aurre, eta beren artean antzik ez izatearen zergatia ikertzen ari naiz. Hemen herrialdeko naturatik eta lege-ezberdintasunetik ateratako argudio guztiek huts egiten didate aldi berean. Beste kausaren batera jo beharra dago; eta kausa hau, non aurkituko dut, ohituretan izan ezik?

Angloamerikarrek ekialdean egin dute demokraziaren gobernuaren erabilerarik luzeena, eta han sortu dituzte gobernu-mota horrek iraun dezan azturarik eta ideiarik mesedegarrienak. Demokrazia poliki-poliki usadioetan sartu da, iritzietan, formetan; gizarte-bizitzako xehetasun guztietan aurkitzen da, baita legeetan ere. Herriaren heziketa literarioa eta hezkuntza praktikoa ere ekialdean izan dira biribilenak, eta erlijioa ere askatasunarekin hantxe nahastu da ongien. Zer dira aztura, iritzi, usadio, sineskizun horiek guztiak, nik ohitura deitu ditudanak baino?

Mendebaldean, aitzitik, falta da oraindik abantaila horien zati bat. Mendebaldeko estatuetako amerikar asko basoetan jaioak dira, eta gurasoen zibilizazioarekin bizitza basatiko ideiak eta ekanduak nahasten dituzte. Haien artean grinak bortitzagoak dira, erlijio-morala ahulagoa, ideiak tinkotasun gutxiagokoak. Jendeak ez du bere artean inolako kontrolrik, ia ez dute elkar ezagutzen eta. Beraz, sortzen ari diren herrien esperientziarik eza eta araugabeko azturak agertzen dituzte, puntu bateraino, mendebaldeko nazioek. Hala ere, mendebaldeko gizarteak antzinako elementuz eratuak daude, baina hauen elkarketa berria da.

Batez ere ohiturek egiten dituzte Estatu Batuetako amerikarrak -eta amerikar guztien artean beraiek bakarrik- demokraziaren agintea jasateko gai; eta, halaber, ohitura horiek eragiten dute demokrazia angloamerikar ezberdinak gehiago edo gutxiago arauturik eta aurreraturik egotea.

Honela, Europan exageratu egiten da herrialdearen kokaleku geografikoak erakunde demokratikoen iraupenean izan lezakeen eragina. Garrantzi handiegia egozten zaie legeei, txikiegia ohiturei. Zalantzarik gabe, hiru kausa handi hauek balio dute amerikarren demokrazia arautzeko eta gidatzeko; baina sailkatu beharra balego, esango nuke kausa fisikoek legeek baino eragin txikiagoa dutela, eta legeek ohiturek baino askoz ere txikiagoa.

Komentzituta nago egoerarik zoriontsuenak eta legerik onenek ezin diotela ohituren kontrako konstituzio bati eutsi, baina ohiturek onura ateratzen dute egoerarik kontrakoenetatik eta legerik txarrenetatik ere. Ohituren garrantzia egia arrunt bat da, etengabe horretara eramaten dutelarik ikaskuntzak eta esperientziak. Iruditzen zait puntu nagusi bat balitz bezala aurkitzen dudala neure izpirituan; neure ideia guztien buruan aurkitzen dut.

Hitz bakar bat gelditzen zait esateke gai honetaz.

Amerikarren legeen iraupenerako haien esperientzia praktikoari, azturei, iritziei -hitz batean, haien ohiturei- ematen diedan garrantzia irakurleari obra honetan zehar sentiaraztea ez badut lortu, huts egin dut hau idazteko izan dudana helburu nagusian.

Amerikaz kanpo ere, aski izango ote lirateke legeak eta ohiturak erakunde demokratikoei iraunarazteko?

Angloamerikarrek, Europara ekarriak, beren legeak aldatu beharko lituzkete.- Bereizi beharra dago erakunde demokratikoen eta erakunde amerikarren artean.- Amerikarren demokraziak bere buruari emandakoak baino lege demokratiko hobeak, edo ezberdinak behintzat, asma daitezke.- Amerikaren jarraibideak zera bakarrik frogatzen du, legeen eta ohituren laguntzaz, ez dela etsi behar demokrazia arautzeaz.

Esan dut erakunde demokratikoen arrakasta Estatu Batuetan legee berei eta ohiturei zegokiela herrialdeko naturari baino gehiago.

Baina ondorioztatzen al da hortik kausa hauek berauek beste edonora eramanda gaitasun bera izango luketela, eta herrialdeak ezin baditu legeak eta ohiturak ordeztu, hauek badezaketela hura ordeztu?

Erraz ulertuko da froga-elementuak falta zaizkigula. Mundu Berrian angloamerikarrez gain badira beste herri batzuk, eta haiek eta hauek kausa material berberen menpe daudenez, beren artean konparatu ahal izan ditut.

Baina Amerikatik kanpo ez dago naziorik, angloamerikarren abantaila fisiko berberarik gabe, hala ere hauen legeak eta ohiturak bereganatu dituenik.

Honela, bada, ez dago konparaziorik puntu honetan; iritzia bakarrik bentura daitezke.

Lehenik iruditzen zait kontu handiz bereizi behar direla Estatu Batuetako erakundeak eta erakunde demokratikoak orokorrean.

Europako egoeraz, bertako herri handiez, hiri jendetsuez, armada bikainez eta politikaren konplikazioez gogoeta egitean, ezin dut sinetsi angloamerikarrak berak, beren ideia, erlijio eta ohiturekin gure lurraldera ekarrita, beren legeak dezente aldatu gabe bertan bizi ahal izango liratekeenik.

Baina suposa daiteke herri demokratiko bat amerikarren herria ez bezala antolatuturik.

Ezin al daiteke imajina gobernu bat, gehiengoaren benetako borondatean oinarritua, baina non gehiengoak, berezko zaion berdintasun-sena -ordenaren eta estatu-egonkortasunaren alde- bortxatuz, botere exekutiboaren eskuduntza guztiak familia edo pertsona bakar bati ematea onartuko lukeen? Ezin al daiteke imajina gizarte demokratiko bat, non nazio-indarrak Estatu Batuetan baino zentralizatuagoak liratekeen, non herriak arazo publikoetan lukeen agintea ez litzatekeen hain zuzeneko eta jarkiezina izango, eta non, hala ere, hiritar bakoitzak, zenbait eskubidez hornitua, bere esparruan, gobernuaren martxan esku hartuko lukeen?

Angloamerikarren artean ikusi dudanak pentsarazten dit horrelako erakunde demokratikoei, gizartean zuhertasunez sartuak, gutxika-gutxika azturekin nahastu eta poliki-poliki herriaren iritziekin bat eginez gero, Amerikatik kanpo ere iraun ahal izango luketela edonon.

Estatu Batuetako legeak imajina daitezkeen lege bakarrak edo aurki litezkeen bikainenak izango balira, ulertuko nuke ondorioztatzea Estatu Batuetako legeen arrakastak ez duela, oro har, lege demokratikoen arrakastaz ezer frogatzen, natura hain aldeko ez duten herrialdeetan behintzat.

Baina amerikarren legeak puntu askotan akastunak iruditzen bazaizkit, eta erraza gertatzen bazait beste batzuk imajinatzea, herrialdeko natura bereziak ez dit frogatzen erakunde demokratikoei ezingo luketenik arrakastarik izan beste herri batean, zirkunstantzia fisikoak hain aldeko ez izanik, legeak hobeak balituzte.

Jendea beste alde batzuetan ez bezalakoa balitz Amerikan; hango gizarte-egoerak haien artean aztura eta iritzi berezi batzuk sortaraziko balitu gizarte-egoera berorrek European

sortarazten dituenen aurkakoak, orduan Amerikako demokrazietan gertatzen denak ezer ez luke erakutsiko beste demokrazietan gertatu beharrekoaz.

Amerikarrek beste herri demokratiko guztiek bezalako joerak izango balituzte, eta joera horiei bidezko mugetan eusteko haien legegileak herrialdeko naturaz eta zirkunstantzia mesedegarriez baliatu izan balira, orduan Estatu Batuetako oparotasunak, kausa fisiko huts horiei egotzi beharko litzaiekeelarik, ez luke ezer frogatuko, haien abantaila naturalik izan gabe, beraien etsenpluei jarraitu nahi lieketen herrien alde.

Baina egitateek ez dituzte suposamendu hauetako ez bata eta ez bestea egiaztatu.

Europar ikusten ditugun grinaren antzekoak aurkitu ditut Amerikan: batzuk giza bihotzaren izaerari berari zegozkion; besteak, gizartearen egoera demokratikoari.

Honela, baldintza guztiak berdintsu samarrak izanik, bakoitzak gora egiteko aukera beretsuak ikusten dituenean gizakientzat berezkoa den bihotz-kezka aurkitu nuen Estatu Batuetan. Inbidiaren sentimendu demokratikoa aurkitu nuen, hamaika era ezberdinetan adierazia. Ohartu nintzen herriak harropuzkeria eta ezjakintasunezko nahasmendu handia agertzen zuela arazo publikoen gidaritzan, eta hortik ondorioztatu nuen Amerikan, gure artean bezalaxe, jendea akats berberen menpe dagoela eta ez behar beretsuen arriskupean.

Baina gizartearen egoera arretaz aztertzeari ekin nionean, berehala ohartu nintzen amerikarrek ahalegin handi eta arrakastatsuak egin zituztela giza bihotzaren ahulezia horien kontra borrokatzeko eta demokraziaren berezko akats horiek zuzentzeko.

Haien udal-legeak beste hainbat hesi iruditu zitzaizkidan, hiritarren gutizia egonezinari esparru estu batean eusten ziotenak, eta Estatua irauli ahal izango zuketena grina demokratiko berak udalerriarentzat onuragarri bihurtzen zituztenak. Iruditu zitzaidan legegile amerikarrek lortua zutela, eta arrakastaz gainera, eskubideen ideia inbidi sentimenduen kontra jartzea; erlijio-moralaren mugiezintasuna, politika-arloko mugimendu etengabeen kontra; herriaren esperientzia, beraren ezjakintasun teorikoaren kontra, eta arazo publikoetan zuen aztura, desira-berotasunaren kontra.

Amerikarrek ez dute, beraz, beren herrialdeko naturara jo beren Konstituziotik eta lege politikoetatik sortzen diren arriskuen kontra borrokatzeko. Herri demokratiko guztiekin konpartitzen dituzten gaitzei, orain arte beraiek bakarrik erabili dituzten erremedioak aplikatu dizkiete; eta saiakuntza horietan lehenengoak izan arren, arrakasta izan dute.

Amerikarren ohitura eta legeak ez dira herri demokratikoentzat komenigarri izan litezkeen bakarrik; baina amerikarrek erakutsi dute ez dela etsi behar legeen eta ohituren laguntzaz demokrazia arautzeaz.

Beste herri batzuk -ideia orokor eta emankor hau Amerikatik hartuz, baina gainerantzean ideia honetaz amerikarrek egindako aplikazio partikularrean haiek imitatu nahi izan gabe- Probidentziak gaur egungo gizakiei ezartzen dien gizarte-egoerara egokitzen saiatuko balira, eta, horrela, beraiek mehatxupean dauzkan despotismo edo anarkiari ihes egin nahiko balioke, zer arrazoi dugu pentsatzeko porrot egingo luketela beren ahaleginetan?

Demokraziaren antolamendua eta ezarpena kristauen artean: hau da gure garaiko arazo politiko handia. Amerikarrek ez dute, noski, arazo hau konpontzen, baina irakaspen onuragarriak ematen dituzte konpondu nahi dutenentzat.

Aurreko horren garrantzia Europari dagokionez

Erraz asma daiteke zergatik egin ditudan aurreko ikerketa horiek. Planteatu dudana arazoa ez dagokie Estatu Batuei bakarrik, mundu osoari baizik; ez nazio bati bakarrik, gizaki guztiei baino.

Gizarte-egoera demokratikoa duten herriek ezingo balute aske iraun basa eremuetan bizi direnean baizik, etsi egin beharko genuke giza endaren etorkizunaz, zeren eta gizakia bizkor baitoa demokraziantz eta basa eremuak betetzen ari baitira.



Egia balitz legeak eta ohiturak ez direla aski erakunde demokratikoei iraunarazteko, geldituko ote litzaieke nazioei beste babesik, bakar baten despotismoa baizik?

Badakit gaur egun jende zintzo asko dagoela etorkizun honek ia izutzen ez duena, eta, askatasunaz nekaturik, gustatuko litzaiekeela berorren ekaitzetatik urruti azkenean atseden hartzea.

Baina hauek oso gaizki ezagutzen dute bila dabiltzan portua. Beren oroitzapenez kezkaturik, antzina izan zenagatik epaitzen dute botere absolutua, eta ez gaur egun izan litekeenagatik.

Europako herri demokratikoetan botere absolutua berriro ezarriko balitz, ziur nago forma berria hartuko lukeela eta gure gurasoek ezagutu gabeko berezitasunekin agertuko litzatekeela.

Garai batean European legeak, baita herriaren adostasunak ere, ia mugarik gabeko boterez hornitu zituen erregeak. Baina hauek ia sekula ez ziren horretaz baliatzen.

Ez dut hitz egingo nobleziaren prerrogatibez, auzitegi subiranoen aginteaz, korporazioen eskubideaz, probintzi pribilegioez; hauek, agintearen kolpeak indargetuz, erresistentzi izpirituari eusten zioten nazioan.

Erakunde politiko hauetaz aparte -eta hauek nahiz eta sarritan partikularren askatasunaren kontrako izan, hala ere arimetan askatasunaren maitasuna mantentzeko balio zuten eta ikuspegi honetatik erraz ulertzen da berauen onuragarritasuna-, iritzi eta ohiturek errege-boterearen inguruan hesi ezezagunagoak -baina ez ahulagoak- eraikitzen zituzten.

Erljioak, menpekoen maitasunak, printzearen bihozberatasunak, ohoreak, famili izpirituak, probintzi aurriritziek, ekanduek eta iritzi publikoak mugatzen zuten erregeen boterea, eta esparru ikustezin batean ixten beraien aginpidea.

Orduan herrien konstituzioa despotikoa zen, eta haien ohiturak askeak. Printzeek bazuten eskubidea, baina ez ahalmena, ezta desira ere, edozer egiteko.

Antzina tirania geldiarazten zuten hesietatik, zer gelditzen zaigu gaur egun?

Erljioak arimetan zuen agintea galdu duelarik, ongia eta gaizkia bereizten zituen mugarik nabarmenena desagertuta dago; moralaren arloan zalantzazkoa eta ziurtasunik gabea dirudi orok; honetan itsumustuan dabilta erregeak eta herriak, eta inork ezin du esan non dauden despotismoaren berezko mugak eta libertinajearen mugak.

Iraultza luzeen ondorioz betiko galdu da estatu-buruak inguratzen zituen begirunea. Estima publikoaren zamapetik aske, aurrerantzean printzeak beldurrik gabe murgil daitezke boterearen hordikerian.

Erregeak, herrien bihotza beren aurrera etortzen ikusten dutenean, bihozbera izaten dira, indartsu sentitzen direlako; eta menpekoen maitasun hori zaintzen dute, berori delako tronua euskarri. Orduan printzearen eta herriaren artean halako sentimendu-truke bat sortzen da, gozotasun honek famili giroa gogorarazten duelarik gizartearen baitan. Menpekoek, nahiz eta marmar egin erregearen kontra, ez diote gogait eragin nahi izaten, eta erregeak ere esku eztat jotzen ditu menpekoak, gurasoak seme-alabak zigortzen dituen bezalaxe.

Baina erregetzaren ospea iraultzen zirriparran desagertu ondoren; erregeek, bata bestearen ondotik tronura iritsirik, herrien aurrean txandaka *zuzenbidearen* ahulezia eta *egitatearen* gogortasuna erakutsi dituztenean, jadanik inork ez du subiranoa Estatuaren aitatatz hartzen, eta guztiek nagusia ikusten dute harengan. Ahula bada, mesprezatu egiten dute; indartsua bada, gorrotatu. Bera ere suminez eta beldurrez beterik dago; bere herrialdean atzeritartzat ikusten du bere burua, eta borrokan garaituak bezala erabiltzen ditu menpekoak.

Probintziek eta hiriek aberri komunaren erdian beste horrenbeste nazio ezberdin eratzen zituztenean, hauetako bakoitzak izpiritu berezi bat zuen, joputzaren izpiritu orokorraren

kontrakoa; baina gaur egun aginterri bereko zati guztiak, beren frankizia, usadio, aurriritzi, oroitzapen eta izenak ere galdu ondoren, lege bereberei obeditzera ohiturik daudenean, ez da zailagoa denak batera zapaltzea bakoitza bere aldetik zapaltzea baino. Noblezia bere botereaz baliatzen zen bitartean, eta galdu eta askoz geroago ere bai, ohore aristokratikoak aparteko indarra ematen zien banakoen erresistentziei.

Orduan, beren ezintasunaren gainetik, hala ere beren banako balioaren iritzi handia zutenak ikusten ziren, eta bakarka ere botere publikoaren indarrari aurre egitera ausartzen zirenak.

Baina, gure egunotan, azkeneko klase guztiak elkarrekin nahasten direnean, eta gizabanakoa jendartean gero eta gehiago desagertu eta iluntasun komunaren erdian erraz galtzen denean; gaur egun, ohore monarkikoak bere agintea ia galdu duelarik bertuteak ordeztu gabe, gizakiari bere gainetik ezerk eusten ez dionean, nork esan dezake non geldituko liratekeen boterearen exigentziak eta ahuleziaren nahikeriak?

Famili izpirituak iraun zuen bitartean, tiraniaren aurka borrokatzen zen gizakia sekula ez zen bakarrik egoten, bere inguruan bezeroak, herentziazko adiskideak, ahaideak aurkitzen baitzituen. Eta laguntza hau izan ez balu ere, arbasoen laguntzarekin eta ondorengoek adoretuta sentituko zatekeen. Baina ondareak zatitu eta, urte gutxiren buruan, arrazak elkarrekin nahasten direnean, non kokatu famili izpiritua?

Zer indar gelditzen zaie ekanduei itxuraz erabat aldatu den eta etengabe aldatzen den herri batean, non jadanik tirani ekintza guztiek duten aurrekari bat, non krimen guztiak oinarri daitezkeen aurreko etsenpluren batean, non ezin den ezer nahikoa antzinakorik aurkitu suntsitzeari uko egiteko modukorik, ezta ezer berriegirik asmatu ere ezin saia daitekeenik?

Zer erresistentzia eskaintzen dute dagoeneko hainbestetan makurtu diren ohiturek?

Zer egin dezake iritzi publikoak berak, lotura komun batek elkartuta *hoge*i pertsona ere ez daudenean; ez dagoenean ez pertsonarik, ez familiarik, ez gorputzik, ez klaserik, ez elkarte askerik iritzi hori ordezkatu eta jardunean jarriko duenik; hiritar bakoitzak, besteak bezain indarge, behartsu eta isolatua egonik, gobernuaren indar antolatuari bere ahulezia indibiduala bakarrik kontrajar diezaiokenean?

Orduan gure artean gertatuko litzatekeenaren antzeko zerbait imajinatzeko, ez dago gure analetara jo beharrik. Aski litzateke agian antzinako monumentuei galdetzea eta Erromako tiraniaren mende lotsagarrietara jotzea, non ohiturak ustelduta baitzeuden, oroitzapenak ezabatuta, azturak suntsituta, iritziak koloka, askatasuna -legeetatik kanporatua- babesleku bila, nora jo jakin gabe; non, hiritarrak jada ezerk bermatzen ez zituenek, ezta hiritarrek ere beren buruak, jendea giza izaerari iseka egiten ikusi baitzen, eta printzeak zeruaren bihozberatasuna agortzen menpekoeen egonarria baino gehiago.

Ondoitsuak iruditzen zaizkit Henry IV.aren edo Louis XIV.aren monarkia berraurkitzea pentsatzen dutenak. Niri dagokidanez, Europako hainbat nazio zein egoeratar iritsi den eta gainerako guztiek zeinetarantz jotzen duten hausnartzen dudanean, joera dut pentsatzeko laster askatasun demokratikorako edo Zesarren tiraniarako baino ez dela lekuri izango horietan.

Ez al du honek hausnarketarik merezi? Izan ere, gizakiek denak aske edo denak esklabu, denak eskubide berekin edo denak eskubiderik gabeak, izan beharreko puntu horretara iritsi behar badute; gizarteak gobernatzen dituztenak aukerabide honetara mugaturik aurkituko balira (poliki-poliki jendetza beren mailara jasotzera ala hiritar guztiei gizatasun-mailatik behera erortzen uztera), ez ote litzateke hori aski izango zalantza asko gainditzeko, kontzientzia asko lasaitzeko eta guztiak sakrifizio handiak erraz egitera prestatzeko?

Orduan, ez ote litzateke erakunde eta ohitura demokratikoen garapen mailakatua, ez hoberentzat, baizik eta aske izateko gelditzen zaigun baliabide bakartzat hartu beharko;

eta demokraziaren gobernua maitatu gabe ere, ez ote, orduan, prest egongo gizartearen egungo gaitzen kontrako erremediorik aplikagarrien eta garbiena bezala onartzeko?

Zaila da gobernuan parte harraraztea herriari; are zailagoa da ongi gobernatzeko falta zaion esperientziaz hornitu eta horretarako sentimenduak ematea.

Demokraziaren borondateak aldakorak dira; beraren agenteak, zabarrak; legeak, akastunak; ados nago. Baina egia balitz laster ez dela inolako bitartekaririk izango demokraziaren agintearen eta pertsona bakar baten uztarriaren artean, ez ote genuke hobe baterantz jotzea, geure borondatez bestearen menpe jartzea baino? Eta, azkenean, erabateko berdintasunera iristea beharrezkoa izanez gero, ez ote hobe askatasunak, eta ez despota batek, berdintzea denok?

Liburu hau irakurri ondoren, nik hau idazterakoan angloamerikarren legeak eta ohiturak gizarte-egoera demokratikoa duten herri guztiek imitatzea proposatu nahi izan dudala pentsatzen badu norbaitek, oker handia egingo du; formari atxikiko zaio, nire pentsamenduaren muina bera baztertuz. Nire helburua, Amerikaren etsenpluarekin, legeak eta, batez ere, ohiturek herri demokratiko bati aske irauteko aukera ematen diotela erakustea izan da. Gainerantzean, ez dut inola ere uste amerikarren demokraziak eman digun etsenpluari jarraitu behar diogunik, ezta bere ahaleginen helburua lortzeko erabili dituen baliabideak imitatu behar ditugunik ere; zeren eta bai baitakit nolakoa den herrialdeko naturak eta aurreko egitateek konstituzio politikoetan zertutako eragina, eta gizadiarentzat zoritxar handitzat hartuko nuke askatasunak leku guztietan ezaugarri berberak izan beharra.

Baina pentsatzen dut erakunde demokratikoak poliki-poliki sartzea eta azkenean gure artean ezartzea ez bada lortzen, eta hiritar guztiei, lehenik askatasunerako prestatu eta gero askatasun horretaz baliatzeko aukera utziko dieten ideiak eta sentimenduak emateari uko egiten bazaio, ez dela inorentzat independentziarik izango, ez burgesarentzat, ez noblearentzat, ez behartsuarentzat, ez aberatsarentzat, baizik eta tirania berdina guztientzat; eta denborarekin ez bagara iristen gehiengoaren aginte baketsua gure artean ezartzera, lehentxeago edo geroxeago pertsona bakar baten botere *mugagabera* iritsiko garela aurrikusten dut.

X

*Estatu Batuetako lurraldean bizi diren hiru arrazen egungo egoeraz eta izan lezaketen etorkizunaz zenbait gogoeta*

Dagoeneko betea dut neure buruari ezarritako zeregin nagusia; erakutsi dut, ahal bezain ongi, zein ziren demokrazia amerikarraren legeak; beraien ohiturak zein ziren ere ezagutarazi dut. Isildu ahal izango nintzateke hemen, baina agian irakurleari irudituko litzaioke ez dudala itxaro zuena ase.

Amerikan bada demokrazia zabal eta betea baino zerbait gehiago; ikuspegi batetik baino gehiagotatik azter daitezke Mundu Berrian bizi diren herriak.

Obra honetan zehar, neure gaiak sarri eraman nau indio eta beltzei buruz hitz egitera, baina ez dut astirik izan deskribatzen aritu naizen herri demokratikoaren erdian bi arraza hauek zer-nolako egoera duten azaltzeko; esan dut zein izpirituren arabera eta zein legeren laguntzaz eratu zen angloamerikarren konfederazioa; oso azaletik eta oso modu osagabea bakarrik adierazi ahal izan ditut konfederazio hori mehatxatzen duten arriskuak, eta ezinezkoa izan zait zehatz azaltzea irauteko dituen aukerak, lege eta ohituretatik aparte. Errepublika batuez hitz egitean, ez naiz ausartu errepublika-formek Mundu Berrian izan lezaketen iraupenaz aierurik egiten, eta Batasunean dagoen merkataritza sarri aipatu arren, hala ere, ezin izan naiz aritu amerikarren etorkizunaz, herri merkataria gisa.

Arazo hauek, nire gaia ukitu arren, ez dira bertan sartzen; amerikarrak dira demokratikoak izan gabe, eta nik demokraziaren erretratua egin nahi izan dut, batez ere. Beraz, bazter utzi behar izan ditut hasieran; baina horietara itzuli behar dut bukaeran. Gaur egun Amerikako Batasunak hartzen edo erreklamatzeko duen lurraldea Atlantiar ozeanotik Hegoaldeko itsasoaren ertzetaraino iristen da. Ekialde edo mendebaldera, kontinentearen muga berberak ditu; hegoaldera tropiko-ertzetaraino doa, eta gero gora jotzen du iparreko izotzetaraino.

Espazio honetan barreiatutako pertsonak ez dira, Europan bezala, familia bereko beste horrenbeste kimu. Lehen momentutik nabari dira haien artean hiru arraza, berez ezberdin, eta ia esango nuke etsai, direnak. Hezkuntzak, legeak, jatorriak eta kanpo-itxurak berak hesi ia gaindiezina eraiki du haien artean; zoriak lurralde berean bildu ditu, baina nahastu arren ezin izan ditu bat egin, eta nork bere aldetik jarraitzen dio bere destinoari.

Hain ezberdin diren gizaki haien artean, begirada lehenengo erakartzen duena, bere jakintzargi, botere eta zorionagatik, gizaki zuria da, europarra, berez gizaki dena; honen azpitik beltza eta indioa ageri dira.

Zorigabeko bi arraza hauek ez dute amankomunean ez jaiotza, ez itxura, ez hizkuntza, ez ohiturarik; zoriturak bakarrik dituzte antzeko. Biak daude zuriak baino maila apalagoan herrialde hartan; biek jasaten dituzte tiraniaren ondorioak; eta beren atsekabeak ezberdinak badituzte ere, eragile berberak akusa ditzakete.

Munduan gertatzen dena ikusita, ezin ote da esan europarra beste arrazetako gizakientzat gizakia bera animalientzat bezalakoa dela? Zerbitzatzaera behartzen ditu bere mesederako, eta ezin dituenean makurrarazi, orduan suntsitu egiten ditu.

Kolpe batean zapalkuntzak gizatasunaren pribilegio ia guztiak kendu zizkien afrikarren ondorengoei! Estatu Batuetako beltzak bere herrialdearen oroitzapena ere galdu du; ez du jadanik gurasoen hitz egiten zuten hizkuntzarik entzuten; uko egin dio haien erlijioari eta haien ohiturak ahaztu ditu. Honela, Afrikakoa izateari utzi arren, ez du lortu inolako eskubiderik Europako ondasunekiko, baizik eta bi gizartearen artean gelditu da; isolaturik gelditu da bi herrien artean; batak saldua eta besteak zapuztua, ez du unibertso osoan bere nagusiaren etxea baino aurkitzen, aberriaren irudi osagabea eskain diezaiokeenik.

Beltzak ez du familiarik; emakumeagan ezin du bere plazerretako lagun iragankorra baino ikusi, eta, jaiotzean, seme-alabak dira beraren mailakide.

Jainkoaren onegintza ala haren suminaren azken madarikazioa deituko ote diot gizakia ezbeharrik handienekiko axolagabe bihurtzen duen arima-jarrerari, sarritan bere zorituraren kausarekiko halako gustu deprabatu bat ere ematen dion horri?

Gaitzen leize horretan murgildurik, beltzak ez du ia bere zorigaitza sentitzen; bortxakeriak esklabutza eraman zuen, joputzaren usadioak esklabuaren pentsamenduak eta gutizia eman zizkion; gorrotatu baino gehiago miretsi egiten ditu bere tiranoak, eta bera zapaltzen dutenen jopu-imitazioan aurkitzen ditu poza eta harrotasuna.

Adimena bere arimaren mailara jaitsi zaio.

Beltza aldi berean sartzen da joputzan eta bizitzan. Zer diot? Sarritan amaren sabelean dagoela erosten da, eta nolabait esateko jaio baino lehen hasten da esklabu izaten.

Premiarik gabe eta atseginik gabe, bere buruarentzat ezertarako ez dela, existentziatz hartzen dituen lehen nozioen bidez besteren baten jabego dela ulertzen du, eta honi bera zaintzea interesatzen zaiola; bere zoriaz arduratzerik ez zaiola ametitzen ohartzen da; pentsamenaren erabilera bera ere Probidentziaren alferrikako dohaina iruditzen zaio, eta bere txikitasunaren pribilegio guztiez gozatzen du lasai-lasai.

Aske izatera iristen bada, sarri esklabutza bera baino ere katea astunagoa iruditzen zaio independentzia, zeren eta bere bizitzan zehar gauza guztietara makurtzen ikasi baitu, arrazoiria izan ezik; eta arrazoa bihurtzen zaionean gidari bakar, ezin izaten du honen ahotsa ezagutu. Premia berri ugari inguratzen dute, eta ez du beharrezko ezagutza eta energiarik horiei aurre egiteko. Premiak gudukatu beharreko nagusiak dira, eta makurtzen eta esanekoa izaten bakarrik ikasi du beltzak. Honela, zoritxarraren azken muturreraino iritsi da, joputzak zabartu eta askatasunak galbideratu egiten duelarik. Zapalkuntzak ez du eragin txikiagoa izan indioen arrazetan, baina ondorioak ezberdinak dira.

Zuriak Mundu Berrira iritsi baino lehen, Ipar Amerikan bizi zirenak lasai bizi ziren basoetan. Bizitza basatiaren ohiko gora-beheretara emanak, herri zibilizatu gabeen bizio eta bertuteak zituzten. Europarrek, indioen tribuak basa eremuetan urrun barreiatu ondoren, batetik bestera noraezean ibiltzera kondenatu dituzte, adieraztezinak diren zorigaitzez josita.

Nazio basatiak iritzien eta ohituren bidez bakarrik gobernatzen dira.

Ipar Amerikako indioen artean aberri-sentimendua ahultzean, haien familiak sakabanatu, tradizioak ilundu, oroitzapenen katea eten, aztura guztiak aldarazi eta premiak neurrigabe haztean, ziren baino ere desordenatuago eta inzibilizatuago egin ditu europarren tiraniak. Aldi berean herri hauen egoera morala eta fisikoa etengabe txartu da, eta zenbat eta zoritxarrekoago orduan eta barbaroago bilakatu dira. Halaz guztiz, europarrek ezin izan dute erabat aldatu indioen izaera, eta, suntsitzeko boterea izan arren, ez dute sekula izan zibilizatzekoa eta menperaraztekoa.

Beltza joputasunaren azken mugetan dago jarria; indioa, askatasunaren muga-mugetan. Esklabutzak ia ez du lehenarengan ondorio tamalgarriagorik eragiten, independentziak bigarrenarengan baino.

Beltzak bere buruaren jabetza ere galdu du, eta ezingo litzateke bere bizitzaz baliatu nolabaiteko lapurreria egin gabe.

Basatia bere kontu gelditzen da jardun dezakeen momentutik. Ia ez du familiaren aginpiderik ezagutu; sekula ez du bere borondatea bere hurkoenera makurtu; inork ez dio irakatsi borondatezko obedientzia eta menpekotza lotsagarria bereizten, eta legearen izena ere ez daki. Berarentzat, aske izatea gizarteetako lotura ia guztietatik ihes egitea da. Atsegin du independentzia barbaro hori, eta nahiago luke hil dezaten zatirik txikiena sakrifikatu baino. Zibilizazioak ahalmen txikia du horrelako gizakiagan.

Beltzak alferrikako hamaika ahalegin egiten du bera bazterten duen gizartean sartzeko; zapaltzaileen gustuetara makurtzen da, haien iritzia bereganatzen ditu eta, haiek imitatzean, beraiekin bat egin nahi izaten du. Jaio zenetik esan zaio bere arraza zuriena baino kaskarragoa dela berez, eta ez zaio asko falta sinesteko; hortaz, bere buruaz lotsatzen da. Bere ezaugarrietako bakoitzean esklabutzaren arrasto bat aurkitzen du eta, ahal balu, pozik onartuko luke bere burua guztiz zapuztea.

Indioak, aitzitik, irudimena bete-betea du bere jatorriaren balizko nobleziaz. Bere harrotasunaren amets horien erdian bizi eta hiltzen da. Bere ohiturak inola ere guretara moldatu nahi ez eta barbarotasunari atxikitzen zaio bere arrazaren bereizgarri bat bailitzan, eta zibilizazioa errefusatzeko du, dion gorrotoagatik baino gehiago europarren antzeko izatearen beldurrez agian<sup>204</sup>.

Gure arteen perfekzioari, basa eremuko baliabideak bakarrik kontrajarri nahi dizkio; gure taktikari, bere kuraia indiziplinatua; gure asmoen sakontasunari, bere izaera basatiaren berezko sena. Lur jotzen du berdintasunik gabeko borroka honetan.

Beltzak bere burua bat egin nahiko luke europarrarekin, eta ezin du. Indioak arrakastaz lortu ahal izango luke neurri bateraino, baina gutxietsi egiten du saiatzea ere. Bataren joputasunak esklabutzara bideratzen du, bestearen harrotasunak heriotzara.

Gogoan dut, oraindik Alabamako estatua betetzen duten oihanetan nenbilela, egun batez aitzindari baten etxolara iritsi nintzela. Ez nuen amerikarraren egoitzan sartu nahi izan, eta une batez atsedean hartzera joan nintzen urrutira gabe basoan zegoen iturri baten ondora. Leku hartan nengoen bitartean, emakume indiar bat etorri zen (creek-en nazioak hartutako lurraldetik hurbil geunden orduan); bospasei urteko neskatila bat zekarren eskutik, arraza zurikoa, eta aitzindariaren alabatxo izango zela pentsatu nuen. Emakume beltz bat zetorkien atzetik. Halako luxu barbaro bat ageri zen indioaren janzkeran: metalezko txirrindolak zeuzkan sudur eta belarrietatik zintzilika; adatsa, beirazko aletxo apaindua, aske jausten zitzaion sorbaldan, eta ez zela ezkondua ohartu nintzen, birjinek ezkon-ohean ipini ohi duten maskorrezko lepokoa baitzeraman; beltzak europarren jantziak zeramatzan, ia zarpailduak.

Iturri ondoan eseri ziren hirurak eta gazte basatiak, haurra besoetan harturik, laztanak egiten zizkion, ama baten bihotzak agindutakoak ematen zutenak; beltzak, berriez, trikimailu xume ugariren bidez kreol txikiaren arreta bereganatu nahi zuen. Honek bere mugimendurik txikienetan gehiagotasun-sentimendua adierazten zuen, bere ahulezia eta adinarekin kontraste bitxia eginez; bazirudien amore emanez bezala jokutzen zuela laguntzaileen zainketak hartzean.

Bere ugazamaren aurrean kokoriko, haren desira guztiak espiatzen, beltzak erdibitua zirudien amatasunezko atxikimenduaren eta neskame-beldurraren artean; baina emakume basatiaren samurtasun-adierazpenetan halako jite aske, harro eta ia menperagaitz bat sumatzen zen.

Hurbildu eta ikuskizunari begira egon nintzen isilik; zalantzarik gabe, nire ikusmina ez zen indioaren gogoko izan, zeren eta bat-batean altxatu, haurra beragandik aldenarazi zakar samar eta, suminduta niri begiratu ondoren, basoan barneratu zen.

Sarri suertatu zitzaidan Ipar Amerikan bizi diren hiru giza arrazetako jendea leku berean elkartuta ikustea; ikusia nuen makina bat ondorio ezberdinetan zuriak zertutako nagusitasuna; baina aipatu berri dudana eskema horretan bazegoen zerbait bereziki hunkigarria: maitasun-lokarri batek biltzen zituen hain zapalduak eta zapaltzaileak, eta naturak, haiek hurbilarazten ahaleginduz, are harrigarriago bihurtzen zuen aurriritziek eta legeek beraien artean ezarritako tarte itzela.

Batasuneko lurraldean bizi diren tribu indiarren egungo egoera eta izan lezaketan etorkizuna

Bertako arrazen desagertpen mailakakua.- Nola gauzatzen den.- Indioen migrazio behartuek eragiten dituzten zorigaitzak.- Ipar Amerikako basatiek bi bide baino ez zituzten suntsipenari ihes egiteko: gerra edo zibilizazioa.- Ezin dute jada gerrarik egin.- Zergatik ez duten zibilizatu nahi, egin ahal izango luketenean; eta zergatik ezin duten jada, nahi izatera iritsitakoan.- Creek eta cherokee-en jarraibidea.- Estatu partikularren politika indio horienganako.- Gobernu federalaren politika.

Garai batean Ingalaterra Berriko lurraldean bizi ziren tribu indiar guztiak (narragansettsak, mohikanoak, pecotsak) dagoeneko jendearen oroimenean bakarrik bizi dira; lenapeak, duela ehun eta berrogeita hamar urte Delaware ibaiaren ertzetan Penn-i harrera egin ziotenak, desagerturik daude gaur egun. Egona naiz azken irokeseekin: eskean ari ziren. Aipatu berri ditudan nazio guztiak itsasertzearaino iristen ziren antzina; orain ehun lekora baino gehiago barneratu beharra dago kontinentean indio batekin topo egiteko. Basati hauek atzera eginda ezezik, suntsituta ere badaude<sup>205</sup>. Bertakoak urrutiratu eta hil ahala, haien lekura itzelezko herri bat iristen da eta etengabe handitzen. Nazioen artean sekula ez da ikusi hain garapen miragarriarik, ezta hain suntsipen bizkorrik ere.

Suntsipen hau gauzatzeko modua azaltzea erraza da.

Basa eremuan, nondik deserriraten baitituzte gaur egun, indioak bakarrik bizi zirenean, oso urriak ziren haien beharrak; berek egiten zituzten armak, ibaietako ura bakarrik edaten zuten, eta jantziatarako animalien hondakinak erabiltzen zituzten, haragia jateko hartu ondoren.

Ipar Amerikako indigenen artean europarrek sartu zituzten su-armak, burdina eta pattarra; europarrek erakutsi zieten gure oihalak erabiltzen, haien xumetasunak ordura arte pozik onartutako jantzi barbaroen orde. Gustu berriak berenganatzean, indioek ez zuten ikasi gustu horiek asetzeko artea, eta, beraz, zurien industriara jo behar izan zuten. Berak sortzen ez zekien ondasun horien ordainetan, basatiak ezin zuen ezer eskaini, bere basoetan artean bazeuden larru baliotsuak izan ezik. Aurrerantzean, ehizak ez zituen haien beharrak bakarrik ase behar izan, baita Europako grina hutsalak ere. Jadanik ez zituen basoetako piztiak bere burua janaritzeko bakarrik ehizatu, baita eman ziezazkigukeen trukegai bakarrak eskuratzeko ere<sup>206</sup>.

Honela, bertakoen beharrak areagotuz zihoazen bitartean, haien baliabideak gutxitu egiten ziren etengabe.

Indioak bizi direneko lurraldearen inguruan europarren establezimendu bat jartzen den egunean, ehiza izutu egiten da<sup>207</sup>. Milaka basatik, oihanetan noraezean, bizileku finkorik gabe, ez dute izutzen; baina europarren industriaren etengabeko zaratsak nonbait entzuten diren unean, ehiza ihesi hasten da mendebalderantz, senak esaten baitio oraindik aurkituko dituela han basa eremu mugagabeak. "Bisonte-taldeak etengabe erretiraten dira", diote Cass eta Clark jaunek 1829ko otsailaren 4an Kongresuari egindako txostenean; "duela urte batzuk, artean iristen ziren Alleghany-en oinetaraino; urte batzuk barru, agian nekez ikusiko dira Mendi Harritsuen aurreko lautada zabal horietan ere". Baieztatu didate zurien hurbilketaren ondorio hau beraien mugatik berrehun lekoatara ere igartzen zela sarri. Honela, zurien eragina izenez ere ezagutzen ez dituzten tribuen gain zertzen da, eta hauek eragileak ezagutu baino askoz lehenago jasaten dituzte usurpazioaren gaitzak<sup>208</sup>.

Abenturari ausartak laster sartzen dira indioen eskualdeetan; zurien azken mugatik hamabost edo hogeik lekua barrurago sartzen dira, eta gizaki zibilizatuaren egoitza barbarotasunaren erdi-erdian eraikitzen dute. Erraz egiten dute hau, herri ehiztarien lurraldearen mugak gaizki finkaturik egoten baitira. Bestalde, lurralde hau nazio osoarena da eta ez zehazki jabe jakin batena; banakoaren interesak ez du, beraz, berorren zatirik babesten.

Familia europar batzuek, oso urrutiko lekuak berenganatzean, behin-betiko aldenarazten dituzte lurralde horien arteko basapiztiak. Indioei, ordura arte nolabaiteko ugaritasun-egoeran bizi izanak, nekeza gertatzen zaie bizirik irautea, eta are nekezagoa trukeko behar dituzten gauzak eskuratzeko. Berauen ehizari ihes eragitea, gure laborarien soroak agor bihurtzea bezala da. Ia guztiz faltako zaizkie bizibideak laster. Orduan, zorigabe horiek otso gosetia bailiran ikusten dira baso hutsen erdian, noraezean. Aberriaren berezko maitasunagatik, jaio zireneko lurraldeari atxikitzen zaizkio<sup>209</sup>, eta zorigaitza eta heriotza baino ez dute bertan aurkitzen. Halako batean zirt-zart egiten dute; irten egiten dira, eta ihesi doazen altze, bufalo eta kastoreei jarraitzen diete urrutitik; basapiztia hauen gain uzten dute aberri berria aukeratzeko ardura. Zehatz esanda, ez dira europarrak Amerikako indigenak botatzen dituztenak, gosea baizik; zorioneko bereizketa hau oharkabea pasatu zitzaizen antzinako kasuistei, eta doktore modernoek aurkitu dute.

Imajinaezinak dira derrigorturiko migrazio hauek ekartzen dituzten zorigaitz beldurgarriak. Indioak, gurasoen landetatik irten orduko, aunaturik eta gutxituta zeuden. Beren egoitza ezarri nahi duten eskualdean, etorri berriei jeloskor begiratuko dieten

herriak bizi dira. Atzean gosea dute, aurrean gerra, alde guztietan zorigaitza. Horrenbeste etsairengandik ihes egiteko, sakabanatu egiten dira. Isolatzen saiatzen da nor bere aldetik, isilka-misilka bere bizibideak aurkitu ahal izateko, eta basa eremu zabaletan bizitzen da, proskribatua gizarte zibilizatuen baitan bezala. Aspaldidanik ahuldurik zegoen gizarte-lotura apurtu egiten da orduan. Jadanik ez zen aberririk haientzat, eta laster herririk ere ez da izango; ia ez da familiarik geldituko; izen komuna galdu egiten da, hizkuntza ahaztu, jatorriaren aztarnak desagertu. Nazioak utzi egin dio izateari. Ozta-ozta bizi da Amerikako antikuarioren oroimenean, eta Europako eruditoren batzuek bakarrik ezagutzen dute.

Ez nuke nahi irakurleak pentsatzerik exageratzen ari naizela deskribapen hauetan. Nik neuk ikusi ditut azaldu berri ditudan zorigaitzetako batzuk; eta adierazi ezin ditudan ezbeharrak ere ikusi ditut.

1831. urtearen bukaeran Mississippiren ezkerraldean nengoen, europarrek Memphis deritzoten leku batean. Hantxe nengoen bitartean, choctaws-en (Louisianako frantsesek "chactas" deitzen dituzte) talde handi bat iritsi zen; basati haiek beren herrialdea utzi eta Mississippiren eskuinaldera igaro nahi zuten, non gobernu amerikarrak agindutako babeslekua aurkitzea espero baitzuten. Negu minean ginen orduan, eta urte hartan ezohiko laztasunez jotzen zuen hotzak; elurra gogorturik zegoen lurrean, eta izotz-kosko handiak zekartzan ibaiak. Indioek familiak zeramatzen berekin; zaurituak, gaixoak, jaio berriak eta hiltorian zeuden zaharrak ere bai atzetik arrastaka. Ez zuten dendarik, ez gurdirik, hornigairen batzuk eta armak bakarrik. Ibai handia zeharkatzeko untziratzen ikusi nituen, eta ikuskizun zirraragarri hura ez zait oroimenetik sekula joango. Bildutako jendetzaren artean ez zen ez negar-zotirik, ez kexarik entzuten; isilik zeuden. Haien zoritxarrak antzinakoak ziren eta ezinbestekoak iruditzen zitzaizkien. Jadanik indio guztiak zeuden eraman behar zituen untzian; haien txakurrak artean ibaiartzean zeuden; azkenean, betiko banatzen ari zirela ikusi zutenean animaliek, denek batera ulu beldurgarriak bota eta, aldi berean Mississippiko ur izoztuetara oldartuz, nagusien atzetik joan ziren igerian.

Indioen desjabetzea gaur egun era arautuan eta, nolabait esateko, guztiz legepean egiten da sarri.

Nazio basati bat bizi deneko basa eremura europarrak hurbiltzen hasten direnean, Estatu Batuetako gobernuak eskuarki enbaxada solemne bat bidaltzen du bertara; zuriak lautada zabal batean biltzen dituzte indioak, eta, beraiekin jan eta edan ondoren, esaten diete: "Zer egiten duzue gurasoen lurraldean? Laster beraien hezurak atera beharko dituzue bizi ahal izateko. Orain duzuen eskualde hau, zergatik da beste bat baino hobea? Ez al dago basorik, padurarik eta belardirik zaudeten lekuan baizik, eta zeuen eguzkipean bakarrik bizi ote zaitezke? Han zerumugan ikusten dituzuen mendiez harantzago, zuen lurraldearen mendebaldeko mugan dagoen lakuaz harantzago, eskualde zabalak daude eta beraietan oraindik basapiztiak ugari; saldu guri zeuen lurra eta zoazte haietara zoriontsu bizitzera". Hitzaldi honen ondoren, indioen aurrean su-armak hedatzen dituzte, artilezko jantziak, pattar-upelak, beirazko lepokoak, estainuzko eskumuturrekoak, belarritakoak eta ispiluak<sup>210</sup>. Aberastasun hauen guztien aurrean oraindik ere zalantzan badaude, eskatzen zaien adostasunari ezingo diotela uko egin ematen zaie aditzera, eta laster gobernu bera ere ez dela gai izango dagozkien eskubideen gozamina bermatzeko. Zer egin? Erdi komentzituta, erdi behartuta, indioak aldendu egiten dira; basa eremu berrietan bizitzera joaten dira, non zuriak ez dituzten bakean hamar urtez utziko. Horrela lortzen dituzte amerikarrek prezio kaskarrean probintzia osoak, Europako erregerik aberatsenak ere ordaindu ezingo lituzketenak.

Azaldu berri ditut gaitz handiak, eta ezinbestekoak iruditzen zaizkidala gaineratuko dut. Ipar Amerikako indioen enda desagertu egingo dela uste dut halabeharrez, eta ezin diot



utzi pentsatzeari europarrak Ozeano Barearen ertzetan ezartzen diren egunean, enda horrek utzi egingo diola izateari<sup>212</sup>.

Ipar Amerikako indioek bi salbazio-bide bakarrik zituzten: gerra ala zibilizazioa; beste era batera esateko, europarrak suntsitu behar zituzten ala hauen mailakide bihurtu.

Koloniak sortzen hasi zirenean, indioek, beren indarrak batuz, lortu ahal izango zuketan kontinenteko ertzetara iristen ziren atzerritar-kopuru txikiak suntsitzea<sup>213</sup>. Behin baino gehiagotan saiatu ziren hori egiten, eta lortzeko zorian egon ziren. Gaur egun baliabideen desoreka handiegia da, horrelakorik bururatu ere egiteko haiei. Hala ere, indioen nazio artean sortzen da oraindik jende buruargirik herri basatiei egokituko zaien azken zoria aurrikusten duenik eta europarren aurkako gorroto komunean tribu guztiak biltzen saiatzen denik. Baina beraien ahaleginak ezinean gelditzen dira. Zurien inguruko tribuak dagoeneko ahulegiak dira haiei eraginkortasunez aurre egiteko; beste batzuk, izaera basatiak biharamunarekiko duen ume-arduragabekeria horrekin, arriskua etorri arte gelditzen dira zain zerbait egiteko; batzuek ezin dute, besteek ez dute ezer egin nahi.

Erraz aurrikus daiteke indioek ez dutela inoiz zibilizatu nahiko, edota, nahi izatera iristean, beranduegi saiatuko direla horretan.

Leku bat berean zertutako gizarte-lan luzearen emaitza izaten da zibilizazioa, belaunaldi ezberdinek batzuek besteei segidan legatzen dietena. Zibilizazioari herri ehiztarien artean kostatzen zaio gehien bere agintea ezartzea. Artzain-tribuak lekuz aldatzen dira, baina beren migrazioetan ordena erregular bati jarraitzen diote beti, eta etengabe itzultzen dira ibilitako bidetik; ehiztarien egoitza, pertsegitzen dituzten animaliena bezalaxe aldatzen da.

Hainbat aldiz egin dira indioen artean jakintzargiak sartzeko saioak, ibiltari gisa dituzten ohiturekin jarraitzen utziz; jesuitak Kanadan ahalegindu ziren, puritanoak Ingalaterra Berrian<sup>214</sup>. Ez batzuek eta ez besteek ez zuten ezer iraunkorrik lortu. Zibilizazioa etxolapean jaiotzen zen eta gero basoetan hiltzen. Indioen legegile horien hutsegite handia zera izan zen: ez ulertzea, herri bat zibilizatza iristeko, lehenik eta behin nonbait finkatzea lortu behar dela, eta hori lurra landuz bakarrik egin lezakeela; beraz, indioak laborari bihurtu behar ziren lehenik.

Indioek, zibilizazioaren ezinbesteko aurrebaldintza hori ez betetzeaz gain, oso nekeza dute lortzea ere.

Ehiztarien bizimodu astitsu eta abenturatsua behin dastatu duen jendeak atsekabe ia gaindigaitza sentitzen du lur-langintzak eskatzen dituen lan iraunkor eta erregularren aurrean. Gure gizartearen baitan ere ikus daiteke hori; baina askoz nabariagoa da ehiza-azturak nazio-ekandu bilakatu diren herrietan.

Kausa orokor honetatik aparte, bada beste bat hori bezain ahaltsua eta indioen artean bakarrik aurkitzen dena. Jadanik azaldu badut ere, berriro aipatu behar dudala uste dut.

Ipar Amerikako indigenei lana, gaitz bat ezezik, desohorea ere iruditzen zaie, eta haien harrotasuna nagitasuna bezain setati borrokatzen da zibilizazioaren aurka<sup>215</sup>.

Ez dago indiorik hain miserablerik, zuhaitz-azalezko etxolapean bere balio indibidualaren ideia bikainik zertzen ez duenik; industri ardurak eginkizun doilorgarritzat dauzka; laboraria ildoan egiten duen idiarekin parekatzen du, eta gure arte guztiak esklabu-lanak iruditzen zaizkio. Kontua ez da ez daukala iritzi bikaina zurien botereaz eta hauen adimenaren handitasunaz; baina, gure ahaleginen emaitza miresten badu ere, hori lortzeko erabili ditugun baliabideak mesprezatzen ditu, eta, gure nagusitza jasaten badu ere, halaz guztiz gu baino gehiago dela uste du. Ehiza eta gerra iruditzen zaizkio gizonaren ardura duin bakarrak<sup>216</sup>. Indioa, bere basoetako lazeriaren erdian, Erdi Aroko aitonen semeak bere gaztelu gotortuan zituen ideia berberez

elikatzen da, eta haren antzeko izateko konkistatzaile bihurtzea bakarrik falta zaio. Honela, gauza bitxia!, Mundu Berriko oihanetan aurkitzen dira gaur egun, eta ez hango itsasertzetan bizi diren europarren artean, Europako antzinako aurriritziak.

Obra honetan zehar behin baino gehiagotan saiatu naiz gizarte-egoerak, nire ustez, jendearen lege eta ohituretan zertzen duen eragin harrigarria ulertarazten. Zilegi bekit gai honetaz beste zertxobait esatea.

Gure arbasoen -germaniarren- eta Ipar Amerikako tribu ibiltarien erakundeen arteko antzekotasunaz ohartzen naizenean, edota Tazitok azalduriko ekanduen eta batzuetan nik neuk ikusi ahal izan ditudan artekoaz, ezinbestean pentsatzen dut kausa berak ondorio berberak eragin dituela bi hemisferioetan, eta, giza gauzen itxurazko ezberdintasunaren erdian ez dela ezinezkoa egitate sortzaile gutxi batzuk aurkitzea, gainerako guztien sorburu direnak. Tentaturik nago, beraz, germaniarren erakundeak deritzegun horietan barbaroen azturak baino ez ikusteko, eta ideia feudalak deitzen ditugun horietan, basatien iritziak.

Direnak direla Ipar Amerikako indioei nekazari eta zibilizatu bihurtzea eragozten dieten bizio eta aurriritziak, batzuetan premiak behartzen dituelako gertatzen da hori.

Hegoaldeko hainbat nazio garrantzitsu, cherokee eta creekak beste batzuen artean<sup>217</sup>, europarrek inguratuta bezala aurkitu dira, hauek, Ozeanoaren ertzean lehorreratu, Ohio ibaian behera eta Mississippin gora, haien ingurura iritsi baitziren aldi berean. Ez zituzten, iparraldeko tribuak bezala, batetik bestera bota, baina pixkana-pixkana muga estuegien barnean itxi zituzten, ehiztariak lehenengo sasitza inguratzen duten bezala, gero denak batera barrura sartu baino lehen. Indioak, zibilizazioaren ala heriotzaren aurrean, beharturik aurkitu ziren zuriak bezalaxe lan eginez bizitzera; nekazari bilakatu ziren, beraz; eta beren azturak eta ohiturak guztiz baztertu gabe ere, bizirik irauteko behar-beharrezkoa zena sakrifikatu zuten berorietan.

Cherokeeak urrutirago joan ziren; hizkuntza idatzi bat sortu zuten, gobernu-era aski egonkorra ezarri zuten, eta, Mundu Berrian dena presaka ibiltzen denez, egunkari bat<sup>218</sup> izan zuten, guztientzako jantziak izan baino lehen.

Europarren azturak indioen artean bizkor garatzea eragin duena mestizoen presentzia<sup>219</sup> izan da, batez ere. Aitaren jakintzargietan parte hartuz, amaren arrazaren ekandu basatiak erabat baztertu gabe, zibilizazioaren eta barbarotasunaren arteko berezko lotura da mestizoa. Mestizoak ugaltu diren alde guztietan, basatiak pixkana beren gizarte-egoera aldatuz eta ohiturak mudatuz joan dira<sup>220</sup>.

Beraz, cherokee-en arrakastak frogatzen du indioek badutela beren buruak zibilizatzeko ahalmena, baina ez du inola ere frogatzen hori lor dezaketenik.

Zibilizazioaren menpe jartzeko indioek duten zailtasun hori kausa orokor batetik sortzen da, ia ezinezkoa zaielarik honi ihes egitea.

Historiari arretaz begiratuz gero, ikusten da herri barbaroak eskuarki beren baitatik, eta beren ahalegin propioz, igo direla pixkana zibilizazioraino.

Jakintzargia atzerriko nazioren batetik hartu dutenean, nazio horren aurrean garaile-mailan zeudelako zen, eta ez garaituen egoeran.

Herri konkistatua ilustratua denean eta herri konkistatzailea erdi basatia, Iparraldeko nazioak Erromako inperioan edota mongolak Txinan sartu zirenean bezala, garaipenak barbaroari ematen dion boterea aski da gizaki zibilizatuaren mailan jartzeko, eta honen mailakide bailitzan jokatzeak aukera ematen dio, lehiakide bihurtu arte; bata indarra du bere alde, besteak adimena; lehenak garaituen zientziak eta arteak miresten ditu, bigarrenak garaileen boterearen inbidia du. Azkenean barbaroek beren jauregian sartzen dute gizaki zibilizatua, eta gizaki zibilizatuak, berriz, bere eskolak irekitzen dizkie.

Baina indar materiala daukanak aldi berean adimen-nagusitasuna ere baldin badu, garaitua nekez zibilizatzen da; erretiratu egiten da edo suntsitu egiten dute.

Honela, esan daiteke basatiak armak eskuetan dituztela joaten direla eskuarki jakintzargien bila, baina ez dituztela hartzen.

Orain kontinentearen erdian bizi diren tribu indiarrek zibilizatzen hasteko beren baitan aski energia aurkitu ahal izango balute, arrakasta izango lukete agian. Orduan, inguruko nazio barbaroak baino gorago egonik, indarra eta esperientzia hartuko lituzkete poliki-poliki, eta, azkenean beraien mugetan europarrak agertzean, beren independentziari eusteko egoeran ez balitz ere, gutxienez beren lur-eskubideak onartarazteko eta garaileen artean sartzeko egoeran egongo lirateke. Baina indioen zoritxarra herririk zibilizatuenarekin -eta munduko gutziatsuenarekin, esango nuke- topo egitea izan da, beraiek oraindik erdi barbaro diren bitartean; beren hezitzaileengan ugazabekin topo egitea, eta aldi berean zapalkuntza eta jakintzargiak hartzea.

Basoetako askatasunean murgildua bizi zelarik, Ipar Amerikako indioa behar gorrian zegoen, baina ez zen beste inor baino gutxiago sentitzen; zurien gizarte-hierarkian sartu nahi duen momentuan, azken mailan baino ezin da jarri, ezjakin eta behartsu sartzen baita jakintza eta aberastasuna nagusi diren gizartean. Gaitzez eta arriskuz jositako bizimodu zalapartatsua, baina aldi berean zirrarez eta handitasunez betea<sup>221</sup>, eraman ondoren, existentzia monotono, ilun eta degradatura makurtu behar izaten du. Elikatzeko behar duen ogia lan neketsuen bidez eta lotsagarriro irabaztea, hauxe da, hark ikusten duenez, goraipatzen dioten zibilizazioaren emaitza bakarra.

Eta emaitza horixe lortzeko ere beti ez du ziurtasunik.

Indioak beren auzoko europarrak imitatzen eta hauek bezala lurra lantzen hasten direnean, oso konkurrentzia kaltegarriaren eraginpean aurkitzen dira berehala. Zuria nekazaritzako sekretuen jabe da. Indioak, berak ez dakien langintza bati ekiten dio zabarki. Batak nekerik gabe lortzen ditu uzta handiak, besteak ikaragarritzko ahaleginez bakarrik ateratzen dizkio lurrari bere emaitzak.

Europarra herri baten erdian dago, herri honen beharrianak ezagutzen eta bere egiten dituelarik.

Basatia isolaturik dago herri etsai baten erdian, ez baititu bete-betean ezagutzen honen ohitura, hizkuntza eta legeak, baina hala ere ezin da hauek gabe bizi. Bere produktuak zurienekin trukatzu bakarrik lor dezake aisetasuna, laguntza txikia eman baitiezaiketere bere herrikideek.

Honela, bada, indioak bere lanaren emaitzak saldu nahi dituenean, ez du beti aurkitzen nekazari europarrak erraz aurkitzen duen eroslea, eta hark oso garesti baino ezin du ekoitzi beste honek oso merke ematen duena.

Indioa, nazio barbaroek jasan behar izaten dituzten gaitzetatik libratu bada, herri zibilizatuen zorigaitz handiagotara makurtzeko bakarrik izan da, eta gure oparotasunaren erdian bizitzeko bere oihasen erdian adina zailtasun aurkitzen du ia.

Hala ere, bizitza ibiltariko azturak ez dira oraindik harengan desegin. Tradizioek ez dute beren agintea galdu; ehizerako zaletasuna ez da itzali. Behinola basoen erdian sentituriko gozamen basatiak are kolore biziagoz agertzen zaizkio orain bere irudimen asaldatuan; aitzitik, baso haietan pairaturiko gabeziak ez zaizkio hain ikaragarriak iruditzen, ezta hain handiak ere han aurkituriko arriskuak. Bere mailakideen artean gozatzen zuen independentzia oso bestelakoa da gizarte zibilizatuan dagokion jopu-mailaren aldean.

Bestalde, hain luzaroan aske bizi izan zeneko bakarlekua hurbil du oraindik; ordu batzuetako ibilaldia egin eta han legoke berriro. Zer jana ozta-ozta ematen dion soro erdi goldatuaren truke, handia iruditzen zaion ordaina eskaintzen diote auzoko zuriek. Europarrek eskaintzen dioten diru horrek, beraiegandik urruti, zoriontsu eta lasai

bizitzeko aukera emango dio agian. Gorda bertan behera utzi, berriro armak hartu eta indioa basamortura itzultzen da betiko<sup>222</sup>.

Koadro triste hau egiazkoa den ala ez, aipatu ditudan creek eta cherokee-en artean gertatzen denaz juzga daiteke.

Indio hauek, egin duten gutxian, Europako herriek beren eginkizunik handienetan bezainbat berezko jeinu erakutsi dute ziur aski; baina nazioek, gizakiek bezalaxe, denbora behar dute ikasteko, nolanahikoak izanik ere berorien adimena eta ahaleginak.

Basati horiek beren buruak zibilizatzen lan egiten zuten bitartean, beroriek alde guztietatik inguratzen jarraitzen zuten europarrek, gero eta esparru estuagoan egotera behartuz. Gaur egun, bi arrazek elkarrekin topo egin dute azkenean; elkar ukituz daude.

Indioa bere arbaso basatia baino gorago dago jadanik, baina auzoko zuria baino askoz beherago oraindik. Beren baliabideen eta jakintzargien laguntzaz, europarrak laster jabetu dira zoruaren jabetzak indigenei eman ziezazkiekeen abantaila gehientsuenek: hauen artean finkatu dira, lurrak berenganatu edo oso prezio kaskarrean erosi dituzte eta porrot eragin diete, indigenek inola ere jasan ezin zuten konkurrentziaren bidez. Beren herrialdean isolaturik, indioak arrotz gogaikarritz osaturiko kolonia txiki bat besterik ez dira, herri kopurutsu eta menperatzailearen erdian<sup>223</sup>.

Washingtonek honela esan zion bere mezuetakoa batean Kongresuari: "Indioen nazioak baino ilustratuago eta ahaltsuagoak gara gu; ohore-kontua da guretzat horiekin ontasunez, eta bihozberatasunez ere, jokatzeara".

Politika bikain eta bertutetsu horri ez diote, ordea, jarraitu.

Kolonoen gutziarekin gobernuaren tirania elkartzen da normalean. Nahiz eta cherokee eta creekak europarrak iritsi baino lehen egon lur haietan bizitzen, nahiz eta amerikarrek atzerriko nazioekin bezala tratatu duten sarri haiekin, barnean hartzen dituzten estatuek ez dituzte herri independentetzat onartu nahi izan, eta jende hori, oihaetatik irten orduko, zurien magistratu, ekandu eta legeetara makurrarazteari ekin diote<sup>224</sup>. Zorigabeko indio horiek zibilizaziorantz bultzatu zituen lazeriak; gaur egun berriro barbarierantz bultza egiten die zapalkuntzak. Horietako asko, erdi goldaturiko soroak bertan behera utzi eta ohiko bizitza basatira itzultzen dira.

Hegoaldeko estatuetakoa legegileek harturiko tiraniazko neurriei, gobernarien jokabideari eta auzitegien egintzei arreta jarritz gero, erraz komentitzen da indioen erabateko kanporaketa dela ahalegin guztien aldibereko azken helburua. Batasuneko alde horretako amerikarrek jelsiaz ikusten dituzte indigenek dauzkaten lurrak<sup>225</sup>; azken hauek bizitza basatiko tradizioak oraindik ez dituztela erabat galdu oihartzaren dira amerikarrak, eta zibilizazioak lurrari tinko atxiki baino lehen, etsiarazi eta aldentzera behartu nahi dituzte.

Estatu partikularrek zapalduta, creek eta cherokee-ek gobernu zentralagana jo zuten. Honi axola zaizkio haien ezbeharrak, benetan nahi luke indigenen hondarrak salbatu eta berak bermatu dien<sup>226</sup> lurraldearen edukitza askea ziurtatu, baina, bere egitasmoa betearazi nahi duenean, estatu partikularrek oso gogor egiten diote kontra, eta orduan erraz erabakitzen du tribu basati batzuk, dagoeneko erdi suntsituak, desagertzen uztea, Amerikako Batasuna arriskuan ez jartzearen.

Indioak babesteko ahalmenik gabe, gutxienez berauen zoria eztitu nahi luke gobernu federalak; helburu honekin, beste leku batzuetara garraiatzeari ekin dio, berak ordainduta.

Ipar-latitudeko 33 eta 37 graduen artean, eskualde zabal bat dago, zeharkatzen duen ibai nagusitik Arkansas izena hartu duena. Alde batetik, Mexiko du mugakide, bestetik Mississippiren ibaiertzak. Erreka eta ibaitxo ugari zeharkatzen du alde guztietatik, klima ezia du eta zorua emankorra. Basati-talde ibiltariren batzuk baino ez daude han.

Herrialdeko parte horretara, Mexikotik hurbilen eta amerikarren establezimenduetatik oso urruti dagoen horretara, eraman nahi ditu Batasuneko gobernuak hegoaldeko herri indigenen hondarrak.

Ziurtatu zigutenez, 1831. urtearen amaieran, jadanik 10.000 indio eramanak zituzten Arkansas ibaiaren ertzetara; eta egunero iristen omen ziren beste batzuk. Baina Kongresuak, indio horien destinoa arautu nahi duelarik, ezin izan du oraindik berorien artean adostasun osorik lortu: batzuek pozik onartzen dute tiraniaren erdigunetik urruntzea; ilustratueneke uko egiten diote erretzen ari zaizkien uztak eta beren egoitza berriak lagatzeari; pentsatzen dute, zibilizazioaren lana eten egiten bada, ez duela inoiz jarraipenik izango; beldur dira egonkortasun-azturak, hartu berri-berriak dituztelarik, behin-betiko galduko ote diren oraindik basati diren eskualdeetan, non ezer ez dagoen prestatutik herri laborari batek bizirik irauteko; badakite basa eremu berriotan horda etsaiak aurkituko dituztela, eta haiei aurre egiteko ez dute jadanik barbarotasunaren kemenik, eta ez dute oraindik lortu zibilizazioaren indarrik ere. Bestalde, indioak berehala ohartzen dira proposatzen zaien establezimendu horrek duen behin-behinekotasunaz. Nork ziurtatuko die azkenean bakean egon ahal izango direla beren babesleku berrian? Han eustera konprometitzen dira Estatu Batuak; baina orain daukaten lurraldea ere zin-hitzik solemneenez bermatu zitzaizen aspaldi<sup>227</sup>. Egia da gaur egun gobernu amerikarrak ez dizkiela lurrak kentzen, baina inbadi ditzaten uzten du. Urte batzuk barro, zalantzarik gabe, orain inguruan metatzen zaien jendetza zuri hori berori atzetik izango dute berriro Arkansaseko bakarlekuetan; orduan gaitz berberekin topo egingo dute erremedio berberarik gabe; eta lehentxeago edo geroxeago lurra faltako zaielarik, etsi egin beharko dute eta heriotza onartu.

Gutizia eta bortxa gutxiago dago Batasunak indioekin jokatzeko duen moduan estatuek jarraituriko politikan baino; hala ere, bi gobernuak berdina falta zaie uste ona.

Estatuek, beren legeen onura deitzen dutena indioengana hedatzean, espero dute hauek nahiago izango dutela urruntzea menpera makurtzea baino; eta gobernu zentralak, zorigabe hauei mendealdean babesleku iraunkorra agintzean, badaki ezin diela hori bermatu<sup>228</sup>.

Honela, estatuek, beren tiraniagatik, ihes egitera behartzen dituzte basatiak; Batasunak, bere agintzariez eta baliabideen laguntzaz, erraztu egiten du ihes hori. Helburu bera duten neurri ezberdinak dira<sup>229</sup>.

"Unibertsoa gobernatzen duen zeruko gure Aitaren borondatez", esaten zuten cherokee-ek Kongresuari egindako eskarian<sup>230</sup>, "gizaki gorrien arraza txiki bilakatu da, arraza zuria handi eta ospetsu.

"Zuen arbasoak gure itsasertzetara iritsi zirenean, gizaki gorria indartsua zen eta, ezjakin eta basatia izan arren, eskuzabaltasunez hartu zituen zuetarrak eta haiek beren hanka hozminduei lehorrean atsedean eman ziezaieten onartu zien. Gure eta zuen gurasoak elkarri eskua eman adiskidetasunaren adierazgarri eta bakean bizi izan ziren.

"Zuriak bere premiak asetzeko eskatu zuen guztia, indioak berehala eman zion. Orduan indioa zen nagusi, eta zuria erregutzaile. Gaur egun egoera aldatu egin da: gorriaren indarra ahulezia bilakatu da. Auzokoak ugaltu ahala, gero eta urriagoa izan zen gorriaren boterea; eta, zuek Estatu Batuak deritzozuen honetan lehen makina bat tribu ahaltsu bazegoen ere, orain banaka batzuk baino ez dira gelditzen, hondamendi orokorretik libratu direnak. Iparraldeko tribuak, behinola beren ahalmenagatik gure artean hain ospetsuak, ia desagertu dira jadanik. Horra hor Amerikako gizaki gorriaren destinoa.

"Hona hemen gu, geure arrazako azkenak; hil egin behar ote dugu guk ere?"

"Aspaldi-aspaldidanik, guztion Aitak, zeruan dagoenak, gure arbasoei eman zien orain daukagun lurra; arbasoek eskualdatu egin digute beren ondare bezala. Begirunez gorde dugu, beraien errautsak dituelako. Eman edo galdu al dugu inoiz ondare hori? Utziguzue apalki galdetzen ea herri batek bere lurraldea izateko eskubide hoberik duen ondare-eskubidea eta aspaldiko edukitza baino. Badakigu eskubide hori galdu egin dugula esaten dutela orain Georgiako estatuak eta Estatu Batuetako lehendakariak. Baina oinarririk gabeko alegazioa iruditzen zaigu hori. Noiz galdu dugu? Zer krimen egin dugu geure aberria kendu ahal izateko? Independentzi Gerrakoan Britainia Handiko erregearen banderapean borrokatu izana aurpegiatzen al zaigu? Hori bada aipaturiko krimena, zergatik ez zenuten gerraosteko lehen hitzarmenean aldarrikatu galdua genuela geure lurren jabetza? Zergatik ez zenuten hitzarmen hartan honelako artikuluren bat sartu: "Estatu Batuek ongi deritzote cherokee-en nazioari bakea emateari, baina, gerran esku hartu izanagatik zigortzeko, aurrerantzean lurraren errentari bakarrik izango direla aldarrikatzen dugu, eta alde egin beharko dutela inguruko estatuek horrela eskatzen dietenean"? Hura zen honela hitz egiteko momentua, baina inori ez zitzaion bururatu egiterik, eta gure gurasoek ere sekula ez zuketean onartuko beren eskubide sakratuenik gabe uztea eta beren herrialdea kentzea ondoriotzat zuen hitzarmenik".

Honela mintzo dira indioak: diotena egia da; aurrikusten dutena saihestezina iruditzen zait.

Ipar Amerikako indigenen destinoa zeinahi aldetatik aztertuta ere, gaitz konponezinak baino ez dira ikusten: basati jarraitzen badute, aurrera bultza egiten zaie joan daitezen; beren buruak zibilizatu nahi badituzte, beraiek baino zibilizatuago direnekiko harremanak zapalkuntza eta lazeriara eramaten ditu. Basamortuz basamortu ibiltzen jarraitzen badute, haienak egin du; finkatzea erabakitzen badute ere, haienak egin du. Europarren laguntzaz bakarrik ilustratu daitezke, eta europarren hurbiltasunak gaiztotu eta barbarotasunerantz bultza egiten die. Beren bakarlekuetan uzten zaien bitartean, uko egiten diote ohiturak aldatzeari, eta, azkenean, hori onartzera beharturik daudenean, orduan beranduegi da jada.

Espainolek txakurrak botatzen dituzte indioen kontra basapiztien kontra bezalaxe; Mundu Berrian arpilaketan ibiltzen dira erasoan menperaturiko hiria bailitzan, ezer bereizi gabe eta gupida barik; baina ezin da dena suntsitu, suminak badu mugarik. Sarraskietatik ihes egindako herri indiarren hondarra azkenerako garaileekin nahasten da, eta hauen erlijioa eta ohiturak bereganatzen ditu<sup>231</sup>.

Aitzitik, Estatu Batuetako amerikarrek indigenekiko duten jokabideak formen eta legaltasunaren maitasunik garbiena erakusten du. Indioek egoera basatian jarraitzen badute, amerikarrak ez dira inola ere haien arazoetan sartzen eta herri independente bezala tratatzen dituzte; ez dute indioen lurrik berenganatzerik onartzen, behar bezala kontratu bidez lortzen ez badira; eta, kasualitatez, nazio indiar bat ezin bada jada bere lurraldean bizi, anaitasunez eskutik heldu eta haiek berek eramaten dute hiltzera gurasoen herrialdetik kanpo.

Espainolek, adieraztezinezko basakerien laguntzaz, beren buruak ezabaezinezko lotsaz estaliz, ez dute lortu indioen arraza suntsitzea, ezta beren eskubideetan partaide izan daitezen eragozteia ere; Estatu Batuetako amerikarrek erraztasun miresgarritz lortu dituzte bi emaitza horiek, lasaitasunez, legalki, filantropikoki, odolik isuri gabe, moralaren printzipio handietariko bakar bat ere hautsi gabe munduaren aurrean<sup>232</sup>. Ezin dira gizakiak suntsitu gizatasunaren legeak hobeto errespetatuz.

Arraza beltzak Estatu Batuetan duen posizioa<sup>233</sup>;

horren presentziak zurientzat dakartzan arriskuak

Esklabutza abolitu eta beronen arrastoak desagertaraztea, zergatik den zailagoa modernoan artean antzinakoan artean baino.- Estatu Batuetan, zurien aurriritzia beltzen

kontra areagotu egiten dela ematen du esklabutza suntsitu ahala.- Beltzen egoera iparraldeko eta hegoaldeko estatuetan.- Zergatik abolitzen duten amerikarrek esklabutza.- Joputzak, esklabua zabartzen duen duelarik, ugazaba pobretzen du.- Ohio ibaiaren eskuineko eta ezkerreko ertzen artean nabari diren ezberdintasunak.- Zeri egotzi behar zaizkion ezberdintasun horiek.- Hegoaldeko estatuek dituzten eragozpenak esklabutza abolitzeko.- Etorkizuneko arriskuak.- Izpirituen kezka.- Kolonia beltz baten fundazioa Afrikan.- Hegoaldeko amerikarrek, esklabutza begi onez ez ikusi arren, aldi berean zergatik areagotzen dituzten berorren garraztasunak.

Indioak isolamenduan hilko dira, bizi izan diren bezalaxe; baina beltzen destinoa nolabait ere lotua dago europarrenarekin. Bi arrazak daude bata bestearekin lotuta, baina nahastu gabe horregatik; elkarrengandik zeharo banatzea bezain zaila zaie elkartzea.

Estatu Batuetako etorkizuna mehatxatzen duten gaitz guztietako beldurgarriena lurralde hartan beltzak egotetik sortzen da. Batasuneko egungo arazoen eta geroko arriskuen kausa bilatzen denean, ia beti lehen egitate horretara iristen da, edozein aldetatik abiatuta ere.

Orokorrean gizakiek ahalegin handi eta etengabeak egin behar izaten dituzte gaitz iraunkorrak sortzeko; baina bada gaitz bat munduan isilka sartzen dena. Hasieran ia ez da nabaritzen agintearen ohiko abusuen erdian; historiak izena ere gogoratzen ez duen norbaitekin hasten da; hazi madarikatua bezala uzten da lurrean nonbait; gero bere buruaz elikatzen da, ahaleginik gabe hedatu eta berez hazten da onartu duen gizartearekin batera. Gaitz hau esklabutza da.

Kristautasunak suntsitu egin zuen joputza; hamaseigarren mendeko kristauek berriro ezarri zuten; hala ere, sekula ez zuten onartu beren gizarte-sistemako salbuespentzat baino, eta giza arrazetako bakar batera mugatzeko ardura izan zuten. Honela, zauri txikiagoa egin zioten gizadiari, baina askoz ere zailagoa sendatzeko.

Bi gauza bereizi behar dira arretaz: esklabutza bera eta honen ondorioak.

Esklabutzak eragindako berehalako gaitzak beretsuak ziren antzinakoen artean eta modernoek artean, baina gaitz hauen ondorioak ezberdinak ziren. Antzinakoen artean, esklabua bere ugazabaren arraza berekoa zen, eta sarritan heziketa eta jakintzargi gehiagokoa<sup>234</sup>. Askatasunak bakarrik banatzen zituen; askatasuna emanez gero, erraz nahasten ziren elkarrekin.

Antzinakoek, beraz, oso bide erraza zuten esklabutzatik eta honen ondorioetatik libratzeko; emantzipazioaren bidea zen hori, eta orokorki erabili zuten momentutik, lortu ere egin zuten libratzea.

Hala ere, antzinatean, joputza suntsitu eta gero ere, beronen arrastoek iraun egin zuten aldi batez.

Bada berezko aurriritzi bat gizakia, bera baino gutxiago izan dena gutxiestera bultzatzen duena, mailakide bihurtu eta askoz geroago ere; zoriak edo legeak eragindako benetako ezberdintasunaren atzetik, irudipenezko ezberdintasuna sortzen da beti, sustraiak ohituretan dituen; baina antzinakoen artean, esklabutzaren bigarren mailako ondorio honek muga bat zuen. Libertoa, jatorri askekoen hain antzeko zenez, laster bihurtzen zen bereiztezin azken hauen artean.

Antzinakoen artean legea aldatzea zen gauzarik zailena; modernoek artean, ohiturak aldatzea; eta, guretzat, benetako zailtasuna antzinakoentzat amaitzen zen puntuan hasten da, hain zuzen.

Eta hau, modernoek artean esklabutzaren egitate inmaterial eta igarokorra arraza-diferentziaren egitate material eta iraunkorarekin modurik txarrean konbinatzen delako sortzen da. Esklabutzaren oroitzapenak arraza desohoratzen du, eta arrazak esklabutzaren oroitzapena betikitzen du.

Ez dago afrikarrik aske etorri denik Mundu Berriko itsasertzetara; eta, ondorioz, gaur egun han aurkitzen diren guztiak esklabuak edo libertoak dira. Honela, beltzak, biziarekin batera, bere ignominiaren kanpo-ezaugarria eskualdatzen die ondorengo guztiei. Legeak suntsi dezake joputza; baina Jainkoak bakarrik desagertaraz dezake horren arrastoa.

Esklabu modernoa, askatasunagatik ezezik, jatorriagatik ere bereizten da ugazabagandik. Eman diezaiokezue beltzari askatasuna, baina ez duzue lortuko bera ez egotea arrotz bezala europarraren aurrean.

Hala ere, hori ez da dena. Apaltasunean jaiotako gizaki horri, joputzak gure artean sartu duen arrotz horri, ozta-ozta aitortzen dizkiogu gizatasunaren ezaugarri orokorrak. Berorren aurpegia higuingarria iruditzen zaigu, adimena mugatua, gustuak apalak; gutxi falta da aberearen eta gizakiaren arteko izakitzat har ez dezagun<sup>235</sup>.

Modernoak, esklabutza abolitu ondoren, hori baino askoz helezinago eta setatiagoak diren hiru aurriritzi suntsitu beharrean daude oraindik ere: ugazabaren aurriritzia, arrazaren aurriritzia eta azkenik zuriaren aurriritzia.

Oso zaila gertatzen zaigu guri, naturak gure antzeko eta legeak gure mailakide egin dituen artean jaiotzeko zoriona izan dugunoi, oso zaila gertatzen zaigu, diot, Amerikako beltza europarragandik zelako tarte gaindigaitzak banatzen duen ulertzea. Baina urruneko ideia bat zertu dezakegu analogiaz arrazoituz.

Behinola ezberdintasun handiak ikusi genituen geure artean, beren printzipioak legerian baino ez zituztenak. Zer fiktizioagorik legezkoa bakarrik den gutxiagotasuna baino! Zer senaren aurkakoagorik nabariki antzekoa den jendearen artean ezarritako ezberdintasun iraunkorrak baino! Ezberdintasun hauek, ordean, mendetan zehar iraun dute; oraindik ere makina bat lekutan dira; irudipenezko aztarnak utzi dituzte edonon, baina denborak ia ezabatu ezinak. Legeak bakarrik sortutako ezberdintasuna sustraigabetzea hain zaila baldin bada, nola suntsitu, gainera, bere oinarri aldaezinak naturan bertan dauzkala ematen duena?

Nik neuk, gorputz aristokratikoak, edozelakoak izanik berauen izaera, herri-masarekin bat egitera zein nekez iristen diren, eta herriagandik banatzen dituzten hesi idealak mendetan zehar gordetzeko hartzen duten ardura itzela kontuan hartzen dudanean, galdu egiten dut itxaropena zeinu ageriko eta hilezinetan oinarrituriko aristokrazia desagertzen ikusteko.

Egunen batean europarrek beltzekin bat egingo dutela espero dutenak ametsetan ari direla iruditzen zait. Arrazoiak ez narama horrelakorik sinestera, eta egitateetan ere ez dut hori adierazten didan ezer ikusten.

Orain arte zuriak, ahaltsuenak izan diren alde guztietan, doilorkerian edo esklabutzan eduki dituzte beltzak. Beltzek, ahaltsuenak izan diren alde guztietan, suntsitu egin dituzte zuriak; bi arraza hauen artean ez da inoiz beste konturik izan.

Gaur egungo Estatu Batuak hartzen baditut aztergai, garbi ikusten dut, herrialdearen zati jakin batean, bi arrazak banatzen dituen hesi legala behertzeko joera dagoela, baina ez ohituretan dagoena. Esklabutza atzera egiten duela ohartzen naiz; baina hori sortarazi duen aurriritzia mugitu gabe dago.

Dagoeneko beltzak esklabu ez diren Batasun-zatian, hurbildu al dira hauek zuriengana? Estatu Batuetan bizi izan den oro ohartuko zen kontrakoa gertatu dela.

Arrazaren aurriritzia indartsuagoa iruditzen zait esklabutza abolitu duten estatuetan oraindik ere badutenetan baino; eta inon baino intoleranteagoa, joputza sekula ezagutu ez duten estatuetan.

Egia da Batasunaren iparraldean legeak uzten diela beltz eta zuriei legezko ezkontzak egiten; baina iritzi publikoak zitaltzat jotzen du emakume beltz batekin elkarturiko zuria, eta oso zaila litzateke horrela gertatu den kasu bakar bat aipatzea.



Esklabutza abolitua dagoen estatu ia guztietan, hauteskunde-eskubideak eman zaizkio beltzari; baina botoa ematera joaten bada, bizia arriskuan jartzen du. Zantututa, kexa daiteke, baina zuriak bakarrik aurkituko ditu bere epaileen artean. Hala ere, legeak ematen dio epaimahaietan esertzeko aukera, baina aurriritziak errefusatu egiten dio jarlekua. Haren seme-alaba ezin da joan europarren ondorengoa ikastera doan eskolara. Antzokietan urre-prezioan ere ezingo luke erosi ugazaba izandakoaren ondoan esertzeko eskubidea; ospitaleetan, aparte egoten da. Uzten zaio beltzari zurien Jainko berari erregutzen, baina ez aldare berean otoitz egiten. Beltzak bere apaiz eta tenpluak ditu. Ez zaizkio zeruko ateak ixten; hala ere, ezberdintasuna apenas beste munduaren mugan ere gelditzen den. Beltza hiltzen denean, haren hezurak aparte botatzen dira, eta baldintza-ezberdintasuna heriotzaren berdintasunean ere aurkitzen da.

Honela, bada, beltza aske da, baina ezin du zuriaren eskubide, plazer, lan, samin edota hilobian parterik izan, nahiz eta beronen mailakide deklaratu duten; ezin du inon zuriarekin topagunerik izan, ez bizitzan, ez heriotzan.

Hegoaldean, oraindik ere esklabutzak irauteen duen lekuan, beltzak ez dituzte hain arretatsu apartatzen; batzuetan zurien lan eta plazerretan esku hartzen dute; neurri bateraino utzi egiten zaie zuriarekin nahastean; legeria gogorragoa da beraiekiko; azturak, jasangoragoak eta eztiagoak.

Hegoaldean, ugazaba ez da beldur esklabua bere mailaraino goratzeko, bai baitaiki beti ahal izango duela, nahi izanez gero, berriro hautsetara bota. Iparraldean, zuriak ez du dagoeneko garbi ikusten arraza doilortu batengandik bananduko duen hesia, eta are arreta handiagoz aldentzen da beltzagandik, egunen batean honekin bat egitera iritsiko den beldur baita.

Hegoaldeko amerikarren artean, naturak, batzuetan bere eskubideak berreskuratuz, une batez berdintasuna ezartzen du zurien eta beltzen artean. Iparraldean, harrotasunak isilarazi egiten du gizakiaren grinarik bortitzena ere. Iparramerikarrak onartuko luke agian emakume beltz bat bere plazerkide iragankor bihurtzea, legegileek aldarrikatu izan balute beltza ezin dela gizon zuri baten ohaide izan; baina beraren emazte bilaka daitekeenez, halako izu batez urruntzen zaio gizon zuria.

Honela, Estatu Batuetan beltzak baztertzan dituen aurriritzia areagotu egiten dela dirudi, beltzek esklabu izateari uzten dioten neurrian; eta ezberdintasuna ohituretan grabatzen da legeetatik ezabatzen den neurrian.

Baina Estatu Batuetan bizi diren bi arrazen egoera erlatiboa erakutsi berri dudana bezalakoa bada, amerikarrek, zergatik abolitu dute esklabutza Batasuneko iparraldean, eta zergatik iraunarazten diote oraindik hegoaldean eta nondik dator bertan esklabutzaren garrantasunak larriagotzea?

Erraza da erantzutea. Estatu Batuetan esklabutza suntsitzen bada, ez da beltzen interesetatik izaten, zuriengatik baizik.

Lehen beltzak 1621. urte aldera ekarri zituzten Virginiara<sup>236</sup>. Amerikan, beraz, gainerako mundu guztian bezalaxe, joputza hegoaldean sortu zen. Handik zabaldu zen poliki-poliki; baina esklabutza iparraldera zihoan neurrian, esklabuen kopurua murriztuz joan zen<sup>237</sup>; oso beltz gutxi ikusi izan da beti Ingalaterra Berrian.

Koloniak eratuak zeuden; igaroa zen mende bat jadanik, eta aparteko egitate bat hasi zen begirada guztiak erakartzen. Batere esklaburik ez zeukaten probintziak esklabuak zeuzkatenak baino bizkorrago hazten ziren biztanleria, aberastasun eta ongizateari zegokienez.

Lehenengoetan, hala ere, jendea beharturik zegoen bere eskuz lurra lantzea, edo beste norbaiten zerbitzuak alokatzea; bigarrenetan, jendeak bere eskura zituen langileak, hauen ahaleginik ordaindu beharrik gabe. Beraz, lana eta gastuak zeuden alde batean, aisia eta aurrezkia bestean; hala ere, lehenengoak ari ziren aurrea hartzen.

Emaitza honek are ulergaitzagoa zirudien migrariek, guztiak arraza europar berekoak izanik, aztura berberak baitzituzten, zibilizazio bera, lege berak, eta garrantzi gutxiko ñabardurek ezberdintzen zituzten.

Denborak aurrera egiten zuen. Atlantiar ozeanoko ertzetatik irtenda, angloamerikarrak gero eta gehiago barneratzen ziren mendebaldeko bakarlekuetan; lurralde eta klima berriekin topo egiten zuten han; izaera ezberdineko eragozpenak gainditu behar izaten zituzten; haien arrazak nahastu egiten ziren, hegoaldeko jendea iparraldera igotzen zen, iparraldekoa hegoaldera jaisten. Kausa hauen guztien artean, egitate bera agertzen zen etengabe; eta, oro har, esklaburik ez zeukaten koloniak jendeztatuago eta oparoago bilakatzen ziren esklabutza indarrean zeukatenak baino.

Aurrera egin ahala, beraz, sumatzen hasi ziren joputza, esklabuarentzat ankerra izanik, ugazabarentzat ere oso txarra zela.

Baina egia honen azken froga Ohio ibaiaren ertzetara iristean aurkitu zen.

Indioek Ohio -edo Ibai Ederra- deitu zutenak, gizakiak sekula bizilekutzat hartu duen ibarrik zoragarrienetakoa bustitzen du bere urez. Ohioen bi ertzetan lursail muinotsuak daude, non lurrak egunero eskaintzen dizkion altxor agortezinak laborariari. Bi ertzetan giroa osasuntsua da, eta klima eztea; bietako bakoitza estatu zabal baten azken muga da: ezkerrean Ohio bere bidean egiten dituen sigi-saga ugariei jarraitzen diena Kentucky da; besteak ibaiari berari hartu dio izena. Bi estatuak gauza bakar batean ezberdintzen dira: Kentuckyk ametitu egin ditu esklabuak, Ohio estatuak guztiak bota ditu bere baitatik<sup>238</sup>.

Ohioen erdian kokatu eta ibaia Mississippin bukatu arte korronteari jarraitzen dion bidaiaria askatasunaren eta joputzaren artean joaten da, nolabait esateko; aski du bere ingurura begiratzea berehala ohartzeko zein den gizatasunaren aldekoagoa.

Ibaiaren ezker aldean, biztanleak barreiatuak daude; noizean behin esklabu-talde bat ikusten da, erdi hutsik dauden landetan zehar arduragabe noraezean; hasierako oihana berriro agertzen da etengabe; gizarte lokartuta dagoela esan daiteke; gizakiak zereginik gabe dirudi, natura agertzen da han ekintzaile eta bizi.

Eskuinaldetik, ordea, halako zurrumurru nahasi bat sortzen da, urruti dagoen industrigintza aldarrikatuz; uzta bikainak daude soroetan; egoitza dotoreek laborariaren gustua eta ardurak adierazten dituzte; oparotasuna nabari da alde guztietan; gizakiak aberats eta pozik dirudi: lan egiten du<sup>239</sup>.

Kentuckyko estatua 1775ean sortu zen; Ohio estatuak hamabi urte geroago bakarrik. Hamabi urte Amerikan, Europan mende erdi baino gehiago da. Gaur egun Ohio 250.000 biztanle gehiago ditu Kentucky baino<sup>240</sup>.

Esklabutzaren eta askatasunaren ondorio ezberdin hauek erraz ulertzen dira; aski dira antzinako zibilizazioaren eta gaur egungoaren arteko ezberdintasun asko esplikatzen.

Ohioen ezker aldean lana bat eginda dago esklabutzaren ideiarekin; eskuinaldean, ongizate eta aurrerapenaren ideiarekin; han lana degradaturik dago, beste honetan ohoratu egiten da; ibaiaren ezker aldean, ez dago arraza zuriko langileak aurkitzerik, beldur dira-eta esklabuen antzeko izateko; beltzen lana erabili behar izaten da. Eskuinaldean, berriz, alferrik bilatuko da aisian dagoenik; zuriak lan guztietara hedatzen du bere jardura eta adimena.

Honela, bada, Kentuckyn lurteko aberastasun naturalak ustiatzeko ardura dutenek ez dute ez gogo berorik, ez buru-argitasunik; eta bi gauza hauek izan litzaketenek, berriz, ez dute ezer egiten, edo Ohiora pasatzen dira, hango industriad baliatzeko eta lotsarik gabe lan egiteko.

Egia da Kentuckyn ugazabek ordaindu beharrik gabe eragiten dietela lan esklabuei, baina hauen ahaleginari fruitu gutxi ateratzen diote; eta dirua langile askeei emanaz gero, berriz, interes eta guzti berreskuratuko lukete hauen lanaren balioagatik.

Langile askeari ordaindu egin behar zaio, baina esklabuak baino bizkorrago lan egiten du, eta zeregina bizkor betetzea da ekonomiaren elementu handietako bat. Zuriak saldu egiten ditu bere zerbitzuak, baina erabilgarri direnean bakarrik erosten zaizkio; beltzak ezin du ezer eskatu bere zerbitzuen ordainetan, baina elikatu beharra dago beti; mantendu egin behar da zahartzaroan nahiz heltzaroan, haurtzaro antzuan nahiz gaztaroko urte emankorretan, gaixo dagoenean nahiz osasuntsu dagoenean. Honela, ordainduz bakarrik lortzen da bi pertsona hauen lana: langile askeak soldata hartzen du; esklabuak hezkuntza, elikagaiak, zainketak, jantziak. Esklabua mantentzeko ugazabak gastatzen duen dirua gutxika eta xehetasunetan joaten da; ia oharkabea. Langileari ematen zaion soldata aldi bakar batean ematen zaio, eta hartzen duena bakarrik aberasten duela dirudi; baina benetan esklabua pertsona askea baino gehiago kostatu da eta haren lanak ez dira hain emankorrak izan<sup>241</sup>.

Esklabutza eragina urrutirago ere iristen da; ugazabaren ariman bertan ere sartzen da, eta honen ideia eta gustuei halako norabide berezi bat ematen die.

Ohioen bi ertzetan, naturak izaera saiatu eta kementsua eman dio gizakiari, baina kualitate komun hori ez du berdin erabiltzen ibaiaren alde bakoitzean.

Eskuinaldeko zuriak, bere ahaleginez bizitzera behartua, ongizate materiala hartu du bizitzako helburu nagusitzat; eta bizi deneko herrialdeak baliabide agortezinak ematen dizkionez industriarako eta erakarpen beti berriak eskaintzen dizkionez jarduerarako, dena eskuratzeko irrikak giza gutziaren ohiko mugak gainditu ditu. Aberastasun-nahiak atsekabeturik, ausardiaz sartzen da zoriak irekitzen dizkion bide guztietatik; berdin zaio marinel, aitzindari, esku-langile edo laborari bihurtzea, iraunkortasun berdintsuz jasanez lanbide ezberdin hauei dagozkien neke edo arriskuak. Bada zerbait miragarria haren adimenaren baliabideetan, eta halako heroismo bat beraren irabazi-irrikan.

Ezkerraldeko amerikarrak, lana ezezik, lanari esker aurrera egiten duen eginkizun oro ere mesprezatzen du; aisiazko erosotasunean bizi delarik, lanik egiten ez dutenen gustuak ditu; diruak galdua du harentzat balioaren zati bat; aberastasuna baino gehiago bilatzen ditu zalaparta eta plazerra, eta honetara bideratzen du auzokoak beste nonbait erabiltzen duen kementa; grina biziz maite ditu ehiza eta gerra; atsegin ditu gorputzaren ariketarik bortitzenak; ohiturik dago armak erabiltzen, eta umetatik ikasi du borroka berezietan bizia jokatzeko. Hortaz, esklabutza aberats daitezen eragozteaz gain, horretarako gogoia ere kentzen die zuriei.

Kausa berberak etengabe eragin dute bi mendez kontrako zentzuan Amerikaren iparraldeko kolonia ingelesetan, eta azkenerako ikaragarritzko ezberdintasuna sortu dute hegoaldeko eta iparraldeko jendearen merkataritza-gaitasunean. Gaur egun iparraldeak bakarrik ditu itsasuntziak, manufakturak, trenbideak eta kanalak.

Ezberdintasun hau, iparraldea eta hegoaldea alderatzean ezezik, hegoaldeko jendea bere artean konparatzean ere nabaritzen da. Batasuneko estaturik hegoaldekoenetan merkataritzan diharduten eta esklabutza erabili nahi duten ia guztiak iparraldetik etorriak dira; egunetik egunera, iparraldeko jendea Amerikako lurraldearen parte hartan hedatzen da, han beldur gutxiago baitiote konkurrentziari; bertako biztanleek sumatu gabeko baliabideak aurkitzen dituzte han, eta, gaitzesten duten sistema batera beren burua makurtuz, onura gehiago ateratzen diote, sistema hori sortu eta oraindik iraunarazten diotenek baino.

Paralelismoa urrutirago eraman nahi izango banu, erraz frogatuko nuke hegoaldeko eta iparraldeko amerikarren izaeran nabari diren ezberdintasun ia guztiak esklabutzatik sortuak direla; baina hau neure gaitik irtetea litzateke. Une honetan ez naiz ari joputzaren ondorio guztiak zeintzuk diren ikertzen, baizik eta onartu dutenen oparotasun materialean horrek dituen ondorioak aztertzen.

Esklabutzak aberastasunen ekoizpenean zuen eragin hau nola-hala baino ezin zuten ezagutu antzinatean. Mundu zibilizatu osoan zegoen orduan joputza, eta ezagutzen ez zuten herriak barbaroak ziren.

Horrela, esklabuaren eskubideak baliaraziz suntsitu zuen kristautasunak esklabutza; gaur egun, ugazabaren izenean ere eraso dakioke. Puntu honetan bat datoz interesa eta morala.

Egia hauek Estatu Batuetan nabaritu ahala, esklabutzak poliki-poliki atzera egiten zuen esperientziaren argitan.

Joputza hegoaldean hasi zen eta ondoren iparraldera hedatu; gaur egun erretiratzen ari da. Askatasuna, iparraldetik abiatuta, hegoalderantz doa gelditu gabe. Estatu handien artean, gaur egun Pennsylvania da esklabutzaaren azken muga iparraldera, baina erasopean dago muga horien berorien barnean ere; Maryland, Pennsylvaniaren azpian hurrengo dagoena, etengabe ari da esklabutzarik gabe bizitzeko prestatzen, eta Virginia ere, Marylandi jarraitzen diona, jada eztabaidatzen ari da esklabutzaaren onura eta arriskuak<sup>242</sup>.

Giza erakundeetan ez da aldaketa handirik ematen, aldaketa horren kausen artean oinordetza-legea aurkitu gabe.

Hegoaldean ondareen banaketa-desberdintasuna nagusi zenean, familia bakoitzaren ordezkari gizon aberats bat zen, ez zuena sentitzen ez lanerako beharrik, ez horretarako gusturik; beraren inguruan era berean bizi ziren, beste hainbat landare parasito bezala, legeak herentzia komunetik bazter utzitako senitartekoak; orduan hegoaldeko familia guztietan ikusten zen gaur egun oraindik Europako zenbait herrialdeko familia nobleetan ikusten dena, alegia, senide gazteagoak, maiorazgoa bezain aberats izan gabe, hau bezalaxe egoten direla lanik egin gabe. Antzerako efektu hau berdintsuak ziren kausek eragiten zuten Amerikan eta European. Estatu Batuetako hegoaldean, zuriaren endako osoak gorputz aristokratiko bat osatzen zuen, beronen buru gizabanako pribilegiatu batzuk zeudelarik, aberastasuna iraunkorra eta aisia herentziazkoa zutenak. Amerikako nobleziaren buru horiek arraza zuriaren ohiko aurriritziak betikotzen zituzten berek ordezkatzeko zuten gorputzean, eta ohore bezala mantentzen zuten aisi egoera. Aristokrazia honen baitan, aurki zitezkeen behartsuak, baina ez langileak; nahigarriagoa zirudien lazeriak industriak baino; beraz, langile beltz eta esklabuek ez zuten lehiakiderik, eta, hauen lanaren onuraz zernahi pentsatuta ere, erabili beharra zegoen, ez zegoen besterik eta.

Oinordetza-legea abolitu zen momentutik, aberastasun guztiak urritzen hasi ziren aldi berean, eta bizi ahal izateko lana beharrezko gertatzen den egoerara hurbildu ziren familia guztiak mugimendu berberaz; horietako asko erabat desagertu ziren; guztiek aurrikusi zuten nork bere premiak ase beharko zituen momentua. Gaur egun oraindik ikusten da aberatsik, baina jada ez dute gorputz trinko eta herentziazkorik osatzen; ezin izan dute izpiritu bat gauzatu, berorretan iraun eta maila guztietan sarrarazi. Beraz, elkar harturik, ahazten hasi ziren lana gaitzesten zuen aurriritzia; behartsu gehiago sortu zen, eta behartsuak bizibidea bilatzeaz arduratu ziren, lotsaz gorritu gabe. Honela, ondareen banaketa-berdintasunaren ondorioz hurbilenetako bat langile askeen klasea sortaraztea izan zen. Langile askea esklabuarekin lehian jarri zen momentuan, azken honen gutxiagotasuna nabaritu zen, eta esklabutza bere printzipioan bertan egin zitzaion eraso, ugazabaren interesean, alegia.

Esklabutzak atzera egin ahala, arraza beltzak jarraitu egiten dio atzerakada horretan, eta tropikoetarantz itzultzeko da berarekin, handixe etorri zelarik hasieran.

Hau, lehen begiratuan harrigarria bada ere, berehala ulertuko da.

Joputzaren printzipioa abolitzean, amerikarrek ez dituzte esklabuak aske uzten.

Agian nekez ulertuko litzateke ondorengoa, adibide bat aipatuko ez banu; New Yorkeko estatukoa aukeratuko dut. 1788an, New Yorkeko estatuak esklabu-salmenta debekatzen du bere baitan. Zeharka bada ere, inportazioa debekatzeko modua zen. Une horretatik aurrera, beltzen kopurua biztanleria beltzaren berezko hazkunderaren arabera bakarrik hazten da. Zortzi urte geroago, neurri erabakigarriagoa hartzen da, eta 1799ko uztailaren 4tik aurrera guraso esklabuengandik jaiotako haur guztiak aske izango direla aldarrikatzen da. Esklabutza hazteko bide guztiak itxita daude horrela; oraindik bada esklaburik, baina esan daiteke jada ez dela joputzarik.

Iparraldeko estatu batek esklabuen inportazioa honela debekatzen duen garaitik aurrera, ez da hegoaldeetik beltzik ateratzen hara eramateko.

Iparraldeko estatu batek beltzen salmenta debekatzen duen momentutik, esklabua, bera daukanaren eskuetatik jada irten ezin denez, jabetza ezeroso bihurtzen da, eta hegoaldera eramateko interesa sortzen da.

Iparraldeko estatu batek esklabuaren seme-alaba aske jaioko dela aldarrikatzen duen egunean, esklabuak bere salmenta-balioaren zati handi bat galtzen du, beraren ondorengoak ezin baitira merkatuan sartu, eta honengatik ere interes handia sortzen da hegoaldera eramateko.

Honela, lege berak hegoaldeko esklabuei iparraldera etortzea eragozten die, eta iparraldekoei hegoaldera bultzatzen die.

Baina hona hemen aipatu ditudan guztiak baino beste kausa ahaltuago bat.

Estatu batean esklabu-kopurua gutxitzen den neurrian, langile askeen beharra nabaritzen da. Langile askeak industriad jabetzen diren neurrian, esklabuaren lana hain emankorra ez denez, hau jabetza kaskar edo alferrikako bihurtzen da, eta honengatik ere interes handia sortzen da hegoaldera eramateko, han ez baitago konkurrentziaren beldurrik.

Esklabutzaaren abolizioak ez du, bada, esklabua askatasunera eramaten; ugazaba aldarazten dio bakarrik: iparraldekotik hegoaldera igarotzen da.

Beltz emantzipatuei eta esklabutza abolitu ondoren jaiotakoei dagokienez, ez dira iparraldekotik hegoaldera joaten, baina indigenenaren antzeko egoeran aurkitzen dira europarren aurrean; erdi zibilizaturik eta eskubiderik gabe gelditzen dira askoz ere aberatsago eta ilustratuago den herri baten erdian; legeen tirania<sup>243</sup> eta azturen intolerantzia jasateko arriskupean daude. Indioak baino ere zorigabeago neurri batean, esklabutzaaren oroitzapenak dituzte beren kontra, eta ezin dute lurzati bakar baten edukitzea ere erreklamatu; asko eta asko lazeria menperatzen ditu<sup>244</sup>; besteak hirietan biltzen dira, non, lanik zakarrenak berenganatuz, badaezpada eta atsekabezko bizimodua eramaten baitute.

Bestalde, askatasunik ez zuten garaian bezala hazten jarraituko balu ere beltzen kopuruak, esklabutza abolitu ondoren bi aldiz bizkorrago gehitzen denez zuriaren kopurua, beltzak laster geldituko lirateke herri artotz baten uhin artean irentsita bezala.

Esklabuek kultibaturiko herri batek gizaki askeek kultibaturikoak baino biztanle gutxiago izaten du normalean; gainera, eskualde berria da Amerika; estatu batek esklabutza abolitzen duen momentuan, erdi betea baino ez dago artean. Joputza suntsitu eta langile askeen beharra sumatu orduko, herrialdeko bazter guztietatik abenturari ausart askok jotzen du bertara lasterka; industriad izango diren aukera berriei baliatzen etortzen dira. Lurra beren artean banatzen dute; zati bakoitzean zuriaren familia bat ezartzen da, lurzatiez jabetuz. Halaber, estatu askeetarantz bideratzen da Europako migrazioa. Mundu Berrira aisetasun eta zorionaren bila doan Europako behartsuak, zer egingo luke lana lotsagarritzat jotzen den herrialdera joango balitz bizitzera?

Honela, berezko mugimenduagatik hazten da biztanleria zuria eta, aldi berean, sekulako emigrazioagatik; bitartean biztanleria beltzak ez du migraririk hartzen eta ahulduz doa. Laster alderantzikatu egiten da bi arrazen artean zegoen proportzioa. Zorigabeko

hondakin batzuk baino ez dira beltzak, tribu txiki behartsu eta ibiltari bat, lurraren jabe den herri handi baten erdian galdua; jasanarazten zaizkien bidegabekeria eta garraztasunengatik bakarrik sumatzen da bertan daudela.

Mendebaldeko estatu askotan, arraza beltza ez da inoiz agertu; iparraldeko estatu guztietan desagertzen ari da. Esparru estu batean datza, beraz, etorkizuneko arazo handia; honela, ez da hain beldurgarria gertatzen, baina ez da hala ere konpontzeko errazagoa.

Hegoaldera jaitsi ahala, are zailagoa da esklabutza onuragarriro abolitzea. Honen zergatia hainbat kausa materialetan dago, eta komeni da azaltzea.

Klima da lehena. Egia da, europarrak tropikoetara hurbildu ahala, are zailagoa gertatzen zaiela lan egitea; amerikar askok dioenez, halako latitude batean hilgarri ere gertatzen zaie, beltzak inolako arriskurik gabe egin dezakeen bitartean<sup>245</sup>; baina ez dut uste ideia hau, hegoaldeko gizakiaren nagikeriaren hain aldeko dena, esperientzian oinarritua dagoenik. Batasuneko hegoaldean ez du Espainia edo Italiako hegoaldean baino bero handiagorik egiten<sup>246</sup>. Zergatik ezin ditu europarrak lan berberak egin han? Eta Italian eta Espainian esklabutza abolitu bada ugazabak desagertu gabe, zergatik ez litzateke Batasunean gauza bera gertatuko? Ez dut uste Georgia edo Floridetako europarrei naturak debekatuko zienik, heriotzaren mehatxupean, berek ateratzea lurretik beren bizibidea; baina lan hau Ingalaterra Berriko biztanleei baino nekagarriagoa eta emankortasun gutxiagokoa gertatuko zaie ziur aski<sup>247</sup>. Honela, hegoaldean langile askeak galdu egiten duenez esklabuari buruz duen gehiagotasunaren parte bat, han onura gutxiago du esklabutza abolitzeak.

Europako landare guztiak Batasuneko iparraldean hazten dira; hegoaldeak produktu bereziak ditu.

Ikusi da esklabutza era garestia dela laboreak lantzeko. Joputzarik ezagutzen ez den herrialdean garitara emanak normalean ez du bere zerbitzura langile-kopuru txiki bat baino izaten; egia da uzta-garaian eta erein bitartean beste asko ere bereganatzen dituela; baina hauek aldi labur batez bakarrik bizitzen dira haren egoitzan.

Bere bihitegiak bete edo soroetan hazia ereiteko, esklabuak dituen estatu batean bizi den laborariak urte osoan zerbitzari-kopuru handia mantendu behar izaten du, nahiz eta egun batzuetan bakarrik izan horien beharra; langile askeak ez bezala, esklabuak ezin dira lana alokatzera noiz etorriko zaizkien zain egon, bitartean beren kontura lan eginez. Esklabuak erosi beharra dago beraietaz baliatzeko.

Esklabutzak, bere eragozpen orokorreaz gain, berez erabilgarritasun txikiagoa du laboreak lantzen diren herrialdeetan beste produktu batzuk lantzen direnetan baino.

Tabakoaren, kotoiaren eta, batez ere, azukre-kanaberaren langintzak etengabeko zainketak eskatzen ditu. Emakume eta haurrak ere erabil daitezke lan horietan, baina ez garigintzan. Honela, esklabutza berez egokiagoa da aipatu berri ditudan produktuak ekoizten dituzten herrialdeetarako.

Tabakoa, kotoia eta kanabera hegoaldean bakarrik hazten dira; bertako aberastasunaren iturri nagusiak dira. Esklabutza suntsitzean, hegoaldeko jendea bi aukerabide hauen aurrean aurkituko litzateke: edo beren langintza-sistema aldatzera behartuta, eta orduan konkurrentzian hasiko lirateke iparraldekoekin, hauek aktiboagoak eta eskarmentu handiagokoak direlarik; edo aurreko produktu berak lantzera behartuta, baina esklaburik gabe, eta orduan hegoaldean esklabutzarekin jarraitzen duten beste estatu batzuen konkurrentzia jasan beharko lukete.

Honengatik, hegoaldeak baditu bere arrazoi partikularrak esklabutzari eusteko, iparraldeak ez dituenak.

Baina hona hemen beste guztiak baino motibo ahaltsuago bat. Hegoaldeak, estu-estuan, abolitu ahal izango luke joputza; baina nola libratu beltzengandik? Iparraldean aldi

berean kentzen dira esklabutza eta esklabuak. Hegoaldean ezin liteke espero izan bi emaitza horiek aldi berean lortzea.

Joputza hegoaldean iparraldean baino naturalago eta onuragarriagoa dela frogatzean, nahikoa adierazi dut esklabu-kopuruak askoz handiagoa izan behar zuela hegoaldean. Lehen afrikarrak hegoaldera eraman zituzten, eta beti askoz gehiago iritsi ziren hara. Hegoalderantz joan ahala, aisia ohoretzat daukan aurriritzia indartu egiten da. Tropikoetatik hurbilen dauden estatuetan ez dago zuri bakar bat lan egiten duenik. Honela, beltzak berez ugariago dira hegoaldean iparraldean baino. Gorago esan dudan bezala, egunetik egunera gehitzen dira; zeren eta, Batasuneko mutur batean esklabutza suntsitu ahala, bestean metatzen baitira beltzak. Honela, beltzen kopurua gehitu egiten da hegoaldean, ez bakarrik biztanleriaren berezko mugimenduagatik, baita iparraldeko beltzen migrazio behartuagatik ere. Afrikarren arrazak Batasuneko alde honetan hazteko dituen kausak, europarren arraza iparraldean hazarazten duten kausen antzekoak dira.

Maineko estatuan beltz bat dago hirurehun biztanleko; Massachusettsekoan, bat ehun biztanleko; New Yorkeko estatuan, bi ehuneko; Pennsylvaniakoan, hiru; Marylandekoan, hogeita hamahiru; Virginiakoan berrogeita bi, eta azkenik Hego Carolinan berrogeita hamabost<sup>248</sup>. Hori zen 1830. urtean beltzen proportzioa zuriekiko. Baina proportzio hori aldatzen ari da etengabe: egunetik egunera txikiagoa da iparraldean eta handiagoa hegoaldean.

Garbi dago Batasuneko estaturik hegoaldekoenetan ezin dela esklabutza abolitu, iparraldeko estatuetan egin zen bezala eta hauek ezagutu ez zituzten arrisku oso handietan sartu gabe.

Ikusi dugu iparraldeko estatuak nola antolatzen zuten esklabutzaren eta askatasunaren arteko trantsizioa. Oraingo belaunaldia katepean gordetzen dute eta etorkizuneko endak emantzipatzen dituzte; honela, beltzak poliki-poliki baino ez dituzte gizartean sartzen, eta bere independentzia gaizki erabil lezakeena joputzan edukitzen den bitartean, emantzipatu egiten da, bere buruaren jabe bihurtu baino lehen, oraindik aske izateko artea ikas dezakeena.

Zaila da metodo honen aplikazioa hegoaldean. Momentu batetik aurrera beltzaren seme-alaba aske izango dela esaten denean, askatasunaren printzipioa eta ideia joputzaren beraren baitan sartzen da. Legegileak esklabutzan mantendutako beltzak, beren seme-alabak esklabutzatik irteten ikustean, harritu egiten dira destinoak beraien artean egiten duen banaketa ezberdinaz; asaldu eta amorratu egiten dira. Ordudanik, esklabutzak galdu egiten du haien ikuspegirako denborak eta ekanduak ematen zioten nolabaiteko ahalmen moral hori; indarraren abusu nabaria izatera bakarrik mugatzen da. Iparraldek ez zuen kontraste horren beldur izan beharrik, beltzak gutxi baitziren iparraldean, eta zuriak oso ugari. Baina askatasunaren lehen egunsenti hori bi milioi gizaki aldi berean argitzera iritsiko balitz, zapaltzaileek dar-dar egin beharko lukete.

Beren esklabuen seme-alabak emantzipatu ondoren, hegoaldeko europarrak laster aurkituko lirake onura hori beltzen arraza osoari eman beharrean.

Iparraldean, gorago esan dudan bezala, esklabutza abolitzen den momentuan, baita abolitzeko momentua hurbiltzen ari dela sumatzen den momentuan bertan ere, mugimendu bikoitza gertatzen da: esklabuak iparraldetik irteten dira hegoalderago eramanak izateko; iparraldeko estatuetako zuriek eta Europako migrariak esklabuek utzitako lekura jotzen dute.

Bi kausa hauek ezin dute era berean eragin hegoaldeko azken estatuetan. Alde batetik, esklabuen multzoa handiegia da han, bertatik irtetera behartu daitezkeela pentsatzeko; bestetik, europarrak eta iparraldeko angloamerikarrak beldur dira oraindik lana errehabilitatu ez den eskualde batera bizitzera joateko. Gainera, beltzen proportzioa zuriena baino handiagoa ala parekoa duten estatuak zoritxar handien mehatxupean

daudela pentsatzen dute arrazoi osoz, eta ez dute beren industria horrelako aldeetara eramane nahi.

Honela, esklabutza abolitzean, hegoaldeko jendeak ez luke lortuko, iparraldeko beren senideek bezala, beltzak mailaz maila askatasunera helaraztea; ez lukete beltzen kopurua nabariki gutxituko, eta bakarrik geldituko lirateke hauei eusteko. Urte gutxiren buruan, beltz askeen herri handi bat ikusiko litzateke, kopuru berdintsuko zurien nazio baten erdian.

Gaur egun esklabutza iraunarazten dioten botere-abusu berberak, zuriek hegoaldean jasan beharreko arriskurik handienak sorburu bihurtuko lirateke orduan. Gaur egun europarren ondorengoak bakarrik dauka lurra; industriaren jaun eta jabe da; bera bakarrik da aberats, ilustratu eta armaduna. Beltzak ez du abantaila horietako bakar bat ere; baina bizi daiteke horiek gabe, esklabu da eta. Aske bilakatuz gero, bere zoriaz berak arduratu beharko lukeelarik, iraungo ote luke gauza horietaz guztietaz gabetuta, hil barik? Esklabutza zegoenean zuriari indarra ematen zionak, esklabutza abolitu ondoren, arrisku ugariaren menpe jartzen du.

Beltza joputzan utzita, aberearen antzeko egoeran eduki daiteke; aske bada, ezin zaio eragotzi bere gaitzen zabalera ebaluatu eta erremedioa sumatzeko behar beste hezitzea. Bada, bestalde, justizia erlatiboko printzipio berezi bat, giza bihotzean oso sakon sustraitua dagoena. Askoz zirrara handiagoa eragiten dio jendeari klase bat beraren baitako ezberdintasunak klase ezberdinen artean ohar daitezkeen ezberdintasunek baino. Ulertzen da esklabutza; baina nola ulertu hainbat milioi hiritar betiko laidora makurtuak eta herentziazko ezbeharren menpe egotea? Iparraldean, beltz emantzipatuak kopuru batek gaitz horiek jasaten ditu eta bidegabekeria horiek pairatzen; baina kopuru ahul eta murrizta da; hegoaldean ugaria eta indartsua izango litzateke.

Zuriak eta beltz emantzipatuak lurralde berean bata bestearekiko herri arrotz bezala jartzea onartzen den momentutik, erraz ulertuko da bi aukera baino ez daudela etorkizunean: beltzek eta zuriek bat egin behar dute guztiz edo banatu.

Dagoeneko esan dut gorago zein zen nire uste sendoa lehen bideari buruz<sup>249</sup>. Ez dut uste arraza zuria eta beltza inon iritsiko direnik berdintasun-egoeran bizitzera.

Baina, gainera, uste dut zailtasun hori askoz handiagoa izango litzatekeela Estatu Batuetan beste inon baino. Gerta liteke pertsona bat erlijio-, herrialde- eta arraza-auriritzietatik kanpo kokatzea, eta, pertsona hau errege bada, ikaragarritzko iraultzak eragin ditzake gizartean. Baina herri oso bat ezin da, nolabait ere, bere buruaren gainetik jarri.

Despota batek, amerikarrak eta hauen antzinako esklabuak uztarri beraren pean nahastuz gero, agian lortuko luke hauek bat egitea. Arazo publikoen buru demokrazia amerikarrak iraun bitartean, inor ez da ausartuko horrelako probarik egitera, eta, aurrikus daitekeenez, Estatu Batuetako zuriak zenbat eta askeago izan, orduan eta gehiago saiatuko dira beren burua isolatzen<sup>250</sup>.

Esan dut beste nonbait europarraren eta indioaren arteko benetako lotura mestizoa zela; era berean, zuriaren eta beltzaren arteko benetako trantsizioa mulatoa da. Mulato-kopuru handia dagoen edozein lekutan, bi arrazen arteko bategitea ez da ezinezkoa.

Amerikan badira leku batzuk, non europarra eta beltza hainbestearinoxe gurutzatu direnez, zaila baita erabat zuri edo erabat beltz denik aurkitzea. Puntu honetara iritsiz gero, arrazak nahastu egin direla esan daiteke benetan; edota, are gehiago, haien orde z hirugarren bat sortu dela, bietatik daukana, baina ez dena zehazki ez bata eta ez bestea.

Europar guztietatik, ingelesak dira beren odola gutxien nahastu dutenak beltzenarekin. Batasuneko hegoaldean iparraldean baino mulato gehiago ikusten da, baina beste edozein kolonia europarretan baino askoz ere gutxiago; mulatoak oso gutxi dira Estatu Batuetan; ez dute inolako indarrik beren kabuz, eta arraza arteko liskarretan zuriekin bat



egiten dute normalean. Era berean, European jauntxo handien lekaioak beren buruak aitonen semetzat agertzen dituzte herriaren aurrean.

Jatorriaren harrotasun hau, ingelesak berezkoa duena, bereziki areagotu da amerikarraren baitan, askatasun demokratikoak sortarazten duen harrotasun indibidualagatik. Estatu Batuetako zuria harro dago bere arrazaz eta harro bere buruaz.

Bestalde, beltzak eta zuriak ez badira nahasten Batasuneko iparraldean, nola nahastuko dira hegoaldean? Imajina al daiteke une batez hegoaldeko amerikarrak, beti egongo delarik zuriaren -bere gehiagotasun fisiko eta moral guztiaz- eta beltzaren artean kokatua, pentsa dezakeela inoiz azken honekin bat egitea? Hegoaldeko amerikarrak bi grina bortitz ditu, beti isolamendura eramango dutenak: beltzaren -bere antzinako esklabuaren- antzeko bihurtzearen beldur izango da, baita zuria -bere auzokoa- baino beherago jaisteko beldur ere.

Etorkizuna aurrikustea behar-beharrezkoa balitz, esango nuke, gauzek eraman lezaketen bideari jarraituz, esklabutzaaren abolizioak hegoaldean areagotu egingo duela bertan jende zuriak beltzenganako sentitzen duen nazka. Iritzi hau, dagoeneko iparraldean ohartu dudana antzeko zerbaitetan oinarritzen dut. Esan dut, legelariak zenbat eta gutxiago markatu zuri eta beltzen artean egon beharreko lege-banaketa, orduan eta arduratsuago urruntzen direla iparraldeko zuriak beltzengandik. Zergatik ez litzateke, bada, gauza bera gertatuko hegoaldean? Iparraldean, zuriak beltzekin nahastera iristeko beldur direnean, irudipenezko arrisku baten beldur dira. Hegoaldean, non arriskua benetakoa bailitzateke, ezin dut sinetsi beldurra txikiagoa izango litzatekeenik.

Alde batetik, hegoaldeko muturrean beltzak etengabe metatzen direla eta zuriak baino bizkorrago hazten direla aitortzen bada (eta egitatea ez dago dudana jartzerik); eta bestetik, beltzak eta zuriak nahastera eta gizarte-egoeratik abantaila berak lortzera noiz iritsiko diren aurrikustea ezinezkoa dela onartzen bada, ez al da hortik ondorioztatu behar, hegoaldeko estatuetan, beltzak eta zuriak borrokan hasiko direla lehentxeago edo geroxeago?

Zein izango da borroka honen azken emaitza?

Erraz ulertuko da puntu honetan aierupenen lausotasunean sartu beharra dagoela. Giza izpirituak kostata baina lortzen du etorkizunaren inguruan, nolabait ere, zirkulu handi bat marraztea; baina zirkulu horren barruan zoria mugitzen da, ahalegin guztietatik ihes egiten duena. Etorkizunaren koadroan, ilungune bat bezalakoa sortzen du zoriak, non adimenaren begia ezin baitaiteke sar. Esan daitekeena hauxe da: Antilletan arraza zuria da desagertzera destinatua ematen duena; kontinentean, arraza beltza.

Antilletan, zuriak isolaturik daude beltzen jendetza handi baten erdian; kontinentean, beltzak itsasoaren eta herri zenbatezin baten artean daude, hau masa trinko bezala beraien gain hedatzen dena dagoeneko, Kanadako izotzetatik Virginiako mugetaraino, Missouri ibaiaren ertzetatik Atlantiar ozeanoaren ertzetaraino. Ipar Amerikako zuriek baturik jarraitzen badute, zaila da sinestea beltzek ihes egin diezaioketenik mehatxatzen dituen suntsipenari: katepean edo lazerian egingo du haienak. Baina Mexikoko golkoan zehar metaturiko jendetza beltzak badu onik irteteko aukerarik, bi arrazen arteko borroka konfederazio amerikarra desegin ondoren hasten bada. Behin desegin ondoren lokarri federala, hegoaldeko jendeak oker jokatu luke iparraldeko senideengandik laguntza iraunkorra izango duelakoan egongo balitz. Iparraldekoek badakite arriskuak ez dituela inoiz harrapatuko; eginbehar positiboren batek ez baditu hegoaldeari laguntzera behartzen, pentsa daiteke arraza-begikotasunak ez direla aski izango.

Gainerantzean, zeinahi izanik borroka-garaia, hegoaldeko zuriak, beren kontura utzita egonda ere, askoz jakintzargi eta bitarteko gehiagorekin aurkeztuko dira borrokara; baina beltzek kopurua eta etsipenaren kemena izango dituzte beren alde. Baliabide handiak dira hauek, armak eskuetan daudenean. Orduan, Espainiako mairuei gertatu

zitzaiena gertatuko zaio agian hegoaldeko arraza zuriari. Herrialdea hainbat mendez okupatu ondoren, garai batean bere arbasoak irten zireneko eskualdera erretiratuko da pixkanaka, beltzen esku utziz Probindentziak hauei emana dirudien herrialdearen edukitza, nekerik gabe bizi baitira bertan, zuriak baino errazago lan eginez.

Batasuneko hegoaldean bizi diren beltzen eta zurien arteko borrokaren arrisku berehalako edo urrutikoa, baina saihestezina, etengabe agertzen da, amesgaiztoa bezala, amerikarren irudimenean. Iparraldeko biztanleek egunero hitz egiten dute arrisku horietaz, nahiz eta zuzenean ez duten zertan izan horien beldur. Alfer-alferrik saiatzen dira aurrikusten dituzten zorigaitzak uxatzeko bideren baten bila.

Hegoaldeko estatuetan isildu egiten dira; ez zaie atzerritarrei etorkizunaz hitz egiten; lagunei ere ez zaie azalpenik ematen; nork bere buruarentzat gordetzen du, nolabait esateko. Hegoaldeko isiltasunean bada zerbait ikaragarriagoa iparraldeko beldur zaratatsuetan baino.

Izpirituen ardura orokor honek ia ezagutzen ez den ekimen bat sortarazi du, giza arrazaren parte baten zoria alda dezakeena.

Azaldu berri ditudan arriskuen beldur, hiritar amerikar batzuek elkarte bat eratu zuten, gainean duten tiraniatik ihes egin nahi duten beltz askeak Gineako kostetara eramateko helburuaz, elkartekoek ordainduta betiere<sup>251</sup>.

1820an, aipatu dudan elkarteak, *Liberia* izeneko establezimendu bat sortzea lortu zuen Afrikan, ipar-latitudeko 7. graduan. Azken albisteen arabera, dagoeneko badira bi mila eta bostehun beltz bertan bilduak. Beren antzinako aberrira eramanak, beltzek erakunde amerikarrak ezarri dituzte han. Liberiak ordezkapen-sistema du, epaimahai beltzak, magistratu beltzak, apaiz beltzak; tenpluak eta egunkariak ikusten dira han, eta, mundu honetako gora-beheren itzuli bitxiagatik, galarazita dute zuriak hango harresien barruan finkatzea<sup>252</sup>.

Hona hemen ezpairik gabe patuaren kolpe bitxi bat! Bi mende igaro dira Europako jendea hasi zenetik beltzak berauen familia eta herrialdetik ateratzen Ipar Amerikako itsasertzetara eramateko. Gaur egun europarra berriro dabil lanpeturik beltz haien ondorengoak Atlantiar ozeanoan zehar garraiatzen, lehenago hauen gurasoak atera zituzten lurraldera itzultzeko. Barbaro batzuek joputzaren baitatik atera dituzte zibilizazioaren jakintzargiak eta esklabutzan ikasi dute aske izateko artea.

Gure egunotara arte, Afrika itxita egon da zurien arte eta zientzietarako. Europako jakintzargiak agian afrikarrek inportatuta sartuko dira bertan. Bada ideia eder eta handi bat Liberiaren fundazioan; baina ideia hau, Mundu Zahararentzat hain emankorra gerta daitekeena, antzua da Berriarentzat.

Hamabi urtetan, beltzen Kolonizazio Elkarteak bi mila eta bostehun beltz garraiatu ditu Afrikara. Denboraldi berean, zazpiehun mila inguru jaio dira Estatu Batuetan.

Liberiako kolonia urtero milaka biztanle berri hartzeko egoeran balego, eta hauek hara onuragarriro eramateko egoeran baleude ere; aipatu Elkartearen lekua Batasunak hartu eta urtero bere altxorak<sup>253</sup> eta itsasuntziak beltzak Afrikara esportatzeko erabiliko balitu ere, halaz guztiz ezingo luke orekatu biztanleriak beltzen artean duen berezko hazkunde hutsa; eta mundura etortzen direnak adina eraman gabe urtero, ez luke lortuko egunetik egunera bere baitan areagotzen ari den gaitzaren garapenari eustea ere<sup>254</sup>.

Arraza beltzak ez du jadanik kontinente amerikarraren ertzetatik aldegingo, Europako grina eta bizioek eraman zutelarik hara; ez da Mundu Berritik desagertuko, izateari utzita baizik. Estatu Batuetako jendeak urrunaraz ditzake beldurra sortzen dioten zorigaitzak, baina gaur egun ezin du horien kausa suntsitu.

Aitortu beharrean nago joputzaren abolizioa ez zaidala iruditzen hegoaldeko estatuetan bi arrazen arteko borroka atzeratzeko bidea denik.

Beltzak lurazoan egon daitezke esklabu, kexatu gabe; baina gizaki askeen kopuruan sartu ondoren, berehala suminduko dira hiritarren eskubide gehientsuenik gabe egoteagatik; eta zurien pareko izatera iritsi ezinik, berauen etsai agertuko dira laster.

Iparraldean, esklabuak emantzipatzea onuragarri zen alde guztietatik; honela, esklabutza amaiazatzen zuten, beltz askeen batere beldur izan beharrik gabe. Hauek gutxiegi ziren inoiz beren eskubideak eskatzeko. Ez da gauza bera gertatzen hegoaldean.

Iparraldean esklabutzaaren arazoa merkataritza- eta manufaktura-arazo bat zen ugazabentzat; hegoaldean, hil ala biziko arazoa. Ez dira, beraz, nahastu behar iparraldeko eta hegoaldeko esklabutza.

Jainkoak gorde nazala beltzen joputza-printzipioa justifikatzen, autore amerikar batzuek bezala; zera bakarrik diot, printzipio lotsagarri hau garai batean onartu zuten guztiek gaur egun ez dutela askatasun bera hori baztertzeko.

Aitortzen dut, hegoaldeko egoera aztertzen dudanean, eskualde haietan bizi den arraza zuriarentzat bi jokabide baino ez ditudala aurkitzen: beltzak emantzipatu eta berauekin bat egin, ala hauengandik isolaturik iraun eta ahalik eta denbora luzeenean esklabutza eduki. Erdibideak laster gerra zibilik beldurgarrienean amaituko liratekeela iruditzen zait, eta bi arrazetako baten hondamendian beharbada.

Hegoaldeko amerikarrek ikuspegi honetatik begiratzen diote arazoari, eta ondorioz jotzen dute. Beltzekin bat egin nahi ez dutenez, ez dituzte aske ere utzi nahi.

Hegoaldeko biztanle guztiek ez dute esklabutza ugazabaren aberastasunerako beharrezkotzat jotzen; puntu honetan, haietako asko bat datoz iparraldekoekin, eta hauen ildotik gogo onez onartzen dute joputza gaitz bat dela; baina bizi ahal izateko gaitz honi eutsi beharra dagoela pentsatzen dute.

Jakintzargiek, hegoaldean areagotzean, esklabutza ugazabarentzat kaltegarri dela ikusarazi diote lurralde hartako jendeari, eta jakintzargi horiek beroriek erakutsi diote, ordura arte ikusia zuen baino argiago, ia ezinezkoa dela esklabutza suntsitzea. Hortik sortzen da kontraste bitxi bat: esklabutza gero eta ezarriagoa dago legeetan, beraren onuragarritasuna eztabaidatuagoa den neurrian; eta iparraldean horren printzipioa pixkanaka abolituz doan bitartean, hegoaldean gero eta ondorio zorrotzagoak ateratzen dira printzipio horretatik.

Hegoaldeko estatuetan esklabuei buruz dagoen legeriak badu gaur egun halako izugarrikeria bat sekula entzunbakoa, eta horrek bakarrik ere adierazten du asaldura sakonen bat gizadiaren legeetan. Aski da hegoaldeko estatuetako legeria irakurtzea, han bizi diren bi arrazen egoera etsia ulertzeko.

Batasuneko alde hartako amerikarrek ez dituzte prezeski areagotu joputzaren garraztasunak; aitzitik, eztitu egin dute esklabuen egoera materiala. Antzinakoek eskuburdinak eta heriotza bakarrik ezagutu zituzten esklabutzari eusteko; Batasuneko hegoaldeko amerikarrek berme intelektualagoak aurkitu dituzte beren aginteari iraunarazteko. Honela esan badezaket, izpiritualizatu egin dituzte despotismoa eta bortxa. Antzinatean, esklabuari kateak apurtzea eragotzi nahi izaten zitzaion; gaur egun, horretarako gogoia kendu nahi zaio.

Antzinakoek esklabuaren gorputza kateatzen zuten, baina izpiritua aske uzten zuten eta ilustratzea onartzen zioten. Honetan kontsekuenteak ziren beren buruarekin; joputzak bazuen horrela berezko irteera bat: egun batetik bestera esklabua aske bihur zitekeen eta ugazabaren mailakide.

Hegoaldeko amerikarrek, beltzak noizbait beraiekin nahastu ahal izango direla pentsatzen ez dutenak, galarazi egin dute, zigor gogorren mehatxupean, beltzei irakurtzen eta idazten irakastea. Beren mailara jaso nahi ez dituztenez, abere-mailatik ahalik eta hurbilen edukitzen dituzte.

Garai guztietan, askatasunaren itxaropena beti egon zen esklabutza baten egoeraren garraztasuna ezartzeko.

Emantzipatua ezin bada egun batean ugazabaren pareko bihurtu, emantzipazioak beti zituela arriskuak ulertu zuten hegoaldeko amerikarrek. Pertsona bati askatasuna eman, baina lazeria eta ignominia uztea, zer da, bada, esklabuen erreboltari etorkizuneko buruzagi bat ematea baizik? Bestalde, aspalditxotik sumatua zen beltz askearen presentziak halako egonezin zehazgabe bat sortzen zuela esklabu ez zirenen arima-barnean, eta beraien eskubideen ideia sarrarazten zuela, argitasun lauso bat bezala. Hegoaldeko amerikarrek ugazabei kendu egin diete, kasurik gehienetan, emantzipatzeko ahalmena<sup>255</sup>.

Batasuneko hegoaldean agure batekin topo egin nuen; antzina harreman ez-zilegietan bizi izana zen bere emakume beltzetako batekin. Zenbait seme-alaba ere izana, hauek mundura etortzean aitaren esklabu bihurtu ziren. Aitak hainbat aldiz pentsatu izan zuen gutxienez askatasuna legatzea, baina urteak igaro ziren legeak emantzipazioari jarritako oztopoak kendu ahal izan zitueneko. Denbora horretan, zahartzarora iritsi eta hiltzorian jarri zen. Orduan, bere seme-alabak azokaz azoka eramanez imajinatu zituen, eta aitaren aginpidetik arrotzen baten zartailupera igarota. Irudi beldurgarri hauek zorabioan murgiltzen zuten hiltzear zegoenaren irudimena. Etsipen eta atsekabeak jota ikusi nuen, eta orduan ulertu nuen naturak bazekiela mendeku hartzen legeak egiten zizkioten zauriengatik.

Gaitz hauek ikaragarriak dira, dudarik gabe; baina ez al dira sartzen joputza-printzipioak berak gaurkoen artean duen ondorio aurrikusi eta beharrezkoan?

Europarrek, esklabuak berena ez bezalako giza endak baten baitatik hartu dituzten momentutik -askok beste giza endak baino kaskarragozat zeukaten arraza hori eta guztiak izutu egiten ziren noizbait berorrek pareka zitezkeela pentsatzean-, esklabutza betikotzat jo dute; zeren eta, joputzak sortzen duen desberdintasun itzelaren eta independentziak gizakien artean berez eragiten duen berdintasun osoaren artean ez baitago bitarteko egoera iraunkorrik. Europarrek lausoki bada ere sumatu dute egia hau, baina aitortu gabe. Beltzen gaia atera den guztietan batzuetan beren interes edo harrotasunari obeditu izan diote, eta beste batzuetan beren gupidari. Beltzarekin, gizadiaren eskubide guztiak hautsi dituzte, eta gero eskubide horien balorea eta hautsiezintasuna irakatsi diote. Beren lerroak zabaldu dizkiete esklabuei, eta hauek, sartzen saiatzean, laidoz errefusatu dituzte. Joputza nahi zuten, baina, gogoz kontra edo oharkabean, beren burua askatasunerantz eramaten laga dute, adorerik gabe, ez erabat bidegabe izateko, ezta guztiz zuzen ere.

Ezinezkoa bada aurrikustea hegoaldeko amerikarrek beren odola beltzenarekin nahastuko duten garai bat, onar al dezakete, beren buruak galzorian jartzeko arriskurik gabe, beltzak askatasunera iristea? Eta beren arraza salbatzeko, beltzak katepean edukitzera beharturik baldin badaude, ez ote zaie barkatu behar hori lortzeko neurriak eraginkorrenak hartzea?

Batasuneko hegoaldean gertatzen dena, esklabutza baten ondorioz ikaragarriena eta aldi berean naturalena iruditzen zait. Naturako ordena alderantzizkoa ikusten dudanean, gizadia legepean alfer-alferrik deiadarka eta borrokan entzuten dudanean, aitortu behar dut ez dudala amorrurik sentitzen gure egunotako jendea, irain horien egilea, zigorkatzeko; baina nire gorroto guztia, mila urte baino gehiago berdintasunean eman ondoren, munduan joputza berriro sartu dutenen aurka bideratzen dut.

Gaineratzean, edozelakoak izanik hegoaldeko amerikarren ahaleginak esklabutza iraunarazteko, ez dute hori beti lortuko. Esklabutza, munduko puntu bakar batera bildua, kristautasunak bidegabekotzat eta ekonomia politikoak kaltegarritzat erasotua; esklabutza, gure garaiko askatasun demokratikoaren eta jakintzagien erdia, ez da iraun dezakeen

erakunde bat. Esklabuaren egitatez edota ugazabarenaz amaituko da. Bi kasuetan, zoritxar handiak espero behar dira.

Hegoaldeko beltzei askatasuna ukatzen bazaie, azkenean berek hartuko dute bortizki; eman egiten bazaie, laster abusatuko dute horretaz.

Zein aukera du Batasun amerikarrak irauteko? Zein arriskuk mehatxatzen du?

Zerk eragiten duen indar nagusia estatuetan egotea Batasunean baino gehiago.- Konfederazioak ez du iraungo osatzen duten estatu guztiek berorren parte izan nahi duten neurrian baizik.- Elkarturik egotera bultzatu behar dituzten kausak.- Elkarturik egotearen onura, atzerritarrei aurre egiteko eta Amerikan atzerritarrik ez izateko.- Probidentziak ez du berezko hesirik eraiki estatu ezberdinen artean.- Ez dago interes materialik banatzen dituenik.- Iparraldeak duen interesa hegoalde eta mendebaldearen oparotasun eta batasunean; hegoaldeak, iparralde eta mendebaldearenetan; mendebaldeak, beste bienetan.- Amerikarrak elkartzen dituzten interes inmaterialak.- Iritzi-uniformitatea.- Konfederazioaren arriskuak hura osatzen duen jendearen izaera-ezberdintasunetik eta dituen grinetatik sortzen dira.- Hegoaldeko eta iparraldeko jendearen izaerak.- Batasunaren hazkunde bizkorra da bere arriskurik handienetako bat.- Jendearen joera ipar-mendebaldera.- Boterearen grabitazioa alde horretarantz.- Aberastasunaren mugimendu bizkor hauek sortarazten dituzten grinak.- Batasunak irauten duelarik, indar hartzeko ala ahultzeko joera ote du bertako gobernuak?- Ahuleziaren zenbait seinale.- Internal improvements.- Hutsik dauden lurraldeak.- Indioak.- Bankuaren gaia.- Tarifaren gaia.- Jackson jenerala.

Batasuna osatzen duten estatuetako bakoitzean dagoena mantentzea, Batasun horren iraupenaren menpe dago, neurri batean. Lehenik, beraz, Batasunak izan lezakeen zoria aztertu behar da. Baina, ezer baino lehen, puntu batean arreta jartzea komeni da: egungo konfederazioa apurtzera iritsiko balitz, eztaba daezina iruditzen zait bera osatzen duten estatuak ez liratekeela hasierako indibidualitatara itzuliko. Batasun bakar baten ordeztu, bat baino gehiago eratuko lirateke. Batasun berri hauek zein oinarriren gain ezarriko liratekeen ikertzeko asmorik ez dut; azaldu nahi ditudanak, egungo konfederazioaren zatibanaketa ekar lezaketen kausak dira.

Horretarako, lehen ere ibilitako bide batzuetatik sartu beharko dut berriro. Dagoeneko ezagunak diren gai batzuk jarri beharko ditut berriro guztion bistan. Badakit honela jokatzu irakurlearen agirakak jasotzeko arriskuan nagoela, baina tratatu behar dudak gaiaren garrantzia hartuko dut aitzakitzat. Nahiago dut esandakoa zenbait aldiz errepikatzea ez ulertua izatea baino, eta nahiago dut autoreari kalte egitea gaiari baino.

1789ko Konstituzioa egin zuten legegileak botere federalari aparteko izatea eta indar nagusia ematen saiatu ziren.

Baina konpondu behar zuten arazoaren baldintzak berak mugatzaile gertatzen zitzaizkien. Ez zitzairen herri bakar baten gobernua eratzekeo ardura eman, hainbat herriren elkartzea arautzeko baizik; eta nolanahikoak izanik ere beraien nahiak, subiranotasunaren erabilera banatzera iristen ziren beti.

Banaketa honen ondorioak zeintzuk izan ziren ongi ulertzeko, bereizketa labur bat egin beharra dago subiranotasun-egintzen artean.

Badira gaiak beren izaeraz nazionalak direnak, hau da, gorputz bezala hartuta nazioari bakarrik dagozkionak, eta nazio osoa modurik osoenean ordezkatzeko duen pertsonaren edo batzarraren esku bakarrik utz daitezkeenak. Hauen artean sartuko ditut gerra eta diplomazia.

Badira beste batzuk beren izaeraz probintzialak direnak, hau da, toki batzuei bakarrik dagozkienak eta tokian bertan bakarrik izan daitezkeenak behar bezala tratatuak. Honelakoa da udalerrietako aurrekontua.

Azkenik, badira gai batzuk izaera mistoa dutenak: nazionalak dira, nazioa osatzen duten pertsona guztiei interesatzen zaizkielako; probintzialak dira, ez delako beharrezkoa nazioa bera arduratzea horietaz. Honelakoak dira, adibidez, hiritarren egoera zibil eta politikoa arautzen duten eskubideak. Ez dago gizarte-egoerarik eskubide zibil eta politikorik gabe. Eskubide hauek, beraz, berdin interesatzen zaizkie hiritar guztiei; baina nazioaren existentzia eta oparotasunerako ez da beti beharrezkoa eskubide horiek uniformeak izatea, eta, ondorioz, aginte zentralak arautuak izatea.

Subiranotasunari dagozkion gaien artean, beharrezko bi kategoria daude, beraz; ongi eraturiko gizarte guztietan aurkitzen dira, nolana hika izanik gainerantzean gizarte-ituna ezartzeko hartu den oinarria.

Bi mutur horien artean daude kokaturik, flotatzen ari den masa bezala, gai orokorrak, baina ez nazionalak, mistoak deitu ditudanak. Gai hauek ez direnez ez nazionalak bakarrik, ezta erabat probintzialak ere, horien ardura gobernu nazionalari edo gobernu probintzialari egotz dakioke, elkartzen direnen itunen arabera, eta elkarrearen helburua lortzeari utzi gabe.

Gehienetan, gizabanako hutsak batzen dira aginte subiranoa eratzeke, eta horien bilerak herri bat osatzen du. Beren buruari eman dioten gobernu federalaren azpitik, indar indibidualak edo botere kolektiboak bakarrik aurkitzen dira, hauetako bakoitzak subiranotasunaren zati txiki-txiki bat bakarrik ordezkatzeko duelarik. Orduan, berez gobernu orokorrari dagokio gehien arautzea, ez bakarrik funts-funtsean nazionalak diren gaiak, baita dagoeneko aipatu ditudan gai mistoetako gehienak ere. Udalei beren ongizaterako ezinbestekoa duten subiranotasun-zatia bakarrik gelditzen zaie.

Batzuetan, elkarketa baino lehenagoko egitateren batengatik, aurrez antolaturiko gorputz politikoz osaturik aurkitzen da aginte subiranoa; orduan gertatzen da, beren izaeraz probintzialak bakarrik diren gaiez ezezik, aipagai izan ditugun gai misto guztiez edo batzuez ere arduratzen dela gobernu probintziala. Zeren eta nazio konfederatuek - batasunaren aurretik beraiek zirelarik aginte subiranoak, eta, batu egin diren arren, subiranotasunaren zati dezentea dagokielarik - ez baitute uste gobernu orokorrari laga diotenik Batasunarentzat ezinbesteko diren eskubideen erabilera baino.

Gobernu nazionalak, bere izaerari dagozkion prerrogatibetatik aparte, subiranotasunaren gai mistoak arautzeko eskubideaz horniturik dagoenean, indar nagusia izaten du. Eskubide asko izateaz gain, ez dagozkion guztiak ere eskumendean ditu, eta beldur izatekoa da ez ote den iritsiko gobernu probintzialei berezko eta beharrezko prerrogatibak kentzeraino ere.

Aitzitik, gai mistoak arautzeko eskubideaz horniturik dagoena gobernu probintziala denean, gizartearen kontrako jarrera izaten da nagusi. Orduan, indar nagusia probintzian egoten da, ez nazioan; eta beldur izan behar da gobernu nazionalak ez ote duen amaituko bere existentziarako beharrezko pribilegioez ere gabetuta.

Herri bakarrek, beraz, zentralizaziorako joera izaten dute berez, eta konfederazioek zatiketarakoa.

Idea orokor hauek Batasun amerikarrari aplikatzea baino ez da gelditzen.

Probintzialak bakarrik diren gaiak arautzeko eskubidea estatu partikularrei zegokien derrigorrez.

Are gehiago, estatu hauek berek gorde zuten hiritarren gaitasun zibil eta politikoa finkatzeko eskubidea, jendearen arteko harremanak arautzeko, eta justizia egitekoa; eskubide hauek orokorrak dira beren izaeraz, baina ez dagozkio derrigorrez gobernu nazionalari.

Ikusi dugu nazio osoaren izenean agintzeko ahalmena Batasuneko gobernuaren esku utzi zela, nazioak banako bakar eta bat bera bezala jokatu behar zuen kasuetan. Berak ordezkatzeko zuen nazioa atzeritarren aurrean; berak zuzentzen zituen guztien indarrak

etsai komunaren aurka. Labur esanda, nazionalak bakarrik direla esan dudan gaiez arduratzen zen.

Subiranotasun-eskubideen banaketa honetan, Batasunaren zatiak oraindik ere estatuena baino handiagoa dela ematen du lehen begiratuan; azterketa sakonxeagoak benetan txikiagoa dela erakusten du.

Batasuneko gobernuak eginkizun handiagoak betetzen ditu, baina nekez sumatzen da jardunean. Gobernu probintzialak gauza txikiagoak egiten ditu, baina ez du inoiz atsedetik hartzen eta une oroz agertzen du bere existentzia.

Batasuneko gobernuak herrialdeko interes orokorrak zaintzen ditu, baina herri bateko interes orokorrek eragin eztabaidagarria bakarrik dute gizabanakoen zorionean.

Aitzitik, probintziako arazoez nabarmen eragiten dute bertan bizi direnen ongizatean.

Batasunak nazioaren independentzia eta handitasuna ziurtatzen ditu, partikularrengan berehalako eraginik ez duten gauzak. Estatuak askatasuna mantentzen du, eskubideak arautzen ditu, aberastasuna bermatzen du, bizia segurtatzen du, baita hiritar bakoitzaren etorkizun osoa ere.

Gobernu federala bere menpekoengandik tarte handira dago kokatua; gobernu probintziala, guztien irispidean. Aski da ahotsa goratzea azken honek entzuteko. Gobernu zentralak, gidatu nahi duten goi-mailako pertsonaren batzuen grinak ditu bere alde. Gobernu probintzialaren alde, bigarren mailako jendearen interesa aurkitzen da, beren estatuan bakarrik espero dutelarik boterea lortzea; eta hauek dira, herriagandik hurbil kokaturik, beronen gain aginte gehien zertzen dutenak.

Amerikarrek esperantza nahiz beldur handiagoa izan behar diote Estatuari Batasunari baino; eta, giza bihotzaren berezko joerari jarraituz, bizikiago atxiki behar zaizkio lehenari bigarrenari baino.

Honetan, azturak eta sentimenduak bat datoz intereseekin.

Nazio trinko batek bere subiranotasuna zatikatu eta konfederazio-egoerara iristen denean, oroitzapenak, usadioak, azturak luzaroan borrokatzen dira legeen kontra eta hauek ukatzen dioten indarra ematen diote gobernu zentralari. Herri konfederatuak subiranotasun bakar batean biltzen direnean, kausa berberak kontrako zentzuan eragiten dute. Ziur nago Frantzia Estatu Batuetakoa bezalako errepublika konfederatu bilakatuko balitz, hasieran gobernu Batasunekoa baino kementsuago agertuko litzatekeela; eta Batasuna monarkia bihurtuko balitz Frantzia bezala, pentsatzen dut gobernu amerikarra gurea baino ahulagoa izango litzatekeela aldi batez. Angloamerikarren artean nazio-bizitza sortu zen momentuan, jadanik antzinakoa zen existentzia probintziala, beharrezko harremanak ezarrita zeuden estatuetako udalerrien eta gizabanakoen artean; gai batzuk ikuspuntu komunitik kontuan hartzeko ohitura zegoen, baita interes berezia zuten eginkizun jakin batzuek bakarrik arduratzekoa ere.

Batasuna ikaragarri gorputz zabala da, abertzaletasunari gauza zehazgabe bat eskaintzen diona besarkatzeko. Estatuak forma finkoak eta muga zehatzak ditu; bertan bizi direnentzat ezagun eta kuttun diren hainbat gauza errepresentatzen ditu. Lurraren beraren irudiarekin nahasten da, jabetzarekin identifikatzen da, familiarekin, iraganeko oroitzapenekin, orainaldiko eginbeharrekin, etorkizuneko ametsekin. Abertzaletasuna, gehienetan gizabanakoaren berekoikeriaren hedapena baino ez dena, Estatuan gelditu da, beraz; eta, nolabait esateko, ez da Batasunera igaro.

Honela, bada, interesak, azturak, sentimenduak bildu egiten dira benetako bizitza politikoa Estatuan kontzentratzeko, eta ez Batasunean.

Erraz ikus daiteke bi gobernuen indar-ezberdintasuna, bakoitza bere boterearen eremuan mugitzen ikusiz.

Estatu-gobernu bat pertsona bati edo pertsona-talde bati zuzentzen zaion guztietan, beraren mintzaira argi eta agintezkoa izaten da; gauza bera gobernu federalak

gizabanakoei hitz egiten dienean; baina estatu baten aurrean aurkitzen denean, parlamentatzen hasten da: bere zioak azaldu eta bere jokabidea justifikatzen du; argudioak eta aholkuak ematen ditu, baina agindurik ia batere ez. Gobernu bakoitzaren ahalmen konstituzionalen mugei buruzko zalantzak sortzen badira, gobernu probintzialak adorez erreklamatzeko du bere eskubidea eta bizkor eta kementsu hartzen ditu honi eusteko neurriak. Bitartean Batasuneko gobernuak arrazoitu egiten du; nazioaren zentzuari dei egiten dio, beronen interes eta aintzari; amore ematen du, negoziatu; azken-azken irtenbide gisa bakarrik erabakitzen du jardutea. Lehen begiratuan, pentsa liteke gobernu probintziala dela nazio osoaren indarrez hornitua dagoena, eta Kongresuak estatu bat ordezkatzeko duela.

Gobernu federala, eratu dutenen ahaleginak gora-behera, eta beste nonbait esan dudana bezala, bere izaeraz gobernu ahula da, irauteko gobernatuen laguntza askea behar duena, beste edozeinek baino gehiago.

Erraz ikusten da estatuak baturik irauteko duten borondatea erraztasunez gauzatzea dela gobernu federalaren helburua. Lehen baldintza hau beteta, zuhur, indartsu eta zalua da. Normalean bere aurrean gizabanakoak bakarrik aurkitzeko moduan dago antolatua, eta borondate komunaren aurkako erresistentziak erraz gainditzeko moduan; baina gobernu federala ezartzerakoan ez da aurrikusi estatuak edo hauetako batzuek batuta egon nahi izateari utz diezaioketenik.

Gaur egun Batasunaren subiranotasuna estatuarekin borrokan hasiko balitz, erraz aurrikusi daiteke galdu egingo lukeela. Zalantza dut borroka hori ez ote litzatekeen inoiz serio egingo. Gobernu federalari temati kontra egiten zaion guztietan, honek amore emango du. Esperientziak gaur arte erakutsi duenez, estatu batek gauza bat setati nahi eta tinko eskatu duenean, sekula ez da lortu gabe gelditu; eta zerbait egiteari argi eta garbi uko egin dienean<sup>256</sup>, horretarako ere aske utzi da.

Batasuneko gobernuak indar bat bere-berea izango balu ere, herrialdeko egoera materialak oso zail jarriko lioke berorren erabilera<sup>257</sup>.

Oso lurralde zabala hartzen dute Estatu Batuek; distantzia luzeek banatzen dituzte estatuak, biztanleria sakabanaturik dago oraindik erdi hutsik dauden eskualdeetan. Konfederatuei beren eginbeharrak armaz betearazten saiatuko balitz Batasuna, Ingalaterrak Independentziako Gerran izan zuen egoeraren antzekoan aurkituko litzateke.

Bestalde, gobernu batek, indartsua izanda ere, nekez ihes egin diezaike printzipio baten ondorioei, behin printzipio hori onartu baldin badu bere burua arautzeko zuzenbide publikoaren oinarritzat. Konfederazioa estatuaren borondate askez eratu da; hauek, elkartzean, ez dute beren nazionalitatea galdu eta ez dute bat egin herri bakar eta berean. Gaur egun estatu horietako batek bere izena kontratutik kendu nahi izango balu, nahiko zaila gertatuko litzateke ezin duela egin frogatzea. Kontra borrokatzeko, gobernu federala ez litzateke era nabarian oinarrituko ez indarrean, ez zuzenbidean.

Gobernu federalak erraz gainditu ahal izateko bere menpekoetako batzuek jar liezaioketen erresistentzia, hauetako baten edo batzuen interes partikularrak estu-estu loturik egon beharko luke Batasunaren iraupenarekin, konfederazioen historian sarri ikusi izan den bezala.

Demagun lokarri federalak elkartzen dituen estatu horien artean badaudela batzuk batasunaren abantaila nagusiez berek bakarrik gozatzen dutenak, edota beren oparotasuna guztiz batasunari zor diotenak; garbi dago hauengan laguntza handia aurkituko duela aginte zentralak besteak bere esanetara edukitzeko. Baina orduan ez du indarra bere baitatik aterako, bere izaeraren kontrako den printzipio batetik baizik. Batasunetik abantaila berdina lortzeko bakarrik konfederatzen dira herriak; eta gorago



aipaturiko kasuan, baturiko nazioen artean desberdintasuna nagusi delako da gobernu federala ahaltsu.

Demagun estatu konfederatu hauetako batek nahikoa nagusitasun lortu duela bera bakarrik aginte zentralaz jabetzeko; beste estatuak bere menpekotzat hartuko ditu eta, Batasunaren ustezko subiranotasunean, bere subiranotasun propioa errespetaraziko du. Orduan, gauza handiak egingo dira gobernu federalaren izenean, baina, egia esateko, gobernu honek ez du jada existentziarik izango<sup>258</sup>.

Bi kasu horietan, konfederazioaren izenean diharduen agintea, zenbat eta gehiago aldendu konfederazioen egoera naturaletik eta onetsiriko printzipiotik, orduan eta indartsuago bilakatzen da.

Amerikan, egungo batasuna onuragarria da estatu guztientzat, baina ez da funtsezkoa inorentzat. Nahiz eta hainbat estatuk lokarri federal hori eten, besteen zoria ez litzateke arriskuan jarriko, nahiz eta orotara zorian txikiagoa izango luketen. Bere existentzia edo oparotasuna egungo konfederazioarekin erabat lotua duen estaturik ez dagoenez, ez dago konfederazio horri eusteko sakrifizio pertsonal handiak egiteko prest dagoen estaturik ere.

Bestalde, ez da ikusten estaturik orain arte interes edo irrika handirik duenik konfederazioari gaur egun ikusten dugun bezala eusteko. Zalantzarik gabe, guztiek ez dute eragin bera kontseilu federaletan, baina ez da ikusten bat nagusi izateaz harrotu daitekeenik, eta federaziokideak txikiago edo menpeko bailiran erabil ditzakeenik.

Beraz, ziur nago Batasunaren zati batek benetan nahi izango balu besteagandik banatu, ezingo litzaiokeela eragotzi, eta, gainera, horretarako ahaleginik ere ez litzatekeela egingo. Egungo Batasunak, hortaz, bera osatzen duten estatu guztiek parte izaten jarraitu nahi duten neurrian bakarrik iraungo du.

Puntu hori finkatu ondoren, egoera errazagoan gaude: kontua ez da egun konfederaturik dauden estatuak banatu ahal izango diren ikertzea, baizik eta baturik jarraitu nahiko duten ala ez.

Egungo batasuna amerikarrentzat onuragarri egiten duten arrazoi guztien artean, bi nagusi aurkitzen dira, guztiontzat oso nabariak direnak.

Nahiz eta amerikarrak, nolabait esateko, bakarrik egon beren kontinentean, merkataritzak auzoko bihurtzen dizkie tratuan ezagutzen dituzten herri guztiak. Itxurazko isolamendua gora-behera, amerikarrek indartsu izateko beharra dute, beraz, eta ezin dira indartsu izan, guztiek elkaturik iraunez ez bada.

Estatuek, banatuz gero, atzerritarren aurrean beren indarra gutxitu ezezik, beren lurreen bertan atzerritarrek sortuko lituzkete. Une horretatik aurrera, barne-aduanen sisteman sartuko lirateke; haranak irudimenezko marraz banatuko lituzkete; ibaibideak preso hartuko lituzkete eta beren jabari izateko Jainkoak eman dien kontinente zabalaren ustiakuntza oztopatuko lukete era guztietan.

Gaur egun, ez dute zertan izan inbasioen beldur; beraz, ez dute armadarik mantendu beharrik, edo zergarik bildu beharrik. Batasuna apurtzera iritsiz gero, gauza horien guztien beharra berandura gabe sumatuko litzateke agian.

Amerikarrek, beraz, interes ikaragarria dute batuta jarraitzeko.

Bestalde, ia ezinezkoa da asmatzea gaur egun zelako interes materiala izan lezakeen Batasuneko zati batek besteengandik banatzeko.

Estatu Batuetako mapari begiratu bat bota eta Alleghany mendikatea ikusten denean, ipar-ekialdetik hego-mendebaldera hedatua eta herrialdea 400 lekoatan zeharkatuz, zera sinesteko tentazioa sortzen da: Probidentziaren helburua Mississippiren arroaren eta Atlantiar ozeanoko kosten artean hesi natural horietako bat eraikitzea izan ote den, hesi horrek, jendearen arteko harreman iraunkorren kontra egonik, herri ezberdinen beharrezko mugak bezala eratzen dituelarik.

Baina Alleghanyen batezbesteko altuerak ez ditu 800 metro baino gehiago<sup>259</sup>. Beraien tontor biribilek eta beren esparruan dituzten haran zabalek sarbide erraza dute leku askotan. Are gehiago, urak Atlantiar ozeanora botatzen dituzten ibai garrantzitsuenek - Hudson, Susquehanna eta Potomac-ek- sorburua Alleghanyetan baino harantzago dute, Mississippiren arroa inguratzen duen lautada irekiaren gainean. Eskualde horretatik abiatuz<sup>260</sup>, mendebalderantz bidaliko zituela ematen zuen harresian aurrera egiten dute eta gizakiarentzat beti zabalik dauden bide naturalak egiten dituzte mendien artean.

Ez dago, beraz, inolako hesirik gaur egun angloamerikarrek betetzen duten herrialdeko zati ezberdinen artean. Alleghany mendiak ez dira inola ere herrientzako muga, eta estatuak ere ez dituzte mugatzen. New York, Pennsylvania eta Virginiak hartzen dituzte beren esparruan eta mendi hauetaz mendebaldera nahiz ekialdera hedatzen dira<sup>261</sup>.

Batasuneko hogeita lau estatuak eta, biztanleak badituzten arren, oraindik estatuen artean sartzen ez diren hiru distritu handiek gaur egun hartzen duten lurraldea 131.144 lekua karratukoa da<sup>262</sup>; hau da, Frantziako azalera baino bost aldiz handiagoa ia. Muga hauetan lurzoru bariatua, tenperatura ezberdinak eta hainbat motatako produktuak daude.

Errepublika angloamerikarrek hartzen duten lurralde-hedadura handi horrek zalantzak sortarazi ditu beraien batasunaren iraupenaz. Honetan bereizi beharra dago: batzuetan interes kontrajarriak sortzen dira aginterri zabal bateko probintzia ezberdinetan, azkenean borrokan hasten direlarik; orduan, gertatzen da estatuaren handitasuna izaten dela bere iraupena gehien koloka jartzen duena. Baina lurralde zabal horretan dagoen jendeak ez badu bere artean kontrako interesik, hedadura horrek beraien oparotasunerako onuragarri izan behar du, gobernu-batasuna bereziki mesedegarria baita lurreko emaitza ezberdinekin egin daitekeen trukerako, eta hauen zirkulazioa erraztean, gehitu egiten die balioa.

Edonola ere, interes ezberdinak ikusten ditut Batasuneko zati ezberdinetan, baina ez zait iruditzen batzuk besteen kontrako direnik.

Hegoaldeko estatuak laborariak bakarrik dira ia; iparraldeko estatuak manufakturari eta merkatariak dira bereziki; mendebaldeko estatuak manufakturari eta laborariak dira aldi berean. Hegoaldean tabakoa, arroza, kotoia eta azukrea biltzen dira; iparralde eta mendebaldean, artoa eta garia. Horra hor aberastasun-iturri ezberdinak; baina iturri horiek ustiatzeako bada bitarteko komun bat, guztientzat mesedegarri dena, batasuna alegia.

Iparraldeak, angloamerikarren aberastasunak munduko alde guztietara eta unibertsoa aberastasunak Batasunera eramaten dituen, interes nabaria du konfederazioak iraun dezan gaur egun bezala, berak zerbitzatu beharreko ekoizle eta kontsumitzaile amerikarren kopurua ahalik eta handiena izan dadin. Iparraldea da bitartekaririk naturalena, Batasuneko hegoalde eta mendebaldearen artean batetik, eta munduaren gainerakoarekin bestetik; beraz, iparraldeak hegoaldea eta mendebaldea elkarturik eta oparo jarraitzea desiratu behar du, hauek beraren manufakturak lehengaiz horni ditzaten, eta itsasuntziak fletez.

Hegoaldeak eta mendebaldeak badute, beren aldetik, interes are zuzenagoa Batasunak iraun dezan eta iparraldea oparoa izan dadin. Hegoaldeko produktuak itsasoz bestaldera esportatzen dira, neurri handi batean; hegoaldeak eta mendebaldeak iparraldeko merkataritza-baliabideak behar dituzte, beraz. Batasuna itsas botere handia izatea desiratu behar dute, babes eraginkorra eman diezaien. Hegoaldeak eta mendebaldeak gogo onez lagundu behar dute itsas armadaren gastuak ordaintzen, nahiz eta ez eduki itsasuntzirik; zeren eta, Europako untziak hegoaldeko portuak eta Mississippiren delta blokeatzera etorriko balira, zer gertatuko litzaioke Carolinetako arrozari, Virginiako

tabakoari, Mississippiko haranetan hazten diren azukre eta kotoiari? Ez dago, beraz, aurrekontu federalaren zatirik konfederatu guztientzat komuna den interes materialen baten kontserbazioari aplikatzen ez zaionik.

Onura komertzial horretaz gain, Batasuneko hego eta mendebaldeak abantaila politiko handia daukate beren artean eta iparraldearekin elkartuta jarraituz gero.

Hegoaldeak esklabu-kopuru ikaragarria du bere baitan, eta jendetza hau mehatxagarri bada gaur egun, are gehiago etorkizunean.

Mendebaldeko estatuak haran bakar baten hondoa hartzen dute. Estatu hauetako lurraldea bustitzen duten ibai guztiek, Mendi Harritsuetatik edo Alleghanyetatik abiatuz, beren urak Mississippikoekin nahasten dituzte, eta honekin batera Mexikoko golkorantz bideratzen dira. Mendebaldeko estatuak erabat isolaturik daude, beren kokalekuagatik, Europako tradizioetatik eta Mundu Zaharreko zibilizaziotik.

Beraz, hegoaldeko jendeak Batasunak irautea desiratu behar du, beltzen aurrean bakarrik ez gelditzeko, eta mendebaldeko jendeak ere bai, erdialdeko Amerikaren baitan itxita ez gelditzeko, munduarekin komunikazio askerik gabe.

Iparraldeak, bere aldetik, Batasuna ez zatitzea desiratu behar du, berak jarrai dezan gorputz handi hori munduaren gainerakoarekin lotzen duen kate maila izaten.

Bada, beraz, lotura estu bat Batasuneko zati guztien interes materialen artean.

Beste horrenbeste esango nuke gizakiaren interes inmaterialak dei litezkeen iritzi eta sentimenduei buruz.

Estatu Batuetako jendeak asko hitz egiten du aberriaganako duten maitasunaz; aitortzen dut ez naizela fido interesean oinarritzen den abertzaletasun hausnartu honetaz, interesak, xedez aldatzean, suntsitu egin dezake eta.

Garrantzi handiegirik ere ez diet ematen amerikarren adierazpenei, gurasoek bereganaturiko sistema federalari iraunarazteko asmoa etengabe azaltzen dutenean.

Hiritar-kopuru handi bati gobernu beraren menpe eusten diona, ez da hainbeste baturik irauteko borondate arrazoitua, baizik eta instintuzko akordioa -eta nahigabea, nolabait ere-, sentimenduen eta iritzien antzekotasunetik sortzen dena.

Ez dut inoiz onartuko jendeak gizarte bat eratzen duenik buruzagi berbera onartu eta lege berberak obeditzeagatik bakarrik; jendeak gauza askori ikuspegi beretik begiratzen dionean, gai askori buruz iritzi bera duenean eta, azkenik, egitate berek zirrara eta gogoeta berberak sortarazten dizkiotenean, orduan bakarrik egoten da gizartea.

Arazoa ikuspegi honetatik harturik, Estatu Batuetan zer gertatzen den aztertzen duena erraz ohartuko da hango biztanleek, hogeita lau estatu subirano ezberdinetan banaturik egonda, herri bakar bat osatzen dutela, hala ere; eta agian iritsiko da pentsatzera ere gizarte-egoera errealagoa dela Batasun angloamerikarraren baitan Europako zenbait naziotan baino, nahiz eta hauek legeria bakarra izan eta pertsona bakarraren menpe egon.

Angloamerikarrek hainbat erlijio izan arren, erlijioari begiratzeko era bera dute guztiek.

Beti ez dute elkar aditzen ongi gobernatzeko hartu beharreko neurriez eta iritzi ezberdinak dituzte gobernuari ematea komeni den formetako batzuei buruz, baina bat datoz gizarteak arautzeko behar diren printzipio orokorretan. Mainetik Floridetaraino, Missouritik Atlantiar ozeanoraino, botere legitimo guztien jatorria herriarengan dagoela uste dute. Askatasun eta berdintasunari buruz ideia beretsuak dituzte; prentsa, elkartze-eskubide, epaimahai eta botere-agenteen erantzukizunaz iritzi berberak aitortzen dituzte. Ideia politiko eta erlijiosoetatik bizitzako eguneroko ekintzak arautzen dituzten eta jokabidea oro har gidatzen duten iritzi filosofiko eta moraletara igarotzen bagara, akordio bera ikusiko dugu.

Angloamerikarrek<sup>263</sup> arrazoi unibertsalean jartzen dute aginpide morala, botere politikoa hiritarren unibertsaltasunean bezala, eta pentsatzen dute guztien irizpidea hartu

behar dela kontuan baimendurik edo debekatuta zer dagoen, egiazko edo faltsu zer den, bereizteko. Haietako gehienek pentsatzen dute gizakiari aski zaiola ongi ulerturiko bere interesaren ezagutza bidezktasun edo zintzotasunera gidatzeko. Jaiotzerakoan nork bere burua gobernatzeko ahalmena hartu duela uste dute, eta inork ez duela bere antzekoa zoriontsu izatera behartzeko eskubiderik. Guztiek dute fede bizia gizakiaren bikaingarritasunean; jakintzargien hedapenak nahitaez ondorio onuragarriak sortarazi behar dituela iruditzen zaie, eta ezjakintasunak oso ondorio txarrak ekartzen dituela; guztiek hartzen dute gizartea aurrerabidean dagoen gorpuztat; gizadia koadro aldakortzat, non ezer ez dagoen, ezta egon behar ere, betiko finko, eta onartzen dute gaur ongi iruditzen zaienaren orde z oraindik ezkutuan dagoen zerbait hobea egon daitekeela bihar.

Ez dut esaten iritzi hauek guztiak bidezkoak direnik, baina amerikarrak dira.

Angloamerikarrak ideia komun bidez beren artean honela elkarturik dauden bitartean, beste herri guztiengandik banaturik daude sentimendu bat medio, harrotasuna, alegia.

Azken berrogeita hamar urteotan Estatu Batuetako biztanleei etengabe errepikatu zaie beraiek direla herri erlijioso, ilustratu eta aske bakarra. Beren artean, eta gaur arte, erakunde demokratikoek aurrera egiten dutela ikusten dute, munduaren gainerakoan porrot egiten duten bitartean; beraz, ikaragarri iritzi ona dute beren buruaz, eta asko ez zaie falta gizadiaren barnean aparteko espezie bat osatzen dutela sinesteko.

Honela, bada, Batasun amerikarrentzat mehatxagarri diren arriskuak ez ditu iritzi-ezberdintasunak sortzen interes-ezberdintasunak baino gehiago. Arrisku horiek amerikarren izaera-ezberdintasunean eta grinetan bilatu behar dira.

Estatu Batuetako lurralde zabalean bizi direnak jatorri berekoak dira ia guztiak; baina luzarora klimak eta, batez ere, esklabutzak ezberdintasun nabariak sarrarazi dituzte Estatu Batuetako hegoaldeko eta iparraldeko ingelesezko izaeren artean.

Oro har, gure artean uste da esklabutzak Batasuneko zati bati bestearen kontrako interesak ematen dizkiola. Nik ez dut ikusi hori horrela denik. Esklabutzak ez ditu hegoaldean iparraldekoen kontrako interesak sortu; baina aldatu egin du hegoaldeko biztanleen izaera, eta aztura ezberdinak eman dizkie.

Adierazi dut beste nonbait esklabutzak zer eragin zertu zuen hegoaldeko amerikarren merkataritza-gaitasunean; halaber, eragin bera hedatzen da haien ohituretara.

Esklabua, eztabaidatzen ez duen zerbitzaria da, eta edozertara makurtzen dena marmarrik gabe. Batzuetan hil egiten du ugazaba, baina sekula ez kontra egin. Hegoaldean ez dago familiarik esklabuak ez izateko bezain behartsurik. Hegoaldeko amerikarra, jaiotzatik, halako etxe-diktadura batez jantzia egoten da; bizitzari buruz hartzen dituen lehen nozioek agintzeko jaioa dela jakinarazten diote, eta bereganatzen duen lehen aztura nekerik gabe dominatzekoa izaten da. Hortaz, hezkuntzak joera indartsua du hegoaldeko amerikarra pertsona harro, oldartsu, suminkor, bortitz, bere grinetan sutsu eta oztopoen aurrean egonari gutxiko bihurtzeko; baina adorea erraz galtzen dutenetakoa, ezin badu lehen saioan arrakastarik izan.

Iparramerikarrak ez du esklaburik bere sehaskara inguratzen ikusten. Ez du zerbitzari askerik ere aurkitzen, gehienetan beharturik baitago bere premiak berak asetzera. Mundura etorri orduko, beharraren ideia alde guztietatik etortzen zaio haren izpirituari; beraz oso goiz ikasten du bere ahalmenaren berezko muga bere kabuz zehatz-mehatz ezagutzen; ez du, beraz, berearen kontrako borondateak indarrez makurrarazterik espero izaten, eta badaki, bere antzekoen laguntza lortzeko, beraien begirunea irabazi behar duela, batez ere. Eramankor, burutsu, jasankor, ekiteko geldo eta bere egitasmoetan iraunkor izaten da, beraz.

Hegoaldeko estatuetan, gizakiaren premiarik larrienak aseta daude beti. Honela, bada, hegoaldeko amerikarra ez dago kezkatutik bizitzako ardura materialez; beraren orde

beste norbait arduratzen da horietaz. Alde horretatik aske, haren irudimena beste gai handiago eta hain zehatz definitu gabeko batzuetara zuzentzen da. Hegoaldeko amerikarrak handitasuna maite du, luxua, aintza, ospea, plazerrak eta, batez ere, aisia; ezerk ez du bizitzeko ahalegintzera behartzen, eta, beharrezko lanik ez daukanez, lokartu egiten da eta onuragarri liratekeenak ere ez ditu egiten.

Iparraldean ondasun-berdintasuna dagoenez, eta jada esklabutzarik ez, gizakia irentsi bezala egiten dute hegoaldean zuriak mesprezatu egiten dituen ardura material berberak. Haurtzarotik arduratzen da lazeria borrokatzeaz, eta izpirituaren eta bihotzaren gozamen guztien gainera aisetasuna jartzen ikasten du. Bizitzako xehetasun txikietan kontzentratua, haren irudimena itzali egiten da, ideiak ez ditu hain ugari eta orokorrak, baina praktikoago, argiago eta zehatzago bihurtzen zaizkio. Bere adimenaren ahalegin guztiak ongizatearen azterketa bakarrera bideratzen dituenek, berehala nabarmentzen da horretan; miresgarriro daki naturaz eta gizakiez baliatzen aberastasuna sortzeko; ederki asko ulertzen du gizarteari, bere kide bakoitzaren oparotasunerako lagungarri izan dadin, eragiteko artea, baita bakoitzaren berekoikeriatik guztien zoriona ateratzeko artea ere.

Iparraldeko jendeak, esperientzia ezezik, jakinduria ere badu; ez du, hala ere, zientzia plazertzat hartzen, bitarteko bezala baizik, eta berorretatik aplikazio erabilgarriak bakarrik hartzen ditu irrikaz.

Hegoaldeko amerikarra espontaneoago, izpiritualago, irekiago, eskuzabalago, intelektualago eta distiratsuagoa da.

Iparraldeko amerikarra aktiboago, arrazoizkoago, ilustratuago eta trebeagoa da.

Batak aristokrazia guztien gustu, aurriritzi, ahulezia eta handitasuna ditu.

Besteak klase ertainaren ezaugarri diren kalitate eta akatsak.

Elkar itzazue bi pertsona, emaitzazue biei interes berak eta neurri batean iritzi berak; beren izaera, jakintzargiak eta zibilizazioa ezberdina bada, aukera asko dago bat ez etortzeko. Oharpen bera aplika dakioke nazio-elkarte bati.

Esklabutzak ez dio, beraz, konfederazio amerikarrari zuzenean interesen bidez erasotzen, zeharka ohituren bidez baizik.

1790ean itun federalari atxiki zitzaizkion estatuak hamahiru ziren; gaur egun hogeita lau ditu konfederazioak. 1790ean ia lau milioikoa zen biztanleria lau aldiz handiagoa zen berrogei urte geroago; hamahiru milioi ingurukoa zen 1830ean<sup>264</sup>.

Antzerako aldaketak ezin dira zertu arriskurik gabe.

Nazioen elkarte nahiz gizabanakoen elkarte batentzat, hiru dira iraupen-aukera nagusiak: kideen zuhurtzia, berauen ahulezia indibiduala eta kopuru txikia.

Atlantiar ozeanoaren ertzetatik urrundu eta mendebaldera barneratzen diren amerikarrak uztarri-mota oro jasanezin zaien abenturariak dira, aberastasun-gosez daudenak, jaio direneko estatuetatik bidaliak sarri. Elkar ezagutu gabe iristen dira basa eremuen erdira. Han ez dute aurkitzen eutsiko dien tradizioirik, ez famili izpiriturik, ez jarraibiderik. Beraien artean ahula da legeen agintea, eta are ahulagoa ohiturena. Beraz, egunero Mississippiko haranak jendeztatzen dituztenak beheagoko mailakoak dira, ikuspegi guztietatik, Batasuneko antzinako mugetan bizi diren amerikarrak baino. Hala ere, jada eragin handia zertzen dute bertako kontseiluetan, eta beren buruak gidatzen ikasi baino lehen iristen dira arazo komunaren gobernura<sup>265</sup>.

Kideak zenbat eta ahulagoak izan banaka, orduan eta iraupen-aukera gehiago gizarteak, ez baitute segurtasunik elkartuta jarraituz baizik. 1790ean, Amerikako errepublika jendetsuenak 500.000 biztanle ez zeuzkanean<sup>266</sup>, bakoitzak bere ezereztasuna sentitzen zuen herri independente bezala, eta pentsamendu honekin errazago obeditzen zion aginte federalari. Baina estatu konfederatuak batek 2.000.000 biztanle dituenek, New Yorkeko estatuak bezala, eta lurraldearen azalera Frantziakoaren laurden bat

adinakoa duenean<sup>267</sup>, indartsu sentitzen da bere kasa, eta, batasuna bere ongizaterako onuragarritzat jotzen jarraitzen badu ere, jada ez du izateko beharrezko jotzen; bizi daiteke hori gabe; eta, batasunean jarraitzea onartzen badu ere, laster nahi izaten du nagusi bihurtu.

Batasuneko kideen ugaltze hutsak lotura federala apurtzeko joera indartsua sortuko luke. Ikuspuntu berean kokaturiko pertsona guztiek ez dituzte gauza berak era berean ikusten. Are arrazoi gehiagoz gertatzen da hori ikuspuntua ezberdina denean. Amerikako errepubliken kopurua gehitu ahala, gutxitu egiten da lege berberen inguruan guztien adostasuna lortzeko aukera.

Gaur egun Batasuneko zati ezberdinen interesak ez dira beren artean aurkakoak; baina nork aurrikus ditzake etorkizun hurbilak herrialde batean sortaraz ditzakeen aldagetak, herrialde horretan egunero hiriak sortzen badira eta bost urtero nazioak?

Kolonia ingelesak eraiki zirenetik, biztanle-kopurua bikoiztu egiten da hogeita bi urteka gutxi gora-behera; biztanleria angloamerikarraren mugimendu hazkor hori hemendik mende batera geldiaraziko duen kausarik ez dut ikusten. Ehun urte igaro baino lehen, Estatu Batuek daukaten edo erreklamatzeko duten lurraldea ehun milioi bizilagun baino gehiagoz betea eta berrogei estatutan zatitua egongo dela pentsatzen dut<sup>268</sup>.

Onartzen dut ehun milioi hauek ez dituztela interes ezberdinak; aitzitik, guztiei abantaila berdina ematen diet baturik jarraitzeko, eta indar ezberdineko berrogei nazio diferente osatzen dituzten ehun milioi direlako hain zuzen, gobernu federalak irautea zorioneko ustegabe bat baino ez dela esaten dut.

Nik ere sinetsi nahi dut giza bikaingarritasunean; baina gizakia izaeraz aldatu eta guztiz eraberritu arte, ez dut sinetsiko gobernuaren iraupenean, gobernu honek Europaren erdia bezalako zabaleran<sup>269</sup> barreiaturik dauden berrogei herri ezberdin elkartuta eduki behar baititu, eta horien arteko etsaitasun, gutizia eta borrokak eragotzi behar, eta horien borondate independenteak egitasmo berberak gauzatzera bideratu behar.

Baina Batasunak handitzean duen arriskurik larriena bere baitan zertzen den indarren etengabeko lekualdaketatik dator.

Superior lakuaren ertzetatik Mexikoko Golkora, zuzen-zuzenean, Frantziako laurhun lekua inguru daude. Lerro luze honetan dabil sigi-saga Estatu Batuetako muga; batzuetan muga hauetaz honantz sartzen da, eta gehienetan mugez harantzago, basa eremuen artean. Kalkulatu da fronte zabal honetan guztian, zuriak batezbeste zazpi lekua egiten zutela aurrera urtero<sup>270</sup>. Noizean behin oztoporen bat agertzen da: emankorra ez den barruti bat, laku bat, ustegabe bidean topaturiko indioen nazio bat. Orduan jende-ilara gelditu egiten da une batez; bi muturrak beren baitara biltzen dira eta, denak elkartu ondoren, bideari ekiten diote. Bada zerbait probidentziazkoa arraza europarrak Mendi Harritsuetarantz poliki-poliki daraman martxa iraunkor honetan: etengabe goratzen ari den giza uholdea bezala da eta Jainkoaren eskuak egunero altxatzen duena.

Konkistatzaileen lehen lerro horretan, hiriak eraikitzen dira eta estatu zabalak sortzen. 1790ean Mississippiko haranetan barreiaturiko aitzindariak milaka batzuk bakarrik ziren; gaur egun, haran horiek beroriek 1790ean Batasun osoak beste jende dute. Lau milioi ingurukoa da horien biztanleria<sup>271</sup>. Washington hiria 1800ean fundatu zen, konfederazio amerikarraren erdi-erdian; gaur egun muturretako batean dago kokatua. Mendebaldeko azken estatuetakoa diputatuak<sup>272</sup>, Kongresuko aulkira iristeko, beharturik daude Vienatik Parisera letorkeenak bezain bide luzea egitera.

Batasuneko estatu guztiak aldi berean doaz aberastasunerantz arrastaka; baina guztiek ezin dute proportzio berean hazi eta aurrera egin.

Batasuneko iparraldean, Alleghany mendikateatik irtendako adarrak Atlantiar ozeanoraino aurreratzen dira, eta han arrada zabalak eta itsasuntzirik handientzako portu beti irekiak eratzen dituzte. Potomac-etik aurrera, aitzitik, eta Amerikako kostei jarraituz Mississippiren bokaleraino, lur lau eta hondartsua bakarrik dago. Batasunaren alde honetan, ia ibai guztien irteerak itsutuak daude, eta aintzira horien erdian lantzean behin agertzen diren portuek iparraldekoek baino sakonera txikiagoa dute, eta askoz erraztasun gutxiago merkataritzarako.

Naturatik sortzen den lehen gutxiagotasun honi legeetatik datorren beste bat gehitzen zaio.

Ikusi dugu esklabutza, iparraldean abolitua, badela oraindik hegoaldean, eta erakutsi dut ugazabaren beraren gain zertzen duen eragin txarra.

Iparraldeak, beraz, hegoaldeak baino merkataritza<sup>273</sup> eta industria gehiago izan behar du. Normala da han biztanleria eta aberastasuna bizkorrago gehitzea.

Atlantiar ozeanoaren ertzean kokaturiko estatuak dagoeneko erdi populatuak daude. Hango lurrik gehienek jabea dute; ezin, beraz, haiek eta mendebaldeko estatuek migrari-kopuru bera hartu, hauek oraindik ere alor mugagabea baitute industriarako. Mississippiren arroa askoz ere emankorragoa da Atlantiar ozeanoko kostak baino. Arrazoi honek, beste guztiei erantsita, europarrak kementsu bultzatzen ditu mendebalderantz. Hau zorrotz frogatzen da zifra bidez.

Estatu Batuak osorik hartuta, berrogei urteotan biztanle-kopurua gutxi gora-behera hirukoiztu egin dela ikusten da. Baina Mississippiren arroa bakarrik hartuta, denboraldi berean, hor biztanleria<sup>274</sup> hogeita hamaika aldiz handiagoa egin dela ohartzen da<sup>275</sup>.

Egunetik egunera, aginte federalaren erdigunea lekuz aldatuz doa. Duela berrogei urte, Batasuneko herritarrik gehienak itsasertzetan zeuden, gaur egun Washington dagoeneko inguru horretan; orain lehorrean barrurago dago eta iparralderago; zalantzarik gabe, hogeitaz baina lehen Alleghanyez bestaldean egongo da. Batasunak irauten badu, Mississippiren arroa, bere emankortasun eta hedaduragatik, aginte federalaren erdigune iraunkor bilakatuko da derrigorrez. Hogeita hamar edo berrogei urte barru, Mississippiren arroa bere maila naturalera iritsia izango da. Erraza da kalkulatzeko orduan hango biztanleria, Atlantiar ozeanoaren ertzetan kokaturiko estatuetakoaren aldean, 40-11ko proportzioan egongo dela gutxi gora-behera. Urte batzuk barru, Batasunaren zuzendaritzak erabat ihes egingo die sortu zuten estatuei, eta Mississippiren haranetako biztanleria nagusi izango da kontseilu federaletan.

Indarrek eta eragin federalak ipar-mendebalderantz duten etengabeko grabitazio hau hamar urtero azaltzen da, biztanleen erroldatze orokorra egin ondoren estatu bakoitzak Kongresura bidali behar duen ordezkari-kopurua berriro finkatzen denean<sup>276</sup>.

1790ean Virginiak hemeretzi ordezkari zituen Kongresuan. Kopuru hau haziz joan da 1813ra arte, hogeita hiruraino iritsiz. Geroztik, gutxitzen hasi zen. 1833an hogeita bat bakarrik ziren<sup>277</sup>. Denboraldi berean, New Yorkeko estatuak kontrako bilakaera eraman zuen: 1790ean hamar ordezkari zituen Kongresuan; 1813an hogeita zazpi; 1823an hogeita hamalau; 1833an berrogei. Ohiok ordezkari bakarra zuen 1803an; hemeretzi 1833an.

Nekez imajina daiteke batasun iraunkorrik bi herriren artean, bata behartsu eta ahul denean, eta bestea aberats eta indartsu, nahiz eta frogatua egon bataren indar eta aberastasuna ez direla bestearen ahulezia eta pobreziaren kausa. Are zailagoa da batasunari eustea bata indarra galtzen eta bestea irabazten ari den garaian.

Estatu jakin batzuen hazkunde bizkor eta proportziogabe honek besteen independentzia mehatxatzen du. New Yorkek, bere bi milioi biztanle eta berrogei ordezkariarekin, Kongresuan legea egin nahiko balu, lortu egingo luke agian. Baina estaturik ahaltsuenak

txikienak zapaltzen ez saiatu arren, hala ere arriskuak iraun egingo luke, ia egitatean bertan bezainbat egitatearen posibilitatean baitago arriskua.

Ahulek nekez izaten dute konfiantzarik indartsuen justizia eta arrazoian. Besteak bezain bizkor hazten ez diren estatuek mesfidantzaz eta bekaizkeriaz begiratzen diete zoria aldeko dutenei. Hortik sortzen da Batasuneko zati batean sumatzen den atsekabe sakon eta egonezin zehazgabe hori, bestean nagusi den ongizate eta konfiantzarekin kontrastatzen duena. Uste dut hegoaldeak hartu duen aurkako jarrerak ez duela beste kausarik.

Amerikar guztien artean, hegoaldekoak dira Batasunaren aldekoenak izan beharko luketenak, batez ere beraiek sufrituko bailukete beren kasa utziak izanez gero; hala ere, beraiek dira konfederazioaren sorta apurtzeko mehatxua egiten duten bakarrak. Nondik dator hori? Erraza da esatea: hegoaldeak, konfederazioari lau lehendakari eman dizkiolarik<sup>278</sup>, badaki orain aginte federala ihes egiten ari zaiola, eta bere ordezkari-kopurua Kongresurako urtetik urtera gutxitzen ikusten du, iparralde eta mendebaldekoena hazi egiten den bitartean; hegoaldea, jende gartsu eta suminkorrez populatua, amorruez eta egonezinik jartzen da. Bere buruari begiratzen dio atsekabez; iragana galdekatuz, egunero itauntzen dio bere buruari ez ote den zapalduta egongo. Batasuneko lege bat argi eta garbi bere aldeko ez dela konturatzen bada, beraren aurkako indar-abusua dela deiadar egingo du; sutsu erreklamatzeko du, eta ez bazaio esaten duena entzuten, sumindu egiten da eta gizartetik erretiratzeko mehatxua egiten du, gizarteko kargak jasaten dituelako, baina onurarik ez.

"Tarifa-legeek, esaten zuten Carolinako biztanleek 1832an, iparralde aberastu eta hegoaldea hondatzen dute; zeren eta, horiek gabe, nola ulertu iparraldeak, klima gozagaitz eta lurzoru idorrarekin, bere aberastasunak eta boterea etengabe haztea, bitartean hegoaldea, Amerikako lorategia bezala dena, bizkor galbidean jausten ari bada<sup>279</sup>?"

Aipatu ditudan aldaketa horiek poliki-poliki zertuko balira, belaunaldi bakoitzak berak ikusitako gauza-ordenarekin desagertzeko astia izanez alegia, arriskua txikiagoa izango litzateke; baina bada zerbait presatuegia, iraultzailea esango nuke ia, gizarteak Amerikan egiten duen aurrerapenean. Hiritar berak ikusi ahal izan du bere estatua Batasunaren buru izaten, eta gero kontseilu federaletan ezinean gelditzen. Bada errepublika angloamerikarrik pertsona bat bezain bizkor hazi denik, eta hogeita hamar urtetan jaio, hazi eta heltzarora iritsi denik.

Hala ere, ez da imajinatu behar boterea galtzen duten estatuak despopolatu edo makaldu egiten direnik; haien oparotasuna ez da gelditzen; Europako edozein erresuma baino ere bizkorrago hazten dira<sup>280</sup>. Baina pobretzen ari direla iruditzen zaie, ez baitira auzokoa bezain bizkor aberasten, eta beren boterea galtzen ari direla uste dute, bat-batean berena baino botere handiagoarekin jartzen direlako kontaktuan<sup>281</sup>. Hortaz, haien interesak baino gehiago sentimendu eta grinak gertatzen dira kolpatuak. Baina hau ez al da aski konfederazioa arriskuan egoteko? Munduaren hasieratik herriek eta erregeek beren benetako onura bakarrik hartu izan balute kontuan, ia ez litzateke jakingo gerra zer den gizakien artean.

Honela, Estatu Batuak mehatxatzen dituen arriskurik handiena beraien oparotasunetik bertatik sortzen da; honek aberastasunaren gehikuntza bizkorrek berekin duen hordikeria sortzen du zenbait konfederaturen artean, eta, besteen artean, horren galerari sarri darraizkion bekaizkeria, mesfidantza eta atsekabeak.

Amerikarrak pozitu egiten dira aparteko mugimendu hori ikustean; nire ustez, atsekabez eta beldurrez hartu beharko lukete. Estatu Batuetako amerikarrak, zernahi eginda ere, munduko herririk handienetako bat bilakatuko dira; beren ondorengoez ia Ipar Amerika



osoa beteko dute; bizi direneko kontinentea beraien aginterria da, ezingo die ihes egin. Nork behartzen ditu oraintxetik horretaz jabetzera? Aberastasunak, botereak eta aintzak ezin diete huts egin, eta ondasun neurrigabe horren gain oldartzen dira, berorri heltzeko unetxo bat besterik ez balute bezala.

Frogatu dudala uste dut egungo konfederazioaren existentzia, elkartuta irauteko konfederatu guztien akordioaren menpe dagoela erabat; eta, datu honetatik abiatuz, banatu nahi izatera estatuak zerk eraman ote litzakeen ikertu dut. Baina Batasuna bi eratara amai daiteke: estatu konfederatuetak batek kontratutik erretiratu egin nahi izan dezakeelako eta honela bortizki apurtu lokarri komuna; kasu honi buruzkoak dira lehen egin ditudan oharpen gehienak. Edo gobernu federalak poliki-poliki gal dezakeelako bere boterea, batutako errepublikek beren independentziaren erabilera berreskuratzeko joera baldin badute aldi berean. Botere zentrala, bata bestearen ondoren prerrogatiba guztiak kenduta, isilpeko akordio batez ezintasunean utzia, ez litzateke gai izango bere helburua betetzeko, eta bigarren Batasuna lehena bezala amaituko litzateke zahartzaroko makaltasunez bezala edo.

Bestalde, lotura federala poliki-poliki ahultzea, azkenean Batasuna deusezteka ekarri, bere horretan egitate ezberdin bat da, hain muturrekoak ez diren beste emaitza asko ekar ditzakeelarik aipaturiko hori baino lehen. Nahiz eta konfederazioak iraun, jadanik bere gobernuaren ahuleziak nazioa ezintasunean utzi, barruan anarkia eragin eta herrialdeko oparotasun orokorra mantsotu egin lezake.

Angloamerikarrak banatzera eramaten dituen ikertu ondoren, garrantzizkoa da aztertzea ea, Batasunak irauten duelarik, haien gobernuak zabaldu ala estutu egiten duen bere ekintza-esparrua, eta kementsuago ala ahulago bilakatzen den.

Nabaria da kezka handi batek arduratzen dituela amerikarrak. Munduko herri gehienetan, subiranotasun-eskubideen erabilera esku gutxi batzuetan biltzeko joera dagoela ikusten dute, eta azkenean beren artean ere horrela gertatuko dela pentsatzean izutu egiten dira. Estatu-gizonek bere ere badituzte beldur horiek, edo horren itxura egiten dute behintzat; zeren eta Amerikan zentralizazioa ez baita herrikoa, eta ezin da gehiengo abilago lausengatu botere zentralaren ustezko usurpazioen kontra altxatuz baino. Amerikarrek ez dute ikusi nahi beldurtzen dituen zentralizazio-joera hau agertzen den herrialdeetan herri bakar bat dagoela, beren Batasuna hainbat herriren konfederazioa den bitartean; eta egitate hau aski da analogian oinarrituriko aurrikuspen guztiak desegiteko.

Amerikar askoren beldur horiek erabat irudipenezkotzat jotzen ditudala aitortu behar dut. Ez naiz inola ere subiranotasuna Batasunaren eskuetan sendotzearen beldur direnetakoa, eta iruditzen zait gobernu federala nabariki ahultzen ari dela.

Honetaz esaten dudana frogatzeko, ez dut antzinako gertakarietara joko, baizik eta neuk ikusi ditudanetara, edo geure garaian gertatu direnetara.

Estatu Batuetan gertatzen dena arretaz aztertzean, kontrako bi joera daudela ikusten da berehala; bi korrante bezala dira, bide beretik kontrako norantzan dabiltzanak.

Batasunak dituen berrogeita bost urteotan, denborak desagertarazi egin ditu hasieran beraren aurka zeuden aurriritzi probintziano asko. Amerikar bakoitza bere estatuari atxikiarazten zuen abertzaletasun-sentimendua ez da hain eksklusiboa orain. Elkar hobeto ezagutzean, Batasuneko zati ezberdinak hurbildu egin dira. Posta, izpirituen lokarri handi hori, basa eremuen barren-barreneraino sartzen da gaur egun<sup>282</sup>; baporeek kostako puntu guztiak komunikarazten dituzte egunero. Merkataritza barnealdeko ibaietan gora eta behera ibiltzen da bizkortasun paregabe<sup>283</sup>. Naturak eta arteak sorturiko erraztasun hauekin, desiren ezegonkortasuna, izpirituen egonezina eta aberastasunen irrika elkartzen dira, amerikarra bere egoitzatik kanpo etengabe bultzatuz, herrikide askorekin komunikazioan jartzen dutelarik. Norantza guztietan zeharkatzen du

bere herrialdea; bertan bizi diren herri guztiak bisitatzen ditu. Frantzian ez dago probintziarik, non biztanleek Estatu Batuetan dauden 13 milioiek bezain ongi elkar ezagutzen duten.

Amerikarrak, nahastu ahala, asimilatu egiten dira; klimak, jatorriak eta erakundeek haien artean sartutako ezberdintasunak gutxitu egiten dira. Gero eta hurbilago daude tipo komun batetik. Urtero, iparraldetik irtendako milaka pertsona Batasuneko alde guztietan banatzen da. Berekin batera beren sineskizun, iritzi eta ohiturak eramaten dituzte, eta haien jakintzargiak tokian tokikoenak baino handiagoak direnez, laster jabetzen dira arazo publikoez eta gizartearen probetxurako aldatzen. Iparraldetik hegoalderako migrazio etengabe horrek, izaera probintzial guztiek nazio-izaera bakarrean bat egin dezaten laguntzen du, batez ere. Badirudi, beraz, iparraldeko zibilizazioa guztientzako neurri bilakatuko dela, egunen batean gainerako guztiek neurri horretara moldatu beharko dutelarik.

Amerikarren industriak aurrerapenak egin ahala, estatu konfederatu guztiak batzen dituzten lokarri komertzialak estatu egiten dira, eta batasuna azturetan sartzen da iritzietan sartu ondoren. Denborak, bere ibilian, 1789ko pertsona askoren irudimena atsekabetzen zuten beldur fantastiko asko desagertarazten ditu azkenerako. Aginte federala ez da zapaltzaile bihurtu; ez du estatuen independentzia suntsitu; ez ditu konfederatuak monarkiara eraman; Batasunarekin, estatu txikiak ez dira handien menpe erori. Konfederazioak hazten jarraitu du etengabe biztanle, aberastasun eta botereari dagokionez.

Komentziturik nago, beraz, gaur egun amerikarrek berezko zailtasun gutxiago dutela baturik bizitzeko, 1789an zeuzkatenak baino; Batasunak orduan baino etsai gutxiago du. Eta, hala ere, Estatu Batuen berrogeita bost urteotako historia arretaz aztertzen bada, erraz ohartzen da aginte federala murrizten ari dela.

Ez da zaila fenomeno honen kausak adieraztea.

1789ko Konstituzioa promulgatu zen momentuan, dena anarkian hondatzen ari zen; desordena haren ondorengo Batasunak beldur eta gorroto asko sortarazi zuen; baina lagun sutsuak ere bazituen, premia handi baten adierazpena baitzen. Erasotuagoa orduan gaur egun baino, aginte federalak bizkor lortu zuen bere botererik handiena, bere indarrak borrokan sendotu ondoren garaipena lortzen duen gobernuari normalean gertatzen zaion bezala. Garai hartan, konstituzioaren interpretazioak subiranotasun federala murriztu baino gehiago zabaldu egiten zuela ematen zuen, eta Batasunak alderdi askotatik herri bakar eta bat beraren ikuskizuna eskaini zuen, gobernu bakar batek gidatua barnean nahiz kanpoan.

Baina puntu honetara iristeko, herria bere buruaren gainetik jarria zen, nolabait ere.

Konstituzioak ez zuen estatuen indibidualitatea suntsitu, eta gorputz guztiek, direnak direla, badute ezkutuko sen bat independentziara bultzatzen dituen. Sen hau are biziagoa da Amerika bezalako herrialde batean, non herritxo bakoitzak eratzen baitu errepublika moduko bat, bere burua gobernatzera ohitua.

Egin zuten, beraz, ahalegin bat nagusitasun federalaren menpe jarri ziren estatuek. Eta ahalegin oro, arrakasta handiz burututa ere, ahulduta gelditzen da sortarazi duen kausarekin batera.

Gobernu federalak bere agintea finkatu ahala, Amerikak bere maila berrartzen zuen nazioartean, bakea sortzen zen berriro mugen barnean, eta sinesgarritasun publikoa berreskuratzen zen; nahasmenaren ondoren ordena finkatu zen, gizabanakoaren industriari berezko martxan segitzeko eta askatasunean garatzeko aukera ematen ziona.

Oparotasun hau berau izan zen eragin zuen kausa ezkutarazten hasi zena; arriskua igaro ondoren, amerikarrek ez zituzten jada beren baitan aurkitu hura uxatzen lagundu zieten kemena eta abertzaletasuna. Kezkatzen zituzten beldurretatik aske, erraz itzuli ziren

beren ohituretara eta erresistentziarik gabe abandonatu ziren beren joera arruntera. Gobernu indartsu bat beharrezkoa ez zirudien momentutik, gogaikarri zela pentsatzen hasi ziren berriro. Guztiak aurrera egiten zuen Batasunarekin, eta estatuak ez ziren Batasunetik apartatu; baina ez zuten sentitu nahi Batasunaren ordezkari zen boterearen ekintza. Oro har, baturik jarraitu nahi zuten, eta egitate partikular bakoitzean berriro independente izateko joera zegoen. Konfederazioaren printzipioa gero eta errazago onartua eta gutxiago aplikatua izan zen; honela, gobernu federalak, ordena eta bakea ezartzean, berak ekarri zuen bere hondamendia.

Izpirituen jarrera hori kanpora azaltzen hasi zenetik, alderdietako jendea, herri-grinetatik bizi dena, bere probetxurako erabiltzen hasi zen.

Ordudanik oso egoera kritikoa aurkitu zen gobernu federala; honen etsaiek herriaren begikotasuna zuten, eta gobernua ahultzeko hitza emanaz lortzen zen herria gidatzeko eskubidea.

Garai hartatik aurrera, Batasuneko gobernua estatuetakoei leihan hasi den bakoitzean, atzera egin izan du ia beti. Konstituzio federalaren terminoak interpretatu behar izan direnean, interpretazioa Batasunaren kontrakoa eta estatuen aldekoa izan da gehientsuenetan.

Konstituzioak gobernu federalari ematen zion nazio-interesak zaintzeko ardura. Izan ere, pentsatu zen berari zegokiola barnean egin edo bultzatzea Batasun osoaren oparotasuna areagotzeko moduko eginkizun handiak (*internal improvements*), kanalak, esate baterako.

Estatuak izutu egin ziren beren lurraldearen zati batez beste aginte bat hala balia zitekeela imajinatzean. Beldur ziren aginte zentrala, beraien baitan nagusitasun ikaragarria lortzean, ez ote zen iritsiko haiek oso-osorik beren agenteentzat bakarrik gorde nahi zuten eragina zertzer.

Alderdi demokrata, beti aginte federalaren garapen guztien kontra egon izan dena, ozen mintzatu zen; usurpazioaren akusazioa egin zitzaion Kongresuari, gutziarena estatu-buruari. Gobernu zentralak, deiadar hauengatik izututa, bere hutsegitea aitortu zuen eta ezarri zitzaion esparruan itxi zen azkenean.

Konstituzioak Batasunari ematen dio atzerriekin tratatzeko pribilegioa. Batasunak, oro har, ikuspegi honetatik ikusi izan zituen bere lurraldeko mugetan zebiltzan indioen tribuak. Basati haiek zibilizazioaren aurrean ihes egitea onartu zuten bitartean, ez zitzaion zuzenbide federalari kontrarik egin, baina indioen tribu batek lurraldearen puntu batean ezartzea erabaki zuenean, inguruko estatuak lur horien edukitza-eskubidea erreklamatu zuten, eta bertan bizi zirenekiko subiranotasun-eskubidea. Gobernu zentralak berehala onartu zituen bata eta bestea, eta indioekin herri independenteekin bezala tratuan jardun ondoren, menpeko bezala utzi zituen estatuen legegintza-tiraniaren esku<sup>284</sup>.

Atlantiarren ertzean eratutako estatuen artean, batzuk mugagabeki hedatzen ziren mendebaldearantz, artean europarrak sartu gabeko basa eremuetarantz. Beren mugak kontraerabaki ezineko moduan finkaturik zituztenek begirada jeloskorrez ikusten zuten auzokoek aurrean zuten etorkizun zabala. Azken hauek, adiskidetasun-izpirituz eta Batasun Akta errazteko asmoz, mugak ezartzea onartu zuten eta konfederazioaren esku utzi zuten harantzago aurki zitekeen lurralde osoa<sup>285</sup>.

Garai harez geroztik, gobernu federala bilakatu zen hasieran konfederaturiko hamahiru estatuetatik kanpo aurki zitekeen lur landugabe guztiaren jabe. Bera arduratzen da zatitzeaz eta saltzeaz, eta lortzen den dirua Batasuneko altxortegirako bakarrik izaten da. Sarrera hauen laguntzaz, gobernu federalak indioei lurak erosten dizkie, barruti berrietan bideak egin eta gizartearen garapen bizkorra bultzatzen du bere ahalmen guztiaz.

Edonola ere, Atlantiarraren ertzeko biztanleek antzina lagatako basa eremu hauetan denboraz estatu berriak eratu dira. Kongresuak saltzen jarraitu du, nazio osoaren probetxurako, estatu horiek oraindik beren baitan dituzten lur landugabeak. Baina orain estatu horiek esaten dute, behin eraturik daudenez gero, eskubide eskusiboa izan behar dutela salmenta horien emaitza beren erabilerarako aplikatzeko. Erreklamazioak gero eta mehatxagarriagoak bihurtzean, Kongresuak pentsatu zuen bere eginbeharra zela ordura arte izandako pribilegioetako batzuk Batasunari kentzea, eta 1832aren bukaeran lege bat egin zuen; honen bidez, mendebaldeko errepublika berriei beren lur landugabeen jabetza eman ez arren, hala ere beraien probetxurako bakarrik aplikatzen zuen lur horietatik lortutako irabazirik gehiena<sup>286</sup>.

Aski da Estatu Batuetan zehar ibiltzea herrialde hark bankatik ateratzen dituen abantailak baloratzeko. Hainbat motatakoak dira abantaila hauek; baina bada bat atzerritarra bereziki harritzen duena: Estatu Batuetako Bankuaren bileteak basa eremuetako mugetan Filadelfiako balio berberaz kotizatzen dira, azken honetan duen arren bere eragiketen egoitza<sup>287</sup>.

Hala ere, Estatu Batuetako Bankua gorroto handien helburu da. Beraren zuzendariak lehendakariaren kontra azaldu dira eta, honen hautapena eragozteko beren eraginaz abusatu izanaz akusatzen dituzte, ez egiantzik gabe. Lehendakariak, berriz, pertsona horiek ordezkatzan duten erakundeari erasotzen dio ezinikusi pertsonalaren berotasun guztiaz. Horrelako mendekuaren alde gehiengoaren ezkutuko instintuak zeudela ikustea izan da lehendakaria bide hori hartzera bultzatu duena.

Bankua da Batasuneko moneta-lokarri handia, Kongresua legegintzako lokarri handia den bezala, eta estatuak aginte zentraletik independente izatera bultzatzen dituzten grina berberak bultzatzen dute Bankuaren suntsipena ere.

Estatu Batuetako Bankuak beti izaten du bere esku banku probintzialen bilete-kopuru handi bat; edozein egunetan behartu ditzake azken hauek bileteak espezetan itzultzera. Bera, ordea, ez da zertan izan horrelako arriskuen beldur; erabil ditzakeen baliabideen handitasunak eskakizun guztiei aurre egiteko aukera ematen dio. Mehatxu hau gainean dutela, banku probintzialak beharturik daude zuhurtziaz jokatzera eta beren kapitalaren proportzioko bilete-kopurua bakarrik jartzera zirkulazioan. Banku probintzialek gogo txarrez jasaten dute kontrol osasungarri hau. Haiei salduta dauden egunkariak, eta bere interesagatik haien organo bihurturiko lehendakariak, sumindura handiz erasotzen diote Bankuari. Honen kontra tokian tokiko grinak eta herrialdearen demokrazi sen itsua suspertzen dute. Beraien iritziz, Bankuko zuzendariak gorputz aristokratiko eta iraunkorra osatzen dute, gorputz honen eragina derrigorrez sumatuko delarik gobernuan, lehentxeago edo geroxeago gizarte amerikarraren oinarrian dauden berdintasun-printzipioak aldaraziz.

Bankuak bere arerioen aurka duen borroka, Amerikan probintziek aginte zentralaren aurka, edo independentzi eta demokrazi izpirituak hierarki eta menpekotasun-izpirituaren aurka, duten gudu handiaren pasarte bat baino ez da. Ez dut esan nahi Estatu Batuetako Bankuaren arerioak, beste gai batzuetan gobernu federalari erasotzen dioten berberak direnik; baina diodana da Estatu Batuetako Bankuaren aurkako erasoak gobernu federalaren kontra militatzen duten instintu berberen emaitza direla, eta lehenak duen etsai-kopuru handia bigarrenaren ahuleziaren sintoma gogaikarria dela.

Baina Batasuna sekula ez zen ahulago azaldu tarifaren arazo ospetsuan baino<sup>288</sup>.

Iraultza Frantseseko eta 1812ko gerrek, Amerika eta Europaren arteko komunikazio askea eragoztean, manufakturak sortu zituzten Batasuneko iparraldean. Bakeak Europako produktuei Mundu Berrirako bidea berriro ireki zienean, aduana-sistema bat ezarri behar zutela pentsatu zuten amerikarrek, sortzen ari zen industria babesteko eta gerrak sortarazitako zorrak kitatu ahal izateko.

Hegoaldeko estatuak, bultzatu beharreko manufakturarik ez dutenez eta laborari baizik ez direnez, laster kexatu ziren neurri honetaz.

Hemen ez dut kexa haiek irudizko ala benetako ziren aztertzeko asmorik; egitateei buruz ari naiz.

1820. urtean, Hego Carolinak, Kongresuari egindako eskarian, tarifa-legea *konstituziokontrakoa*, *zapaltzailea* eta *bidegabea* zela aldarrikatzen zuen. Gero, Georgia, Virginia, Ipar Carolina, Alabamako estatua eta Mississippikoak erreklamazio bizixeago edo ahulxeagoak egin zituzten ildo beretik.

Marmar horiek kontuan hartu gabe, Kongresuak, 1824 eta 1828. urteetan, gehiago igo zituen tarifa-tasak eta berriro onetsi zuen printzipioa.

Hegoaldean orduan ekoitzi zen, edo hobeto esanda gogoratu, *nulifikazio* izena hartu zuen doktrina ospetsua.

Erakutsi dut bere lekuan Konstituzio federalaren helburua ez zela liga bat ezartzea izan, gobernu nazionala sortzea baizik. Estatu Batuetako amerikarrek, beren konstituzioak aurrikusitako kasu guztietan, herri bakar eta bat bera osatzen dute. Puntu hauetaz guztiez, nazio-borondatea, herri konstituzional guztietan bezalaxe, gehiengoaren bidez adierazten da. Behin gehiengoak hitz egin ondoren, hartara makurtzea da gutxiengoaren eginbeharra.

Hori da legezko doktrina, Konstituzioko testuaren eta ezarri zutenen asmo ezagunaren araberakoa den bakarra.

Hegoaldeko *nulifikatzaileek* diotenez, ordea, amerikarrek, elkartzean, ez omen zuten herri bakar eta bat bera osatu nahi izan, herri independenteen liga bat baizik; hortik ondorioztatzen denez, estatu bakoitzak, bere subiranotasun osoa gordetzean, ekintzan ez bada ere bai printzipioan, Kongresuaren legeak interpretatzeko eskubidea du, eta konstituzio edo justiziaren kontrako direla iruditzen zaizkion haien egikaritza bere baitan geldiaraztekoa.

Nulifikazioaren doktrina osoa, 1833an Estatu Batuetako Senatuaren aurrean Mr. Calhoun-ek, hegoaldeko nulifikatzaileen ageriko buruzagiak, adierazitako esaldi batean aurkitzen da:

"Konstituzioa, dio, kontratu bat da, non estatuak subirano bezala agertu baitira. Nolanahi ere, arbitro komun bat ez duten alderdien artean kontratua egiten den guztietan, bakoitzak gordetzen du bere betebeharra noraino iristen den bere kabuz epaitzeko eskubidea".

Garbi dago antzeko doktrina batek printzipioz suntsitu egiten duela lotura federala eta praktikan anarkia ekartzen duela, honetatik libratuak zituelarik amerikarrak 1789ko Konstituzioak.

Hego Carolinak ikusi zuenean Kongresuak entzungor egiten ziela beraren kexuei, tarifaren lege federalari nulifikatzaileen doktrina aplikatzeko mehatxua egin zuen. Kongresuak bere sistemari eutsi zion, eta iskanbila sortu zen azkenean.

1832an zehar, Hego Carolinako herriak<sup>289</sup> konbentzio nazionala izendatu zuen hartu behar ziren aparteko neurriak erabakitzeko; eta urte bereko azaroaren 24an, konbentzio horrek, ordenantza deituraz, lege bat argitaratu zuen, non tarifaren lege federala deuseztatzen baitzuen, eta bertan ezarritako tasak biltzea eta auzitegi federaletan egin zitezkeen apelazioak kontuan hartzea debekatzen baitzuen<sup>290</sup>. Ordenantza hau ez zen indarrean jarri behar hurrengo otsailean baizik, eta esana zegoen, Kongresuak otsaila baino lehen aldatzen bazuen tarifa, Hego Carolinak mehatxuak ez gauzatzea onar zezakeela. Beranduago, arazoa estatu konfederatu guztien aparteko batzar baten esku utzi nahia adierazi zen, baina era lauso eta zehazgabea.

Bitartean, Hego Carolina bere miliziak armatzen eta gerrarako prestatzen ari zen.

Zer egin zuen Kongresuak? Kongresuak, erreguka jardundako menpekoei aurrez entzun ez zienak, armak eskuan ikusi zizkienean<sup>291</sup> jaramon egin zien beraien kexuei. Lege bat egin zuen<sup>292</sup>, eta haren arabera tarifari zegozkion tasak pixkana-pixkana hamar urtetan zehar murriztu egin behar ziren, gobernuaren premiak ez gaingintzeko puntura iritsi arte. Honela erabat baztertu zuen Kongresuak tarifaren printzipioa. Industria babesteko eskubidearen ordezkari neurri fiskal hutsa ezarri zuen<sup>293</sup>. Bere porrota disimulatzeko, gobernu ahulek asko erabiltzen duten irtenbidera jo zuen Batasuneko gobernuak: egitateetan amore eman eta zurrun azaldu printzipioetan. Kongresuak tarifari buruzko legeria aldatu zuen une berean, beste lege bat ere onartu zuen; beronen arabera lehendakariak aparteko agintea izango zuen jada beldurrik sortzen ez zuten erresistentziak indarrez menperatzeko.

Hego Carolinak ez zizkion garaipen-itxura ahul hauek ere Batasunari onartu; tarifaren legea deuseztatu zuen konbentzio nazional berak, berriro bildu eta eskaintzen zitzaion kontzesioa onartu zuen; baina aldi berean, nulifikatzaileen doktrinaren indartsuago mantentzen zela aldarrikatu zuen, eta, hori erakusteko, lehendakariari aparteko ahalmenak ematen zizkion legea deuseztatu zuen, nahiz eta oso ziur jakin inoiz ere ez zituela ahalmen horiek erabiliko.

Aipatu berri ditudan egintza gehientsuenak Jackson jeneralaren lehendakaritzapean gertatu dira. Ukaezina da, tarifaren arazoan, lehendakari honek trebetasun eta kemenez eutsi diela Batasunaren eskubideei. Hala ere, aginte federalak gaur egun dituen arriskuen artean, ordezkatzeko duenaren jokabidea bera ere sartu beharra dagoela uste dut.

Jackson jeneralak bere herrialdeko arazo publikoetan zertu dezakeen eraginari buruz pertsona batzuek Europan duten iritzia oso arraroa iruditzen zaie gauzak hurbiletik ikusi dituztenei.

Entzun da Jackson jeneralak guduak irabazi zituela, gizon kementsua zela, izaeraz eta azturaz indarra erabiltzearen aldeko, agintezale eta despota gustuz. Hau guztia egia izango da agian, baina egia hauetatik atera diren ondorioak oso okerrak.

Imajinatu da Jackson jeneralak diktadura ezarri nahi zuela Estatu Batuetan, izpiritu militarra nagusiaraziko zuela han, eta askatasun probintzialentzako arriskutsua litzatekeen hedapena emango ziola aginte zentralari. Amerikan, horrelako eginkizunen eta antzeko pertsonen mendea ez da oraindik iritsi. Jackson jeneralak horrela dominatu nahi izan balu, ziur aski galdu egingo zukeen bere posizio politikoa eta koloka jarri bere bizia. Ez da horretan ahalegintzeko bezain zuhurgabea izan.

Aitzitik, aginte federala hedatzeko asmorik gabe, aginte hori konstituzioaren terminorik argien eta zehatzenetara murriztu nahi duen alderdia ordezkatzeko du egungo lehendakariak, eta alderdi horrek ez du onartzen interpretazioa inoiz izan daitekeenik Batasuneko gobernuaren aldekoa; inola ere zentralizazioaren txapeldun izan gabe, jelsia probintzialen agente da Jackson jenerala; grina *deszentralizatzaileak* izan dira (honela esan badezaket) agintaritzaren gorenera eramaten dutenak. Grina horiek egunero lausengatuz mantentzen da eta egiten du aurrera aintean. Jackson jenerala gehiengoaren esklabu da: honi bere borondate, desira eta erdi ageriko instintuetan jarraitzen dio, edota, hobeto esanda, igarri egiten dio eta lasterka beraren buru jartzen da.

Estatuetakoa gobernua Batasunekoarekin borrokan hasten den guztietan, arraroa da lehendakaria ez izatea lehena bere eskubidea zalantzan jartzen; botere legegilearen aurretik joaten da ia beti; botere federalaren hedadurari buruzko interpretazioa egin behar denean, bere buruaren kontra jartzen da, nolabait ere; txikitu egiten da, ezkutatu, ezabatu. Ez da berez ahul edo Batasunaren etsai; gehiengo hegoaldeko nulifikatzaileen kontra agertu zenean, gehiengo haren buru jarri zen eta profesatzen zituen doktrinak

garbi eta kementsu formulatzen eta indarrera jotzen lehenengoa izan zen. Alderdi amerikarren hiztegitik hartutako konparazio batez baliatuz, iruditzen zait Jackson jenerala gustuz *federala* dela, eta kalkuluz *errepublikarra*.

Gehiengoaren begirunea irabazteko bere burua horrela beheratu ondoren, Jackson jenerala goratu egiten da berriro; orduan gehiengoak berak lortu nahi dituen helburuetarantz edo jelsiaz ikusten ez dituenetarantz jotzen du jeneralak, bere aurrean oztopo guztiak eraitsiz. Bere aurrekoek eduki ez zuten laguntzaz indartsu, hankapean zapaltzen ditu arerio pertsonalak, topatzen dituen leku guztietan, eta ezein lehendakarik izan ez duen erraztasunez; bere ardurapean hartzen ditu aurrez inor hartzera ausartuko ez zatekeen neurriak; nazio-ordezkaritza ia iraingarri den destainaz erabiltzen du; uko egiten dio Kongresuko legeak berresteari, eta sarritan erantzun ere ez dio egiten gorputz handi horri. Batzuetan bere nagusia gaizki tratatzen duen balidoa da. Jackson jeneralaren agintea, beraz, etengabe gehitzen da; baina lehendakariarena gutxitu. Beraren eskuetan, gobernu federala indartsua da; baina ahulduta pasatuko da bere ondorengoagana.

Edo ni oso oker nago edo Estatu Batuetako gobernu federalak ahultzeko joera du egunetik egunera; poliki-poliki erretiratzen ari da arazo publikoetatik, gero eta gehiago murrizten du bere ekintza-esparrua. Berez ahul, indar-itxurak ere baztertu egiten ditu. Bestalde, Estatu Batuetan iruditu zait independentzi sentimendua gero eta biziagoa zela estatuetan, eta gero eta nabarmenagoa gobernu probintzialarekiko atxikimendua.

Nahi da Batasuna, baina itzal bat besterik izango ez dena. Kasu batzuetan indartsu izatea nahi da, eta beste guztietan ahul; gerra-garaian nazio-indarrak eta herrialdeko baliabide guztiak bere eskuetan bildu ahal izan ditzan nahi da, eta bake-garaian, nolabait esateko, existitu ere ez dadila egin; ahulezia eta kemenaren alternatiba hau naturan egongo balitz bezala.

Ez dut ikusten gaur egun izpirituen mugimendu orokor hau geldiaraz dezakeen ezer; sortarazi duten kausek ildo beretik eragiten segitzen dute. Jarraitu egingo du, beraz, eta auresan daiteke, aparteko zirkunstantziaren bat gertatzen ez bada, Batasuneko gobernu ahulduz joango dela egunetik egunera.

Hala ere, uste dut oraindik urruti gaudela aginte federala, bere izatea babesteko eta herrialdeari bakea emateko ezgai izanik, nolabait ere bere kabuz iraungiko den egunetik. Batasuna ohituretan dago, desiratu egiten da; beraren emaitzak nabariak dira, onurak bistan daude. Gobernu federalaren ahuleziak Batasunaren izatea arriskuan jartzen duela sumatzean, ez dut dudarik indarraren aldeko erreakzio-mugimendu bat sortzen ikusiko dela.

Gaur egunera arte izan diren gobernu federal guztietatik, Estatu Batuetako gobernu da berez destinatuena dagoena jardutera. Bere legeen interpretazio bidez zeharka baino erasotzen ez zaion bitartean, beraren funtsa sakon aldarazten ez den bitartean, iritzi-aldaketa, barne-krisi edo gerra batek kolpean itzuli ahal izango lioke behar duen kementa.

Konstatatu nahi izan dudana hauxe bakarrik da: gure artean jende askok pentsatzen du Estatu Batuetan badela izpirituen mugimendu bat boterea lehendakariaren eta Kongresuaren eskuetan zentralizatzen bultzatzen duena. Nire ustez, garbi ikusten da kontrako mugimendua dagoela. Gobernu federalak, zahartzean, ez bakarrik ez du indar hartzen, ez estatuen subiranotasuna mehatxatzen, gainera egunetik egunera ahultzera jotzen duela esaten dut nik, eta Batasunaren subiranotasuna bakarrik dagoela arriskuan. Hona hemen orainak erakusten duena. Zein izango ote da joera honen azken emaitza? Zein gertakarik geldiaraz, atzeratu edo bizkorraz dezake azaldu dudana mugimendua? Etorkizunak ezkutuan dauka hori dena, eta ez dut uste estalki hori kendu ahal izateko gai naizenik.

Estatu Batuetako erakunde errepublikarrak:  
zer aukera dute irauteko?

Batasuna ez da funtsezkoa.- Erakunde errepublikarrek etorkizun handiagoa dute.- Errepublika da, orain-oraingoz, angloamerikarren egoera naturala.- Zergatik.- Suntsitu ahal izateko, aldi berean lege eta ohitura guztiak aldatu beharko lirateke.- Amerikarrek dituzten eragozpenak aristokrazia sortzeko.

Batasunaren zatiketak -orain konfederaturik dauden estatuen artean gerra sartuz, eta honekin batera armada iraunkorrek, diktadura eta zergak sartuz- luzarora erakunde errepublikarren zoria jarri ahal izango luke koloka.

Hala ere, ez dira nahastu behar errepublikaren etorkizuna eta Batasunarena.

Batasuna funtsezko ez den zerbait da, zirkunstantziek laguntzen dioten bitartean bakarrik iraungo duena; errepublika amerikarren egoera, ordea, naturala iruditzen zait; kausa kontrarioen etengabeko eta beti norantza bereko jardunak bakarrik ekar dezake monarkiak haren tokia hartzea.

Batasuna, bera sortarazi zuen legean dago, batez ere. Iraultza bakar batek, iritzi publikoaren aldaketa batek, apur dezake betiko. Errepublikak sustrai sakonagoak ditu.

Estatu Batuetan errepublikaz ulertzen dena, gizarteak bere gain zertzen duen ekintza mantso eta barea da. Egoera erregular bat da, herriaren borondate ilustratuan benetan oinarritua. Gobernu adiskidetzaila da, non erabakiak luzaroan umatu, astiro eztabaidatu eta heldutasunez betetzen baitira.

Estatu Batuetan errepublikarrek ohiturak preziatzen dituzte, sineskizunak errespetatzen eta legeak aintzatesten. Haien iritzian herri batek, aske den neurrian, moral, erlijiozale eta moderatua izan behar du. Estatu Batuetan errepublika deritzona, gehiengoaren aginte lasaia da. Gehiengoa, bere burua ezagutzeko eta bere izatea konstatatzeko denbora izan duenetik, botereen sorburu komuna da. Baina gehiengoa bera ez da ahalguztiduna. Beraren gainetik, moralaren arloan, gizatasuna, justizia eta arrazoia daude; politikaren arloan, eskubide finkatuak. Gehiengoak onartzen ditu bi hesi hauek, eta batzuetan gainditu egiten baditu, grinak dituelako da, gizaki bakoitzak bezalaxe, eta, hauen antzera, gaizkia egin dezakeelako, ongia bereizi arren.

Baina guk aurkikuntza bitxiak egin ditugu European.

Errepublika, gutariko batzuen arabera, ez da gehiengoaren agintea, orain arte uste izan den bezala, baizik eta gehiengoaren alde gogor jokatzeko dutenena. Honelako gobernuetan gidari ez da herria izaten, herriarentzat onena zer den ba omen dakitenak baizik; zorioneko bereizketa, kontsultatu gabe nazioen izenean jarduteko aukera ematen duena, baita hankapean zapaldu bitartean berorien aintzatespena eskatzeko aukera ere. Gobernu errepublikarra da, bestalde, dena egiteko eskubidea aitortu behar zaion bakarra, eta orain arte jendeak errespetaturikoa mespreza dezakeena, moralaren legerik gorenetatik zentzuaren arau arruntetaraino.

Orain arte pentsatu izan da despotismoa higuinagarria zela, nolanahikoak izanik ere beraren formak. Baina orain aurkitu da bazirela munduan tirania legitimoak eta bidegabekeria santuak, betiere herriaren izenean zertzen badira.

Amerikarrek errepublikari buruz zertu dituzten ideiek berorren erabilera errazten diete, batez ere, eta iraupena ziurtatzen. Haien artean, gobernu errepublikarraren praktika sarri txarra bada ere, teoria behintzat ona da, eta azkenerako herriak beti moldatzen ditu teoria horretara bere egintzak.

Ezinezkoa zen hasieran, eta oraindik ere oso zaila litzateke, Amerikan administrazio zentralizatua ezartzea. Pertsonak espazio zabalegian barreiatuak eta natur oztopo gehiegiz banatuta daude, batek bakarrik gidatu ahal izateko haien bizitzako xehetasunak. Hortaz, batik-bat probintzi eta udal-gobernuaren herrialdea da Amerika.



Kausa honi -honen eragina berdin sentitzen zen Mundu Berriko europar guztien artean-angloamerikarrek beste zenbait kausa berezi gehitu zizkioten.

Ipar Amerikako koloniak ezarri zirenean, ordurako udal-askatasuna sartua zen lege nahiz ohitura ingelesen, eta migrari ingelesen, beharrezko gauzatzen ezezik, bere balio osoa ongi ezagutzen zuten ondasuntzat ere onartu zuten.

Ikusi dugu, gainera, nola fundatu zituzten koloniak. Probintzia bakoitza, eta nolabait esateko barruti bakoitza, banatuki populatu zuen elkar ezagutzen ez zuen edo helburu ezberdinekin elkaturiko jendeak.

Estatu Batuetako ingelesak, hasieratik, hainbat gizarte txiki ezberdinetan banaturik aurkitu dira, erdigune amankomun bati lotugabeak, eta gizarte txiki horietako bakoitzak bere arazoez arduratu behar izan du, ez baitzen inon agintaritza zentralik ikusten ardura horiek berez hartu behar zituenik eta erraz konpon zitzakeenik.

Honela, bada, herrialdeko natura, kolonia ingelesak sortzeko era bera, lehen migrarien azturak, dena elkartzen zen han udal- eta probintzi askatasunak aparteko maila bateraino garatzeko.

Estatu Batuetan, herrialdeko erakundeak errepublikarrak dira funtsean; han errepublikaren oinarri diren legeak iraunkorki suntsitzeko, nolabait ere lege guztiak abolitu beharko lirатеke aldi berean.

Gaur egun, alderdi bat Estatu Batuetan monarkia ezartzen saiatuko balitz, orain Frantzia errepublika proklamatu nahi lezakeena baino ere egoera zailagoan aurkituko litzateke. Erregetzak ez luke legeria aurrez beretzat prestatua aurkituko, eta benetan orduan ikusiko litzateke monarkia bat erakunde errepublikarrez inguratua.

Printzipio monarkikoa ere nekez sartuko litzateke amerikarren ohituretan.

Estatu Batuetan, herri-subiranotasunaren dogma ez da doktrina isolatu bat, azturetan eta nagusi diren ideietan oinarritik ez duena; aitzitik, angloamerikarren mundu osoa biltzen duen iritzi-katea baten azken mailatzat har daiteke. Probidentziak gizabanako bakoitzari, zeinahi izanik ere, beharrezko adimen-maila eman dio berari bakarrik dagozkion gauzetan bere burua gidatu ahal izan dezan. Maxima handi honen ganean oinarritzen da Estatu Batuetan gizarte zibil eta politikoa: familiburuak seme-alabei aplikatzen die hori, ugazabak zerbitzariei, udalerriak administratuei, probintziak udalerriei, estatuak probintziei, Batasunak estatuei. Nazio osora hedatuta, herri-subiranotasunaren dogma bilakatzen da.

Honela, Estatu Batuetan, errepublikaren printzipio sortzailea giza ekintza gehienak arautzen dituen bera da. Errepublika, beraz, eta zilegi bazait honela esatea, amerikarren ideia, iritzi eta aztura guztietan sartzen da, legeetan ezartzen den aldi berean; eta legeak aldatzera iristeko, nolabait ere guztiak osorik aldatu beharko lirатеke. Estatu Batuetan, gehiengoaren erlijioa bera ere errepublikarra da; erlijio hark beste munduko egiak gizabanakoaren arrazoiaren menpe jartzen ditu, politikak guztien zentzuaren esku uzten duen bezala gizakiaren interesen zainketa; halaber, zerura gidatuko duen bidea gizaki bakoitzak askatasunez aukera dezan onartzen du, legeak herritar bakoitzari bere gobernuaukeratzeko eskubidea onartzen dion bezala.

Jakina, joera bereko egitate-serie luze batek bakarrik ordeztu dezake lege, iritzi eta ohitura-multzo hau: kontrako ohitura, iritzi eta lege-multzo batek.

Printzipio errepublikarrek desagertu egin behar badute Amerikan, sarri eten eta maiz berrarturiko gizarte-lan luzearen ondoren bakarrik joko dute lur; hainbat aldiz birsortu egiten direla emango dute, eta ez dira itzulbiderik gabe desagertuko herri guztiz berri batek gaur egun dagoenaren lekua hartu arte. Nolanahi ere, ezerk ez du sumarazten antzeko iraultzarik, eta ez dago hori iragartzen duen seinalerik ere.

Estatu Batuetara iristean gauzarik harrigarriena hango mugimendu zalapartatsua da, zeinen baitan dagoen kokatua gizarte politikoa. Legeak etengabe aldatzen dira, eta lehen

begiratuan ia ezinezkoa dirudi bere borondateaz hain ziurtasun gutxi duen herri bat ez iristea laster bere egungo gobernu-eraren ordeztuz berria den beste bat onartzera. Beldur hauek goiztiarrak dira. Erakunde politikoei dagokienez, badira nahastu behar ez diren bi ezegonkortasun-mota: bata bigarren mailako legeei dagokiena; honek luzaroan iraun dezake ongi oinarrituriko gizarte baten baitan; besteak konstituzioaren oinarriak berak suntsitzen ditu etengabe, eta legeen printzipio sortzaileei erasotzen die; honen ondoren arazoak eta iraultzak etortzen dira beti; hau pairatzen duen nazioa egoera bortitz eta iragankorrean aurkitzen da. Esperientziak erakusten duenez, legegintzako bi ezegonkortasun-mota hauek ez dute beren artean beharrezko loturarik, zeren eta, garai eta lekuen arabera, batera edo banaturik existitu izan baitira. Lehena aurkitzen da Estatu Batuetan, baina bigarrena ez. Amerikarrek sarri aldatzen dituzte legeak, baina konstituzioaren oinarria errespetatu egiten dute.

Gaur egun printzipio errepublikarra da Amerikan nagusi, Frantzia Louis XIV.aren menpean printzipio monarkikoa zen bezala. Orduko frantsesei, monarkiaren adiskide izateaz gain, ez zitzaion burura etortzen haren ordeztuz beste ezer jar zitekeenik; onartu egiten zuten, eguzkiaren ibilbidea eta urtaroen gora-beherak onartzen diren bezalaxe. Haien artean, errege-botereak ez zuen ez aldekorik, ez etsairik.

Honela dago errepublika Amerikan, borrokarik gabe, aurkakotasunik gabe, probarik gabe, isilpeko akordio batez, *consensus universalis* moduko batez.

Hala ere, pentsatzen dut Estatu Batuetako jendeak, bere prozedura administratiboak hain sarri aldatzean, arriskuan jartzen duela gobernu errepublikarraren etorkizuna.

Legeriaren aldakortasun iraunkorrak etengabe oztokatzen duelarik bere proiektuetan, beldur izatekoa da errepublika ez ote den jendearentzat gizartean bizitzeko modu ezeroso bat bilakatuko; orduan, bigarren mailako legeen ezegonkortasunaren ondoriozko gaitzak koloka jarriko luke funtsezko legeen izatea, eta zeharka iraultzara eramango; baina garai hau oraindik oso urruti dago gugandik.

Gaur egun aurrikus daitekeena zera da, errepublikatik irtetean, amerikarrak despotismora pasatuko liratekeela bizkor, monarkian luzaroan gelditu gabe. Montesquieuk esan zuen ez zegoela ezer absolutuagorik errepublikaren ondorengo printzearen agintea baino, magistratu hautatuari beldurrik gabe emandako ahalmen zehazgabeak herentziazko buruzagi baten esku aurkitzen baitira orduan. Hau egia da orokorrean, baina bereziki aplikatu dakioke errepublika demokratikoari. Estatu Batuetan, magistratuak ez ditu herritarren klase berezi batek aukeratzeko, nazioaren gehiengoak baizik; jendetzaren grinaren ordezkari bihurtu berehala eta haren borondatearen menpe jartzen dira erabat; ez dute, beraz, ez gorrotorik, ez beldurrik sortarazten. Halaber, ohartarazi dut zein arreta gutxi jarri izan den ekintza-esparrua finkatuz beraiei boterea mugatzeko, eta zein parte handia laga den beraiei arbitrariotasunera. Gauzen egoera honek ondoren ere iraungo duten azturak sortarazi ditu. Magistratu amerikarrak bere botere mugagabea gorde egingo luke erantzule izateari uztean ere, eta ezinezkoa da esatea orduan tirania non geratuko litzatekeen geldi.

Gure artean bada jenderik Amerikan aristokrazia sortzen ikustea espero duenik, eta aginteaz noiz jabetuko den dagoeneko zehatz-mehatz aurrikusten duena.

Esan dut lehen, eta berriro diot, gizarte amerikarraren egungo mugimendua gero eta demokratikoagoa iruditzen zaidala.

Hala ere, ez dut esan nahi egunen batean amerikarrak ez direnik iritsiko beren artean eskubide politikoaren esparrua murriztera, edo eskubide horiek pertsona bakar baten probetxurako konfiskatzera; baina ezin dut sinetsi horren erabilera eksklusiboa herritarren klase berezi baten esku inoiz utziko dutenik, edo, beste modu batera esanda, aristokrazia bat sortuko dutenik.

Gorputz aristokratiko bat herritarren kopuru jakin batek osatzen du, jendetzatik oso urruti kokatua egon ez arren, hala ere honen gainetik dagoena iraunkorki; uki daitekeena, baina ez jo; berarekin egunero nahas daitekeena, baina ez bat egin.

Ezin da imajinatu naturaren eta giza bihotzaren ezkutuko instintuen kontrakoagorik ezer horrelako menpekotza baino. Bere esku utziz gero, jendeak nahiagoko du beti erregearen botere arbitrarioa nobleen administrazio erregularra baino.

Aristokraziak, irauteko, desberdintasuna ezarri behar du printzipiotzat, aurrez legeztatu, eta gizartean zabaltzen duen aldi berean familian sartu; gauza hauek guztiak hain higuigarriak zaizkio berezko ekitateari, ezen bortxaz bakarrik lor baitaitezke jendearengandik.

Gizarteak existitzen direnetik, ez dut uste, bere kabuz eta ahaleginez, bere baitan aristokrazia sortu duen herri bakar baten kasua aipa daitekeenik. Erdi Aroko aristokrazia guztiak konkistaren ondorio dira. Garailea aitonen semea zen, garaitua jopia. Orduan indarrak ezartzen zuen desberdintasuna, eta hau, behin ohituretan sartuz gero, bere kabuz mantentzen zen eta legeetara pasatzen naturaltasunez.

Izan dira gizarteak, beren sorrera aurreko gertakarien ondorioz, aristokratiko jaio zirenak nolabait esateko, eta gero mendez mende demokraziarantz eramana. Hori izan zen erromatarren zoria, eta haien ondoren etorri ziren barbaroena. Baina herri batek, zibilizaziotik eta demokraziatik abiatuz, mailaz maila baldintza-ezberdintasunera hurbildu eta azkenean bere baitan pribilegio urraezinak eta kategoria eskusiboak ezartzea, hori gauza berria litzateke munduan.

Ezerk ez du adierazten Amerika izango denik lehena antzerako ikuskizuna eskaintzen.

Zenbait kontsiderazio Estatu Batuen merkataritza-handitasunari buruz

Amerikarrak itsas herri handi bat izatera deitu ditu naturak.- Beraien kostaldean luzera.- Portuen sakonera.- Ibaien handitasuna.- Hala ere, angloamerikarren nagusitasun komertziala askoz gutxiago egotzi behar zaie kausa fisikoei, kausa intelektual eta moralei baino.- Iritzi honen arrazoiak.- Angloamerikarren etorkizuna, herri merkatar bezala.- Batasunaren porrotak ez luke geldiaraziko bera osatzen duten herrien itsas garapena.- Zergatik.- Angloamerikarrak naturalki deituak Hego Amerikako biztanleen premiak asetzera.- Ingelesak bezala, munduko zati handi baten hornitzaile bilakatuko dira.

Fundy badiatik Mexikoko golkoan dagoen Sabine ibairaino, Estatu Batuetako kostak bederatzehun lekoako luzera du gutxi gora-behera.

Itsasertz hauek etenik gabeko lerro bakar bat osatzen dute; aginpide beraren menpe daude guztiak.

Ez dago munduan herririk amerikarrek baino portu sakon, zabal eta seguruagorik eskain dezakeenik merkataritzarako.

Estatu Batuetako biztanleek nazio zibilizatu handi bat osatzen dute, zoriak basa eremuen erdian kokatu duena, zibilizazioaren gune nagusitik mila eta berrehun lekoara. Beraz, Amerikak Europaren beharra du egunero. Denborarekin, amerikarrak beharrezko zaizkien gauzarik gehienak beren artean ekoitzi edo fabrikatzera iritsiko dira, zalantzarik gabe, baina bi kontinenteak sekula ezingo dira bata besteagandik erabat independente bizi. Berezko lotura gehiegi dago beraien behar, ideia, aztura eta ohituren artean.

Batasunak baditu guri beharrezko bilakatu zaizkigun ekoizpenak eta gure lurrak inola ere eman nahi ez dizkigunak, edo gastu handiz bakarrik eman ditzakeenak. Produktu hauen zati txiki-txikia kontsumitzen dute amerikarrek; saldu egiten digute gainerakoa.

Europa da, hortaz, Amerikaren merkata, Amerika Europaren merkata den bezala; eta amerikarrek gure portuetara beren lehengaiak ekartzeko bezain beharrezkoa dute itsas merkataritza gure produktu manufakturuak beren artera eramateko.

Beraz, Estatu Batuek, edo biziki elikatu behar zuten itsas herrien industria, haiek berek uko eginez gero merkataritzari, Mexikoko espainolek gaur arte egin duten bezala; edo munduko lehen itsas indarretako bat bihurtu behar zuten. Alternatiba hau ezinbestekoa zen.

Angloamerikarrek itsasorako zaletasun bizia erakutsi dute beti. Independentziak, Ingalaterrarekin elkartzen zituzten lokarri komertzialak apurtzean, haien itsas jeinuari bultzada berri eta indartsua eman zion. Ordudanik, Batasuneko itsasuntzien kopurua biztanle-kopurua bezain bizkor hazi da ia. Gaur egun, amerikarrak berak dira Europako produktuen hamarretik bederatzia beren artera eramaten dutenak<sup>294</sup>. Halaber, amerikarrak dira Mundu Berriko esportazioen hiru laurdenak Europako kontsumitzaileei ekartzen dizkietenak<sup>295</sup>.

Estatu Batuetako itsasuntziek Havre eta Liverpooleko portuak betetzen dituzte. Untzi ingeles edo frantsesen oso kopuru txikia ikusten da New Yorkeko portuan<sup>296</sup>.

Honela, merkatori amerikarrak, konkurrentziari beren lurlean aurre egiteaz gain, atzerritarren aurka ere arrakastaz borrokatzen dira hauen lurlean.

Hau erraz esplikatzen da. Munduko untxi guztien artean, Estatu Batuetakoak dira itsasoak preziorik merkeenean zeharkatzen dituztenak. Estatu Batuetako merkataritza-flotak besteen aldean abantaila hori duen bitartean, konkistaturikoa gorde ezezik, egunetik egunera gehitu egingo ditu bere konkistak.

Amerikarrek beste jendeak baino merkeago zergatik nabigatzen duten jakitea nekeza da ulertzea. Hasieran, nagusitasun hori naturak haien irispidean bakarrik jarritako abantaila materialen batzuei egozteko tentazioa sortzen da, baina ez dago horrelakorik.

Merkataluntzi amerikarrak eraikitzea ia gureak eraikitzea bezain garestia da<sup>297</sup>; ez daude hobeto eraikita, eta, oro har, gutxiago irauten dute.

Marinel amerikarraren soldata Europakoarena baino handiagoa da; eta honen frogak da Estatu Batuetako merkataritza-flotan dauden europarren kopuru handia.

Nondik dator, orduan, amerikarrek guk baino merkeago nabigatzea?

Uste dut alferrikakoa litzatekeela nagusitasun honen kausak abantaila materialetan bilatzea; kualitate intelektual eta moral hutsetan bilatu beharko.

Hona hemen nire pentsaera argituko duen konparazio bat:

Iraultzako gerren garaian, frantsesek taktika berri bat sartu zuten arte militarrean, jeneralik zaharrenak asaldatu eta Europako monarkiarik zaharrenak ia suntsitu zituenak. Ordura arte gerrarako ezinbestekotzat jotzen zen hainbat gauza baztertzeari ekin zioten lehen aldiz; beren soldaduei ahalegin berriak eskatu zizkieten, nazio zibilizatuak sekula eskatu gabeak beretarrei; dena lasterka egiten zutela, eta lortu beharreko emaitzagatik jendearen bizia dudarik gabe arriskatzen zutela ikusi zen.

Frantsesak ez ziren beren etsaiak bezain ugari eta aberatsak; askoz ere baliabide gutxiago zeukaten; hala ere, garaile izan ziren etengabe, etsaiek ere haiek imitatzeke joera hartu zuten arte.

Amerikarrek antzerako zerbait sartu dute merkataritzan. Frantsesek garaipenagatik egiten zutena, amerikarrek prezio merkeagatik egiten dute.

Nabigatzaile europarra zuhurtziaz baino ez da menturatzen itsasoetan zehar; eguraldia bere komenientziara duenean bakarrik abiatzen da; ezusteko ezbeharren bat gertatzen bazaio, portura itzultzen da; gauez, ohialetako batzuk bildu egiten ditu, eta lehorrera hurbiltzean itsasoa zurretan sumatzen duenean, abiada mantsotu eta eguzkia kontsultatzen du.

Amerikarrak ez die jaramonik egiten neurri horiei eta erronkaka ibiltzen da arriskuen aurrean. Oraindik ekaitza orroka ari dela itsasoratzen da; gauez nahiz egunez haizetara uzten ditu oihak guztiak; ibilian konpontzen du enbatak nekarazitako untxia, eta,

azkenean, ibilaldiaren amaierara hurbiltzean, ziztu bizian jarraitzen du kostarantz, jadanik portua begizatuko balu bezala.

Amerikarrak sarri naufragatzen du, baina ez dago nabigatzailerik hark bezain bizkor itsasoak zeharkatzen dituenik. Beste batek egiten dituen gauza berberak denbora laburragoan eginez, gastu gutxiagoz egin ditzake.

Ibilaldi luze bat burutzeraz iritsi baino lehen, Europako nabigatzaileak bere bidean hainbat aldiz lehorreratu behar duela uste izaten du. Denbora zoragarria galtzen du babes-portuaren bila edo handik irteteko zain, eta bertan egoteko eskubidea ordaintzen du egunero.

Nabigatzaile amerikarra Bostonetik irteten da tea erostera Txinara joateko. Kantonera iritsi, han egun batzuk eman eta itzuli egiten da. Lurrari bira osoa eman dio bi urte baino gutxiagoan, eta behin bakarrik ikusi du lehorra. Zortzi edo hamar hilabeteko itsasaldian, kresala edan eta okela gazituaz janaritu da; etengabe borrokatu da itsaso, eritasun eta asperduraren kontra; baina itzuli ondoren, libra tea merkataritza ingelesak baino bost zentimo merkeago saltzen du: lortu du helburua.

Ezin neure pentsaera hobeto azaldu, amerikarrek merkataritza egiteko moduan halako heroismo bat jartzen dutela esanda baino.

Europako merkataritza oso zail gertatuko zaio beti Amerikako lehiakideari lasterketa berean jarraitzea. Amerikarrak, gorago azaldu dudana bezala jokatzeko, ez dio kalkuluari bakarrik jarraitzen; bere izaerari obeditzen dio, batez ere.

Estatu Batuetako biztanleak zibilizazio aurreratuak sortarazten dituen behar eta desira guztiak sentitzen ditu, eta ez du bere inguruan aurkitzen, Europan bezala, gizarte bat zentzuz antolatua horiek guztiak asetzeko; beraz, sarritan bere kabuz eskuratu behar izaten ditu heziketak eta azturek beharrezko bihurtu dioten hainbat gauza. Amerikan batzuetan pertsona berak lantzen du soroa, eraikitzen etxea, fabrikatzen lanabesak, egiten oinetakoak eta bere eskuez ehuntzen estaliko duen oihala zantarra. Hau kaltegarri da industriaren perfektiorako, baina ikaragarri laguntzen du langilearen adimena garatzen. Ezerk ez du lanaren banaketa handiak baino gehiago mekanizatzen pertsona, beraren egintzetatik arimaren aztarna ezabatuz.

Amerika bezalako herrialde batean, non espezialistak hain bakanak diren, ezin zaio ikaskuntza luzerik eskatu lanbide bati ekiten dion bakoitzari. Beraz, amerikarrek erraztasun handia dute egoeraz aldatzeko, eta honetaz baliatzen dira, momentuko premien arabera. Abokatu, laborari, merkataritza, ministro ebanjeliko eta mediku izan den jendearekin topo egiten da. Amerikarri, europarra bezain trebea ez bada ere industria bakoitzean, ia ezer ez zaio erabat ezezagun. Amerikarren gaitasuna orokorragoa da, adimenaren esparrua zabalagoa. Estatu Batuetako biztanlea sekula ez da geldi geratzen inolako lan-axiomaren aurrean; lanbide-aurriritzi orori ihes egiten dio; ez dago eragiketa-sistema bati beste bati baino atxikiagoa; ez da sentitzen antzinako metodo bati berriago bati baino lotuagoa; ez du inolako azturarik sortu, eta erraz ihes egiten dio atzerriko azturek haren izpirituan zertu lezaketen aginteari, bai baitaki bere herrialdea ez dela beste inoren antzeko, eta bere egoera berria dela munduan.

Mirarien lurraldean bizi da amerikarra, beraren inguruan guztia mugitzen da etengabe, eta mugimendu bakoitzak aurrerapena dirudi. Haren izpirituan, beraz, berriaren ideia estu loturik dago onenaren ideiarekin. Inon ez du ikusten, naturak gizakiaren ahaleginei agian jarri dien mugarik; haren ikuspegiak, existitzen ez dena oraindik saiatu ez delako da.

Estatu Batuetan nagusi den mugimendu unibertsal hau, zoriak sarri egiten dituen itzulketak hauek, aberastasun publiko eta pribatuaren ustegabeko lekualdatze hau, dena elkartzen da arima halako egonezin sutsu batean edukitzeko, ahalegin guztietarako miresgarriro prestatzen eta, nolabait esateko, gizadiaren maila komunitate gorago eusten

diolarik. Amerikarrarentzat, bizitza osoa jokaldi bat bezala igarotzen da, iraultza-aldi edo gudu-egun bat bezala.

Kausa hauek berauek, aldi berean eraginez gizabanako guztiengan, energia jarkiezina ezartzen dute nazio-izaeran. Ausaz harturiko edozein amerikarrek gizaki sutsua behar du izan bere desiretan, saiatua, abenturazalea eta, batez ere, berritzailea. Hain zuzen ere, haren egintza guztietan aurkitzen da izpiritu hau; bere lege politikoetan sartzen du, erlijio-doktrinetan, gizarte-ekonomiako teorietan, industria pribatuan; berekin eramaten du edonora, basoen erdira nahiz hirien barnera. Izpiritu hau berau da, itsas merkataritzari aplikatua, amerikarra munduko merkataritza guztiak baino bizkorrago eta merkeago ibilarazten duena.

Estatu Batuetako marinelek abantaila intelektual horiek eta beroriek ematen duten nagusitasun praktikoa gordetzen dituzten bitartean, beren herrialdeko ekoizle eta kontsumitzaileen beharrak haiek berek betetzen jarraitzeaz gain, gero eta gehiago joko dute, ingelesek bezala<sup>298</sup>, beste herrien hornitzaile izatera.

Hau hasia da gure aurrean gertatzen. Dagoeneko nabigatzaile amerikarrak, agente bitartekari gisa, Europako zenbait naziotako merkataritzan sartuta ikusten ditugu<sup>299</sup>; are etorkizun handiagoa eskaintzen die Amerikak.

Espainolek eta portugesez Hego Amerikan kolonia handiak fundatu zituzten, gero inperio bilakatuak. Gerra zibila eta despotismoa ari dira orain lurralde zabal horiek suntsitzen. Biztanleriaren mugimendua gelditu egin da, eta bertan bizi den pertsonakopuru txikiak, bere burua babesteaz arduratuta, nekez sumatzen du bere zoria hobetu beharrik.

Baina ezin beti horrela izan. Europa, bere kasa utzia, bere ahaleginei esker iritsi da Erdi Aroko ilunbeak zulatzerantz; Hego Amerika kristaua da, gu bezala; gure legeak ditu, gure usadioak; bere baitan ditu nazio europarren eta hauen kimuen baitan garatu diren zibilizazio-hazi guztiak; Hego Amerikak gure jarraibidea ere badu: zergatik iraungo du beti barbaro izaten?

Denbora-kontua baino ez da hori. Lehentxeago edo geroxeago, iritsiko da garaia, hegoamerikarrek nazio loretsu eta ilustratuak eratuko dituztena.

Baina Hego Amerikako espainol eta portugesak herri zibilizatuen beharrak sentitzen hasten direnean, artean ezingo dituzte inola ere eurek asebate; zibilizaziora azken jaioak izanik, kide zaharragoek dagoeneko lortua duten nagusitasuna jasan beharko dute. Laborari izango dira luzaroan, manufakturatzaile eta merkataritza izan baino lehen, eta atzeritarren bitartekaritza behar izango dute beren produktuak itsasoz harantzago saldu ahal izateko eta, trukean, behar dituzten gauzak eskuratzeko.

Ezin da zalantzan jarri iparramerikarrak egunen batean hegoamerikarren premiak asetzerantz deituak izango direla. Berauengandik hurbil jarri ditu naturak. Honela erraztasun handiak eman dizkie hegoaldekoen premiak ezagutu eta baloratzeko, herri haiekin harreman iraunkorrak antolatze eta pixkana-pixkana haien merkatuaz jabetzeko. Estatu Batuetako merkataritza Europako merkataritza oso azpitik balego bakarrik galdu ahal izango lituzke abantaila natural hauek, baina benetan gainera dago hainbat puntutan. Estatu Batuetako amerikarrek dagoeneko eragin moral handia zertzen dute Mundu Berriko herri guztien gain. Berauengandik irteten da argia. Kontinente berean bizi diren nazio guztiak dagoeneko ohitu dira estatubatuarren famili amerikar handiko kimurik ilustratuen, ahaltsuen eta aberatsentzat hartzerantz. Hortaz, Batasunerantz begiratzen dute etengabe, eta, ahal duten neurrian, hura osatzen duten herrietara asimilatzen dira. Egunero Estatu Batuetara jotzen dute doktrina politikoak berenganatu eta legeak hartzeko.

Estatu Batuetako amerikarrak Hego Amerikako herrien aurrean, arbaso ingelesak italiarren, espainolen, portugesen eta Europako beste hainbat herriren aurrean egon ziren

bezalaxe daude, azken hauek, zibilizazio eta industrian atzeratuago zeudelarik, haien eskuetatik hartzen baitzituzten kontsumogai gehientsuenak.

Gaur egun Ingalaterra da bere inguruko nazio gehientsuenetako merkataritzaren erdigunea; beste hemisferioan Batasun amerikarra dago eginkizun bera betetzera deitua. Mundu Berrian sortzen edo hazten den herri bakoitza, nolabait ere angloamerikarren probetxurako sortzen eta hazten da.

Batasuna desagitera iritsiko balitz, osatu duten estatuetako merkataritza, zalantzarik gabe, aldi batez atzeratu egingo litzateke bere garapenean; uste baino gutxiago, hala ere. Garbi dago, zernahi gertatuta ere, estatu merkatariek bat eginda jarraituko dutela. Elkar ukitzen dute guztiek; iritzi-, interes- eta ohitura-batasun biribila dute beren artean eta berek bakarrik osa dezakete itsas indar handi bat. Batasuneko hegoaldea iparraldearekiko independente bihurtuko balitz ere, hortik ez litzateke ondorioztatuko bera gabe iraun dezakeenik. Esan dut hegoaldea ez dela merkataria; ezerk ez du oraindik adierazten izatera iritsiko denik. Estatu Batuetako hegoaldeko amerikarrek, beraz, atzerritarrengana jo beharko dute luzaroan beren produktuak esportatzeko eta beren premietarako beharrezko dituztenak hara eramateko. Nolanahi ere, izan ditzaketen bitartekari guztien artetik, iparraldeko auzokoak dira ziur aski gauza horiek merkeen zerbitza diezazkieketenak. Eta, beraz, zerbitzatu egingo dizkiete, prezio merkea baita merkataritzako lege gorena. Ez dago borondate subiranorik, ezta aurriritzi nazionalik ere, prezio merkearen kontra luzaroan borroka egin dezakeenik. Ezin da ikusi gorroto pozoituagorik Estatu Batuetako amerikarren eta ingelesen artean dagoena baino. Etsaitasunezko sentimendu hauek gora-behera, ingelesek hornitzen dituzte amerikarrak gauza manufakturu gehienez, beste herriek baino merkeago ordainarazten dietelako bakar-bakarrik. Honela, amerikarren nahia gora-behera, Amerikako oparotasun hazkorra Ingalaterrako manufaktura-industriaren probetxurako gertatzen da.

Arrazoiak adierazten eta esperientziak frogatzen du ez dagoela handitasun komertzial iraunkorrik, ezin bada, behar izanez gero, indar militarrekin elkartu.

Egia hau beste edonon bezain ongi ulertzen da Estatu Batuetan. Dagoeneko amerikarrak beren pabilioia errespetarazteko egoeran daude; laster beldurra sortarazi ahal izango dute.

Komentziturik nago Batasunaren zatiketak, amerikarren itsas indarrak urritu ordez, biziki gehitzea eragingo lukeela. Gaur egun, estatu merkataria loturik daude ez direnei, eta azken hauek sarritan oso gogo gutxi izaten dute zeharka baizik probetxurik ekartzen ez dien itsas indar bat hazten laguntzeko.

Aitzitik, Batasuneko estatu komertzial guztiek herri bakar eta bat bera osatuko balute, merkataritza lehen mailako interes nazional bilakatuko litzateke beraientzat; beren untiak babestearren sakrifizio handiak egiteko prest egongo lirateke, eta ezerk ez lieke eragotziko puntu honetan beren nahiak betetzea.

Pentsatzen dut nazioek, pertsonak bezalaxe, lehen momentutik adierazten dituztela ia beti beren destinoaren ezaugarri nagusiak. Ikusten dudanean angloamerikarrek zernolako izpirituz zertzen duten merkataritza, honetarako aurkitzen duten erraztasuna, eta lortzen duten arrakasta, derrigorrez sinetsi behar dut egunen batean beraiek bilakatuko direla munduko lehen itsas indar. Itsasoez jabetzera bultzaturik daude, erromatarrak mundua konkistatzera bezala.

#### Konklusioa

Ari naiz amaierara hurbiltzen. Orain arte, Estatu Batuen etorkizunaz mintzatzean, neure gaia hainbat zatitan banatzen saiatu naiz, bakoitza arreta handiagoz aztertu ahal izateko.

Orain ikuspegi bakar batean bildu nahi nituzke guztiak. Esango dudana zehaztasun gutxiagokoa izango da, baina ziurragoa. Ez dut hain garbi bereiztuko gauza bakoitza; ziurtasun handiagoz hartuko ditut egitate orokorrak. Hiri zabal baten harresietatik

irtetean, inguruko muinora igotzen den bidaiaria bezala izango naiz. Hiritik urrutiratu ahala, han utzi dituenak galdu egiten ditu bistatik; haien egoitzak nahastu egiten dira; ez ditu jada herri-plazak ikusten; nekez bereizten du kaleen trazaketa; baina haren begiradak errazago jarraitzen ditu hiriaren inguru-mugak, eta, lehen aldiz, forma atzematen du. Era berean, arraza ingelesak Mundu Berrian izan lezakeen etorkizun osoa neure aurrean aurkitzen dudala iruditzen zait. Koadro zabal honen xehetasunak itzalean gelditu dira, baina nire begiradak orotasuna hartzen du, eta guztiaren ideia garbia sumatzen dut.

Gaur egun Amerikako Estatu Batuek okupatzen edo jabetzan daukaten lurraldea lur populatuen hogeiko bat izango da gutxi gora-behera.

Muga horiek oso zabalak izan arren, okerra litzateke pentsatzea arraza angloamerikarra beti hor itxita egongo dela; askoz harantzago doa dagoeneko.

Garai batean guk ere nazio frantses handi bat sortzeko aukera izan genuen Amerikako basa eremuetan, ingelesekin batera orekatuz Mundu Berriko destinoak. Antzina, ia Europa osoa bezain lurralde zabala izan zuen Frantziak Ipar Amerikan. Kontinenteko hiru ibairik handienak oso-osorik gure legepeko lurraldeetan zeuden orduan. San Lorenzoren bukaeratik Mississippiren deltaraino bizi diren indioen nazioek gure hizkuntza bakarrik entzuten zuten; lurralde itzel hartan barreiatutako establezimendu europar guztiak aberriaren oroitzapena gogorarazten zuten: Louisbourg, Montmorency, Duquesne, Saint-Louis, Vincennes, Nouvelle-Orleans, guztiak ere izen kuttunak Frantziarentzat eta gure belarriek entzunak.

Baina hemen zerrendatzeak 300 luze joko lukeen hainbat zirkunstantziak, bat eginda, ondare zoragarri hartaz gabetu gaitu. Frantsesak urri eta gaizki ezarririk zeuden alde guztietan desagertu egin dira. Gainerakoak leku txiki batean pilatu dira eta beste lege batzuen menpera igaro. Kanada Behereko lauhun mila frantsesak, nazio berri baten uhin artean galduriko herri zaharraren hondakinak bezala dira gaur egun. Berauen inguruan etengabe ari da gehitzen biztanleria arrotza; alde guztietara zabaltzen da hau; lurraren antzinako jabeen artean ere sartzen da, nagusi da haien hirietan eta hizkuntza desnaturalizatzen die. Populazio hau Estatu Batuetakoaren berdin-berdina da. Arrazoi dut esatean arraza ingelesa ez dela Batasunaren mugetan gelditzen, baizik eta askoz harantzago doala ipar-ekialderantz.

Ipar-mendebaldean, garrantzirik gabeko establezimendu errusiarren batzuk bakarrik daude; baina hego-mendebaldean, Mexiko hesi bat bezala dago angloamerikarren aurrean.

Honela, bada, eta egia esateko, bi arraza lehiakide bakarrik daude, Mundu Berria elkarrekin banatzen dutenak: espainolak eta ingelesak.

Bi arraza hauen banatzaile izango diren mugak tratatu bidez finkatu dira. Baina tratatu hau angloamerikarrentzat oso mesedegarria izan arren, ziur nago laster hautsiko dutela.

Batasunaren mugez harantzago, Mexiko aldetik, oraindik biztanlerik gabeko probintzia zabalak daude. Estatu Batuetako jendea bakarleku horietan sartuko da, horiek okupatzeko eskubidea dutenak baino ere lehenago. Lurraz jabetuko dira, gizartea eraikiko dute eta, azkenean, legezko jabea agertzen denean, eremua emankorturik eta atzerritarrak lasai asko beraren ondarean ezarrira aurkituko ditu.

Mundu Berriko lurra lehen okupatzailearena da, eta han agintzea da lasterketaren saria.

Jadanik jendeztaturik dauden herrialdeak ere nekez libratuko dira inbasiotik.

Aurrez hitz egin dut Texaseko probintzian gertatzen denaz. Egunez egun, Estatu Batuetako jendea sartzen da pixkana-pixkana Texasen, lurak erosten ditu eta, hango legeetara makurtu arren, beren hizkuntza eta ohituren agintea ezartzen du. Texaseko probintzia oraindik Mexikoren agintepean dago, baina laster han ez da mexikarrik



izango. Angloamerikarrak beste jatorri bateko herriekin kontaktuan jartzen diren leku guztietan gertatzen da antzerako zer bait.

Ezin da disimulatu arraza ingelesak ikaragarritzko nagusitasuna lortu duela Mundu Berriko beste arraza europar guztien gain. Hauek baino askoz gehiago da zibilizazio, industria eta botereari dagokionez. Bere aurrean herrialde hutsak edo gutxi jendeztatuak dituen bitartean, bere bidean populazio bilduekin topo egin eta aurrera egitea ezinezko gertatu arte, hedatzen jarraituko du etengabe. Ez da geldituko hitzarmenetan marrazturiko lerroetan, baizik eta alde guztietatik gaindituko ditu irudizko dike horiek.

Arraza ingelesak Mundu Berrian duen garapen bizkor hori ikaragarri errazten duen beste gauza bat bertan duen kokaleku geografikoa da.

Iparraldean dituen mugetatik iparralderago jotzen denean, poloetako izotzekin topo egiten da, eta hegoaldeko mugetatik behera gradu batzuk jaistean, ekuadoreko suetan sartzen da. Amerikako ingelesak, beraz, kontinenteko zonarik epelenean eta zatirik bizigarrienean daude kokatuta.

Estatu Batuetan biztanleriaren hazkundean ohartzen den mugimendu harrigarri hori independentziaz geroztikoa dela pentsatzen da. Ez da egia. Sistema kolonialean gaur egun bezain bizkor hazten zen biztanleria; orain bezalaxe, bikoiztu egiten zen hogeita bi urteka gutxi gora-behera. Baina orduan milaka biztanleekin gertatzen zen hori; orain, berriz, milioika biztanleekin. Duela mende bat oharkabea pasatzen zen egitate berak izpiritu guztiak harritzen ditu orain.

Kanadako ingelesak, errege bati obeditzen diotelarik, gehitzen ari dira kopuruz eta Estatu Batuetako ingelesak bezain bizkor zabaltzen dira ia, hauek gobernu errepublikarraren pean bizi direlarik.

Independentzi gerrak iraun zuen zortzi urteetan, biztanleriak hazten jarraitu zuen lehen aipaturiko proportzioan.

Orduan, mendebaldeko mugetan, ingelesekin lotuta indioen nazio handiak zeuden arren, mendebalderantzako migrazio-mugimendua sekula ez zen moteldu, nolabait esateko. Arerioak Atlantiar kostak errausten zituen bitartean, Kentucky, Pennsylvaniako mendebaldeko barrutiak, Vermonteko estatua eta Mainekoa jendez bete ziren. Gerraren ondorengo desordenak ez zion biztanleriari haztea eragotzi, ezta basa eremuan aurrera zeraman bidea geldiarazi ere. Honela, lege-ezberdintasunak, bake- edo gerra-egoerak, ordena edo anarkiak, eragin ia igartezina izan dute angloamerikarren garapen etengabea.

Erraz ulertzen da hau. Ez dago kausa nahiko orokorrik, hain lurralde zabaleko puntu guztietan aldi berean sentiarazteko modukorik. Honela, beti dago lurralde-zati handi bat, non ziur aurki daitekeen beste zatia harrapatzen duten ezbeharren kontrako babes, eta, gaitzak oso handiak izan arren, eskaintako erremedioa are handiagoa izaten da beti.

Ez da pentsatu behar, beraz, arraza ingelesaren hedapena geldiaraz daitekeenik Mundu Berrian. Batasunaren zatiketak -gerra kontinentera eramanez- eta errepublikaren abolizioak -bertan tirania sartuz- atzeratu egin dezakete garapena, baina ez bere destinoaren beharrezko osagarria lortzea eragotzi. Ez dago munduan botererik, alde guztietatik industriara irekiak dauden eta ezbehar guztietarako babeslekua eskaintzen duten eremu emankor horietarantz migrariek daramaten bidea itxiko duenik. Etorkizuneko gertakariak, nolana hikoak izanik ere, ez diete amerikarrei kenduko ez beren klima, ez barne-itsasoak, ez ibai handiak, ezta lurzoruen emankortasuna ere. Lege txarrek, iraultzek eta anarkiak ezingo dute haien artean suntsitu ongizatearen gustua eta haien arrazaren ezaugarri dirudien enpresa-izpiritua, ezta erabat itzali ere haien jakintzargiak.

Honela, etorkizunari buruzko ziurtasunik ezaren erdian, bada ziurra den gertakari bat gutxienez. Hurbiltzat jo dezakegun garai batean, herrien bizitzaz ari baikara hemen,

angloamerikarrek bakarrik beteko dute poloetako izotzen eta tropikoen arteko espazio zabala; Atlantiar ozeanoko hondarretatik Hego itsasoko ertzetaraino hedatuko dira.

Pentsatzen dut, arraza angloamerikarrak egunen batean estaliko duen lurraldea Europaren hiru laurdenak bezainbatekoa izango dela<sup>301</sup>. Batasuneko klima, oro har, Europakoa baino hobea da; haren abantaila naturalak ere ez dira txikiagoak; garbi dago hango biztanleria ere egunen batean gurearen proportziozkoa izango dela.

Europa, hainbat herri ezberdinetan banatua; Europa, Erdi Aroan etengabe sortzen ziren gerretan eta barbarotasunean zehar, lekoa karratuko laurehun eta hamar biztanle<sup>302</sup> izatera iritsi da. Zein kausa izan liteke hain ahaltsu Estatu Batuei beste horrenbeste izatea eragotzeko?

Oraindik mende asko igaroko da Amerikako arraza ingelesaren kimu ezberdinek fisionomia komun bat izateari uzterako. Ezin da aurrikusi zein garaitan ezarriko duen gizakiak baldintza-ezberdintasun iraunkorra Mundu Berrian.

Bakeak edo gerrak, askatasunak edo tiraniak, oparotasunak edo lazeriak familia angloamerikar handiaren kimuen destinoan egunen baten sartuko dituzten ezberdintasunak edozelakoak izanik ere, guztiek izango dute hala ere gizarte-egoera antzekoa eta komunak izango dituzte egoera honetatik datozen usadioak eta ideiak.

Erdi Aroan erlijioaren lokarri bakarra aski izan zen, Europa jendeztatu zuten arraza ezberdinak zibilizazio berean elkartzeko. Mundu Berriko ingelesek beste lotura asko dute beren artean, eta gizakien artean gauza guztiek berdintzera jotzen duten mendean bizi dira.

Erdi Aroa zatiketa-garaia zen. Orduan herri, probintzia, hiri, familia bakoitzak joera bizia zuen indibidualizatzeko. Gaur egun, kontrako mugimendua sumatzen da, eta herriak batasunerantz doazela dirudi. Lokarri intelektualek elkartzen dituzte beren artean munduko alderik urrunduenak, eta jendeak ezin iraun dezake egun bakar bat ere elkarrekiko arrotz, edo unibertsoa edozein bazterretan gertatzen denaren berri izan gabe. Horregatik, gaur egun ezberdintasun gutxiago sumatzen da europarren eta Mundu Berrian dituzten ondorengoen artean -nahiz eta Ozeanoak banatzen dituen-, XIII. mendean ibai batek bakarrik banatzen zituen zenbait hiriren artean baino.

Asimilazio-mugimendu honek atzerriak hurbilarazten baditu, arrazoi gehiagoz kontra egiten dio herri bereko kimuak beren artean arrotz bilakatzeari.

Iritsiko da, beraz, garai bat, zeinetan ikusi ahal izango diren Ipar Amerikan ehun eta berrogeita hamar milioi pertsona<sup>303</sup> beren artean berdinak, guztiak familia berekoak, eta guztiek abiapuntu bera, zibilizazio bera, hizkuntza bera, erlijio bera, aztura berak eta ohitura berak izango dituztenez, hauen bidez pentsamendua forma berberaz ibili eta kolore berberaz pintatuko da. Gainerako guztia dudazkoa da, baina hau gauza ziurra. Edonola ere, hona hemen munduan zeharo berria den egitate bat; beronen irispidea irudimenak berak ere ez du atzematen.

Badira gaur egun munduan bi herri handi, puntu ezberdinetatik abiatuz helmuga bererantz doazela diruditenak: errusiarrak eta angloamerikarrak.

Ilunbetan haziak dira biak; eta gizakien begiak beste norabait begira zeuden bitartean, bat-batean nazioen lehen mailan jarri dira, eta ia aldi berean izan du munduak horien jaiotzaren eta handitasunaren berri.

Badirudi beste herri guztiek gutxi gora-behera lortuak dituztela naturak ezarritako mugak, eta kontserbatzea baino ez dutela egiten; baina beste bi horiek hazten ari dira<sup>304</sup>. Gainerako guztiak gelditu egin dira edota neke handiz egiten dute aurrera; bi horiek bakarrik egiten dute aurrera, abiada erraz eta bizkorrean, oraindik ezin delarik ikusi lasterketa horren helmuga.

Naturak jartzen dizkion oztopoen kontra borrokatzen da amerikarra; errusiarra gizakiekin ari da lehian. Bata basa eremu eta barbarotasunaren kontra ari da borrokan; bestea, bere arma guztiez hornituriko zibilizazioaren kontra. Honela, amerikarraren konkistak laborariaren goldaz egiten dira, errusiarrarenak soldaduen ezpataz.

Bere helburua lortzeko, lehena interes pertsonalean oinarritzen da, eta jarduten uzten die, gidatu gabe, gizabanakoen indarrari eta arrazoiari.

Bigarrenak pertsona batengan biltzen du, nolabait ere, gizartearen botere guztia.

Batak ekintza-bide nagusitzat askatasuna du; besteak, esklabutza.

Abiapuntua diferentea dute, eta bideak ezberdinak; hala ere, bakoitzak, Probidentziaren asmo ezkutu batez, munduaren erdiaren destinoak bere esku izatera deitua ematen du.

Oharrak

A) 1704ko apirilean agertu zen lehen egunkari amerikarra. Bostonen argitaratu zen. Ikus *Collection de la Société historique de Massachusetts*, VI. bol., 66. or.

Okerra litzateke pentsatzea aldizkako prentsa beti erabat askea izan dela Amerikan; izan zen tentaziorik aurretiko zentsuraren eta fidantzaren antzeko zerbait ezartzeko.

Hona hemen Massachusettseko legegintza-dokumentuetan aurkitzen dena, 1722ko urtarrilaren 14an.

*New England Courant* izeneko egunkariaren arazoa aztertzeko Batzar Nagusiak (probintziako gorputz legegileak) izendaturiko batzordeak "pentsatzen du aipatu egunkariaren joera erlijioa barregarri uztea eta mesprezugar bihurtzea dela; bertan autore santuak era profano eta begirune gutxiz erabiltzen direla; Ebanjelioaren ministroen portaera maltzurkeriaz interpretatzen dela; Erreginaren gobernua iraindu egiten dela, eta probintzia honetako bakea eta lasaitasuna nahastu egiten dituela aipatu egunkariak; ondorioz, batzordearen iritzian, James Franklin inprimatzaile eta editoreari aurrerantzean galarazi egin beharko litzaioke aipatu egunkaria edo beste edozein idazki inprimatu eta argitaratzea, aurrez probintziako idazkariari aurkeztu gabe. Suffolk kantonamenduko bake-epaileak arduratuko dira aipaturiko Franklin horri fidantza bat jartzeaz, aurtan beraren portaera ona bermatuko duen fidantza".

Batzordearen proposamena onartu egin zen eta lege bihurtu, baina ez zuen inolako ondoriorik izan. Egunkariak ihes egin zion debekuari zutabeen barrenean *James Franklin* ordez *Benjamin Franklin* izena jarrita, eta azkenean iritzi publikoak justizia egin zion neurri horri.

B) Konderrietako hautesle (lurralde-jabegoaren ordezkari) izateko, 1832an onetsi zen erreforma-*bill*-a baino lehen, beharrezkoa zen jabetza osoan edo hil arteko errentan 40 txelineko irabazi garbia emango zuen lursail bat izatea. Lege hau Henry VI.aren garaian egin zen, 1450. urte aldera. Kalkulatu da Henry VI.aren garaiko 40 txelinek gaur egungo 30 libra esterlinaren balioa izan zezaketela. Hala ere, 1832ra arte utzi zaio irauten XV. mendean onaturiko oinarri hari, honek Konstituzio ingelesaren bilakaera demokratikoa frogatzen duelarik, mugigaitz zegoela eman arren. Ikus *Delolme*, I. lib., IV. kap.; ikus halaber *Blackstone*, I. lib., IV. kap.

Epaimahai ingelesak konderriko sheriffak aukeratzen ditu (*Delolme*, I. tomoa, XII kap.). Sheriffa, oro har, konderriko gizon garrantzitsu bat izaten da; funtzio judizial eta administratiboak betetzen ditu; erregearen ordezkari da, eta honek izendatzen du urtero (*Blackstone*, I. lib., IX kap.). Bere posizioak, alderdien ustelkeri susmoen gainetik jartzen du; bestalde, beraren inpartzialtasuna dudan jartzen bada, osorik ezetsi daiteke berak izendaturiko epaimahaia, orduan beste ofizial bati ematen zaiolarik epaimahaiko berriak aukeratzeko ardura. Ikus *Blackstone*, III. lib., XXIII. kap.

Epaimahaiko izateko eskubidea edukitzeko, gutxienez 10 txelineko irabaziak emango dituen lursail baten jabe izan behar da (*Blackstone*, III. lib., XXIII. kap.). Ohartuko da baldintza hau Gilermo eta Mariaren erregetzapean ezarri zela, 1700. urte inguruan

alegia, garai hartan diruaren prezioa gaur egun baino askoz ere handiagoa zelarrik. Ikusten denez, ingelesek beren epaimahai-sistema ez zuten gaitasunean oinarritu, lur-jabetzan baizik, gainerako erakunde politiko guztiak bezalaxe.

Azkenerako errentariak ere onartu egin zituzten epaimahaiak, baina errentamenduak oso luzeak izatea eskatu zitzaienten eta 20 txelineko irabazi garbia lortzea, errentaz gain (*Blackstone*, idem).

C) Estatuak beren auzitegi partikularretan sartua zuten bezalaxe sartu du Konstituzio federalak epaimahaiak Batasunekoetan; gainera, ez du arau propiorik ezarri epaimahaiak aukeratzeko. Estatu bakoitzak bere erabilerarako egiten duen epaimahai-zerrenda arruntera jotzen dute auzitegi federaletan. Hortaz, Amerikan epaimahaien osaerari buruzko teoria ezagutzeko estatuetako legeak dira aztertu behar direnak. Ikus *Story's Commentaries on the Constitution*, III. lib., XXXVIII. kap., 654-659 orr. *Sergeant's constitutional Law*, 165. or. Ikus, halaber, 1789, 1800 eta 1802ko lege federalak gaiari buruz.

Epaimahaiaren osaerari dagokionean amerikarrek dituzten printzipioak ongi ezagutzeko, elkarrengandik urruti zeuden estatuetako legeetan arakatu dut. Hona hemen azterketa horretatik atera daitezkeen ideia orokorrak.

Amerikan hautesle diren hiritar guztiek dute epaimahaiko izateko eskubidea. New Yorkeko estatu handiak, ordea, ezberdintasun txiki bat ezarri du bi gaitasun horien artean; baina gure legeen kontrako zentzuan, hau da, New Yorkeko estatuan epaimahaiko gutxiago dago hautesle baino. Oro har, esan daiteke Estatu Batuetan epaimahai baten partaide izateko eskubidea, diputatuak aukeratzeko eskubidea bezalaxe, mundu guztiagana hedatzen dela; baina eskubide honen erabilera ez da, bereizketarik gabe, esku guztietan jartzen.

Urtero udalerrri edo kantonamenduetako magistratu-gorputz batek -Ingalaterra Berrian *selectmen* deituak, New Yorkeko estatuan *supervisors*, Ohiokoan *trustees*, Louisianan parrokiako *sheriffs*- epaimahaiko izateko eskubidea dute (eta izateko gaitasuna ere suposatzen zaien) hiritarren kopuru bat aukeratzen du kantonamendu bakoitzerako. Magistratu hauek, berauek ere hautapenezkoak izanik, ez dute mesfidantzarik sortzen; horien ahalmenak oso zabalak eta arbitrarioak dira, magistratu errepublikarrenak bezalakoak oro har, eta, esaten dutenez, sarritan baliatzen dira ahalmen horietaz, Ingalaterra Berrian batez ere, duin edo gai ez diren epaimahaiak deskalifikatzeko.

Honela aukeraturiko epaimahaikoen izenak konderriko auzitegira helarazten dira, eta izen hauen guztien artetik zozketaz aukeratzen da arazo bakoitzean erabaki behar duen epaimahaia.

Gainerantz, amerikarrek ahal den guztia egin dute epaimahaia herriaren irispidean jartzeko, eta zeregin hori ahalik eta arinena izan dadin. Epaimahaikoak oso ugariak direlarik, bakoitzaren txanda hiru urtean behin bakarrik egokitzen da. Bilkurak konderri bakoitzeko hiriburuan egiten dira; konderria gutxi gora-behera bat dator gure barrutiarekin. Honela, auzitegia epaimahaira hurbiltzen da, epaimahaia bere ondora erakarri ordeztu, Frantzian bezala; azkenik, epaimahaikoak indemnizatu egiten dituzte, edo estatuak edo alderdiek. Normalean dolar bat (5,42 libera) hartzen dute eguneko, bidai gastuez gain. Amerikan, epaimahaiko izatea oraindik ere zamatzat hartzen da; baina zama eramanez, eta jendeak nekerik gabe onartzen duena.

Ikus *Brevard's Digest of the public statute Law of South Carolina*, 2. bol., 338. or.; *id.*, I. bol., 454 eta 446. orr.; *id.*, II. bol., 218. or.

Ikus *The general Laws of Massachusetts revised and published by authority of the legislature*, II. bol., 331, 187. orr.

Ikus *The revised Statutes of the State of New York*, II. bol., 720, 411, 717, 643. orr.

Ikus *The statute Law of the State of Tennessee*, I. bol., 209. or.

Ikus *Acts of the State of Ohio*, 95 eta 210. orr.

Ikus *Digeste général des actes de la législature de la Louisiane*, II. bol., 55. or.

D) Epaimahai zibilaren eraketa ingelesaren artean hurbiletik aztertzen denean, erraz ohartzen da epaimahaikoek sekula ez diotela ihes egiten epailearen kontrolari.

Egia da epaimahaiaren berediktuak, auzi zibil nahiz kriminaletan, orokorrean, egitatea eta zuzenbidea hartzen dituela enuntziazio xume batean. Adibidez: Berak erosi duela eta Pedrok etxe bat erreklamatzeko du; hona hemen egitatea. Kontrarioak saltzailearen gaitasun-eza kontrajartzen dio; hona hemen zuzenbidea. Etxea Pedroren esku uzteko esatera mugatzen da epaimahaia; egitatearen eta zuzenbidearen artean erabakitzen du honela. Epaimahaia arlo zibilean sarraraztean, ingelesek ez diote epaimahaiaren iritziari eman arazo kriminaletan, berediktua aldeko denean, ematen dioten infalibilitatea.

Berediktuak legearen aplikazio faltsua egin duela pentsatzen badu epaileak, errefusatu egin dezake hartzea eta berriro deliberatzera bidali epaimahaikoak.

Berediktua inolako eragozpenik gabe onartzen badu epaileak, hala ere prozesua ez dago erabat burutua: hainbat bide dago epaiaren kontra helegiteko. Nagusiena, berediktua anulatu eta epaimahai berri bat izendatzeko eskatzea justiziari. Egia da oso gutxitan onartzen dela honelako demanda bat, eta sekula ez bi aldiz baino gehiago; hala ere, nik neuk ikusi dut horrelako kasurik. Ikus *Blackstone*, III. lib., XXIV. kap.; *id.*, III. lib., XXV. kap.

*Oharrak*

<sup>1</sup> Obra honen lehen edizioa argitara eman nuen garaian, M. Gustave de Beaumont, Amerikara egin nuen bidaiari lagun izan nuena, artean lanean ari zen bere *Marie, ou l'Esclavage aux Etats-Unis* delako liburuan, geroago agertu delarik. M. de Beaumonten helburu nagusia, gizarte angloamerikarrean beltzek duten egoera nabarmendu eta ezagutaraztea izan da. Beraren obrak argitasun bizi eta berria botako du esklabutzaren gaiaren gain, erabakiorra den arazoa errepublika batuentzat. Ez dakit huts egingo dudan, baina iruditzen zait M. de Beaumonten liburuak, bertan zirrarak eta ikuskizunak bilatu nahi dituztenei biziki interesatu ondoren, are arrakasta sendoago eta iraunkorragoa lortuko duela ikuspegi zintzoak eta egia sakonak aurkitu nahi dituzten irakurleen artean, batez ere.

<sup>2</sup> Lege- eta administrazio-arloko dokumentuak beti esker onez gogoratuko dudan prestutasunez eman zizkidaten. Honela nire ikerlanean lagundu didaten funtzionari amerikarren artean, batez ere Mr. Edward Livingston aipatuko dut, orduan estatu-idazkari (gaur egun ministro botereguzti-

duna Parisen). Kongresuan egin nuen egonaldian, Mr. Livingstonek iritsarazi zizkidan gobernu federalari buruz ditudan dokumentu gehienak. Mr. Livingston, bere idazkiak irakurtzean maitagarri gertatzen den gizon bakan horietako bat da, ezagutu aurretik ere miresten eta ohoratzen direnetakoa, atsegina delarik horrelakoei esker ona zor izatea.

<sup>3</sup> 1.341.649 milia. Ikus *Darby's View of the United States*, 469. or. Milia hauek 2.000 toesako lekoatara murriztu ditut.

<sup>4</sup> Frantziak 35.181 lekoka karratu ditu.

<sup>5</sup> Red ibaia.

<sup>6</sup> 2.500 milia, 1.032 lekoka. Ikus *Description des Etats-Unis*, Warden-ena, I. bol., 166. or.

<sup>7</sup> 1.364 milia, 563 lekoka. Ikus *id.*, I. bol., 169. or.

<sup>8</sup> Missouri. Ikus *id.*, I. bol., 132. or. (1.278 lekoka).

<sup>9</sup> Arkansas. Ikus *id.*, I. bol., 188. or. (897 lekoka).

<sup>10</sup> Red ibaia. Ikus *id.*, I. bol., 190. or. (598 lekoka).

<sup>11</sup> Ohio. Ikus *id.*, I. bol., 192. or. (490 lekoka).

<sup>12</sup> Illinois, San Pedro, San Frantzisko, Moingona. Goian aipaturiko neurrietan, legezko milia (*statute mile*) eta 2.000 toesako posta-lekoka hartu ditut oinarritzat.

<sup>13</sup> 100 milia.

<sup>14</sup> 900 milia inguru.

<sup>15</sup> Antilletako itsasoan urak hain gardenak direnez, dio Malte-Brun-ek, V. bol., 726. or.an, koralak eta arrainak 60 besoko sakoneran ere ikusten dira. Itsasuntziak airean dabilela ematen du; halako zorabio batek hartzen du bidaiaria bere begirada isurkin gardenean zehar itsaspeko lorategien erdian murgiltzen duenean, non maskorrek eta urre-arrainek dir-dir egiten duten itsasorbel eta algen sasi artean.

<sup>16</sup> Geroztik antzekotasun batzuk aurkitu dira Ipar Amerikako indioen itxurapen fisiko, hizkuntza eta azturen, eta tungusak, mantxuak, mongolak, tataroak eta Asiako beste tribu ibiltari batzuenen artean. Azken hauek Bering itsasartetik hurbil kokaturik daude, eta pentsa daiteke antzinako garaietan etorri ahal izan zirela Amerikako kontinente hutsa jendeztatzera. Baina zientzia ez da oraindik puntu hau argitzera iritsi. Gai honetaz, ikus Malte-Brun, V. bol.; M. de Humboldt-en obrak; Fischer, *Conjectures sur l'origine des Américains*; Adair, *History of the American Indians*.

<sup>17</sup> Jefferson lehendakariak dioenez (*Notes sur la Virginie*, 148. or.), irokiarren artean, indar handiagoek erasoturik, ihes egin nahi ezta edo beren herrialdearen suntsipenaren ondoren bizirik jarraitu nahi gabe ikusi izan dira zaharrak, eta heriotzari erronka egiten, galiarrek Erroma erraustu zutenean antzinako erromatarrek bezala.

Aurrerago, 150. or.an: "Ez dago kasu bakar bat ere", dio berak, "indio bat etsaien menpe erori eta bizia barkatzeko eskatu duenik. Aitzitik, presoak, nolabait esateko, garaileek heriotza eman diezaioten bilatzen du, era guztietara irainduz eta horretara eraginez".

<sup>18</sup> Ikus *Histoire de la Louisiane*, Lepage-Dupratz-ena; Charlevoix, *Histoire de la Nouvelle-France*; Rev. Hecwelder-en Gutunak, *Transactions of the American Philosophical Society*, I. bol.; Jefferson, *Notes sur la Virginie*, 135-190 orr. Jeffersonek esaten duena, batez ere, pisu handikoa da, idazlearen meritu pertsonalagatik, bere egoera bereziagatik eta idatzi zuen mendeko positibismo eta zehaztasunagatik.

<sup>19</sup> Ingalaterrako koroak 1609an emandako kartak, beste klausula batzuen artean, kolonoek urre- eta zilar-meatzetako emaitzaren bostetik bat koroari ordaindu behar ziotela ezartzen zuen. Ikus *Vie de Washington*, Marshall-ena, I. bol., 18-66 orr.

<sup>20</sup> Kolono berrietako asko, Stith-ek dioenez (*History of Virginia*), familia desbideratuetako gazteak ziren, etorkizun laidagarrietatik urruntzeko gurasoek hara bidaliak; gainerakoak morroi izanak, maulaz porrot egindakoak, gizaki galduak eta antzerako beste batzuk ziren, lapurreta eta suntsiketak egiteko egokiagoak koloni establezimendua finkatzeko baino. Jende-saldo hau buruzagi albarazaleek erraz eraman zuten bitxikeria eta gehiegikerietara. Ikus, Virginiako historiari buruz, ondorengo obra hauek: *History of Virginia from the first Settlements to the year 1624*, Smith-ena; *History of Virginia*, William Stith-ena; *History of Virginia from the earliest period*, Beverley-rena, 1807an frantsesera itzulia.

<sup>21</sup> Geroago joan ziren kolonian ezartzera Ingalaterrako zenbait lurjabe aberats.

<sup>22</sup> Esklabutza 1620. urte inguruan sartu zen, itsasuntzi holandar batek hogeitaz beltz lehorreratu zituenean James ibaiaren ertzean. Ikus Chalmer.

<sup>23</sup> Ingalaterra Berriko estatuak Hudsonen ekialdera kokaturikoak dira; sei dira gaur egun: Connecticut, Rhode Island, Massachusetts, Vermont, New Hampshire eta Maine.

<sup>24</sup> *New England's Memorial*, 13. or., Boston, 1826. Ikus halaber Hutchinson-en *Histoire* delakoa, II. bol., 440. or.

<sup>25</sup> *New England's Memorial*, 23. or.

<sup>26</sup> Harkaitz hau gurtza-gai bihurtu da Estatu Batuetan. Beronen zatiak, ardura handiz zainduak, Batasuneko hainbat hiritan ikusi ditut. Ez al du honek argi eta garbi erakusten gizakiaren ahalmena eta handitasuna beraren ariman dagoela oso-osorik? Horra hor, doilor batzuen oinek une batez harri bat ukitu, eta harri hori ospetsu bihurtzen da; herri handi baten begirada erakartzen du; berorren hondarrak gurtu egiten dira, eta hautsa urrutian ere banatu. Zer gertatu da, ordea, hainbeste jauregitako ataurreez? Nor arduratzen da horietaz?

<sup>27</sup> *New England's Memorial*, 35. or.

<sup>28</sup> 1638an Rhode Island-eko estatua sortu zuten migrariak, 1637an New Haven-en ezarri zirenak, 1639an Connecticut-eko lehen biztanleak eta 1640an Providence fundatu zutenak ere gizarte-kontratu bat eginez hasi ziren, interesatu guztien onespenera aurkeztu zelarik. *Pitkin's History*, 42. eta 47. orr.

<sup>29</sup> Hau izan zen New Yorkeko estatuaren kasua.

<sup>30</sup> Maryland, Carolinak, Pennsylvania eta New Jersey kasu honetan zeuden. Ikus *Pitkin's History*, I. bol., 13-31. orr.

<sup>31</sup> Ikus *Historical Collection of State Papers and other authentic documents intended as materials for an history of the United States of America, by Ebeneser Hazard, printed at Philadelphia MDCCXCII* delako obran, beren eduki eta benetakotasunagatik paregabea den dokumentu-kopuru handi bat, kolonien lehen garaiari buruzkoak, eta beste batzuen artean Ingalaterrako koroak emandako hainbat karta, eta kolonietako gobernuen lehen egintzak.

Ikus halaber karta horietaz guztiez Mr. Storyk, Estatu Batuetako Auzitegi Goreneko epaileak, bere *Commentaire sur la Constitution des Etats-Unis* delakoaren sarreran egiten duen azterketa.

Dokumentu hauetatik guztietatik ondorioztatzen denez, ordezkapen-gobernuaren printzipioak eta askatasun politikoaren kanpo-formak ia sorrera-sorreratik sartu ziren kolonia guztietan. Printzipio hauek garapen handiagoa izan zuten iparraldean hegoaldean baino; egon, ordea, alde guztietan zeuden.

<sup>32</sup> Ikus *Pitkin's History*, I. t., 35. or. Ikus *The History of the Colony of Massachusetts*, Hutchinson-ena, I. bol. 9. or.

<sup>33</sup> Ikus *id.*, 42-47. orr.

<sup>34</sup> Justiziako prozedura eta auzitegi-tako lege kriminal eta zibilen ezarpenean, Massachusettseko biztanleak aldendu egin ziren Ingalaterran jarraituriko usadioetatik. 1650ean erregearen izena ez da jadanik agindu judizialen buruan azaltzen. Ikus Hutchinson, I. bol., 452. or.

<sup>35</sup> *Code of 1650*, 28. or. (Hartford, 1830).

<sup>36</sup> Ikus halaber Hutchinsonen *Histoire* delakoan, I. bol. 435-456 orr.etan, Massachusettseko koloniak 1648an onarturiko kode penalaren azterketa; kode hau Connecticutekoaren antzeko printzipioetan oinarrituz egina dago.

<sup>37</sup> Adulterioa heriotzaz zigortzen zuen Massachusettseko legeak ere, eta Hutchinsonek I. bol.eko 441. or. an dioenez, hainbat pertsonak izan zuen heriotza krimen honengatik; honi buruz anekdota bitxi bat kontatzen du, 1663. urtekoa. Emakume ezkondu batek maitasun-harremanak izan omen zituen gazte batekin; emakumea alargundu egin zen, eta gaztearekin ezkondu; hainbat urte igaro eta gero, jendea susmatzen hasi zen senar-emazte haien artean lehenago izandako kidetasuna, eta kriminalki pertsegitu zituzten; preso sartu eta gutxi-gatik ez zituzten biak heriotzara kondenatu.

<sup>38</sup> *Code of 1650*, 48. or. Dirudienez, epaileek batzuetan metatu egiten zituzten zigor hauek, 1643an emandako epai batean ikus daitekeenez (114. or., *New Haven Antiquities*); han esaten da Margaret Bedford, egintza zehagarrien errudun, zigorkatu egingo dutela, eta gainera beraren gaizkide Nicolas Jemmings-ekin ezkondu beharko duela.

<sup>39</sup> *New Haven Antiquities*, 104. or. Ikus halaber Hutchinsonen *Histoire* delakoan, I. bol.eko 435. or. an, beste judizio batzuk, hau bezain harrigarriak.

<sup>40</sup> *Code of 1650*, 50. eta 57. orr.

<sup>41</sup> *Id.*, 64. or.

<sup>42</sup> *Id.*, 44. or.

<sup>43</sup> Hau ez zen Connecticutekoa bakarrik. Ikus, beste batzuen artean, 1644ko abenduaren 13an Massachusettsen aldarrikaturiko legea, anabaptistak erbestera kondenatzen zituenena. *Historical Collection of State Papers*, I. bol., 538. or. Ikus halaber 1656ko urriaren 14an kuakeroen kontra argitaraturiko legea: "Kontuan izanik kuakeroak



deritzen heresen sekta madarikatua eratu dela..." Ondoren, herrialdera kuakeroak ekartzen dituzten itsasuntzietako kapitainei isun handiak ezartzen dizkieten xedapenak datoz. Sartzea lortzen duten kuakeroak zigorkatu egingo dituzte eta presondegira eramango, bertan lan egin dezaten. Beraien iritziak defenditzen dituztenei, lehenik isuna ezarriko zaie, gero presondegira kondenatu eta probintziatik kanporatuko. Bilduma berbera, I. bol., 630. or.

<sup>44</sup> Massachusettseko lege penalean, kanporatua izan ondoren kolonian berriro hanka jartzen duen apaiz katolikoak heriotza-zigorra izango du.

<sup>45</sup> *Code of 1650*, 96. or.

<sup>46</sup> *New England's Memorial*, 316. or.

<sup>47</sup> 1638ko Konstituzioa, 17. or.

<sup>48</sup> 1641ean Rhode Islandeko batzar nagusiak aho batez aldarrikatu zuen demokrazia zela estatuko gobernua, eta boterea pertsona askeen multzoan oinarritzen zela, legeak egiteko eta hauek betearazteko eskubidea zuten bakarrik. *Pitkin's History*, 47. or.

<sup>49</sup> 1638ko Konstituzioa, 12. or.

<sup>50</sup> *Code of 1650*, 70. or.

<sup>51</sup> *Code of 1650*, 80. or.

<sup>52</sup> *Code of 1650*, 78. or.

<sup>53</sup> *Id.*, 49. or.

<sup>54</sup> Ikus Hutchinsonen *Histoire*, I. bol., 455 or.

<sup>55</sup> *Code of 1650*, 86. or.

<sup>56</sup> *Id.*, 40. or.

<sup>57</sup> *Id.*, 90. or.

<sup>58</sup> *Code of 1650*, 38. or.

<sup>59</sup> *Mather's Magnalia Christi Americana*, II. bol., 13. or.

Hitzaldi hau Winthrop-ek egin zuen; magistratu gisa, egintza arbitrarioak zertu izanaz akusatzen zuten; hitzaldia egin ondoren, zeinen zati bat aipatu dudan oraintxe, txalo artean absolbitu zuten, eta ordudanik estatuko gobernari berrautatu zuten beti. Ikus Marshall, I. bol., 166. or.

<sup>60</sup> Badira, noski, kausiorik onartzen ez duten krimen batzuk, baina oso gutxi dira.

<sup>61</sup> Ikus Blackstone eta Delolme, I. lib., X. kap.

<sup>62</sup> Oinordetza-legeak esatean, jabea hil ondoren ondasunen geroa arautzea helburu nagusizat daukaten lege guztiak sartzen ditut hor.

Ordezkatza-legea ere horietakoa da; egia da hil arte jabeari bere ondasunez baliatzen ez uzteko ondorioa ere baduela; baina ondasunak gordetzeko obligazio hori oinordekoagana oso-osorik irits daitezen bakarrik ezartzen dio. Ordezkatza-legearen helburu nagusia, beraz, jabea hil ondoren ondasunen geroa arautzea da. Gainerakoa, erabiltzen duen baliabidea da.

<sup>63</sup> Ez dut esan nahi lurjabe txikiak hobeto lantzen duenik, baina bai gogotsu eta arretatsuago, eta lanaren poderioz lortzen du trebetasunaren aldetik falta zaiona.

<sup>64</sup> Lurra izanik jabetzarik sendoena, noizean behin aurkitzen da jende aberatsik, lurra lortzeko sakrifizio handiak egiteko prest dagoena eta gainerakoa segurtatzeko bere irabazien zati dezentea gogoz galtzen duena. Baina hauek salbuespenak dira. Jabetza higiezinetikiko zaletasuna behartsuen artean bakarrik aurkitzen da normalean. Lurjabe txikiak, handiak baino jakintzargi, irudimen eta grina gutxiago duenak, orokorrean bere jabetza handitzeko irrika baino ez du izaten, eta sarritan gertatzen da oinordetzek,

ezkontzek edo merkatal aukerek horretarako baliabideak ematen dizkiotela poliki-poliki.

Jendea lurra zatitzera daraman joeraren ondoan, bada beste bat batzera daramana. Joera hau, jabetzak mugagabeki zatitzea eragozteko aski dena, sarritan ez da behar hainbat indartsua lur-aberastasun handiak sortzeko, eta are gutxiago familia berberetan eusteko.

<sup>65</sup> Marylandeko Konstituzioari 1801ean eta 1809an egindako zuzenketak.

<sup>66</sup> Udalerriak Massachusettseko estatuan 305 ziren 1830ean; biztanleak 610.014; eta honek batez beste 2.000 biztanle inguru ematen du udalerri bakoitzeko.

<sup>67</sup> Arau berberak ezin zaizkie udalerri handiei aplikatu. Hauek normalean alkate bat eta bi adarretan banaturiko udal-gorputza izaten dute; baina hau lege batek baimendu beharreko salbuespena da. Ikus 1822ko otsailaren 22ko legea, Boston hiriaren ahalmenak arautzen dituena. *Laws of Massachusetts*, II. bol., 588. or. Hiri handiei aplikatzen zaie hau. Halaber sarri gertatzen da hiri txikiak administrazio partikular baten menpe egotea. 1832an 104 udalerri zeuden honela administraturik New Yorkeko estatuan (*William's Register*).

<sup>68</sup> Horietako hiru aukeratzen dira udalerri txikienetan, bederatzi handienetan. Ikus *The Town Officer*, 186. or. Ikus halaber Massachusettseko lege garrantzizkoenak *selectmen*ei buruzkoak: 1786ko otsailaren 20ko legea, I. bol., 219. or.; 1796ko otsailaren 24koa, I. bol., 488. or.; 1801eko martxoaren 7koa, II. bol., 45. or.; 1795eko ekainaren 16koa, I. bol., 473. or.; 1808ko martxoaren 12koa, II. bol., 186. or.; 1787ko otsailaren 28koa, I. bol. 302. or.; 1797ko ekainaren 22koa, I. bol., 539. or.

<sup>69</sup> Ikus *Laws of Massachusetts*, I. bol., 250. or.; 1786ko martxoaren 23eko legea.

<sup>70</sup> *Ibid.*

<sup>71</sup> Magistratu hauek guztiak egon badaude praktikan.

Udal-magistratu guztion egitekoen xehetasunak ezagutzeko, ikus *The Town Officer* liburua, Isaac Goodwin-ena, Worcester, 1829; baita Massachusettseko lege orokorren bilduma ere, 3 bol., Boston, 1823.

<sup>72</sup> Ikus *Laws of Massachusetts*, 1786ko martxoaren 23ko legea, I. bol., 250. or.

<sup>73</sup> *Ibid.*, 1786ko otsailaren 20ko legea, I. bol., 217. or.

<sup>74</sup> Ikus bilduma bera, 1789ko ekainaren 25eko legea, I. bol., 367. or.; eta 1827ko martxoaren 8ko legea, III. bol., 179. or.

<sup>75</sup> Ikus 1821eko otsailaren 14ko legea, *Laws of Massachusetts*, I. bol., 551. or.

<sup>76</sup> Ikus 1819ko otsailaren 20ko legea, *Laws of Massachusetts*, II. bol., 494. or.

<sup>77</sup> Gobernariaren Kontseilua hautapenezko gorputza da.

<sup>78</sup> Ikus 1781eko azaroaren 2ko legea, *Laws of Massachusetts*, I. bol., 61. or.

<sup>79</sup> Ikus *The Town Officer*, batez ere *Selectmen*, *Assessors*, *Collectors*, *Schools*, *Surveyors of highways*... hi-tzak. Beste askoren arteko adibide bat: Estatuak debekatu egiten du igandean arrazoirik gabe bidaiatzea. *Tythingmen*, udal-ofizialak, dira bereziki arduratu behar dutenak legea bete dadin.

Ikus 1792ko martxoaren 8ko legea, *Laws of Massachusetts*, I. bol., 410. or.

*Selectmen*ek prestatzen dituzte gobernaria aukeratzeko hauteskunde-zerrendak eta botozenbaketaren emaitza errepublikako idazkariari helarazten diote. 1796ko otsailaren 24ko legea, *id.*, I. bol., 488. or.

<sup>80</sup> Adibidez, *selectmen*ek baimentzen dute estolderiaren eraikuntza, abere-hiltegiak egiteko lekuak aukeratzen dituzte, baita ingurukoentzat kaltegarri den merkataritza-mota non ezar daitekeen erabakitzen ere.

Ikus 1785eko ekainaren 7ko legea, I. bol., 193. or.

81 Adibidez, *selectmenek* zaintzen dute herri-osasuna gaitz kutsagarrien kasuan, eta beharrezko neurriak hartzen dituzte bake-epaileekin batera. 1797ko ekainaren 22ko legea, I. bol., 539. or.

82 *Ia* diot, udal-bizitzako zenbait gora-behera, bake-epaileek beren banakako gaitasunez arautzen baitituzte, edota bake-epaileek gorputz gisa bilduta konderriko hiriburuan. Adibidez, bake-epaileak dira lizentziak ematen dituztenak. Ikus 1787ko otsailaren 28ko legea, I. bol., 297. or.

83 Portaera oneko ziurtagiria, *selectmenek* emana, aurkezten dutenei bakarrik ematen zaie lizentzia. *Selectmenek* uko egiten badiote ziurtagiri hau emateari, pertsonak sesio-auzitegian bilduriko bake-epaileei aurkez diezaieke erreklamazioa, eta hauek eman egin diezaioke lizentzia. Ikus 1808ko martxoaren 12ko legea, II. bol., 186. or. Udalerriek arautegiak (*bylaws*) egiteko eskubidea dute, eta betearaztekoa ere bai, kopuru finkoko isunak ezarriz; baina arautegi hauek sesio-auzitegiak onetsi behar ditu. Ikus 1786ko martxoaren 23ko legea, I. bol., 254. or.

84 Massachusettsen, konderriko administratzaileei udalerriko administratzaileen ekintzak baloratzera dei egiten zaie sarri; baina, aurrerago ikusiko denez, botere judizial diren aldetik egiten dute azterketa hori, eta ez agintari administratibo bezala.

85 Adibidez, eskoletako udal-batzordeek eskolaren egoerari buruzko txosten bat egin behar dute urtero eta errepublikako idazkariari eman. Ikus 1827ko martxoaren 10eko legea, III. bol., 183. or.

86 Aurrerago ikusiko dugu zer den gobernaria; oraindanik esan behar dut estatu osoko botere exekutiboaren ordezkari dela gobernaria.

87 Ikus Massachusettseko Konstituzioa, II. kap., I. sekzioa, 9. paragrafoa; III. kap., 3. paragrafoa.

88 Adibide bat beste askoren artean: gaitz kutsakorrak jotako herrialderen batetik atzerritar bat iristen da udalerrira. Gaixo jartzen da. Bi bake-epailek, *selectmenen* adostasunez, beste nonbaitera eraman eta zaintzeko agindua eman diezaioke konderriko sheriffari. 1797ko ekainaren 22ko legea, I. bol., 540. or.

Oro har, administrazio-bizitzako egintza garrantzizko guztietan esku hartzen dute bake-epaileek, izaera erdi judiziala emanez.

89 *Kopuru handiena* diot, zeren eta zenbait delitu administratibo auzitegi arruntei baitagozkie. Adibidez, udalerri batek uko egiten badio bere eskoletarako behar diren fondoak emateari, edo eskola-batzordea izendatzeari, dezenteko isuna ordainarazten zaio. *Supreme judicial court*, edo *common pleas*, delako auzitegia izaten da isun hau erabakitzen duena. Ikus 1827ko martxoaren 10eko legea, III. bol., 190. or. *Id.* udalerri batek uko egiten badio gerrarako munizioaren hornikuntza egiteari. 1822ko otsailaren 21eko legea, II. bol., 570. or.

90 Bake-epaileek, beren banakako gaitasunez, udalerri eta konderrien gobernuan esku hartzen dute. Udal-bizitzako egintzarik garrantzizkoenak berorietako bakar baten eskuhartzeaz egiten dira orokorki.

91 Konderriarekin zerikusia duten gauzak, sesio-auzitegiaren ardura peko direnak, ondorengo hauetara mugatzen dira: 1.º Presondegi eta justizi auzitegien eraikuntza. 2.º Konderriko aurrekontuaren proiektua (estatuko legislaturak bozkatzeko du). 3.º Honela bozkaturiko zergen banaketa. 4.º Zenbait patenteren banaketa. 5.º Konderriko errepideen eraikuntza eta konponketa.

92 Honela, errepide-kontua denean, sesio-auzitegiak erabakitzen ditu, epaimahaiaren laguntzaz, egiteari buruzko eragozpen gehienak.

93 Ikus 1786ko otsailaren 20ko Legea, I. bol., 217. or.

<sup>94</sup> Bada zeharkako era bat udalerriari obediarazteko. Legeak errepideak egoera onean mantentzera behartzen ditu udalerriak. Mantenu honetarako behar diren fondoak ez badituzte bozkatzen, errepideen ardura duen udal-magistratuak baimena du beharrezko dirua ofizioz biltzeko. Partikularren aurrean bideen egoera txarraren erantzule bera denez, eta haiek sesio-auzitegiaren aurrean auzitara eraman dezaketenez, badago ziurtasuna legeak ematen dion aparteko eskubide hori udalerriaren kontra erabiliko duena. Honela, funtzionaria mehatxatuz, sesio-auzitegiak udalerria behartzen du obeditzera. Ikus 1787ko martxoaren 5eko legea, I. bol., 305. or.

<sup>95</sup> Massachusettseko Legea, II. bol., 45. or.

<sup>96</sup> Adibidez, udalerri batek, setati, ez badu aholkularirik izendatu nahi, sesio-auzitegiak izendatzen du, eta honela aukeraturiko magistratuek magistratu hautetsiek bezalakoxe ahalmenak dituzte. Ikus lehen aipaturiko 1787ko otsailaren 20ko legea.

<sup>97</sup> *Sesio-auzitegiaren aurrean* diot. Bada magistratu bat auzitegi arruntetan ministerio publikoaren funtzioetako batzuk betetzen dituena.

<sup>98</sup> Epaimahai handiak beharturik daude, adibidez, errepideen egoera txarraz auzitegiak ohartaraztera. Massachusettseko Legea, I. bol., 308. or.

<sup>99</sup> Esate baterako, konderriko diruzainak ez baditu bere kontuak aurkezten. Massachusettseko Legea, I. bol. 406. or.

<sup>100</sup> Askoren arteko adibide bat: gaizki zaindutako errepidean partikular bati hondatu egiten zaio zalgurdia edo zauritu egiten da; honek errepidearen ardura duen udalerri edo konderriri sesio-auzitegiaren aurrean kalteordainak eskatzeko eskubidea du. Massachusettseko Legea, I. bol., 309. or.

<sup>101</sup> Inbasio edo altxamendu kasuan, udal-ofizialek ez badute milizia beharrezko gauza eta munizioz hornitzen, 200 eta 500 dolar (1.000 eta 2.700 libera frantses) arteko isuna jasan dezake udalerriak. Ongi ulertzen da honelako kasu batean inork ez izatea akusatzaila-papera egiteko ez interesik, ez gogorik. Horregatik eranstean du legeak: "Hiritar guztiek izango dute horrelako delituen zigorra bilatzeko eskubidea, eta isunaren erdia salatariarena izango da". Ikus 1810eko martxoaren 6ko Legea, II. bol., 236 or.

Sarri-sarri aurkitzen da xedapen berbera Massachusettseko legeetan ezarria.

Batzuetan funtzionari publikoak pertsegitzera legeak honela bultzatzen duena ez da partikularra izaten, baizik eta funtzionaria adoretzen du partikularren desobedientzia zigorrazteraz. Adibidez, biztanle batek uko egiten dio errepide batean esleitu zaion lan-zatia egiteari. Bide-begiraleak pertsegitu egin behar du, eta kondenaraztea lortzen badu, isunaren erdia dagokio berari. Ikus aurrez aipaturiko legeak, I. bol., 308. or.

<sup>102</sup> Xehetasunetarako, ikus *The Revised Statutes of the State of New York*, I. zatia, XI. kap.: *Of the powers, duties and privileges of towns*. Udalerrien eskubideak, betebeharrak eta pribilegioak, I. bol. 336-364 orr.

Ikus *Digest of the Laws of Pennsylvania* bilduman, *Assessors, Collectors, Constables, Overseers of the Poor, Supervisor of highways* hitzak. Eta *Acts of a general nature of the State of Ohio* bilduman, 1824ko otsailaren 25eko legea, udalerriei buruzkoa, 412. or. Eta ondoren udal-ofizial ezberdinei buruzko xedapen partikularrak: *Township's Clerks, Trustees, Overseers of the poor, Fence Viewers, Appraisers of property, Township's Treasurer, Constables, Supervisors of highways*.

<sup>103</sup> Ikus *Revised Statutes of the State of New York*, I. zatia, XI. kap., I. bol., 340. or. *Id.*, XII. kap.; *id.*, 366. or. *Id.*, *Acts of the State of Ohio*. 1824ko otsailaren 25eko Legea, *county commissioners* delakoei buruzkoa, 263. or.

Ikus *Digest of the Laws of Pennsylvania* delakoan, *County Rates* eta *Levies* hitzak, 170. or.

New Yorkeko estatuan udalerri bakoitzak diputatu bat aukeratzen du, eta diputatu honek beronek aldi berean konderriko eta udalerriko administrazioan esku hartzen du.

<sup>104</sup> Hegoaldean badira estatuak, non *county courts* delakoetako magistratuak administrazioko xehetasun guztiez arduratzen diren. Ikus *The Statutes of the State of Tennessee*; art.ak: *Judiciary, Taxes...*

<sup>105</sup> Adibidez, hezkuntza publikoaren zuzendaritza gobernuaren eskuetan zentralizatu dago. Legislaturak izendatzen ditu unibertsitateko kideak, erregente deituak; estatuko gobernaria eta gobernariordea bertako partaide dira derrigorrez (*Revised Statutes*, I. bol., 456. or.). Unibertsitateko erregenteek kolegioak eta akademiak bisitatzen dituzte urtero, eta urteko txostena aurkezten diote legislaturari; beraien ikuskaritza ez da itxura hutsezkoa izaten, ondorengo arrazoionatik: erosi, saldu eta eduki ahal izateko gorputz eratu (korporazio) bihur daitezten karta bat behar dute kolegioek; eta karta hau legislaturak bakarrik ematen du erregenteen adostasunez. Urtero, ikasketak bultzatzeko sorturiko fondo berezi baten interesak banatzen dizkie estatuak kolegio eta akademiei. Erregenteak izaten dira diru honen banatzaileak. Ikus XV. kap. Hezkuntza publikoa. *Revised Statutes*, I. bol., 455 or.

Urtero, eskola publikoetako komisariak egoerari buruzko txosten bat bidali behar diote errepublikako superintendenteari. *Id.* 488. or.

Antzeko txosten bat ere egin behar zaio urtero behartsuen kopuru eta egoerari buruz. *Id.*, 631. or.

<sup>106</sup> Norbaitek uste badu (udal-funtzionario diren) eskoletako komisarien egintzaren batek kalte egin diola, lehen mailako eskoletako superintendenteagana jo dezake, behinbetikoa delarik honen erabakia. *Revised Statutes*, I. bol., 487. or.

Noizean behin, New Yorkeko estatuko legeetan agertzen dira, adibide gisa aipatu berri ditudan horien antzeko xedapenak. Baina orokorrean zentralizazio-saio hauek ahul eta antzu samarrak izaten dira. Estatuko funtzionario handiei beheragoko agenteak gainbegiratu eta zuzentzeko eskubidea ematean, ez zaie ematen saritzeko edo zigortzeko eskubiderik. Ia sekula ez zaio pertsona berari ematen agindua emateko ardura eta desobedientzia zigortzekoa; agintzeko eskubidea du, beraz, baina ez obediartzeko ahalmena.

1830ean eskoletako superintendenteak legislaturari aurkezturiko urteko txostenean kexu zen eskoletako komisariak, zenbait aldiz ohartarazi arren, ez zizkiotelako aurkeztu beharrezko kontuak. "Hau berriro gertatzen bada" gaineratzen zuen, "salatu egin beharko ditut, legearen arabera, dagozkien auzitegietan".

<sup>107</sup> Adibidez, konderri bakoitzean ministerioko ofizialak (*district attorney*) du 50 dolar baino gehiagoko isun guztiak kobratzeko ardura, behintzat eskubide hau ez badio legeak beste magistraturen bati espreski ematen. *Revised Statutes*, I. zatia, XII. kap., I. bol., 383. or.

<sup>108</sup> Massachusettsen bada zentralizazio administratiboaren zenbait aztarna. Adibidez, udal-eskoletako batzordeek txosten bat egin behar diote urtero estatu-idazkariari. *Laws of Massachusetts*, I. bol., 367. or.

<sup>109</sup> Ikus New Yorkeko Konstituzioaren testua.

<sup>110</sup> Massachusettsen Senatuak ez du bere gain inolako administrazio-funtziorik.

<sup>111</sup> New Yorkeko estatuan beza la.

<sup>112</sup> Praktikan, ez da beti gobernaria izaten legislaturak asmatutako proiektuak gauzatzen dituen; sarri gertatzen da azken honek, printzipio bat bozkatzeko duen aldi berean, agente bereziak ere izendatzen dituela printzipioa betearazteaz arduratzeko.

<sup>113</sup> Zenbait estatutan gobernariak ez ditu bake-epaileak izendatzen.

114 Estatuaren ordezkari den agintaritzak, berak ez administratu arren, ez dio, nire ustez, administrazio lokala ikuskatzeko eskubideari uko egin behar. Demagun, adibidez, gobernuaren agente batek, konderri bakoitzean postu finko batean ezarria, udalerrietan eta konderrian egindako delituak botere judizialari salatzeke eskubidea duela; ez al litzateke ordena uniformeagoa izango, horregatik herrien independentzia arriskuan jarri gabe? Nolanahi ere, Amerikan ez dago horrelako ezer. Konderrietako auzitegien gaineratik, ez dago ezer; eta auzitegi hauek, nolabait ere, ustekabeen izaten dute erreprimitu beharreko delitu administratiboen berri.

115 Iruditzen zait Txina dela administrazio oso zentralizatuak bere menpeko herriei eman diezaiekeen gizarte-ongizatea ulertzeko adibiderik biribilena. Bidaia-eriek esaten digutenez, txinatarrek lasaitasuna dute zorionik gabe, industria aurrerapenik gabe, egonkortasuna indarririk gabe, eta ordena materiala moraltasun publikorik gabe. Haien artean gizartea beti ibiltzen da nahiko ongi, sekula ez oso ongi. Pentsatzen dut Txina europarrei irekitzen zaienean, hauek unibertsoan dagoen zentralizazio administratiboaren eredurik ederrena aurkituko dutela han.

116 Estatu Batuetako eta Frantziako finantzak alderatuz, izpirituak gauzen ezagupena beti ezin duela ordeztu frogatu duen idazle argi batek arrazoiz aurpegiratzen die amerikarrei udal-aurrekontuetan dagoen nahasmendua, eta, Frantziako departamentu-aurrekontu baten erdua eman ondoren, zera gaineratzen du: "Zentralizazioari esker, gizon handi baten sorkuntza miresgarria, erresumaren mutur batetik besterainoko udal-aurrekontuek, hiri handietakoek nahiz udalerri-erri apalenetakoek, ez dute batere ordena eta metodo gutxiago". Hona hemen benetan miresten dudana emaitza; baina hain kontabilitate biribila duten udalerri frantses hauetako gehienak beren benetako interesen ezezagutza sakonean murgilduta ikusten ditut, eta hain apatia gaindigaitzean, ezen horietan gizartea landare gisa bizi dela iruditzen baitzait; bestalde, udalerri amerikarretan, non aurrekontuak ez dauden ez plan metodikoen arabera, ezta batez ere era beretsuan eginda, jende argi, aktibo eta saiaturia sumatzen dut; gizartea beti lanean ikusten dut han. Ikuskizun honek harritu egiten nau, zeren eta nire ikuspegitik gobernu on baten helburu nagusia herrien ongizatea sortzea baita, eta ez lazeriaren baitan halako ordena bat ezartzea. Beraz, galdetzen diot neure buruari ea ez ote dakizkiokeen kausa berari egotzi udalerri amerikarren oparotasuna eta finantzen itxurazko desordena, baita Frantziako udalerriaren atsekabeak eta aurrekontuaren perfektzioa ere. Edonola ere, ez naiz fidatzen hainbeste gauza txarrekin nahasian aurkitzen dudana ongiat, eta erraz kontsolatzen naiz hainbeste gauza onez konpentsaturiko gaizkiaz.

117 Gainera, zenbait gai zibiletan Pareen Auzitegia apelaziorako azken maila da Ingalaterran. Ikus Blackstone, III. lib., IV. kap.

118 Ofizial bati ezin zaio bere maila kendu, baina bai agintea.

119 I. kap., II. sek., 8. §.

120 Ikus Illinois, Maine, Connecticut eta Georgiako Konstituzioak.

121 Ikus Konstituzio federalaren testua.

122 Ikus 1778an eratutako lehen konfederazioko artikulak. Konstituzio federal hau 1781era arte ez zuten onartu estatu guztiek.

Ikus halaber Konstituzio honetaz *The Federalist*-ek, 15. zenbakitik 22.era bitartean egiten duen azterketa, baita Story-rena ere bere *Commentaries on the Constitution of the United States*, 85-115. or.

123 Kongresuak 1787ko otsailaren 21ean egin zuen aldarrikapen hau.

124 55 kidek bakarrik osatzen zuten. Washington, Madison, Hamilton eta bi Morris-ak bertako partaide ziren.

<sup>125</sup> Ez ziren legegileak izan onartu zutenak. Herriak diputatuak izendatu zituen helburu bakar honetarakoxe. Batzar hauetako bakoitzean eztabaida sakonak egin ziren Konstituzio berriaz.

<sup>126</sup> Ikus Konstituzio federalari egindako zuzenketak. *The Federalist*, 32. zk. Story, 711. or. *Kent's Commentaries*, I. bol., 364. or.

Hartu kontuan Konstituzioak zenbait gai arautzeko eskubide eskusiboa Kongresuari eman ez dion kasuetan, estatuek egin dezaketela, hark gai horietaz arduratu nahi izan arte. Adibidez, Kongresuak bankarrotari buruzko lege orokorra egiteko eskubidea du, eta ez du egiten; estatu bakoitzak egin lezake bere erara. Gainerantzean, puntu hau auzitegietan eztabaidatu ondoren ezarri zen. Jurisprudentzi arlokoa baino ez da.

<sup>127</sup> Auzitegi honen ekintza zeharkakoa da, aurrerago ikusiko dugun bezala.

<sup>128</sup> *The Federalist*-ek bere 45. zk.an honela azaltzen du subiranotasunaren banaketa hau Batasunaren eta estatu partikularren artean: "Konstituzioak gobernu federalaren esku uzten dituen ahalmenak zehatzak dira, eta gutxi. Estatu partikularren esku utzitakoak, berriz, zehazgabeak dira, eta ugariak. Lehenengoak batez ere kanpo-arazoetan egikaritzen dira, adibidez, bakea, gerra, negoziazioak, merkataritza. Estatu partikularrek berenganaturiko ahalmenak arazoen ohiko martxari dagozkion guztiak dira, estatuko bizimodu, askatasun eta oparotasunari buruzkoak".

Obra honetan sarri izango dut *The Federalist* aipatzeko aukera. Gero Estatu Batuetako Konstituzio bihurtuko zen lege-proiektua artean bere onespenerako herriari aurkeztua zegoenean, jadanik ospetsu ziren eta geroztik areago izango ziren hiru gizon, John Jay, Hamilton eta Madison, elkartu ziren aurkezturiko proiektuaren abantailak nazioari ikusarazteko. Helburu honekin eta egunkari baten itxurapean artikulu-saila eman zuten argitara, guztien artean tratatu oso bat eratuz. *The Federalist* izena eman zioten beren aldizkariari, gero obra osoak ere gorde zuena.

Liburu ederra da *The Federalist*, eta, bereziki Amerikari buruzkoa izan arren, herrialde guztietako estatu-jendeak ezagutu beharko luke.

<sup>129</sup> Ikus Konstituzioa, VIII. sek.; *The Federalist*, 41. eta 42. zk.; *Kent's Commentaries*, I. bol., 207. or. eta hur.; Story, 358-382. orr.; *id.*, 409-426. orr.

<sup>130</sup> Badira oraindik mota horretako beste eskubide batzuk; esate baterako, bankarrotei buruzko lege orokorra egitekoa, asmakuntza-patenteak ematekoa... Nahikoa argi dago zergatik zen beharrezkoa Batasun osoaren eskuhartzea gai hauetan.

<sup>131</sup> Kasu honetan ere, zeharkakoa zen beraren eskuhartzea. Batasunak bere auzitegien bidez esku hartzen du, aurrerago ikusiko dugun bezala.

<sup>132</sup> Konstituzio federala, X. sek., 1. art.

<sup>133</sup> Konstituzioa, VIII., IX. eta X. sek. *The Federalist*, 30-36. zk., biak barne. *Id.*, 41, 42, 43, 44. *Kent's Commentaries*, I. bol., 207. eta 381. orr. Story *id.*, 329. eta 514. orr.

<sup>134</sup> Hamar urtero Kongresuak berriro finkatzen du estatu bakoitzak Ordezkarien Ganbarara bidali behar duen diputatu-kopurua. 1789an, 69koa zen kopuru osoa; 1833an, 240koa (*American Almanac*, 1834, 194. or.).

Konstituzioak ezarria zuen ez zela ordezkari bat baino gehiago izango 30.000 pertsonako; baina ez zuen mugarik ezarrita gutxiagori buruz. Kongresuari ez zitzaion iruditu ordezkari-kopurua gehitu egin behar zuenik biztanleriaren hazkundearen arabera. Gai honi buruzko lehen legearen bidez, 1792ko apirilaren 14koa (ikus *Laws of the United States*, Story-rena, I. bol., 235. or.), 33.000 biztanleko ordezkari bat izango zela erabaki zen. Azken legeak, 1832an emana, 48.000 biztanleko ordezkari bat ezarri zuen. Biztanleria ordezkaturia pertsona aske guztiek eta esklabuen arteko bostetik hiruk osatzen dute.

<sup>135</sup> Ikus *The Federalist*, 52-66. zk.ak, biak barne. Story, 199-314. orr. Konstituzioa, II. eta III. sek.

<sup>136</sup> *The Federalist*, 67-77. zk.ak, biak barne. Konstituzioa, 2. art. Story, 315. or., 515-780. orr. *Kent's Commentaries*, 255. or.

<sup>137</sup> Konstituzioan ez zegoen garbi ea lehendakaria beharturik zegoen Senatua kontsultatzera funtzionari federal bat kargutik kentzean edo kargurako izendatzean. *The Federalist*-ek bere 77. zk.an baiezkoaren alde zirudien; baina 1789an Kongresuak erabaki zuen, eta arrazoi guztiz gainera, lehendakaria erantzule zenez, ezin zutela behartu bere konfiantzakoak ez zituen agenteez baliatzera. Ikus *Kent's Commentaries*, I. bol., 289. or.

<sup>138</sup> Estatuak funtzionari hauei ordaindutako kopuruak 200.000.000 liberakoak dira urtero.

<sup>139</sup> Estatu Batuetan urtero argitaratzen da *National Calendar* deritzan almanake bat; funtzionari federal guztien izenak aurkitzen dira bertan. 1833ko *National Calendar*-etik atera dut hemen eman dudan zifra.

Esan dudan horretatik atera daitekeenez, Frantziako erregeak Estatu Batuetako lehendakariak baino hamaika aldiz lanpostu gehiago du, nahiz eta Frantziako biztanleria Batasunekoa halako bat et' erdi bakarrik izan.

<sup>140</sup> Kongresura bidaltzen zituen kideak beste. Hautesle-kopurua 1833ko hauteskundeetan 288koa izan zen (*The National Calendar*).

<sup>141</sup> Estatu bereko hautesleak bildu egiten dira; baina gobernu zentralaren egoitzara banakako botoen zerrenda bidaltzen dute, eta ez gehiengoaren botoaren emaitza.

<sup>142</sup> Zirkunstantzia honetan, estatuen gehiengoak erabakitzen du arazoa, eta ez kideen gehiengoak. Honela New Yorkek ez du eztabaidan Rhode Islandek baino eragin handiagorik. Lehenik Batasuneko hiritarrak kontsultatzen dira, herri bakar eta bera osatuko balute bezala; eta ados ezin badira jarri, orduan berpizten da estatukako banaketa, eta azken hauetako bakoitzari boto bereizi eta independentea ematen zaio.

Hau Konstituzio federalak duen beste bitxikerietako bat da, interes kontrajarrien elkarjotzeak bakarrik azal dezakeena.

<sup>143</sup> Jefferson, 1801ean, hogeita hamaseigarren bozketaren ondoren izendatu zuten.

<sup>144</sup> Ikus VI. kapitulua: *Botere Judiziala Estatu Batuetan*. Kapitulu honek amerikarren printzipio nagusiak ezagutarazten ditu justizi gaietan. Ikus halaber Konstituzio federala, 3. art.

Ikus *The Federalist*, 78-83. zk.ak, biak barne, *Constitutional law, being a view of the practice and jurisdiction of the courts of the United States, by Thomas Sergeant*.

Ikus Story, 134-162, 489-511, 581 eta 668. orr. Ikus 1789ko irailaren 24ko lege organikoa *Laws of the United States* bilduman, Story-rena, I. bol., 53. or.

<sup>145</sup> Lege federalek dute auzitegien beharrik handiena, eta hala ere beroriek dira gutxien ametitu dituztenak. Eta hau konfederaziorik gehienak estatu independenteek osatu dituztelako, gobernu zentralari obeditzeko benetako asmorik ez zutenak eta, agintzeko eskubidea ematen bazioten ere, desobeditzeko ahalmena arretaz beren esku gordetzen zutenak.

<sup>146</sup> Batasuna barrutitan banatu zen; barruti hauetako bakoitzean epaile federal bat ezarri zen iraunkorki. Epaile honek presidituriko auzitegia barrutiko auzitegia (*district court*) deitzen zen.

Gainera, Auzitegi Gorena osatzen zuten epaileetako bakoitzak errepublikako lurraldearen zati bat korritu behar zuen urtero, prozesurik garrantzitsuenetako batzuk



tokian-tokian erabaki ahal izateko. Magistratu honek presidituriko auzitegia zirkuitu-  
auzitegia (*circuit court*) deitzen zen.

Azkenik, arazorik larrienak, zuzenean edo apelazio bidez, Auzitegi Gorenera eraman  
behar ziren; beronen egoitzan zirkuitu-epaile guztiak elkartzen ziren urtean behin,  
bilkura handi bat egiteko.

Epaimahai-sistema auzitegi federaletan estatu-auzitegietan bezalaxe sartu zen, eta  
antzeko kasuetarako.

Ikus daitekeenez, ia ez dago analogiarik Estatu Batuetako Auzitegi Gorenaren eta gure  
Kasazioko Auzitegiaren artean. Auzitegi Gorenera lehen instantzian jo daiteke, eta  
Kasazioko Auzitegira bigarren edo hirugarren mailan bakarrik. Auzitegi Gorenak,  
Kasazioko Auzitegiak bezalaxe, auzitegi bakarra osatzen du, jurisprudentzia uniformea  
ezartzeko ardura duena; baina Auzitegi Gorenak epaitzen du bai egitatea, bai  
zuzenbidea, eta *hark berak* erabakitzen du, beste auzitegi batera bidali gabe; bi gauza  
hauek ezin ditu Kasazioko Auzitegiak egin.

Ikus 1789ko irailaren 24ko lege organikoa, *Laws of the United States*, Story-rena, I.  
bol., 53. or.

<sup>147</sup> Gainerantzean, eta eskuduntza-prozesu hauek hain sarri ez egiteko, prozesu federal  
askotan estatu partikularretako auzitegiek Batasuneko auzitegiekin batera erabakitze  
esku bidea izango zutela erabaki zen; baina honela alderdi kondenatuak beti izango zuen  
Estatu Batuetako Auzitegi Gorenera jotzeko ahalmena. Virginiako Auzitegi Gorenak  
zalantzan jarri zuen beraren epaiekiko apelazioak juzgatzeko eskubiderik zuenik Estatu  
Batuetako Auzitegi Gorenak, baina alferrik izan zen. Ikus *Kent's Commentaries*, I. bol.,  
300, 370 eta hur. orr. Ikus *Story's Comm.*, 646. or., eta 1789ko lege organikoa, *Laws of  
the United States*, I. bol., 53. or.

<sup>148</sup> Halaber, Konstituzioak dio estatu baten eta beste estatu bateko hiritarren artean sor  
litezkeen auzietan auzitegi federalak izango direla eskudun. Laster sortu zen jakin  
beharra ea Konstituzioak hori esatean estatu baten eta beste estatu bateko hiritarren  
arteana sor litezkeen prozesu guzti-guztiek esan ote zuen, batzuk nahiz besteak izan *auzi-  
jartzaileak*. Auzitegi Gorenak baietz erabaki zuen; baina erabaki honek izutu egin zituen  
estatu partikularrak, beldur baitziren, beren gogoz kontra eta edozein xederekin, justizia  
federalaren aurrera eramango ote zituzten. Beraz, zuzenketa bat sartu zen Konstituzioan,  
eta beronen arabera Batasuneko botere judiziala ezin zen estatuetakoren baten kontra  
beste bateko hiritarrek *inkoaturiko* prozesuak epaitzeraino hedatu. Ikus *Story's  
Commentaries*, 624. or.

<sup>149</sup> Adibidez, itsas lapurretako egintza guztiak.

<sup>150</sup> Printzipio honi murriztapen batzuk ezarri zaizkio estatu partikularrak botere  
independente gisa Senatuan sartuz, eta lehendakaria hautatzerakoan Ordezkarien  
Ganbaran bananduta bozkaraziz; baina hauek salbuespenak dira. Kontrako printzipioa  
da nagusi.

<sup>151</sup> Oso garbi dago, dio Mr. Storyk 503. or.an, alderdien asmoa -kontratuan dauden  
estipulazioetan agertzen den bezala- edozein erataria hedatzen, murrizten edo aldatzen  
duen lege orok kontratu hau aldatzen duela (*impairs*). Autore berak leku berean arretaz  
zehazten du jurisprudentzia federalak nola ulertzen duen kontratua. Definizioa oso  
zabala da. Estatuak partikular bati egindako emakida eta honek onartua kontratua da, eta  
ezin da lege berri baten eraginez ezabatu. Estatuak konpainia bati emandako karta  
kontratua da, eta lege da bai Estatuarentzat, baita kontzesiodunarentzat ere. Aipagai  
dugun konstituzio-artikuluak, beraz, *esku bide lortu*etako askoren izatea bermatzen du,  
baina ez guztiena. Nik eduki dezaket jabetza bat lege osoz, nire eskuetara kontratu bidez

iritsia izan gabe. Beronen edukitza eskubide lortua da niretzat, eta eskubide hau ez du Konstituzio federalak bermatzen.

152 Hona hemen Mr. Storyk 508. or. an aipaturiko adibide azpimarragarri bat. New Hampshireko Dartmouth College delakoa Amerikako iraultza baino lehen zenbait emandako karta baten bidez eratu zen. Karta horren arabera, beraren administratzaileek gorputz eratu bat -edo esaera amerikarrari jarraituz, *corporation* bat- osatzen zuten. New Hampshireko legistaturari beharrezkoa iruditu zitzaion jatorrizko kartako terminoak aldatzea eta administratzaile berriei eskualdatu zizkien karta haren emaitza ziren eskubide, pribilegio eta frankizia guztiak. Aurreko administratzaileak kontra jarri ziren eta auzitegi federalera jo zuten; honek arrazoi eman zien, jatorrizko karta Estatuaren eta kontzesiodunen arteko benetako kontratua zenez, lege berriak ezin baitzituen kartaren xedapenak aldatu, kontratu bidez lorturiko eskubideak hautsi gabe, eta, beraz, Estatu Batuetako Konstituzioaren X. sekzioko 1. artikulua hautsi gabe.

153 Ikus *Botere judiziala Estatu Batuetan* izenburua duen kapitulua.

154 Ikus *Kent's Commentaries*, I. bol., 387. or.

155 Garai hartan, Alexandre Hamilton ospetsuak, Konstituzioa egiterakoan eraginik handiena izan zutenetako batek, ondorengo hau argitaratzen zuen beldurgabe *The Federalist*-en, 71. zk. an:

"Badakit, esaten zuen, badela jendea, zeinen gomendiorik onena botere exekutiboarentzat herriaren edo legistaturaren nahietara morrontzaz makurtzea izango litzatekeen; baina iruditzen zait horrelako horiek oso ideia traketsak dituztela gobernu ororen xedari buruz, baita oparotasun publikoa eragiteko benetako bideei buruz ere.

"Herriaren iritziek, arrazoituak eta helduak direnean, beraren arazoez arduratzen direnen jokabidea gidatzea errepublika-egoera ezartzearen ondorio da; baina printzipio errepublikarrek ez dute edozein herri-grinaldiren menpe egotea eskatzen, ezta jendearen momentuko bulkada guztiak -jende horrek, bere interesak traizionatzeko, aurriritziak lausengatuz esku maltzurretatik har litzakeen bulkadak- lasterka betetzea ere.

"Egia da herriak, normalean behintzat, on publikoa bakarrik lortu nahi izaten duela; baina sarritan huts egiten du berorren bila. Oparotasun nazionala lortzeko erabili beharreko baliabideak beti burutsu epaitzen dituela esango balitzaio, beraren zentzuak berehala mesprezaraziko litzioke horrelako lausenguak, bai baitaki esperientziaz huts egiten duela batzuetan. Eta sarriagotan ez huts egitea da harrigarriena, beti baitago bizkarroi eta sikofanteen azpikeriez pertsegitua, pertsona gutziatsu eta baliabidegabeek etengabe jartzen dizkieten lakioez inguratua, bere konfiantza merezi gabe daukatenean edo konfiantza horretarako duin bihurtu baino eduki nahiago dutenen amarrukeriengatik etengabe desengainatua.

"Herriaren benetako interesak bere nahien aurkakoak direnean, interes horiek onik gordetzeko ardura duten guztien eginkizuna, momentuz herriak jasaten duen hutsegiteari aurpegi ematea da, bere egoeraz ohartzeko eta gauzei hotz-hotzean aurre egiteko astia izan dezan. Honela, bere hutsegiteen ondorio lazgarrietatik salbaturik, sarritan gertatu izan da herriak eskerronezko oroitarriak eraiki dizkiela, bera zerbitzatzearren desatsegin izatera arriskatzeko adore ikaragarria izan zutenei".

156 Hauxe gertatu zen greziarren artean Filiporen garaian, printze honek anifikzioen dekretua betearazi zuenean. Hauxe gertatu da Herbeheretako Errepublikan, non Holandako probintziak egin izan duen beti legea. Gauza bera gertatzen da gaur egun gorputz germaniarrean. Austria eta Prusia Dietaren agente bihurtzen dira eta beronen izenean konfederazio osoa menperatzen dute.

157 Honela izan da beti konfederazio suitzarrean. Aspaldiko mendeotan Suitza ez zatekeen existituko bere auzokoen jelsiarik gabe.

158 Ez naiz hemen errepublika txikien konfederazioaz ari, errepublika handi finkatu batez baizik.

159 Ikus 1824ko Konstituzio mexikarra.

160 Adibidez, Konstituzioak Batasunari eman dio lur erabili gabeak bere kontura saltzeko eskubidea. Demagun Ohiok eskubide berau erreibindikatzan duela bere mugen barnekoentzat -Konstituzioa oraindik inolako estatu-jurisdikziopean ez dagoen lurraldeaz bakarrik ari dela alegatuz-, eta ondorioz berak saldu nahi dituela. Egia esateko, arazo judiziala, beren titulua Batasunetik daukaten eskuratzailen eta estatutik daukatenen artean planteiatuko litzateke, eta ez Batasunaren eta Ohioren artean. Baina Estatu Batuetako auzitegiak jabetza eskuratzailer federalari emateko aginduko balu, eta Ohioko auzitegiek bere ondasunetan mantenduko balute lehiakidea, zer bilakatuko litzateke orduan fikzio legala?

161 *Kent's Commentaries*, I. bol., 244. or. Ohar zaitezte gorago aipaturiko adibidea egungo Konstituzioa ezarri ondorengo garaietatik aukeratu dudala. Lehen konfederazioko garaira jo nahi izan banu, are gertakari biribilagoak hartuko nituzkeen. Orduan benetako gogoberotasuna zen nazioan nagusi; gizon herrikoi-herrikoi bat zen iraultzaren ordezkari, eta, hala ere, garai hartan Kongresuak ez zuen, garbi esanda, ezer bere esku. Jendea eta dirua falta zitzaizkion beti; ongien asmatutako planek huts egiten zioten betetzerakoan, eta Batasuna, beti galtzorian, etsaien ahuleziagatik gehiago salbatu zen bere indarragatik baino.

162 Washingtoneko meridianuari jarraituz luzerako 20. gradua bat dator gutxi gorabehera Pariseko meridianuari jarraituz dagoen 99. arekin.

163 Urtero aukeraturiko ofizialak dira, beren eginkizunengatik aldi berean Frantziako landazainaren eta polizia judizialeko ofizialaren antza dutenak.

164 Ikus *Mémoires pour servir à l'histoire du droit public de la France en matière d'impôts*, 654. or., 1779an Brusselan inprimatua.

165 Ez dute egunkarietan idazten herriagana zuzendu eta beren buruaren izenean hitz egin nahi duten kasu bakanetan izan ezik. Esate baterako, beraiekiko gauza iraingarriak egotzi eta zabaldu direnean eta egitatei buruzko egia ezarri nahi dutenean.

166 Hala ere, ez dakit uste zuhur eta bere buruaren jabe den honek inoiz jaso ote dezakeen gizakia sineskizun dogmatikoek sortarazten duten bihotz-berotasun eta debozio-mailaraino.

167 Madison-i gutuna, 1787ko abenduaren 20koa, M. Conseil-en itzulpena.

168 Hemen *magistratu* hitzari bere adierarik hedatuena ematen diot: legeak betearazteko ardura duten guztiei aplikatzen diet.

169 Ikus 1813ko otsailaren 27ko legea. Massachusettseko legeen bilduma orokorra, II. bol., 331. or. Esan behar da ondoren epaimahaikoak zozketaz ateratzen direla zerrendetatik.

170 1787ko otsailaren 28ko legea. Ikus Massachusettseko legeen bilduma orokorra, I. bol., 302. or.

Hona hemen testua:

"Udalerrri bakoitzeko *selectmen*-ek tabernari, ostalari eta txikizkako saltzaileen establezimenduetan mozkorti, jokozale eta beren denbora eta ondasunak honelako lekuetan galtzeko aztura duten pertsonen zerrenda jarraraziko dute; eta ohartarazpen honen ondoren, pertsona horiei bere establezimenduan edaten edo jokoan aritzen uzten dien jabeak, edota edari hordigarriak saltzen dizkienak, isunak jasan beharko ditu".

171 Ez dago esan beharrik herri bati, eta ez tribu txiki bati, aplikaturiko gobernu demokratikoaz ari naizela hemen.

172 Ulertu behar da *behartsu* hitzak hemen, kapituluaren gainerakoan bezalaxe, zentzu erlatiboa duela eta ez esangura absolutua. Amerikako behartsuek, Europakoan aldean, aberats-itzura izan lezakete. Hala ere, bidezkoa da behartsu deitzea, aberatsago diren herrikideekin konparatzen direnean.

173 Bigarren mailako funtzionarioek Estatu Batuetan bizi duten aisetasunak badu oraindik beste kausa bat; hau arrotz zaie demokraziaren instintu orokorrei. Karrera pribatu oro oso emankorra da; Estatuak ez luke bigarren mailako funtzionarioik aurkituko ongi ordaintzea onartuko ez balu. Beraz, enpresa komertzial baten egoeran dago, bere ekonomi gustuak gora-behera, konkurrentzia astun bati aurre egitera behartua.

174 Ohioko estatuak, milioi bat biztanle dituelarik, ez dio gobernariari 1.200 dolar edo 6.504 liberako soldata baino ematen.

175 Egia hau nabariarazteko, aski da gobernu federalaren agenteetako batzuen soldatak aztertzea. Iruditu zait beharrezkoa zela antzerako funtzioei Frantzian dagokien soldata agerian jartzea, konparazioa argigarriagoa izan dadin irakurlearentzat.

#### ESTATU BATUAK

##### FINANTZA-MINISTERIOA

(Treasury Department)

Mandataria (*messenger*) 3.734 libera

Soldatarik txikieneko

enplegatua 5.420 "

Soldatarik handieneko

enplegatua 8.672 "

Idazkari Nagusia

(*chief clerk*) 10.840 "

Ministroa

(*secretary of state*) 32.520 "

Gobernu-burua

(lehendakaria) 135.000 "

#### FRANTZIA

##### FINANTZA-MINISTERIOA

Ministroaren mandataria 1.500 libera

Soldatarik txikieneko

enplegatua 1.000-1.800 "

Soldatarik handieneko

enplegatua 3.200-3.600 "

Idazkari Nagusia 20.000 libera

Ministroa 82.000 "

Gobernu-burua

(erregea) 12.000.000 "

Agian oker jokatu dut Frantzia konparazio-puntutzat hartzean. Frantzian, non instintu demokratikoak gero eta gehiago ari baitira sartzen gobernuan, dagoeneko joera bizia sumatzen da Ganbarek soldata txikiak igo eta, batez ere, handiak jaitz ditzaten. Honela, finantza-ministroak 1834an 80.000 libera hartzen baditu, Inperioaren garaian 160.000; finantza-zuzendari nagusiek, orain 20.000 hartzen dituztenak, orduan 50.000 kobratzen zituzten.

176 Ikus beste batzuen artean, aurrekontu amerikarretan, zer kostatzen den behartsuen mantenua eta doako hezkuntza.

1831n, New Yorkeko estatuan, 1.200.000 liberako kopurua gastatu da behartsuen mantenuan. Eta hezkuntza publikora bideraturiko zenbatekoa gutxienez 5.420.000 liberakoa izango dela kalkulatu da (*William's New York Annual Register*, 1832, 205. eta 243. orr.).

New Yorkeko estatuak 1.900.000 biztanle bakarrik zituen 1830ean, eta hau ez da Ipar Departamentuko biztanleriaren bi halako ere.

177 Ikusten denez, amerikarrek lau motatako aurrekontuak dituzte: Batasunak berea du; estatuak, konderriak eta udalerriak ere bakoitzak berea. Amerikan egindako egonaldian, ikerlan handiak egin ditut Batasuneko estatu nagusienetako udalerri eta konderrietako gastu publikoen zenbatekoa jakiteko. Erraz lortu ahal izan ditut udalerri handienetako aurrekontuak, baina ezinezkoa izan zait txikietakoak eskuratzea. Ezin dut, beraz, udal-gastuen ideia zehatzik egin. Konderrietako gastuei dagokienez, baditut dokumentu batzuk, osagabeak izan arren, agian merezi dutenak irakurlearen jakinmina. Filadelfiako alkate izan zen Mr. Richard-en jatoriasunari zor diot Pennsylvaniako hamahiru konderrietako aurrekontuak izatea, 1830. urtekoak. Libanon, Centre, Franklin, La Fayette, Montgomery, La Luzerne, Dauphin, Buttle, Alleghany, Columbia, Northumberland, Northampton eta Filadelfiakoak dira. 1830. urtean 495.207 biztanle zeuden horietan. Pennsylvaniako mapari begiratu bat emanez gero, ikusten da hamahiru konderri horiek alde guztietan sakabanaturik daudela eta herrialdeko egoeran eragin dezaketen kausa orokor guztien menpe; beraz, ezinezkoa litzateke esatea zergatik ez luketen emango Pennsylvaniako konderrien finantza-egoeraren berri zehatza. Nolanahi ere, konderri hauek berauek 1830. urtean 1.808.221 libera gastatu dituzte, hau da, 3,64 libera biztanleko. Kalkulatu dut biztanle horietako bakoitzak batasun federalaren beharretara 12,70 libera bideratu dituela, eta 3,80 libera Pennsylvaniakoetara; eta hortik ateratzen denez hiritar horiek 1830. urtean 20,14 libera eman zizkioten gizarteari gastu publiko guztietarako (udal-gastuetarako izan ezik). Ikusten denez, emaitza hau bi aldetatik da osagabea: urte bakar batekoa delako, eta karga publikoen zati bati bakarrik dagokiolarako, baina fidagarria izatearen meritua du.

178 Amerikarren gastuen eta gureen artean paralelotasuna ezarri nahi izan dutenak ongi ohartu dira ezinezkoa zela Frantziako gastu publikoen guztizkoa Batasuneko gastu publikoen guztizkoarekin konparatzea; baina gastu horietako zati solteak konparatzen saiatu dira. Erraza da frogatzea bigarren jokaera honek ez dituela lehenak baino akats gutxiago.

Zerekin konparatuko dut, adibidez, gure aurrekontu nazionala? Batasuneko aurrekontuarekin? Baina Batasuna gure gobernu zentrala baino askoz gauza gutxiagoz arduratzen da, eta normala da haren kargak askoz txikiagoak izatea. Gure departamentu-aurrekontuak, Batasuna osatzen duten estatu partikularretako aurrekontuekin alderatuko ote ditut? Baina, oro har, estatu partikularrak gure departamentuetako administrazioa baino interes garrantzitsuago eta ugariagoz arduratzen dira; normala da, beraz, haien gastuak dezent handiagoak izatea. Konderrietako aurrekontuei dagokienez, gure finantza-sisteman ez dago ezer haien antzekorik; eta gastu horiek estatuko aurrekontuan ala udalerrietakoan sarraraziko ote ditugu? Udal-gastuak bi herrialdeetan daude, baina ez dira beti analogoak. Amerikan udala arduratzen da, Frantzian departamentuaren edo estatuaren esku uzten diren zenbait gauzaz. Bestalde, zer ulertu behar da Amerikan udal-gastuak aipatzean? Udal-antolamendua ezberdina da estatuen arabera. Ingalaterra Berrian ala Georgian, Pennsylvanian ala Illinoisko estatuan gertatzen dena hartuko dugu arautzat?

Bi herrialdeetako zenbait aurrekonturen artean nolabaiteko analogia ohartzea erraza da; baina horien osagaiak, gehixeago edo gutxiago, beti izanik ezberdinak, ezin da horien artean konparazio seriorik egin.

<sup>179</sup> Hiritar frantses edo amerikar bakoitzak altxortegi publikoari zenbat ematen dion zehazki jakitera iritsita ere, ez genuke egiaren zati bat baino izango.

Gobernuek ez diote zergadunari dirua bakarrik eskatzen, baita dirutan balora daitezkeen ahalegin pertsonalak ere. Estatuak armada eratzen du; nazio osoak ordaindu behar izaten duen soldataz gain, gainera soldaduak bere denbora jarri behar izaten du, balio handiago edo txikiagoa duena, libre egongo balitz denbora horretaz egingo lukeen erabileraren arabera. Beste horrenbeste esango dut milizi zerbitzuaz. Miliziako partaide denak aldi batez oso denbora baliotsua eskaintzen dio segurtasun publikoari, eta benetan Estatuari ematen dio berak hartu gabe uzten duena. Adibide hauek aipatu ditut, baina beste asko ere aipa nitzakeen. Honelako zergak ezartzen dituzte Frantziako gobernuak eta Amerikakoak; zerga hauek hiritarrak zamatzen dituzte, baina nork balora dezake zehazki horien kopurua bi herrialdeetan?

Ez da hau aurkitzen den azken zailtasuna Batasuneko gastu publikoak eta gureak konparatu nahi direnean. Estatuak baditu Frantzia Amerikan hartzen ez dituen eginbehar batzuk, eta alderantziz. Gobernu frantsesak kleroa ordaintzen du; gobernu amerikarrak fededunei uzten die ardura hau. Amerikan Estatu arduratzen da behartsuez; Frantzia jendearen karitatearen menpe uzten dira. Guk soldata finkoa ordaintzen diegu geure funtzionari guztiei; amerikarrek zenbait eskubidez jabetzea onartzen diete. Frantzia, prestazio pertsonalak errepide gutxi batzuetan bakarrik egiten dira; Estatu Batuetan, bide gehientsuenetan. Gure bideak zabalik daude bidaiarientzat, eta ezer ordaindu gabe ibil daitezke horietan; Estatu Batuetan errepide askotan bidesaria ordaindu beharra dago. Zergadunak gizarteko kargak ordaintzeko duen erari buruzko diferentzia hauek guztiek oso zail bihurtzen dute konparazioa bi herrialdeon artean; bai baitaude gastu batzuk hiritarrek egingo ez lituzketenak edo txikiagoak izango liratekeenak, Estatu ez balitz arduratuko berorien izenean jarduteaz.

<sup>180</sup> Ikus Frantziako Itsas Armadako Ministerioaren aurrekontu xehekatuak, eta, Amerikaren kasuan, 1833ko *National Calendar*, 228. or.

<sup>181</sup> Bitxienetako bat, nire iritziz, aldi batez tea hartzeari uko egiteko amerikarrek hartu zuten erabakia izan zen. Gizakia, oro har, bere azturei biziari baino atxikiago egoten dela dakitenak harritu egingo dira, zalantzarik gabe, herri osoarengandik lortutako sakrifizio handi eta ilun harengatik.

<sup>182</sup> "Lehendakariak egingo ditu itunak Senatuaren aholkularitza eta adostasunarekin", dio Konstituzioak, 2. art., II. sek., 2. paragr. Irakurleak ez du ahaztu behar senadoreen agintaldiak sei urte irauten duela, eta estatu bakoitzeko legegileek aukeratzen dituztelarik, bi mailatako hautaketaren emaitza direla.

<sup>183</sup> Ikus *Vie de Washington*-en bosgarren bolumena, Marshall-ek idatzia. "Estatu Batuetakoa bezala eratutako gobernu batean, dio 314. or. an, lehen magistratuak ezin dio, edozelakoa izanik ere bere irmotasuna, luzaroan dikerik jarri herri-iritziaren uholdeari; eta orduan nagusi zen iritziak gerraren aldekoa zela ematen zuen". Izan ere, garai hartan Kongresuan egindako bilkuran, oso sarri ikusi zen Washingtonek galdua zuela gehiengo Ordezkarien Ganbaran. Handik kanpo, haren kontrako hizkeraren gogortasuna ikaragarria zen: bilera politiko batean, beldurrik gabe konparatu zuten, zeharka bederen, Arnold traidorearekin (265. or.). "Oposizioko alderdian zeudenek, dio Marshall-ek (353. or.), esaten zuten administrazioaren aldekoek Ingalaterraren menpeko fakzio aristokratiko bat osatzen zutela, eta, honek monarkia ezarri nahi zuenez, Frantziaren etsai zela, beraz; fakzio horretako kideek halako nobleria bat osatzen zuten,

titulutzat Bankako akzioak zituena, eta diru hauetan eragin zezakeen neurri orori hainbestearinokoxe beldurra zionez, ez zitzaizkion batere axola irainak, nahiz eta nazioaren ohore eta interesak hauek errefusatzeari eskatu".

184 Neurritasun-elkarteetako kideak edari bizirik ez hartzera konprometitzen dira. Estatu Batuetan ibili nintzen garaian, neurritasun-elkarte hauek 270.000 kide baino gehiago zituzten jadanik, eta beraien ondorioa izan zen, Pennsylvaniako estatuan bakarrik, urtean 500.000 galoitan gutxitzea edari bizien kontsumoa.

185 Jadanik gauza bera ohartu zen Erroman ere lehen Zesarren menpe. Montesquieuk esaten du nonbait, politika-bizitzako astinaldien ondoren bat-batean bizitza pribatuaren lasaitasunera itzultzean zenbait hiritar erromatarrek sentitzen zuen etsipenak ez zuela parekorik.

186 Konstituzio federala aztertzerakoan ikusi dugu Batasuneko legegileek kontrako ahaleginak egin zituztela. Ahalegin hauen emaitza, gobernu federala bere esparruan estatuetakoa baino independenteago bihurtzea izan zen. Baina gobernu federala kanpo-arazoez bakarrik arduratzen da ia; estatuetako gobernuak dira gizarte amerikarra benetan gidatzen dutenak.

187 Massachusettseko estatuan bakarrik promulgaturiko legegintza-aktek, 1780tik gaur arte, dagoeneko hiru bolumen sendo betetzen dituzte. Hala ere, esan behar da aipatzen ari naizen bilduma 1823an berrikusia izan zela, eta antzinako lege edo jadanik mamirik ez zuen asko baztertu zela. Nolanahi ere, Massachusettseko estatua, gure edozein departamentu baino jendeztatuago ez dagoena, Batasuneko egonkorrena dela pentsa daiteke, eta bere eginkizunetan jarraipenik eta zuhertasunik handiena jartzen duena.

188 Inork ez luke esan nahiko herri batek ezin duenik indarraz abusatu beste herri baten aurrean. Nolanahi ere, alderdiak beste hainbat nazio txiki bezala dira handi baten barnean; atzerritarrenak bezalako harremanak dituzte beren artean.

Eta onartzen bada nazio bat tiranikoa izan daitekeela beste batekiko, nola ukatu alderdi bat ere halakoa izan daitekeela beste batekiko?

189 1812ko gerran Baltimoren ikusi zen gehiengoaren despotismoak eragin litzakeen gehiegikerien adibide nabari bat. Garai hartan gerra oso herrikoia zen Baltimoren. Oso kontra zegoen egunkari batek hiritarren amorrua sortu zuen bere jokaeraz. Herria bildu egin zen, inprimategiak apurtu eta kazetarien etxeari eraso zion. Miliziarik deitu zitzaion, baina honek ez zion deiari erantzun. Herri suminduak mehatxupean zeuzkan dohakabeak onik ateratzeko, presondegira eramatea aukeratu zuten, kriminalak bezalaxe. Neurri hau alferrikakoa izan zen. Gauean herria berriro elkartu zen; milizia biltzeko ahaleginetan magistratuek porrot egin zuten, herritarrek bortxatu egin zuten presondegia, kazetarietako bat hantxe bertan hil zuten eta besteak hiltzorian gelditu ziren. Errudunak, epaimahaiaren aurrera eramanez, absolbitu egin zituzten.

Egun batean esan nion nik Pennsylvaniako bati: "Esplika iezadazu, mesedez, kuakeroek sortu zuten eta bere tolerantziagatik ospetsua den estatu batean zergatik ez zaien beltz emantzipatuei hiritarren eskubideak erabiltzen uzten. Zergak ordaintzen badituzte, ez al da bidezkoa botoa eman dezaten? -Ez gaitzazu iraindu, erantzun zidan, gure legegileek bidegabekeria eta intolerantziatzeko hain ekintza zabarra egin dutela pentsatuz. -Hortaz, zuen artean, beltzek badute botoa emateko eskubidea? -Inolako zalantzarik gabe. -Orduan, nola ulertzen da gaur goizean hautes-kolegioan nik bakar bat ere ez ikusi izana batzarrean? -Hori ez da legearen errua, esan zidan amerikarrak; egia da beltzek badutela hauteskundeetara aurkezteko eskubidea, baina beren gogoz abstenitzen dira horietan agertzeaz. -Hori bai dela modestia beraien aldetik. -Oi! Ez diote beraiek uko egiten joateari, baina beldur dira tratatu txarra emango ote zaien. Gure artean batzuetan gertatzen da legeak ez duela indarrik, gehiengoak bultzatzen ez badu. Nolanahi ere, gehiengoak

aurritzi handiak ditu beltzen aurka eta magistratuek ez dute indarririk sentitzen horiei legegileak eman dizkien eskubideak garantizatzeko. -Horra hor! Gehiengoak, legea egiteko pribilegioa duenari, legegileari desobeditzekoa ere eduki nahi du?"

<sup>190</sup> Boterea batzar batean zentralizatua egon daiteke; orduan indartsua izaten da, baina ez egonkorra; gizon batengan ere egon daiteke zentralizatua: orduan ez da hain indartsua izaten, baina bai egonkorragoa.

<sup>191</sup> Alferrikakoa da, nire ustez, hemen irakurleari esatea, kapituluaren gainerako guztian bezalaxe, ez naizela ari gobernu federalaz, estatu bakoitzeko gobernu partikularrez baizik, gehiengoak despotikoki gidatzen dituen horietaz.

<sup>192</sup> Jeffersonek Madisoni bidalitako gutuna, 1789ko martxoaren 15ean.

<sup>193</sup> Ikus lehen zatian botere judizialaz diodana.

<sup>194</sup> Gauza onuragarri eta bitxia litzateke epaimahaia erakunde judizialtzat hartzea, Estatu Batuetan eragiten dituen ondorioak baloratzea eta horretaz amerikarrak nola baliatu diren ikertzea. Arazo honen azterketa bakarrik aski gai litzateke liburu oso baterako, eta liburu interesgarria litzateke Frantziarentzat. Adibidez, epaimahaiari buruzko erakunde amerikarretatik gure artean zein sar ote litekeen ikertuko litzateke, eta zelako mailaraino. Gai honetaz argi gehien eman lezakeen estatu amerikarra Louisianako estatua litzateke. Louisianak frantses eta ingelesez nahasketazko biztanleria du bere baitan. Bi legeriak aurkitzen dira han bi herriak bezalaxe, eta pixkana-pixkana bata bestearekin elkartzen ari dira. Kontsulta-liburu interesgarria Louisianako lege-bilduma litzateke bi bolumenetan: *Digeste des lois de la Louisiane*; eta agian are gehiago prozedura zibileko eskuliburu bat, bi hizkuntzetan idatzia; izenburua: *Traité sur les règles des actions civiles*, 1830ean Orleans Berrian inprimatua, Buisson-en inprimategian. Abantaila berezia du obra honek; lege-termino ingelesez azalpen zehatz eta egiazkoa ematen die frantsesei. Lege-hizkera aparteko hizkera bat bezala izaten da herri guztietan, eta ingelesez artean beste inon baino gehiago.

<sup>195</sup> Legelari ingeles eta amerikar guztiak bat datoz puntu honetan. Mr. Storyk, Estatu Batuetako Auzitegi Gorenean epaile dena, Konstituzio federalari buruzko bere tratatu ederrean, epaimahaiaren erakundearen bikaintasuna azpimarratzen du arlo zibilean: "*The inestimable privilege of a trial by Jury in civil cases, dio berak, a privilege scarcely inferior to that in criminal cases, which is conceded by all persons to be essential to political and civil liberty*". (Story, III. lib., XXXVIII. kap.).

<sup>196</sup> Erakunde judizial bezala, epaimahaiaren onura zein den ezarri nahi balitz, beste argudio asko legoke emateko, eta beste batzuen artean hauek:

Auzietan epaimahaiak sartzen diren neurrian, epaileen kopurua gutxitu egin daiteke eragozpenik gabe, eta hau abantaila handia da. Epaileak oso ugari direnean, heriotzak egunero hutsune bat uzten du hierarkia judizialean, eta postu berriak zabaltzen ditu bizirik dirautenentzat. Hortaz, magistratuen gutizia erne egoten da etengabe, eta gehiengoaren edo postu huts horietarako izendapenak egiten dituenaren menpe egonarazten ditu halaberrez. Orduan, armadan graduak irabazten diren bezalaxe egiten da gora epaitegietan. Gauzen egoera hau justiziaren administrazio onaren eta legegilearen asmoen kontrakoa da zeharo. Epaileak mugiezinak izatea nahi da, aske izan daitezen; baina zer axola dio inork ezin kendu izatea independentzia hori, haiek beren gogoz sakrifikatzen badute.

Epaileak oso ugari direnean, ezinezkoa da ez aurkitzea haien artean ezgai diren asko, zeren eta magistratu handi bat ez baita gizon arrunta. Nolanahi ere, nolahalako prestakuntza duen auzitegi bat ez dakit ez ote den konbinaziorik txarrena, justizi auzitegiak ezartzean lortu nahi diren helburuetara iristeko.



Niri dagokidanez, nahiago nuke prozesu baten erabakia magistratu iaio batek gidaturiko epaimahaiko ezjakinen esku utzi epaile batzuen esku utzi baino, hauetako gehienek jurisprudentziaren eta legeen ezagutza osagabea bakarrik baldin badute.

197 Hala ere, garrantzizko ohar bat egin behar da:

Egia da epaimahaiaren erakundeak herritarren ekintzak kontrolatzeko eskubide orokorra ematen diola herriari, baina ez dizkio ematen kontrol hori zertzeko baliabideak, ez kasu guztietan, ezta beti tiranikoa den eran ere.

Printze absolutu batek krimenak bere delegatuen bidez epaiarazteko ahalmena duenean, akusatuaren zoria aurrez finkatua dago, nolabait esateko. Baina herria kondenatzeko prest balego ere, epaimahaiaren osaerak eta honen erantzukizun-ezak beti sortuko lukete errugabetasunaren aldeko aukerarik.

198 Hau ere egiagoa izaten da epaimahaia arazo kriminal jakin batzuei bakarrik aplikatzen zaienean.

199 Epaile federalek ia beti berek bakarrik erabakitzen dituzte herrialdeko gobernuari hurbil-hurbiletik dagozkion arazoak.

200 Amerikak ez du oraindik hiriburu handirik, baina dagoeneko baditu oso hiri handiak. 1830ean Filadelfiak 161.000 biztanle zituen, eta New Yorkek 202.000. Hiri handi hauetan bizi den herri xehea Europakoa baino ere jendaila arriskutsuagoa da. Lehenik beltz emantzipatuek osatzen dute, legeak eta iritzi publikoak herentziazko degradazio eta lazeri egoerara kondenatzen dituztenak. Halaber, hiri horien baitan europar-multzo bat ere aurkitzen da, zoritxarrak eta jokabide gaiztoak egunero Mundu Berriko itsasertzetara bultzatzen dutena; jende honek gure biziorik handienak eramaten ditu Estatu Batuetara, eta bizio horien eraginaren kontra borroka egin lezaketen interesetako bakar bat ere ez du. Herrialde hartan bizi direlarik bertako hiritar izan gabe, prest daude hura asaldatzen duten grina guztietatik onura ateratzeko; honela, garai batetik hona iskanbila gogorrek ikusi ditugu Filadelfian eta New Yorken. Antzerako istilurik ez da ezagutzen herrialdearen gainerakoan, non ez diren horretaz batere kezkatzen, hirietako jendeak ez baitu orain arte inolako botererik eta eraginik izan landatarraren gain.

Hala ere, zenbait hiri amerikarren handitasuna, eta batez ere haietako biztanleen izaera, benetan arriskutsua iruditzen zait, Mundu Berriko errepublika demokratikoen etorkizuna mehatxatzen duena; eta ausartzen naiz iragartzera horrek galbideratuko dituela, haien gobernuak ez badu behintzat indar armaturen bat sortzen, gehiengo nazionalaren borondatearen menpe egon arren, hirietako jendeagandik independente izan eta honen gehiegikeriak erreprimitzeko gai dena.

201 Ingalaterra Berrian lurzorua oso jabari txikietan dago banatua, baina jadanik ez da geiago zatitzen.

202 Hona hemen 1831ko abuztuaren 23ko *New York Spectator* delakoak nola ematen duen gertakaria: *"The court of common pleas of Chester county (New York) a few days since rejected a witness who declared his disbelief in the existence of God. The presiding judge remarked that he had not before been aware that there was a man living who did not believe in the existence of God; that this belief constituted the sanction of all testimony in a court of justice and that he knew of no case in a christian country where a witness had been permitted to testify without such a belief"*.

203 Ez bazaie, behintzat, izen hori ematen haien arteko askok eskoletan betetzen dituzten funtzioei. Hezkuntzaren zatirik handiena kleroaren esku dago.

204 Ikus New Yorkeko Konstituzioa, 7. art., 4. parag.

Id. Ipar Carolinakoa, 31. art.

Id. Virginiakoa.

Id. Hego Carolinakoa, 1. art., 23. parag.

Id. Kentuckykoa, 2. art., 26. parag.

Id. Tennesseekoa, 8. art., 1. parag.

Id. Louisianakoa, 2. art., 22. parag.

New Yorkeko Konstituzioko artikulua honela zertua dago: "Ebanjelioaren ministroei, lanbidez Jainkoaren zerbitzura emanak daudenez eta arimak zuzentzeko ardura dutenez, ez zaie trabarik jarri behar zeregin garrantzitsu hauetan; beraz, ezein apaiz edo Ebanjelioaren ministro, edozein sektatakoa izanik ere, ezingo da funtzio publiko, zibil edo militarrez hornitua egon".

<sup>205</sup> Ibilia naiz Estatu Batuetako mugen zati batean, estali gabeko zalgurdi moduko batean, posta deitzen zelarik. Gau eta egun abiada bizian igarotzen ginen ozta-ozta irekitako bideetan aurrera, zuhaitz berdeko oihan zabalen erditik; iluntasuna erabatekoa zenean, nire gidariak alertze-adarrak pizten zituen, eta haien argitasunaz jarraitzen genion bideari. Noizean behin etxolaren bat aurkitzen genuen basoen erdian: postabulegoa zen. Egoitza isolatu haren atera egundoko gutun-sorta botatzen zuen postariak, eta trostan segitzen genion bideari, auzoko biztanle bakoitzak etorri behar zuelarik bere altxor-zatiaren bila.

<sup>206</sup> 1832an Michiganeko biztanle bakoitzak 1,22 libera ordaindu zituen posta-zergatan, eta Floridetakoa biztanle bakoitzak 1,5 libera (ikus *National Calendar*, 1833, 244. or.). Urte berean, Ipar Departamentuko biztanle bakoitzak, helburu beragatik, 1,4 libera ordaindu zion Estatuari (Ikus *Compte général de l'administration des finances*, 1833, 623. or.). Nolanahi ere, Michiganek garai hartan zazpi biztanle bakarrik zituen lekoa karratuko, eta Floridak bost. Bi barruti horietan hezkuntza ez zegoen hain hedatua eta jarduera ere txikiagoa zen Batasuneko estatu gehienetan baino; aldi berean Ipar Departamentua, lekoa karratuko 3.400 biztanle dituen, Frantziako zatirik ilustratuen eta industrializatuenetakoa da.

<sup>207</sup> Hemen *ohitura* hitzari ematen diodan zentzu orokorra gogorarazten diot irakurleari; hitz honekin, pertsonak gizarte-egoeran jartzen dituen disposizio intelektual eta moralak ulertzen ditut.

<sup>208</sup> Ipar Amerikako indigenak historian parekorik ez duen zurruntasunez gordetzen ditu bere iritziak eta bere azturetako xehetasunik txikiena ere. Berrehun urte baino gehiago dira Ipar Amerikako tribu ibiltariak eguneroko harremanak dituztela arraza zuriarekin, eta hala ere ez dute honengandik ez ideia bat, ez usadio bat hartu. Hala ere, europarrek eragin oso handia izan dute basatiengan. Desordenatuago bihurtu dute indioen izaera, baina ez europarrago.

1831ko udan Michigan lakuaren atzean aurkitzen nintzelarik, Green-Bay izeneko leku batean, ipar-mendebaldeko indioen aurrean Estatu Batuentzat azken muga dena, ofizial amerikar bat ezagutu nuen, H. maiorra, eta honek egun batean, indioen izaeraren malgutasunik ezaz asko hitz egin ostean, ondorengo gertaera kontatu zidan: "Garai batean ezagutu nuen, esan zidan, Ingalaterra Berriko ikastetxe batean hezitako indio gazte bat. Arrakasta handia lortua, oso-osorik zeukan pertsona zibilizatu baten kanpo-itxura. 1810ean gure eta ingeles artean gerra hasi zenean, berriro ikusi nuen gaztea; gure armadan zegoen orduan, bere tribuko gerlarien buru. Amerikarrek beren artean indioak onartu bazituzten, menperatuei burularrua kentzeko usadio izugarria baztertzeko baldintzaz izan zen. \*\*\*ko bataila izan zeneko arratsean, gure bibakeko sutondoan eseri zen C...; egun hartako berri galdetu nion; kontatzen hasi zitzaidan, eta bere balentriak gogoratuz gero eta animatuago, azkenean uniforme zabaldu eta esan zidan: -Ez salatu, e? Baina begira! Eta halaxe, erantsi zuen H. maiorrak, gorputzaren eta atorraren artean ingeles baten burularrua ikusi nion, artean odola zeriola.

209 Hasierako hamahiru estatuetan 6.273 indio bakarrik gelditzen dira (Ikus *Legegintza-dokumentuak*, 20. Kongresua, 117. zk., 90. or.).

210 Mr. Clark eta Mr. Cass-ek Kongresuari aurkezturiko txostenean, 1829ko otsailaren 4an, esaten zuten:

"Urruti dago indioek elikatzeko eta janzteko behar zutena gizaki zibilizatuen industriara jo gabe eskura zezaketen garaia. Mississippiz harantzago, oraindik bufalo-talde ikaragarriak dauden herrialdean, indioen tribuak bizi dira, basapiztia horien atzetik joaten direnak migratu ahala; aipatzen ari garen indioek beren gurasoen usadio guztietara moldatuz aurkitzen dute oraindik bizibidea; baina bufaloak gutxituz doaz etengabe. Gaur egun fusilez edota lakioz (*traps*) bakarrik harrapa daitezke espezie txikiagoko basapiztiak: hartza, adar zabala, kastorea, arratoi musketaduna, hauek izanik, batez ere, bizitzeko beharrezkoaz indioak hornitzen dituztenak.

"Batez ere ipar-mendebaldean behartzen dituzte indioak familia mantentzeko gehiegizko lanak egitera. Sarritan ehiztariak hainbat egun ematen du ehizaren atzetik, arrakastarik gabe; denbora horretan familiak, hilko ez bada, arbola-azal eta sustraiz elikatu behar izaten du. Honela asko eta asko gosez hiltzen dira negu bakoitzean".

Indioek ez dute europarrek bezala bizi nahi. Hala ere, ezin dira europarrik gabe bizi, ezta erabat beren gurasoak bezala ere. Gertakari honetatik bakarrik ere juzga daiteke egoera, beronen berri ere informazio-bide ofizial bati zor diodalarik. Superior lakuaren ertzeko tribu indiar batekoek europar bat hil zuten; gobernu amerikarrak merkataritza debekatu zuen errudunen tribuarekin, hiltzaileak entregatzen ez zituen bitartean; eta entregatu egin zizkioten.

211 "Duela bost urte, dio Volneyk bere *Tableau des Etats-Unis* delakoan, 370. or. an, Vincennesetik Kaskaskiasera -gaur egun Illinoiseko estatuan dagoen eta orduan (1797) erabat basatia zen lurraldera- joatean, ez zen belardirik zeharkatzen lauhun-bostehun bufaloko talderik ikusi gabe; gaur egun ez da batere gelditzen; igerian igaro dute Mississippi, ehiztariak eta, batez ere, behi amerikarren zintzarriak gogait eraginda".

212 Hemen aurreratu dudanaren egiaz komentitzeko, kontsultatu Estatu Batuek erreklamaturiko mugen baitako tribu indiarren koadro orokorra (*Legegintza-dokumentuak*, 20. Kongresua, 117. zk., 90-105. orr.). Ipar Amerikaren erdialdeko tribuak bizkor ari direla gutxitzen ikusiko da, nahiz eta europarrak oraindik oso urruti egon haiengandik.

213 Mr. Clark eta Mr. Cassek Kongresuari aurkezturiko txostenean 15. or. an diotenez, indioek beren herrialdearekiko guk geurearekiko dugun afektu-sentimendu berbera dute; gainera, Izpiritu handiak arbasoei emandako lurak besterenganatzeko ideiarekin zenbait sineskizun lotzen dute, eta hauek eragin handia dute europarrei lurrik laga ez edota oso gutxi laga dizkieten tribuetan. "Guk ez dugu saltzen geure gurasoen errautsak dauzkan lekua": hauxe izaten da haien landak erosteko proposamena egiten dienari beraiek ematen dioten lehen erantzuna.

214 Ikus *Kongresuko Legegintza-dokumentuetan*, 117. dok. an, zirkunstantzia horietan gertatzen denaren kontaketa. Zati bitxi hau lehen aipaturiko txostenean aurkitzen da, Mr. Clark eta Mr. Lewis Cassek 1829ko otsailaren 4an Kongresuari egindakoan. Mr. Cass jauna Gerrako estatu-idazkari da gaur egun.

"Indioak ituna egin behar den lekura iristen direnean, diote Mr. Clark eta Mr. Casek, pobre eta ia larrugorritan daude. Han berentzat baliotsua den gauza-kopuru handia ikusi eta aztertzen dute, merkataria amerikarrek kontu handiz hara eramanez. Emakumeak eta haurrak, beren premiak ase daitezten nahi dutenak, mila eskari desegokiz hasten dira gizonei burua berotzen, eta hauei ahal duten guztia eragiten diete lurrak sal ditzaten. Indioen aurrikuspen-falta ohikoa eta gaundiezina da. Berehalako premiak asetzeko eta

momentuko desirei atsegin ematea da basatiaren grina menderaezina. Geroko abantailen esperantzak eragin ahula du harengan; erraz ahazten du iragana, eta etorkizunaz ez da arduratzen. Indioei alferrik eskatuko litzaieke beren lurraldearen zati bat lagatzea, hantxe bertan haien premiak asetzeko egoeran egon ezean. Dohakabe haien egoera partzialtasunik gabe aztertzen bada, ez da harrigarria gertatzen hain sutsu saiatzea beren gaitzentzako arintasunen bat lortzen".

215 1830eko maiatzaren 19an Mr. Ed. Everett-ek Ordezkarien Ganbara aurrean esaten zuen amerikarrek, Mississippiren ekialde eta mendebaldean, jadanik 230.000.000 akre eskuratuak zituztela *hitzarmen* bidez.

1808an, osage-ek 48.000.000 akre utzi zituzten 1.000 dolarreko errentaren truke.

1818an, quapaw-ek 29.000.000 akre utzi zituzten 4.000 dolarretan; berentzat 1.000.000 akreko lurraldea gorde zuten, bertan ehizatu ahal izateko. Errespetatuko zitzaizela zin egin zitzaien solemneki; baina berandura gabe inbaditu da gainerakoa bezalaxe.

"Indioek berentzat erreklamatzeko dituzten lur hutsak geureganatzeko -zioen Mr. Bell-ek, Kongresuan Indioen Arazoetarako batzordeko txostengileak, 1830eko otsailaren 24an-, indioen tribuei beren ehiza-lurraldea (*hunting ground*) bertatik ehizak ihes egin edo suntsitua izan ondoren balio duena ordaintzeko usadioa hartu dugu. Basatien lurraldeaz armaz jabetzea baino abantailatsuagoa da, baita justiziaren araberrakoa eta gizakoiagoa ere honela jokatzea.

"Indioei jabetza-titulua erosteko usadioa ez da, beraz, eskuratzeko era berri bat baino, non gizatasunak eta interesak (*humanity and expediency*) indarkeria ordeztu baitute; baina berdin-berdin egin behar gaitu aurkikuntzaren izenean erreklamatzeko ditugun lurren jabe, bestalde tribu basatiek okupaturiko lurraldean ezartzeko nazio zibilizatuek duten eskubideak ere guri ziurtatzen dizkigun lurrak baitira.

"Gaur arte, zenbait kausaren eraginez, gutxituz joan da indioen ikuspegian beren lurraren prezioa, eta kausa horiek beroriek guri erraz saltzera bultzatu dituzte. Basatiei *okupazio-eskubidea* (*right of occupancy*) erosteko usadioak ez du inoiz atzeratu, maila ohargarrian behintzat, Estatu Batuetako oparotasuna". (*Legegintza-dokumentuak*, 21. Kongresua, 227. zk., 6. or.).

216 Gainerantz, iritzi honek Ipar Amerikako estatu-gizon gehientsuenena ematen du.

"Etorkizuna iraganaren arabera epaitzen bada, ziotson Mr. Cassek Kongresuari, indioen kopurua gero eta txikiagoa izango dela aurrikusi behar da, azkenean arraza hori erabat desagertuko delarik. Hau ez gertatzeko, gure mugek ez lukete hedatzen jarraitu beharko eta basatiek bestaldean finkatu beharko lukete, edota erabateko aldaketa gauzatu beharko litzateke beraiekin ditugun harremanetan, baina ez da oso zentzuzkoa honelakorik espero izatea".

217 Ikus beste batzuen artean wampanoag-ek eta beste tribu konfederatuek, Metacom-en gidaritzapean, 1675ean egindako gerra Ingalaterra Berriko kolonoen kontra, baita ingelesek 1622an Virginian egin behar izan zutena ere.

218 Ikus Ingalaterra Berriko hainbat historialari. Ikus halaber *Histoire de la Nouvelle-France*, Charlevoix-ena, eta *Lettres édifiantes*.

219 "Tribu guztietan, dio Volneyk bere *Tableau des Etats-Unis* delakoan, 423 or. an, bada oraindik gerlari zaharren belaunaldi bat, aitzurraz baliatzen ikustean, antzinako ohituren hondamendia etengabe deitoratzen duena; haien ustez, basatien gainbehera berrikuntza hauei zor zaie, eta lehengo aintza eta boterea berreskuratu ahal izateko, aski lukete hasierako ohituretara itzultzea".

220 Dokumentu ofizial batean ondorengo deskribapena agertzen da:

"Gizon gazte bati, arerioarekin borrokan egin ez badu eta balentriaren batzuez harrotu ez badaiteke, ez zaio inolako begirunerik izaten: gutxi gora-behera emakumeari bezala begiratzen zaio.

"Beren gerra-dantza handietan, gerlariak bata bestearen atzetik *zutikoa* deritzotena jotzen dute, eta beren balentriak kontatzen dituzte: kasu hauetan, entzuleak kontalariaren ahaide, lagun eta adiskideak izaten dira. Haren hitzek hauei eragiten dieten zirrara sakona isil-isilik entzuteak erakusten du, eta zaratatsu adierazten da bukaeran jotzen dizkioten txaloekin. Honelako bileretan zer kontaturik ez daukan gaztea oso dohakabe sentitzen da, eta behin baino gehiagotan gertatu da gazte gerlaria, bere grinak honela kilikatuta, bat-batean dantzalдитik irten eta bakar-bakarrik aldegittea, gero erakutsi ahal izateko moduko trofeoen bila eta bere burua gorestekoa aukera emango dioten abenturen bila".

221 Nazio hauek gaur egun Georgia, Tennessee, Alabama eta Mississippiko estatuen barnean daude.

Garai batean hegoaldean (ikusten dira aztarnak) lau nazio handi zeuden: choctawak, chikasawak, creekak eta cherokeeak.

Lau nazio hauen hondarrak 1830ean 75.000 biztanle inguru ziren artean. Gutxi gora-behera jota, Batasun angloamerikarrak hartzen edo erreklamatzeko duen lurraldean 300.000 indio daude gaur egun. (Ikus *Proceedings of the Indian Board in the city of New York*). Kongresuari emandako dokumentu ofizialek 313.130era igotzen dute kopuru hori. Lurralde angloamerikarrean bizi diren tribu guztien izena eta indarra ezagutzeko jakingura duen irakurleak aipatu berri ditudan dokumentuak kontsultatu beharko ditu. (*Legegintza-dokumentuak*, 20. Kongresua, 117. zk., 90-105 orr.).

222 Ekarri nituen Frantziara argitalpen bitxi honen ale bat edo bi.

223 Ikus Indioen Arazoetarako batzordearen txostenean, 21. Kongresua, 227. zk., 23. or., mestizoak zergatik ugaltu diren cherokee-en artean; kausa nagusia Independentziako gerran datza. Georgiako angloamerikar askok Ingalaterraren alde jokatu zuenez, indioen artera aldegin behar izan zuen, eta han ezkondu ziren.

224 Zoritzarrez mestizoak Ipar Amerikan beste alde batzuetan baino gutxiago izan dira eta eragin txikiagoa izan dute.

Europako bi nazio handik jendeztatu dute kontinente amerikarraren zati hori: frantsesek eta ingelesak.

Lehenengoek berehala egin zituzten ezkontzak indigenen alabekin; baina zoritzarrek hala nahita, ezkutuko kidetasun bat aurkitu zen indioen eta beraien izaeraren artean. Barbaroei bizitza zibilizatuko gustu eta azturak eman ordez, sarritan beraiek atxiki zaizkio grinatsu bizitza basatiari. Basa eremuetako arrotzik arriskutsuen bihurtu dira, eta indioaren adiskidetasuna irabazi dute hauen bizioak eta bertuteak exageratuz. M. de Senonville, Kanadako gobernariak honela idatzi zion Louis XIV.ari 1685ean: "Luzaroan pentsatu izan da basatiak gureganatu beharra zegoela frantsesetako. Aitortu beharra dago oker genbiltzala. Guregana hurbildu direnak ez dira frantses bihurtu, eta beraiegana hurbildutako frantsesak basati bilakatu dira. Haiek bezala janzten dira, eta haiek bezala bizitzen" (*Histoire de la Nouvelle-France*, Charlevoix-ena, II. bol., 345. or.).

Ingelesak, aitzitik, gurasoen iritzi, usadio eta azturarik txikienei ere temati atxikia, Amerikako bakarlekuen erdian Europako hirien erdian bezalaxe jarraitu du; ez du, beraz, inolako harremanik nahi izan gutxienesten zituen basatiekin, eta arretaz ekidin du bere odola barbaroenarekin nahastea.

Honela, frantsesak indioengan inolako eragin onik ez zuen bitartean, ingelesak beti arrotz izaten jarraitu zuen haiekiko.

225 Herri ehiztarien bizitza abenturarian bada, zer den ez dakidan zer bait erakargarria, giza bihotza harrapatzen duena, eta arrazoi eta esperientziaren gainetik arrastaka eramaten duena. Egia honetaz komentatzeko, irakurri *Mémoires de Tanner*.

Tanner europar bat da, sei urte zituenean indioek harrapatua, eta hogeita hamar urtez beraiekin basoetan egona. Ezinezkoa da hark kontatzen dituen atsekabeak baino ezer ikaragarriagorik ikustea. Buruzagirik gabeko tribuak erakusten dizkigu, naziorik gabeko familiak, gizaki isolatuak, tribu ahaltsuen hondar moztuak, Kanadako izotz artean eta bakarleku soilduetan noraezean dabilzanak. Goseak eta hotzak pertsegitzen dituzte; biziak ihes egingo diela ematen du egunero. Haien artean ohiturek agintea galdu dute, tradizioek ez dute boterarik. Gizonak gero eta barbaroago bilakatzen dira. Tannerrek ere gaitz horiek guztiak bizi ditu; badaki jatorri europarra duela; bera ez dago bortxaz zuriengandik urruti; aitzitik, urtero trafikatu du zuriekin, hauen egoitzetan ibiltzen da eta hauen aietasuna ikusten; badaki bizitza zibilizatura itzuli nahi duen egunean, erraz lortu ahal izango duela, eta hogeita hamar urte ematen ditu basa eremuetan. Azkenean, gizarte zibilizatuaren erdira itzultzen denean, aitortzen du berak kontaturiko atsekabe guztiak dituen bizimoduak badituela beretzat ezin azalduzko xarma ezkutu batzuk ere; bizimodu hura utzi ondoren, etengabe itzultzen da bertara eta nostalgia handiz bakarrik aldentzen da hainbeste gaitzetatik; eta azkenean, zurien erdian finkatzen denean, haren seme-alabetako batzuek uko egiten diote aitarekin lasaitasun eta aietasunean bizitzeari. Nik neuk ezagutu nuen Tanner Superior lakuaren sarreran. Artean basatiaren askoz antz handiagoa zuela iruditu zitzaidan gizaki zibilizatuarena baino.

Tannerren obran ez dago ez ordenarik, ez gusturik; baina autoreak, bizilagun izan zituen haien aurriritzi, grina, bizio eta, batez ere, miserien deskribapen bizi-bizia egiten du, oharkabean.

Ernest de Blosseville bizkondeak, Ingalaterraren kolonia penalei buruzko obra bikain baten egileak, *Mémoires de Tanner* itzuli du. M. de Blossevillek bere itzulpenari interes handiko oharak erantsi dizkio, eta hauek ematen diote irakurleari Tannerrek kontaturiko gertakariak eta behatzaile zahar eta moderno askok jada kontaturikoak alderatzeko aukera.

Ipar Amerikako arraza indiarren egungo egoera ezagutu eta geroko destinoa aurrikusi nahi duten guztiek kontsultatu behar dute M. de Blossevilleren obra.

226 Oso herri zibilizatuak hain zibilizatu ez direnengan duten eragin suntsitzaile hau europarren beren artean ikusten da.

Duela mende bat inguru, frantsesek Vincennes sur le Wabash hiria sortu zuten basa eremuaren erdian. Oparotasun handian bizi izan ziren han, migrari amerikarrak iritsi arte. Hauek berehala hasi ziren han aurrez finkaturiko biztanleei porrot eragiten konkurrentziaz; gero lurra erosi zizkieten oso prezio kaskarrean. M. de Volney -berari hartu diot xehetasun hau- Vincennesetik igaro zenean, frantsesen kopurua ehun ingurura murriztua zegoen, eta gehienek Louisianara eta Kanadara igarotzeko asmoa zuten. Frantses haiek zintzoak ziren, baina jakintzargirik eta industriarik gabeak; aztura basatietako batzuk ere berenganatuak zituzten. Amerikarrek, ikuspegi moraletik kaskarragoak agian, ikaragarritzko nagusitasun intelektuala zuten haien gain: langileak ziren, eskolatuak, aberatsak eta beren burua gobernatzen ohituak.

Nik neuk ikusi dut Kanadan, non bi arrazen arteko ezberdintasun intelektuala askoz txikiagoa den, ingelesa -merkataritzaren eta industriaren jaun eta jabe kanadiar herrialdean- alde guztietara hedatzen, eta frantziarra muga estuegien barnean itxiarazten.

Era berean, Louisianan merkataritza eta industria gehientsuena angloamerikarren esku dago.

Are harrigarriagoa den zerbait gertatzen da Texaseko probintzian; jakina den bezala, Texaseko estatua Mexikoren parte da, mugatzat daukalarik Estatu Batuekin. Urte batzuk badira angloamerikarrak banaka sartzen ari direla oraindik gutxi jendeztaturiko probintzia honetan, eta lurak erosi, industriad jabetu eta jatorrizko biztanleria bizkor ordeztzen ari direla. Aurrikus daitekeenez, Mexikok ez badu bizkor mugimendu hau geldiarazten, Texasek ihes egingo dio laster.

Zibilizazio europarrean konparatiboki oso nabariak ez diren ezberdintasun batzuek horrelako emaitzak eragiten badituzte, erraz ulertzen da zer gertatuko den Europako zibilizaziorik perfektionatuena indioen barbarotasunarekin harremanetan jartzean.

227 Ikus legegintza-dokumentuetan, 21. Kongresua, 89. zk., jende zuriak indioen lurraldean egindako edozelako gehiegikeriak. Angloamerikarrak lurraldearen zati batean ezartzen dira, beste edonon lurra falta balitz bezala, eta Kongresuko gudaosteek etorri behar dute handik botatzera; edota ganadua harrapatzen dute, etxeak erre, indigenen uztak moztu eta jendea bortxaz erabiltzen dute.

Dokumentu hauetatik guztietatik ateratzen denez, indigenak indar-abusuaren biktima dira egunero. Normalean Batasunak agente bat izaten du indioen artean bera ordezkatzeko arduraz; cherokee-en agentearen txostena, aipatu ditudan dokumentuen artean dago: funtzionari honen hizkera basatien aldekoa da ia beti. "Cherokee-en lurraldean zuriak sartzeak, dio 12. or. an, bertan bizi direnen porrota eragingo du, inori kalterik egiten ez dion bizimodu pobrea daramatelarik". Aurrerago ikusten da Georgiako estatuak, cherokee-en mugak estutu nahi dituelarik, mugarritze bat egiten duela; agente federalak ohartarazten duenez, mugarritzea, indioen partaidetzarik gabe, zuriak bakarrik egin dutenez, ez du inolako baliorik.

228 1829an, Alabamako estatuak konderritan banatzen du creeken lurraldea, eta indioak magistratu europarren menpe jartzen ditu.

1830ean, Mississippiko estatuak choctawak eta chickasak zuriekin asimilatzen ditu, eta hauen artean buruzagi titulua hartzen dutenak 1.000 dolarreko isunaz eta urtebeteko espetxeaz zigortuko dituztela aldarrikatzen du.

Mississippiko estatuak bere mugetan bizi ziren indio chacten gain bere legeak honela hedatu zituenean, indioak bildu egin ziren; zuriak zer asmo zuten jakinarazi zien buruzagiak, eta ezarri nahi zitzaizkien legeetako batzuk irakurri zizkien. Basatiek aho batez aldarrikatu zuten hobe zutela berriro basa eremuetan barneratzea (*Mississippi Papers*).

229 Georgiarrek, indioen auzotasunaz hain ezeroso daudenak, milia karratuko oraindik zazpi biztanle baino gehiago ez dituen lurraldea okupatzen dute. Frantzian ehun eta hirurogeita bi pertsona daude espazio berean.

230 1818an Arkansaseko lurraldea komisari amerikarrek -creek, choctaw eta chickasen ordezkari-talde bat lagun- bisita zezaten agindu zuen Kongresuak. Espedizio honen buru Kennerly, McCoy, Wash Hood eta John Bell jaunak joan ziren. Ikus komisarien zenbait txosten eta haien egunkaria 87. Kongresuko dokumentuen artean, *House of Representatives*.

231 Creekekin 1790ean egindako itunean klausula hau aurkitzen da: "Estatu Batuek solemneki bermatzen dizkiote creeken nazioari honek Batasuneko lurraldean dauzkan lur guztiak".

1791ko uztaillean cherokee-ekin egindako hitzarmenak honako hau dauka: "Estatu Batuek solemneki bermatzen dizkiote cherokee-en nazioari honek aurrez laga gabeko lur guztiak. Estatu Batuetako hiritarren bat, edo indio ez den beste edozein, cherokee-en lurraldean ezartzera etorriko balitz, Estatu Batuek adierazten dute beren babesak kenduko

diotela hiritar horri, eta cherokee-en nazioaren esku utziko dutela, honek ongi irizten dion eran zigor dezan" 8. art.

<sup>232</sup> Baina honek ez du eragozten erarik formalenean hori agintzea. Ikus lehendakariak creekei 1829ko martxoaren 23an bidalitako gutuna (*Proceedings of the Indian Board in the city of New York*, 5. or.): "Ibai handiaz (Mississippiz) harantzago, zuen Aitak, dio lehendakariak, herrialde zabala prestatu du bertan zuek hartzeko. Zuen anaia zuriak ez dira hara joango gogait eragitera; ez dute inolako eskubiderik izango zuen lurrekiko; han zuek eta zuen seme-alabak, bakean eta oparotasunean, bizi ahal izango zarete, belarra hazi eta erreketan ura joan bitartean; zuenak *izango dira betiko*".

Gerra Departamentuko idazkariak cherokee-ei 1829ko apirilaren 18an idatzitako gutun batean, funtzionari honek adierazten die ez dutela uste izan behar une hartan daukaten lurraldea betiko gordeko dutenik, baina ziurtasun positibo hori berori ematen die Mississippiz bestaldean egoten direnerako (obra berbera, 6. or.): orain falta zaion boterea orduan ere falta behar ez balitzaio bezala!

<sup>233</sup> Estatu partikularrek eta Batasunak indioekiko jarraitu zuten politikaren ideia zehatza zertu ahal izateko, kontsultatu beharrekoak dira: 1.<sup>a</sup> Estatu partikularretako legeak, indioei buruzkoak (bilduma hau legegintza-dokumentuetan dago, 21. Kongresua, 319. or.); 2.<sup>a</sup> Batasuneko legeak, gai berari buruzkoak, eta bereziki 1802ko martxoaren 30ekoa (lege hauek Mr. Storyren obran daude: *Laws of the United States*); 3.<sup>a</sup> azkenik, Batasunak tribu indiar guztiekin dituen harremanen egungo egoera zein den ezagutzeko, ikus Mr. Cassek, Gerrako estatu-idazkariak, 1823ko azaroaren 29an egindako txostena.

<sup>234</sup> 1829ko azaroaren 19an. Zati hau hitzez hitz itzulia dago.

<sup>235</sup> Bestalde, ez dago espainolak emaitza honengatik zertan ohoratu. Europarrak iritsi zirenean tribu indiarrek nekazaritzaren bidez jada lurrari finkatuak egon ez balira, zalantzarik gabe suntsitu egingo zituzketen Hego Amerikan, Ipar Amerikan bezalaxe.

<sup>236</sup> Ikus beste batzuen artean, Indioen Arazoetarako batzordearen izenean, Mr. Bellek egindako txostena 1830eko otsailaren 24an; 5. or.an, oso arrazoi logikoz eta jakintza handiz zera frogatzen da: *The fundamental principle, that the Indians had no right by virtue of their ancient possession either of soil, or sovereignty, has never been abandoned expressly or by implication*. Alegia, indioek, antzinako edukitzaren indarrez, ez dutela inolako jabetza- edo subiranotasun-eskubiderik lortu, eta printzipio nagusi hau ez dela inoiz baztertua izan, ez espreski, ez tazituki.

Txosten hau irakurtzerakoan, esku trebez idatzia bestalde, harrigarria gertatzen da, lehen hitzetatik, autoreak zelako erraztasun eta aisetasunez baztertzen dituen zuzenbide naturalean eta arrazoian oinarrituriko argudioak, berak printzipio abstraktu eta teoriko deitzen dituenak. Zenbat eta sakonago pentsatu horretan, orduan eta areago uste dut gizaki zibilizatuaren eta ez denaren arteko ezberdintasun bakarra, justiziari dagokionez, hauxe dela: batak ukatu egiten dizkiola justiziari eskubideak, eta bestea eskubide horiek haustearekin konformatzen dela.

<sup>237</sup> Gai honetaz jardun aurretik, ohar bat egin behar diot irakurleari. Obra honen hasieran aipatu dudan eta agertzeaz dagoen liburu batean, bidelagun izan nuen M. Gustave de Beaumont-en helburu nagusia beltzek Estatu Batuetako zurien artean bizi duten egoera Frantzian ezagutaraztea da. M. de Beaumontek sakon aztertu du nire gaiak gaingiroki bakarrik ukitzen utzi didan arazoa.

Liburu horrek -bere oharretan legegintzako eta historiako dokumentu asko dituelarik, balio handikoak eta erabat ezezagunak- baditu gainera deskribapen batzuk, zeinen indarra egiak bakarrik berdindu lezakeen. M. de Beaumonten obra hau irakurri beharko lukete ulertu nahi dutenek, gizakiak, behin naturatik eta gizatasunetik irteten hasten direnean, poliki-poliki zelako tirani gehiegikerietara lerratzen diren.



238 Jakina da antzinako autorerik ospetsuenetako batzuk esklabu zirela edo izanak zirela: Esopo eta Terentzio dira horietakoak. Esklabuak ez ziren beti nazio barbaroen artetik hartzen: gerrak ere jartzen zituen joputzan pertsona oso zibilizatuak.

239 Zuriak beren lehengo esklabuen gutxiagotasun intelektual eta moralari buruz duten iritzia baztertzeko beharrezkoa litzateke beltzak aldatzea, eta hauek ezin dira aldatu iritzi horrek irauten duen bitartean.

240 Ikus *Histoire de la Virginie*, Beverley-rena. Halaber, ikus *Mémoires de Jefferson* delakoan, beltzak Virginian sartzeari buruzko eta 1778an hauen inportazioa debekatu zuen lehen aktari buruzko xehetasun bitxiak.

241 Esklabuen kopurua urriagoa zen iparraldean, baina esklabutzaren abantailak ez ziren han hegoaldean baino eztabaidatuagoak. 1740an New Yorkeko estatuko legislaturak aldarrikatzen du ahalik eta gehien sustatu behar dela esklabuen zuzeneko inportazioa, eta gogor zigortu behar dela kontrabandoa, merkataritza zintzoa bihozgabetu egin dezakeelako (*Kent's Commentaries*, II. bol., 206. or.).

Massachusettseko bilduma historikoan, IV. bol., 193. or., Belknap-ek esklabutzari buruz Ingalaterra Berrian egindako ikerketa bitxiak aurkitzen dira. Honetatik ateratzen denez, han 1630ean sartu zituzten beltzak, baina legeria eta ohiturak esklabutzaren aurkako agertu ziren ordudunik.

Halaber, ikus bilduma berean, nola iritsi ziren iritzi publikoa, eta ondoren legea, joputza suntsitzera.

242 Ohiok esklabutza ez ametitzeaz gain, bere lurraldean sarrera debekatzen die beltz askeei, baita bertan ezer eskuratzea ere. Ikus Ohioko Estatutuak.

243 Ez da gizabanakoa bakarrik Ohion aktibo dena; estatuak berak enpresa itzelak gauzatzen ditu; Ohioko estatuak Erie lakuaren eta Ohion artean kanal bat ezarri du Mississippi harana Ipar ibaiarekin komunikatzeko. Kanal honi esker, New Yorkera iristen diren Europako salgaiak urez eramane daitezke Orleans Berriraino, kontinentean bostehun lekora baino gehiago eginez.

244 Zifra zehatza, 1830eko zentsuaren arabera:

Kentucky: 688.844

Ohiio: 937.679

245 Langile askeak ugari diren alde guztietan horien lana esklabuena baino emankorrago eta ekonomikoagoa izatea eragiten duten kausa huetaz aparte, aipatu beharra dago beste bat Estatu Batuei bakarrik dagokiena: azukre-kanabera arrakastaz lantzeko biderik oraindik ez da aurkitu Batasuneko zabalera guztian Mississippiren ertzetan izan ezik, ibaiaren bokaletik hurbil, Mexikoko golkoan. Louisianari kanabera lantzeak abantaila handiak ekartzen dizkio. Inon ez dio laborariak bere lanari hain balio handia ateratzen; eta produkzio-gastuen eta produktuen artean nolabaiteko erlazioa beti ezartzen denez, esklabuen prezioa oso handia da Louisianan. Nolanahi ere, Louisiana estatu konfederatuen arteko bat izanik, Batasuneko alde guztietatik eramane daitezke esklabuak bertara; esklabu batek Orleans berrian hartzen duen prezioak altzarazi egiten du, bada, esklabuen prezioa beste merkatu guztietan. Honen ondorioz, lurak gutxi ematen duen herrialdeetan, lur hori esklabu bidez lantzeak nahiko gastu handiak sortzen ditu, eta honek abantaila handia ematen dio langile askeen konkurrentziari.

246 Bada arrazoi berezi bat, aipatu berri ditudan azken estatu biak esklabutzaren kausatik banatzen dituenak.

Batasuneko alde honek antzina zuen aberastasuna tabakoa lantzean zegoen oinarritua, batez ere. Esklabuak bereziki egokiak dira lan horretarako; nolanahi ere, aspaldian tabakoaren salmenta-prezioa jaisten ari da; hala ere, esklabuen balioak lehengoan jarraitzen du. Honela produkzio-gastuen eta produktuen arteko erlazioa aldatu egin da.

Maryland eta Virginiako biztanleek duela hogeita hamar urte baino joera handiagoa dute tabakoa esklaburik gabe lantzeko, edota tabakoa lantzea eta esklabutza aldi berean uzteko.

247 Esklabutza abolitua duten estatuek normalean oztopatu egiten diete beltz askeei beren lurraldean egotea; eta gai honetan estatu ezberdinen artean nolabaiteko norgehiagoka sortzen denez, zorigaiztoko beltzei zenbait gaitzen artean aukeratzea baino ez zaie gelditzen.

248 Alde handia dago zurien eta beltzen hilkortasunaren artean esklabutza abolitu den estatuetan: 1820tik 1831ra, Filadelfian zuri bat bakarrik hil zen arraza zuriko berrogeita bi pertsonako; aldi berean beltz bat hil zen arraza beltzeko hogeita bat pertsonako. Hilkortasuna ez da hain handia, ezta gutxiago ere, beltz esklabuen artean. (Ikus *Emmerson's medical Statistics*, 28. or.).

249 Hau egia da arroza egiten den lekuetan. Arroztiak, osasungaitzak herrialde guztietan, bereziki arriskutsuak dira tropikoetako eguzki goriak jotzen dituen haietan. Europarrentzat oso neketsua litzateke Mundu Berriko alde horretan lurra lantzea, bertan arroza ekoitzi nahi dutela sartuko balitzaie buruan. Baina ezin ote daiteke arrozতির গবে বজি?

250 Estatu hauek ekuadoretik hurbilago daude Italia eta Espainia baino; hala ere, Amerikako kontinentea askoz ere hotzagoa da Europakoa baino.

251 Antzina Espainiak Louisianako Attakapas delako barrutira Azoreetako laborari-multzo bat eramana zuten. Haien artean ez zen esklabutza sartu; proba bat zen. Gaur egun oraindik esklaburik gabe lantzen dute gizon haiek lurra; baina hain industria ahula dutenez, ozta-ozta hornitzen ditu haien beharrak.

252 Carey 1833an idatzitako *Letters on the Colonisation Society* delako obra amerikarrean honako hau irakurtzen da: "Hego Carolinan azken berrogei urteotan beltzen arraza zuriena baino bizkorrago ari da hazten. Esklabuak lehenengo izan zituzten hegoaldeko bost estatuetako (Maryland, Virginia, Ipar Carolina, Hego Carolina eta Georgiako) biztanleria oro har hartuta, ikusten da 1790etik 1830era bitartean zuriak 100eko 80 gehitu direla estatu horietan, eta beltzak 100eko 112".

Estatu Batuetan 1830ean bi arrazetako jendea honela banaturik zegoen: esklabutza abolitua duten estatuetan: 6.565.434 zuri, 120.520 beltz. Oraindik esklabutzarekin jarraitzen duten estatuetan: 3.960.814 zuri, 2.208.102 beltz.

253 Iritzi hau, bestalde, nik baino askoz itzal handiagoa dutenengan oinarritua dago. Beste batzuen artean, *Mémoires de Jefferson* delakoan zera irakurtzen da: "Ezer ez dago destinoen liburuan garbiago idatzia beltzen emantzipazioa baino, eta halaber gauza ziurra da bi arrazak, biak era berean aske, ezingo direla gobernu beraren menpe bizi. Naturak, azturak eta iritziak hesi gaindiezinak ezarri dituzte horien artean". (Ikus *Extrait des Mémoires de Jefferson*, M. Conseil-ek egina).

254 Antilletako ingelesek beren burua gobernatu izan balute, pentsa daiteke ez zuketela onartuko ama aberriak ezarri berri duen emantzipazio-akta.

255 Elkarte honek Beltzen Kolonizazio Elkartea izena hartu zuen. Ikus beraren urteroko txostenak, eta batez ere hamabosgarrena. Ikus, halaber, jada aipaturiko *Letters on the Colonisation Society and on its probable results*, Mr. Carey-rena. Filadelfia, 1833ko apirila.

256 Azken arau hau establezimenduaren sortzaileek berek eman zuten. Beldur ziren ez ote zen Afrikan gertatuko Estatu Batuetako mugetan gertatzen denaren antzeko zerbait, eta beltzak, indioak bezalaxe, arraza ilustratuago batekin harremanetan jartzean, ez ote ziren suntsituak izango zibilizatu ahal izan baino lehen.

257 Oraindik beste eragozpen askorekin topo egingo zen honelako zeregin batean. Batasuna, Amerikako beltz esklabuak Afrikara eramateko, beraien jabeei erosten hasiko balitz, beltzen prezioa, urritasunaren arabera igotzean, dirutza ikaragarrietara iritsiko litzateke berehala, eta ezin da sinetsi iparraldeko estatuek horrelako gasturik egitea onartuko luketenik, berorren fruiturik ere ez bailukete hartuko. Batasunak indarrez edota berak finkaturiko prezio txikian hartuko balitu hegoaldeko esklabuak, erresistentzia gaindiezina sortaraziko luke Batasuneko alde honetan kokaturiko estatuetan. Bi bideetatik ezinezkoan bukatzen dugu.

258 1831n 2.010.527 esklabu ziren Estatu Batuetan, eta 319.467 emantzipatu; guztira 2.329.994 beltz; garai hartan Estatu Batuetako biztanleria osoaren bosteko bat baino gehixeago, alegia.

259 Emantzipazioa ez dago debekatuta, baina bai zaildu egiten duten formalitateen menpe.

260 Ikus iparraldeko estatuen portaera 1812ko gerran. "Gerra honetan, dio Jeffersonek 1817ko martxoaren 17an La Fayette jeneralari bidalitako gutunean, ekialdeko estatuetaiko lau, hilotzak bizidunei bezala zeuden atxikirik gainerako Batasunari" (*Correspondance de Jefferson*, M. Conseilek argitaratua).

261 Batasunak orain bizi duen bake-egoerak ez dio inolako aitzakiarik ematen armada iraunkorra izateko. Armada iraunkorrik gabe, gobernu batek ez du ezer aurrez prestatua une egokia aprobetxatu, erresistentzia menperatu eta aginte subiranoaz ustekabea jabetzeko.

262 Honela Holandako probintzia, Herbehereetako Errepublikan, eta enperadorea, Konfederazio Germaniarrean, Batasunaren lekuan jarri dira batzuetan eta beren interes partikularrerako erabili dute aginte federala.

263 Alleghanyen batezbesteko altuera, Volneyk dioenez (*Tableau des Etats-Unis*, 33. or.), 700-800 metrokoa da; Darbyren arabera, 5.000-6.000 oinekoa. Vosgeetako altuerarik handiena 1.400 metrokoa da itsas mailarekiko.

264 Ikus *View of the United States*, Darbyrena, 64. eta 79. orr.

265 Alleghanyetako katea ez da Vosgeetakoa baino altuagoa eta ez die azken honek adina oztopo jartzen giza industriaren ahaleginei. Alleghanyen ekialdeko isurialdean dauden herrialdeak loturik daude Mississippi haranarekin, Franko Konderria, Borgonia Garaia eta Altsazia Frantziari bezain naturalki.

266 1.002.600 milia karratu. Ikus *View of the United States*, Darbyrena, 435. or.

267 Uste dut ez daukadala esan beharrik *angloamerikarrak* adieraztean, horien arteko gehiengo handiaz bakarrik ari naizela. Gehiengo honetaz kanpo beti gelditzen dira gizabanako isolaturen batzuk.

268 1790eko zentsua: 3.929.328.

1830eko zentsua: 12.856.165.

269 Hau, egia esateko, arrisku iragankorra baino ez da. Ez dut zalantzarik denborarekin gizartearen mendebaldean finkatu eta arautu egingo dela, dagoeneko Atlantiar ozeanoaren ertzetan egin duen bezalaxe.

270 Pennsylvaniak 431.373 biztanle zituen 1790ean.

271 New Yorkeko estatuaren zabalera, 6.213 lekua karratu (46.500 milia karratu). Ikus *View of the United States*, Darbyrena, 435. or.

272 Biztanleriak hogeita bi urteka bikoizten jarraitzen badu beste mende batez, azken berrehun urteotan egin duen bezala, Estatu Batuetan hogeita lau milioi biztanle izango dira 1852an, berrogeita zortzi 1874an, eta laurogeita hamasei 1896an. Eta hau horrela

izango litzateke nahiz eta Mendi Harritsuen ekialdeko isurialdean lantzeko gai ez liratekeen lurak aurkitu. Dagoeneko okupaturik dauden lurrek erraz har dezakete biztanle-kopuru hori. Ehun milioi pertsona, Batasuna osatzen duten hogeita lau estatuek eta hiru lurraldeek une honetan okupatzen duten zabaleran barreiaturik, 762 pertsona lirateke lekoa karratuko, eta hau oraindik urruti legoke Frantziako batezbesteko biztanleriatik, 1.006koa baita; edo Ingalaterrakotik, 1.457koa delako; eta Suitzako populazioaren azpitik ere bai. Suitzak, bere laku eta mendiak gora-behera, 783 biztanle ditu lekoa karratuko. Ikus Malte-Brun, VI. bol., 92. or.

273 Estatu Batuetako lurraldeak 295.000 lekoa karratuko zabalera du; Europakoak, Malte-Brunen arabera, VI. bol., 4. or., 500.000koa.

274 Ikus *Legegintza-dokumentuak*, 20. Kongresua, 117. zk., 105 or.

275 3.672.317, 1830eko zenbaketa.

276 Missouriiko estatuaren hiriburua den Jeffersonetik Washingtonera 1.019 milia daude, edo 420 posta-lekoa (*American Almanac*, 1831, 43. or.).

277 Hegoaldeko eta iparraldeko merkataritza-mugimenduen arteko aldea juzgatzeko, aski da ondorengo taula honi begiratu bat ematea:

1829an, Virginian, bi Carolinetan eta Georgian (hegoaldeko lau estatu handietan) handizkako eta txikizkako merkataritzarako zeuden itsasuntzi guztien artean ez zeuden 5.423 tona.

Urte berean, Massachusettseko estatuko untziek bakarrik 17.322 tona zituzten (*Legegintza-dokumentuak*, 21. Kongresua, 2. batzarraldia, 140. zk., 244. or.).

Honela Massachusettseko estatuak bakarrik hiru aldiz untzi gehiago zuen aipaturiko lau estatuek baino.

Massachusettseko estatuak, ordea, 959 lekoa karratuko zabalera bakarrik du (7.335 milia karratu) eta 610.014 biztanle; aipaturiko lau estatuek, berriz, 27.204 lekoa karratu dituzte (210.000 milia) eta 3.047.767 biztanle. Honela, bada, Massachusettseko estatuaren zabalera lau estatuenaren hogeita hamarreko bat besterik ez da, eta biztanleria hauena baino bost aldiz txikiagoa (*View of the United States*, Darbyrena). Esklabutzak hainbat eratan kalte egiten dio hegoaldeko merkataritzaren oparotasunari: enpresa-izpiritua murrizten du zurien artean, eta behar dituzten marinelak aurkitzea eragozten die. Marinelak, oro har, populazioaren azken klasetik hartzen dira. Nolanahi ere, esklabuak dira hegoaldean klase hau osatzen dutenak, eta zaila da itsasoan erabiltzea. Berauen zerbitzua zuriena baino kaskarragoa litzateke, eta beti beldur izatekoa litzateke ez ote diren ozeanoaren erdian matxinatuko, edota atzerriko itsasertzetara iristean ihes egingo.

278 *View of the United States*, Darbyrena, 444. or.

279 Ohartu nik Mississippiren arroaz hitz egiten dudanean, ez ditudala hor New York, Pennsylvania eta Virginiako estatuetako zatiak -Alleghanyen mendebaldera daudenak- sartzen, nahiz eta horren parte bezala hartu beharko liratekeen.

280 Ikusten da orduan, igaro berri diren hamar urteetan, estatu batek 100eko 5 gehitu duela biztanleria, Delawarek adibidez; eta beste batek 100eko 250, Michiganeko lurraldeak, alegia. Virginia konturatu da denboraldi berean bere biztanle-kopurua 100eko 13 hazi dela, mugakide duen Ohioko estatuak bere kopurua 100eko 61 hazi duen bitartean. Ikus *National Calendar* delakoan dagoen taula orokorra; harrigarria gertatuko zaizue estatuen arteko zori ezberdina.

281 Aurrerago ikusiko denez, azken denboraldian, Virginiako biztanleria 100eko 13 hazi da. Esplikatu beharra dago estatu bateko ordezkari-kopurua nola murriz daitekeen, estatuko biztanleria, ez gutxitu, baizik eta hazi egiten den bitartean.

Virginia hartuko dut konparazio-gai, dagoeneko aipatua dudana. Virginiako diputatu-kopurua 1823an Batasuneko diputatuen kopuru osoaren proportzioan zegoen; halaber, Virginiako diputatu-kopurua 1833an, urte horretan Batasunak zuen diputatu-kopuru osoaren proportzioan zegoen, baita bere biztanleriaren proportzioan ere, hamar urte horietan hazi egin dena. Beraz, Virginiako diputatu-kopuru berriaren eta zaharraren arteko erlazioa proportziozkoa izango da, batetik, diputatu-kopuru berri osoaren eta zaharraren arteko erlazioarekiko, eta, bestetik, Virginiaren eta Batasun osoaren hazkunde-proportzioen erlazioarekiko. Honela, Virginiako diputatu-kopurua geldi gera dadin, aski da herrialde txikiaren eta handiaren hazkunde-proportzioaren erlazioa, diputatu-kopuru berri osoaren eta zaharraren arteko erlazioarekiko alderantzizkoa izatea; eta Virginiako biztanleriaren hazkunde-proportzio hori Batasun osokoaren hazkunde-proportzioarekin, Batasuneko diputatu-kopuru berria zaharrarekin baino erlazio ahulxeagoan gertatzen den momentuan, Virginiako diputatu-kopurua murriztagoa izango da.

282 Washington, Jefferson, Madison eta Monroe.

283 Ikus hango batzordeak Hego Carolinan nulifikazioa aldarrikatu zuen Konbentzioari egindako txostena.

284 Herrialde bateko biztanleria da ziur aski bertako aberastasunaren lehen osagaia. 1820tik 1832rako denboraldi horretan bertan, Virginiak Kongresurako bi diputatu galdu dituen garaian, biztanleria 100eko 13,7 hazi da; Carolinetakoa 100eko 15, eta Georgiakoa 100eko 51,5 (ikus *American Almanac*, 1832, 162. or.). Nolanahi ere, Errusian, non Europako herrialdeen artean biztanleria bizkorren hazten den, hamar urtean biztanle-kopurua 100eko 9,5 bakarrik hazi da; Frantzia 100eko 7, eta Europan oro har 100eko 4,7 (ikus Malte-Brun, VI. bol., 95. or.).

285 Hala ere, aitortu beharra dago tabakoaren prezioak azken berrogeita hamar urteotan izan duen baliogalerak nabarmen murriztu duela hegoaldeko laborarien aietasuna; baina gertakari honek ez du zerikusirik iparraldeko jendearen borondatearekin, ezta hegoaldekoeen berenarekin ere.

286 1832an Michiganeko barrutiak, artean 31.639 biztanle bakarrik izanik gutxi goldaturiko basa eremua zenak, 940 miliako posta-bideak zituen. Ia erabat basati den Arkansaseko lurraldea 1.938 miliako posta-bideek zeharkatzen zuten. Ikus *The Report of the postmaster general*, 1833ko azaroaren 30ekoa. Batasun osoko egunkarien garraio-prezioak bakarrik 254.796 dolar ematen du urtean.

287 Hamar urtetan zehar, 1821etik 1831ra, 271 bapore-untzi uretaratu ziren Mississippiren harana bustitzen duten ibaietan bakarrik.

1829an 256 bapore-untzi zeuden Estatu Batuetan. Ikus *Legegintza-dokumentuak*, 140. zk., 274. or.

288 Indioen kapituluan jada aipaturiko legegintza-dokumentuetan, ikus Estatu Batuetako lehendakariak cherokee-ei bidalitako gutuna, eta gai honetaz bere agenteekin izandako postatrukea eta Kongresuari zuzendutako mezuak.

289 New Yorkeko estatuaren aldetik lehen lagapen-egintza 1780an egin zen; Virginiak, Massachusettsek, Connecticutek, Hego Carolinak eta Ipar Carolinak haren jarraibideari segitu zioten garai ezberdinetan, Georgia izan zelarik azkena; honen lagapen-egintza ez da 1802koa baino.

290 Egia da lehendakariak uko egin ziola lege hau berresteari, baina erabat onartu zuen printzipioa. Ikus *1833ko abenduaren 8ko mezua*.

291 Estatu Batuetako egungo Bankua 1816an sortu zen 35.000.000 dolarreko (185.500.000 liberako) kapitalaz: haren pribilegioa 1836an iraungitzen da. Iaz

Kongresuak lege bat promulgatu zuen berrizteko, baina lehendakariak uko egin zion berresteari. Gaur egun ikaragarri borroka bizia dago bi aldeen artean, eta Bankua laster eroriko dela iragar daiteke.

292 Arazo honen xehetasunetarako, ikus batez ere *Legegintza-dokumentuak*, 22. Kongresua, 2. batzarraldia, 30. zk.

293 Herriaren gehiengoa, alegia; zeren eta kontrako alderdiak, *Union Party* delakoak, gutxiengo oso indartsu eta aktiboa izan baitzuen beti bere alde. Carolinak 47.000 hautesle izan ditzake gutxi gora-behera; 30.000 nulifikazioaren aldeko ziren, eta 17.000 aurkako.

294 Ordenantza honen aurretik beronen idazketa prestatzeko ardura zuen batzordeak txosten bat egin zuen. Txosten honetan legearen azalpena eta xedea zehazten dira. 34. or. an zera irakurtzen da: "Konstituzioak estatuei ematen dizkien eskubideak berariaz hausten direnean, estatu hauen eskubidea eta eginbeharra, gaitzaren aurrerabidea mozteko, usurpazioari aurka egitea da, eta *subirano independiente* diren aldetik dagozkien botere eta pribilegioak beren mugetan gordetzea. Estatuak ez balute eskubide hau, alferrik lituzkete beren buruak subiranotzat. Hego Carolinak aldarrikatzen du ez duela munduan inolako auzitegirik onartzen bere gainetik. Egia da bera bezala subirano diren beste estatu batzuekin batasun-kontratu solemne bat (*a solemn contract of union*) hitzartu duela, baina honen esanahia bere ikuspegitik esplikatze eskubidea erreklamatzeko du eta egikaritu egingo du; eta elkarkideek eta berauek sorturiko gobernuak kontratua hausten badute, kontratu-hauste horren hedadura eta justizia lortzeko beharrezko neurriak zein diren juzgatzeko eskubide eztaba daezinaz (*unquestionable*) baliatu nahi du Hego Carolinak".

295 Azkenean neurri hau hartzera Kongresua bultzatu zuena, Virginiako estatu ahaltsuaren jarrera izan zen, bertako legebiltzarrak bere burua eskaini baitzuen Batasunaren eta Hego Carolinaren artean arbitro izateko. Ordura arte, azken hau inolako laguntzarik gabe agertu izan zen, baita berarekin batera erreklamatu zuten estatuen aldetik ere.

296 1833ko martxoaren 2ko legea.

297 Lege hau Mr. Clayk iradoki zuen eta lau egunen buruan gehiengo handi batek onartu zuen Kongresuko bi Ganbaretan.

298 1832ko irailaren 30ean amaitu zen urteko inportazioen balio osoa 101.029.266 dolarrekoa izan zen. Atzerriko untzietan egindako inportazioak 10.731.037 dolarrekoak bakarrik izan ziren, hamarreko bat, gutxi gora-behera.

299 Esportazioen balio osoa, urte berean, 87.176.943 dolarrekoa izan zen; atzerriko untzietan esportaturiko balioa 21.036.183 dolarrekoa izan zen, edo laurdena, gutxi gora-behera (*William's Register*, 1833, 398. or.).

300 1829, 1830 eta 1831. urteetan Batasuneko portuetan sartu ziren untziek guztira 3.307.719 tona ekarri zuten. Horretatik guztitik 544.591 tona bakarrik garraiatu zuten atzerriko untziek. Beraz, 100eko 16ko proportzioan gutxi gora-behera (*National Calendar*, 1833, 304. or.).

1820, 1826 eta 1831. urteetan Londres, Liverpool eta Hull-eko portuetan sarturiko untzi ingelesek 443.800 tona garraiatu zuten. Aipaturiko portuetan urte horietan berorietan sartu ziren atzerriko untziek 159.431 tona ekarri zuten. Hortaz, haien artean 100eko 36ko erlazioa izan zen gutxi gora-behera (*Companion to the Almanac*, 1834, 169. or.).

1832. urtean Britainia Handiko portuetan sartu ziren itsasuntzi atzerritar eta ingelesak erlazioa 100eko 20koa izan zen.

301 Lehengaiak, oro har, merkeagoak dira Amerikan Europan baino; eskulanaren prezioa, ordea, askoz handiagoa da han.

302 Ez da uste izan behar untzi ingelesak atzerriko produktuak Ingalaterrara edo produktu ingelesak atzeritarren artera eramateaz bakarrik arduratzen direnik; gaur egun Ingalaterrako merkataritza-flota ibilgailu publikoen enpresa handi bat bezalakoa da, munduko ekoizle guztien zerbitzura eta herri guztiak elkarren artean komunikarazteko prest. Iparramerikarren itsas jeinuak ingeles enpresaren lehiakide litzatekeen beste bat eratzeraz bultzatzen ditu.

303 Mediterranioko merkataritzaren zati bat untzi amerikarretan egiten da dagoeneko.

304 Lehen-lehenik hauxe: herri askeek eta udal-araubidera ohituek besteek baino askoz errazago lortzen dute kolonia oparoak sortzea. Bere kabuz pentsatu eta gobernatzeko aztura ezinbestekoa da herrialde berri batean, non arrakasta neurri handi batean kolono bakoitzaren ahaleginen arabera baita derrigorrez.

305 Estatu Batuek bakarrik badute jadanik Europaren erdia bezalako zabalera. Europaren azalera 500.000 lekua karratukoa da; populazioa 205.000.000 biztanlekoa. Malte-Brun, VI. bol., CXIV. lib., 4. or.

306 Ikus Malte-Brun, VI. bol., CXVI. lib., 92. or.

307 Europakoaren proportziozko biztanleria da, lekua karratuko batezbeste 410 biztanle hartuz.

308 Mundu Zaharreko nazio guztien artean Errusia da, proportzioan, biztanleria bizkorren gehitzen duena.